


eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HISTORIA GARAIKIDEA SAILA

DOKTORETZA TESIA

Irun eta Hondarribiko Alardeak eta genero ordena
Ikuspegi historiko bat. 1993-2008

Ilargi Bengoetxea Gartzia
Zuzendaria: Miren Llona González

Gasteiz, 2022

AURKIBIDEA

Eskerrak	5
Sarrera	6
1. Auziaren egoera: Bidasoaldeko Alardeak aztergai	10
2. Oinarri teoriko eta metodologikoak	30
3. Ikerketaren iturriak.....	46
4. Kapituluak.....	50
1. Kapituluak. Genero ordenaren apurketaren ostean ezer ez zen berdin izango (1993-1996).....	54
1.1. Sarrera: Alardeak herria eraikitzen du eta herriak Alardea	54
1.2. Hondarribian zer edo zer mugitzen hasi da: emakumeek Alardean parte hartu nahi dute (1993-1995).....	63
1.3. Irunera zabaltzen da ezinegona eta Alardean parte hartzeko nahia (1995-1996).....	79
1.4. Genero ordenaren lehen eztanda: 1996ko Irungo Alardea	92
1.5. Hondarribiko 1996ko Alardeko eromena	107
2. Kapituluak. Dena izan zen posible baina gorputz <i>abjektua</i> eraiki zuten (1996-1997).....	113
2.1. Sarrera: mundu baten amaiera	113
2.2. Emakumeen berrantolaketa: <i>gertakariaren</i> alde eta aurka	126
2.3. Guztia bihurtu zen Alardeen konfliktu	142
2.4. Urratsez urrats, korapiloa estutuz	157
2.5. Jaizkibel konpainiaren sorrera irtenbide gisa	180
3. Kapituluak. Zer egin gorputz <i>abjektuarekin</i>: estigmatizatu edo kanporatu (1998-1999).....	198
3.1. Sarrera: zelatatu eta zigortu	198
3.2. Bi herri, bi Alarde: bereizketaren zigorra. 1998ko Irungo jaiak	213
3.3. Herri bat, Alarde bat: bazterketaren zigorra. 1998ko Hondarribiko jaiak	236

4. Kapitulua. Ordena zurruntzera bidean (1999-2000)	251
4.1. Sarrera: arazoa oraindik hor zegoen.....	251
4.2. Herri hauteskundeak eta alderdi politikoek irabazitako legitimitatea.....	255
4.3. Gizonez osaturiko Alardeen nagusitzea	261
4.4. Indarkeria normalizatu zenekoa	275
5. Kapitulua. Ordena aldatzeko saiakera berriak (2001-2002)	300
5.1. Sarrera: komunitate <i>abjektuaren</i> potentzialtasunak	300
5.2. Estrategia aldaketak	304
5.3. Pribatizazioek ordena blindatu zutenekoa.....	313
6. Kapitulua. Guztia galdu zutenean, edozer irabaztea litzateke (2003-2008)	328
6.1. Sarrera: hamar urte borrokan	328
6.2. Normalizazioa ezartzera bidean	329
6.3. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen mamua	338
6.4. Normaltasun faltsua eta horma berrien eraikuntza	252
6.5. Espainiako Auzitegi Gorena eta Berdintasunerako Legea desaktibatzea	359
Ondorioak	368
Bibliografia	377
Antolakuntzen lista eta siglak	389
Eranskinak	391

ESKERRAK

Atal hau idazteko orduan zaila egin zait hitzak topatzea, ideiak ordenatzea eta nire burua azaltzea. Hurrengo saiakera bat besterik ez da. Lehenik eta behin, nire tesi zuzendariari, Miren Llonari, eskerrak eman nahi dizkiot, hasieratik bukaerara arte nigan izan duen konfiantza eta pazientziagatik. Jarraian, Experiencia Moderna ikerketa taldeari eta Euskal Herriko Unibertsitateari emandako babesagatik. Itsaso Bidezabali zuzentzaile lanetan ibiltzeagatik. Artxiboko eta liburutegietako langileei behar eta nahi nuena ahalbidetzeagatik.

Elkarrizketatuei, haien denbora, bizipenak eta minak nirekin konpartitzeagatik. Urte luzeetan zehar etxea dokumentuz, aldizkariz eta egunkariz bete ondoren, niri bertan muturra sartzen utzi didaten eta anonimotasunean mantendu nahi izan diren bi emakumeei. 1996ko Alarde egunetan soldaduz desfilatzera salto egin zuten emakumeei eta urte luze eta gordinetan zehar tinko mantendu direnei, hondarribiar izatearen harrotasuna emateagatik, Hondarribia zen mundu arrotz eta arriskutsu batean babesgune izateagatik, etorkizun berriak amesten eta borrokatzen erakusteagatik.

Azkenik, lau urte hauetan gertu izan ditudanak gogora ekarri nahi ditut, militantzia kideak, lagunak, gertukoak, eta azkenik, etxeokak. Horiek izan dira egunerokotasunean sostengatu eta aurrera jarraitzeko indarra eman didatenak. Zuek gabe, ez nintzatekeen honaino iritsiko. Mila esker.

SARRERA

Alardearen inguruan ditudan lehen oroitzapenak oso nahasiak dira, denbora pasa ahala ulertzen eta kokatzen joan naizen memoria eta bizipenen multzoa. Herriko jaiak gatazkan soilik ezagutu dituen generazio baten parte naiz, eta nahita ez Alardearen konfliktoak bizitza gurutzatu eta posizio hartu behar izan dituenarena. Oso txikia nintzela, Alarde egunetan, hau da, Hondarribiko jaien egun handian, oporretara joaten ginela oroitzen dut, nahiz eta klase-kideek ilusioz kontatzen zuten Alarde hori ikusi nahi izaten nuen. Herria eraikitzen zuen errito nagusitik kanpo zegoen beraz nire familia, beste asko bezala, gizonez osaturiko Alardearekin bat egin ez zutenak izan baitziren. Ondoren ulertu nuen herri-komunitatetik *abjektuaren* esparrura kanporatu zituzten horien parte ginela, Alardean emakume¹ soldaduen alde egon, eta, beraz, genero ordena eta horrekin ordena soziala zalantzan jarri zituzten horien babesle izateagatik.

Egunero eskolara eramaten gintuen autobusean *el ocho de septiembre no desfilarán* kantatzen genuen guztiok, nik behintzat jakin gabe zer esan nahi zuen edo zeri egiten zion erreferentzia. Irailaren zortzian, Hondarribiko Alarde egunean, emakumeek desfilatuko ez zutela esaten ari ginen, ordea, oso argi geratuz zein zen hegemonikoa eta herriarena zen iritzia. Denbora pasa ahala kontziente izaten hasi nintzen Alardeetan emakumeek desfilatu nahi zutela, horren kontra herri guztia zegoela eta talka handia suposatzen zuela gaiak. Hamabi urte inguru nituenean klase-kide batekin gatazkaren inguruan hitz egiten ari nintzela, nire gurasoak ea Hondarribian jaiak ziren galdetu zidan. Ezetz erantzun nionean orduan ni ere *kanpotarra* nintzela esan zidan eta ezin nuela ulertu, ez iritzirik eman. Ondoren konturatzen joan nintzen nahiz eta gurasoak kanpoan jaiak gizonez osaturiko Alardearen alde zeudenak ez zituztela *kanpotar* kontsideratzen, eta, beraz, termino horrek beste esanahi bat zuela ezinbestean. Hau da, herri-komunitatetik kanporatutako disidentziari zilegitasuna kentzeko ezarri zioten estigmaren parte zela *kanpotar* terminoa, eta zerikusi gutxi zuela jaiotze leku eta bizitokiarekin, eta gehiago herri proiektu batekin bat ez egitearekin.

Urte horietan jada jaietan ez genuen herritik alde egiten, eta nire oroitzapen gehienak kasko, ezkutu eta pilota jaurtitzeko eskopetak zeramatzen ertzain askorenak dira, bai konpainien entseguetan eta bai Alarde egunean bertan Jaizkibel eskoltatzen. Jende multzo handiak ere oroitzen ditut, haserre eta tentsioan, oihuka eta ulertzen ez nituen irainak botaz. Nire klaseko eta lagunak nituen mutil asko Alardean ateratzen ziren, eta

¹ Emakume eta gizon terminoak eraikuntza sozial, kultural eta historiko gisa erabiliko ditut.

nik beraiekin desfilatzeko aukera ez izateak –egunerokotasunean eurekin guztia egiten nuenean, askotan neskekin baino gehiago– begien aurrean jarrarazi zidan desberdinak ginela. Hala ere, ez nuen ulertzen zergatik zen hain desberdina nik edota emakume batek Alardean gizonen jantzi bereberekin desfilatzea, eta garrantzirik gabeko aldaketa batek sor zezakeen guztiaren testigu izanda, ez nion inolako zentzurik ikusten gatazkari. Ondoren, urteekin, konturatu nintzen ez zela garrantzirik gabeko aldaketa bat, baizik eta ordena batean oinarrituta zegoen arau bat apurtzea zela. Arau hori zalantzan jartzeak guztia zalantzan eta arriskuan jartzea zekarrela, guzti hori ordena soziala izanik.

Plastiko beltzak oroitzen ditut hurrena, gu Jaizkibel konpainiaren atzetik manifestazioan eta konpainia mistoa babeste aldera Kale Nagusian minutu gutxitan eraikitako tunel ilunetik igarotzen. Ertzainez inguratuta eta tentsio handiko momentuak biziz. Plastik horiek bi mundu banatzen zituztela sentitzen nuen, eta beste aldean zeudenekin ez nuela ezer konpartitzen. Hori zen finean murreraren helburua, komunitate *abjektua* herriarekin ez nahastea, bi komunitate horiek banatzea, ordena soziala babestea. 2008ko Hondarribiko jaiak iritsi ziren, eta Jaizkibel konpainiaren entseguak ikusi bitartean, egun batetik bestera, bertan desfilatzeko erabakia hartu nuen. Hamalau urte nituen. Momentu hartatik aurrera, konpainia mistoaren jantzia janztearekin guztiz posizio hartu nuen, harrotasunez, baina jakinda jada ez zegoela atzera bueltarik. Jaizkibel konpainian desfilatzen hasi zen gazte generazioaren parte izan nintzen, Dut eta Fermin Muguruzaren *Bidasoa Fundamentalista* izan genuelarik soinu-banda.

Hondarribiko Alardearen gatazkarekin hazi eta hezi izan naiz, beraz, eta zentzu batean perspektiba eta marka horrekin ikusten dut mundua. Horrek nire ikerketa *kokatutako ezagutza* batetik egitea suposatu dit, ikertzen dudan horren parte naizenez, ikerketa objektuaren eta subjektuaren mugak lausoak izanik. Donna Haraway-ren tesiak jarraituz, ordea, ikerketa-gaiarekiko inplikazioa beti dagoela eta ikuspuntu neutrorik ez dagoela baieztatu dezakegu, eta nondik egiten dudan azaltzea ikerketa etikoki egiteko modua ere badela. Bestetik, Mari Luz Estebanek dioen bezala esperientzia propioa ezagutza iturri ere bada, eta ikertzen dugun hori ulertzeko eta analizatzeko balio digu. Alardeen konfliktoaren historia ikertzea izan dut helburu, eta nahiz eta egun konpondu ez den gatazka horren parte izan, zailtasunak identifikatuz eta abantailak aprobeztatuz ikerketa historiko zorrotza burutu dut.²

² Donna Haraway, *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinvención de la naturaleza*, Ediciones Cátedra, Madrid, 1995 [1991], 327; Mari Luz Esteban, “Antropología encarnada. Antropología desde una misma”,

Alardeak Hondarribi eta Irunen ospatzen diren jatorri erlijioso eta militarreko desfile folklorikoak dira, historian zehar testuinguruaren arabera etengabeko aldaketak izan dituztenak. Barne gatazka eta desadostasunak ugariak izan dira, baina autoafirmazio kolektiborako erritual bat ere bada, herri-komunitate horien nortasuna eta identitatea kanpora proiektatzen duena. Kohesionatzailea da, indibiduoak kolektibo baten parte, Alardearen parte diren heinean, eta horrekin lotuta, Alardea herri-identitatearen ardatz nagusienetako bat da, herri-komunitatea eraikitzen duelarik. 90eko hamarkadara Alardeak masifikatuta eta araututa iritsi ziren, udalak antolatu eta finantzatuta, gizon soldaduz eta emakume kantinerez osaturik. Gizonek, Hondarribian bost urtetatik eta Irunen nerabazarotik aurrera, bizitza osoan zehar desfilatu zezaketen. Emakumeek, berriz, bizitzan behin, eta aukeratuak izan behar ziren, baldintza batzuk betez gero.

1993an, nire tesiaren kronologiaren hasieran, Hondarribiko emakume batzuk elkartu, eta Alardean emakumeek gizonen baldintza berberetan ateratzearen helburuarekin, udalean eta Alardeko Juntan eskaerak egin zituzten, bilerak egin eta gaia mahaigaineratzeko. Urte pare bat beranduago, Irunen ere hasi ziren aldarrikapen berberarekin, baina ikusita aurrerapen gutxi egin zituztela, 1996ko Alardean berrogeita hamazazpi emakume soldaduz jantzita Irungo Alardean desfilatzen saiatu ziren. Hogeita sei emakumek berdina egin zuten Hondarribiko 1996ko Alardean. Erreakzioa berehala gauzatu eta Alardeetatik kanporatu zituzten, irain, oihu eta bultzada bitartez. 1996an dimentsio handiak hartuko zituen gatazka lehertu zen, eta hori nola gauzatu zen ikertzea da nire helburua.

Hipotesi nagusia emakume horiek Alardean soldadu gisa sartzeak genero ordena zalantzan jarri zuela da, eta horrekin batera ordena soziala. Emakume horiek Alardeetatik kanporatu zituzten, baina baita herri-komunitatetik ere, eta ordena soziala salbu mantentzeko mekanismoak antolatzen hasi ziren. Kolektiboetatik hasita, alderdi politiko eta instituzio lokalen konplizitatea izan zuten, eta Alardeen pribatizazio bitartez, auzitegi eta indar polizialen babesa lortu zuten. Emakumeek Alardeetan desfilatzeko eskubidea zutela pentsatzen zutenak, ordea, ez ziren inongo momentuan errenditu eta borrokan jarraitu zuten. 2008an amaitu dut ikerketaren kronologia, fase baten amaiera izan baitzen, Espainiako Auzitegi Gorenak pribatizatutako Alardeen

Papeles del CEIC, 12. zkia, 2004; Mari Luz Esteban, *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*, Bellaterra, Bartzelona, 2013 [2004]; Gabriel Gatti, *El detenido-desaparecido. Narrativas posibles para una catástrofe de la identidad*, Trilce, Montevideo, 2008, 14.

legalitatea onartu baitzuen, gizon soldaduz eta emakume kantineraz osaturiko Alardeak guztiz blindatuz, eta horrekin batera, ordena soziala indartuz.

Ikerketa honen helburu nagusia perspektiba historiko batetik Alardeen gatazka ikertzea izan da, testuinguruarekin erlazioan jarriz eta elkar eragin zuten prozesu multzo gisa ulertuz. Horretarako nola gertatu zen azalduko dut, bertan eragin zuten botere logikak analizatuz eta konfliktoan parte hartu zuten agenteen arteko indar korrelazioak erreparatuz. Gizarte garaikideetan ordena soziala genero ordenak sostengatzen duen hipotesia oinarritzat hartu dut, eta horrekin sexu eta genero antolakuntza bitarrak harmonia eta egonkortasuna ematen diola sistema sozial, produkzio modu kapitalista eta bertan garatzen diren harreman sozialei. Horregatik, genero ordena zalantzan jartzeak edo apurtzeak eragina du ordena sozialean, eta ezegonkortasuna eta kaosa gailendu daiteke, ondorioz. Horri aurre egiteko, hau da, finean, ordena berrezartzeko, estigmatizazio eta kriminalizazio prozesuak erabilgarri izaten dira. Prozesu horien bitartez herri-komunitatetik arriskua ezabatu edo kanporatzen dute, eta gainontzekoak mehatxatzeko balio dezake, ordena mantendu ezean gertatu ahal zaiena aurreikusteko. Indarkeriak eta emozioen zirkulazioak bertan nola artikulatu ziren analizatzea ere izan da helburuetariko bat eta prozesua ulertzen laguntzeko tresna.

Bestetik, 90eko hamarkadako mundu mailako aldaketek, eta horien ondorioz, maila lokalean izandakoek eragindako ezegonkortasunak eta etorkizun ezezagunak sortutako beldurraren aurrean, Alardearen aldaezintasunari eutsi ziotela planteatu zuen Teresa del Vallek, emakumeak kanporatzeko orduan. Horri jarraituz tradizio eta erritoez herri eta nazioen eraikuntzan izan zuten papera ikertu dut, ematen duten segurtasun eta babes sentzazioari erreparatuz. Izan ere, errito eta tradizioek ezberdintasun sozialak estali ditzaketela planteatzen dut, geroz eta prekarioagoa den errealitatearen aurrean ageriko babesa emanez. Horiek arriskuan jarriz gero, estaltzen dituen ezberdintasun sozialak agerian geratu daitezke, eta horrela gatazkak dimentsio handiagoak hartzen ditu. Hori kontutan harturik, generoari zegokion aldarrikapen feminista batek sortutako gatazkak nola gizartearen oinarriak zalantzan jarri zituen azalduko dut.

Bestetik, herri-komunitateen kohesioaren oinarriak eta gatazken aurrean homogeneotasunerako duten joera analizatu dut, komunitatetik disidentzia kanporatzea eta *beste*a sortzea izanik hori babesteko modu posiblea. Generoa, klasea eta nazioa gatazkan nola gurutzatu eta artikulatu ziren ikustea XX. mende amaierako eta XXI. mende hasierako euskal gizartearen ezagutzeko modua izan da. Bide horretan, instituzio

lokal eta autonomikoez, alderdi politikoez, indar polizialez, legeez, auzitegiez eta mobilizazio sozial eta feministak izan zuten paper eta funtzioa analizatu ditut. Horrekin batera, genero ordenaren apurketak eta ondorioz sortu zen gatazkak hegemonia politikoa nola eraikitzen zen ikertzeko balio izan digu, neutraltasunaren atzean zer ezkututzen zen mahaigaineratuz eta ageriko unibertsaltasuna zein partzialtasunez osaturik zegoen ikusiz. Azkenik, herriaren errito baten inguruan sortutako gatazka pribatizatzeak, hau da, esparru publikotik pribatura eramateak konfliktua despolitizatzea ekarri zuela planteatzen dut, feminismoak aurreko hamarkadetan salatu zuena agerian utziz. Hau da, espazio pribatua desberdintasun eta dominazioa erreproduzitzen eta naturalizatzen zen leku iritsezina eta aldaezina zela.

1. Auziaren egoera: Bidasoaldeko Alardeak aztergai

Alardeen konfliktua 1996an lehertu aurretik Hondarribiko eta Irungo Alardeen inguruan idatzitako lanek batez ere horien jatorri eta historia zuten aztergai. 1901ean Serapio Múgicak idatzitako *Alarde de San Marcial: origen y detalles*³ liburutik hasita, 70eko eta 80ko hamarkadan Javier de Aramburuk, Felipe Iguñizek eta Antonio Aramburuk egindako lanak aipagarrienak izanik.⁴

Múgicaren liburua 2003an Irungo Kasinoa elkarteak berreditatu zuen, eta aurkezpenean Irungo herria eta herritarrenganako errespetua eta admirazioa azpimarratzen dira, eta nola guztia aldatu zen bitartean San Martzial jaiak mantendu ziren, horrek sentimendu eta konbikzio handiak eraginez. 1522ko eta 1813ko San Martzial batailak Alardearen jatorri gisa kokatzen ditu Múgicak, eta bere garaiko Alardea, XX. mende hasierakoa, deskribatzen du.

Bestetik, 70eko eta 80ko hamarkadako lanetatik interesgarriena Antonio Arambururena da. Bertan Irungo Alardearen jatorria milizia foraletan dagoenaren tesi berritzailea defendatzen du. Horrek eztabaida handiak sortu zituen hurrengo urteetan eta 90eko hamarkadako konfliktuan. Izan ere, historialari batzuek, Xabier Kerexeta eta Sagrario Arrizabalaga tartean, milizia foralen kontakizuna, alde batetik, euskal nazionalismoaren

³ Serapio Múgica, *Alarde de San Marcial: origen y detalles*, Imprenta y Encuadernación de J. Baroja e hijos, Donostia, 1901.

⁴ Javier de Aramburu, *Ondarrabiko Alardea*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1976; Felipe Iguñiz, *Un día de San Marcial en Irún*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1979; Antonio Aramburu, *Orígenes del Alarde de San Marcial: Las milicias forales*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, 1987.

indartzearen baitan kokatzen dute: 1522 eta 1813ko batailak espainiar mugen defentsarekin eta 1522koa Nafar Erreinuaren kontrako batailaren ospakizunarekin erlazioan zeudenez, euskal nazionalismoarentzat deserosoa zen, eta horregatik indartu zuten milizia foralaren diskurtsoa. Beste aldetik, milizia foralak Alardearen jatorria izanik eta horiek gizonezkoek soilik osatuta zeudenaren argumentua erabiliz, Alardean emakumeen parte hartzearen kontrako postura defendatzea ahalbidetu zuen.

Sagrario Arrizabalaga Marínek idatzitako *Alarde de San Marcial: origen y evolución* liburua hemen aipatuko dut, nahiz eta 2006an kaleratu, bere 700 orri baino gehiagoko lanean 90eko hamarkadako gatazkari orri batzuk bakarrik eskaintzen dizkiolako. Liburu horretako sarrera José Antonio Murga Martínezek egiten du, Irungo Kasino elkarteko presidenteak eta honako hau dio: “La lectura del libro le recordará el relevante papel de Irún y sus gentes en la historia, presentes en muchos de los acontecimientos principales que formaron Europa a lo largo de los siglos.”⁵ Arrizabalagak, alde batetik, Gipuzkoako eta Irungo erregelamenduzko Alarde eta arma erakustaldien historia eta eboluzioa azaltzen ditu, XVI. mendetik hasita XVIII mendera arte. Bestetik, San Martzial bataila eta horren omenez eginiko prozesioen jatorri eta garapenaz hitz egiten du. Azkenik, Alarde folkloriko berriaren eta San Martzial Alardearen historia eta aldaketak ikertzen ditu, XIX. mende erdialdetik hasita XX. mende amaiera arte.

Nahiz eta 90eko hamarkadako gatazkaz gutxi hitz egin, aurreko hamarkadetako Irungo Alardeko aldaketa eta barne tirabirak azaltzen ditu, oso baliagarriak direnak 90eko hamarkada testuinguruan jartzeko, lehenagotik zeuden gatazkak ulertzeko eta nola eboluzionatu zuten ikusteko. 60ko hamarkada masifikazioaren hasiera gisa izendatzen du, eta horrekin jai aspektuak garrantzia hartuz joan zela dio, batzuek horren kontra eta beti ezagutu zuten Alardea mantentzearen alde egin zutelarik. 70eko hamarkada, berriz, aldaketaz beteriko etapa izan zen, non emakumeek soldaduz parte hartzeko lehen eskaerak egin ziren. Ordenantzetan, zeremonian, janzkeran eta musikan aldaketak egin zituzten, guzti hori trantsizioaren testuinguruan. 1976 eta 1979ko Alarde egunetako polemikak ere azaltzen ditu. 80ko hamarkada, ordea, Alardearen jatorriaren teoria foralista inposatu zen garaitzat hartzen du, eta politika eta Alardearen arteko erlazioak azaldu. Azkenik, 90eko hamarkadara ailegatzen gara, eta bi Alardeen sorrera aztertzen du, bai eta hamarkada hasierako giroa ere:

“Hasta mediada la década de 1990 en que estalló el conflicto, si algo caracterizó

⁵ Sagrario Arrizabalaga Marín, *Alarde de San Marcial: origen y evolución*, Casino de Irún, Irun, 2006, 13.

al Alarde fue la planificación hasta el mínimo detalle, circunstancia que venía dándose desde hacía bastantes años aunque es ahora cuando se materializó de forma integral, sin dejar cuestión alguna al azar (...)"⁶

90eko hamarkadatik aurrera batez ere, eta salbuespenak salbuespen⁷, konfliktoak sortu zuen polemikaren inguruan idatzi zen: egunkarietako iritzi artikuluetatik hasita lan akademikoetaraino, eta tartean egon daitezkeen forma guztietan hitz egin zen gai horren inguruan. Egunkarietako idatziak lehen mailako iturri gisa erabiliko ditut, beraz, atal honetan ez doakit horien inguruan idaztea. Hemen, diziplina ezberdinetatik Alardeen konfliktoaren inguruan egin ziren ikerketak aztertuko ditut, eta horretarako, bi multzotan banatuko ditut datozen lanak. Alde batetik, antropologiatik eta batez ere antropologia feministatik, bai Alardearen konfliktoa eta bai Euskal Herriko festen inguruan egindako lanak, eta bestetik, beste guztiak. Horrela banatzea erabaki dut antropologiatik lan ugari kaleratu direlako konfliktoaren hasieratik gaur egunera arte, eta lan horien artean badagoelako erlazio eta jarraikortasun bat, diziplina konpartitzen dutelako, baina batez ere ikerlari eta ikerketa talde berberak egin dituelako. Atal honetan sartu ditut Euskal Herriko festen inguruan antropologia feministatik egindako lanak, Hondarribiko eta Irungo konfliktoak hartu duen magnitudeagatik Alardeak presente daudelako lan horietan, eta horrez gain, metodologia eta diziplina konpartitzen dutelako: lan horietan Alardea festaren kontzeptu eta teorizazioaren baitan kokatzen dute. Hortik kanpo egindako lanek edukiaren edota diziplinaren artean ez dute erlazio handirik. Lan solteak dira eta jarraikortasun gutxi dute, antropologiako multzoan sartu ditudanekin konparatuta behintzat.

Antropologia feministatik Alardearen konfliktoa eta Euskal Herriko festak ikergai

Antropologia feministatik Alardeen konfliktoaren inguruan kaleratu zen lehen lana 1997an izan zen, Margaret Bullen antropologoaren "Las mujeres y los Alardes de Hondarribia e Irún"⁸ artikulua, hain zuzen. 1997an kaleratu bazen ere, artikuluan adierazten duenagatik 1996ko Irungo Alarde egunean gertatutakoa soilik ezagutzen zuen, 1996ko Hondarribiko Alarde eguna oraindik pasa gabe zegoelarik. Lan horretan, batez ere, Alardeetan emakumeen parte hartzearen inguruan sortutako eztabaidaren

⁶ Ibidem, 549.

⁷ Hemen aipatu beharko genituzke batez ere konpainien urteurrenetan argitaratutako liburuak, argazkiz, datuz eta bitxikeri deskontestualizatuz beterik baina konfliktoaz ezer esaten ez dutelarik.

⁸ Margaret Bullen, "Las mujeres y los Alardes de Hondarribia e Irún", *Arenal* 4, 1.zkia., 1997, 123-145.

argumentuen termino eta kontzeptuak analizatzen ditu. Alde batetik, emakumeak Alardeetan ateratzearen aldarria eta argumentu nagusia eskubidearena zen, Emeki eta Bidasoaldeko Emakumeek aurrera eramane zutena, Arartekoaren eta Emakunderen babesarekin. Bestetik, historia eta tradizioaren kontzeptuak nola desberdin ulertu eta erabili zituzten emakumeen parte hartzearen alde zeudenek eta kontra egin zutenek. Alarde mistoaren aldekoek Alardeen jatorri ziren batailetan emakumeen parte hartzea existitu zela aldarrikatu zuten, eta tradizioa garai eta gizarte ezberdinetara moldatzen zela, tradizioak aldaketa berezkoa izanik. Emakumeek soldaduz parte hartzearen kontra zeudenek, berriz, emakumeen parte hartzea ez zela soldadu gisa izan argudiatzen zuten, eta gainera, milizia foralei Alardeen jatorri gisa ematen zieten garrantzia, bertan emakumeek parte hartzen ez zutela azalduz. Tradizioa modu immobilista eta aldaezin batean ulertu zuten, aldaketak tradizioaren suntsiketa suposatzen zuela pentsatuz.

Argudio eta eztabaida horien atzean, emakumeak soldaduz ateratzearen kontrako erreakzioa emakumea estruktura asimetriko baten baitan kokatzen jarraitzearen nahia zegoela ondorioztatzen du, balio sistema batek sostengatuta eta identitate lokal konkretu baten ikuspuntupean. Eta gehitzen du ezarritako ordenari heltzeak mundu modernoak zekartzan aldaketei aurre egitea ahalbidetu zuela.

Urte horren bukaeran bertan Bullenek beste artikulua motz bat argitaratu zuen, "Identidad y género en los Alardes de Hondarribia e Irun"⁹ izenekoa. Bertan pintzelada batzuk ematen ditu, hurrengo urteetan jorratu eta sakonduko dituen hipotesi eta ideien inguruan. Besteak beste, generoa eta identitateen inguruan, aldaketaren aurreko erresistentziak gizarte patriarkalak emakumeei ezarritako lekua mantendu nahi zuela eta aldaketen aurrean Alardeak identitate eta segurtasun bat ematen zuela. *Bestearen* eraikuntza ere aipatzen du, bai eta Alardea eta nazionalismoaren arteko erlazio problematikoa.

Teresa del Vallek 1997an argitaratu zuen *Las mujeres en Euskal Herria* liburuan, Hondarribia eta Irungo Alardeen borroka mugari feminista gisa markatu zituen, data goiztiar horretan, 1977ko Leioako jardunaldi feministekin eta 80ko hamarkadako Basauriko epaiketekin batera. Bertan, bakoitzaren gorputzaren gaineko erabakia hartuta eta festan protagonista bezala sartzearekin, hiritartasunaren eskubide propio bat aldarrikatu eta egikaritu zutela azpimarratu zuen. Gainera, hiri handietatik borroka

⁹ Margaret Bullen, "Identidad y género en los Alardes de Hondarribia e Irun", *Ankulegi*, 1. zkia, 1997, 37-40.

feministaren protagonismoa mugako bi herrietara lekualdatu zen, eta gero azalduko dugun hipotesia planteatu zuen:

“El Alarde en este sentido adquiere una importancia primordial como anclaje en el tiempo y de cara al futuro inestable. (...) que exprese la necesidad de controlar la identidad colectiva frente a la reestructuración que están viviendo y a la inestabilidad aguda que la desaparición de la frontera haya podido suponer en su medio.”¹⁰

Bestetik, tradizioen gaineko kontrolak gizartean aldatu behar denaren eta mantendu behar denaren gaineko kontrola ere suposatzen duela esaten du, eta emakumeek tradizioaren babesle gisa markatu zaien paperetik Hondarribi eta Irunen guzti hori ezegonkortu eta zalantzan jarri dutela.

Del Vallek berak, urte bereko identitate nazionalaren eraikuntzaren inguruko artikuluan batean,¹¹ tradizioa eta Hondarribi eta Irungo Alardeetako polemika nazionalismoaren inguruko ikerketetatik aztertu behar direla esaten du.

1999an William A. Douglass-ek beste batzuekin batera editatutako *Basque Cultural Studies* liburuan Bullenen “Gender and Identity in the Alardes of two Basque Towns”¹² kapitulua dago. Bertan, lehenik eta behin 1996, 1997 eta 1998ko Alardeetan gertaturikoa azaltzen du. Ondoren, emakumeak Alardeetan ateratzearen aldeko eta kontrako argudioak analizatzen ditu, aurreko artikuluan bezala, eskubideak, tradizioa, historiaren eta gehiengo/gutxiengo kontzeptu eta esanahiak azalduz. Jarraian, identitate lokalaren eta genero-harremanen gaian sartzen da, maskulinitate eta feminitateen eraikuntza ikertuz, eta bertan kantineraren papera eta ama eta emazte rola duten garrantzia azpimarratuz. Aspektu guzti horiek hurrengo artikuluetan garatzen dituzenez, bertan aztertuko ditugu.

Urte horretan bertan “La construcción de género en el discurso sobre los Alardes de Irun y Hondarribia”¹³ idatzi zuen Bullenek. Bertan emakume eta gizon eredu hegemonikoak zalantzan jartzeak sortu zuen konfliktoa ikertzen du, eta nola emakume eta gizon izateko modu alternatiboak demonizatu eta estereotipatu zituzten Alardeetan

¹⁰ Teresa del Valle, *Las mujeres en Euskal Herria. Ayer y hoy*, Orain, Bilbo, 1997, 92.

¹¹ Teresa del Valle, “El género en la construcción de la identidad nacionalista”, *Ankulegi* 1. zkia., 1997, 9-21.

¹² Margaret Bullen, “Gender and Identity in the Alardes of two Basque Towns”, William A. Douglass et al., *Basque Cultural Studies*, University of Nevada, 1999, 149-178.

¹³ Margaret Bullen, “La construcción de género en el discurso sobre los alardes de Irun y Hondarribia”, *Ankulegi*, 3. zkia., 1999, 53-61.

emakumeak sartzearen kontrakoek.

“El efecto de estos estereotipos es la consolidación del rechazo de las mujeres en el desfile, concebido en términos de la negativa a un cambio indeseable porque es un cambio propugnado por un grupo de personas indeseables que cuestionan o contradicen el concepto hegemónico de ser hombre o mujer en nuestra sociedad y por lo tanto amenazan el orden social establecido.”¹⁴

Bullenen hurrengo lana *Perspectivas feministas desde la antropología social* liburuan publikatu zen, “Hombres, mujeres, ritos y mitos: los Alardes de Irún y Hondarribia” izenburupean. Ikerketa horretan Alardea errito gisa kontzeptualizatzen du, eta horrek zuen esanahi sinbolikoa historiak emakume eta gizonen rolen inguruan sortzen zituen mitoekin batera aztertzen du, Alardeetan emakume eta gizonen modu parekidean ateratzearen kontrako arrazoiak azaltzeko helburuarekin. Alardeen konfliktua emergentzia etnografikotzat hartzen du, hau da, gertakari horiek kokatzen ziren errealitate soziala ikertzeko tresna gisa. Estructura sozialaren baitan eta ordena sozialaren eta ordena sinbolikoaren arteko erlazio dinamikoan, genero sistemak kokatzen ditu, eta aipatzen du ordena sozialean emandako aldaketek ordena sinbolikoan eragiten zutela, baita alderantziz ere.

(...) la introducción de cambios en el ritual modificaría los sistemas de género, de prestigio y de poder, es decir, el universo simbólico donde las mujeres tienen asignaciones fijas más vinculadas a la institución familiar que el asociacionismo o a la organización del poder en las instituciones políticas.¹⁵

Festak sektore dominanteen kontrolaren baieztapenerako tresna ziren, baina, aldi berean, espazio publikoan protagonismoa ez zutenen aldarrientzako espazio bezala ere ulertu behar dira. Alardearen erritoak sentimenduekin eta identitateekin zuen harremana aztertzen du eta nola eraiki zen herri identitatea emakumeak Alardean ateratzearen kontrako sinonimo gisa, eta horren parte izateko gizartearen normak eta feminitate eta maskulinitate eredu hegemonikoak gorpuztearen beharra mahaigaineratzen du. Feminitate hegemonikoa Alardean matriarka gisa –euskar matriarkatuaren ideiarekin lotuta– edo objektu gisa –kantineraren figura– eraiki zen, eta Alardeetan parte hartu nahi zuten feministak, berriz, horren antitesi bihurtu zituzten, herritik kanporatuz.

¹⁴ Ibidem, 61.

¹⁵ Margaret Bullen, “Hombres, mujeres, ritos y mitos: los Alardes de Irún y Hondarribia”, Teresa del Valle (ed.), *Perspectivas feministas desde la antropología social*, Ariel Antropología, Barcelona, 2000, 51.

Horretaz gain, hipotesi interesgarri bat planteatzen du: aldaketa sozioekonomikoen eta horiek eguneroko bizitzan zuten ondorioen aurrean, Alardeak egonkortasuna eta segurtasuna ematen zuen, eta hori emakumeen kontrako erreakzioa ulertzeko beste klabe bat izan daiteke. Gainera, emakumeak Alardeetan ateratzearen kontrako jarrera statu quo mantentzeko ahalegin batean kokatzen du, dominanteak ziren arau sozialetatik kanpo kokatzen zen guztia gutxietsi eta baztertuz.

2003an, aurreko artikuluetan aipaturiko hipotesi bati jarraiki, “Transformaciones socio-culturales y la recreación de una fiesta” artikulua idatzi zuen. Bullenek azaltzen duenez, lehenik Teresa del Vallek 1996an planteatu zuen espainiar Estatua Europar Batasunean sartzeak ekarri zuen mugaren eta aduanen desagerpena eta horrek sorturiko desestabilizazioen aurrean Alardeak batasun lokalaren funtzioa bete zuela. Alde batetik, aldaketa sozio-ekonomiko horiek legitimatzeko diskurtso dinamiko eta optimista sortu zuten Irunen –udalaren partetik, batez ere–, aldaketa demokratiko eta parte hartzaile bezala aurkeztuz, baina, bestetik, Alardearen gaian diskurtso hori guztia aldatzen zen tradizioaren kontserbazioaren ideia hegemoniko bihurtuz eta kanpotik zetozen influentzia kolonizatzaileen aurrean Alardea babesteko deia eginez. Horrela, *bestearen* eraikuntza Alardearen konfliktoaren inguruan egin zen:

“El hecho de querer efectuar el cambio es suficiente para excluir a una persona de la categoría irunesa, a pesar de ser «una hija del pueblo» su empeño en contradecir la voluntad mayoritaria ha demostrado «un desconocimiento de su gente».”¹⁶

Herriaren parte izateko, ezinbestekoa bihurtu zen Alardean emakumearen parte hartzearen kontrako jarrera izatea. Herria kontzeptua soberaniarekin loturik agertzen zen, eta horrek emakumeen parte hartzearen aldeko sententzia eta instituzioen gainetik kokatzen zuten jarrera tradizionalista. Bestetik, Alardearen konfliktoak hartutako dimentsioa ikusteko, Bidasoaldean eginiko manifestazio desberdinak konparatzen ditu: Alarde tradizionalaren aldekoek beste edozein aldarrikapeneko mobilizazioek baino jende gehiago bildu zuten, eta askorentzat Alarde tradizionalaren defentsa izan zen haien bizitzetan lehen aldiz mobilizatu eta antolatu ziren aldia. Eta azkenik, 2000. urtean kaleratutako lanean aipatzen zuen ildo beretik, Alardearen konfliktoa emergentzia etnografikotzat hartzen du, ordura arte ezkutuan edo oharkabean pasatu zen

¹⁶ Margaret L. Bullen, “Transformaciones socio-culturales y la recreación de una fiesta”, *Zainak*, 24. zkia., 2003, 947.

errealitate sozialaren aspekturen bat mahaigaineratu eta gizartea ikertzeko tresna gisa hartuz.

Urte berean, 2003an, *Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Irún y Hondarribia* liburua argitara atera zen, Bullenek José Antonio Egidorekin batera idatzitakoa. Sarreran aurreko artikuluetan azaldutakoa esplikatzen dute: emergentzia etnografiko bezala ikertzeko asmoa, Alardeak eta jaiak dituen dimentsioak gizartearen isla direla eta generoak antolakuntza sozial guztia gurutzatzen duela, besteak beste. Jarraian Hondarribi eta Irungo testuingurua azaltzen dute: aspektu demografikoak, familiaren antolakuntza, estruktura ekonomiko eta laborala, krisia, bizi kalitatea eta zerbitzu sozialak, hizkuntzaren erabilera eta hauteskundeetako botoak. Aurretik beste lanetan aipaturiko hipotesiari heltzen diote atal honetan:

“Una hipótesis que hemos manejado en nuestra reflexión es que el cambio propuesto en el Alarde se resiste tan enérgicamente, porque frente a otros cambios de gran envergadura en el ámbito económico y político y que quedan fuera del control de la población, la fiesta permanece de una manera dentro de su dominio y ocupa un espacio simbólico que se resiste a las dificultades de la realidad cotidiana.”¹⁷

Ondoren, konfliktoaren kronikaren atala dator, eta bertan 1993an Emekik hasi zuen bidearekin hasi eta 2002an bukatzen dute kontakizuna. Batez ere, Alarde egunetako gertakariak, udalen eta partidu politikoen posizio eta jarrerak, Alardeen pribatizazioak, istiluak eta poliziaren jokaerak kontatzen dituzte, era kronologiko batean. Jarraian, liburuaren orrialde gehienak hartuz, konfliktoaren azalpena bertan parte hartu zuten aktore eta argumentuen bitartez eta konfliktoaren arrazoiak politikarekin eta genero-sistemekin erlazioan jarriz analizatzen dituzte.

Alardea ordena soziala erreproduzitzen duen erritual gisa definitu eta ikertzen dute. Alardeko hierarkia, mando eta kantinerak egunerokotasunean eta bertako estruktura sozialean botere eta prestigio baten isla zirela diote eta klase sozialarekin eta prestigiodun familiekin erlazioan jartzen dituzte. Batez ere, 80ko hamarkadatik Alardeetako goi postuak zeintzuk okupatu zituzten eta kantinerak zeintzuk izan ziren analizatzen dituzte eta horien ondorioz egondako barne tirabira edo iritzi kontrajarriak. Zentzu horretan, emakumeen parte hartzearen aurrean Alardeko mandoek beren boterea

¹⁷ Margaret Bullen eta José Antonio Egido, *Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Irún y Hondarribia*, UPV/EHU, Bilbo, 2003, 49.

defendatu zuten, Alardean eta gizartean zuten prestigiozko posizioa eta protagonismoa mantendu nahian. Izan ere, Alarde mistoen aldekoen iritziz, emakumeak Alardean desfilatzeak ezinbestean Alardeen demokratizazio bat ekarriko luke:

“Tanto en la consideración del papel de los mandos como el de la cantinera, se ve reflejada un orden social regido por un reducido número de familias que defienden sus privilegios y prestigio contra un movimiento que aboga por más igualdad, más democracia, más participación en el Alarde. (...) El Alarde, para ellos representa algo más que un día, es el motor de toda una dinámica social que dirige sus acciones y relaciones durante todo el año y, por lo tanto, el cambio propuesto en el desfile en sí repercute en un radio mucho más amplio de la vida y la estructura social.”¹⁸

Jarraian, Bullenek bere lehen artikuluan, 1997an, azaldu zituen Alarde mistoaren aldekoen eta kontrakoen argumentuetan sakontzen du, eta historia eta tradizioaren erabileraren inguruko analisia egin. Alardeetan atera nahi zuten emakumeek haien herriko jaietan parte hartzeko desira eta eskubidea aldarrikatu zuten. Kontrakoen argumentu nagusia gehiengoak gizonezkoen Alardea nahiago zuela da, eta politika eztabaidatik kanpo uztearen beharraz jarduten zuten, Alardeen estetika eta horrekiko sentimenduak defendatzeaz. Bestetik, emakumeak 1996an Alardeetan sartzea ekintza barkaezintzat hartu zuten, “gauzak horrela ezin direla egin” argudiatuz.

Azkenik, konfliktuaren kausa sakonak mahaigaineratzen dituzte, eta horretarako Alardeen marko politikoa eta nazionalismoen eraikuntzaren analisia beharrezkoa dela esaten dute. Euskal Herriko testuinguru gatazkatsuan Alardea ideologiarik eta politikarik gabeko edo kanpoko espazioan kokatu zuten horren kontrola zutenek, eta 1996an horretaz baliatu ziren, aldaketak ukatzeko eta aldaketaren aldekoak ideologizatuak zeudela esateko. Edozeren gainetik Alardea harmonian, batasunean eta neutraltasunean oinarritzen zenaren ideia zabaldu eta defendatu zuten. Partidu politikoen inguruan, berriz, emakumeen parte hartzearen aldeko eta kontrakoen arteko ardatza ezker-eskuinarena izan zela diote eta ez nazionalismo ezberdinena.

Bestetik, genero-sistemak eta maskulinitate eta feminitatearen eraikuntza sozialak konfliktuan jokatzen zuten papera bai eta nazionalismoaren eta politikaren diskurtso eta praktikak nola gurutzatzen zituen azaltzen dute. Bertan, Alardean proiektatzen den

¹⁸ Ibidem, 126.

emakumetasun eredu hegemonikoa euskal matriarkatuaren ideiarekin zein lotuta dagoen azaltzen dute, eta gizontasun hegemonikoa, berriz, gizonen protagonismoarekin, aspektu militararekin, gizon festarekin eta horien bidez transmititzen eta erakusten diren balioekin.

Gorka Moreno Márquez-ek eta Xabier Kerexeta Errok 2005ean koordinatu zuten *Bidasoaldeko Alardeak: Herria versus Hiria* liburuan Bullenek antropologiatik idatzitako kapitulu bat dago. Aurretik landutako guztia ikertzeaz gain, jaiaren dimentsioak sakonago aztertu eta erlatibismo kulturalaren atzean ezkututzen zena mahaigaineratzen du. Alardea da Hondarribiko eta Irungo pertsona askorentzat nortasun-zantzurik nabarmenena. Kanpora irudi bat proiektatzeaz gain, jaiaren beren nortasunean, komunitatearen eraikuntzan txertatzen da, maila lokalean lankidetzaren eta esperientzia sozial bat konpartitzearen sententzioak bermatuz.¹⁹ Jaiak “denboraz kanpoko denboran” kokatzen ditu, eta azaltzen du nola horrek denbora profanoa hausten duen, jaiaren denbora sakralizatuz. Guzti horrek komunitatea eraikitzen du, baina ez ditu beti gatazkak ekiditen, gure kasuan ikusten dugun bezala, nahiz eta Alardeek ordena soziala erreproduzitzen zuten emakumeak bertan soldaduz parte hartu nahi izateak izugarriko konfliktua sortu zuen, bai denbora sakratuan baina baita ere denbora profanoan. Alardeak herri-komunitatea eraikitzen zuen heinean, herriaren mugak ezartzen zituen, eta horregatik, gatazka hau *bestearen* eraikuntza ikertzeko oso baliagarria zaigu.

Bullenen hitzetan bai antropologian eta bai nazioarteko foru, gobernu eta erakundeetan eztabaida handia zegoen kapitulua idazterako momentuan, eskubide unibertsalen eta erlatibismo kulturalaren inguruan. Alardeen gatazka ere marko horretan kokatzen du; izan ere, Alardeetan emakumeen parte hartzea ukatzeko bertako tradizioaren berezitasun kulturala aldarrikatzen zen, eskubide unibertsalen ikuspegitik hurbilpena egitea kanpo inposizio gisa ulertuz. Maqueirari²⁰ jarraituz, diskurtso erlatibistak kultura zerbait homogeneo, harmoniko eta testuingurutik isolatutako osotasun gisa aurkezten zela dio, pertzepzio esentzialista eta estatikoa izanik, eta horren atzean gizonen kontrol eta botere-harremanak ezkutatu. Horrela, kultura ekintza sozialaren bitartez eraikitzen dela

¹⁹ Margaret Bullen, “Eskubide unibertsalak ala kultur berezitasuna: ikuspegi antropologiko bat”, Gorka Moreno Márquez eta Xabier Kerexeta Erro (koord.), *Bidasoaldeko Alardeak: Herria versus Hiria*, UEU, Donostia, 2005, 22.

²⁰ V. Maqueira D’Angelo, “Cultura y derechos humanos de las mujeres”, Pilar Pérez Cantó (koord.), *Las mujeres del Caribe en el umbral del 2000*, Comunidad de Madrid, Dirección General de la Mujer, Consejería de Sanidad y Servicios Sociales, Madril, 1998, 171-203.

defendatzen du Bullenek, eta egitura soziala islatu, baieztatu, kuestionatu edota astintzen duela. Zentzu horretan eta erlatibismo kultural horren kontra-posizioan, konfliktoan hasieratik, emakumeen parte hartzearen aldekoek giza eskubideen markoan kokatu zuten eztabaida eta borroka. Horren kontrako erreakzioak, tradizioaren eta bertako kulturaren defentsaz gain, beste gauza asko erakusten dizkigu:

“Horrek jai baten aldaketaren oposizioa, antzinako tradizio baten gaurkotzea, erritual sakratu baten berritasuna baina askoz maila sakonagoko errefusa adierazten du; ezarritako genero-sistema eraldatuko lukeen berritasuna onartzeari, finkatutako botere eta prestigioetan amore emateari, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ametitzeari uko egiten zaio.”²¹

Hurrengo lana Margaret Bullenek eta Carmen Díez Mintegui kaleratu zuten, “Fisiones/fusiones: mujeres, feminismos y orden social” izeneko kapitulua. Bertan, Alardeen eta Ahotsak proiektuaren bitartez genero harremanak nola eraikitzen diren ikertzea zen helburua, eta horren bitartez, identitate nazional eta lokalak. Guri interesatzen zaigun Alardeen gaien hau diote:

Por otro lado, en una publicación que recoge artículos de distintas autorías (Moreno y Kerexeta (coord.), 2006), se avanzó un planteamiento interesante, al oponer la concepción de “pueblo” a la de “ciudadanía”; sin embargo, se mantenía una visión que ligaba la defensa del Alarde tradicional a una identidad de “pueblo” estática, en vez de observar esas prácticas como una dinámica necesaria para la creación y recreación de identidades colectivas”²²

Kapitulu horretako helburu interesgarrietako bat Euskal Herriko eraikuntza nazional gatazkatsuan genero harremanak nola eraikitzen ziren aztertzea da, eta horretarako, historikoki Alardeen eta politikaren artean egon ziren erlazioak, Irungo Alardearen historian nazionalismo ezberdinek jokatu zuten papera, botere ofizial eta ez ofizialen existentzia eta estruktura sozialean emakumeei ezarri zitzairen lekua ikertzea ezinbestekoa dela diote. Ildo horretan, Alarde tradizionalaren aldekoek euskal emakumeak indartsuak eta autoritarioak zirenaren ikuspegia zabaldu zuten, balio eta familia tradizionalaren babesleak eta horretan heterosexualitatearen defentsa oso garbia egin zuten. Horiak, Bidasoaldeko gehiengoa zirenak, botere politikoa eta prestigio

²¹ Margaret Bullen, “Eskubide unibertsalak...”, 40.

²² Margaret Bullen eta Carmen Díez Mintegui, “Fisiones/fusiones: mujeres, feminismos y orden social”, Liliana Suárez, Emma Martín, Rosalba Hernández (koord.), *Feminismos en la antropología: nuevas propuestas críticas*, Ankulegi, Donostia, 2008, 83.

soziala zuten eta *gu* batu baten aurrean *bestea* eraiki zuten. *Bestea* benetako betiko emakumearen kontra-posizioan kokatutako feministak ziren, emakume izatearen modelo hegemonikotik ateratzen zirenak, Alarde mistoaren aldekoak, hain zuzen. Oso ideia interesgarriak azaltzen dituzten arren, ez dituzte gehiegi sakontzen, baina aurrera begira jarraitu beharreko ikerketen norabidea markatzen didate:

“Así, las emociones, las ideologías –políticas, nacionalistas, feministas-, las dinámicas culturales e identitarias y los modelos, relaciones y sistemas de género confluyen, se funden y se fisioan en diferentes momentos del conflicto y de los conflictos vascos, exigiéndonos el esfuerzo de seguir trabajando para intentar desentrañar la trama de tan tupido tejido.”²³

Farapi antropologia kooperatibak genero perspektibatik Gipuzkoako festen analisiaren lana publikatu zuen 2009an.²⁴ Bertan, gai honek batez ere Irungo eta Hondarribiko Alardeen konfliktoaren eraginez hartutako garrantziari egiten dio erreferentzia, eta aldi berean ohartarazten digu nola Bidasoaldeko gatazkarekin egiten ziren etengabeko konparazioek beste festetan ematen ziren emakumeenganako bazterketak inbisibilizatzen zituen. Hori kontutan hartuta jai ezberdinetan emakumeen parte hartzea aztertzen da; indarkeria sexistaren gaia ikertzen da, eta azkenik, Hondarribiko eta Irungo Alardeen konfliktoaren deskripzio bat egiten da. Izan ere, Gipuzkoako beste herrietako jaiak nolabait neurri horrekin neurtzen edota ebaluatzen ziren. Hori guztia, aurretik azaldu ditugun artikuluen marko teoriko berberarekin analizatzen da, eta azken gaia, Alardeena, Bullenen ikerketak oinarri hartuz egiten da. Hori dela eta, ideiak ez errepikatzearren, lan honek aurkezten dituen ondorio interesgarri edo berriak aipatuko ditut.

Jaietan, eta kasu honetan Gipuzkoako jaietan, emakume eta gizon izatearen eredu hegemonikoek baldintzatuta, emakumearen parte hartzea gizonarena baino urriagoa zen, eta gehienetan paper edota rol femeninoen mugean barnean kokatzen zituen emakumeak, markatutako leku hori naturalizatuz. Tradizioaren defentsa immobilista batez ere botere eta prestigio sozial handia dutenen partetik etortzen zen, eta horren aurreko aldaketa berritzailea, berriz, boterearen margenetatik. Alde horretatik, emakumeen parte hartzeak festa askotan horien naturaren alterazio gisa hartzen ziren, eta Gipuzkoako festak

²³ Ibidem, 95.

²⁴ Farapi S.L., *Análisis de las fiestas del territorio histórico de Gipuzkoa desde una perspectiva de género*, Departamento de deportes y acción exterior, Donostia, 2009.

parekideak izatetik urrun, bide eta borroka feminista luzea zuten aurretik gizon eta emakumeen arteko parekidetasunera heltzeko.

2012an Carmen Díez eta Margaret Bullenek “Fiestas, tradiciones e igualdad” artikulua publikatu zuten. Nahiz eta tituluari Hondarribi eta Irun ez aipatu, aurretik aurkeztu dudana Gipuzkoako festen inguruko ikerketatik eta behin baino gehiagotan azaldu dudana Teresa del Valleren hipotesitik abiatuta, Hondarribiko eta Irungo jaiak analizatzen dituzte, eta bertan, batez ere, matriarkatuaren mitoa.

“Dado que la construcción de la nación es un proceso constante y dinámico, nuestra hipótesis es que frente a esa sociedad moderna, industrializada y desarrollada que es la sociedad vasca, permanece, más o menos oculto, un ideal que tiene como modelo romantizado una sociedad rural en la que el igualitarismo, la falta de conflictos y unas relaciones familiares y vecinales armoniosas, serían sus principales señas de identidad.”²⁵

Bide horretatik, Mariren figura aztertzen dute, eta nola Alarde tradizionalaren defentsa benetako euskal emakumearen paperaren goraiamenarekin legitimatzen eta babesten zuten, etxea eta familiaren sostengu zen ama eraikiz, ordena espiritual eta sozialaren babeslea. Zentzu horretan, prestigioa eta ohorea ematen zion ordena soziala defendatzen zuten, eta horretarako tradizio berriak asmatu, Alardealdia eta *antortxerak*, besteak beste.²⁶

Urte berberean, 2012an, Margaret Bullenek “Antropología feminista, antropología aplicada. Encuentros y desencuentros”²⁷ artikulua idatzi zuen, eta bertan, kokatutako ezagutzaren eta bere esperientziaren inguruan hitz egiten du. Alardearen gaia ikertzerako orduan sentitu zen lehen aldiz deseroso antropologo eta feminista izateaz, eta ezagutza antropologiko eta feministaren kapazitate eraldatzailea defendatuz ikertzailearen subjektibitatea eta ikertutako pertsonen perspektiba subjektiboa onartuz egin zion aurre deserosotasun horri. Hasieran giza eskubideak *versus* erlatibismo kulturalaren eztabaidan sartu zen, aurreko artikuluetan ikusi dugun bezala, eta ondoren,

²⁵ Carmen Díez Mintegi eta Margaret Bullen, “Fiestas, tradiciones e igualdad”, *Kobie. Antropología cultural*, 16. zkia., 2012, 23.

²⁶ Alardealdia Irungo Alarde tradizionalaren alde egiten den festa da, pribatizazioaren ondorioz Alardea finantzatzeko helburuarekin egiten dena. Antortxerak berriz 1998tik aurrera Alardearen aurreko egunean emakume eta haurrek egiten duten desfile bat da, berez 1522ko batailan izan zuten paperaren errepresentazio fidela.

²⁷ Margaret Bullen, “Antropología feminista, antropología aplicada. Encuentros y desencuentros”, *Revista de Antropología Experimental*, 12. zkia., 2012, 91-102.

feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntza ikertu zuen festa erritualen diskurtso sinbolikoen bidez.

2013an Bullenek Xabier Kerexetarekin batera “Genero-indarkeriaren erakundetzea Bidasoaldeko alardeetan” publikatu zuen eta bertan, tituluak dioen bezala, Bidasoaldean indarkeria apaldu beharrean egonkortu zela demostratzea izan zen haien helburu nagusia. Lehenik eta behin, desberdinu egiten dituzte indarkeria eta indarkeriaren adierazpenak. Azaltzen dute nola genero-sistema ordena sozialaren funtsezko osagai bat den, eta genero-indarkeriaren mota ezberdinak Alardeetan analizatzen dituzte: egiturazko indarkeria (instituzioen jarrera, legeen interpretazioa eta aplikazioa), sinbolikoa (gizonen nagusitasuna indartu eta legitimatzen dituzten ideiak eta estereotipoak) eta egunerokoa (berdintasunaren alde daudenen aurkako irain edo eraso jarraituen adibideak).²⁸

2002a inflexio puntutzat hartzen dute, pribatizazioen ondorioz Alarde egunetan bi ekitaldi egiten hasi baitziren, bat baztertzailea eta bestea mistoa, eta “bi aldeek nahi dutena egiten duten” ideia nagusitzen hasi zen. Urte horietan berdinzaleen artean sentimendu kontrajarriak eragin zituzten tradizionalistek, plastiko beltzen erabilerak batez ere:

“(…) batetik, iraingarriak ziren, baina praktikan, erasotzaileek plastikoei eutsi behar zieten zera, ez zuten ibilbidea oztopatzen eta, aurpegia estalita, eraso ez zen pertsonalizatzen. Konpainiak errefusa sentitzen zuten, baina ez kide bakoitzak eraso zuzenik. Hortaz, «biktima sentsazioa» apaltzen da. Indarkeria fisikoa baino, indarkeria sinbolikoa da hau.”²⁹

Alardeen gatazkaren gazteen bizipen eta ikuspuntuen inguruko ikerketa 2016an kaleratu zen.³⁰ Bertan, gatazka lehertu zenean txikiak zirenen gazteen posizioak aztertu, nola eta zergatik hartu zuten jarrera bat edo beste ikertu, eta haien eguneroko praktikekin erlazioan jartzen ditu. Adierazgarria da emakumeak Alardean parte hartzearen kontrako gazte horien argumentuak gatazka hasi zirenekoen berdina zirela, eta aurreko artikuluetan azaldutako *gu/beste*a dikotomiak eta eraikuntzak eragin handia zuela 2016ko gazteengan ere. Hori ikusirik, familia, koadrila eta lagunen influentzia

²⁸ Margaret Bullen eta Xabier Kerexeta, “Genero-indarkeriaren erakundetzea Bidasoako alardeetan”, *Ankulegi*, 17. zkia., 2013, 19.

²⁹ *Ibidem*, 21.

³⁰ Margaret Bullen, “Rituales, género, resistencias y cambios (el caso de Irún y Hondarribia)”, *Certámenes. Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: jóvenes y relaciones de género en el País Vasco*, Emakunde, Gasteiz, 2016.

aztertzen du eta nola horiek posizio bat edo beste hartzeko orduan baldintzatzen zuten txikitatik, sozializazio prozesu bidez. Adibidez, emakumeak kantinera ateratzeko ilusioa familia tradizionalistetan txikitatik erakusten zitzairen, haurrak zirenean kantinera trajearekin jantziz.

Miren Guilló Arakistainek koordinatutako *Festak, genero harremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak* liburuak Euskal Herriko festen inguruan eta genero perspektibatik egindako ikerketa ezberdinak biltzen ditu: antropologia feministatik festen eta genero-harremanen inguruko galderak eta begiradak; jai-errituaren eta tradizioen analisiak; festa-egitarau eta arte-adierazpen desberdinen azterketak; festa-eredu, antolakuntza eta parte-hartzeen aldaketak, neurriak eta noranzkoak jasotzen dituzten galderak, ikerketa eta bizipenak; festak disidentziarako eta agentzia feministarako espazio gisa planteatutako esperientziak.

Bertan, batez ere, Guillók berak egindako sarrera, “Festaren analisi eta politika feministak: ainguraketak eta erronkak” eta Margaret Bullenek idatzitako “Genero-sistema eta jaiak: begirada antropologiko bat Euskal Herriko errealitateari” kapituluak interesatzen zaizkit. Lehena, festen inguruko ikerkuntzen bidez analizatu daitekeena azaltzen duelako eta festen inguruan teorizatzen duelako:

“Hala, gogoetarako pribilegiozko leku bilakatzen zaigu festen ikerkuntza: horren bidez, batetik, jendarte baten bizimodu sozialak eta norbanakoen bizitzak egituratzeko moduak ezagutu ditzakegu, eta, bestetik, jendarte horren eraldaketarako eta disidentziarako estrategiak ere hauteman.”³¹

Bigarrena, festen eta genero-sistemen arteko erlazioan sakondu egiten duelako, gainera, Alardeen konfliktoa adibide hartuta. Azkenik, Irun eta Hondarribiko Alardeen inguruan Xabier Kerexetaren kapitulu bat dago liburuan, baina antropologiatik egina ez dagoenez, nire hurrengo kapituluan azalduko dut.

Diziplina eta ikuspuntu ezberdinetatik Alardeen konfliktoarekiko gerturapen eta ikerketak

³¹ Miren Guilló Arakistain, (koord.), *Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2016, 8.

Hasieran azaldu dudak bezala, lehenik eta behin antropologia feministatik egindako ikerketak modu kronologiko batean azaldu ditut, haien artean erlazio zuzena baitzuten, nondik eta nork eginak ziren kontutan hartuz gero. Atal honetan, hortik kanpo egindako lanak, haien artean erlazioa dutenak baina diziplina, egile eta forma ezberdinekoak izanik, kronologikoki aztertu beharrean, egileen eta diziplinaren arabera antolatutik aztertuko ditut.

1997an José Antonio Loidi Bizcarrondok Luis de Urantz kultur taldearen aldizkarian San Martzialeko Alardearen eta emakumeen parte hartzearen inguruan artikulu bat idatzi zuen.³² Loidi farmazialari eta euskarazko literatoa zen eta Luis de Urantz kultur taldeko presidentea. Bere artikuluan konfliktuaren bi aldeak argumentu, praktika eta posturak azaltzen ditu, neutraltasun eta distantziakidetasun saiakera batean, muturreko jarrerak, bai alde batekoak bai bestekoak, konfliktuaren erruduntzat hartuz. Alardearen historian aldaketak egon zirela azaltzen du, baina ondoren azpimarratuz horiek irundar guztien onespenerekin egin izan zirela. Azkenik, gatazkaren konponbidea bilatzeko orduan proposamen bat egiten du, emakumeek postu edota konpainia propio eta berezitu bat sortzea, rol eta jantzi desberdinduekin.

2000. urtean, *Los Alardes: una perspectiva jurídica. Libertad e igualdad en las relaciones entre particulares* liburua argitaratu zuen Irungo Kasinoa elkarteak. Bertan, 1999ko azaroaren 8tik 11ra Hondarribiko kultur etxean eta Irungo Kasinoan egin ziren konferentzien ponentziak biltzen dira. Parte hartu zutenak, gizonak denak, batez ere zuzenbidean eta justizia administratiboan katedradun edota unibertsitateko irakasleak izan ziren, eta Alardeen gatazkaren judizializazioaren eta konponbidearen inguruan jardun zuten. Kontuan hartu behar dugu, 1998an Alardeak publiko izanda, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Justizia Auzitegi Nagusiak emakumeak Alardean parte hartzeko eskubidea onartu, eta 2002an Alardeak pribatu izanda, horien legezotasuna onartu zen denbora tartean egin zirela konferentzia horiek. Ia guztiek bide horretatik jo zuten, hau da, elkarte pribatuaren autonomiaren printzipioan oinarrituz, Espainiako konstituzioko 14. artikulua, diskriminazioaren kontrako, Alarde pribatuetan aplikatu ezin zela esanez:

“Pero, desde luego, no existe constitucionalmente un derecho a entrar en asociaciones puramente privadas, sostenidas por fondos puramente privados y que

³² José Antonio Loidi Bizcarrondo, “Alarde de San Marcial. Participación de las mujeres”, Luis de Urantz kultur taldea. Boletín de Estudios del Bidasoa, 15. zkia., 1997, 17-34.

satisfacen necesidades puramente privadas, que no están teñidas, que no participan de ningún interés patrimonial o de ningún interés económico.”³³

Jarraian, 2005ean kaleratutako *Bidasoaldeko Alardeak: Herria versus Hiria* liburuan sartuko gara. Xabier Kerexeta Errok eta Gorka Morenok koordinatutako lana da, eta bertan, diziplina eta autore ezberdinek Alardeen konfliktoaren gaia aztertzen dute, “horrela lortzen diren aberastasun eta ñabardurak oso interesgarriak izan baitaitezke.”³⁴

Era berean, hasieratik argi uzten dute liburua ez dela “aseptikoa, neutrala edota objektiboa”, haien iritziz “objektibotasuna objektuei dagokie eta ez subjektuei” eta askotan “neutraltasun baten atzean manipulazioa eta errealtatea ikusteko jarrera zehatza ezkututzen”³⁵ da. Ildo horretan, Alardeak guztiontzako jai ireki bat izan behar duela uste dute, baita emakumeentzako ere.

Nahiz eta lehen kapitulua ez izan, lehenik eta behin, aurreko gaiarekin lotuta doanez Garikoitz Lekuonak, zuzenbidean lizentziatua denak, Alardeen aferan izandako prozesu eta sententzia judizialen inguruko ikerketa azalduko dugu. Sarreran argi uzten du “eskubide bat lege batean jasota egoteak, maila gorenekoen artean gorenekoa den lege batean bada ere, ez duela inolaz ere bermatzen edo ziurtatzen eskubide hori hiritar guztiok errespetatua izatea.”³⁶ Jarraian bi atal banatzen ditu: lehenik, Alardeak publikoak zireneko bi sententzia aztertzen ditu, eta bigarrenik, pribatizatu ondorengo beste bi epai. Izan ere, Alardeak gizonez bakarrik osatuta jarraitzea esku pribatuetan uztearen bitartez egin zen: lehen bi sententziek berdintasun eskubidearen babespean emakumeei Alardeetan desfilatzeko eskubidea aitortu baitzien. Behin esku pribatuetara pasata, 2005era arteko epaiek borondatearen autonomia-printzipioan oinarritutako eskubidea onartu zieten gizonez osatutako Alardeei. Guzti horretan, udalek eta instituzioek izandako papera kritikatzeko du eta berdintasun formaletik berdintasun errealerako urratsen beharrezkotasuna.

Gorka Morenok, *Bidasoaldeko Alardeak* liburuaren aurkezpen eta sarrera gisa, Alardea ulertzeko bi jarrerak eta horien argumentu eta identitateak esplikatzen ditu, argi utziz errealtatean aniztasuna zegoela eta bi jarrera horiek *continuum* bat zirela. Aspektu

³³ Zenbaiten Artean, *Los Alardes: una perspectiva jurídica. Libertad e igualdad en las relaciones entre particulares*, Irungo Kasinoa, Irun, 2000, 26.

³⁴ Gorka Moreno, “Bidasoaldeko Alardeak: herriaren eta hiriaren arteko eztabaida”, Gorka Moreno Márquez eta Xabier Kerexeta Erro (koord.), *Bidasoaldeko Alardeak...*, 7-8.

³⁵ *Ibidem*, 16.

³⁶ Garikoitz Lekuona, “Publikoa zein pribatua izan, Alardean parte hartzeko eskubidea”, Gorka Moreno Márquez eta Xabier Kerexeta Erro (koord.), *Bidasoaldeko Alardeak...*, 126.

identitarioaren eraikuntzari garrantzia ematen zaio, eta horregatik, “*herria eta hiria* hitzekin “jolastea” erabaki” dute:

“Kasu honetan kontzeptu hauek ez dute zentzu geografikoa hartzen (landatar/kaletar), baizik eta politiko eta soziologikoa: Herria, komunitate itxia eta Hiria eskubide demokratikoen eremu soziala. (...) Horrela, bada, komunitate jakin batek eksklusiboki gizartearen definizioa hartzen du bere burua definitzeko eta gainerakoak *herritik* at gelditzen dira; taldeko ezaugarriak kritikatzeko dituen ez da herrikoa, nahiz eta herrian jaio eta bizi.”³⁷

Liburu horretako lehen kapitulua, Margaret Bullenek eta antropologia diziplinatik egina denez, aurreko atalean aztertu dugu. Hurrengoa Xabier Kerexeta historialariaren “Historia, tradizioaren menpe: Bidasoako Alardeen adibidea”³⁸ kapitulua da. Bertan, Alardeen historia ordez Alardeen historiaren diskurtso eta kontakizunak aztertzen ditu, eta nola urteetan aldatzen joan ziren, interes ezberdinak medio: Alardeen ordenantzetako aldaketak, 90eko hamarkadako gatazkako argumentuak edota prozesu judizialeko diskurtsoak. Azkenik, politizazioaren inguruan egiten ziren irakurketa ezberdinak salatzen ditu, nola ekintza batzuk politikotzat jotzen ziren horiek deslegitimatzeko, eta nola beste jarrera batzuen politizazioa ukatzen zen.

Urte batzuk lehenago Kerexetak publikazio elektroniko batean,³⁹ historiaren erabileraren inguruan lan luze eta sakonago bat egin zuen. Bertan, Alarde tradizionalisten argumentuek Alardearen iraganaz eta orainaz zuten pertzepzioa aztertu zuen. Antonio Arambururekin izandako eztabaidak kontatu eta erreproduzitzen ditu. Kerexetaren aburuz, emakumeen parte hartzearen kontrako jarrera argudio historikoekin defendatzen zuen Aramburuk, neutraltasun eta jarrera apolitiko baten atzean bere ideologia patriarkala ezkutatu.

Xabier Kerexetak ere Guillok koordinatutako liburuan kapitulu bat argitaratu zuen, “Ondare materiagabeak generorik al du? Irun eta Hondarribiko Alardeak, edo ondare materiagabe biziaren ajeak”. Bertan, Irungo Ondare Kultur Elkarteak eta Irungo PSE-EEk aditzera eman zuten Alardea ondare materiagabetzat izendatzearen nahia auzitan jartzen du, eta Unescoren irizpideak betetzen ez zirela argudiatzen du: batetik,

³⁷ Gorka Moreno, “Bidasoaldeko Alardeak: herriaren eta hiriaren arteko eztabaida”, Gorka Moreno Márquez eta Xabier Kerexeta Erro (koord.), *Bidasoaldeko Alardeak...*, 13.

³⁸ Xabier Kerexeta, “Historia, tradizioaren menpe: Bidasoako Alardeen adibidez”, Gorka Moreno Márquez eta Xabier Kerexeta Erro (koord.), *Bidasoaldeko Alardeak...*

³⁹ Xabier Kerexeta, “Dime de qué alardeas...”, 2001 [publikazio elektronikoa].

“Alardeen balio folklorikoak ez daudelako inondik inora galtzeko arriskuan”, eta bestetik “XXI. mendean Alardeek utzi diotela historikoki bete izan duen funtzioa betetzeari; hots, kohesio komunitarioa estutzeari.”⁴⁰ Alardeen historia eta aldaketen laburpen bat egiten du, eta ondoren, Alardeak pribatu eta esku gutxi batzuen eskuetan zeudenez gero, guztion ondare ezin zitezkeela izendatu esaten du, eta are gehiago, “Ekitaldi berdinzaleek Irunen zein Hondarribian jasotako erantzun bortitza deigarria da komunikabideetan, baina berez ez dira problema, problemaren adierazpena, sintoma, esklusioan oinarritutako herritartasun kontzeptu baten ondorio mingarria baizik.”⁴¹

Mercedes Tranchek, Bidasoaldeko Emakumeak taldeko kideak, bi kapitulu publikatu zituen Gorka Moreno Márquezek eta Xabier Kerexeta Errok koordinatutako liburuan: “Alardearen historiaren kable batzuk. Gatazka ulertzeko gida” eta “Emakumearen parte-hartzea Alardean: ezinezko elkar-hartze baten historia”. Lehenengoan Alardearen antolaketarekin hasten da, eta ondoren, Alarde modernoaren sorreratik, 1881etik, emakumeen parte hartzearen konfliktoa sortu arteko Alardearen historia kontatzen du. Bere aburuz, “Irungo kasuan, adibidez, bere gizarte-egituran zatiketaren aurrekari asko bazeuden; hauek azken eztaidaren abisuak ziren hasiera batean.”⁴² Horrekin batez ere, urteetan Alardearen eta politikaren artean egondako harremanak eta gatazkak azaltzen ditu, emakumeen parte hartzearen inguruan sortutako konfliktoa bakarra ez zela argudiatuz, aurreko tirabira guztiak zentzu batean 90eko hamarkadakoaren aurrekari bezala kokatuz eta gatazka horretan ere horiek gauzatzen zirela ikusiz.

Bigarrenean, 90eko eta 2000ko hamarkadako gertaerak kontatzen ditu, eztabaidaren planteamendutik hasiz, eta gero, urteroko Irun eta Hondarribiko Alarde egunetako gertaerak eta horiek suposatu zutena azalduz: politikariek eta instituzioek izandako papera kontatzen du, alkateen isiluneak eta inplizituki edo esplizituki Alarde tradizionalen alde eginiko apustuak, emakumeen parte hartzearen aldekoen estrategia eta eztabaidak. Izan ere, hasiera batean emakumeek gizonen eskubide berberak zituztenez gero, edozein konpainian ateratzeko eskubidea aldarrikatu zuten. Horregatik, 1996an zuzenean sartu ziren Alardeetara, baina erreakzioa ikusita, 1997tik aurrera eskubide hori lortzeko estrategia desberdinak jarri zituzten martxan: Hondarribian

⁴⁰ Xabier Kerexeta, “Ondare materiagabeak generorik al du? Irun eta Hondarribiko Alardeak, edo ondare materiagabe biziaren ajeak”, Miren Guilló Arakistain, (koord.), *Festak, genero-harremanak eta feminismoa...*, 87.

⁴¹ *Ibidem*, 95.

⁴² Mercedes Tranche, “Alardearen historiaren kable batzuk. Gatazka ulertzeko gida”, Gorka Moreno Márquez eta Xabier Kerexeta Erro (koord.), *Bidasoaldeko Alardeak...*, 67.

konpainia misto bat sortu zuten, Alardean sartzeko intentzioarekin, baita Irunen ere 1997an, 2001ean eta 2002an. 1998tik 2000ra arte eta 2003tik aurrera, Irunen Alarde misto osoak antolatzearen aldeko apustua egin zuten, luzera begira Alarde tradizionala baino handiagoa izatearen esperantzarekin eta indar korrelazio horretan Alarde publikoa eta bakarra sortzeko helburuarekin. Tradizionalisten estrategia eta praktikak ere azaltzen ditu, Alardeen pribatizazioa eta giza tapoiak, tartean. Urte horietan Bidasoaldean gertaturikoa ulertzeko eta batez ere antolatzeko oso lagungarria.

Edurne Irigoien kazetariak “Alardearen auzia komunikabideen diskurtsoan” kapitulua idatzi zuen, eta bertan, *Egin*, *El Diario Vasco*, *El País* eta *El Mundo* egunkariak Alardearen inguruan publikatutakoa aztertzen du. Sarreran bere analisiaren markoa azaltzen du, informazioaren, masa-komunikabideen eta kazetaritzaren bere ikuspegia, hain zuzen. Eta honako hau dio Alardearen inguruko eztabaidan komunikabideen paperaz:

Alardearen inguruko eztabaidan komunikabideek parte-hartzaileak zilegi edo ez-zilegi egiten dituzte, jendarte-eragileak epaitzen dituzte, politikariak goraipatu edota erakundeak txikitzen dituzte, betiere euren irakurle eta ikusleen profila zein de kontuan edukita; horrela, Alardeari buruzko eztabaidaren diskurtsoaren egitura aukeraketa ideologiko bat da eta ez, hala beharko lukeen arren, guztiz ezberdinak diren bi ideologiaren arteko erdikaria.⁴³

Lau egunkari horien editorialak, berrien eta argazkien trataerak eta posizionamenduak aztertzen ditu: alde bati edo besteari ematen zitzaien protagonismo edo presentzia, argumentuei ematen zieten garrantzia, terminoen eta adjektiboen erabilera, balorazioak, elkarrizketak eta abar.

Arantxa Urretabizkaia kazetari eta idazleak 2016an kaleratu zuen *Bidean ikasia* saiakera. Berak, Hondarribiko Alardearen konfliktoa gertutik, edo hobeto esanda, barrutik bizi izan zuen, eta emakumeak Alardeetan ateratzearen aldeko aurpegi ezagunetako bat izan zen. Bere bizipenak eta ingurukoak oinarri hartuz idatzi zuen liburua, prozesu, sentipen eta datu asko ematen dituelarik. Emakumeak Hondarribiko Alardean ateratzearen aldekoek bizi izan zituzten jazarpen, bazterketa eta erasoak ikusteko oso gomendagarria da, bai eta emakumeen borrokaren logika eta strategiak

⁴³ Gorka Moreno Márquez eta Xabier Kerexeta Erro (koord.), *Bidasoaldeko Alardeak...*, 187.

ulertzeko ere.⁴⁴

Aipatzekoa da Haizea Olaizolak Amsterdameko Unibertsitatean eginiko Master Amaierako Lana, “The Alarde: Cultural Memory in Conflict”⁴⁵ izenekoa. Bertan memoria kultural eta kolektiboaren perspektibatik analizatzen du Alardea, orainaldian iragana oroitu eta eraikitzen duen tradizio gisa, komunitatearen balioak zabalduz eta arbasoen gogorapena eginez. Horretarako Hondarribiko Alarde Fundazioaren aldizkaria, *Titibiliti*, eta Arantxa Urretabizkaiairen *Bidean Ikasia* liburua aztertzen ditu, Alardearen errepresentazio desberdinak izanik bakoitzaren erritoak, diskurtso eta erretorikak eta horiek defendatzeko moduak ulertzeko.

Azkenik, Maite Asensio Lozano eta Arantxa Iraola Alkortaen *Alardeak ukatutako plazara*⁴⁶ liburua aipatuko dut. Kazetari horiek hirurogeita hamar elkarrizketa baino gehiagoren bitartez idatzitako lana da, eta bertan Hondarribi eta Irungo Alardeen gatazkaren nondik norakoak kontatzen dituzte, konfliktoaren arrazoiak azaldu eta epaitegien eta instituzioen papera eta borrokaren inguruan jarduten dira. Ondoren, gaia nola jorratu zen eta eskoletan zer lanketa egin zen analizatzen dute, etorkizunera begira, eta amaitzeko, konfliktoaren konponketa posible baten inguruan hitz eginez.

2. Oinarri teoriko eta metodologikoak

Planteatu ditudan hipotesiak erantzuteko eta helburuak betetzeko, jarraian azalduko ditudan analisi, lan eta tesiak erabili ditut. Lehenik eta behin, Alardea tradizio, errito eta jai gisa kontsideratuz horien inguruko lanek ikerketa-gaira nola hurbildu eta horien ikerketaren bitartez zein analisi egin izan diren ikusteko baliagarri izan zait, baita galdera eta hipotesi berriak pentsatzeko ere. Hasteko, Eric Hobsbawm eta Terence Ranger-ek editore gisa argitaratutako *La invención de la tradición* liburua oinarri izan dut.⁴⁷ Bertan, *tradizio asmatuak* tradizioei modu zabal batean egiten die erreferentzia, eta arau batzuek gobernatutako izate sinboliko edo erritualeko praktika multzo bat bezala definitzen dituzte. Horien errepikapenaren bitartez balio eta norma batzuk

⁴⁴ Arantxa Urretabizkaia, *Bidean ikasia*, Pamiela, Iruñea, 2016.

⁴⁵ Haizea Olaizola, “The Alarde: Cultural Memory in Conflict”, Master of Arts in Literary Studies – Literature and Culture: Specialization Comparative Literature at the University of Amsterdam, 2017.

⁴⁶ Maite Asensio Lozano eta Arantxa Iraola Alkorta, *Alardeak ukatutako plazara*, Berria/Elkar/Jakin, Andoain, 2018.

⁴⁷ Eric Hobsbawm eta Terence Ranger (ed.), *La invención de la tradición*, Editorial Crítica, Bartzelona, 2002 [1983].

sustatzen dituzte tradizioek, automatikoki iragan bat gogora ekarriz, bai errepikapen horrek generazio ezberdinak lotzen dituelako bai eta normalean iragan historiko bati erreferentzia egiten diolako, oraina legitimatzeko eta taldearen kohesioa bultzatzeko. Tradizioen helburu eta ezaugarri nagusia aldaezintasunaren pertzepzioa nagusitzea da, praktika finkoak inposatuz. Eta horiek ikertzeak beste modu batera ikusiko eta identifikatuko ez liratekeen arazoek eta garapenen berri ematen digute. Horregatik dio Hobsbawmek ezin dela tradizioen azterketa gizartearen historiaren analisi orokorretik banandu.

Terence Rangerrek Afrika kolonialaren tradizioen inguruko kapituluak klabe batzuk ematen ditu. Esaterako, agintari klaseak asmatutako tradizio berriek zuten kontrapisua azaltzen du, industriako langileen edota nekazarien tradizioen aldetik, eta agintari kolonialek zurien dominazioa justifikatzeko behar zuten zuri eta beltzen arteko ideologia konpartitua tradizioen bitartez zabaltzeak indarkeria fisikoaren erabilera gutxitzea zekarrela. Tradizioak autoritatea eta hierarkia identifikatzeko eta erakusteko modu azkarra zirela ere planteatzen du. Azkenik, baliagarri zaidan esaldi bat aipatuko dut: “(...) los hombres reafirmaban su dominio de un sistema económico y social cambiante mediante sus quejas sobre la ruptura de la tradición por parte de las mujeres.”⁴⁸

Benedict Anderson-en *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*⁴⁹ liburuak, tituluak azaltzen duen moduan, nazionalismoen eraikuntza eta historia analizatzen ditu, klase partikular batek bultzatutako artefaktu kultural gisa eta nazioa komunitate politiko imajinatu bezala definituz. Artefaktu horien sorrera XVIII. mendearen amaieran indar historiko batzuen gurutzaketa espontaneoak eragin zuela erakusten du, eta behin sortuta, konstelazio politiko eta ideologiko anitzekin nahasteko eta sakoneko atxikimendua sortzeko kapazitatea izan dute. Bere baitan esplotazio eta ezberdintasun handiak egonda ere, anaitasun eta horizontaltasunez antzematea izan da komunitate gisa imajinatzen den nazioaren lorpenik handienetarikoa, bere arrakastaren funtsa, hain zuzen.

⁴⁸ Ibidem, 268.

⁴⁹ Benedict Anderson, *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, Fondo de Cultura Económica, Mexico D.F., 2007 [1983].

E.P. Thompson-ek idatzi zuen *Costumbres en común*⁵⁰ liburuak XVIII. mendeko ohituren analisi bat egiten du, bertako indar eta erlazioetan zentratuz eta klase gatazkaren eszenatoki gisa ikusiz. Ohitura aldaketa eta gatazka eremua zela azaltzen du, interes kontrajarriek aldarrikapen ezberdinak egiten zituzten lehia espazio. Esanahi, jarrera eta balioetatik haratago termino eta fenomeno horren barnean erlazio sozialak eta botere harremanak, esplotazio eta erresistentziak analizatzea beharrezko dela azpimarratzen du.

Manuel Delgadok komunitate eta erritoen inguruan egindako hausnarketak ezinbesteko ditut aipatzea.⁵¹ Festak, denboran, dimentsio espazialeko tenpluaren baliokide direla azaltzen du, denborak eta gizakien ekintzek suposatzen duten desgastetik babesteko aterpe. Erritoen bitartez indibiduoak instituzioekin lotzen dira emozionalki, beharrezko dena desiragarri bihurtuz. Horrela, festen sinbolismoaren oinarria erlazio sozialak eta ordena soziala dira, eta ospatzen duen komunitatean hilezkortasuna aldarrikatzen da:

“La comunidad que la fiesta proclama emplea entonces la fiesta como un dispositivo simbólico que le permite preservar imaginariamente su propia inmanencia del desgaste producido por el paso del tiempo, haciendo patente que no puede envejecer, que es inmortal.”⁵²

Lan horien bitartez Alardeak tradizio asmatuen abiapuntutik analizatu ditut, bai Alarde tradizional izenez ezagutu direnak, bai Alarde parekideak ere. Errito horiek ageriko batasun eta anaitasun bat proiektatzen badute ere, euren baitan ezkutatzen dena eta barneko etengabeko talkak identifikatu ditut. Azkenik, Alardeak herria eta herriak Alardea eraikitzen duela defendatu dut, eta herri-komunitatearen funtzionamendu, botere-harreman eta dinamikak ikertu ditut.

Horretarako, komunitateen dinamika eta logikak aztertzeke, baliagarri izan zait Zygmund Bauman-en *Comunidad. En Busca de seguridad en un mundo hostil* liburua. Komunitatearen barnean leialtasun exigentzia eta traizioaren mehatxua betierekoa dela azaltzen du, barneko logikak eta harremanak naturalizazioaren bitartez mantentzen direla eta ziurgabetasun eta segurtasun ezaren aurreko aterpe, etorkizunak dakarrenak

⁵⁰ E. P. Thompson, *Costumbres en común*, Crítica, Barcelona, 1995 [1991].

⁵¹ Manuel Delgado Ruiz, “Tiempo e identidad. La representación festiva de la comunidad y sus ritmos”, *Zainak*, 26. zkia., 2004, 77-98; Manuel Delgado eta Sarai Martín López, “La violencia contra lo sagrado. Profanación y sacrilegio: una tipología”, *Vínculos de Historia*, 8. zkia., 2019, 171-188.

⁵² Manuel Delgado Ruiz, “Tiempo e identidad. La representación...”, 84.

sortutako beldurren babesleku dela. *Besteak* markatzen du komunitatearen muga eta barne zaintzaren beharra azaltzen du: “La comunidad de entendimiento común, incluso aunque se alcance, seguirá por lo tanto siendo frágil y vulnerable, siempre necesitada de vigilancia, fortificación y defensa.”⁵³

Alde horretatik, Michel Foucault-en *Vigilar y castigar* lana baliagarri zait, komunitateen barne zaintza eta zigorrak analizatzeko orduan. Zigorraren ezarpena egin den ekintzaren arabera kalkulatu ordeztorkizunean izan dezakeen errepikapenaren arabera ezartzen dela dio, pasatako irainean zentratu ordeztorkizuneko desordena kontutan hartuz. Diziplina, hierarkia eta boterearen artikulazioaren inguruan ere hausnarketa interesgarriak plazaratzen ditu.⁵⁴

Komunitatera bueltatuz, ikertzaile anitzek idatzitako *La comunidad como pretexto. En torno al (re)surgimiento de las solidaridades comunitarias* liburua aipatzea ezinbestekoa da. Bertan, komunitatearen inguruko analisi ezberdinak egiten dira, eta horietako bat komunitate eta tradizioaren arteko erlazioaz eta *bestearen* beharraz mintzo da. Tradizioak desagertzeko arriskuan dagoen munduaren aurreko erresistentziaren gotorleku izan daitezkeela dio, eta bertan, memoriaren etengabeko produkzioek duten garrantzia azpimarratzen da.⁵⁵ Azkenik, gai honi dagokionez komunitate emozionalen inguruan jarduten duten pare bat artikulua aipatuko ditut. “Komunitate emozionala” terminoaren definizioa hau da: “grupos en los cuales las personas se adhieren a las mismas normas de expresión emocional y valoran –o desvirtúan- emociones iguales o relacionados.”⁵⁶

Komunitate eta tradizioei tiraka, Benedict Andersonetik hasita, nazio eta nazionalismoen inguruko ikerketetan oinarritu naiz nire tesia burutzeko. Batetik, tradizioek lotura estua dutelako mundu garaikidean nazionalismoekin, eta bestetik, Alardeen konfliktoaren historia idazteko orduan nazio ardatzak nola gurutzatu zuen aztertzea izan delako helburuetariko bat. Gainera, Alardeek herriak eta herriek Alardeak

⁵³ Zygmunt Bauman, *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Siglo XXI, Madril, 2009 [2001].

⁵⁴ Michel Foucault, *Vigilar y castigar*, Siglo XXI, Madril, 2000 [1975].

⁵⁵ Pablo de Marinis, Gabriel Gatti eta Ignazio Irazusta (ed.), *La comunidad como pretexto. En torno al (re)surgimiento de las solidaridades comunitarias*, Barcelona, Anthropos, 2010.

⁵⁶ Larisa Medina Brener, “Comunidades emocionales: hacia la apertura de la historia de las emociones”, *Historia y Grafía*, 45. zkia., 2015, 206; Juan Manuel Zaragoza eta Javier Moscoso, “Presentación: comunidades emocionales y cambio social”, *Revista de Estudios Sociales*, 62. zkia, 2017.

eraikitzen dituztela esateak ezinbestean herri horren adiera eta esanahi ezberdinak azaltzea dakar, eta hori estuki erlazioa daiteke nazioaren ikerketekin.

José Álvarez Juncoren lanak baliagarri izan zaizkit, bai nazio eta nazionalismoen sorrera, garapena eta dinamikak azaltzen dituelako bai eta konkretuki espainiar eta euskal nazionalismoak aztertzen dituelako. Nazionalismoa ideologia kontsideratu ordez artefaktu kultural gisa analizatzen du, komunitatearengatik bizitza emateko prestutasuna lortzen duena. Sentimendu nazionalak maila batean espontaneoki sortzen badira ere, inguruko jendearekiko identifikazioa eta elkartasuna naturalizat jotzen baitu, beste maila batean helburu politikoek bultzatuta zabaltzen direla argudiatzen du. Espainiar nazionalismoaren kasuan gerra zibila perspektiba horretatik analizatzean, estatu kolpea eman eta babestu zutenek “benetako” Espainia ordezkatzeko zutela zioten. Errepublikak Espainia “suntsitu” nahi zuela, Espainiaren defentsak edozer legitimatuz eta Errepublikari inolako nazio eraikuntza aitortuz. Azkenik, euskal nazionalismoaren azterketan ETaren eta EAJren paper eta kapazitateak analizatu ditu.⁵⁷

Sebastian Balfour eta Alejandro Quirogak idatzitako *España reinventada. Nación e identidad desde la transición* liburua aipatzea ezinbestekoa da, nazio eta identitateen kontzepzio ezberdinak analizatzen dituelako, bai eguneroko diskurtsoan bai eta politikan, 1977tik aurrera. Iragana orainaldian gauzatzen diren borroken eremua dela dio, eta espainiar nazionalismoak egunerokotasunean duen eragina aztertzen du, Michael Billig-ek sortutako *nazionalismo hutsalaren* kontzeptua erabiliz. *Bestearen* figuraren beharrezkotasuna eta herriaren adiera ezberdinak analizatzen ditu, eskuinetik eta ezkerretik espainiar nazionalismoari ematen zaizkion esanahiak aztertuz, eta horiekin erlazioan, euskal nazionalismoak jokaturiko papera.⁵⁸

Bestetik, euskal nazionalismoaren historia eta batez ere EAJrena azaltzen dituen lan batzuk aipatuko ditut. Lehenik, *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco* liburuaren bigarren tomoa, zeina 1936tik 1979ra baitoa. Bigarrenik, *La patria*

⁵⁷ José Álvarez Junco, *Dioses útiles. Naciones y nacionalismos*, Galaxia Gutenberg, Bartzelona, 2016; José Álvarez Junco eta Gregorio de la Fuente Monge, *El relato nacional. Historia de la historia de España*, Taurus, Madril, 2017; José Álvarez Junco eta Adrian Shubert (ed.), *Nueva historia de la España contemporánea (1808-2018)*, Galaxia Gutemberg, Bartzelona, 2018 [2017]; Antonio Rivera Blanco eta Justo G. Beramendi, “El análisis de los procesos de nacionalización y las identidades nacionales en España”, Félix Juan Luengo Teixidor eta Fernando Molina Aparicio (zuz.), *Factores de nacionalización en la sociedad española contemporánea*, Valentín de Foronda, Gasteiz, 2015.

⁵⁸ Sebastian Balfour y Alejandro Quiroga, *España reinventada. Nación e identidad desde la Transición*, Península, Bartzelona, 2007; Michael Billig, *Nacionalismo banal*, Capitán Swing, Madril, 2015.

soñada. *Historia del nacionalismo vasco desde su origen hasta la actualidad*, eta azkenik, “La reformulación identitaria del nacionalismo vasco. La ideología del PNV tras la dictadura franquista”. Ikerketa horiek erabilgarri zaizkit nire tesiaren helburu bat izan baita alderdi eta kultura politiko ezberdinek izandako papera eta euskal politika eta gatazkarekin nola elkar eragin zuten ikustea, eta bertan EAJ aktore garrantzitsua izan zelako.⁵⁹ Horrez gain, PSEren jarduna ere pisuzkoa izan zen, batez ere Irungo kasuan, alkatetzan egon baitzen ikertzen ditudan urte guzti horietan, eta horren inguruko informazioa biltzeko ere PSOE eta PSEren inguruko lanak erabili ditut.⁶⁰

Nazio eta nazionalismoen ikerketekin jarraituz, berebiziko garrantzia dute genero ikuspuntu eta historiatik egin direnak. Hemen, Nerea Aresti eta José Javier Díaz Freireren lanak ezinbesteko dira, nazionalismoak eta kultura politiko garaikideak genero terminoetan eta diferentzia sexualean eraikiak izan direnaren premisapean egin dituztenak.⁶¹ Horren haritik, espainiar nazionalismoek historian zehar izandako adiera ezberdinen analisisa egin duten lanak ditugu, bai eta euskal nazionalismoaren baitako maskulinitate eta feminitate ereduak nola eraiki eta garatu ziren eta zeri kontrajarrita aztertzen dituzten ikerketak:

⁵⁹ Santiago de Pablo, Ludger Mees eta José A. Rodríguez Ranz, *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco. II: 1936-1979*, Crítica, Madril, 2001; Santiago de Pablo, *La patria soñada. Historia del nacionalismo vasco desde su origen hasta la actualidad*, Biblioteca Nueva, Madril, 2015; Manuel Montero, “La reformulación identitaria del nacionalismo vasco. La ideología de PNV tras la dictadura franquista”, *Historia Actual Online*, 38. zkia., 2015; Arantxa Elizondo Lopetegui, *Emakumeen eskubide politikoak: instituzioak eta alderdiak*, Deustuko Unibertsitatea, Deustu, 2000; Arantxa Elizondo Lopetegui, “La participación política de las mujeres en Euskadi: datos y reflexiones”, *Feminismo/s*, 3. zkia., 2004, 75-88.

⁶⁰ Coro Rubio Pobes (zuz.), *El laberinto de la representación: partidos y culturas políticas en el País Vasco y Navarra (1875-2020)*, Tecnos, Madril, 2021; Rafael Leonisio Calvo, *Cambio y continuidad en el discurso político: el caso del Partido Socialista de Euskadi (1977-2011)*, CIS, Madril, 2016; Antonio Rivera Blanco, “El PSOE, la cuestión territorial y los nacionalistas”, Javier Moreno Luzón (koord.), *Izquierdas y nacionalismos en la España contemporánea*, Fundación Pablo Iglesias, Madril, 2011, 119-140; Fernando Molina Aparicio eta José Antonio Pérez Pérez (ed.), *El peso de la identidad: mitos y ritos de la historia vasca*, Valentín de Foronda, Gasteiz, 2015.

⁶¹ Nerea Aresti, *Médicos, donjuanes y mujeres modernas: los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX*, EHU/UPV, Bilbo, 2001; Nerea Aresti, “De heroínas viriles a madres de la patria. Las mujeres y el nacionalismo vasco (1893-1937)”, *Historia y Política*, 31. zkia., 2014, 281-308; Nerea Aresti, Karin Peters eta Julia Bruhne (ed.), *¿La España invertebrada? Masculinidad y nación a comienzos del siglo XX*, Comares Historia, Granada, 2016; Nerea Aresti, “El gentleman y el bárbaro. Masculinidad y civilización en el nacionalismo vasco (1893-1937)”, *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 39. zkia., 2017, 83-103; José Javier Díaz Freire, “El cuerpo de Aitor: emoción y discurso en la creación de la comunidad nacional vasca”, *Historia Social*, 40. zkia., 2001, 79-96; José Javier Díaz Freire, “Cuerpos en conflicto. La construcción de la identidad y la diferencia en el País Vasco a finales del siglo XIX”, Mary Nash eta Diana Marre (ed.), *El desafío de la diferencia: representaciones culturales e identidades de género, raza y clase*, UPV/EHU, Bilbo, 2003, 61-94; José Javier Díaz Freire, “Miguel de Unamuno: La feminización de la masculinidad moderna”, *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 39. zkia., 2017, 39-58.

“Pero dado que los procesos de construcción nacional están atravesados por ineludibles contradicciones de clase, no es posible identificar un modelo compacto de masculinidad hegemónica para toda la nación. Tal y como ha señalado el historiador John Tosh, cada clase social ha creado sus propios códigos de masculinidad, aunque los nacionalismos, como bien sabemos, han tendido a diluir culturalmente estas diferencias sociales para crear una ilusión de igualdad y lograr un efecto de cohesión y sentimiento de pertenencia a la nación.”⁶²

Díaz Freire euskal komunitate nazionalaren sorreran gorputzak izan zuen garrantziaz mintzo da, eta gorputz baten eraikuntzak sortu zituen emozio nazionalen analisisa egiten du. Modernizazioak zalantzan jarri zuen euskal identitatean jartzen du hasiera, Europan XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan ohiturek izan zuten transformazio prozesuaren baitan kokatuz euskal gorputzaren eraikuntza. Izan ere, identitate eta diferentziaren inguruko diskurtsoek gorputza dute hartzaile, eta gorputza da horiek ulertzen dituen. Era berean, diskurtsoak sortu nahi duen identitatea konfliktoan dagoen gorputz baten identitatea da, bateragarriak ez diren gorputz batzuen artekoa. Horrela, langile gorputza gorputz gaixo bezala eraikia izan zela ere azaltzen du, eta gainera, immigrante gorputzarekin nahasirik eta Sabino Aranaren diskurtsoak euskal gorputza horrekin kontrajarrita eraiki zuelarik.⁶³

Gorputzak nazio eta genero eraikuntzan duen garrantzia azpimarratu ondoren, ezin dugu azaldu gabe utzi gorputzak politikan eta klasean duen garrantzia ere. Horretarako, Mercedes Arbaiza eta Miren Llonaren lanak ezinbestekoak ditugu. Arbaizak politikak materializatu ahal izateko gorputza behar duenaren hipotesia planteatzen du, nazioak bezalaxe gorputz partikular baten beharra duelarik horrekin identifikatzeko.⁶⁴ XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako analisisa egiten du, langilearen gorputza nola eraiki zen aztertuz, eta behin komunitate emozional bat sortu ondoren, ideia sozialistek bertan eragiteko izan zuten erraztasuna ikertuz:

“La narrativa socialista hizo inteligible políticamente emociones obreras como la indignación y la ira, en oposición a un imaginario liberal que les ocluía la

⁶² Nerea Aresti, “El langile respetable. Masculinidad, moral y trabajo en el nacionalismo vasco”, Nerea Aresti, Karin Peters eta Julia Bruhne (ed.), *¿La España invertebrada?...*, 119-120.

⁶³ José Javier Díaz Freire, “El cuerpo de Aitor...”; José Javier Díaz Freire, “Cuerpos en conflicto...”

⁶⁴ Mercedes Arbaiza, “«Sentir el cuerpo»: subjetividad y política en la sociedad de masas en España (1890-1936)”, *Política y Sociedad*, 55. zkia., 2018, 71-92.

expectativa de progreso. Dio un contenido de clase a una comunidad humillada por estar investida de un cuerpo estigmatizado. El movimiento socialista politizó un sentir ya compartido, el del antagonismo social. Aportó además una metanarrativa dotándose de imágenes épicas con las que dar un nuevo sentido al tiempo colectivo, creando un espacio de experiencia, introduciendo la subjetividad nueva en su propio *telos*.⁶⁵

Alde horretatik ere, 70eko hamarkadako mugimendu feministaren ideiek esperientzia emozional bat ulergarri egin zutela azaltzen du, fenomeno *gertakari emozional* gisa ikertuz. Hau da, feminismoak subjektibitate berri bat planteatu zuen, zeinak kontzientzia sozial historiko eta partikularra eta esanahien ordenan haustura bat eragin baitzuen.⁶⁶

Klase eta generoarekin jarraituz, Miren Llonak horien analisisa banaezina dela azaltzen du, klase sozialen identitateen eraikuntzan generoarek kategoria analitikoak erabiltzea ezinbestekoa izanik. Horrela, langile klasearen maskulinitate eta feminitatearen edukiak analizatu, eta horien bitartez klase menderatzailearen diskurtso estigmatizatzaileei aurre egiteko balio zutela adierazten du. Diskurtso horiek langileen izaera eta esentziari egotzen zioten klase horren miseria guztia, prostituzioa tarteko, eta batez ere emakume langileari. Sozialismotik eta langile kulturatik aurre egin zioten horri, eta genero perspektibatik estrategia horiek analizatzen ditu.⁶⁷

Alardeetako konfliktuan gorputzak nola estigmatizatu ziren analizatzeko balia du aurretik azaldutakoa, baita bertan klaseak, generoak eta nazioak nola gurutzatu zuten ikertzeko: tartean, gorputz *abjektuaren* eraikuntzatik komunitate *abjektuaren* erresistentziarako bidea eta estigmatizazio eta kriminalizazio prozesuak eta horiei aurre egiteko tresnak.

Gorputzarekin jarraituz generoa eta sexuarekin duen erlazio eta eraikuntzan zentratuko gara, Alardeen sexu-genero konposizio eta banaketa argia bada ere, hori zalantzan

⁶⁵ Mercedes Arbaiza, “Cuerpo, emoción y política en los orígenes de la clase obrera en España (1884-1890), *Ayer*, 98. zkia., 2015, 70.

⁶⁶ Mercedes Arbaiza, “Dones en Transición: el feminismo como acontecimiento emocional”, Teresa María Ortega López, Ana Aguado Higón eta Elena Hernández Sandoica (eds.), *Mujeres, dones mulleres, emakumeak. Estudios sobre la historia de las mujeres y del género*, Cátedra, Madrid, 2019, 267-286.

⁶⁷ Miren Llona, “La construcción de la identidad de clase obrera en el País Vasco. Género y respetabilidad de clase, dos realidades inseparables”, *Vasconia: Cuadernos de historia-geografía*, 35. zkia., 2006, 287-300; Miren Llona, “La prostitución y la identidad de la clase obrera en el tránsito del siglo XIX al XX. Un análisis de género a la obra literaria de Julián Zugazagoitia”, *Historia Contemporánea*, 33. zkia., 2006, 719-740.

jartzeak zekarrena ikusteko eta naturalizazio prozesuak deseraikitzeke. Hasteko Alaitz Aizpuru eta Bakarne Altonagak koordinatutako liburua aipatuko dugu. Bertan diote “70eko hamarkadaren bigarren erdi aldera eta 80ko hamarkadan barrena feminismo esentzialistaren hausturarekin batera gorputzen zentzu politikoa eta gorputza erresistentzia-gune bezala aldarrikatu” zela.⁶⁸ Liburuan diferentzia sexualaren eraikuntza eta historia aztertu zuten, azpimarratuz “ez dagoela betierekoa den ezer, fenomeno orok sorburu bat duela, aldagarria dela eta amaiera bat ere eduki dezakeela”.⁶⁹

Horrekin batera, feminismitik eta genero historiatik egin diren lanak garrantzitsuak dira, gorputzaren, sexuaren eta generoaren eraikuntza eztabaidatzen dutelako, historiari beste zapalkuntza baten edo batzuen perspektiba txertatzen diotelako eta dominazio sistemen eta ordena sozialaren inguruko analisiak egiten dituztelako. Bigarren bolada feministaren lanetatik hasita,⁷⁰ gaur egunera arteko hausnarketak baliagarri zaizkigu. Hasteko, ezinbesteko dut Monique Wittig-en *Pentsamendu heterozuzena* lana aipatzea, eta hori oinarritzat hartuta, Leonor Silvestrik idatzitako liburua.⁷¹ Diskurtsoek eta hizkuntzak heterosexualitatea naturalizatzen dutela, horrek gizartea sortzen duela defendatzen du eta horrekin ezberdin bat sortu:

“Bai: maila guztietan ezberdin bat/beste bat egotea behar du gizarte heterozuzenak; hori du oinarri. Kontzeptu hori gabe, ezin da jardun ekonomikoki, sinbolikoki, linguistikoki eta politikoki. Ezberdin bat/beste bat egon behar hori ontologikoa da pentsamendu heterozuzena esaten diodan zientzia- eta diziplina-nahasketa horretan. Baina zer da ezberdin/beste hori, menderatua ez baldin bada? (...) Ezberdin bat sortu eta hura kontrolatzea «botere-ekintza bat da, funtsean ekintza normatibo bat denez gero».”⁷²

⁶⁸ Alaitz Aizpuru Joaristi eta Bakarne Altonaga Begoña (koord.), *Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntzaz*, UEU, Bilbo, 2014, 5.

⁶⁹ *Ibidem*, 92.

⁷⁰ Simone de Beauvoir, *El segundo sexo*, Cátedra, Madril, 1999 [1949]; Angela Davis, *Mujeres, raza y clase*, Akal, Madril, Tres Cantos, 2004 [1981]; Juliet Mitchell, *La liberación de la mujer: la larga lucha*, Anagrama, Bartzelona, 1975 [1966]; Kate Millet, *Política sexual*, Cátedra, Madril, 1995 [1970]; Adrienne Rich, *Nacemos de mujer. La maternidad como experiencia e institución*, Cátedra, Madril, 1996 [1976]; Fini Rubio, *Marxismo y liberación de la mujer*, Dédalo, Madril, 1977.

⁷¹ Leonor Silvestri, *Primavera con Monique Wittig. El devenir lesbiano con el dildo en la mano de Spinoza transfeminista*, Queen Ludd, Buenos Aires, 2019.

⁷² Monique Wittig, *Pentsamendu heterozuzena*, Susa, Zarautz, 2017 [1980].

Horrekin batera “gizon” eta “emakume” kategoriak kategorio politiko eta ekonomikoak direla azaltzen du, harreman heterosexualak eta horrek eragindako zapalkuntzak sorturikoak. Beraz, lesbianak emakumeak ez direla adierazten du, emakume egiten dituen gizonezkoekiko harreman horretatik ihes egiten dutelako. Hala ere, heterosexualitateak araututako hizkuntza edo terminoetan mintzatzea besterik ez dagoela azaltzen du, eta azkenik, hau aldarrikatzen du: “Ideologia, beti, besteak gara.”⁷³

Bide horretan, Judith Butler-en lanak aipatzea ezinbesteko zait. Sexua biologikoa eta generoa eraikuntza kulturala denaren teoria zalantzan jarri eta ukatu egiten du. Sexua jada generoaz hornituta dagoela azaltzen du eta gorputza bera eraikuntza bat dela, diskurtsoaren aurretik existitzen ez dena eta sexuaren dualtasuna naturala denik errefusatzen du. Performatibitatearen bitartez, hau da, ekintza edo arau baten errepikapen eta erritualizazio bitartez gorputzak naturalizatzen direla azaltzen du eta generoak ulergarri egin, desira heterosexualizatzen den bitartean.⁷⁴

Judith Halberstam-en *Masculinidad Femenina* liburua, bide horretan, maskulinitatea eta feminitatea nola eraikitzen diren ikusteko aproposa da. Gizonen maskulinitatea naturalizatzen den bitartean, klase ertaineko gizon zuriaren gorputzetik ateratzen denean arbuigarri bihurtuz. Maskulinitate original eta kopiaren arteko falazia mahai gaineratzen du eta hegemoniko eta nagusi den maskulinitate eta besteen arteko erlazio eta dialektikaz aritzen da. Horrekin erlazioan, Michel Foucaulten sexualitatearen historiak, sexualitatea nola eraikitzen eta aldatzen joan den historian zehar azaltzen du, boterearen, jakintzaren eta sexualitatearen arteko erlazioa mahaigaineratuz.⁷⁵

Analisi historikoari dagokionean azaldutakoa ikerketa historikoan txertatzea erronka handia izan da hamarkadetan zehar, eta egun ere eztabaidek jarraitzen dute. Oinarrizkoak ditugu Joan W. Scott-en⁷⁶ hausnarketa eta proposamenak, 80ko hamarkadan egindakoak eta ondoren zalantzan jarri eta birpentsatu zituenak:

⁷³ Ibidem, 95.

⁷⁴ Judith Butler, *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*, Paidós Studio, Bartzelona, 2011 [1990]; Judith Butler, *Cuerpos que importan. Sobre los límites materiales y discursivos del «sexo»*, Paidós, Buenos Aires, 2002 [1993].

⁷⁵ Judith Halberstam, *Masculinidad femenina*, Egales, Bartzelona, 2008 [1998]; Michel Foucault, *Historia de la sexualidad I. La voluntad de saber*, Siglo XXI, Madril, 1980 [1976]; Michel Foucault, *Historia de la sexualidad II. El uso de los placeres*, Siglo XXI, Madril, 1993 [1976].

⁷⁶ Joan W. Scott, “Sobre lenguaje, el género y la historia de la clase obrera”, *Historia Social*, 4. zkia., 1989, 81-98; Joan W. Scott, “El género: una categoría útil para el análisis histórico”, James S. Amelang eta Mary Nash (ed.), *Historia y género: las mujeres en la Europa moderna y contemporánea*, Diputació

“No hay una esencia de ser mujer (o de ser hombre) que aporte un sujeto estable para nuestra historias; sólo existen iteraciones sucesivas de una palabra que no tiene un referente fijo y por lo tanto no significa siempre lo mismo. (...) Y en tal caso, entonces el género es una categoría útil para el análisis porque nos obliga a historizar las formas en las cuales el sexo y la diferencia sexual han sido concebidos.”⁷⁷

Genero historiaren inguruko artikulu eta lanak jadanik azaldu ditudan arren, hemen beste batzuen inguruan arituko gara. Emakumeak euren historia 70eko hamarkadan ikertzen eta idazten hasi ziren, garaiko mugimendu feministaren indarraren goraldiaren testuinguruan, eta, beraz, ideia feministei guztiz lotuta. Emakumeen historia eta horren ondorengo izango zen genero historia gai izan zen aberastasuna eta pluraltasuna zabaltzeko, kategoria analitiko ugari eta berriak erabiliz eta gizonak guztiaren neurria zirenaren premisa zalantzan jarritz. Diferentzia sexualak izaera historikoa, soziala eta kulturalki eraikia zuela mahaigaineratu, eta horrek historia ikertzeko eta egiteko moduak eta emaitzak irauli zituen.⁷⁸

Mary Nash izan zen espainiar Estatuan emakumeen historian aritu zen lehenetarikoa, eta erreferente izaten jarraitzen du.⁷⁹ Asko dira genero historiatik egin diren lan eta ikerketak, nire tesirako ezinbesteko izan direnak.⁸⁰

de València. Institució Alfons el Magànim, València, 1990 [1986], 23-58; Joan W. Scott, “Experiencia”, *Revista de estudios de género: La Ventana*, 2. bol., 13. zkia., 2001 [1992], 42-74.

⁷⁷ Joan W. Scott, “Género: ¿Todavía una categoría útil para el análisis?”, Universidad del Valle, Centro de Estudios de Género, Mujer y Sociedad, 2011 [publicazio elektronikoa], 99-100.

⁷⁸ Dolores Ramos Palomo, “Historia de las mujeres y género. Una morada a la época contemporánea”, *Revista de historiografía*, 22. zkia., 2015, 211-233; Mary Nash, “Dos décadas de historia de las mujeres en España: una reconsideración”, *Historia Social*, 9. zkia., 1991, 137-161.

⁷⁹ Mary Nash, “Desde la invisibilidad a la presencia de la mujer en la historia: corrientes historiográficas y marcos conceptuales de la nueva historia de la mujer”, *Nuevas perspectivas sobre la mujer: actas de las Primeras Jornadas de Investigación Interdisciplinaria*, 1. bol., 1983; James S. Amelang eta Mary Nash (ed.), *Historia y Género: Las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea*, Diputació de València. Institució Alfons el Magànim, València, 1990; Mary Nash eta Diana Marre (ed.), *El desafío de la diferencia: representaciones culturales e identidades de género, raza y clase*, UPV/EHU, Bilbo, 2003; Mary Nash, *Treballadores: un segle de treball femení a Catalunya (1900-2000)*; Generalitat de Catalunya, Bartzelona, 2010; Mary Nash (ed.), *Feminidades y masculinidades. Arquetipos y prácticas de género*, Alianza, Madril, 2014.

⁸⁰ Cristina Borderías Mondejar (ed.), *Género y políticas del trabajo en la España contemporánea: 1836-1936*, Icaria editorial, Bartzelona, 2007; Cristina Borderías Mondejar (ed.), *La historia de las mujeres: perspectivas actuales*, Icaria, Bartzelona, 2009; Temma Kaplan, “Conciencia femenina y acción colectiva, el caso de Barcelona, 1910-1918”, Mary Nash eta James, S. Amelang, *Historia y Género...*, 267-296; Isabel Morant Deusa (zuz.), *Historia de las mujeres en España y América Latina. Del siglo XIX a los umbrales del XX*, Cátedra, Madril, 2006.

Nire tesiaren ikergaia 90eko hamarkadan sorturiko gatazka bat izanik, egungo historiari eginiko ikerketak ezinbesteko izan ditut, metodologia, kontzeptu eta iturrien erabileraren inguruan informazioa eman didatenak, batez ere bi aldizkaritakoak: *Historia Actual Online* eta *Tiempo Devorado. Revista de Historia Actual*.⁸¹ Bertan, egungo historia garaikideko periodo kronologiko baten espezializazioa edota historia egiteko modua dela eztabaidatzen dute, testiguen presentziak, memoria biziak eta historialariaren gerturapenak ezaugarritzen duelarik:

“De ahí que debemos dejar establecido como punto de partida que el conocimiento histórico emanado de la investigación del Historiador del Presente tiene características peculiares que lo diferencian del producido por otros historiadores dedicados a otras áreas del conocimiento. Esto está dado, fundamentalmente, por los métodos y fuentes, el objeto de estudio y además, la participación directa del investigador en el propio hecho, desde diferentes posiciones, lo que condiciona sus resultados. (...) Lo cierto es que ya sea historia del presente o del pasado, el resultado de la investigación va a estar permeado por la subjetividad del historiador o lo que muchos han dado en llamar el condicionamiento social del investigador.”⁸²

Egungo historiari historialariaren ikerketetatik positibismoak kanporatu zituela azaltzen dute, eta Bigarren Mundu Gerraz geroztik historiaren eremura bueltatzen hasi zela, 70eko hamarkadan indarra hartuz. Historialariak, beraz, ikertzen dituen prozesuekin garaikidetasun bat du, bukaera irekiak dituzten gertaerak analizatuz eta iraganaren eta

⁸¹ Carlos Barros Guimeráns, “La historiografía y la historia inmediata: la experiencia latina de la historia a debate (1993-2006)”, *Historia Actual Online*, 9. zkia., 2006, 193-196; Carlos Barros, “Los fines de la historia en el siglo XXI”, *Historia Actual Online*, 45. zkia., 2018, 147-155; Fabrizio Capocetti eta Diego Melegari, “Marxismo en el presente. Mapa de los conceptos para pensar el cambio”, *Tiempo Devorado. Revista de Historia Actual*, 3. zkia., 2017, 478-508; Eugenio del Río Gabarain, “Cambios ideológicos en los movimientos alternativos”, *Historia Actual Online*, 40. zkia., 2016, 153-159; Margarita Iglesias Saldaña, “Trauma social y memoria colectiva”, *Historia Actual Online*, 6. zkia., 2005, 169-175; Manuel Montero, “La reformulación identitaria del nacionalismo vasco. La ideología del PNV tras la dictadura franquista”, *Historia Actual Online*, 38. zkia., 2015, 7-21; José Luis Neila Hernández, “La construcción del otro”, *Tiempo Devorado. Revista de Historia Actual*, 1. zkia., 2016, 167-172; David Oviedo Silva, “Subalternidad e informacionalismo: proyecciones en teoría de la historia desde sociedades periféricas”, *Historia Actual Online*, 9. zkia., 2006, 181-191; Gonzalo Pérez Álvarez, “Por una historia de (hacia) el futuro”, *Historia Actual Online*, 45. zkia., 2018, 157-169; Julio Pérez Serrano, “La historia continúa”, *Historia Actual Online*, 1. zkia., 2003, 7-9; Jaume Suau, “el presente en clave histórica”, *Tiempo Devorado. Revista de Historia Actual*, 1. zkia., 2016, 152-166.

⁸² Lidia Rosa Ordaz Sánchez, “La historia del presente y el conocimiento histórico”, *Historia Actual Online*, 29. zkia., 2012, 133-140.

orainaldiaren arteko mugak lausoak direla jakinik.⁸³ Iturrien aldetik ikus-entzunezko iturriak eta ahozko iturrien erabileraren nondik norakoak eta horien inguruko eztabaida eta proposamenak ugariak dira, bai eta memoriaren funtzionamendu eta kontzeptualizazioak.⁸⁴

Hala ere, memoria eta ahozko iturrien arloan ahozko historiara jo dut, eta bizitza historien eta testigantzen bidez jaso dut informazioa, Miren Llona izanik horren erreferente. *Bizitza historiek* prozesu eta narratiben berri ematen digute, elkarrizketatuen kontakizun pertsonalen bitartez norbanakotik arlo sozial eta kolektibora heltzea ahalbidetuz. Hau da, memoria eta oroitzapenen subjektibotasunaren bitartez bide bat egin daiteke esperientzia indibidualetik espazio sozialera eta kulturalera, kontuan izanda memoria ez dela gertakarien biltegi pasibo bat, baizik eta aktiboki egindako esanahien eraikuntza prozesu bat. Testigantzak iraganari zentzua emateko egindako saiakerak dira, eta bertan iragana, oraina eta etorkizuna etengabeko erlazio eta eraginean daude, iraganaren oroitzapenak oraineko balio eta pertzepzioek eta etorkizuneko espektatibek baldintzatuz.⁸⁵

Bide honetan, batez ere testigantzen bitartez, baina baita iturri idatzien bidez ere, protagonistek bizitako emozioen berri izaten dugu, eta horiek zer eragin edo zer egiten duten ikusteko, Sara Ahmed-en emozioen politika kulturalaren inguruko tesia jarraitu dut:

“Así que las emociones no son simplemente algo que «yo» o «nosotros» tenemos, más bien, a través de ellas, o de la manera en que respondemos a los objetos y a

⁸³ Ángel Soto Gamboa, “Historia del presente: estado de la cuestión y conceptualización”, *Historia Actual Online*, 3. zkia., 2004, 101-116; Eugenia Allier Montano, “Balance de la historia del tiempo presente. Creación y consolidación de un campo historiográfico”, *Revista de Estudios Sociales*, 65. zkia., 2018, 100-112.

⁸⁴ Fabrizio Abarzúa Victoriano, “Historia oral en primera y tercera persona”, *Historia Actual Online*, 44. zkia., 2017, 149-156; Mario P. Díaz Barrado, “La imagen en el tiempo: el uso de fuentes visuales en historia”, *Historia Actual Online*, 29. zkia., 2012, 141-162; Raúl Magallón Rosa, “La historia multimedia. La transformación de la memoria evenemencial”, *Historia Actual Online*, 17. zkia., 2008, 169-174; David Molina Rabadán, “Historia actual y sociedad de la información: reflexión sobre por qué debería haber buenas relaciones”, *Historia Actual Online*, 2. zkia., 2003, 81-89; Cristina Roda Alcantud, “Formas de vida y sociabilidad en un pueblo costero a través de la memoria y la imagen”, *Historia Actual Online*, 27. zkia., 2012, 177-188; Juan Sánchez González, “Sobre la memoria. El pasado presente en los medios de comunicación”, *Historia Actual Online*, 4. zkia., 2004, 153-163.

⁸⁵ Miren Llona, “Memoria e identidades. Balance y perspectivas de un nuevo enfoque historiográfico”, Cristina Borderías, *Historia de las mujeres: perspectivas actuales*, Icaria, Barcelona, 2009, 363; Alessandro Portelli, “What Makes Oral History Different”, Robert Perks eta y Alistair Thomson (ed.): *The Oral History Reader*, Londres, Routledge, 1998, 37-38; Alessandro Portelli, “¿Historia oral? Historia y memoria: la muerte de Luigi Trastulli”, *Historia y Fuente Oral*, 1. zkia., 1989, 5-32.

los otros, se crean superficies o límites: el «yo» y el «nosotros» se ven moldeados por –e incluso toman la forma de– el contacto con los otros. (...) En otras palabras, las emociones no están ni «en» lo individual ni «en» lo social, sino que producen las mismas superficies y límites que permiten que lo individual y lo social sean delineados como si fueran objetos.»⁸⁶

Hau da, emozioak ez dira edukitzen, baizik eta zirkulazioan daude eta horrek gorputz indibidual eta kolektiboen mugak ezartzen ditu, baita *gu* eta *bestearen* artekoak ere. Izan ere, beldurra, maitasuna, gorrotoa, nazka, lotsa eta mina bezalako emozioen zirkulazioaren funtzionamendua ikertu eta komunitateak osatu, kohesionatu edo apurtzeko duten potentzialitatea aldarrikatzen du. Emozioak ekintzetan eta gorputzetan materializatzen direla eta indarkeriarekin lotura dutela mahaigaineratzen du. Horren haritik, beste ikerlari batzuek komunitate emozionalen inguruan hitz egiten dute: espresio eta arau emozional berberei atxikitzen zaizkien pertsonen osaturiko taldeak lirake eta horiek agentzia bat izango lukete, baita gertakari batzuen kausa ere.⁸⁷

Michel Foucaulten boterearen inguruko hausnarketa eta planteamenduak ere boterea jabetzan edukitzen den ondasun bat ordeztu harremanen bitartez, katean eta etengabeko zirkulazioan dagoen ekintza bat dela dio. Horrek, honako hau ikertzeko balio digu:

“Se trata, por el contrario, de coger al poder en sus extremidades, en su confines últimos, allí donde se vuelve capilar, de asirlo en sus formas e instituciones más regionales, más locales, sobre todo allí donde saltando por encima de las reglas de derecho que lo organizan y lo delimitan, se extiende más allá de ellas, se inviste en instituciones, adopta la forma de técnicas y proporciona instrumentos de intervención material, eventualmente incluso violentos.”⁸⁸

Zentzu horretan, nire ikergaiaren espazioa bezalako eremu lokalean boterearen zirkulazioaren inguruko kontzeptualizazio horrek sinplifikazioetatik ihes egitea ahalbidetuko dit. Foucaultek azaltzen duen bezala, boterea oso urrunetik ikusiz soilik banatu ditzakegu hori edukitzen edo erabiltzen dutenak eta ez dutenak edota boterea jasaten dutenak. Hori ez da nire kasua, baina aldi berean ezin dugu boterea espazio

⁸⁶ Sara Ahmed, *La política cultural de las emociones*, UNAM, Mexiko DF, 2015 [2014], 34-35.

⁸⁷ Larisa Medina Brener, “Comunidades emocionales...”; Juan Manuel Zaragoza eta Javier Moscoso, “Presentación: comunidades emocionales...”

⁸⁸ Michel Foucault, *Microfísica del poder*, La piqueta, Madril, 1992 [1977], 142.

lokalean isolatu, eta harremanetan jarri behar dugu hortik kanpo eta maila zabalagoan zirkulazioan dagoenarekin.

Bestetik, James C. Scott-en *Los dominados y el arte de la resistencia*⁸⁹ baliagarri zaigu; esklabutza, feudalismoa edo Indiako kasten sistemak hartzen ditu analisi-gai, baina gure gaia aztertzeke ere baliagarriak diren tresnak ematen dizkigu. Adibidez, diskurtso publiko eta ezkutuko diskurtsoaren inguruko proposamen eta teoria, eta erresistentziak artikulatzeko orduan produkzio sinbolikoak duen garrantzia. Komunitateak sortzeko orduan eta gatazka bat lehertzera iristeko bidean ezkutuko diskurtsoak izaten duen eragina ukazina da; hain zuzen, zapalkuntza baten kontzientzia hartzea, horren kontrako diskurtso baten eraketa eta ekintza politikoa aurrera eramateko. Horrez gain, azaleko harmonia eta agintariekiko obedientziaren azpian erresistentzia eta desobedientzia keinuak, diskretuak edota anonimoak identifikatzen ditu, indibidualak izatetik urrun, konpartituak eta kolektiboak. Eta nahiz eta boterea eta hierarkia esplizituki zalantzan ez jarri, iritzi eta posizio horiek elkarbanatzeko espazio eta harreman sozialak existitzen zirela azaltzen du, ordena zalantzan jartzera ere irits zitezkeenak.

Jarraian eta aurrekoarekin erlazioan, Ramon Grosfoguel-ek, Alain Badiou-ren tesiari jarraiki egidako *gertakariaren kontzeptualizazioa* azalduko dut, Alardeen gatazka lehertu zen momentua *gertakari* gisa definituz eta ondoren gertatutakoa ikertzeko ere baliagarri izanik. *Gertakari* bat herri baten dominazio eta esplotazio erreproduzio logikak ezustean eten egiten dituen gertaera bat da, inork espero ez duena. Dominazioa bermatzen duen ordena sozial eta politikoa zalantzan jartzen duen ekintza iragankorra da. *Gertakariaren* esperientziak jendearen subjektibotasunean eragiten du, eta gizartea ez dago aurreko egunean zegoen toki berberean eta diskurtso berri bat sortzen da. Momentu hartatik aurrera bi bide zabaltzen dira, banaketa bat gertatuz hori bizi izan duen gizartean. Batetik, *gertakariari* leial mantentzen direnak daude, eta bestetik, suntsitu nahi dutenak, *gertakariaren* aurreko egunera bueltatu, *gertakaria* lurperatu nahi dutenak.⁹⁰

⁸⁹ James C. Scott, *Los dominados y el arte de la resistencia*, Era, Mexiko, 2004.

⁹⁰ Youtube: 14 agost/ Entrevista a Grosfoguel. Impossible triar només un titular; Alan Badiou, *El ser y el acontecimiento*, Manantial, Buenos Aires, 1999.

Alardeen gatazka 90eko hamarkadan lehertu zen, Eric Hobsbawmen aburuz XX. mende motza amaitu ostean, zentzu batean mundu bat bukatu zeneko ondorengo urteetan.⁹¹ Mundu baten amaierak ziurgabetasun sentrazioa eta aldaketen aurreko beldurra azaleratzea ekar zezakeen, eta bizitako esperientzia horiek aztertzeke autore batzuen lanetara jo dut. Jean Baudrillard-ek zioen, 70eko hamarkadan jada, etengabeko aldaketa eta gaurkotasun permanenteak arlo sozialeko mugiezintasun eta botere formaren kristalizazioaren joera ezkututzen zituela. 90eko hamarkadako mundu amaierak eta ageriko aldaketa konstanteak zer ezkututzen zuen antzemateko balio digu ideia horrek.⁹² Marshall Berman-ek bide horretatik hau idatzi zuen 80ko hamarkadan:

“Nuestras vidas están controladas por una clase dominante con intereses creados no solamente en el cambio, sino también en la crisis y el caos. «Una incesante conmoción, una inquietud y un movimiento constantes», en vez de subvertir esta sociedad, sirven en realidad para fortalecerla. Las catástrofes se transforman en oportunidades lucrativas de más desarrollo y renovación.”⁹³

Krisi eta katastrofe, etengabeko aldaketa eta transformazio horien inguruan bizitako esperientziekin, denboraren kontzeptzio normatiboarekin eta guzti horrekin eraginean dagoen kulturaren berri izateko, modernismo eta postmodernismoaren inguruko eztabaidan sakontzeko Fredric Jameson, Andreas Huyssen eta José Javier Díaz Freireren lanetara jo dut.⁹⁴ Nire gairako gehien interesatzen zaidana da, ordea, horren aurrean gizarteak zein estrategia eta zeri heldu ahal zion segurtasuna sentitzeko, eta horretan oraindik ere 90eko hamarkadan tradizio eta erritoei bete zezaketen papera. Zentzu horretan, Erich Fromm-ek aldaketa eta askatasunaren beldurraren aurrean historian zehar emandako mugimendu eta subjektibitateak analizatu ditu psikologia eta

⁹¹ Eric Hobsbawm, *Historia del siglo XX*, Crítica, Barcelona, 2013 [1995], Eric Hobsbawm, *Entrevista sobre el siglo XXI*, Crítica, Barcelona, 2000 [1999].

⁹² Jean Baudrillard, *La sociedad de consumo. Sus mitos, sus estructuras*, Siglo XXI, Madrid, 2012 [1970], (XXX).

⁹³ Marshall Berman, *Todo lo sólido se desvanece en el aire. La experiencia de la modernidad*, Siglo XXI, Madrid, 1988 [1982], 90.

⁹⁴ José Javier Díaz Freire, “La experiencia de la modernidad como una experiencia barroca”, *Historia Crítica*, 56. zkia., 2015, 137-160; José Javier Díaz Freire, “Los tiempos de la modernidad. A propósito de Marshall Berman”, *Historiografías*, 11. zkia., 2016, 17-32; José Javier Díaz Freire, “Tiempo al tiempo. Modernidad, experiencia y tiempo”, *Iglesia Viva*, 277. zkia., 2019, 25-42.; Andreas Huyssen, *Después de la gran división. Modernismo, cultura de masas, posmodernismo*, Adriana Hidalgo, Buenos Aires, 2002 [1986]; Andreas Huyssen, *Modernismo después de la posmodernidad*, Gedisa, Barcelona, 2011 [2010]; Fredric Jameson, *El posmodernismo o la lógica cultural del capitalismo avanzado*, Paidós, Barcelona, 1995 [1984]; Fredric Jameson, *Teoría de la postmodernidad*, Trotta, Madrid, 1996 [1991]; Fredric Jameson, *El postmodernismo revisado*, Abada, Madrid, 2012.

soziologiatik.⁹⁵ David Lowenthal-ek, iraganak eta tradizioek orainaldiko jarrera eta ekintzei balioa emateaz gain, iraganak amaiera bat izateak egonkortasun eta iraunkortasuna transmititzen duela dio, etengabeko aldaketan dagoen orainaren aurrean iraganari ezin zaiolako ezer berririk gertatu:

“Reconocer que el pasado ha sido alterado de forma comprensible, es algo que despierta ansiedad. Un pasado que se ve como algo abierto a la manipulación no sólo socava las supuestas verdades históricas sino que implica un presente frágil y acarrea un futuro inestable.”⁹⁶

Azkenik, hegemonia politikoa nola eraikitzen den, neutraltasunaren atzean zer ezkututzen den eta ageriko unibertsaltasuna zein partzialtasunez osaturik dagoen ikertzeko, Antonio Gramsciren *hegemonia* kontzeptuaz gain, Ikasketa Subalernoaren arloan egindako lanek balio izan didate. Izan ere, Alardeen konfliktuak emakumeen ustezko berdintasun eta aurrerabidearen linealtasuna apurtzen du, salbuespen edota anakronismo gisa azalduz denbora homogeen batean. Ideia horri guztiz kontrajarri nahian, denbora heterogeneoa oinarritzat hartuz eta konfliktuak testuinguruan ikertuz, Historia Unibertsal hori zalantzan jarri dut. Unibertsaltasunaren ideia partzialtasun baten hegemonia bitartez eraikitzen da, unibertsaltasun hori lortzeko etengabeko dialektika batean egonik partzialtasunak. Alardea bera edo herri kontzeptuak barnebiltzen duena azaldu dudaren bitartez ikertzeak indar eta harreman batzuk azaleratu ditzake.⁹⁷

3. Ikerketaren iturriak

Iturriei dagokienean, hiru multzotan sailkatu ditut. Alde batetik, ahozko iturriak, elkarrizketen bitartez lortuak; bigarrenik, iturri idatziak, hemeroteca eta artxiboetatik

⁹⁵ Erich Fromm, *El miedo a la libertad*, Paidós Contextos, Madril, 2012 [1947].

⁹⁶ David Lowenthal, *El pasado es un país extraño*, Akal, Madril, 1998 [1985], 572.

⁹⁷ Antonio Gramsci, *Cuadernos de la cárcel. Tomo 2*, Ed. Era, Mexiko, 1981; Samir Amin, *Sobre el desarrollo desigual de las formaciones sociales*, Cuadernos Anagrama, Bartzelona, 1976 [1972]; Dipesh Chakrabarty, *Al margen de Europa. ¿Estamos ante el final del predominio cultural europeo?*, Tusquets Editores, Bartzelona, 2008 [2000]; Gayatri Chakravorty Spivak, *¿Pueden hablar los subalternos?*, MACBA, Bartzelona, 2009 [1985]; Gayatri Chakravorty Spivak, *Otras Asias*, Akal, Madril, 2012 [2008]; Ranahit Guha, *Las voces de la historia y otros estudios subalternos*, Crítica, Bartzelona, 2002 [1982, 1983, 1996]; Ranahit Guha, *Las historia en el término de la historia universal*, Crítica, Bartzelona, 2003 [2002]; Immanuel Wallerstein eta Étienne Balibar, *Raza, nación y clase*, Iepala, Madril, 1991 [1988].

jasoak, eta azkenik, ikus-entzunezko iturriak, bai artxiboatatik bai eta interneteko orri eta plataforma ezberdinetatik lortuak.

Ahozko iturriei dagokienez, esan bezala, Alardeen konfliktoa ezagutu eta bizi izan duten pertsonen testigantzak jaso ditut, elkarrizketa bidez haien *bizitza historiak* lortuz. Hogeita hamabost pertsona elkarrizketatu ditut, hogeita bat emakume eta hamalau gizon, urte ezberdinetan jaiok. Gazteenak hogeita bi urte ditu eta helduenak hirurogeita hamazazpi. Hogeita hamabost horietatik hogeitazazpi Hondarribikoak dira, bertan jaiok edo bertan bizi direnak, eta batez ere Hondarribiko Alardearen inguruko bizipenak kontatu dituzte, baina ez hori bakarrik. Izan ere, Irungo Alardearen gatazkaren historiarekin guztiz lotuta ere badaude, eta horren inguruan ere jardun dira, ezinezko eginik bi herrien historia banatuta azaltzea. Irunen jaio edota bizitakoak hamalau izan dira, eta horiek ere Irungo Alardeaz gain Hondarribikoaz jardun dira. Azkenik, Txaro Arteaga Emakundeko zuzendaria izandakoa ere elkarrizketatu dut; 1988tik 1999ra arte egon zen postu horretan eta Alardeen gatazka gertutik bizi izan zuen.

Elkarrizketatuen gehiengoa emakumeak Alardean ateratzearen aldekoak dira. Posizio eta ideologia, ibilbide eta inplikazio ezberdinekoak dira, baina bat egiten dute emakumeak Alardean ateratzearen alde. Alarde tradizionalaren aldeko hiru pertsonaren testigantzak soilik lortu ditut, hirurak gizonak, adin ezberdinetakoak. Beraz, gizon soldaduen eta emakume kantineren Alardeen alde daudenen subjektibitate eta bizipenen informazio gutxiago dut, baina horrek beste iturri batzuen bidez hutsune hori betetzera eramanez. Azaldu nahi dut gatazkan nire gertutasunak eta posizioak eragin izan ahal duela elkarrizketatuak izatea ukatzea, baina ziur nago inolako inplikaziorik gabeko pertsona batek ere kostata lortuko zituela horiek elkarrizketatzea eta horien *bizitza historia* lortzea. Izan ere, Alarde tradizionalen aldekoek behin eta berriro errepikatu dute Bidasoaldetik kanpokoek ezin dutela gai honen inguruan jardun eta manipulatu besterik ez dutela egiten. Hortaz, modu bakarrenetarikoa horien inguruari elkarrizketak egiteko horien parte izatea litzateke, herri-komunitateko kide, hau da, Alarde tradizionalaren aldeko.

Ahozko historia nire lanaren zutabeetako bat da. Gertakarien berri eman ordez, testigantzak baliagarriak dira garaiko balioak, subjektibitateak, inkontzientziak eta abar aztertzeko, betiere kontutan hartuta testigantzek ez digutela iragana bere horretan erakusten, gaur egunak baldintzatzen duela, bai eta etorkizuneko espektatibek ere.

Norbanakoek ekintza, gorputz eta bizitza propioei emandako esanahien inguruko informaziora iristeko bide dugu *bizitza historia* elkarrizketa metodoa, eta aldi berean, baita inguratu zituen eta dituen munduari eman zioten eta dioten zentzua aztertzeko ere. Izan ere, memoria oroitzapenak biltegitzeko espazio pasibo izatetik urrun, garunean kokatzen den giza ahalmena da, gorputzean integratua dagoena eta emozioekin etengabeko harremanean:

“La huella emocional es imprescindible en el proceso de fijación de un recuerdo y, asimismo, toda imagen recordada se ve acompañada de una reacción del aparato de la emoción. Finalmente, queremos insistir en la materialidad de la experiencia emocional, es decir, que el recuerdo no es un enlace mental, sino que queda grabado en el cuerpo y asociado a toda una serie de procesos inscritos en el mismo.”⁹⁸

Garunean gordetzen den informazioa irudietan egiten da, pertzepzioa, memoria, arrazoimena eta emozioen arteko funtzionamendu konplexu bat inplikatzen duena. Irudi horien finkapena, ordea, ez da gertatutakoaren erreproduzio zehatza, zehaztugabe eta bukatugabeko kopien sorkuntza baizik. Hau da, memoriak etengabe informazioa jaso eta berrinterpretatzen du, informazio hori aldatu eta interpretazio berriak eginez. Ondorioz, memoriak orainaldian ekiten du, orainaldiko baldintzek oroitzapenak birplanteatuz eta balio propioa emanez. Miren Llonak *memoria enklabe* gisa izendatzen ditu babesleku mentalak, identitatearen eraikuntzarekin eta emozioekin lotuta daudenak, ahaztura eta aldaketak desafiatzen dituzten oroitzapenak izanik. Horiek dira elkarrizketa egiten duenarentzat bereziki baliotsuak diren kontakizunak.

Memoriak munduari zentzua ematen dio, beraz. *Nia* eraikitzen du. Hala ere, gogoratzearen akzioa eta oroitzapenen sorkuntza ez dira soilik ekintza indibidual bat, esperientzia indibidual eta kolektiboen memoria banaezinak baitira. Memoria kolektiboak ez du garun kolektibo bat biltzeko. Norbanakoen oroitzapenetan soilik dago, eta, beraz, memoria kolektibo horretara heltzeko, horren bertsio indibidualetik iritsi behar gara:

⁹⁸ Miren Llona, “Historia oral: la exploración de las identidades a través de la historia de vida”, Miren Llona (koord./ed.), *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, UPV/EHU, Bilbo, 2012, 19.

“De esta manera, el vínculo estrecho que une la memoria individual y la memoria colectiva hace de los recuerdos personales una instancia compleja que permite explorar las condiciones privadas y públicas en las que se produce y se transmite lo recordado.”⁹⁹

Ondorioz, testigantzen kontakizunean iraganak, orainak, norbanakoak eta kolektiboak elkar eragiten dute. Diskurtsoak bi zentzutan mugitzen eta elkar eragiten dute, beraz, norbanakotik kolektibora eta kolektibotik norbanakora, elkarrizketen bitartez kolektibotasuna analizatzea ahalbidetuz. Horrez gain, iraganeko memoria ordena narratibo bidez transmititzen da, eta horretan orainaldiaren balio etiko edota ideologikoen oroitzapenak filtratzen dituzte. Guzti hori kontuan hartuta eta oinarri izanda, hogeita hamabost elkarrizketa egin ditut. Horien interpretazioa tesiaren zutabeetariko bat izan da, eta horrek gertakarien berregitea ordez horien zentzua eta subjektibitateak interpretatzeko balio izan dit.

Iturri idatziei dagokienean, egunkari ezberdinetako hemerotekara jo dut. *El Diario Vascoren* aleen azterketa 1975etik egiten hasi nintzen, urte bakoitzeko Irungo eta Hondarribiko Alardeetako aurreko eta hurrengo asteak begiratu. Hau da, 1975etik 1993ra arteko ekaineko azken astea eta uztaileko lehena, Irungo Alardeari dagokionez, eta iraileko lehen bi asteak, Hondarribikoaren kasuan. Nire kronologiatik ateratzen bada ere, emakumeen parte hartzearen inguruan aurrekari edo saiakerarik egon zen ikusi nahi nuen. Ondoren, 1993tik 2008ra arteko *El Diario Vasco*, *Egin/Gara* eta *Egunkaria/Berria* analizatu ditut, eta 1993tik 2002ra arteko *El País*, *El Mundo* eta *Deia*. Egunkarietan Alardeen inguruko guztia gainbegiratu dut: berriak, editorialak, artikulua eta zuzendarientzako gutunak. Horiek, gertakarien informazioa emateaz gain, iritziak, bizipenak eta posizioak analizatzeko ere balio izan didate. Gertaera berberaren inguruan egunkariaren trataera eta erabilitako termino ezberdinak ere antzeman eta aztertu ditut. Bestetik, Alarde Fundazioaren *Titibiliti*, Hondarribiko Emakumeen *Guadalupe* eta Hondarribiko Udalaren *Hondarribia* aldizkariak gainbegiratu ditut, Alardearen eta gatazkaren inguruko diskurtso eta ikuspegiak aztertzeke batez ere.

Artxiboei dagokionez, bi artxibo pribatu aztertu ditut, emakumeak Alardean ateratzearen aldeko bi emakumeek urteetan zehar jasotako bilera akta, komunikatu,

⁹⁹ Ibidem, 24.

panfleto, egunkari eta aldizkariz betetakoak. Bestetik, Irungo udal artxibora jo dut, batez ere udaletxeko pleno eta udal gobernuko bileren aktak errebisatzeko.

Azkenik, artxibo pribatuetan eta interneteko orrialdeetako argazki eta bideoen bidez ere informazioa jaso dut. Horiek batez ere Alarde egunetakoak dira, eta iturri idatziek jasotzen ez dituzten datu asko ageri dira bertan. Hau da, Alardeaz gain ingurua azaltzen da, kaleak, banderak, jendea eta oihiak eta kantikak entzuten dira. Horrez gain, Irungo pleno batzuetako bideoak ere begiratu ditut, bai eta antolakunde eta alderdi politiko desberdinen prentsurrekoak.

4. Kapituluak

Ikerketa kronologikoki antolatu dut, Alardeen gatazkaren ikuspegi eta analisi historikoa egiteko aproposena dela konbentziturik. 1993an hasten dut analisia, urte horretan hasi baitziren Hondarribian emakume batzuk emakumeen Alardeko parte hartzearen inguruan hitz egiten, elkartzeko eta antolatzen. 2008an amaitzen dut, urte horretan kaleratu baitzuten Espainiako Auzitegi Gorenak Alarde tradizional pribatizatuen legalitatearen aldeko sententzia, eta horrekin gaur egunera irauten duen gatazkaren etapa bat itxi baitzen. Honako atal eta kapitulu hauek osatzen dute tesia:

Lehenengo kapituluak *Genero ordenaren apurketaren ostean ezer ez zen berdin izango* izenburua du, eta 1993tik 1996ko tartea hartzen du. Bertan, Hondarribiko emakume batzuk nola eta zein testuinguruan hasi ziren elkartzeko azaltzen dut. Haietariko askok kantineren papera barneratua zuten, baina urte horietan zer edo zerk, gertakari, elkarrizketa edota bizipen batek, Alardeko emakumeen papera zalantzan jartzera eramane zituen. Nahiz eta haien buruak feministatzat ez hartu askok, aurreko hamarkadetako mugimendu feministaren ideiak barneratuta zituztela planteatzen dut. Hiru urte horietan antolatu ziren Hondarribiko eta ondoren Irungo emakumeen eztabaida, ekintza eta bizipenak azaltzen ditut eta 1996ko Alardeetako genero ordenaren eztabaida. Momentu horiek *gertakari* gisa aztertu eta emakumeak soldaduz Alardeetan sartzeak guztia zalantzan jarri zutenaren hipotesia azaldu dut.

Dena izan zen posible baina gorputz objektua *eraiki zuten* da bigarren kapituluaren izena, eta 1996ko Alardeetako eztabaidatik hasi eta 1997ko Alardeetan bukatzen dut. Konfliktua lehertu zenean guztia hankaz gora jarri zen, nolabaiteko kaosa nagusituz.

Momentu horretan dena posible zela azaltzen dut, gatazkan parte hartuko zuten agenteen indar korrelazioa ezarri gabe baitzegoen oraindik ere. 1996ko Alardeetatik emakume soldaduak kanporatu zituzten, irain, bultzada eta oiherarte, eta momentu horretatik aurrera emakume horiek herri-komunitatetik kanporatzeko prozesua hasi zuten erreakzioaren antolakuntzaz. Ondorioz, gorputz *abjektua* nola sortu zen eta zer esanahi eman zitzaizkion analizatu dut, irain, emozio eta indarkeria bidez. Horri aurre egiteko, feminismoa gertatutakoa analizatzeko tresna gisa erabili zutela azaldu dut, eta erreakzioa nola antolatu zen eta hori osatu zuten fronteak zein logikatik egin ziren analizatu. Behin ordena eta norma hautsita, horren berrezarpena are zurrunago egin zutenaren hipotesia planteatu dut, eta hortik kanpo geratu zirenak komunitate *abjektua* eraikitzen hasi zirela azaldu. 1997ko Alarde egunetan, kapitulu honen bukaeran, jada dena ez zela posible azaltzen dut, ordena berrezarri eta indar korrelazioa ezarri zelako.

Hirugarren kapitulua 1998tik 1999ra doa: *Zer egin gorputz abjektuarekin: estigmatizatu edo kanporatu*. Bertan, Irunen eta Hondarribian konfliktoak garatu zituen aldaera ezberdinak analizatzen ditut, 1998ko EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emakume soldaduen aldeko autoa kaleratu ostean. Izan ere, Irunen 1998an bi Alarde egin ziren. Bat pribatizaziora bidean, gizonek osaturikoa soilik eta gehiengoak parte hartu zuena. Bigarrenik, mistoa eta publikoa, baina udalak Alardearen bueltan egiten zituen erritoak egin gabe. Alardeak herria eta herriak Alardea eraikitzen duenaren premisapean, Irunen bi Alarde eginda bi herri eraikitzen ari zirenaren hipotesia planteatzen dut, balio eta arau ezberdinak sustatuz eta genero, klase eta nazio perspektiba eta eraikuntza ezberdinak bultzatuz. Hondarribian, kontrara, Alarde bakarra egin zen, gizon soldaduz eta emakume kantineraz osaturikoa. Konpainia misto bat desfilatzen saiatu zen, baina kaleetatik igarotzea ekidin zioten, giza harresien bitartez. Hondarribian, beraz, herri bakar bat ari zen eraikitzen, eta hortik kanpo geratu ziren emakume soldaduen eta horien aldekoen existentzia soila ere ukatuz. Kapitulu honetan, herriaren eraikuntza eta kontzepzio ezberdinak analizatu, eta Euskal Herriko politika eta egoerarekin eta euskal gatazkarekin erlazionatu ditut.

Hurrengo kapituluak, laugarrenak, *Ordena zurruntzera bidean* du izenburu, 1999. eta 2000. urteak barnebilduz. Bertan, nahiz eta ordena berrezarri, emakume soldaduak existitzen eta antolatzen jarraitzen zuten bitartean, ordena arriskuan zegoela proposatu dut. Arrisku horren aurrean, ordea, emakume soldadurik gabeko Alardeen blindaje

geroz eta handiagoa eraikitzen joan zirela azaldu dut. 1999ko udal hauteskundeak analizatu ditut, eta azken urteetan udalek gai honen inguruan aurrera eraman zuten politiken neurgailu izan zirela azaldu, eta emaitzek horiek legitimatu zituztela. Bestetik, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren ordura arteko sententziek, emakume soldaduen aldekoek, horien kontrako “herri” indarkeria hauspotu zutela planteatzen dut, horiek suposatzen zuten arriskua desaktibatu nahian. Indarkeria horren normalizazioak eta inpunitateak indarkeriaren gordintzea ahalbidetu zuen, 2000. urtean puntu altuenera iritsiz. Horren adibide dira Irunen gazte batek hiru egun ospitalean ingresatuta pasa izana, emakumeak Alardean ateratzearen alde zegoelako jipoi bat jaso izanagatik, eta bestetik, Hondarribiko jaietan Ertzaintzak atxilotu zituen laurogei lagun, Jaizkibel konpainiaren ibilbidea oztopatzen saiatzeagatik.

Ordena aldatzeko saiakera berriak 2001 eta 2002ko tartea hartzen duen kapitulua da, pribatizazioak EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ateratako sententziak saihestea ahalbidetu zuela azaldu eta horren aurrean eta aurreko urteetako saiakerak fruiturik eman ez zutela ikusiz, estrategia berriak martxan jarri zituzten emakumeak Alardeetan soldaduz desfilatzen saiatzeko. Hala ere, geroz eta marjina gutxiago zuten, pribatizazioak sententzien norabidea aldatzea ekarri baitzuen. Antolakunde batek antolatutako ekintza pribatu baten elkartzeko eskubidea, ez diskriminazio eskubidearen gaineratik jarri zuten sententziek eta indar polizialak Alarde pribatizatuen zaindari bihurtu zituen. Horrek “herri” indarkeria baretu zuenaren hipotesia botatzen dut; izan ere, indar polizialek ekiditen zuten indarkeriak aurretik egindako lana, gizonez osaturiko Alardeak babestea eta arriskua desaktibatzea.

Azken kapituluak, 2003tik 2008ra doanak eta *Guztia galtzen denean, edozer irabaztea izan daiteke* izena daramanak, konfliktoaren normalizazio prozesua azaltzen du. Gizon soldaduz osaturiko Alardeak pribatizatuta eta festak bereganatuta, Alardea bizitzeko bi era ezberdin zeudela azaldu eta bakoitzak berea aukeratzea konponbidea zela adierazi zuten. Emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek, ordea, borrokan jarraitu zuten, Alarde publiko, bakar eta mistoa lortzera bidean. 2005ean EAEko Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasunerako Legea indarrean sartzeak eragindakoa analizatzen dut eta plastiko beltzak nola bihurtu ziren sinbolo eta tradizio. Herri-komunitatearen eta komunitate *abjektuaren* barne dinamikak eta elkarren arteko harremanak ere aztertu ditut. Esan bezala, 2008an amaitzen dut tesiaren kronologia. Izan ere, Espainiako

Auzitegi Gorenak Alarde pribatizatuen legalitatearen alde egin zuen, eta horrekin gizonek osaturiko Alardeak eta horiek babestu eta eraikitzen zuten genero ordena eta ordena soziala guztiz blindatuta geratu ziren. Alarde bakar, publiko eta mistoen aldekoek, ordea, borrokan jarraitu zuten, generazio berrien bultzada izanik.

1. Kapituluia. Genero ordenaren apurketaren ostean ezer ez zen berdin izango (1993-1996)

1.1. Sarrera: Alardeak herria eraikitzen du eta herriak Alardea

Alardeak Hondarribian eta Irunen ospatzen diren desfile folklorikoak dira, herriko jaien baitan zentraltasun osoa dutenak. Hondarribian, irailaren 8an egiten da, Guadalupeko Ama Birjinaren egunean, eta Irunen, berriz, ekainaren 30ean, San Martzial egunean. Hala ere, Alardeen bueltan egiten diren beste hainbat errito eta ekitaldik denbora tarte handiagoa hartzen dute. Jatorriari eta eboluzioari dagokionez eztabaida handiak izan dira, batez ere Irungo Alardeari buruzkoak eta 1996ko gatazka sortu zenetik aurrera; izan ere, bertan erabili izan ziren argumentu asko historian eta Alardeen sorreran oinarritu ziren.¹⁰⁰

Auziaren egoeran aipatu dudan bezala, 70-80ko hamarkadara arteko idatzi eta Alardeen ordenantzetan, “etsaiaren” kontra irabazitako batailetan kokatzen zuten Alardeen jatorria: Irunen lehenik eta behin 1522ko ekainaren 30ean “frantsesen”¹⁰¹ kontra Aldabe mendian lortu zutena, eta ondoren, 1813ko abuztuaren 31an soldadu napoleondarren aurka indar anglo-hispano-lusoek izandako garaipena. Hondarribian 1638an eta 30 urteko gerraren baitan “frantsesek” 69 egunez herria setiatuta eduki ondoren, irailaren 7an altxatzea lortu zuten. Batailen hurrengo urtetik aurrera, horien oroimenez eta San Martzial eta Ama Guadalupekoaren omenez, kabildo erlijioso eta zibilak prozesioak ospatzen hasi ziren, horiek laguntzeko ohorezko salbak botatzen zituen eskoltak jarraituz.¹⁰²

1979an, ordea, Antonio Aramburuk kaleratutako liburu batek milizia foraletan oinarritu zuen Irungo Alardearen jatorria:

“Cuando, hace más de cuatro años, comencé a indagar los primeros tanteos sobre la historia del Alarde en el archivo local, me sentí bastante decepcionado. Hubiera preferido, entonces, encontrarme con que el Alarde era acto inmutable e invariablemente repetido, desde el año siguiente a la batalla de 1522. Superado el primer desencanto, continué hurgando, un poco por inercia. Fui descubriendo

¹⁰⁰ Sagrario Arrizabalaga Marín, *Alarde de San Marcial...*; Xabier Kerexeta, “Historia, tradizioaren menpe...”

¹⁰¹ Imajinario kolektiboan frantsesen kontra izan zen bataila. Baina aipatu beharra dago Nafarroako Erreinuak galdu zituen territorio penintsularrak berreskuratzen saiatzeko azken saiakera izan zela Aldabe mendian gertatutakoa.

¹⁰² Xabier Kerexeta, “Historia, tradizioaren menpe...”, 54.

nuevas facetas, muy al margen de lo puramente folklórico, estrechamente ligadas con la historia de nuestro Pueblo Vasco.”¹⁰³

1980ko Irungo Alardearen ordenantzek hori jaso zuten, eta aurreko ordenantzetan azaltzen ziren 1522ko eta 1813ko datak ezabatu zituzten, nahiz eta hurrengo esaldian aipatu, inplizituki bada ere: “1804tik aurrera, Alarde honek eta Irungo apaiz eta herrigizonek zin egindakoak bat egin eta urtero ekainaren 30ean ospatzeko erabakia hartu zuten.”¹⁰⁴ 80ko hamarkadatik aurrera, Irungo Alardeko jatorriari buruzko bi bertsioak nahastuta azaldu ziren gehienetan, bai hiritarren artean, bai dokumentu eta diskurtso ofizialetan. Hondarribian, berriz, askoz markatuagoa eta guztiz onartua izan da 1638ko setioaren altxatzearen data dela Alardearen sorreraren urtea.¹⁰⁵

Eztabaida horietara ondoren itzuliko gara, esan bezala, 1996an emakumeak Alardean ateratzearen eztabaidaren eta gatazkaren inguruan batez ere kontrako argudioek historiara eta Alardeen jatorrira jo zutelako. Orokorrean onarturik dago Alardeek XIX. mendearen bigarren erdialdean folklorizazio prozesu baten baitan aldaketa formal eta kontzeptual handia bizi izan zutela eta orduan sortu zela gaur egunera arte iritsi den Alarde eredu, aldaketak aldaketa, eta horri buruz kontsentsu orokor bat dagoela esan daiteke. Hobsbawmen arabera Europako tradizio gehienak 1870 eta 1914 artean sortu ziren, nazionalismoekin eta estatuen obeditzeko beharrekin erlazionatuta. Tradizioek genero-sistema liberala eraiki eta erreproduzitzeko ere balio izan zuten, Alardeko kantineraren figura garai hartan sortu zelarik. Horrela, gizon eta emakumeen rol, jantzi eta figura propio eta desberdinak markatu ziren: “bi gorputz, bakoitza bere funtzio sozial bereziak betetzeko prestatua ordena sozial burges liberal berrian.”¹⁰⁶ Niri dagokidan kronologiatik urrun geratzen zaidanez eta gai horrek beste tesi oso baterako emango ligukeenez, albo batera utzi eta jarraian XIX. mende amaieratik gaur egunera arte ospatu diren Alardeen ezaugarri orokorrak azalduko ditut, 90eko hamarkadan zentratuz.¹⁰⁷

Esan bezala, Irungo Alardea, ekainaren 30ean, eta Hondarribikoa, irailaren 8an egiten dira, herriko jaien testuinguruan. Alardea bera egun bateko erritua bada ere, 90eko

¹⁰³ Antonio Aramburu Peluaga, *Orígenes del Alarde...*, 13.

¹⁰⁴ Irungo Udala, *San Martzialeko Alardearen Ordenantza*, 1980.

¹⁰⁵ Xabier Kerexeta, “Historia, tradizioaren menpe: Bidasoako...”, 46.

¹⁰⁶ Bakarne Altonaga Begoña, “Diferentzia sexualaren eraikuntza: gorpuzen desnaturalizazioa”, Alaitz Aizpuru Joaristi eta Bakarne Altonaga Begoña (koord.), *Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak...*, 26.

¹⁰⁷ *Ibidem*, 50; Mercedes Tranche, “Alardearen historiaren kable batzuk...”, 70; Eric Hobsbawm eta Terence Ranger (ed.); *La invención de la...*

hamarkadarako jada inguruko hainbat egun hartzen zituzten Alardeen entseguek, prestaketek eta inguruko erlijio edota udal ekitaldiek. Alardeak jatorri militar eta erlijiosoa zuten desfile folklorikoak ziren, eta konpainia desberdinek osatzen zituzten, udal ordenantzetan jasotako orden, hierarkia eta arau batzuk jarraituz. Goizean goiz konpainia bakoitza bere auzoan elkartu eta kantineraren bila joaten zen, ondoren guztiak biltzeko Irunen, Mosku¹⁰⁸ plazan, eta Hondarribian, Gernikako Arbolan. Bertan hasten zen ofizialki Alardea, herrietatik ibilbide jakin bat eginez, eta desfilea hatxeroek irekitzen zuten, kantinerarik gabeko konpainia bakarrak. Jarraian, Danborrada eta Musika Banda joaten ziren, eta atzetik Zalditeria, batailoiko buruek lagunduta, hau da, jeneralak,¹⁰⁹ komandanteak eta lau laguntzaileek. Ondoren, infanteria konpainiek¹¹⁰ desfilatzen zuten, Irunen, hamabostek, eta Hondarribian, hamaseik. Horiek guztiak txilibitu, erredoble, danbor, kantinera, eta eskopetadun gizonak osatutakoak.¹¹¹ Azkenik, Artilleria Bateriak ixten zuen desfilea, nahiz eta atzetik korporazio munizipal eta erlijiosoak¹¹² jarraitu.

90eko hamarkadan Alardean parte hartzen zuten guztiak gizonak ziren, konpainia bakoitzeko kantinera izan ezik. Hau da, urtero Irunen hemeretzi eta Hondarribian hogeit hamar emakume ezberdinek desfilatzen zuten. Haien konpainietan, gizonak aukeratzen zituzten, udal ordenantzek jasotzen zituzten baldintza batzuk betez gero, tartean gazteak eta bertan jaioak izan behar ziren edo urte kopuru bat herrian bizitzen eman behar zuten. Gizon eta emakumeentzako posizio, rol eta jantzi guztiz desberdinak eta banatuak zeuden, eta horrez gain, gizonak urtero parte hartu ahal zuten, emakumeek ez bezala. 1993. urtean Irunen 7.458 gizonak eta 19 emakumeak desfilatu zuten, eta Hondarribian 3.400 gizonak eta 20 emakumeak. Gainontzeko emakumeak espaloian ipintzen ziren desfilea pasatzen ikusi eta txalotzeko, eta gainera, prestaketa asko haien gain erortzen ziren, hala nola jantziak prestatzea, otorduak egitea eta haurrak zaintzea. Hala ere, sexu-genero banaketa zurrun horretan zirrikituak existitzen ziren, eta emakumeak soldaduz jantzita eta erdi ezkutuan desfilatzen zutela esaten da, baita Alardeko desfile ofizialetik kanpo instrumentuak jo eta desfile alternatibo eta espontaneoetan parte hartu eta

¹⁰⁸ Ofizialki Urdanibia plaza baina herritarren artean Mosku izenarekin ezagunagoa.

¹⁰⁹ Hondarribian jeneralari burgomaisu deitzen zaio.

¹¹⁰ Irungo infanteria konpainia gehienak auzoetakoak ziren eta auzoen izenak zeramatzen. Hondarribian berriz, existitzen ziren hiru talde soziologikoen ingurukoak ziren, hain zuzen *kaletar*, *portuar* edota *baserritarren* konpainiak. Azken horren informazio gehiago jadanik aipatu dudana *Tristes espectáculos* liburuan dugu. Infanteria konpainien artean prestigio ezberdintasunak zeuden batez ere klaseari eta jatorriari loturikoak eta infanteria konpainien eta besteen artean ere.

¹¹¹ Hondarribian kuberoek ere parte hartzen zuten, bost urte ingurutik aurrerako mutikoei.

¹¹² Irunen 1981etik korporazio erlijiosoak ez du parte hartzen.

eskoletan egiten ziren antzezpenetan bakoitzak nahi zuen rola betetzen zuela ere, besteak beste.

Herri ordenantza propioek arautzen zituzten Alardeak, publikoak baitziren eta udalari guztiz lotuta baitzeuden. Ordenantzak noizean behin berrikusi eta berritzen ziren, eta bertan antolaketa eta erabakimen espazioak erregulatzen ziren. Horrela, Alardeko Junta arduratzen zen Irunen Alardea antolatzeaz eta horren inguruko erabakiak hartzeaz. Hondarribian, berriz, Alardeko Junta antolakuntza lanetan zentratzen zen soilik; izan ere, Alardeko agintariek hartzen zituzten erabakiak. Hondarribiko Alardeko agintari asko arrantzaleak zirenez eta herritik kanpo denbora pasatzen zutenez, ez zuten astirik guztia antolatzeko, baina haiei zegokien erabaki nagusiak hartzea. Irungo Alardeko Juntan, Alardeko agintariez gain, alderdi politikoetako ordezkariak parte hartzen zuten, eta Hondarribikoan, berriz, alkateak. Alardeko agintariak lehen aipatutako batailoiko buruez gain konpainia bakoitzeko kapitainak ere baziren; izan ere, konpainia bakoitzean hierarkia militarreko postuak existitzen ziren, kapitainetatik hasita, teniente, alferrez,¹¹³ eta kaboetan amaituz.

Desfileak udaleko ordenantzek arautzen zituzten eta publikoak ziren. Udalek finantzatzen zituzten gastu gehienak, eta udaletxeetan egiten ziren horien inguruko batzar eta bilera asko. Udal korporazioak Alardearen atzetik joaten ziren, alkateek herriko aginte makila burgomaisuari Hondarribian eta jeneralari Irunen ematen zioten Alarde egunen aurretiko ekitaldi esanguratsuetan, sinbolikoki Alarde egunetan burgomaisua eta jenerala bilakatuz herrietako nagusi. Horrez gain, espazio publikoa okupatzen zuten ekitaldiak izanik, udalen baimenarekin eta udal poliziaren babes eta antolakuntzarekin eramaten ziren aurrera. Alardearen inguruko ekitaldi erlijiosoak ere aurreko egunetatik hasi, Alarde egunetan bertan jarraitu eta ondorengo egunetara luzatzen ziren.¹¹⁴

Esan bezala, 90eko hamarkadara Alardeak masifikatuta iritsi zirela esan dezakegu. Izan ere, parte hartzea oso handia zen, parte hartzaileen kopurua 70eko hamarkadatik aurrera etengabe haziz joan zelarik. 1976an, Irunen 3.347 gizonak desfilatu zuten; 1995ean, berriz, 8.000k, hogeitertietan ia hirukoiztu zelarik parte hartzaileen kopurua. Hondarribian, 1976an, 1.500 soldaduk baina gehiagok hartu zuten parte, eta 1995ean,

¹¹³ Irunen soilik existitzen zen figura.

¹¹⁴ Margaret Bullen eta José Antonio Egido, *Tristes espectáculos...*

3.500ek, hau da, bikoitza baina gehiagok.¹¹⁵ Alardeko soldaduen kopurua haztearekin batera, arau zorrotzagoak eta zurrunagoak sortzen joan ziren. Alde batetik, jende kopuru handiagoa antolatzeko erraztasunaren aitzakiapean, baina baita Alardea ulertzeko modu konkretu bati jarraiki ere. Honela zioen 1979ko Antonio Arambururen liburuko pasarte batek:

“Mi más ferviente deseo sería que el Alarde recuperara algunos detalles que ha ido perdiendo, y que le daban ese carácter de milicia foral, como son, la seriedad, marcialidad, respeto al mando, etc., impuestos voluntariamente por cuantos forman en el mismo.”¹¹⁶

Esan dezakegu Arambururen liburu eta iritziak, garai hartan Irungo Euskadiko Ezkerrako (EE) zinegotzi zenarenak, eragina izan zutela Alardeko ordenantza eta arauetan: batetik, Irungo Alardearen jatorria milizia foraletan kokatzea, eta bestetik, seriotasun eta martzialtasun handiagorantz jotzeko bidea. Hala ere, azken horri lotuta, aipatzekoa da iritzi eta jokatzeko era ezberdinak kontrajartzen zirela, eta hierarkiaren eta ordenaren aldarri hori ez zutela guztiek konpartitzen. Karmele Tolosa Errok¹¹⁷ honela oroitzen du txikia zeneko Alardea:

“Nik ezagutu nuen Alardea, txikia nintzenean eta gaur egungoa, nire attak esaten zuen, nire atta jada duela urte batzuk hil da (...) nik hamalau urte nituenean eta horrela, pues hori, zen Alarde txiki bat, denak ezagutzen ginen, denak juerga egitera. Eta nik uste dut gero joan da poliki-poliki hori 80tik aurrera, hori Antonio Aramburuk egin zituen bere aportazio guztiekin eta horrela, joan da pertsona baten irudipena gauzatzen gero herrian. Inongo, ez dakit errealitatetik at, bera bere burutan zuen zerbait eta koreografia eta dena joan zen aldatzen, aldatzen, aldatzen eta bueno gaur egun da irrekonoziblea. Gaur egun ezta militarrek ere ez dute hainbesteko martzialidadea. Eta ni harrituta gelditzen naiz eta nire aitta ere harrituta geratzen zen ikusita pues hori, ensaiotarako joan behar zela jada arropa

¹¹⁵ “Se celebró ayer la primera fase del Alarde de San Marcial, con gran animación”, *El Diario Vasco*, 1976/07/01, 8; Txema Pardo, “Un Alarde de color”, *El Diario Vasco*, 1995/07/01, 18; “Más de 1.500 soldados participaron en el Alarde de Fuenterrabía”, *El Diario Vasco*, 1976/09/09, 8; Iker Zulaika, “Alarde con pólvora mojada”, *El Diario Vasco*, 1995/09/09, 15.

¹¹⁶ Antonio Aramburu Peluaga, *Orígenes del Alarde...*

¹¹⁷ Karmele Tolosa Erro irundarra da, Meaka auzokoa eta betidanik alardezale eta feministatzat du bere burua. 90eko hamarkadatik Irundik kanpo bizi da. 1996an Irungo Alardean emakumeak sartu zirenean espaloitik txalotu zituen, 1997ko Irunen sortu zen unitate berezi mixtoan desfilaratu zuen soldadu gisa eta ondorengo Alarde mistoetan mando postuetan irten zen. Hondarribiko Jaizkibel konpainian, konfliktoaren lehen urteetan ere desfilaratu zuen.

batekin, baina ze txorrada da hori, eta zenbat jendek esaten du hori, betikoa, baina ze txorrada da, orain ibili behar dugula ez dakit zer bezala pues horixe, txorradak.”¹¹⁸

Tolosak bere aitak kontatzen zuena azaltzen du. Txikia zeneko garaiak oroitzen ditu, festa giroa nagusi zenekoa, eta desfilatzen zutenen kopurua handitu ahala eta Antonio Arambururen iritzi eta jarraibideekin oso araututa, errekonozitu ezin zen Alardea egitera iritsi zirela. Eztabaida hau nahiz eta publikoki eta espazio ofizialetan ez egin, oso ohikoa zen eta hala izaten jarraitu zuen: Alardeen seriotasun eta ordenaren inguruko iritzi eta jarrera ezberdinak elkar eragiten eta elkarren kontra jardun zuten, garai bakoitzean protagonista eta forma ezberdinak hartuz. 90eko hamarkadan sortu zen konfliktoarekin ere zerikusia izan zuen. Izan ere, geroz eta serioagoa, militaragoa zen eta ordena zurrun bat mantentzen zuen masa erritoan aldaketak egitea zaila zen, batasunean, komunitatean eta homogeneotasunean oinarritutakoa izanik gainera, behin aldaketa proposatuta, horren kontrako erreakzioa ahalbidetu zuen.

Alardea bera artefaktu kultural eta sozial gisa ikertuko dut, alde batetik, antropologiatik eta antropologia feministatik festen eta erritoen inguruan egindako ekarpenen ikuspuntutik, eta bestetik, historiatik egindako tradizio, ohitura eta komunitateen azterketak izango ditut oinarri. Alardea, beraz, kultur (sistemaren) adierazpena da eta bertan herrietako ezaugarri guztiak islatzen dira. Horren ikerketaren bitartez, “bizimodu sozialak eta norbanakoen bizitzak egituratzeko moduak ezagutu ditzakegu, eta bestetik, jendarte horren eraldaketarako eta disidentziarako estrategiak ere hauteman.”¹¹⁹ Alardeak herri identitatea kanpora proiektatzen du, eta aldi berean, barne kohesio eta autoafirmazio kolektiboaren bitartez herri komunitatea eraiki. Alardea egin eta ospatzen duen komunitatearen barne eta kanpo mugak eraikitzen dira, hau da, finean, herrien mugak ezartzen ditu.¹²⁰

Errito zentralak dira Hondarribiko eta Irungo bizitzan, lan eta deskantsu erritmoekin erlazionatuta daudelako. Alarde egunetan askok jai hartzen dute soldatapeko lanean, eta

¹¹⁸ Karmele Tolosa Errori eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren data: 2021/02/24 (pasarte bat).

¹¹⁹ Miren Guilló Arakistain (koord.), *Festak, genero-harremanak eta feminismoa...*, 8.

¹²⁰ Manuel Delgado Ruiz, “Tiempo e identidad. La representación...”; Margaret Bullen, “Eskubide unibertsalak ala...”, 22.

Hondarribiko arrantzaleen kasuan, lehorrera itzultzeko egunak dira irailleko lehenak. Joxe Marik¹²¹ honako hau azaltzen du:

“Eta gehienbat, por ejemplo, indarra gehien zutenak Alardeetan ziren arrantzaleek fundatuko konpainiak. Porke arrantzaleak nola egoten ziren uda guzian lanean eta ez iganderik eta larunbatik eta... zuten aste hori jaietako festa pues joe hori kentzen bazuten deskantsu hori kentzen zen. (...) Bai, ez dute jaiak horrela, ez dute larunbatak, igandeak uda guzian. Joaten dira itsasora, etortzen dira, deskargatzen dute eta joaten dira berriro itsasora. Bueno Santiago egunean egiten dute festa bat, egun bat eta berriz ere joaten dira. Eta, bueno beudentzat da komo asko, aparte da herriko festa eta bestiek ere sentitzen dute baina arrantzaleek igual sentitzen dute gehiago jaia hori. Zen egoten dira egun batzuk gehiago familiarekin, andregaiakin, hurrekin, andriakin edo amakin edo lo ke sea...”¹²²

Arrantzaleentzat Alardearen inguruko egunak herrian, familiarekin eta lagunekin egoteko egunak dira, eta esan bezala, haien lan eta deskantsu erritmoetan oso presente egonik, bizitzan garrantzi handiko jaia da. Denboraz kanpoko denboran kokatzen da, beraz, errito hau, eguneroko eta laneko bizitza gelditzen baita festari bide emateko, eta horren bidez eta ondorioz erritualizatu eta sakralizatu egiten da.¹²³

Horrez gain, Alardeak bake soziala mantendu edo hausteko potentziala du, eta ordena soziala bermatzeko edo aldatzeko tresna ere bada. Biak batera, momentu oro. Hau da, Alardea jendartearen isla –politikoa, kulturala, soziala, ekonomikoa– da, baina aldi berean, Alardeak jendartea eraikitzen du. Statu quoa mantentzeko edo hori aldatzeko indarrek eta aktoreek ere etengabe eragiten dute Alardean, modu desberdinetan, kontzienteki edo inkontzienteki, esplizituago edo inplizituago, baina beti ari dira bertan eragiten. Alardeen inguruko eta barneko gatazkek, beraz, lotura estua dute jendartean dauden mugimendu eta gatazkekin. Hori dela eta, taldea edo komunitatea kohesionatu bezainbeste, zalantzan ere jarri dezake, eta Alardean zein aldaketa onartzen diren eta zein ez ikusteak botere-harremanak, harreman sozialak, sozializazio bideak, ohore, ospe eta pribilegioak ikertzeko balio digu.¹²⁴ Azkenik, genero, nazio eta klase ardatzek

¹²¹ Joxe Mari (pseudonimo) Hondarribiko arrantzale jubilatua da eta hamabi urte zituenetik Hondarribiko Alardean desfilatu izan du, txikitatik bizi izan duen tradizio eta festa gisa definituz Alardea.

¹²² Joxe Mariri (pseudonimo) egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketa eguna: 2019/07/16 (pasarte bat).

¹²³ Miren Guilló Arakistain (koord.), *Festak, genero-harremanak eta feminismoa...*, 10-11.

¹²⁴ Margaret Bullen eta José Antonio Egido, *Tristes espectáculos...*, 29.

Alardea guttiz gurutzatzen dute, eta horrek Alardea bere baitan, bere izatean, gatazka izatea suposatzen du:

“Las fiestas (...) instituyen una especie de esquizofrenia social, en la que el orden de la comunidad que celebra imparte instrucciones a quienes deben acatarlo para que se encaren con él. Esa es la clave de la contradicción que, a primera vista, se percibe en la doble función de la fiesta como mecanismo de control social y de subversión del orden. (...) Las fiestas mantienen viva la llama sagrada de la violencia que construye, destruye y reconstruye cualquier mundo social posible.”¹²⁵

Lehen aipatu bezala, Alardea antropologiatik jai eta errituen inguruan erabili diren kontzeptualizazioekin aztertzeaz gain, tradizio asmatu gisa eta horrek eraikitzen duen komunitate imajinatu bidez ikertuko dut. Alardea sinbolismoz eta esanahiz beteriko erritual bat da, iragan batekin erlazioan dagoena, alde batetik, bataila edo pasaera historiko batzuk gogorarazten dituelako, eta bestetik, generazio batetik bestera pasatako ohitura bat delako. Berau erreproduzitzen duen komunitatearen baitan norma eta balio konkretu batzuk sustatzen ditu, praktika horren errepikapenaren bitartez. Alardeak, beste tradizio asmatu askok bezala, momentuan komeni den iragan historiko bat gogorarazten du, hortik datozelarik Irungo Alardearen jatorriaren inguruko eztabaida eta aldaketak. “Es el contraste entre el cambio constante y la innovación del mundo moderno y el intento de estructurar como mínimo algunas partes de la vida social de éste como invariables e inalterables (...)”¹²⁶

Guri dagokigun kronologia aldaketa handiko garaiak izan ziren, maila lokalean eta mundu mailan elkar eragindako aldaketak gertatu baitziren. Berlingo Harresiaren eta Sobietar Batasunaren erorketak mundu baten amaiera suposatu zuten, Hobsbawmek XX. mende labur gisa izendatu zuenaren amaiera, hain zuzen.¹²⁷ Neoliberalismoaren garaiak eta Europar Batasunaren baitan Schengen akordiora espainiar Estatua sartzeak Irun eta Hondarribiko mugako herriei eragin zien, batez ere 1995ean aduanak altxatu zituztenean. Irunen aduanen deuseztapenak enplegu asko desagerrarazi zuten, eta aurreko hamarkadako fabriken itxiera eta deslokalizazioarekin batera, krisi eta aldaketa ekonomiko, sozial eta kultural handiak bultzatu zituen. Hala ere, Jean Baudrillard-ek

¹²⁵ Manuel Delgado Ruiz, “Tiempo e identidad. La representación...”, 92.

¹²⁶ Eric Hobsbawm y Terenge Ranger (Ed.), *La invención de la...*, 8.

¹²⁷ Eric Hobsbawm, *Historia del siglo XX...*; Eric Hobsbawm, *Entrevista sobre el siglo XXI...*

azaltzen duen bezala, aldaketa horien atzean boterearen formaren mantentzea ezkututzen zen: “El juego del cambio constante, de la actualidad permanente, oculta la tendencia a la inmovilidad básica de lo social, a la cristalización de la forma de poder.”¹²⁸

Hondarribian, berriz, 90eko hamarkada hasierakoak dira arrantzaleen borroka luze eta gogorak, eta horrekin batera, lehenagotik indartzen ari zen turismoak asko aldatu zituen Hondarribiko ekonomia, eta aldi berean, bizitza, kultura eta politika.¹²⁹

Tradizio asmatuek sortzen laguntzen duten komunitate imaginatu gisa ikertuko ditut Alardeek sortutako herri-komunitateak, eta nola horiek nazio baten eta horren komunitatearen eraikuntzan eragina duten. Gai honi buruz Benedict Andersonek emandako klabe batzuk baliagarri izango zaizkit, esaterako: “(...) se imagina como *comunidad* porque, independientemente de la desigualdad y la explotación que en efecto puedan prevalecer en cada caso, la nación se concibe siempre como un compañerismo profundo, horizontal.”¹³⁰

Hori guztia kontuan hartuta, beraz, esan dezaket Alardea ospatzen duen komunitateak sustatzen dituen norma eta balio nagusiak nazioaren ideia eta eraikuntza espezifikoko bati lotuta egon direla, historian zehar aldatzen edota moldatzen joan dena eta bere barnean nazioaren ideia ezberdinen artean tentsioak egonda. Kontuan hartu behar dugu nazioa generoak eta klaseak gurutzatzen duela eta orden sozial eta genero orden batekin eraikitzen dela. Helburua, batetik, Alardearen, komunitatearen eta nazioaren artikulazioa nola gauzatu zen eta horretan zein aktorek eta zein interesek jokatu zuten aztertzea izango da, eta bestetik, klasea eta generoak nazioaren ideia eta eraikuntzan nola gurutzatu zuten ikertzea. Alardea asmatutako tradizioaren kontzeptuarekin analizatzean eta norma eta balio konkretu batzuk sustatzen dituela esatean, argi utzi behar dugu historian zehar aldatzen joan direla, interes batzuei erantzunez, eta nahiz eta barne mailan norgehiagoka eta dialektika logika bat eduki, kanpora begira batasun bat mantentzen saiatu izan direla.¹³¹ Are gehiago:

“El grupo comunitario se presenta cohesionado, desarrolla conciencia del
Nosotros, sus contornos están bien definidos y pueden ser identificados por los

¹²⁸ Jean Baudrillard, *La sociedad de consumo...*, XXX.

¹²⁹ Jaime Anduaga Matud, *Hondarribiko arrantzale-kidegoaren bidegurutzea. Europar Batasunerako egokitze prozesuaren kasu bat. Nortasun kolektiboaren berrikuntza-prozesuaren aurre egoera*, Doktoretza Tesia, EHU/UPV, 2010.

¹³⁰ Benedict Anderson, *Comunidades imaginadas...*, 25.

¹³¹ José Álvarez Junco eta Gregorio de la Fuente Monge, *El relato nacional...*, XIV; Miren Guilló Arakistain (koord), *Festak, genero-harremanak eta feminismoa...*, 10; José Álvarez Junco, *Dioses útiles...*

otros. El grupo comunitario necesita al Otro, así asegura el reconocimiento exterior que produce y reproduce la conciencia del Nosotros manteniendo la cohesión interna.”¹³²

Gure kasuan, 90eko hamarkadako komunitate barneko emakumeen parte hartzearen eztabaida eta desadostasunek ezin izan zioten eutsi kanpora begirako batasunari, eta orduan kanporatu zituzten emakumeen parte-hartzearen aldeko gutxiengo disidentea. Behin disidentzia kanporatuta “gutarren eta besteen artean ez dago tarteko aukerarik. Tarteko aukeran kokatzen dena automatikoki arerio bilakatzen da. Zentzu horretan, komunitatearen barruan, etengabeko zaintza da nagusi, kanpoko arerioei aurre egiteko, baina sor daitekeen barne-disidentzia ere kontrolpean izateko”.¹³³

1.2. Hondarribian zer edo zer mugitzen hasi da: emakumeek Alardean parte hartu nahi dute (1993-1995)

1993. urtean Hondarribiko emakume batzuk Alardeko emakumearen parte hartzearen inguruan hitz egiten eta hausnartzen hasi ziren Emeki Emakume Elkartearen¹³⁴ baitan. Izan ere, eta azaldu dudan bezala, Alardeetan emakumeek kantinera figura gisa soilik hartzen zuten parte, konpainia bakoitzeko bat eta bertako gizonek aukeratuta izaten zen. Horrez gain, baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa zuten: ezkongabea izatea, gaztea, eta, 90eko hamarkadan jada, bizitzan behin soilik atera zitezkeen. Sexu-genero banaketa eta desoreka horrek emakume batzuen baitan ezinegona sorrarazi zuen, hasieran modu pertsonal batean, baina ondoren, hori konpartitu eta elkarrekin antolatzen hasi ziren. Ixabel Alkain Etxeberriak¹³⁵ 80ko hamarkadan kantinera atera zenean figura horrek garai horretan jada sortzen zizkion kontraesanak aipatzen ditu, baina nola oraindik ere ez zitzaion bururatu emakumeak soldaduz parte hartzearen aukera:

¹³² Ander Gurrutxaga Abad, “La innovación de la comunidad: hogar, santuario y vínculo social” en Pablo de Marinis, Gabriel Gatti eta Ignazio Irazusta (ed.), *La comunidad como pretexto...*, 55.

¹³³ Gorka Moreno, “Bidasoaldeko Alardeak...”, 15.

¹³⁴ Emeki Emakume Elkartea 1991ean Hondarribian sortu zen. Hemendik aurrera Emeki bezal izendatuko dut.

¹³⁵ Ixabel Alkain Etxeberria 1962an jaio zen hondarribiarra da. 1983an Hondarribiko Alardeko Danborrada konpainian kantinera atera zen. 1996ko Irungo eta Hondarribiko Alardeetan soldaduz sartu ziren emakumeetako bat izan zen, Bidasoaldeko Emakumeen koordinadorearen eta Juana Mugarrietakoaren parte eta urte luzez Hondarribiko Jaizkibel konpainia mistoko kapitaina. Aita arrantzalea zuen eta konfliktoan familiaren babesa izan du. Herrian pertsona oso señalatua izan da eta bizitza egitea ezinezko egin diote. Alardeko konfliktoaren eraginez hiru aldiz ospitalean bukatu zuen, Alarde tradizionalaren aldekoen eta ertzainen kolpeen ondorioz.

“Eske niri ez zitzaidan ezta okurritu ere [emakumeak Alardean ateratzea]. Osea 83an atera nintzen kantinera, flipatu nuen, zeren gainera [hasieran] ezetz esan nuen... gainera feminista bezala, «a mí, ¿utilizarme de muñeca?» No se qué... pero caí en la misma contradicción, azken finean aukeratuta izana (...)”¹³⁶

Azaltzen duen bezala, Alkainek garai horretan bere burua feministatzat zuen. Mugimendu feminista eta ekologistan ibili zen 80ko hamarkadan, euskararen aldeko kolektiboetan, eta alde batetik, beretzat kantinera ateratzeak gizonen desira eta mesederako objektu izatea suposatzen zuen. Bestetik, ordea, bere herriko festetan barrutik parte hartzeko forma bakarra zen, eta bere familiaren eta herriaren ilusio iturri. Kontraesan horiekin atera bazen ere, oso ondo pasa zuenaren oroitzapena du, eta Alardea barrutik bizi izan zuen lehen urte gisa oroitzen du. Hala ere, momentu horretan onartu eta guztiz barneratu zuen ezin izango zuela gehiagotan atera.

Mariak,¹³⁷ bide berean, kantinera izan zeneko oroitzapen oso onak ditu, eta txikitatik Alardean soldaduz ezin zirela irten erakutsi zietela kontatzen du. Normalizatua eta naturalizatua zegoen emakumeak Alardean kantinera soilik ateratzea, eta guztiek modu batean edo bestean onartu eta ez zuten planteatzen hori aldatzeko aukera.

“Txikitari ginenean pues gu txibilito. Eta gu atera nahi baita. «Ez! Ez!», «Biño zergatik?», «Zergatik ez! Emakumeak ez». Eta zer egiten duzu? Onartu. La violencia simbólica, onartu eta normala iruditzen zaizu, onartu. Eta bueno, pues rabia ematen dizu baina onartzen duzu. Emakumeak gara eta ezin dugu, jada txikitatik. Baina behin ni egon nintzen Nikaraguan hiru urte baita. La revolución y tal y cual. (...) Eta nik neukan Gasteizko lagun bat (...) eta egon zen nirekin baita ere urte bete Nikaraguan eta bueltatzean gonbidatu nuen Alardea ikustera Hondarribira, 87an, nire amaren balkoian. Hara joaten ginen arratsaldean. Eta bera zegoen, bere senarrarekin eta lagun gehiagorekin eta Alardea eta bat-batean esaten dit: «¿Qué es esto?», «El Alarde», «¿El Alarde? Pero ¿dónde están las mujeres?», «En la acera», «¿Si esto es una machirulada!» «Ah, bai?» «Hombre Maria, pero

¹³⁶ Ixabel Alkain Etxeberriari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketa eguna: 2019/11/16 (pasarte bat).

¹³⁷ Maria (pseudonimo) 1959an Hondarribiko arrantzale familia eta auzoan jaio zen. Gaztetan Hondarribiko Alardean kantinera atera zen, eta 1996an Irungo Alardean sartu ziren emakumeen kontrako erreakzioa ikusita, Hondarribiko Alardean sartzeko beharrea ikusi zuen bere burua. Juana Mugarrietako taldearen parte izan zen eta Hondarribiko Jaizkibel konpainian desfilatu izan du. Herrian oso markatua, eta indarkeria horri ihes egiteko hiru urtez herritik kanpo bizi izan zen, urte horietan bueltatu ez zelarik.

¿qué es esto?», «Pues sí». Se te enciende, ez dakit, bat-batean esaten duzu ui, baina hor gelditu zen, eta handik hamar urtera... aukera.»¹³⁸

Mariaren pasarte honek emakumeen papera zein barneratuta zegoen erakusten digu, baina, aldi berean, nola batzuek pizgarri batekin nahikoa izan zuten horren inguruan hausnartzeko eta hori guztia zalantzan jartzeko. Izan ere, testigantza hauetan mugimendu feminista edota herri mugimenduaren gertutasuna aipatzen da, Maria Nikaraguara joan zen iraultza Sandinistaren urteetan, eta horrek ideia eta praktika berriak bizitzea zekartzan, emakumeen paper eta lekuen desnaturalizazioa zentzu batean, pentsamendu kritikoa garatzea ezinbestean.

Garai horietarako, 80ko hamarkada bukaerarako eta 90eko hamarkada hasierarako, mugimendu feministak ibilbide luzea egin zuen eta gizartean aldaketak bultzatu zituen. Ideia eta pentsamendu feministak bai eta praktika eta antolamenduak zabaldu, eta eragina izan zuten Bidasoaldean ere. Mugimendu feminista Euskal Herrian 70eko hamarkadan hasi zen antolatzen, 1977an Euskadiko Lehen Emakume Topaketak Leioan egin zirelarik. Bertan, Euskal Herriko 3.000 feministek hartu zuten parte. Teresa del Vallerentzat Euskal Herriko feminismoaren mugari izan ziren topaketa horiek eta ondoren etorri ziren 80ko hamarkadako bigarrenak eta 90eko hirugarrenak:

“Si las jornadas primeras tuvieron como centro de interés el análisis de la opresión patriarcal, siete años más tarde en 1984, trataron de definir una política feminista enmarcada en la situación real, métodos, formas de lucha y organización. En estas III jornadas muchos de los análisis recogen la complejidad de la situación por la que atraviesa el movimiento feminista actual. Complejidad enmarcada en las convulsiones, en los cambios, en los planteamientos nuevos, que han afectado a todos los organismos sociales.»¹³⁹

Gure gaiari dagokionez, feministek hamarkada horietan zalantzan jarri zituzten sexu-genero sistema liberalak eta diktadura frankistak emakumeei ezarritako espazio, rol eta lanak, patriarkatuaren teorizazioarekin ondoez pertsonalari azalpen kolektibo bat emanez. Horrekin batera, momentu horretara arte emakumeei ukatu zitzaizkien

¹³⁸ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

¹³⁹ Ana Ereño, *III Jornadas feministas de Euskadi*, 1996, 11, Teresa del Valle, *Las mujeres en Euskal Herria. Ayer y hoy*, Orain, Bilbo, 1997.

espazioak aldarrikatzen eta berreskuratzen hasi ziren, hala nola espazio publikoa, antolakuntza politikoa eta soldatapeko lana.¹⁴⁰

70eko hamarkada amaieran eta 80ko hamarkada hasieran, trantsizioaren testuinguruan, guztia aldatzea posible zenaren konbentzimendu eta giro politikoan, herrietako jaietan aldaketa nabariak egin zituen herri mugimenduak. Genero perspektibaren aldetik, kasu ikusgarrienak izan ziren Donostiako Danborradan eta Tolosako Alardean emakumeen parte hartzea, eta ondoren, Hondarribi eta Irungo emakumeek erreferentziatzat hartuko zituzten. Bidasoan ere, garai horiek eferbeszentzia handikoak izan ziren, Maripi Solbesek,¹⁴¹ Irunen bizitakoak, azaltzen duen bezala:

“Kontatzen nizun nola ni hogeita bat urte nituela eta hau zen 1979an, nire garai hartan pixukide batekin, bueno nahiko gogoak genuen Alardean ateratzeko eta nahiko gaiari buruz hitz egiten genuen eta arratsaldeko momentu konkretu batean, (...) mutil batzuk inguruan lortu ziguten pare bat txaketa, zapiren bat, eta eskopetak. Eta egon ginela ratoxka baten Alardean, ez dut exageratuko, pues ez zen pasatuko ordu betetik, edo horrelako bat. Baina egon ginela gu Alardean sartuta. (...) ikusi ze urteak ziren Euskal Herrian, 79, festa, jaia eta borroka. (...) iduri zuen iraultza irabaziko genuela, halako sentsazioa genuen guk gaztetan, asko mobilizatzen zen jendea. Orduan, egotea Alardean gora behera hauek noski daudela lotuak bizi genuen, gizartea inpregnatua zegoen, horrelako bizipen errebindikazio sozio politiko euskaldun eta abar. Orduan erakusleioa Alardea zen, eta bizipena ere bai. Parte hartzen zutenak eguneroko bizitza politikoan, Alardean ere bai.”¹⁴²

Solbes 1979an soldaduz jantzita irten zen arratsaldeko Irungo Alardean inolako arazorik gabe, baina inolako intentzio aldarrikatzaile ez eta kolektiborik gabe. Edozer posible zenaren eta edozer aldatzearen sentsazioa zegoen garaian, bi emakumeek gutxienez

¹⁴⁰ Edurne Epelde Pagola, Miren Aranguren Etxarte eta Iratxe Retolaza Gutierrez, *Gure Genealogia Feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*, Emagin, 2015; Silvia L. Gil, *Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la dispersión. Una historia de trayectorias y rupturas en el Estado español*, Traficantes de Sueños, Madril, 2011; Nerea Barjola, *Microfísica sexista del poder. El caso Alcàsser y la construcción del terror sexual*, Virus, Bartzelona, 2018.

¹⁴¹ Maripi Solbes 1958an Irunen jaio zen. Hogeita bat urterekin Irungo Alardeko arratsaldeko desfilean soldaduz desfilatatu zuen lagun batekin, eta 2003an alaba zaharrenarekin Irungo Alarde mistoan desfilatzen hasi zen. Hondarribiko Jaizkibel konpainian ere desfilatatu izan du, eta bere pentsaera eta posizioak gatazkak ekarri izan dizkio familian.

¹⁴² Maripi Solbesi eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketa eguna: 2020/08/17 (pasarte bat).

Irungo Alardean soldaduz desfilatu zuten, baina halaxe geratu zen kontua, zer edo zer puntual gisa eta garrantzi handirik gabekoa. Behin 90eko hamarkada iritsi zenean eta Solbesek jakin zuenean Irungo emakume batzuek Alardean ateratzeko intentzioa zutela, guztiz logikoa eta egingarria iruditu zitzaion, ia hogeitau urte lehenago beraiek gauza bera egin baitzuten. Baina azkar konturatu ziren bezala, 90eko hamarkada jada ez zen guztia aldatzea posible zen garaia, aurreko hogeitau urteetako espektatiba iraultzaile askok erorita eta porrot eginda bukatu, eta desilusio sentsazioak nagusitu ziren sektore askotan, 90eko hamarkadako gizartea askoz kontserbadoreagoa izanik.¹⁴³

Maite,¹⁴⁴ berriz, Donostiako Emakume Asanbladan ibili zen 70eko hamarkada amaieran, eta abortuaren eta dibortzioaren alde borrokatu zuen, baina 90eko hamarkadara arte ez zitzaion bururatu emakumeak Alardean ateratzearen posibilitatea:

“Eta orduan neukan seme bat, seme txiki bat, hiru lau urtetakoa eta behin bizi ginen hortxe, hemen behean eta ikusi nuen ensaiotan pasatzen konpainia bat eta semearekin atzetik joan ginen saltoka eta hor etorri zitzaidan, pentsatu nuen: «hemendik urte batzuetara gure mutila hor egongo da, orduan neska balitz ez litzake egongo», en fin, hor hasi zitzaidan. (...) jarri nintzen harremanetan ideia hori zela eta Emekikin elkarte, Hondarribiko emakume elkarte batekin (...). Joan nintzan, semearekin eta esan nien, «aizu ezin da ezer egin hau bideratzeko?» Esan zidaten, «buff, hau, ez dakizu non sartzen ari zaren» eta arrazoi zuten. Baina bueno, hor hasi zen Emeki lehen pausoak ematen. Eta, handikan, gero etorri zen Emekik inkesta bat egin zuen, zabaldu zuen buzoietan eta, handikan urte pare batera, 96an gertatu zen Irungoa.”¹⁴⁵

Berak bezala beste hainbat emakumek, batez ere Hondarribian edo Irunen jaiok ez zirenak baina bertan bizi zirenak eta seme-alabak bertan jaiok zituztenak, horien parte hartzearen inguruan hausnarketa egin zuten, eta konturatu ziren Alardean emakumeen parte hartzea aldatu nahi zutela. Gogoratu behar dugu Hondarribian mutikoak bost zazpi urte ingururekin hasten zirela Alardean kubero gisa desfilatzen. Beste emakume batzuk ere, Alardean parte hartzeko gogo propioak bultzatuta, hori gauzatzeko ikusten zituzten

¹⁴³ David Beorlegui Zarranza, *Transición y melancolía. La experiencia del desencanto en el País Vasco (1976-1986)*, Postmetropolis Editorial, Madril, 2017, 277.

¹⁴⁴ Maite (pseudonimo) 40ko hamarkadan Donostian jaiotako hondarribiarra da. Mugimendu feministan ibilitakoa, Alardean emakumeak ateratzearen bultzatzaile eta 1996an Hondarribiko Alardean soldaduz sartu zenetako bat. Egun hartatik aurrera herriko bizitza guztiz aldarazi zioten.

¹⁴⁵ Maiteri (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketa eguna: 2020/08/03 (pasarte bat).

pausuak ematera animatu ziren. Alardea gustatzen zitzairen, maite zuten eta haien herriko jaietako ekitaldi zentrolean aktiboki edo barrutik parte hartu nahi zuten, haien herrikide gizonak egiten zuten bezala. Maria Jesus Berrotaran Etxeberriak,¹⁴⁶ 80ko hamarkada bukaeran udaltzaina zenez gero, Hondarribiko auzo urrunetako Alardeko konpainiak herri-gunera laguntzen zituen, errepideak mozten:

“Bueno total, 80an hasi nintzen udaltzain bezala lanean eta ez dakit 83 edo 85ean Hondarribiak ditu bost auzo eta auzo bat da Jaizubia eta Jaizubiako elkarteak udalari eskatu zioten handik etortzea lau kilometro kamiyuan arriskutsua zela eta aber udaltzainak ahal zuten lagundu (...) eta haiekin musikarekin eta etortzen eta orduan piztu zitzaidan Alardean ateratzeko gogoia eta orduan haiei komentatu: «ba nik atera nahiko nuke eta ez dakit zer», «a zuk nahi duzunean» (...) eta sinistu egiten duzu, nik sinistu nuen erreza zela, «zuk nahi duzunean». (...) elkarteak [Emeki] ginen 100 bat bazkide edo 110 edo, ba zazpik esan genuen bueno goazen udalari eskatzera Alardean parte hartu nahi dugula eta hasi ginen 91, 92, 93, 94 beti bidaltzen genion gutuna udaletxeari, esaten ziguten Alardeko Juntarekin egoteko (...)”¹⁴⁷

Berrotaranek azaltzen duen bezala, berak sinetsi zuen, edo sinestarazi zioten erraza zela Alardean parte hartzea, emakume izanda ere. Horrela, 1993an Emekiren bueltan emakume gutxi batzuk elkartu ziren, bakoitzak bere aldetik eginiko hausnarketarekin, arrazoi eta bizipen desberdinetatik, eta aldi berean elkar eragiten eta aurreko hamarkadetako mugimendu feministak zabalduetako ideia eta praktiken influentziaz, Hondarribiko Alardean emakumearen parte hartzea aldatzeko asmoarekin.

Hondarribiko Emeki elkartearen inguruan biltzen hasi ziren, eta lehenik eta behin, bilera bat egin zuten Alardeko burgomaisuarekin, komandantearekin, danbor nagusiarekin eta Musika Banda munizipaleko kide batekin 1993ko uztailaren 14ean. Bertan, Alardean soldadu gisa parte hartzeko nahiaren berri eman zieten, eta Alardeko Juntaren¹⁴⁸

¹⁴⁶ Maria Jesus Berrotaran Etxeberria 50eko hamarkadan Hondarribiko baserri batean jaio zen eta herriko lehen udal polizia izan zen. Emeki Emakume Elkartearen sorrerako bultzatzailea eta Alardean atera nahi zuen emakumea. Juana Mugarrietako parte eta Jaizkibel konpainian desfilatutakoa.

¹⁴⁷ Maria Jesus Berrotaran Etxeberriari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketa eguna: 2020/10/09 (pasarte bat).

¹⁴⁸ Hondarribiko Alardearen antolaketa Alardeko Juntak eramaten zuen aurrera; bertan parte hartzen zuten alkateak edo berak delegatutako pertsona batek eta beste Alardeko hamabi gizonak. Erabakiak hartzeko eskumena, ordea, Alardeko agintariak eta udalak zuten. Alardeko agintarietako batzuk arrantzaleak zirenez eta itsasoan denbora asko pasatzen zutenenez, horien bilerak batez ere erabakiak hartzerantz mugatzen ziren, ez Alardea bera antolatzerantz.

hurrengo bilerara eskaera hori eramango zenaren adostasunera iritsi ziren. Alardeko Juntan, erabaki zen Alardeko agintarien bileran gai eta nahi horien inguruan informatuko zela, bilera hori uztailaren 24ean egingo zelarik. Horren aurrean, eskaera hori ezin zutela erantzun esan zuten eta elkarte baten izenean egin behar zutela eskaera formala.¹⁴⁹

Hori ikusita, Hondarribiko udalera eskaera bat bidali zuten, “Hondarribiko emakume talde baten” izenean, bilera bat egitea proposatuz Hondarribiko Alardean emakumearen partaidetzaren inguruan hitz egiteko. Azaldu dudan bezala, udalera bideratu zuten eskaera, Alardea publikoa zelako eta udaleko ordenantzak arautzen zutelako.¹⁵⁰ 1993ko iraileko *Eginen*, Hondarribiko jaietako gehigarrian, Alardean emakumeen parte hartzearen inguruko artikulu bat publikatu zen, Maria Jesus Berrotaran Etxeberriari eginiko elkarrizketa batean oinarritutakoa:

“Un grupo de mujeres solicita a las distintas compañías del Alarde su participación de cara al próximo año en este acto, al igual que los hombres, tal y como lo hicieron cuando tuvo lugar el sitio de Hondarribia en 1638. María Jesús Berrotaran está recopilando textos históricos que atestiguan la presencia de las mujeres en el Alarde.”¹⁵¹

Berrotaranen nahia Alardean ateratzearen eta ikusle gisa geratzearen artean erabaki ahal izatea zen. Alardearekiko eta bere arauetikiko zuen errespetua azpimarratzen zuen artikuluan, Alardea herrian guztiz errotutako ohitura zela jakitun. Hala ere, emakumeak Alardean parte hartzearen alde zegoela aldarrikatu, eta horretarako argudio historikoak bilatzeari ekin zion. Guzti horren bidez, Alardeko ordenantzak aldatzea zen emakume hauen asmoa, eta nahiz eta kontziente ziren proposamenak eztabaida sortuko zuela, seguru zeuden lortuko zutela.¹⁵²

Udalari eginiko eskaeraren erantzunik ez zuten jaso, eta ondorioz, emakume horiek Emekiko asanbladan elkartearen izenean eskaera egitea proposatu zuten. Bazkideen artean desadostasunak egon baziren ere, bozkatzeko bitartez baiezkoa irten zen. Emekiren

¹⁴⁹ Emeki Emakume Elkarteak, “Datos de los pasos seguidos del tema de la participación de la mujer en el Alarde como soldado”, 1996/07/02.

¹⁵⁰ Ane Miren Aristondo, “Eskabidea”, *Hondarribiko Udala*, 1993/09/17.

¹⁵¹ Marilena Castillo, “Presencia de mujeres en el Alarde”, *Egin*, 1993ko iraila, Hondarribiko jaiak gehigarria.

¹⁵² Ana Grijalba, “Un grupo de mujeres de Hondarribia pedirá su participación en el Alarde”, *El Mundo*, 1993/09/10, 13; “Un grupo de hondarribitarras pedirá la incorporación de la mujer al Alarde”, *Diario Vasco*, 1993/09/09.

dokumentu batean jasotzen denez, emakume batzuek asanblada horretan honako hau esan zuten: “queda claro que muchas opinan que la mujer con escopeta no es femenino, pero viendo el cambio que lleva la Sociedad y pensando en sus hijas votan que sí.”¹⁵³ Adostasun edo erabaki horren ondorioz, 1993ko azaroaren 15ean Emeki elkartearen izenean eskaera bat erregistratu zuten udalean, eta azalpenean “emakumeen partaidetza Hondarribiko Alardean” besterik ez zuten jarri.¹⁵⁴ Berrotaranen memorian honela geratu ziren lehen urteetan Alardeko Juntarekin egindako bileren oroitzapenak:

“Alardeko Juntan egoten ziren burgomaestrea, tanbor nagusia, Alde Zaharreko konpainien ordezkari bat, Portuko konpainiak beste ordezkari bat eta gero baserritako eta auzoetako ordezkari bat eta udaletxeko kulturako zinegotzia. Eta haiek egiten zuten, nola arrantzaleak joaten diren arrantzara eta etortzen diren Santiago bezperarako, haiek egiten zuten Alardea dena antolatu. Udalak ordaintzen zuen dena publikoa zelako eta gu bilera horietara hasi ginen joaten eta lehenengo urtean, esan ziguten, 94ean esan ziguten: «bueno pues aprender a tocar el txibilito» eta gu «bale». Eta gu hasi ginen elkartean txibilitoa, «porque las mujeres no sabeis» bueno betikoa eta hasi ginen pues hori, ondoko urtean pues joan ginen beste bi bileratara (...)»¹⁵⁵

Emekiren izenean egindako eskaerek, beraz, erantzun bat izan zuten hasiera batean; Alardeko Juntarekin bilerak egitea lortu zuten eta bertan Alardean emakumearen parte hartzearen inguruan hitz egin zen. Txilibitua jotzen ikasteko esan zieten, desfilatzeko ezinbesteko baldintza gisa. Emakume horiek aurrera egin eta itxaropen handiekin antolatzen jarraitu zuten. Hala ere, 1994. urtetik aurrera, Emekik ez zuen jaso alkatearekin, Alardeko Juntarekin eta Alardeko agintariekin bilerak egiteko eskaeren erantzunik, 1995eko abenduaren 5era arte. Bertan helarazi zieten gutun bidez 1994ko uztailaren 23an egindako Alardeko agintarien bileran desegokitzat jo zutela Emekiren proposamena, hau da, emakumeak Alardean ateratzearena, eta emakumeek Hondarribiko Alardean kantinera figura soilik bete ahalko zutela erabaki zutela.¹⁵⁶

¹⁵³ Emeki Emakume Elkartea, “Datos de los pasos seguidos...”

¹⁵⁴ Emeki Elkartea, “Eskabidea”, *Hondarribiko Udala*, 1993/11/15.

¹⁵⁵ Maria Jesus Berrotaran Etxeberriari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketa eguna: 2020/10/09 (pasarte bat).

¹⁵⁶ Emeki Emakume Elkartea, “Datos de los pasos seguidos...; Junta del Aralde de Hondarribia, “Emeki Emakume Elkartea”, Hondarribia, 1995/12/05.

Alardean parte hartu nahi zuten emakumeak urte bete baino gehiago egon ziren erantzunik jaso gabe, baina Alardeko Juntak batzen jarraitzen zuen eta Alardeko agintarien bilerak ere egiten zituzten. Horren lekuko dira Alardeko Juntaren bileren aktak, 1995eko otsailetik ekainera gutxienez lau egin zituztelarik. Aktetan emakumeen parte hartzearen inguruan ez da ezer azaltzen, baina beste gai interesgarri batzuk tratatzen dira, Alarde eguneko antolaketaren aspektu teknikoez haratago. Horien artean, alkatearen eta Alardearen arteko erlazioa azaltzen da: alkatea Alardeko Juntara joan zitekeela, Alardeko agintarien bileretara joaten zela, alkateak burgomaisua zein izango zen erabakitzen zuela –bere burua izendatzearen aukera ere bazegoela– eta hori udalean egiten zen bileretan erabakitzen zuela.¹⁵⁷ Urte horretan ordea oraindik burgomaisua zein izango zen erabaki gabe zegoen:

“El alcalde Sr. Oronoz, el día 15 de Agosto de 1994 no designó Burgomaestre del Alarde de 1995, pues habiendo unas elecciones municipales por medio y no presentándose él a la reelección, creyó conveniente dejar que fuera el nuevo alcalde quien hiciera el nombramiento. La Junta no tiene conocimiento de quién va a ser el Burgomaestre del próximo Alarde. Convendría que el Sr. Alcalde informara sobre el tema a los Mandos en la reunión que se celebrará con ellos el día 22 del presente mes.”¹⁵⁸

Dokumentu horiek azaltzen duten bezala, Alardearen erabaki eta antolaketan paper garrantzitsua zuten udalak, eta batez ere, alkateak, Alardea publikoa zen heinean. Horrekin batera, publikoa den guztian bezalaxe, politikak, kasu honetan, instituzionalak, eragina zuen Alardean, eta azpimarratzekoa da alkateak burgomaisua aukeratzeko zuen eskumena. 1995eko maiatzeko hauteskundeen ondorioz, alkateak ez zuen burgomaisurik izendatu, eta hori arazo bihur zitekeen, 1995eko iraila geroz eta gertuago baitzegoen. Momentu horretan Eusko Alkartasunako (EA) Alfonso Oronoz zen Hondarribiko alkate, 1991eko hauteskundeetan sei zinegotzi lortuta. Jarraian, Herri Batasunak (HB) bost zinegotzi zituen, Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) lau, eta EEk eta Partido Socialista de Euskadik (PSE) bana.¹⁵⁹

¹⁵⁷ Junta del Alarde, “Acta del 17 de febrero de 1995”, Hondarribia, 1995/02/XX; Junta del Alarde, “Acta del 28 de abril de 1995”, Hondarribia, 1995/05/04; Junta del Alarde, “Acta del 19 de mayo de 1995”, Hondarribia, 1995/05/25; Junta del Alarde, “Acta del 16 de junio de 1995”, Hondarribia, 1995/06/20.

¹⁵⁸ Junta del Alarde, “Acta del 17 de febrero...”

¹⁵⁹ Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1991. Hondarribia”.

1986an, Karlos Garaikoetxea buru, EAJren eszizio batetik EA sortu zenetik, Hondarribiko udal hauteskundeetan alderdi bozkatuena izan zen, 1987.¹⁶⁰ eta 1991. urteetan, hain zuzen. Hala ere, Alfonso Oronoz alkate izan zen 1979tik EAJtik, eta eszizio horretan EAren alde lerrokatu zenean, alkatetza berak lortu zuen. 1981etik 1995era arte Jokin Etxaniz izan zen Alardeko burgomaisua. Alegia, Alfonso Oronozek EAJko nahiz EAko alkatea izanda, paper hori betetzeko pertsona berbera aukeratu zuen hamabost urtetan zehar. Hori bakarrik esanda, pentsa liteke Etxaniz eszisiotik geroztik EAtik gertuago zegoela, baina ez zen hala. Izan ere, Etxaniz lehen postuan aurkeztu zen 1991eko hauteskundeetan EAJko zerrendetan, hau da, alkate izateko eta lau urtez zinegotzi izan zen. Galdera asko sortzen dira aukeraketaren arrazoien inguruan, hemen ezingo ditugunak erantzun, baina gauza bat argi geratzen da: udal politika, alderdi politiko eta Alardearen artean erlazio handia zegoela eta botoak, legitimitatea eta boterea lortzeko medioa ere bazela Alardea.¹⁶¹

Hurrengo hauteskundeetan, 1995ekoetan, EAK alkatetza galdu zuen eta hirugarren zerrenda bozkatuena izatera pasa zen, lehena EAJk lortu, eta bigarrena HBk mantendu zuelarik. Urte hartan, beraz, Alardeko burgomaisua EAko alkateak erabakitazetik EAJkoak erabakitzera pasa zen, beste aldaketa batzuen artean. Borja Jauregi alkate berriak 1996tik aurrera Beñardo Lazkanotegi izendatu zuen burgomaisu.¹⁶²

Hori gertatu bitartean, Emekik eta Alardean parte hartu nahi zuten emakumeek asanbladak egiten jarraitu zuten, eta hortik atera zen 1995ean Hondarribian gai honen inguruan inkesta bat egiteko ideia. 4.000 ale banatu ziren herriko komertzio eta eraikin publikoetatik, eta 382 erantzun jaso ziren. Bost galderako galdetegia zen eta bakoitzak hiru erantzun ematen zituen aukeran. Ondoren, zortzi esaldirekin ados edo ez ados zeuden adierazi behar zen. Alardearen parte hartzearen inguruan galdetzen zen, emakumeek parte hartzeko eskubidea zuten edo ez, zer pertzepzio zegoen urteetan zehar

¹⁶⁰ 1987koetan soilik lau boto gutxiago lortu zituen Herri Batasunak eta zinegotzi kopuru bera, seinia.

¹⁶¹ Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Junio 1987. Hondarribia”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1991. Hondarribia”; Alarde Fundazioaren web orria: <https://www.hondarribikoalardea.com/es/compania/burgomaestre/> [2021/06/21ean begiratua]; “1991eko maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako zerrendak”, *Hondarribia*, 43. zkia., 1991 maiatza, 16.

¹⁶² Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1995. Hondarribia”; Alarde Fundazioaren web orria: <https://www.hondarribikoalardea.com/es/compania/burgomaestre/> [2021/06/21ean begiratua].

Alardeak bizi izan zituen aldaketan aurrean.¹⁶³ Emaitzen inguruan Emekitik egin zen irakurketa eta hausnarketa honakoa izan zen:

“Aunque la mayoría, pequeña mayoría es contraria a esta iniciativa, hay una minoría, ‘gran minoría’, que apoya nuestra postura y nos anima a seguir en esta tarea. Cuando una ex-cantinera dice: «El Aralde se disfruta de veras cuando se está dentro». Escuchando esto y viendo lo que responden 175 personas encuestadas a la pregunta de: ¿En el Aralde el papel de la mujer es activo?»¹⁶⁴

Nahiz eta gehiago batek ez zuen ikusten emakumeak Alardean kantineraz gain desfilatzea, 175 pertsonak pentsatzen zuten emakumearen parte hartzea Alardean aktiboa zela momentu horretan. Beste 196 pertsona ez zeuden ados baieztapen horrekin. Batez ere erantzun horiek kontutan hartuta, erabaki zuten aurrera egitea, hau da, emakumeak benetan Alardea disfrutatzeko eta paper aktibo bat izateko helburuarekin. Inkesta horren bidez Hondarribiko herritarren iritzia jakiteaz gain, antolatutako emakumeengandik, udaletik eta Alardeko Juntatik kanpo eztabaida eta hausnarketa sortzea ahalbidetu zen, bai eta haien asmoen berri ematea ere. Ekintza horren bitartez beste emakume batzuk batu zitzaizkien, Ixabel Alkain Etxeberria izanik horietako bat:

“Emekin zegoen nire lehengusina, Maria Jesus Berrotaran, eta beraiek 93an egin zuten eskaera udalari eta gero udalak ez zuen erantzun eta ekintza desberdinen artean 95ean inkesta bat zabaldu zuten auzo desberdinetan eta orduan lehengusuak, Maria Jesusek esan zidan: «banatuko zenuke hau Amuten?», «Bale, noski baietz». Eta honen inguruan, eta nik ez neukan inongo dudarik noski parte hartu behar genuela horrelako... ez nuen gainera arazorik ikusten. Eta orduan, hor hasi nintzen ni parte hartzen.»¹⁶⁵

Ordura arte, Hondarribiko emakume gutxi batzuen, Alardeko Juntaren eta udalaren arteko eztabaida izatetik pixkanaka herrira zabaltzen hasi zen, eta Alkainek kontatzen duen bezala ez zuen inongo zalantzarik izan emakumeen parte hartzearen inguruan.

Urte hartako, 1995eko, Hondarribiko Alardea garaiko giro politikoaren erakusgarri izan zen, zentzu guztietan. Udal hauteskundeak pasa berri ziren, udal gobernu berria EAJren

¹⁶³ Emeki Emakume Elkarte, “Alardeari buruzko galdetegia”, 1995.

¹⁶⁴ Emeki Emakume Elkarte, “Datos de los pasos seguidos...”

¹⁶⁵ Ixabel Alkain Etxeberriari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/16 (pasarte bat).

gidaritzapera pasa zelarrik; emakume batzuk antolaturik zeuden, emakumeak Alardean parte hartzeko eskariak egiten eta gaia herrian zabaltzen;¹⁶⁶ euskal gatazka momentu gordinetan zegoen, GAL eta gerra zikina oso presente zeuden gainera, Lasa eta Zabalaren gorpuak aurkitu ondoren. Horrez gain, ETAk Bidasoan bizi zen Jose Maria Aldaia enpresaria bahiturik zuen momentu horretan. Imanol Olaizolaren¹⁶⁷ oroitzapenak honen berri ematen digu:

“Eduki nuen kriston mobida, bertako kapitainarekin zeren garai hartan zegoen ambientea Euskal Herrian zen zegoena. Orduan atetzen ginen pegatina batzuekin gu eta gertatu zen zegoela, sekuestratutako bat zegoen eta bertoko kapitainak esaten zigun pegatak kentzeko eta egon zen liskarra zeren nik esaten nuen: «kenduko dut pegata kentzen duten momentuan lazo urdina», bazutela zintzilik. Ez zuten kentzen, nik ere ez nuen kentzen, ez dakit zer eta azkenean kapitaina enfrentatu zen nirekin eta, eta atera nintzen konpainia horretatik.”¹⁶⁸

Olaizolak aipatzen duen bahitua, hain zuzen, Bidasoaldean bizi zen Jose Maria Aldaia enpresaria zen. Horren aurrean, batez ere Bidasoaldeko pertsona ezberdinek bere askatasuna aldarrikatzeko plataforma bat sortu zuten, “Iniciativa Ciudadana por la liberación de Aldaia” izenekoa. Indarkeriaren kontrako eta giza eskubideen aldeko aldarria egiten zuten, baina Ezker Abertzaleak gerra zikina, gobernua eta estatu biolentzia legitimatzen zutela zioen, eta horrek enfrentamenduak eragin zituen, baita Alardean ere. Horrez gain eta aipatu dudan bezala, Lasa eta Zabalaren kasuaren argitzeak Bidasoaldea astindu zuen, are gehiago horien gorpuak Hondarribiko aireportura ekarri zituztenean. Bai Hondarribian, bai Tolosako hilerrian istilu handiak izan ziren. Polizia eta harrera egitera joan ziren pertsonen artean, HBko lau buru eta Lasa eta Zabalaren familiar batzuk zaurituta irten ziren, beste askoren artean.¹⁶⁹

¹⁶⁶ 1995eko abuztuaren 7an Emekik eskaera bat egin zuen udalean urte horretan berrikusiko ziren Alardeko ordenantzen bileretan parte hartzeko.

¹⁶⁷ Imanol Olaizola 1968an Hondarribian jaio zen, aita arrantzalea zuen eta berak ere lanbide horretan dihardu. Alardean desfilatzen zuen 1996an emakumeak sartu zirenean, eta lehen inpresioa traumatikoa, arraroa eta fuertea bezala deskribatzen badu ere, berehala emakumeak Alardean ateratzearen alde posizio hartu zuen. 1999tik espetxean bost urte pasa zituen ETako kideak muga pasatzen laguntzeaz akusaturik. Espetxetik atera zenetik Jaizkibel konpainian desfilatzen du.

¹⁶⁸ Imanol Olaizolari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren data: 2019/08/19 (pasarte bat).

¹⁶⁹ Javier González, “Miles de personas se unieron en un lazo de luz por la libertad de Aldaia”, *El Diario Vasco*, 1995/09/09, 15; “Nace en la comarca del Bidasoa una plataforma por la libertad de Aldaia”, *El Diario Vasco*, 1995/06/22, 12; “Graves incidentes en el traslado y entierro de Lasa y Zabala, con una trentena de heridos”, *El Diario Vasco*, 1995/06/22, 5-7; Pamela B. Radcliff, “De la transición democrática a la consolidación y la crispación: de 1970 hasta hoy”, José Álvarez Junco eta Adrian Shubert (ed.),

Gainera, Hurrengo eguneko *El Diario Vascoko* portadak horrek sor zezakeen haserrearen berri ematen digu; izan ere, Lasa eta Zabala bahitu, torturatu eta hil zituen GAL eta estatuaren arteko erlazioa argitara ateratzen ari zen:

“(...) demostraría que los servicios de inteligencia militar jugaron un papel protagonista en los años de mayor actividad de los GAL, sobre todo en 1984 y 1985, según fuentes militares. Asimismo, las cintas incluirían ‘con todo lujo de detalles’ las actividades de los GAL y la implicación de altos responsables policiales y de la Guardia Civil. Por este motivo se han disparado las alarmas en el gobierno.”¹⁷⁰

Testuinguru honetan, Hondarribiko eta Irungo Alardeetan ideologia eta klase ezberdinetako gizonen parte hartzen zuten, eta ikusten dugunez, politikak eta horrek sortutako konfrontazioek eragina zuten bertan. Izan ere, azaldu dugun bezala, Alardea masa errito bat bilakatu zen 70-80ko hamarkadetatik aurrera. Hala ere, nahiz eta desberdintasunak desberdintasun guztiek desfilatu Alardeetan, ez zuten guztiek berdinean parte hartzen, eta prestigiozko postuak eta konpainiak existitzen ziren, botere-harremanak erreproduzitzen eta sortuz. Dena dela, Alardeek desberdintasun sozialak kulturalki diluitzen zituzten, ustezko berdintasun baten bitartez herriak behar zuen kohesioa lortze aldera eta Alardeko agintari izatera edonor iritsi zitekeenaren ilusioa mantenduz.¹⁷¹

Alardean udalak, Juntak eta agintariak erabakitzen eta agintzen zuten, tartean 1995ean Alardeko ordenantzen aldaketak. Aipatu dudana bezala, Emekik eskaera egin zuen ordenantzaren berrikuspeneko bileretan parte hartzeko, baina 1995eko abenduaren 5era arte ez zuten erantzunik jaso. Bertan, Alardeko Juntaren izenean, Emekiren eskaeraren proposamena egokia ez zela esan, 1995eko urriaren 5ean udal bilkuran onartutako Alardeko araudiaren kopia bat bidali eta udaleko iradokizun postontzia erabiltzera gonbidatzen zuten. Beraz, udal bilkuran Alardeko araudia onartu zuten, Emekiri inolako erantzunik eman aurretik.¹⁷²

Nueva historia de la ..., 222.

¹⁷⁰ “Las cintas de Perote también implican al Cesid con los GAL”, *El Diario Vasco*, 1995/06/22, 1.

¹⁷¹ E. P. Thompson, *Costumbres en ...*; Nerea Aresti, “El langile respetable. Masculinidad, moral y trabajo en el nacionalismo vasco”, Nerea Aresti, Karin Peters eta Julia Bruhne (ed.), *¿La España invertida?...*, 119-120.

¹⁷² Emeki Elkartea, “Eskabidea”, *Hondarribiko Udala*, 1995/08/07; Alardeko Junta, “Emeki Emakume Elkartea”, 1995/12/05.

Hori ikusita, Alardean atera nahi zuten emakume horiek gutxietsita sentitu ziren, udalak ere ez baitzuen aintzat hartzen haien iritzi eta nahia. Gainera, pentsatu zuten eztabaida eta konponbide baterako ateak guztiz itxi zituztela eta Alardeko Junta, udala eta agintariek haien erabakimen espazioetan gotortu zirela. Maite Iraolak¹⁷³ honela azaltzen du:

“Se creían que era broma, se creían que era jaja, jaja, cuando se hizo la encuesta no se lo creían, hasta que llegó, (...) no se lo creían, para ellos era impensable que las mujeres desfilasen como ellos, entonces no lo tomaron en serio. Luego ellos achacan que lo hicimos mal, sabían perfectamente, no querían asumirlo. No querían ni tocar el tema, imagínate como está ahora.”¹⁷⁴

Testigantza horrek erakusten digu nola batzuentzat pentsaezina zen emakumeak gizonen pare Alardean parte hartzea. Orain arte ikusi dugun bezala, emakumeen parte hartzearen alde antolatu ziren emakumeentzat guztiz egingarria eta logikoa zen, eta esperantza handiak zituzten hori gauzatuko zela. Baina ikusten joan ziren nola Alardeko Juntarentzat ez zela horrela eta distantzia handia zegoela haien pentsaeren artean. Hala ere, emakume horiek biltzen eta antolatzen jarraitu zuten, eta eztabaidak ere izan zituzten, jarraian datorren hau izanik interesgarrienetarikoa. Orain arte aipatu dugun nahi edo aldarri nagusia emakumeak Alardean gizonen pare ateratzea zen, ikusita momentu horretan kantineara ateratzea zela aukera bakarra eta hori bizitzan behin bakarrik gauzatu zezaketela. Hala ere, zer zen gizonen pare ateratzea? Nola ulertzen zen aldarri hori? Maria Jesus Berrotaran Etxeberriak kontatzen digu horren inguruan eman zen eztabaida:

“Eta hor baziren bost bandan ateratzen zirenak eta Hondarbian bandan ateratzen diren emakumeak, Diana jotzen dute eta gero ez dute Alardean parte hartzen, erretiratu egiten dira. Eta hortik baziren bost etorriak eta gero beste lau edo bost, han behe hartakoak. Bale eta haiek esan zuten, «nola gizon jantzita?» eta guk esan genien asanblada ematen ari ginenak, «baina nola gizon jantzita? Egunero

¹⁷³ Maite Iraola 1960an Hondarribiko Alde Zaharrean jaio zen eta herriko farmazia batean lan egiten du. Emakumeak Alardean ateratzearen gaia planteatu zenean alde azaldu zen hasieratik eta Jaizkibel konpainia mistoan desfilatzen du. Ahizpa 1996an Hondarribiko Alardean soldaduz sartu zen, eta hortik aurrera haien familian gatazkak izan dituzte. Farmaziari behin baina gehiagotan pintura eta beste objektuak bota izan dizkiote, boikota egitearekin batera.

¹⁷⁴ Maite Iraolari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/18 (pasarte bat).

galtzekin ibiltzen gara eta» eta «ez, guk Donostian badire konpainia tanborradan aguadorak bezalakoak» eta guk esan genien «baina nola aguadorak bezala?» eta «bai, kantineraz jantzita aterako dugu, dena kantinera jantzita». Bueno guk momentu hartan ez genuen deus pentsatu, baizik pentsatu genuen mina gutxien egin nahi geniola Alarde horrerri eta gutxina inpaktatu. Eta esan genuen «ez, ez, ez kantinerak bere protagonismoa du eta goazen besteak normal jantzita eta gurea izango da pañueloa eta alpargatak eta horrela». Horiek altxatu eta joan egin ziren. Eta gero izandu dire kontra diren emakumeak.»¹⁷⁵

Alde batetik, Berrotarnek aipatzen dituen emakumeak Hondarribiko Musika Bandakoak ziren. Azaltzen duen bezala, emakume horiek Alardeko bandarekin entseatzen zuten, eta Alarde egunean bertan Diana jotzen zuten goizean goiz, baina ondoren alde egiten zuten, beste guztiak, gizonak, Alardeko bandan parte hartzen zutelarik. Bestetik, “han, behe hartakoak” bezala izendatzen ditu; horiek arrantzaleen auzokoei, portuarrei, egiten die erreferentzia. Emakume horiek, beraz, emakumeak “gizonez” jantzita ezin zirela irten uste zuten eta Donostiako Danborradan bezala emakumeentzako paper, figura eta jantzi desberdindu bat sortu behar zela zioten. Beste emakume batzuek, aldiz, ez zuten uste ordura arte gizonei zegozkien traje eta figuran irtetea gizonez jantzita parte hartzea zenik, galtzak egunero erabiltzen zituztela pentsatzen baitzuten. Ahalik eta aldaketa gutxien eragin nahi zuten Alardean, eta horretarako, emakumeak gizonen pare desfilatzea erabaki zuten, haien jantzi, paper eta rol berberetan. Baina horrek emakumeentzat figura desberdindu bat sortzearen aldekoak haserrarazi zituen eta bertatik alde egin zuten.

Eztabaida horrek generoa bizitzeko eta pentsatzeko modu ezberdinak mahaigaineratu zituen, eta hartutako erabakiak ondoren gertatuko zen gatazkan eragina izan zuenaren hipotesia planteatzen dut. Debate horretan zentratuz, ordea, alde batetik esan daiteke emakumeak kantinera jantzi azteratzearen aldekoek sexu-genero sistema bitarrean oinarritutako pentsamendua eta praktika gorpuzten zutela. Izan ere, emakumeentzat eta gizonentzat bi jantzi eta figura desberdin nahi zituzten, momentu hartara arte bezala. Horrela, Alardea generoaren eraikuntza teknologiaren espazio garrantzitsua izaten jarraituko luke eta gizarte bitar batean Alarde bitarra errazago egokituko litzateke, ez

¹⁷⁵ Maria Jesus Berrotaran Etxeberriari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/10/09 (pasarte bat).

bailuke zalantzan jarriko sexu-genero sistemaren oinarri nagusienetako bat. Garai hartako gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren ideia hegemonikoarekin bat egingo luke gainera, gizon eta emakumeak desberdintasunean berdinak eta osagarriak zirenaren ideiarekin, hain zuzen.¹⁷⁶

Besteak, ordea, Alardean ordura arte gizonei zegozkien paper eta trajea emakumeek ere erabiltzearen alde zeuden, eta argumentu nagusia erritoan ahalik eta aldaketa txikien sortzea zen. Horrek beste gauza batzuk zekartzan ordea, genero marka desberdindu batzuk Alardetik ezabatzea eta horrekin batera genero ordenaren oinarri handienetariko bat, generoen arteko dikotomia, zentzu batean diluitzea. Ahalik eta aldaketa gutxienaren argumentua egiazkoa zen forman, baina edukian eta sexu-genero sistemaren erreproduzio eta eraikuntza teknologia kontutan hartuta, planteatzen ari zirena aldaketa handia zela esan genezake. Eta horrek deserosotasun eta erreakzioa zabaldu zezakeen emakumeengan ere, noski, historian zehar gertatu izan zen bezala. Balio tradizionaletan oinarritzen zen emakumetasun femenino eta hegemonikoan eroso mugitzen ziren gorputz eta praktikak kuestionatzen baitziren, ziurtasun gabezia handia sortuz. Horrek, aurrerago sortu zen gatazkan emakumeek izan zuten papera ulertzeko balio izango digu. Hemen, hala ere, sortzen den ezbaia hurrengoa da: genero marka desberdinuak ezabatzen dira, baina ordura arte gizonena zena, maskulinoa¹⁷⁷ izendatu dezakeguna, neutrotzat edo behinik behin unibertsaltzat hartzen saiatuz. Geroago ikusiko dugun bezala, Alardearen gatazkak agerian utzi zuen, nahiz eta maskulinoa neutrotzat eta unibertsaltzat hartu, soilik gizonek gorputzu zezaketela. Hau da, neutroa eta unibertsala sakonki sexuatua zela eta gizonei zegokiela.¹⁷⁸

Gizonen figura berean ateratzearen aldekoak zeintzuk ziren badakigu. Haien testigantzek, bizi zituzten ezinegon, zalantza eta ziurtasunak ezagutzeko aukera eman dizkigute. Baina zeintzuk ziren horrekin ados ez zeudenak? Alardeko Juntan parte hartzen zutenak, udaleko zinegotziak, Alardeko agintariak eta kantinera jantziak atera nahi zuten emakume horien bizipen eta testuinguruak? Horien *bizitza historiek* emango ligukete batez ere galdera horiei erantzuteko informazioa, baina oso gutxi lortu ditut eta ez didate horretarako balio. Azaldu bezala, ia ezinezkoa da gatazkaren nondik norakoak

¹⁷⁶ Joan W. Scott, "El género: una categoría útil..."; Joan W. Scott, "Género: ¿Todavía una...

¹⁷⁷ Maskulinoaz ari garenean ez gara gizonei bakarrik dagokien maskulinitate bakarraz hitz egiten ari. Maskulinitateak eta feminitateak gorputz ezberdinek materializatu dezaketen praktika eta bizipen multzo gisa erabiliko ditugu.

¹⁷⁸ Judith Butler, *El género en disputa...*; Judith Halberstam, *Masculinidad...*; Monique Wittig, *Pentsamendu...*

eta gaur egungo errealitateak eraginda gizonez osaturiko Alardearen alde lerratu ziren pertsonak nahi eta behar bezala elkarrizketatzea.

1.3. Irunera zabaltzen da ezinegona eta Alardean parte hartzeko nahia (1995-1996)

Bidasoaldeko Emakumeak koordinadora feminista (BAE) 1995eko martxoaren 8a antolatzeko sortu zen, eta bertan, Irun, Hondarribia eta Hendaiako kolektibo eta talde desberdinek parte hartzen zuten, Emekik barne.¹⁷⁹ Hori horrela, Hondarribiko Alardean emakumeak ateratzearen aldarria Irunera zabaldu zen, batez ere koordinadora horri esker. Hala ere, koordinadoran emakumeen Alardeko parte hartzearen aldarria propio egitea proposatu zen lehen aldian, ez zen onartu, eta 1995eko martxoaren 8an Irungo HBko emakumeek jarri zuten euren karpan gai horren inguruko mahai informatzaile bat. 1996ko martxoaren 6an, berriz, Josune Urrusolok, Irungo HBko zinegotzi eta BAEko kideak moderatutako mahai inguru bat antolatu zuten, eta bertan parte hartu zuten Maribel Castellók, Irungo EAko zinegotziak, Margaret Bullen antropologoak, eta Antonio Aramburuk.¹⁸⁰ Jende asko gerturatu zen ekitaldira eta Alardearen antolaketa, Juntaren eraketa eta handik gutxira aldatuko zen Irungo Alardeko ordenantza berriaren inguruan hitz egin zuten. Bertan, apirilaren 24ean ordenantzak onartu behar ziren udaleko osoko bilkuran, aldaketa eta emakumeak Alardean ateratzearen ideia planteatzeko konpromisoa hartu zuten. Horrez gain, BAEren barnean eratutako batzorde batek emakumeak Alardean ateratzeko lanean hastea erabaki zuen, eztabaidak tartean,¹⁸¹ eta apirileko Irungo udalbatzarra prestatzea izan zen helburu nagusia, baina beste hainbat ekintza ere egin zituzten, hala nola firma jasotze bat, eta aldeko eta kontrako argumentuekin eginiko panfleto bat etxez etxe zabaldu zuten.¹⁸² Dena dela, beste espazio informalagoen bidez ere elkartu ziren ekimen horiek egingo zituzten emakumeak. Ixabel Alkain Etxeberriak honela kontatzen du:

¹⁷⁹ Horrez gain, Argiri, Argoiak, Legaleón T., HBko emakumeak eta Enbata taldeek osatzen zuten.

¹⁸⁰ Antonio Aramburu 1980an Irungo EEko zinegotzi zela Irungo Alardeko jatorria milizia foraletan zegoenaren hipotesia babesteko liburu bat idatzi zuen eta Alardeko ordenantzetan egin ziren 1980ko aldatetetan ideia hori gailendu zen.

¹⁸¹ HBko emakumeek BAEk gaia bere gain hartzeko proposamena egin zuten eta bi aukeraren artean eztabaidak egon ziren: batetik, gaia propio landuko zuen beste koordinadora bat sortzea edo BAEren barnean egitea.

¹⁸² Mercedes Tranche, "Emakumearen parte-hartzea Alardea..."

“Eta 96an Emekik gainera antolatutako pala txapelketa batean parte hartu genuen Irun eta Hondarribiko emakume talde bat eta orduan sari banaketaren afarian, txapelketa bukatzeko, izango zen martxoa edo apirila edo horrelako inguru horretan eta Mertxe Trantxe, txapelketa horretan parte hartzen zuela (...). Orduan komentatu zidan: «aizu, jo, gurekin parte hartuko zenuke Alardean ateratzeko?» Y digo, «ui, bai, noski!». «Bai, bileran hasi gara biltzen Irunen eta ez dakit zer eta abar eta bueno pues juntatzen gara lokal honetan holako orduetan» eta horrela hasi nintzen 96an Irungo jendearekin parte hartzen bileratan, eta hasieran oso gutxi ginen.»¹⁸³

Emakumeentzat propio sortutako espazioetatik zabaltzen joan zen Alardean ateratzearen nahia, eta kasu horretan palan jokatzeko aritu baziren, haien logikatik, Alardean zergatik ez? Horregatik eta urte horretan Irungo Alardeko ordenantzak berrikusi behar zirenez, BAEk Ezker Batua (EB), HB eta EA alderdien bitartez emendakinak aurkeztu zituen 1996ko apirilaren 24ean ospatu zen Irungo udaleko plenoan, Emakunderen eta Arartekoaren txosten batzuetan oinarriturik. BAEk eskatzen zuen aldaketa garrantzitsuena honako hau izan zen: ordenantzaren bigarren artikuluari gehitzea Alardean inor ezingo zela diskriminatu arraza, erlijio edo sexuagatik. Izan ere, “soldados” hitza agertzen zen, baina modu desberdinetan interpreta zitekeenez,¹⁸⁴ emakumeen parte hartzea arau bidez babestu eta betearazi nahi zuten. Proposamen hori egin ondoren, hogeit hamar emakume inguruk hitza hartu eta Alardean aktiboki parte hartzeko haien eskubidea errekonozitzea exijitu zuten, arbasoek eginiko botoa berritzeko konpromisoa hartzen zutelarik. Jarraian zinegotziek emendakinak eztabaidatu zituzten, eta horren kontra bozkatu zuten Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerrak (PSE-EE), EAJk eta Partido Popularrak (PP), alde berriz, HBk, EA, eta EBk.

Eztabaidan arrazoi desberdinak atera ziren alde edo kontra egiteko. Kontra bozkatzeko alkatetza zuten sozialisten argudioa honako hau izan zen: ordura arteko ordenantzak ez zuela emakumea baztertzen eta Alardeko arauak ez zutela urratzen Alardean parte hartu nahi zuen edonoren eskubide indibiduala. Eskubide hori gauzatea herritarren borondatearen esku uzten zuten. EAJk kontra bozkatu zuen eta emendakin bat egin zuen gizon hitza ager zedin. Haien ustetan, emakumeak soldaduz irteten baziren Alardea

¹⁸³ Ixabel Alkain Etxeberriari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/16 (pasarte bat).

¹⁸⁴ Soldado maskulino generikoa izan zitekeen edota gizonei bakarrik egin ahal zion erreferentzia.

hutsalduko zen eta Irungo herriak Alardeari uko egitea suposatuko luke. Berdintasunaren aferan inportanteagoak ziren gauzetan zentratu behar zela zioten. PPren ustetan, desfilearen zentzu historikoa mantendu behar zen, gizonak soilik betez soldadu papera, eta argudiatzen zuten emakumeak bazuela kantineraren figuran behar eta nahi zuten errepresentazioa. Alde bozkatu zutenen argudioak antzekoak ziren eta emakumeen eskubideak defendatu zituzten, guztiona zen festaren eboluzioaren beharrezkotasunean eta batzuk konstituzioaren legeetan oinarritu ziren.¹⁸⁵

Esan bezala, beste emendakin batzuk ere aurkeztu ziren eta horietatik interesgarriena PSE-EEK Alardeko Juntan alderdi politikoek zuten presentziarekin amaitzea proposatzen zuena izan zen.¹⁸⁶ Honela azaltzen du Mertxe Tranchek:

“Maribel Castellók eztabaidan azaldutakoaren arabera, ordenantza berriak benetan nahi zuena ahots kritikoa isilaraztea zen. Alkateak proposamena berea zela, eta helburua Junta eta jaia despolitizatzea zela esan zuen. Behin eta berriz ikusi dugun bezala, jaia despolitizatzearen aitzakiarekin talde politiko jakin baten esku uzten da Alardea (ezin ahaztu Juntako kideen eta PNV inguruan dagoen jende kopurua handia dela). Bitxia ematen badu ere, eta hiriko soziologiaren erakusle nabaria izanik, talde horretatik urruti kokatzen den pertsona da ordenantzaren aldaketa proposatzen duena. Segur aski, alkatetza lortu zuen unean pasatu izan zituenek eragina izan dute Alberto Buen-ek izandako jarreran.”¹⁸⁷

Hondarribiko Alardea bezala, Irungoa publikoa zen eta udaleko ordenantzen arabera arautua egoteaz gain, alderdi politikoetako ordezkariak parte hartu zezaketen Alardea antolatzen eta horren inguruko erabakiak hartzen zituen Alardeko Juntan. Alardearen eta zenbait alderdi politikoren arteko harremana, ordea, gatazkatsua izan zen azken hamarkadetan; izan ere, Alardea botere, prestigio eta boto iturri izan zitekeen. Alardearen kontrola zuten eta alderdi konkretu bati, EAJri, lotuta zeudenek Alardearen harmonia, despolitizazioa eta batasuna aldarrikatzen zuten. Horrela, 1983ko udal hauteskundeetan gertatutakoak hurrengo hamarkadetako botere-banaketaren oinarriak

¹⁸⁵ Sesión Plenaria de 24 de Abril Nº6 de 1.996, 145-163; Youtube: Alarde Publikoa. Pleno del Ayuntamiento de Irun 24-04-1996.

<https://www.youtube.com/watch?v=sOVY8TQjYdM> [2020/12/16an begiratua].

¹⁸⁶ Beste emendakinak Mercedes Trancheren kapituluak sakonago azaltzen ditu: Mercedes Tranche, “Emakumearen parte-hartzea Alardea...

Margaret Bullen eta José Antonio Egido, *Tristes espectáculos...*; Youtube: Alarde Publikoa. Pleno del Ayuntamiento de Irun 24-04-1996. <https://www.youtube.com/watch?v=sOVY8TQjYdM> [2020/12/16an begiratua].

¹⁸⁷ Mercedes Tranche, “Emakumearen parte-hartzea Alardea...”, 91-92.

jarri zituen. 1979ko udal hauteskundeetatik geroztik, Irunen Partido Socialista Obrero Español (PSOE) lortu zuen boto kopuru gehien, aldaketa handiekin ordea. Hala ere, lehen legegaldian EAJk gobernatu zuen EE eta Urantz Candidatura Independiente (UCI) zerrenda independentearen botoei esker. EAJko zinegotzi guztiek harreman zuzena zuten Alardearekin, agintariak ziren edo haien familiarrak, eta kontrara, PSOekoek, berriz, ez zuten lotura zuzenik Alardeko ohorezko postuekin.¹⁸⁸ Lehen legegaldi horretan, ondoren 1996ko ordenantzen aldaketek jarraipena emango zioten prozesua hasi zuen EAJk, ordenantza berria onartuz:

“Ordenantza baino lehen, eskuduntza Irungo hiritarren ordezkariak zen udalbatzarrean zetzan. Orain aldiz, Junta izango da, non hiriko eraketa politikoa gauzatzen ez den. Izan ere, gehienak alderdi baten inguruan kokatzen dira. Horren ondorioz, Alardearen Junta, eta logikoki, Alardea bera, botere paralelo edo kontrabotere bilakatzen da. Bi botereak –Alardea eta udala– bat datozenean gauzak ondo doaz. Baina bien arteko lotura hausten denean, arazoak sortzen dira. PSOEk udala eskuratzen duenean liskarrak hasten dira, PNV-ri soilik Alardea gelditzen baitzaio.”¹⁸⁹

1983an, ordea, PSEk lortu zuen alkatetza, Alberto Buen buru zelarik, eta horrek zalaparta handia sortu zuen. Herritar asko bildu ziren udaletxe parean Buen alkate aukeratu zenean, hautestontzia leihotik bota zuen baten batek eta irain artean jaso zuten alkate berria, bere kanpotar izaera azpimarratzeko *mantxurriano* deituz. “Egurrezko maleta batekin etorria” eta “soka batekin lotua” esaldiek erakusten digute bere kontrako erreakzioa xenofobia eta klasista zela. Irunek estatu barneko migrazio handia jaso izan du, trenbide, aduana eta industriaren inguruan. Mugimendu horien garai garrantzitsuenetako bat 60ko hamarkadakoa izan zen, hedapen ekonomikoarekin erlazionatuta egon baitzen. 1981eko zentsuan Irungo populazioaren % 38 Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaioa zen.¹⁹⁰ Guzti horrek Alardean bere eragina eta isla

¹⁸⁸ Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Abril 1979. Irún”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1983. Irún”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Junio 1987. Irún”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1991. Irún”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1995. Irún”; Mercedes Tranche, “Alardearen historiaren kable batzuk...”, 81-82.

¹⁸⁹ Ibidem, 83.

¹⁹⁰ Xabier Kerexeta, “Historia, tradizioaren menpe...”, 61; Margaret Bullen eta José Antonio Egido, *Tristes espectáculos: las mujeres...*, 54.

zuen, bertan ere klasea eta jatorria gurutzatzen baitziren, generoaz gain, noski. Xabier Kerexeta Errok¹⁹¹ honela oroitarazten ditu hamarkada horietako pasarteak:

“[Alardea] da irundartasun hori adieraztea eta irundar sentitzea. Gero irundar sentitzeko modu asko daude, edo zaldi gainean señooringoa doanetakoa zarelako edo kaseroburra zarelako eta «buuu» egiten diozuna jeneralari. Hori nik ere ikusi dut, bueno tira, gizonezkoa bazinen klaro. (...) Bai, abutxeatzen, eta zalditik erori zenean Apalategi por ejemplo, asko barrez lehertzen, pues porque le tenían mania. Bueno por que le tenían mania, pues zera, sektore bat horrela herrikoa edo esango genukeen ez zitzaizolako gustatzen zer nolako bilakabidea hartzen ari zen pues hori, hantuste horiek, zaldi gainean dijoazelako bestea baino inportanteak. (...) Aitak esaten zuen bezala aduanetakoa dira ardo txuria edaten dutenak, obrerook ardo beltza edaten dugu. (...) Irunen ez da konfunditu behar apellido eta mantxurriano. Apellido badaude aduanak aldatu zinerezetik eta trena etorri zenez geroztik eta oso desberdina da. Hemen daude Iruneses de Toda la Vida erdal apellidokoak edo nahasiak dituztenak, hori gauza bat da eta bestea dira hori, mantxurriano, egurrezko maletarekin etorritakoak en los años 50-60, batzuk oraindik en los 70.”¹⁹²

Lehen aipatu bezala, Irunen ere gizon askok parte hartzen zuten Alardean; izan ere, masa errito bat zen, non irundar identitatearen ardatz zentraletako bat gorpuzten zuen. Alardeak herri-komunitatea sortzen eta eraikitzen zuen, politikarik eta ideologiarik gabeko batasun baten irudia kanpora proiektatzen saiatzen zirelarik, interes eta emozio komun bat konpartituz: Alardearekiko maitasuna. Hala ere, Kerexetak erakusten digun moduan, barne desberdintasunak existitzen ziren, eta horiek Alardeko hierarkia eta klasearekin erlazionatu eta edaten zuten ardo kolorean materializatzen zirela dio. Desberdintasunak existitzen ziren eta bazeuden horrelako erresistentzia edota klase gorroto adierazpen txikiak; esaterako, jeneralari txistu edo barre egitea. Ez ziren zuzenean hierarkian goian zeudenei egindako konfrontazio deklarazio argiak, baina azaleko harmonia eta agintarietako obedientziaren azpian erresistentzia eta desobedientzia keinu diskretuak edo anonimoak existitzen ziren. James C. Scottek

¹⁹¹ Xabier Kerexeta Erro 1964ean jaio zen Irungo Meaka auzoko baserri batean. Historialaria ofizioz, Alardearen inguruan ikerketak egin ditu eta Alardean gaztetatik desfilatu izan du. Emakumeak Alardean sartu zirenetik Irungo Alarde mistoan desfilatzen du.

¹⁹² Xabier Kerexeta Errori eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketa eguna: 2020/10/08 (pasarte bat).

planteaturiko “ezkutuko diskurtsoaren” terminoa erabilgarri zaigu praktika horiek ulertzeko. Indibidualak izatetik urrun, konpartituak eta kolektiboak ziren iritzi eta posizio horiek elkarbanatzeko espazio eta harreman sozialak existitzen ziren, eta nahiz eta boterea eta hierarkia esplizituki zalantzan ez jarri, irits zitezkeen ordena zalantzan jartzera ere.¹⁹³

Jatorriari dagokionez eta abizenak kontutan hartuta, Kerexetak adierazten diguna da kanpotik etorritakoek, dirudunek, aduanetan lan egiten zutenek edo patroiek irundar kontsideratzeko arazo gutxi zituztela. Tren edota fabriketan haien lan indarra saltzeko iritsi zirenak, gainean zutenarekin soilik, pobreak, horiek ziren *mantxurriano* estigma gainean eramaten zutenak, irundar izatera iristeko oztopo handiak zituztenak. Hain zuzen, Alardean soldadu soil zirenak eta ardo beltza edaten zutenak. Bestetik, “kaseroburroak” aipatzen ditu; horiek baserritarrak ziren, Irungo periferiako auzoetan bizi zirenak, bertan jaiok edota kanpotik etorriak ziren eta periferia espazialak boterearen periferian kokatzen zituen, eta alderantziz, boterearen bazterretan egonik, espazioaren bazterrean bizi ziren. Horietariko gehienak, gainera, hamarkada horietarako baserrietan bizi ziren, baina fabriketako edo bestelako soldatapeko langileak ere baziren. Hala ere, eta lehen esan bezala, guztiek parte hartzen zuten Alardean, Alardea baitzen Irunen integraziorako tresna handiena. Horrek ere, 90eko hamarkadan sortu zen gatazkan eragina izan zuela ikusiko dugu; izan ere, irundarrak kontsideratzen jarraitu ahal izateko argi adierazi behar izan zuten *mantxurrianoek* “herriaren” Alardearen alde zeudela. Azpimarratu beharra dago, hala ere, horrek ez zuela esan nahi desberdintasunak, botere harremanak edota harreman sozialak deuseztatzen zirenik bertan.

Alberto Buenek alkate izaten jarraitzen zuen guri dagokigun kronologian, baita ordenantzen aldaketan ere, 1996an, hain zuzen. Esan bezala, 1996ko apirilaren 24ean Irungo udalean egin zen osoko bilkuran Alardeko ordenantza berria onartu zen, eta emakumeek ez zuten lortu parte-hartzeko behar zuten babesak, zeren eta PSE-EEk, PPK eta EAJk bigarren artikuluan edozein bazterketa esplizituki ukatzen zuen proposamenaren kontra bozkatu zuten. Bestetik, onartu egin zen Alardeko Juntako alderdi politikoen presentziaren inguruan aurkeztu zen emendakina, hau da, Alardeko Juntatik alderdi politikoak ateratzen zituena, eta horrekin batera, emakumeak. Izan ere, Alardeko Juntako gainontzeko kideek Alardean parte hartzen zuten, gizonak guztiak.

¹⁹³ James C. Scott; *Los dominados...*

Alderdi politikoen ordezkartzaren bitartez, ordea, emakumeek Alardeko Juntan parte hartzeko aukera zuten.

Alardeko Juntatik alderdi politikoak ateratzeko argumentu nagusia jaia eta Junta despolitizatzea zen, baina azaldu dudana azalduta, argumentu horrek zentzua galtzen zuen; izan ere, politizazioa eta Alardearen gaineko kontrol politikoa existitzen zen, eta are gehiago handiagotzen zen, esku gutxi batzuetan kontzentratzeko balio izan zuelako. Argumentu hori askotan erabili izan zen Alardearen inguruan eta ondoren ere erabiliko zen, Alardea ez politizatzearen edo despolitizatzearen beharra. Statu quo eta hegemonia mantendu nahi zutenek erabiltzen zuten, ukatuz haien jokaera eta jarduna politikoa zela eta horrekin ikusezin bihurtuz haien politika. Kontrara, gauzak aldatzeko egin zena politiko izendatu zuten behin eta berriro, konnotazio negatiboekin, gainera.¹⁹⁴

Gauzak horrela, ordenantza onartu zen, baina ez zuen berehalako aplikazioa izan, eta 1996ko Irungo Alardea oraindik ere 1980ko ordenantzaren araupean egin zen. 1996an onartutakoa, ordea, ez zen inoiz indarrean sartu, gero etorriko ziren gatazka eta mugimenduengatik. Momentu horretatik aurrera tentsioa sortzen eta igotzen joan zen, gaia Irungo herritarren artean zabaltzen joan zelarik. Egun hartan bertan *El Diario Vasco*k argitaratu zuen iritzi artikulu batean, emakumeak Alardean ateratzearen kontra erabiliko ziren argumentu edo posturak azaltzen ziren: “Hori da, tradizioa suntsitu dezagun, inposa ditzagun gure ideia ero eta zalapartatsuak (...) Anarkia eta arrazoi eza gure jabe egingo al dira?”¹⁹⁵ Entzungor egitetik, garrantzirik ez ematetik, serio ez hartzetik, eztabaida ahalik eta gehienetan ukatzetik ofentsibara pasatzen hasi ziren batzuk. Alardean parte hartu nahi zuten emakumeek Alardea suntsitu nahi zutela esanez, lekuz kanpoko eta ezagutzarik gabeko inposizio gisa izendatuz emakumeak Alardean ateratzea.

1996ko maiatzaren 11an Irungo Alardeko Juntak komunikatu baten bidez honako hau aldarrikatu zuen “Alardea, unitate eta konpainia guztietako –eta euren kantinerak– gizonetzkoek osatzen dute” eta “(Alardea) irundar guztien ondasuna da, eta hauei dagokie interes politiko edota aldarrikapen sozialen aurrean Alardea defendatzea.”¹⁹⁶ Hau da, EAJk proposatu zuen ordenantzaren aldaketa Alardearen Juntak komunikatu bidez bere egin zuen, “gizon” hitza esplizitatuz. Hori egitea erabaki zen bilerara ez

¹⁹⁴ Nicolás Iñigo Carrera, “Qué historia y qué militancia”, *Razón y Revolución*, 7. zkia, 2001 [berredizio elektronikoa].

¹⁹⁵ Mercedes Tranche, “Emakumearen parte-hartzea Alardean...”, 90.

¹⁹⁶ *Ibidem*, 93.

zituzten alderdi politikoetako ordezkariak gonbidatu. Alkateak soilik parte hartu zuen Alardeko agintariez gain, nahiz eta oraindik ere 1980ko ordenantzak indarrean egonda alderdi politikoetako ordezkariak bertan egoteko eskubidea izan. Interes politiko edo aldarrikapen soziala ukatzearen izenean azpijoko politikoa gauzatu zuten, Alardea agintariak nahi bezala egin eta haien kontrolpean izaten jarraitzeko guztia blindatzen hasi ziren. Horren aurrean maiatzaren 22an BAEk *El Diario Vasco*ra alkateari zuzendutako eskutitz ireki batean emakumeek 1996ko Irungo Alardean parte hartuko zutela adierazi zion. Jon Miranda Labaienek¹⁹⁷ gogoan ditu garai horiek eta honela oroitzen ditu:

“Hilabete horietan, martxotik, baiezkoa edo ateratzeko intentzioa zeukatela esan zutenetik ekainera bitartean, eta nik orduan esan beharra daukat nik esaten nuela ez zutela emakumeek parte hartu behar. «Eta, zertarako? Ez dakit zer...» baina segituan nabaritu nuen, osea hilabete horiek martxotik ekainera, hilabete horiek aurrera egin ahala, nola ari zen giroa gaiztotzen. Baina eske inpresionantea zen. Karo, nik jada, ikasi egiten nuen, nik politikak ikasi ditut gainera. Eta ordun han Leioan nengoen, eta etortzen ginen Irunera eta geroz eta giro okerragoa, gu ibiltzen ginen Moskun eta ibiltzen ginen Hazian edo Sunbillan, taberna horietan, eta Eskiñan eta holakoetan. Eta klaro, txosnak jarri zituzten festetan eta ia festetan geunden kasi eta ni gogoratzen naiz institutuko nire lagunak eta etortzen zaizkitela eta esaten zidaten «ba ez joan taberna horretara, boikot egin porke emakumeen parte hartzearen alde daude». Eta gero, ez dakit zer... Eta «enteratu naiz, ez dakit ze neskak parte hartzeko gogoia, asmoa duela». Eta ordun jada zen pixka bat agobio bat... tentsio bat zegoela, zurrumurruak eta ordun ni jada hasi nintzen pixka bat beldurtzen baita.”¹⁹⁸

Mirandak tentsioaren gorakada aipatzen du, berak kanpoan ikasten zuela eta Irunera itzultzen zen bakoitzean geroz eta gehiago ari zela giroa gaiztotzen eta jendea posizio hartzen eta antolatzen. Testuinguru horretan BAEk manifestu bat atera zuen, Irungo eta Gipuzkoako pertsona esanguratsuek firmatutakoa. Manifestua eta momentu horretako egoera azaltzeko, prentsaurreko bat egin zuten ekaina hasieran. Tradizioek

¹⁹⁷ Jon Miranda Labaien 1977an Irungo Anaka auzoan jaio zen. Alardezalea, baina gatazka sortu arte ez zuen Alardean desfilatzen. Ordutik Irungo Alarde mistoan eta Hondarribiko Jaizkibel konpainian desfilatzen du.

¹⁹⁸ Jon Miranda Labaieni eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketa eguna: 2019/07/19 (pasarte bat).

eboluzionatzen zutela eta emakumeek espazio guztietan egoteko zuten eskubidea aldarrikatu zuten manifestu horrekin. Bestetik, alkatetzari eta Alardeko Juntari eskaera pertsonalak bidali zizkietela azaldu zuten, emakumeen babes eta parte hartzea bermatzeko idatzi bat eskatuz. Arartekoaren informea jaso berri zutela azaldu zuten eta horren arabera Alardeko Juntak eginiko komunikatua ilegala zela. Baita ordenantza berriari emendakinak egiten saiatzen jarraitzen zutela ere, eta azkenik, bilera bat lortu zutela alkatearekin edo Alardeko Juntarekin; ez zuten argi norekin. Idazten ari ziren karta baten inguruan ere hitz egin zuten eta bertan hurrengoia salatu nahi zutela:

“La carta va en el sentido de cuestionar la decisión de los mandos pensando que el Alarde es de toda la gente de Irún, y va también en el sentido de criticar la jerarquización que está habiendo en los últimos años dentro en el Alarde y la pérdida de sentido simbólico de los mandos y su conversión en auténticos mandos de verdad, mandos casi militares.”¹⁹⁹

Alardeko Juntak hartutako erabakia, gizonek bakarrik parte hartu zezaketela, gutxi batzuek hartua zela uste zuten, eta gainera, Alardeko agintarien zentzu sinbolikoa galtzen ari zela eta benetako boterea haien esku zegoela, Alardea guztiena bazen ere. Deialdi bat zabaldu zuten Alardean parte hartzera interesatuak zeuden emakumeak biltzeko ekainaren 25ean, eta azkenik, zurrumurru bat iritsi zitzaizela azaldu zuten, emakumeak Alardean parte hartzearen kontrako jendea antolatzen ari zela emakumeak Alardean sartzea ekiditeko. Momentu horietan beste zurrumurru bat zabaltzen hasi zen, emakumeak Alardean sartzen saiatzen baziren, Alardea bertan behera utziko zutenarena. Alardea suspenditzearen mehatxuak Irungo 1976ko Alardea gogoraraztea zekarren, hori izan baitzen Alardean istiluak egon, ia bertan behera gelditu eta konpainia batzuek arratsalde musikarik gabe eta eskopetak jaitzita desfilatu zuten azken aldia. Alarde egun hori Irungo memoria kolektiboan iltzatuta geratu zen, trauma gisa, urte bereko Hondarribiko Alarde egunarekin batera.²⁰⁰ Karmele Tolosa Errok honela oroitzen ditu 1976ko egun horiek:

“(…) oso gogorra izandu zen, oso, oso, bueno aber Guardia Zibila kanpoan zeuden hor aireportu inguru horretan, orain ertzainak egoten diren tokian. Hor

¹⁹⁹ Youtube: Alarde Publikoa. Rueda de prensa-Junio 1996. https://www.youtube.com/watch?v=xn1S_G5M57k [2020/12/16an begiratu].

²⁰⁰ Sebastian Balfour y Alejandro Quiroga, *España reinventada...*, 254; Gonzalo Wilhelmi, *Romper el consenso. La izquierda radical en la Transición española (1975-1982)*, Siglo XXI, Madril, 2016, 16.

zeuden, goiz goizetikan zen karo urte hartan hemen ere Irunen egondu zen norbait detenitu zuten. Hemen Santa Elenan detenitu zuten bat, jendea gero zapela, gainera kantinera atera zen lagun bat eta zapela kendu eta ez dakit zer. Orduan uda hartan, ia herri guztietan egondu ziren gatazkak eta folloiak eta kristonak eta orduan Hondarribin izan zen tres kuartos de lo mismo. Eta gainera hori, Josu Zabala hil zutela, gainera ezagutzen nuen bera eta familia eta horrela eta izandu zen oso gogorra, garai hura oso gogorra izandu zen.”²⁰¹

Hondarribiko 1976ko Alardea bukatu ondoren, manifestazio bat egin zen amnistiaren alde eta Perturren, ETA politiko-militarraren buruaren, desagertzea salatzen. Guardia Zibilak manifestazioa disolbatu zuen munizio erreala erabiliz, eta Josu Zabala, Hondarribiko Alardean parte hartu zuen irundar gaztea eta Comisiones Obreraseko (CCOO) burua, ihes egiten saiatzen ari zela lurrera erori eta atzetik, metro gutxitara, tiro egin eta bertan hil zuten:

“Las fiestas mayores locales de verano [1976] cobraron especial relevancia por su politización, en ocasiones espontánea. (...) Asimismo, otra constante vinculada con la politización existente en el País Vasco era la actuación de los cuerpos policiales. La muerte en Hondarribia, el 8 de septiembre, del dirigente de la CCOO Jesús María Zabala, alcanzado por el disparo de un guardia civil tras una marcha espontánea en protesta por la desaparición de Pertur, propició en los días siguientes asambleas, paros, manifestaciones y, finalmente, el 13 de septiembre, una huelga general.”²⁰²

Irunen 1976ko Alarde egunean presentzia poliziala oso altua zen, Alardean parte hartzen zuen gizon bat atxilotu zuten, eta horren kontrako protesta gisa, arratsaldeko desfilea musikarik gabe eta txapela kenduta desfilatu zuten konpainia batzuek. Hurrengo egunetan eztabaida eta komunikatuak egin zituzten udalak eta Alardeko agintari batzuek, elkarri ardura leporatzen. Udalak tradizioarekiko jarrera kolektibo desleiala eta errespetugabea izan zela esan zuen, eta jaiaren espirituarekiko arrotzak ziren “sediziozileak” gaitzetsi zituen, protesta salatuz. Alardeko agintari batzuek, ordea,

²⁰¹ Karmele Tolosa Errori eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/02/24 (pasarte bat).

²⁰² Pau Casanellas, *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977*, Catarata, Madril, 2014, 243-244.

presentzia eta gehiegikeri polizialean jarri zuten Alardea oztopatzearen ardura.²⁰³ Mertxe Trancheren arabera Irungo gizartean trauma gogorra utzi zuten gertakari horiek:

“Alarde horretan jazotako irudiak inoiz gertatu behar ez zenaren irudi bilakatu ziren: partaideen irudia txapela kenduta eta muskarik gabe desfilatzen, kantineren negarra parte hartzeko aukera bakarra galdu ostean, etab. (...) 1996. urteko ekaineko egunkarietan behin eta berriz alardea bertan behera uzteko mamua agertzea ez zen neutrala. Horren bidez, zorigaitzez eta dramatismoz betetzen zen emakumearen parte-hartzea.”²⁰⁴

Hala ere, nahiz eta memoria kolektiboan iltzatuta geratutako urtea izan 1976a, jendartean eta ideologia ezberdinetako jendeak modu desberdinean gogoratu eta esanahi desberdinez betetzen zuen. Trauma hori batzuentzat Alardea suspenditu izanarena zen eta besteentzat polizia gehiegikeriarena.²⁰⁵ Fermin Muguruzak²⁰⁶ kontatzen duen bezala, berak 1976ko Irungo Alardeko protesta eredugarritzat du:

“(…) orduan bete zuten dena poliziz eta jada eguerdian jendea zegoen super haserre eta arratsaldean hor sartu zen ez dakit zer, zerbait hasi zen oihukatzen, atxilotu zuten. Nola atxilotu zuten, egin zen asanblada bat eta orduan ez zen atera, erabaki zen ez egitea desfilea. Orduan ez egitea desfilea ez, orduan desfilea egin zen jo gabe eta txapela kenduta eta orduan hori izan zen hemen inoiz egin den igual Irunen ekitaldirik indartsuena, politikoa gainera justu Franco jada hilda. Baina hala eta guztiz ere ze egoera, gainera argazki batzuk eta da oso oso polita, hori begiratu beharko zenuke horrek markatzen dizulako baita ere, beste puntu bat. Zer gertatu zen hori eta gero Irungo betiko horiek esan zutela hori berriz ere ezin zela gertatu, edozein gauza gertatzen zela eta salbatu behar zela Alardea.

²⁰³ Carta del alcalde Federico Bergareche Abaigar. <http://elbidaso.blogspot.com/2011/09/18-el-alarde-de-1976-el-alarde-en-la.html> [2021/03/02an begiratua]; Bateria de artilleria del Alarde de San Marcial. Informe. <http://elbidaso.blogspot.com/2011/09/18-el-alarde-de-1976-el-alarde-en-la.html> [2021/03/02an begiratua].

²⁰⁴ Mercedes Tranche, “Alardearen historiaren kable batzuk...”, 78-79.

²⁰⁵ Margarita Iglesias Saldaña, “Trauma social...”; Alessandro Portelli, “Historia y memoria...”; Cristina Roda Alcantud, “Formas de vida...”; Silvia Rodríguez Maeso, “Comunidades campesinas y la reconstrucción de «la violencia» en el Perú: secretos, memorias y científicos sociales”, Pablo de Marín, Gabriel Gatti eta Ignacio Irazusta (ed.), *La comunidad como pretexto...*, 293.

²⁰⁶ Fermin Muguruza 1963an Irunen jaio zen eta musikagintzan, zinemagintzan eta kulturagintzan haritu izan da. Kortatu eta Negu Gorriak taldeen abeslari izan zen, eta 1996ko Irungo Alarde egunean emakumeen alde egin zuen. Geroztik, kanpoan ez badago, Irungo Alarde mistoan eta Hondarribiko Jaizkibel konpainian desfilatzen du. 1998tik 2008ra arte Bidasoaldean ez du kontzerturik eman, bere aburuz, gatazka honetan posizio hartzeagatik.

Horregatik esaten dizut beldur hori, talka egiten du edo beti pixka bat hau oso militarista da edo hau zera, karo, argazki asko zeuden Francoren garaian desfilatzen Franco, Franco, Francoren udaletxearen azpian eta horrela.”²⁰⁷

Muguruzak mugarri bezala markatzen du gertaera hori, Irunen gertatutako ekintza politikorik indartsuena, Alardea ezkerreko protestarako tresna bilakatzea lortu baitzuten urte horretan. Esan bezala, Alardean jatorri, klase eta ideologia ezberdinetako gizonen parte hartzen zuten, eta barnean hegemonia lortzeko etengabeko lehian zeuden, batzuetan inplizituagoak ziren gatazka horiek, besteetan ordea ikusgarri egiten ziren. Nahiz eta Alardearen boterea eta kontrola momentu horretan erregimen frankistaren eskuetan egon, urte horretan ihes egin ziela esan dezakegu, eta horregatik, hurrengo urteetan berriro gerta ez zedin mekanismoak martxan jarri zituzten. Alardea despolitizatzearen diskurtsoa eta praktika zabalduz eta barneratuz joan zen, eta horren adierazle garbia da Hondarribiko alderdi politiko batzuk eta udal gestora 1978an Josu Zabalaren omenez hil zuten egunean plaka bat jartzearen kontra agertu zirela. Datak Alarde egunarekin kointziditzen zuenez, hori politizatzearen arriskua omen zegoen, nahiz eta beste egun batean omenaldi bat egitearen beharrezkotasuna ikusten zuten.²⁰⁸

1996an BAEko emakumeek Irungo Alardean parte hartuko zutela adieraztean, *El Diario Vascoren* arabera, maiatzaren 31an Alardeko komandanteak konpainietako kapitainei dokumentu baten bidez jakinarazi zien Alardea bertan behera gelditzeko aukera zegoela, emakumeek soldadu gisa parte hartuz gero. Aukera horren zurrumurrua azkar zabaldu zen, Alardea suspenditzearen ardura eta pisua parte hartu nahi zuten emakumeengan jarritz. Testuinguru horretan eta Arartekoaren eskaerei jarraituz, alkatea bitartekari izanda, BAEko lau emakumek eta Alardeko agintariak bilera bat egin zuten ekainaren 20an.²⁰⁹ Mertxe Tranchek honela jasotzen ditu bilera horietan hitz egindakoak eta hurrengo egunetako gertaerak:

“BAEk egin zituen proposamen bakarrak: aurten ez ateratzea eta uztailaren 2tik aurrera gaia sakonean lantzea eta akordiorik lortzen ez bazen, lasaitasuna eskatzen zuen komunikatu komun bat kaleratzea. Bilera horretan hartutako erabaki bakarra izan zen gai hauek beste bilera batean aztertuko zirela. BAEk erabaki bat hartzeko

²⁰⁷ Fermin Muguruzari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/09/07 (pasarte bat).

²⁰⁸ “Fuenterrabia: No se colocará una placa por Josu Zabala”, *El Diario Vasco*, 1978/09/05, 5.

²⁰⁹ Josune Diez Etxezarreta, “San Marcial ’96. Un alarde con polémica”, *El Diario Vasco*, 1996/06/23, 83.

asanblada deitu zuen eta bertan, Alardean ateratzearen aldeko erabakia hartu zen. Bi aldeen arteko bilera ekainaren 26an egin zen eta komunikatu komun bat ateratzeko ere ez zen akordiorik lortu. Alarderako falta ziren lau egunetan egoera sostengaezina zen.»²¹⁰

Egoera sostengaezina zela aipatzen du, zeren eta tentsioa gora zihoan eta inork ez zekien zer gertatuko zen Alarde egunean. Alardeko konpainien entseguak ekainaren 20tik aurrera hasiak ziren, eta ekainaren 22an lau emakume Santiago konpainian sartzen saiatu ziren, baina alde egin behar izan zuten gizonen oihu eta irainengatik. Ekainaren 28an Mosku plazan egin zen kontzertu batean, BAEko Mainer Larrañaga eta HBko zinegotzia zen Juan Mari Rozpide eszenatokira igo eta komunikatu bat irakurri zuten. Horren aurrean, batzuk arrautzak eta beste objektu batzuk bota zizkieten, beste batzuk txalo egin zuten bitartean. Hurrengo egunean, ekainaren 29an, zinegotziek urtero dantzatzen zuten aureskua egitera joan zirenean, udaletxetik Junkal elizara doan bidean eta elizaren atarian bertan, Maribel Castelló zinegotzia iraindu eta jazarri zuten.²¹¹ Egoera gatazkatsua zen eta emakumeak Alardean soldaduz ateratzearen kontrako jendea antolatzen eta emakumeen parte hartzea ekiditen saiatzen ari zen. Hala ere, emakume batzuek urte hartako Alardean soldaduz irteteko erabakia hartuta zuten, eta horrekin aurrera jarraitu zuten, Idoia Zubeldia²¹² egun batzuk lehenago batu zelarik:

“Ni ez nintzen feminista sentitzen. Nik uste dut Alardearen historiak lagundu dit emakume edo feminismoaren barruan sartzen, pila bat. Ez nuen, bueno, feministak, garai horretan gainera oso jende gutxi. Ez genuen igual gehiegi ulertzen zer zen, nora. Eta oroitzen naiz hori, parranda batetan hiru egun lehenago, San Martzial baina hiru egun lehenago, esan zidatela, «Aizu!, atera behar dugu», «ah, bale, ba ni ere bai» baina besterik gabe. Horrela pentsatuz, gainera pentsatuz izango zela bale, igual batzuk esango zutela ezetz, baina pasako zela eta aterako ginela eta lasai. Lasai iritsi zen eguna, jantzi ginen. Ni, pentsa, hemendik hara eta jantzita etxetik eta bidetik sumatu nituen horrelako zerak eta lagun batekin

²¹⁰ Mercedes Tranche, “Emakumearen parte-hartzea Alardean...”, 94.

²¹¹ Ibidem, 94-95; Margaret Bullen eta José Antonio Egido, *Tristes espectáculos...*, 77.

²¹² Idoia Zubeldia 60ko hamarkadan Irunen jaio zen eta bertan irakasle izan da. 1996ko Irungo Alardean soldaduz sartu zen, eta geroztik Irungo Alarde mistoan eta Hondarribiko Jaizkibel konpainian desfilatzen du.

nindoan eta lagunak esan zidan: «kendu txaketa eta gorde eskopeta hori zeren ikusten duzu hemen ez gaudela ondo ikusiak.»²¹³

Pasarte honen bidez interpretatu dezakegu nahiz eta aurreko egunetan tentsioa igo, egoera jasanezina izan eta batzuk beldurtzen hasi, inork ez zuela gero etorriko zena espero. Horrek zerikusi handia du Zubeldiak azaltzen duenarekin: emakumeak Alardean ateratzea normala eta zentzuzkoa iruditzearekin, hain zuzen, eta gainera, momentu hartan bere burua feministatzat ez hartzearekin. Hau da, emakume haientzat normala eta logikoa zena gizartearentzat hala izango zenaren ustea zuten, eta batzuek behintzat ez zuten inongo ageriko asmo subertsiborik. Dena dela, nahiz eta halako intentziorik ez izan, harmonia sozialaren oinarri zen genero osagarritasuna zalantzan jartzeak ezinbestean alde subertsiboan kokatu zituen, haien gainean eroriz orden soziala berrezartzeak zekarren erreakzio, indarkeria eta agresibitate guztia. Feminismoa izan zen guzti horri aurre egiteko tresna, eta etorriko zena bizitzeak egin zituen asko kontzienteki feminista. Hau da, feminismoak ulergarri egin zuen eta hitzak jarri zizkion biziko zuten egoerari eta indarkeria guztiari.²¹⁴

1.4. Genero ordenaren lehen eztanda: 1996ko Irungo Alardea

1996ko ekainaren 30eko irudi eta gertaerak jende askoren memorian iltzatuta geratu ziren, askorentzat mundu baten amaiera suposatu zuen lehen eztanda izan baitzen egun hura. Kerexetak honela azaltzen du:

“Alardean hori uste genuen, mundu perfektu bat irudikatzen genuela Alardearekin, zoragarria, eta orduan etortzen da gauza bat berez anekdotikoa izan zitekeena, nola hartu eta izan zitekeena eta izan zen kristalezko palazio bati mailukada egitea bezala, dena suntsitu eta egia esan jada mundua ez duzu berdin ikusten, bestelako begiz ikusten duzu ze Alardearen bidez mundua, (...) adibide lokal bat baina mundu guztia ulertzeko balio didana eta genero kontuetan bistan da hori baina baita ere beste kontuetan ere, gizartea ulertzeko modu hori eta gainera konturatzeko betikoak toki guztietan badaudela.”²¹⁵

²¹³ Idoia Zubeldiari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/10/08 (pasarte bat).

²¹⁴ Mercedes Arbaiza, “Cuerpo, emoción y política...”; Mercedes Arbaiza, “Dones en Transició...”

²¹⁵ Xabier Kerexeta Errori eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna:

Kerexetaren testigantzek eta baita beste batzuenek ere kontatzen digute egun hartatik aurrera bai Alardea, bai herria eta bai mundua beste modu batera ikusten hasi zirela. Espero ez zuten zerbait gertatu baitzen, eta haien bizitzak eta herriko dinamikak guztiz aldatu baitziren. Kristalezko palazio bati mailukada bat ematea bezala izan zela esateak idilikoa zen egoera bat irudikatzen du, baina aldi berean oso hauskorra zena eta mailukada batekin apurtzeko erraza. Bidasoaldean sentsazio hori Alardearen gatazkaren bidez zabaldu zen, baina jadanik aipatu bezala, 90eko hamarkadan maila handiago batean ere mundu baten amaiera suposatu zuen, eta horrek ahalbidetu zuen segurtasun ezaren aurrean batzuek Alardearen aldaezintasunari eustea eta sortu zen erreakzioa antolatzea.²¹⁶ Bizipen horien bitartez gatazkaren aurreko egoera idealizatzerara jo zezaketen askok, eta seguruenik hala egingo zuten, baina kontziente dira ere lehenagotik ezarritako baldintzek posible egin zutela gatazka lehertzea. Kotte Susperregi Aizpuruak²¹⁷ honela dio:

“Nork esango dizu hori, nork esango dizu eta hemen muntatu den pifostio guztia, karo, nik beti pentsatu dut ere, ez, azkenean da, lapikoa lehertu, lapikoa lehertu egin da. Kaka hor zegoen, bestela ez da posible. Nik beti esaten dut hau dela anekdota bat, niretzako Alardean gertatu dena da anekdotikoa, zeren azkenean honek balio izan du hemen dagoen mierda guztia ateratzeko.”²¹⁸

Erabiltzen duen metafora esanguratsua da. Kaka bertan zegoela, existitzen zela dio, baina momentu horretan egin zuela eztanda, lehenago ezkutuan edo ez hain agerian zegoen guztia atera eta mahai gainean jarri zuela. Zerk eragin zuen eztanda? Nola azaleratu zen guztia? Nire hipotesi nagusia emakumeak soldaduz eta baimenik gabe Alardean sartzean genero ordena zalantzan jarri zutela eta horrek ordena sozial guztia arriskuan jarri zuela da, aurretik askok hauteman zuten ezegonkortasun eta galera

2020/10/08 (pasarte bat).

²¹⁶ Zygmunt Bauman, *Comunidad...*; Marshall Berman, *Todo lo sólido...*; Ander Gurrutxaga Abad, “La innovación de la comunidad...”; José Javier Díaz Freire, “La experiencia de la modernidad...”; José Javier Díaz Freire, “Tiempo al tiempo. Modernidad, experiencia y tiempo”, *Iglesia viva*, 277. zkia., 2019, 25-42; Eric Hobsbawm, *Historia del siglo XX...*; Jaume Suau, “El presente en...”

²¹⁷ Kotte Susperregi Aizpuru 1969an Hondarribian jaio zen eta irakaskuntza munduan dabil. Txikitan Alarde egunean erredoblea jotzea gustatzen zitzaion, eta 1996ko Hondarribiko Alardean soldaduz jantzita sartzen saiatu zen. Juana Mugarrietakoa taldean antolatu zen eta geroztik erredoblea jotzen du Hondarribiko Jaizkibel konpainian.

²¹⁸ Kotte Susperregi Aizpuruari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren data: 2020/08/11 (pasarte bat).

sentsazioa handituz. Horrekin, aurretik modu batean edo bestean eutsita edota kontrolatuta zeuden indar, harreman eta ezinegon batzuek gainezka egin zuten.²¹⁹

1996ko ekainaren 30ean, goizean goiz Irungo Alardera sartuko ziren 57 emakume, eta horiek babestuko zituzten pertsonak Ama Xantalen ermitan bildu ziren. Soldaduz jantzita eta eskopetekin Mosku plazara gerturatu ziren, bertatik hasten baitzen Alardea. Ama Xantalen konpainia pasatzen ari zela, desfilatzen zeuden gizon batzuek lekua egin eta emakumeak barrura sartu ziren. Kaos handia izan zen, emakume horien kontrako eta aldeko jarrera eta oihuak nahastu baitziren San Martzial aldaparen igoeran. Kolpeen, jaurtitako objektuen eta txalo artean igo ziren San Juan Arria plazara, hau da, udaletxe plazara. Bertan, 8.000 soldadu inguruk botatako haien kontrako irain eta kantuen erdian, udaltzaingoak lagundurik udaleko arkupeetara iritsi ziren. Komandanteari gutun bat eman eta ordubete baina gehiago tentsio egoera bortitz batean egon ondoren, Alardeak bere bidea hartu zuen, emakumeak bertan geratu zirelarik.²²⁰ Xabier Kerexeta Erro ikusle zegoen San Martzial kalean eta bere ondoan zegoen emakume batekin eduki zuen ondorengo elkarrizketa oroitzen du:

“«Y, ¡ffjate!, ¡La cantinera ha subido llorando!, y ¿no te da pena?» eta esan nuen: «sí, y esas chicas que están subiendo, ¿no te da pena? Están llorando también» eta begiratu zidan. Eske ez zuen ulertzen ere. Eta ez «¡esas que se jodan!» Ez, ez eske ez zuen ulertzen ere zer esan nahi nuen. ¡Claro! la pena es la pobre cantinera que subía y vienen estas y se lo revientan, ez? Eta bueno nolabait arrazoi zuen: jera su día, claro! Eske horrela planteatzen baduzu kantinerarena: ¡es su día! Pues no lo plantees así. Hori da diferentzia.»²²¹

Alardea ikusten zegoen emakumeari negarrez zihoan kantinerak pena eman zion; izan ere, bizitzan behin bakarrik atera zitekeen, eta gatazka guzti horren erdian harrapatuta geratu zen bere egun handia. Jai egun harmoniatsu eta alai bat izatearen espektatiba eta nahiak ezin izan zituen bete, eta istilu artean egotea tokatu zitzaion. Kerexetak, ordea, ea soldaduz atera ziren emakumeak pena ematen ez zioten galdetu zion. Haien kontra kolpeak eta irainak botatzen ari ziren, eta horietako batzuk ere negarrez igo ziren.

²¹⁹ Judith Butler, *El género en disputa...*; Monique Wittig, *Pentsamendu ...*

²²⁰ Mercedes Tranche, “Emakumearen parte-hartzea Alardean...”, 95.

²²¹ Xabier Kerexeta Errorri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/10/08 (pasarte bat).

Emakumeak ez omen zuen ulertu galdera, nola eman ahal zioten pena egin behar ez zuten zerbait egiten ari ziren emakume horiek?

Ez da lehen aldia emozio bat edo beste aipatzen dudana, baina hemen eta ondorengo kapituluetan, Sara Ahmeden emozioen inguruko teoriak gatazka eta bertan eman ziren prozesuak ulertzen eta azaltzen lagunduko dit. Ahmedek emozioek nola funtzionatzen duten aztertzen du gorputz indibidual eta kolektiboen azalak moldeatzeko orduan. Bere aburuz, emozioak ez dira edukitzen, baizik eta gorputzen eta objektuen artean zirkulazioan eta kontaktuan daude, eta horien errepikapenaren bitartez arauen eta komunitateen mugak, iraunkortasunak eta azalak sortzen dira:

“Así que las emociones no son simplemente algo que “yo” o “nosotros” tenemos, más bien, a través de ellas, o de la manera en que respondemos a los objetos y a los otros, se crean las superficies o límites: el “yo” y el “nosotros” se ven moldeados por –e incluso toman la forma de– el contacto con los otros. (...) En otras palabras, las emociones no están ni “en” lo individual ni “en” lo social, sino que producen las mismas superficies y límites que permiten que lo individual y lo social sean delineados como si fueran objetos.”²²²

Emozioen bitartez munduak nola erreproduzitzen diren aztertzen du, beraz, nola denborarekin norma sozialak afektibo bihurtzen diren. Zer edo zerk emozionalki eragitean, horrengana hurbildu edo urruntzen gara, eta horrek espazio sozial eta korporalak definitu ditzake. Emozio berberak beste batzuekin konpartitzeak *gua* sortu dezake edo eraikitzen lagundu, haienganako hurbilpen bat emanez eta *bestearekiko* urrunpena, *bestearen* ertzak mugatuz. Kerexetak kontatzen duen pasartean, San Martzial aldapa igotzen ari zirenen artean, elkarriketako emakumeari kantineraren negarrek soilik eman zioten pena, bere minaren ulerpen eta aitortza bat zegoen, enpatia bat. Soldaduz jantzita zeuden emakumeak nahiz eta negarrez egon eta agerikoa izan haien mina, emakume ikuslea ez zen horretaz ia konturatu ere egin. Izan ere, bere aburuz soldaduz jantzitako emakumeak ziren kantineraren negarra eragiten zutenak, Alardea eta festa izorratu zutenak. Nola sentitu, beraz, pena horiengatik?

Testigantza horrek ere aukera ematen digu azaltzeko nola eraiki zen emakume biktimaren irudia, bai eta emakume gaiztoarena ere. Gertakari horretan batzuk interpretatutako Alardeari eginiko eraso sinbolikoa, emakume batzuek, soldaduz

²²² Sara Ahmed, *La política cultural...*, 34-35.

jantzitakoek, beste emakume bati, kantinerari, eginiko erasoan materializatzen joan zen. Modu horretan, kantinerei biktima papera ezarri zieten, merezi eta espero ez zituzten gertakari batzuen erdian kokatuz eta horren aurrean ezer egin ezin zutenaren ustean. Guztiaren errua soldaduz jantzitako emakumeen gain jarri zuten, eta horrek emakume gaizto bihurtu zituen. Irudi horiek eraikitzen joan ahala, emozioek lagunduta, oso zaila egin zen buelta ematea; izan ere, emakume soldaduen kriminalizazio eta estigmatizazioa horrekin oso estu lotuta etorri zen.²²³

Kerexetaren testigantzako emakume horrek izan zitekeen lehendik ere iritzi edo jarrera bat izatea gai horren inguruan, baina ziur momentu hartan bizitako eta sentitutako emozioek, aurretik pentsatzen zuenak baldintzatuta, pertsona eta kolektibo batera hurbildu zuten eta beste batengatik urrundu. Emozioek iritzia sortzen eta gotortzen lagundu dezakete, eta alderantziz, pentsamenduek emozio batzuk sentitzeko joera markatu. Jon Miranda Labaien ere San Martzial kalean zegoen egun hartan Alardea ikusteko zain, eta honela oroitzen du emakumeak sartu zireneko momentua:

“Nik esan beharra daukat eta lotsa pixka batekin esaten dut beti (...). Hilabete horietan, martxotik, baiezkoa edo ateratzeko intentzioa zeukatela esan zutenetik ekainera bitartean eta nik orduan esan beharra daukat, nik esaten nuela ez zutela emakumeek parte hartu behar. «Eta, zertarako? Ez dakit zer...» Bai, eta zen tentsio bat zegoela, zurrumurrak eta ordun, ni hasi nintzen pixka bat beldurtzen baita ere eta gero pasa zen 96ko horretan. Eta ordun niri halako bulkada batek edo eman ziten eta nik animatu nituen neska horiek, holaxe sartu zitzaitezako gogoia edo. (...) Bai, bai. Ni gogoratzen naiz, ez dakit, nire rekuerdoak dira, eta nire memoria da pixka bat hola, ez? Baina ni oroitzen naiz txalo egiten nuela, neskei txalo egiten niela, «¡benga, animo, animo!» Eta hola pasa ziran eta gero guk han jarraitu genuen, publikoan eta beste konpainiak pasa zirenean eta musika gabe. Eta ni gogoratzen naiz oihu baten esaten geniola musika, musika jotzeko esaten genien. Como, ez da ezer pasa, segitu festa. Baina bueno... izan zen eskandalu handi bat eta holaxe eta ordutikan fidela naiz borroka honekiko.”²²⁴

²²³ Nerea Aresti, “El *gentleman* y el bárbaro...”; Nerea Barjola, *Microfísica sexista del poder...*; Margaret Bullen, “La construcción de género...”; Margaret Bullen, “Hombres, mujeres, ritos y mitos...”; Judith Butler, *Cuerpos que importan...*

²²⁴ Jon Miranda Labaieni eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/19 (pasarte bat).

Eztabaida herrian zabaldu zenean, Mirandak ez zuen ulertzen emakumeek Alardean ateratzearen nahia eta uste zuen ez zutela desfilatu behar. Beldurra ere aipatzen du, konflikto guztian zehar oso presente egon zen emozioa eta konfliktoa bera asko baldintzatu zuena. Aurrerago sakonduko dugu gehiago, eta urte guzti horietan zehar beldurra nola azaldu eta artikulatu zen ikusiko dugu. Momentu hartan aipatzen duen beldurra gertatuko zenarekikoa da, tentsioa igo ahala konfliktoa nondik eta noiz lehertuko zen kezka adierazten digu. Beldurrak, hemen beraz, hori gerta ez zedin konfliktoa lasaitzea edota desaktibatzea eragin zezakeen, Alardea eta herriko ustezko harmonia mantentzeko. Herrian barneratuta zegoen diskurtsoa bakoitzaren desadostasun ideologikoen gaintik garrantzitsuena Alardea bakean mantentzea zelako, eta horretarako, emakumeek amore eman behar zuten Alardean desfilatzearen nahiarekin, haiek baitziren guzti hori zalantzan jartzen ari zirenak. Mirandaren esperientzia adierazgarria da azaltzeko nola momentu hartara iristean, San Martzial aldapan Alardearen barnean emakumeak sartuta, Alardea salbatzeko eta harmonia mantentzeko modu bakarra guztiek hori onartzea eta desfilea musikarekin eta beti bezala jarraitzea zela, eta, beraz, Mirandaren ustetan, Alardea zalantzan jartzen ari zirenak momentu hartan emakumeen kontra azaldu zirenak izan ziren.

Gertaera horren aurrean, emakumeak irain eta oihu artean desfilatzen ari zirela ikusi zuen unean, txalo egitea atera zitzaion. Bere esanetan, bulkada batek emakumeak animatzera eta babestera bultzatu zuen. Izan ere, askoren memorian iltzatuta geratu zen gertaera izan zen 1996ko Irungo Alardean emakumeak sartu zireneko gertakaria eta horien kontra sortu zen erreakzioa. Tentsio, ideia eta emozio asko gurutzatu ziren momentu hartan, eta hori dena bizi izan zuten gorputzak ezinbestean lerratu ziren, konfliktoan posizioa hartu zuten. Gatazkak guztia eta guztiak busti zituen, ekaitza herri osoa kalean zela hasi baitzen. Azkenik, Mirandak esaten du momentu hartatik aurrera borroka horrekiko fidela dela, eta horrek bere bizitzan konfliktoak eta borrokak zein dimentsio eta zentraltasun hartu zuen adierazten digu. Fidela hitza, bestetik, fedearekin erlazionatzen da askotan, eta momentu hartatik aurrera nola borroka horrekiko konbentzimendu osoa izan zuen adierazteko erabiltzen du. Momentu hori, beraz, lurrikara sakon bat izan zela azaltzeko balio digu testigantzak eta nola emozio handiko gertakari horrek posizio ideologikoak aldatzeko potentziala ere izan zuen, lehenagotik arrazoiak eta diskurtsoak aldatu ez zituenak.

Hurrengo eguneko egunkarietako berriek 1996ko ekainaren 30eko Irungo gertakariak kontatu zituzten, eta lehen aldiz jaso ziren soldaduz jantzita Alardera sartu zirenen kontrako irainak. Momentu hartatik aurrera, termino horiek behin eta berriz izan ziren erabiliak Alardean parte hartu nahi zuten emakumeen kontra egiteko. *Eginek* honela jasotzen ditu:

“Los gritos de «¡Fuera, fuera!» Estallaron inmediatamente, acompañados de otros de «¡Hijas de puta!» o «¡Mujeres a fregar!» [...] Otro soldado se esforzaba en explicar a este periodista que «esto es un montaje de los desgraciados de siempre, la morralla de HB» [...] El cerco en los soportales de la casa consistorial se prolongó durante casi dos horas. «¡Tortilleras!» y «¡lesbianas!» fueron los insultos más repetidos [...].”²²⁵

Udaletxe plazara igotzea lortu zutenean, bertan grabatu zen bideo batean Alardeko gizonak abesten entzuten dira: “Que se vayan de una puta vez” eta “en la hoguera os vamos a quemar”.²²⁶ Irain eta eraso gisa erabilitako termino eta esaldi horiek argi erakusten digute zeren kontra erreakzionatu zuten. Zeren kontra baina gehiago, emakumeak soldaduz Alardean sartzea nola hauteman zuten, nola jaso zuten. Izan ere, termino horiek zutenean ezer gutxi zuten erlazioan Alardearekin, baina bai jendartean emakumeek zuten toki eta paperarekin, eta Alardea ez zen salbuespena. Irain horiek sexu-genero sisteman emakumeen tokia zein izan behar zuen esaten zuten, etxeko lanak egiten, garbitzen, hain zuten. Horretatik irteten baziren, Alardean soldaduz eta gizonen baimenik gabe ateratzera ausartzen baziren, orduan ezinbestean genero normatik ateratzen eta ordena zalantzan jartzen ari zirenen, eta horrek izen batzuk zituen jada: *Hijas de puta, tortilleras, lesbianas*. Izan ere, tortillera edota lesbiana izateak historikoki, baita 90eko hamarkadan ere, sexu-genero sistema zalantzan jartzea suposatzen zuen, sistema hori binarismoan eta erregimen heterosexualean oinarrituta baitzegoen. Puta izateak balio tradizionaletik ihes egitea esan nahi zuen, eta emakumeek soilik ezkondata edota bikote heterosexual monogamo baten baitan sexu harremanak izatearen araua hausten zuen.²²⁷

²²⁵ “El Alarde se convirtió en viacrucis”, *Egin*, 1996/07/01, 13.

²²⁶ Youtube: Alarde Publikoa. 1996. <https://www.youtube.com/watch?v=IXliUSXPRSU> [2020/12/12an begiratua]

²²⁷ Brice Chamouveau, *Tiran al maricón. Los fantasmas queer de la democracia (1970-1988)*, Akal, Madril, 2017; Esther Cohen, *Con el diablo en el cuerpo. Filósofos y brujas en el Renacimiento*, UNAM, Mexiko, 2005; Judith Halberstam, *Masculinidad...*; Raquel Platero (koord.), *Lesbianas. Discursos y*

Elkarrizketatuen testigantza batzuek diote egun horretan “que os violen” ere entzun izan zutela, indarkeria sexuala hautsitako normara itzultzeko zigor eta tresna gisa aldarrikatuz. Sutan erretzearen mehatxua inkisizioak sorgin izendatu zituzten emakumeen hilketei erreferentzia egiten zion, horiek ere kapitalismoak behar zuen genero ordena eta ordena soziala ezartzeko dominazio sistemari muzin egin ziotenak edo normatik kanpo geratu zirenak izan baitziren. 1996ko Irungo Alarde egunean soldaduz atera ziren emakumeak izan ziren dominazio sistemari aurre egin ziotenak eta horregatik sorgin izendatu zituztenak.²²⁸

Horrez gain, *Egineko* berrian HBri egiten zaio erreferentzia, Alardean parte hartzen ari zen soldadu batek honako hau esan baitzuen: “esto es un montaje de los desgraciados de siempre, la morralla de HB.” Azaldu dugun bezala, Irunen HBko emakumeak izan ziren hasiera batean gaia lantzen hasi zirenak, eta ondoren, BAEk hartu zuen horren ardura. BAE koordinadora plurala zen eta Alardean parte hartu nahi zuten emakume guztiak ez ziren inondik inora HBko militante edo jarraitzaileak. 1996ko Irungo Alardean jasotako esaldi horrek, ordea, azaldutakoaz gain gauza asko erakusten dizkigu. Egun hartan bertan artikulatzen joan zen erreakzioak sortuko zuen *besteak* politikoki izango zituen ezaugarriak tartean. Alardean atera nahi zuten emakumeen ahaleginak HBk egindako muntaia izan zela esateak bi norabideko kriminalizazio eta estigmatizazioa zekarren. Alde batetik, HB, bere politika eta borroka armatuaren aldeko posizioaren ukapen eta gaitzespen osoa erakusten ari ziren gizartearen parte bat, komunikabide eta indar politiko handiak 90eko hamarkadan, ETA enpresari eta beste pertsona batzuen bahiketak aurrera eramaten ari zen testuinguruan. Guzti hori Alardean atera nahi zuten emakumeekin erlazioan jartzean, eta are gehiago, HBk egin zuen muntaia izan zela esateak emakume horiek beste gauza askoren erantzule egiten zituen. Muntaia hitza erabiltzearekin, gainera, aldarri publikoen atzetik beste ezkutuko interes batzuk zeudela esaten ari zen. Beste norabidean, ordea, Alardean emakumeak sartzearen kontra azaldu ziren askori, ulertezin egiten zitzaizkion, genero ordena zalantzan jartzeak amorrua eragin zizkion ere HBren kontra posizio hartzea ekarri zien.

“Betiko nazkagarriak” esaerak desesperazio edota mesfidantza bat adierazten du, HB beti izorratzen edo beti modu batean edo bestean hor eta molestetzen egongo balitz

representaciones, Melusina, Bartzelona, 2008; Leonor Silvestri, *Primavera con Monique Wittig...*; Monique Wittig, *Pentsamendu...*

²²⁸ Silvia Federici, *Caliban y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria*, Traficantes de Sueños, Madril, 2010.

bezala. “Betiko” terminoa egoeraren adierazpena larriagotzeko erabili zuen, intentzio bat markatzen duelako, lehen aldia ez izateak eta beti berdina eta gaizki egiteak barkaezin bihurtzen zuen ekintza, bere ustetan ez zelako inozentziaz edo ignorantziaz eginikoa. Baina aldi berean eta agian nahi gabe, aitortza bat egin zion HBri, berriak edo iritsi berri ez zirenaren aitortza, migranteak *mantxurriano* deitzen zituzten hiri batean berebiziko garrantzia zuelarik horrek. Gaiztakeriaz jokatzearen akusazioa egin zien, baina ez ezjakintasunez aritzearena. Beti hor egotearen errekonozimendu horrek herriaren parte izan zirela eta izaten jarraitzen zutela onartzea suposatzen zuen, nahiz eta haienganako mespretxua adierazi eta herritik kanporatzearen nahia eduki. Eta hemen, herriaz hitz egitean ez naiz soilik Irunen inguruan ari, euskal nazioaren eraikuntzari egiten diot erreferentzia. Hau da, euskal nazioaren eta herriaren parte zirela errekonozitzen ari zela deritzot, baina horretan zeuden gatazka eta kontraesanak azaleratu zituen, euskal nazioa ulertzeko modu ezberdinek talka egiten zutelarik: generoa eta klasearen inguruan, ideologia eta estrategian, borroka armatuaren bueltan besteak beste.²²⁹

Azkenik, “morralla” hitza erabili zuen eta horrek adiera ezberdinak ditu: “zaborra”, “jendilaje” edo “inork nahi ez duen arraina”. Azaldutakoa berresten du, hau da, zaborra balio izan duen zer edo zerren hondarra da, jada ezertarako erabilgarri ez dena. Jendilajea asmo gaiztoak dituen talde multzoa da. Inork nahi ez duen arraina, berriz, arraina da, existitzen da, bertan dagoenaren errekonozimendua dauka, baina inork nahi ez duena, ezertarako balio ez duena.

Agerikoz, Alardearekin zerikusi gutxi zuten terminoak, desfilean atera ziren emakumeen kontra irain gisa erabili zituztenak, egun hartan asko errepikatu ziren. Eta errepikapen horren bitartez gorputz, jarrera eta ideia batzuei lotu zitzairen, performatibitatearen ideiak azaldu dezakeen bezala.²³⁰ Oso argi erakusten digu Maite Vergara Iraetari²³¹ egun hartan gertatu zitzaionak:

²²⁹ José Álvarez Junco, *Dioses útiles...*; Sebastian Balfour y Alejandro Quiroga, *España reinventada...*; Santiago de Pablo, Ludger Mees eta José A. Rodríguez Ranz, *El péndulo patriótico...*; Santiago de Pablo, *La patria soñada...*; José Javier Díaz Freire, “El cuerpo de Aitor...”

²³⁰ Sara Ahmed, *La política cultural...*, 28-31.

²³¹ Maite Vergara Iraeta 1971ean Irunen jaio zen, eta 35 urte zituela erabaki zuen Irungo Alarde mistoan eta Hondarribiko Jaizkibel konpainian desfilatzea, nahiz eta lehenagotik emakumeak Alardean ateratzearen alde egon. Gatazkaren lehen urteetan bere osaba Alardeko jenerala zen, eta emakumeak Alardean ateratzearen kontra egin ondoren, ez du harremanik familiaren zati batekin. 2019ko Irungo Alarde mistoan jenerala izan zen.

“Yo, en el 96, estaba en la subida de la Calle San Marcial viendo la arrancada y, cuando subía Ama Xantalen, vi todo lo que se había montado y, ahí, ya empezó a cruzarse cosas y a verse lo que iba a ser el resto de mi vida, no sé cómo decirte. Yo aplaudí, fuerte. Una señora que había a mi lado también, pero a nuestro alrededor, incluidas mis amigas, sus familiares, etc. no. Las dos nos mirábamos como un poco horrorizadas por los gritos y los insultos y las barbaridades que se pudieron decir en ese momento, son pocas. (...) Pero, en ese momento, ya llevaba el pelo corto y teñido de amarillo y, entonces, para cuando subía al monte San Marcial, tres personas me dijeron: «ya te he visto subir la cuesta de San Marcial», «¡ah! ¿Sí?, ¡qué suerte tienes porque no estaba!» Bueno, no sé, yo, no me sorprendió pensar como pensaba. Me sorprendió ver cómo pensaban las personas que estaban a mi alrededor, que yo pensaba que pensaban como yo: que la reivindicación feminista estaba en todos los ámbitos, también en ese. Y, de repente, en ese no. No era reivindicación, ni era feminista, no, ¿qué es?»²³²

Egun hartan bertan, eguerdian, Vergara, nahiz eta soldaduz jantzita Alardean ez atera, bera ikusten baitzegoen, bere itxura eta ideiegatik hiru pertsonak egotzi zioten San Martzial igoera desfilatu izana. Egun hartan jada, irainen errepikapenen bitartez termino batzuk gorputz batzuei eta Alardean soldaduz atera ziren emakumeei itsatsi zitzaizkien. *Hijas de puta, tortilleras, lesbianas* hitzei momentu hartatik aurrera Bidasoaldean beste esanahi bat gehitu zitzaien, emakumeak Alardean parte hartzearen aldeko emakumeak izendatzeko balio zuten. Vergararen testigantzak ere, momentu horretatik aurrera, normatik ateratzen zen guztia arriskutsu eta susmagarri bihurtu zela erakusten digu, nahiz eta zuzenean Alardearekin zerikusirik ez izan. Une hartan, aurretik normatik kanpo zegoena kontrolatuta edukiko balute bezala eta gertakari horrek normatik kanpo zegoen guztia kontrolpetik ihes egingo balie bezala hauteman zuten, norma apurtzeko potentzialaren kontzientzia eta beldurra hartuz. Ondorioz, arautik ateratzen zen guztia elkartu zuten, elkar itsatsi eta pegatu, eta ordena eta norma berrezartzeko horren kanpo geratu zen guztia deuseztatu edo kanporatu behar zuten, guztia kutsatuta baitzegoen, dena nahastu baitzuten. Bestetik, Vergarak azaltzen duenez, ez zuen espero erreakzio hori, arrazionalki pentsatuz ez zitzaion logikoa iruditzen bere inguruko pertsonak

²³² Maite Vergara Iraetari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/18 (pasarte bat).

emakumeen parte hartzearen kontra joatea, aldarri feminista toki guztietan zabaltzen ari zenean.

Jose Ramón Uriz Zurutuzak,²³³ ordea, beste modu batean bizi izan zuen eta beste emozio batzuek hartu zuten. Lehenik eta behin, ez zuen ulertzen zerk eraman zituen emakume horiek Alardean parte hartu nahi izatera. Amorrua sentitu zuen horrela Irungo Alardean sartu izanagatik, eta askok traiziotzat hartu zuten emakumeak Alardean soldaduz sartu izana, batez ere baimenik eta onarpenik gabe egin zutelako. Kontatzen duenaren arabera, gainera, arazoa ez zen soilik emakumeak Alardean atera nahi izatearen ideia, aldarri hori nork egiten zuen baizik. Urizen arabera, aurreko urteetan pertsona gutxi batzuek Alardearen aspektu militarrengatik protesta egiten zuten, desfilea deuseztatzeko helburuarekin, eta horietako batzuk aldarriz aldatu eta emakumeak Alardean ateratzearen aldeko posizioan kokatu ziren.

“Hasieran izandu zen ba pixka bat, ez genuen ulertzen zergatikan zen hori. (...) Amorrua. Amorrua. Zen garaietan gainera horrekin hasi zirenak Irunen batzuk, igual denak ez, ezagunak ziren zeren urte batzuk lehenago jada hasiak ziren protestatzen baina ez emakumeen asuntogatik baizik eta esaten zuten, nola esaten zuten? «San Marcial, simulacro militar» uste dut esaten zutela eta pintadak ere egoten ziren kalean, «San Marcial, simulacro militar», baina gutxi ziren eta oso indarra gutxi zuten. Eta, baina ziren batzuk ziren berdinak eta orduan hau sortu zenean eta ikusiz simulacro militar oihukatzen zuten batzuk orain sartuak zirenak hemen beste arrazoiak defendatzen, jada ez zen simulacro militar, jada eskopetarekin atera daiteke baina hori bai emakumeak eta gizonak. Zuk esaten zenuen simulacro militar zela, hori debekatu behar zela, bukatu behar zela eta orain zer? Eta nik ikusi ditut batzuk, San Martzial egunean ensaiotan ez dakit, ez naiz gogoratzen etzanda kalean, simulacro militar oihukatzen, baina oso gutxi ziren.»²³⁴

Gogoratu behar dugu 90eko hamarkadan intsumisioaren aldeko mugimendua indartsu zebilela Euskal Herrian eta kutsu militarra zuena gaizki ikusia zegoela jende

²³³ Jose Ramón Uriz Zurutuzak 1970eko hamarkadan Irunen jaio zen, baina 2006tik Hondarribian bizi da. Gaztetatik Irungo Alardean desfileatzen du eta azken urteetan baita Hondarribiko Alardean ere. Herri bakoitzean bi Alarde egotearen aldekoa da, bakoitzak nahi duen bezala jaia bizitzeko eta Alarde tradizionala ez aldatzeko.

²³⁴ Jose Ramón Uriz Zurutuzari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/20 (pasarte bat).

askorengatik, batzuentzat Alardea barne. Irunen ere Negu Gorriak²³⁵ musika taldea intsumisioaren irudi bilakatu zen; izan ere, taldeko baxu-jotzaileak, intsumisioagatik epaitu behar zutenak, epaiketara ez aurkeztea erabaki zuen, eta horren ordean, egunean bertan Negu Gorriak taldeak kontzertu bat eman zuen, kamioi baten gainean Donostiako epaitegien parean, kalea moztuz:

“Orduan egin genuen ekainean eta atera zen telebista guztietan eta hurrengo egunean portada egunkarietan y la ostra, «Negu Gorriak tocan delante de ez dakit zer» Diario Vasco portada y la ostia. Orduan izan zen kristona, karo izan zen oso fuertea eta kriston inpaktua eta intsumisioarekin gertatu zen bezala, kriston ekintza imajinatiboa eta lortzen zenuen jendearen atxikimendua eta orduan jendea benetan, oso jende gutxi zegoen soldaduskaren alde. Oso gutxi eta orduan karo, hor batzen zen jende pila bat. Zer gertatzen zen Irunen? Beldur hori, soldaduskaren kontra daude baina hau ez da soldaduska, hau da gure festa. Eztabaida hori bazegoen aspalditikan.»²³⁶

Alardea eta soldaduskaren arteko harremanaren eztabaida existitzen zen, eta indarra hartzen ari zen intsumisioaren mugimenduak ea Alardearen kontra egingo zuen beldurra zegoen ere. Muguruzak ondoren kontaktzen du haiek Alardean parte hartzen zutela eta beste herrietako lagun intsumisioak harritzen zirela eta haiekin eztabaidan aritzen zirela, baina haiek oso argi zutela bi gauza ezberdin zirela eta Alardean eskopetak sorbalda desfilatzen jarraituko zutela.

1996ko Irungo Alardearen hurrengo egunean, Euskal Herriko egunkarien portadetan azaldu zen gertatutakoa, eta hurrengo egunetako berrietan oraindik ere presentzia izan zuen. Iritzi artikulak, zuzendariarentzako gutunak eta politikarien eta Alardeko agintarien deklarazioak izan ziren nagusi. Javier Vergara²³⁷ jeneralak honako hau esan zuen: “emakumea arrotza da Alardean, zaldi lasterketa batean motor pilotu bat ikustea bezala.”²³⁸ Lehenik eta behin, Irungo Alardeko jeneralaren iritziak Bidasoaldean pisu handia zuen, eta horrelako deklarazioek jendartearen iritzia sortzeko balio izan zuten. Iritzi horrek Alardearen naturalizazio prozesuan lagundu zuen. Hau da, Alardean

²³⁵ Negu Gorriak 1990ean sortu zen eta Fermin eta Iñigo Muguruza taldekideak irundarrak ziren. Alardeari erreferentzia bat baina gehiago egin zioten, aipagarrienak 1993an argitaratutako Hipokrisiari Stop! abestiaren letra eta 1996ko Salam, Agur diskoko irudia.

²³⁶ Fermin Muguruzari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/09/07 (pasarte bat).

²³⁷ Javier Vergara 1994tik 1997ra izan zen Irungo Alardeko jeneral.

²³⁸ Jone Larrañaga eta Jakes Goikoetxea, “Sinesgaitza Irundik kanpora ere”, *Egunkaria*, 1996/07/02, 12.

gizonak soilik ateratzea naturala zela eta horren kontra, alegia, naturaren kontra ezin zela ezer egin suposatzen zuen: zaldi lasterketa batean motor bat sartzearekin konparatuz eztabaida mozten zuen errotik, ez baitzegoen lekurik beste argudioetarako. Arrotza hitza erabiltzean, gainera, soldaduz desfilatu nahi zuten emakumeak lekuz kanpo zeudela esan nahi zuen, Alardetik kanpo utziz zuzenean. Eta Alardean soldaduz sartu ziren emakumeak arrotzak baziren Alardean, zentzu batean baita herrian ere, Alardea baitzen herri identitatearen eta eraikuntzaren pilare nagusienetariko bat. Horrela, emakume horiek Alardetik eta herritik kanporatzeko prozesua hasi zen, 1996ko Irungo Alardetik bota ostean. Herriaren eta *bestearen* mugak lekuz aldatzen joan ziren, eta ikusiko dugun bezala, baita limite horiek zurruntzen ere, mekanismo eta prozesu ezberdinen bitartez.

Alkateak, berriz, erreferendum bat egitea proposatu zuen, baina BAEk eskubideak bozkatzeko ez zirela esan eta emaitza ez zutela ontzat hartuko aldarrikatu zuen. Irungo tolerantziaren zinegotziak, gainera, festa nagusitu zela deklaratu zuen. Hori omen zen irundarrek nahi zutena, eta irundarren inguruan zabaldu zen intolerantzia irudia benetakoa ez zela esan zuen. Hemen ezinbestekoa zaigu galdetzea, zeintzuk dira zinegotzi horrek aipatzen dituen irundarrak? Irundarrek nahi zutena nagusitu zela esateak irundartasunetik kanpo utzi zituen iritzi horrekin bat egiten ez zutenak. Iritzi edo deklarazio horiek, bakarrak izan balira, ez lukete eragin handirik izango, baina behin eta berriz errepikatuz eta ondoren ikusiko ditugun beste modu batzuen bitartez, Alardean emakumeak ateratzearen aldekoak herritik kanpo geratu ziren, hori forma ezberdinetan materializatzen joan zelarik.²³⁹

Horren aurrean, Irungo Alarde eguneko erreakzioen eta ondorengo deklarazio batzuen aurrean, askok lotsa sentitu zuten. Emozio horren adibide dira *Egin* egunkarian uztailaren 5ean publikatutako zuzendariarentzako gutunetako bi. Honela diote: “Por primera vez en mi vida, y peino canas, he sentido vergüenza de ser irundarra y tener por conciudadanos a unos energúmenos (...)”²⁴⁰; “Soy una irundarra más de las que ayer sintió vergüenza por serlo.”²⁴¹ Esaldi horiek adierazten digute nola pertsona batzuek beste batzuen ekintzengatik lotsa sentitu zuten, eta hori posible zen haien herrikideak edo komunitateko kideak zirelako. Izan ere, esaten duten bezala, irundar izateagatik eta

²³⁹ Erredakzioa, “Alardean Udalak izandako jarrera salatu dute Bidasoaldeko Emakumeek, *Egunkaria*, 1996/07/07, 8; “La fiesta triunfó, que es lo que los iruneses querían”, *Egin*, 1996/07/03.

²⁴⁰ Amalia Ramirez Ugartemendia, “Por primera vez”, *Egin*, 1996/07/05, 6.

²⁴¹ Amets Ruiz de Arbulo, “Soy una irundarra más”, *Egin*, 1996/07/05, 6.

pertsona horiekin herri-komunitatea konpartitzeagatik sentitu zuten lotsa. Sara Ahmedek ongi azaltzen duen bezala, ideal baten lorpenaren edo gerturapenaren porrotak eragin dezake lotsa, kasu horretan Irun hiri ireki, tolerante eta baita feminista izan zitekeenaren ezinezkotasunak eraginda. Batzuek lotsa sentitu zuten haien herrikideek Alardean sartu zirenen kontra izandako erreakzioagatik. Lotsa sentitze hori orokorra, agintariak babestutakoa edo hegemonikoa izango balitz, lotsa sentitutakoek herri-komunitatearen parte izaten jarraituko lukete, horrek ideal kolektibo bat konpartitzea suposatuko lukeelako. Gure kasuan, ordea, emozio hori sentitzeak herri-komunitatetik aldendu zituen. Izan ere, ez zen orokortua izan, are gehiago, erreakzio horren aurrean harro sentitu ziren asko, Alardea salbatu izanagatik. Eta horrek elkarrengandik urrundu zituen, emozio desberdin horiek sentitzeak, lotsa eta harrotasuna gertaera berberarekiko, ideal desberdin eta kontrajarriak izatea suposatzen baitzuen, irundar izatearen ideal desberdinak, hain zuzen. Erreakzioarekiko harrotasuna sentitu zutenen artean elkar hurbilduz joan ziren eta lotsa sentitu zutenekiko urrunduz. Baina horren aurrean, lotsa sentitu zutenen artean gerturatu egin ziren, Alardean sartu ziren emakumeekiko harro sentituz.²⁴²

Irungo Alardeko eguneko ondorengo egunetan ere Teresa del Valle antropologoak jada bere hipotesia planteatu zuen, egun ere, azaldu dudak bezala, erabilgarri zaiguna. Honela zioen uztailaren 10ean, hau da, eztrandatik hamar egunera publikatu zuen iritzi artikulua:

“Por eso planteo que la adhesión estática al Alarde como ritualización del orden, la concordia o el poder sea para la población de Irun una referencia tan fuerte, tan sólida que canalice de forma simbólica la resistencia a otros cambios que han ocurrido de manera más o menos silenciosa. Y al mismo tiempo, que exprese la necesidad de controlar la identidad colectiva frente a la reestructuración que están viviendo y a la inestabilidad aguda que la desaparición de la frontera haya podido suponer en su medio.”²⁴³

²⁴² Sara Ahmed, *La política cultural...*, 161-190.

²⁴³ Teresa del Valle, “Otra interpretación del Alarde”, *Egin*, 1996/07/10, 7.

Batzuek, beraz, Alardeari eutsi zioten, aldaketen aurrean segurtasuna emateko. Beste batzuek, ordea, aldaketa behar zuten herritar sentitzeko eta haien eskubideak bermatzen zirela sentitzeko.²⁴⁴

Maria, urte hartara arte, bere bizitzan behin bakarrik atera ahal izan zen Alardean, kantinera gisa. 1996ko ekainaren 30ean Irungo Alardea ikustera joan zen, eta bertan ikusi eta sentitu zuen eraman zuen Hondarribiko Alardean parte hartzen saiatzera:

“Yo llegué a Irún y salía Ixabel y vamos a animar. No tenía ninguna intención de salir. Entonces llego a Irún, llegamos a Irún y yo cuando vi, cuando presencié aquellas mujeres subiendo la cuesta San Marcial. Todos los balcones, ventanas, toda la calle, insultando, echando de todo, pidiendo que se las violaran, que se las matara, que las iban a violar. Mi reacción fue tal indignación. Me indigné tanto, tanto, que las mujeres de Hondarribi, todas cada uno por su cuenta nos juntamos y decidimos que no se nos podía tratar así por el simple hecho de querer participar en las fiestas del pueblo. A mí, lo que me movió fue la indignación, y llegué a Hondarribi, llegamos y nos juntamos diez y dijimos: tenemos que salir porque no se puede permitir que se nos trate así. Esa fue mi decisión.”²⁴⁵

Mariak ez zuen desfilatzeko intentziorik, nahiz eta ados egon emakumeak Alardean soldaduz ateratzearekin. Egun hartan ikusitako erreakzioa injustizia eta onartu ezin zen egoera gisa hartu zuen, eta horren aurrean borrokatzeko beharra sentitu zuen. Bizi izan zuenak, emakume batzuen desfilatzeko nahiaren ukapenak, eraman zituen asko emakume guztien eskubide gisa planteatzera auzia eta horren alde kolektiboki egitera. 1996ko Irungo Alarde eguneko gertakariak eragin handia izan zuten, nahiz eta eztabaida eta gatazka lehenagotik egon. Izan ere, egun hori tentsio handikoa izan zen, emozioen, iritzien eta gorputzen lurrikara suposatu zuen, eta horrek posizioak eta konbentzimenduak sendotu zituen, baina baita aldatu ere. Gertatu zenaren aurrean ezinezkoa izan zen indiferente geratzea, eta ondorioz, gatazkek dimentsio oso handiak hartu zituen.

1996ko ekainaren 30eko Irungo Alarde eguna *gertakari* –acontecimiento– gisa analizatzea baliagarri zaigu. Ramon Grosfoguel-ek Alan Badiou jarraituz ongi azaltzen duen bezala, *gertakari* bat dominazio eta esplotazio logikak eteten dituen ezusteko

²⁴⁴ Erich Fromm, *El miedo...*, 17.

²⁴⁵ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

zerbait da, inork aurreikusten ez duena, baina dominazioan oinarritzen den orden sozial eta politikoa zalantzan jartzen duena. Iragakorra da, baina *gertakariak* jendearen subjektibitatea erradikalki aldatzen du, eta bizitako esperientziak jendea *gertakariaren* aurreko eguneko tokitik edota pentsamendutik mugitzen du. *Gertakariaren* ostean bidegurutze bat sortzen da; batetik, *gertakariari* heltzen diotenek jarraitzen duten bidea sortuz, eta bestetik, *gertakariaren* aurreko egunera itzuli nahi dutenek egindakoa, hau da, hautsitako ordena berrezartzera bideratutakoa. Gure gaiari dagokionez, Irungo 1996ko Alarde egunean inork espero ez zuen gertaera bat pasa zen, ordena zalantzan jarri zuena eta bizitako esperientziak, jai eguna eta errito masiboa izanik, subjektibitateak guztiz astindu zituen, testigantzek erakutsi diguten bezala. *Gertakaritik* aurrera batzuek aurreko egunera itzuli nahi izan zuten eta erreakzio antolatu bat sortu *gertakaria* lurperatu nahian, ordena berrezartzeko helburuarekin. Beste batzuek, ordea, *gertakariari* fidel mantendu eta urte luzeetako borroka aurrera eramane zuten.²⁴⁶

1.5. Hondarribiko 1996ko Alardeko eromena

Mariak azaldu bezala, Irungo Alardeko *gertakariaren* ondoren eta lehenagotik antolatzen ari ziren emakumeekin Hondarribian biltzen jarraitu zuten. Lehenik eta behin, uztailaren 2an, Irungo Alardea pasa eta bi egunetara, Emekik udaletxearekin eta Alardeko Juntarekin bilera urgente bat egiteko eskaera egin zuen, Irungoa errepikatu ez zedin. Horretarako, bi hilabete inguru zituzten Hondarribiko Alardearen egunera arte. Uztailaren 11n biltzeko proposamena egin zien Alardeko burgomaisuak, Beñardo Lazkanotegik. Bertan, Emekik komunikatu zuen momentu hartatik aurrera BAE izango zela gai hori landu eta aldarria aurrera eramango zuena, Emeki bigarren plano batean geratuz, bere kontrako errepresaliengatik. Hala ere, uztailaren 21ean Emekiren lokalari harriak botaz eta zakar poltsez eraso egin zioten, eta aurrerantzean horrelako gehiago jasoko zituzten; hori ez zen azkena izango.²⁴⁷ Uda hartan Hondarribian tentsioaren igoera ere nabaria zen, eta ondoren sortuko zen erreakzioak hartuko zuen diskurtsoa eta forma antzematen hasi zen, aipatutako Emekiren kontrako erasoekin edota hurrengo testigantzak kontatzen digunarekin:

²⁴⁶ Youtube: 14 agost/ Entrevista a Grosfoguel. Impossible triar només un titular [2021/10/13an begiratua]; Alan Badiou, *El ser y el acontecimiento*, Manantial, Buenos Aires, 1999; Mercedes Arbaiza, “Dones en Transició...”

²⁴⁷ Emeki Elkarte, “Eskabidea”, 1996/07/04; Beñardo Lazkanotegi, 1996/07/10; “Los corporativos condenan el ataque al local de Emeki”, *El Diario Vasco*, 07/08/1996.

“Zeren Irungoa gertatu zenean, ETBkoek galdetu zidaten zer edo zer eta nik esan nuen, memoriak hori esaten dit behintzat, «nik eskertzen niela ahalegina emakume horiei, zeren emakume horiek zabalduko zigutela bidea atzetik gentozenei». Eta arratsalde horretan bertan, ETBk eman zuen eta arratsaldean parkera nindoala haurrarekin, egin nuen topo ni baina zaharragoa zen emakume batekin eta bota zidana, ume txikiya, lau urtekoa, bost urtekoa, izugarriya. (...) Bai, zergatik emakume harrek, umeak ez zituen sei urte eta esplikatu behar izan nion zergatik esaten zidan «zuk, min handia egin diozu herri honi» eta gero bagindoazenean, «ama, zeini egin diozu mina?»²⁴⁸

Kaletik topatu zuen emakumeak herriari min egitea leporatu zion, bere iritzia telebistan emateagatik, emakumeak Alardean ateratzearen aldekoa. Herriari min egitearen kontzepzioan interesgarria da herria terminoari esaldi horren bidez zein esanahi eman eta nola eraikitzen joan zen, batez ere, esaldi horren errepikapenaren bitartez. Pertsona batek min ematea, pertsona hori mingarria edo gaiztoa zela esan nahi zuen. Minak gorputzean (indibidual edo kolektiboan), kasu honetan herrian, arrotza zena sartzearen pertzepzioa zekarren eta horren aurrean muga berrezartzearen desira, kanporantz bultzatuz mina edota mina eragiten zuen objektua (imajinatua edota materiala). Horren bitartez *gu* eta *bestearen* arteko muga sortzen joan zen, *gu* hori emakume horrek oso argi esan bezala, herriaren sinonimo bihurtuz, behin eta berriz errepikatuz eta hurrengo logika jarraituz: herriari min eman bazion, eta gainera, min ematen jarraitzen bazuen, bere iritzia aldatzen ez zuelako, herria maite ez zuela esan nahi zuen, eta, beraz, herriaren parte ez zela. Emakumeak Alardean parte hartzearen aldeko ekintza edo iritzien aurrean, mina sentitzen zutenak, emozio hori konpartitzen zutenak, herria bihurtzen joan ziren. Min hori, noski, ez zen neutroa edota bakoitzaren barnetik kanpora ateratakoa, baizik eta ideia batzuen eta emozioen politika kulturalaren gainean eraiki, transmititu eta zirkulatutakoa.²⁴⁹

BAEk uztailaren 11n Alardeko Juntari bidalitako idatzian urte horretako Hondarribiko Alardean parte hartzeko asmoa transmititu zion, eta Irungoan gertatu zena ikusirik guztien artean akordio batera iristeko nahia. BAEk uda hartan ostegunero egin zituen bilerak, Zuloaga etxean. 1996ko uztailaren 29an gutun baten bitartez Alardeko

²⁴⁸ Maiteri (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/03 (pasarte bat).

²⁴⁹ Sara Ahmed, *La política cultural...*, 47-76.

agintariek BAEren eskaerari ezezkoa eman zioten, eta urte hartako Alardea bakean eta harmonian ospatzeko ahalegina egingo zutela esan zuten, hondarribiarren gehiengoak nahi zuen moduan, hau da, gizon soldaduez osaturik soilik. Horren aurrean, BAE udalean ordezkariak zuten alderdi politikoekin biltzen saiatu zen, eta bertan, uztailearen 31n eginiko prentsaurrekoaren dokumentua erakutsi eta galdera batzuk planteatu zizkieten. PPK ez zuen lehen kontaktua ere onartu, beraz, ezin izan ziren bildu. EAJ eta PSE-EE Alardeko agintarien erabakiaren alde lerrotu ziren, HBk babes adierazi zuen BAEren alde eta EAK ez zuen erantzunik eman. Abuztuaren 14an Hondarribiko Alardean parte hartu nahi zuten emakumeek eskaera indibidualak egin zizkioten udalari, Alardeko Juntari eta agintariei.²⁵⁰ Honela zioen:

“(…) herrian emakumeak Alardean soldadu gisa parte hartzeak sorrarazi duen tentsio-egoera dela eta, nik aurten irailaren 8an neure auzoko Infanteria konpainian desfilatzeko asmoak neure duintasun eta osotasun fisikoari eraso egingo diola aurreikusirik, ESKATZEN DUT: Ama Guadalupekoaren Jaiaren hasiera ofiziala baino lehen, nik aurten irailaren 8an neure auzoko Infanteria konpainian desfilatzeko dudaren eskubidea idatziz aitortu diezadan, eta era berean desfilean neure duintasuna eta osotasun fisikoa kaltetuak izan ez daitezten, herriko Alkate Jaunarengandik, Burgomaestreatarengandik eta Alardeko gainontzeko agintariengandik beharrezkoa dudaren babes guztia izan dezadan eskatzen dut.”²⁵¹

BAEko emakume batzuek erabakia zuten urte hartan Hondarribiko Alardean parte hartuko zutela, eta bakoitzak bere auzoko konpainian egin nahi zuen, gizonen pare. Irungo saiakera ikusita, bazekiten oztopoak eta zailtasunak izango zituztela, eta eskubidea zutela aldarrikatuz euren duintasuna eta osotasun fisikoa babesteko exijitzen zieten udalari, Alardeko Juntari eta agintariei. Eskaera horiek ez zituzten erantzun, eta alkatearekin biltzen saiatu zirenean irailaren 24rako eman zuten hitzordua. Ezin izan zuten parte hartzea adostu eta erabakia zuten urte horretan desfilatuko zutela, abuztuaren 28an prentsaurreko bat egin zuten haien egoera komunikatzeko. Irungo gertakariak positiboki baloratu zituzten, gaiaren inguruan herrian gehiago hitz egiten hasi zelako, eta nahiz eta bertan gertatutakoa ez zuten errepikatzerik nahi, haien herriko

²⁵⁰ Bidasoaldeko Emakumeak, “Hondarribiko Alardeko Juntari”, 1996/07/11; BAE, “Eskabidea”, 1996/07/10; Conchita Portu, secretaria de los mandos del Alarde, “Bidasoaldeko Emakumeak Hondarribia”, 1996/07/29.

²⁵¹ Maria Carmen de Tomas Esteberena, “Hondarribiko Udal txit gorenari/ Alardeko Batzordeari/ Agintarien Batzordeari”, 1996/08/14.

festetan parte hartu nahi zuten. Mehatxuak jaso zituztela esan zuten, eta horregatik, ez zutela haien aurpegiak grabatu edo argazkirik ateratzerik nahi gehiago errekonozituak ez izateko, nahiz eta askok jakin zeintzuk ziren. Beldurra zutela salatu zuten, baina aurrera egingo zutela. Horren aurrean, ordea, Alardeko Junta eta agintariak irmo mantendu ziren, inola ere ez zuten emakumeak Alardean ateratzen utziko. Bi postura kontrajarri eta zurrunean iritsi ziren Hondarribiko jaietara. Gema Sagarzazuk²⁵² honela oroitzen ditu Hondarribiko Alarde egun hartako aurreko egunak:

“Bilera batzuk egin genituen, hor Zuloaga etxean egiten genituen, orduan eta azkeneko momentuan pues hori, komentatu genuen ea zein apuntatuko den irailak 8rako con mucho sigilo, ezkutuan hori bai eta bueno apuntatu nintzen eta pues hor, eske ez nuen nire burua ikusten beste toki batean. Nik oso garbi neukan aterako ginela, ez dakit nola, baina aterako gara eta hor egon behar nintzela eta bai. Eta horrela izan zen, horrela iritsi ginen irailaren 8ra, gainera bezperan, bueno hori kontatuko zizuten baita ere, nola sartu genituen eskopetak eta portalean eta guzti hori (...) gogoratzen naiz beldur pixka bat bagenuela, pentsatuz zen gero batzuetan hitz egin dugu horri buruz, el espíritu de las Juanas. Pentsatzen genuen aterako ginela, joango ginela ez dakit zer, portaletik atera eta udaletxera iristen ginela fijo seguro. Baina bueno oso gaizki bazihoan, udaletxetik ere badago, bueno, lehen bazen ate bat eta ateratzen dela Panpinot kalera. Bueno ba hortik atera behar ginen. Baina bueno pentsatzen genuen Gernikako Arbolara iristera pero vamos fijo seguro eta joe, ba hori orduan beldur pixka bat aurretik ere, ez dakit, horrelako aber ze gertatuko zen. Nik pentsatzen nuen nos va a caer un tiesto en la cabeza, vamos.”²⁵³

Momentu horretara iritsita, ez zuen bere burua beste inon ikusten, ez bazen Alardean sartzen saiatzen. Ezin zutela beste ezer egin dio, ezinbestean aurrera egin behar zutela eta aurrera egitea 1996ko Hondarribiko Alardean soldaduz jantzita desfilatzen saiatzea zela. Jadanik aipatu dudan bezala, egoera horren aurrean mugitzera eta erantzun bat ematera behartuta ikusi zituzten euren buruak; beste aukerarik ez zutela sentitu zuten. Nahiz eta beldurra izan, nahiz eta pentsatu gatazka egongo zela, inork ez zuen imajinatu

²⁵² Gema Sagarzazu 50eko hamarkadan Hondarribian jaio zen eta bertan bizi da. Ofizios irakaslea. 1996an Hondarribiko Alardean soldaduz jantzita sartu zen, eta geroztik Juana Mugarrietako taldean eta Jaizkibel konpainian desfilatzen du.

²⁵³ Gema Sagarzazuri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna 2020/08/13 (pasarte bat).

gero etorriko zena. Irailaren 7ko gauean ezkutuan hogeita sei emakume Kale Nagusiko 4. portaleko etxebizitza batera joan ziren, eliza parean zegoena, arropa eskutan eta ordu ezberdinetan, nondik atera behar ziren inork ez susmatzeko. Hurrengo egunean, Alardea Kale Nagusitik jaisten ari zela, Kosta konpainia 4. atari aurretik pasatzean emakumeak atera eta desfilatzen saiatu ziren. Kosta konpainian sartzen saiatzea ez zen kasualitatea izan, pentsatua zuten, bertan jakinaren gainean eta laguntzeko prest zeuden gizon batzuk desfilatzen zeudelako. Ataritik irten eta Alardean sartu ziren momentuan bertan, irain, kolpe eta bultzaden bitartez emakumeak atari barnera itzularazi zituzten. Rosak²⁵⁴ honela oroitzen du momentu hori:

“Momentu hori, eromen bat, eromen bat, bai. Nik kolpeak eta hori nire aurrean gertatu ziren baino batez ere, oroitzen naiz, mutil gazte bat, elizaren parean zegoena, ikusle gisa, alkandora txuri batekin, jo zioten, eske nik ez dakit zein zen eta zergatik. Osea, bera, pues hurbildu zen zerbait esatera nesken alde eta urratu zioten alkandora eta eman zioten una somanta de palos, pasa denetik ihes egin arte izugarria. (...) Pues eromen bat, ez dakit nola... eromen bat, ez dakit nola esplikatu gehiago... nik momentu horretan bueno, fisikoki bai, hango batek eskopeta jarri zuen nire aurrean, jakinda ni zein nengoen, badakit. Eta orduan etorri zen Josuren lehengusu bat, Juanito, orain jada hil dena eta beti izan da betiko hutsa baina esan zion: «¡animal! Tú, ¡quita esto de aqui!», edo «¡qué haces!, ¡esa es mi prima!» Etorri zen bai. Eromen bat, eromen bat, ezin dut deskribatu detaileekin, pues, espero ez genuena eta bueno pues, nik esaten nionean agian zerbait gertatzen da, pues izango ziren oihuak eta agian bultzakada batzuk baina bueno, alde hemendik, nahi eta ez dut nahi, eta alde hemendik eta ez dut nahi eta... desde luego, ez gertatu zena, inolaz ere. Hori inork ez zuen espero.»²⁵⁵

Indarkeria fisikoa nabaria izan zen emakumeen eta haien aldekoen kontra, ezin baitzuten onartu Alardean emakumeak baimenik gabe sartzea eta horretarako behar zuten guztia egin zuten. Rosa gizon batek eskopetarekin apuntatu zuen, tiro egiteko mehatxua eginez. Sagarzazuk aurreikusten zuen mazetarik ez zitzaion inori erori buru

²⁵⁴ Rosa (pseudonimo) 50eko hamarkadan jaio zen Donostian, baina Hondarribian bizi da 80ko hamarkadatik. Emakumeak Alardean ateratzearen alde posizio hartu zuen gaia planteatu zenean, eta nahiz eta inoiz ez desfilatu, horren aldeko antolakuntzan ibili da Juana Mugarrietakoa eta Jaizkibel konpainian.

²⁵⁵ Rosari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/22 (pasarte bat).

ganean, baina eskopetak erabili zituzten kolpeak emateko. Argazkilariei kamerak kendu eta bultzaka lortu zuten emakumeak Alardetik atera eta portalera bueltatzea. Udaltzainak saiatu ziren tartean sartzen eta emakumeak atari barruan babesten, soldaduz jantzitako emakumeak lintxamendu kolektibo bat jasotzearen beldurrez zeuden bitartean. Alkatea eta korporazio munizipala ere bertan zeuden, elizan egiten baitzioten harrera Alardeari. Diotenez, eromen horren testigu izanda ere, alkatea ez zen bere tokitik mugitu.

2. Kapituluua. Dena izan zen posible, baina gorputz *abjektua* eraiki zuten (1996-1997)

2.1. Sarrera: mundu baten amaiera

Testigantzetatik jasotako 1996ko Hondarribiko Alarde eguneko eromena, kaosaren gailentzea, urte askotan zehar mantenduko zen gatazkaren leherketak sortutako lehen sentazioa izan zen. Guztia hankaz gora jarri izana esan nahi zuen, espero ez zena gertatu baitzen eta ziurgabetasun handia baitzegoen etorriko zenaren inguruan. Hain zuzen ere, emakumeak soldaduz Alardeetan sartzeak genero ordena zalantzan jarri zuen, eta ondorioz, desordena politiko eta soziala nagusitu zen. Ordena sozial eta politikoaren oinarrietariko bat sexu-genero sistema izanik, guztia mugitu zuen gertaera horrek. Mariak, zentzu horretan, erakusten digu egun hartan egindakoak zer suposatu zuten:

“La gente se calentó. Bueno aparte que se calentó lo que hicimos es transgredir lo más transgresor que para el hombre y la mujer de Hondarribi podía... no sé cómo explicarlo. (...) Nosotras, ¡fíjate qué poder tenemos! que con un simple txilibito se asusta todo un pueblo. No somos nada más que el txilibito, el tambor, el redoble, ponernos la txapela pero, queríamos ocupar lo que durante todos estos siglos ha ocupado el hombre: la calle pública.

Ellos hacen la fiesta durante toda la semana. Las mujeres durante toda la semana van con los críos de correcales, como dice mi hermana. Luego cansadas, a casa: los críos a bañarse. Ellos siguen, toda la semana: Llega el día 8, tienes que planchar toda la ropa, preparar la comida, limpiar la casa... Ellos salen a las 6 de la mañana ya con el puro en la boca. Nosotras corriendo a la acera, corriendo a casa. Ellos, es la fiesta de ellos, y que nosotras, que queramos, estemos reivindicando esa igualdad de querer participar ha sido demasiada transgresión y por eso se violentaron tanto con nosotras.”²⁵⁶

Hasiera batean zer edo zer hutsala izan zitekeena, garrantzi handirik gabeko aldaketa izango zela pentsatetik, jaso zutena ikusteak lurreratu egin zituen eta konturarazi Hondarribiko emakume eta gizon askorentzat egin ahal zuten arau urraketa handiena zela. Agerian, txilibitu eta danborra jo besterik ez zen ekintza maleziagabe batek fondoan zer botere eta zer eragin izan zezakeen oso garbi geratu zen, herri oso bat

²⁵⁶ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

izutzeraino. Izan ere, ekintza hori nork egiten zuen eta nola esanguratsua zen, genero norma mantentzea edo bertatik irtetea izan zitekeenez gero. Mariak azaltzen duen bezala, gizonen lekua hartu eta gizonen jaian sartzea esan nahi zuen, emakumeek beste leku eta egiteko batzuk zituztenean. Emakume horiek soldaduz jantzita baimenik gabe Alardeetan ateratzeak zalantzan jarri zuen guztia, ordena apurtu baitzuten. Mariak aipatzen du ordena hauste horrek haien kontrako indarkeria suposatu zuela. Izan ere, desordena nagusitu zen, egoera berri bat sortuz, eta aurreko ordena berrezartzen saiatzeko, indarkeria erabili zuten, erreakzioa antolatu, desordena sortu zutenak herri-komunitatetik kanporatu eta *bestea* eraiki zuten. Guzti hori emozioen zirkulazioarekin lotuta aztertuko dugu, beldurrak jokatu zuen papera batez ere garrantzitsua izanik. Horrek, ordea, ez zituen Alardeetan atera nahi zuten emakumeak geldiarazi, baizik eta injustizia baten aurrean zeudenaren konbentzimendua handitu zen, eta haserre eta amorrutik beteta antolatzen jarraitu zuten. Guzti horretan, emakumeek txilibitua edota danborra jotzen Alardeetan atera nahi izateak izan zuen eragina azaltzeko, Judith Butlerren lana baliagarri zaigu:

“El «sexo» siempre se produce como una reiteración de normas hegemónicas. Esta reiteración productiva puede interpretarse como una especie de performatividad. La performatividad discursiva parece producir lo que nombra, hacer realidad su propio referente, nombrar y hacer, nombrar y producir. (...) Consiste en una serie de demandas, tabúes, sanciones, mandatos, prohibiciones, idealizaciones imposibles y amenazas: actos performativos del habla, por así decirlo, que ejercen el poder de producir el campo de los sujetos sexuales culturalmente viables.”²⁵⁷

Alardean emakumeak soldaduz janzteak eta eskopeta hartzeak sexu-arau horiek hautsi zituen, emakumeen tokia eta papera beste bat zelako. Indarrean zegoen sexu-genero sisteman lan erreproduktiboak eta zaintza lanak egitea zegozkien, espazio pribatuan eta margenetan, hau da, etxeetan eta espaloietan egonez. Alardeak genero ordena hori erreproduzitzeaz gain, eraiki egiten zuen, sexu-genero eraikuntzaren teknologiaren espazio garrantzitsua izanik. Izan ere, Alardeak gorputzak bitan banatu eta sailkatzen zituen: Hondarribian, mutil izendatuek bost urte zituztenetik parte hartzen baitzuten Alardean, eta neska izendatuak, berriz, Alardea espaloitik ikustera mugatzen ziren. Gogoratu beharra dago Alardean herriaren zati handi batek parte hartzen zuela, eta

²⁵⁷ Judith Butler, *Cuerpos que importan...*, 162-163.

horrek zentraltasun eta oinarri bat ematen ziola sexu-genero arau horiei. Arau horiek genero ordena mantentzen zuten eta orden soziala guztiz zeharkatu, gainera. Produkzio-modu kapitalistak sortzen eta behar zuen orden soziala emakume eta gizon kategorien gainean eraikitzen zen. Emakume eta gizonen lan, espazio, gorputz eta beste hainbat gauza arautzeaz gain, horien arteko harremana erregimen heterosexualak sortzen zuen:

“La heterosexualización del deseo exige e instaura la producción de oposiciones discretas y asimétricas entre «femenino» y «masculino», entendidos estos conceptos como atributos que designan «hombre» y «mujer». La matriz cultural - mediante la cual se ha hecho inteligible la identidad de género- exige que algunos tipos de «identidades» no puedan «existir».”²⁵⁸

Azken esaldia klabea izango da etorriko zena ulertzeko. Butlerrek azaltzen digu arau hegemonikoetatik kanpo ezin zela existitu, edo hobeto esanda, arau multzo horrek egiten zituela gorputzak ulergarri. Hau da, gizaki kategoria esleitu eta sozialki garrantzitsuak egiten zituen. Kontrara, ordea, arauak hautsi zituztenak, soldaduz Alardean sarturik, *abjektuaren* esparrura kanporatu zituzten.²⁵⁹

Horrez gain, emakume horiek Alardeko agintarien baimenik gabe soldaduz jantzi eta espazio hori hartzeak zalantzan jarri zuen haien boterea, genero perspektibatik eta hierarkia eta prestigio parametroetatik. Izan ere, Alardeetan erabakiak hartzen zituztenak gizonak ziren, eta beraiek erabaki zuten Alardeetan emakumeek ez parte hartzea. Emakumeek, beraz, ez zuten haien herriko jaietako ekitaldi nagusiaren inguruan erabakiak hartzeko inongo aukerarik. Behin eta berriz errepikatzen zen Alardearen izaera ez politikoa eta ezberdintasun ideologiko eta sozialen gaineko batasuna, ordea, bazterketa baten gainean eraikia zegoen. Bestetik, Alardean gizon guztiek ez zuten botere, prestigio eta erabakimen berbera. Alardean zegoen hierarkia militarra ez zen antzerki hutsa. Hierarkia horretan gorago edo beherago egoteak botere eta prestigio maila ezberdinak suposatzen zituen. Eta horiek ez ziren Alardera mugatzen, herriko bizitza eta dinamiketan barneratutakoak ziren, klase eta ideologiarekin zerikusi handia zutenak.

Zentzu horretan, Alardeak nolabait guztia mugimenduan jartzen zuen. Izan ere, boterea eta prestigioa ez dira norbaitek edo zerbaitek edukitzen edo lortzen dituen jabetza edo

²⁵⁸ Judith Butler, *El género en disputa...*, 72.

²⁵⁹ Alaitz Aizpuru Joaristi eta Bakarne Altonaga Begoña (koord.), *Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak...*, 62; Mercedes Arbaiza, “Cuerpo, emoción y política...”, 45-70; Mercedes Arbaiza, “«Sentir el cuerpo...»; Michel Foucault, *Historia de la sexualidad I...*; Michel Foucault, *Historia de la sexualidad II...*

posizioak, baizik eta harremanen bitartez etengabeko mugimenduan dauden estrategiak. Michel Foucaulten arabera, beraz, boterea erabili egiten den ekintza bat da, ez jabetzan hartzen den ondasun bat. Alardeak, harremanen bitartez boterea mugimenduan jartzean botere-harremanak eta prestigio mailak sortu eta erreproduzitzen zituen, norabide ezberdinetan. Izan ere, gizartean zeuden harremanak –sozialak, pertsonalak eta politikoak– eta horien bitartez gauzatzen zen boterea Alardera luzatzen ziren, eta bertan ere harreman horien bitartez gizarteko botereak indartu eta gizartera bueltatzen ziren. Boterea horrela analizatuz gero, aldakorra eta historikoa dela ohartzen gara, eta prozesu ezberdinak ulertzeko balio digu.²⁶⁰

Alardeko harremanen bitartez, Alardean antzeztu edo gorpuzten ziren hierarkia sinbolikoak errealak bilakatzen ziren. Izan ere, oinarrian sinbolikoak baziren ere, horren urteroko egikaritzeak eta Alardeak herri identitate eta kohesio sozialean zuen garrantzia ikusita, hierarkia horiek errealitatean materializatu egiten ziren. Ez ziren soilik Alardera eta egun batera mugatzen. Ikuspegi sinplistegietatik ihes egin eta hierarkia eta boterearen konplexutasuna azaltzen saiatuko naiz. Herrian eta Alardetik kanpo prestigioa eta boterea gauzatzeko gaitasuna zutenek, klasearekin eta ideologiarekin lotuta batez ere, Alardean bertan izateko aukera handiak zituzten, nahiz eta harreman edo lotura guztiz zuzenik ez izan. Beste ardatz batzuek gurutzatzen baitzuten lotura hori, esaterako, jatorriak²⁶¹ edota Alarde barneko etengabeko dialektikan hegemonia lortzen zuen alderdi edo ideologia politiko eta nazionalak. Alarde barnean hierarkia eta postu bat lortzeak bizitza sozialean pribilegio edo erraztasun batzuk ematen zituen, hala nola negozioak egiteko harremanak, udal eta politikoen edo herritarren aurrean izen bat, etab. Hori kontuan hartuta, elkar eragin horren bitartez espiral formako prozesu bat sortu zitekeen, maila sozial eta prestigioan gora egiteko edota mantentzeko mekanismoa bihurtuz. Oso agerikoa da, baina beharrezkoa da esatea emakumeak hortik kanpo geratzen zirela guztiz, eta finean, baita migranteak ere.

1996an emakumeak Alardeetan sartu zirenean, hori ere zalantzan jarri zuten eta boterea desafiatu; izan ere, Alardeko agintarien eta horiek babestu zituzten alkate eta udalen baimenik gabe sartu ziren. Egoerak eskuetatik ihes egin eta, momentu batean bazen ere, kontrola galdu zuten boterearen zirkulazioa kontrolatzen zuten horiek, zeren eta

²⁶⁰ Michel Foucault, *Vigilar ...*; Michel Foucault, *Microfísica ...*

²⁶¹ Alardean postu garrantzitsuak izateko, herrian bizitzen gutxienez urte kopuru bat eman behar zuten, Irunen, adibidez, jeneral izatera heltzeko hogeita bost urte.

botereak behar zuen mugimendu eta harreman normalizatu eta harmoniatsu horiek moztu baitzituzten ekintza horren bidez, desordena nagusituz.

Momentu hartan eta urte betean zehar dena izan zen posible. Izan ere, gatazka lehertu zen, guztia zalantzan jarri eta desordena nagusitu. Inork ez zekien zer gertatuko zen, zer posizio hartuko zuen jendeak, alderdiek, instituzioek eta justiziak. Dena airean zegoen eta konfliktoan sortuko zen indar korrelazioa oraindik guztiz ezarri gabe. Kapitulu honetako denbora tartean, 1996tik 1997rako urtean, aktore desberdinak piezak mugitzen hasi ziren eta oinarri bat jarri zuten; posizio bat hartu eta zentzu batean bertan gotortzen joan ziren. Bestetik, 1996ko Alarde egunetako gertakarien ondoren, jada ez zegoen atzera bueltarik, ezer ez zen berdina izango aurrerantzean.

Desordenaren aurrean erreakzionatu zuten eta ordena berrezartzen saiatu, soldaduz jantzitako emakumeak Alardeetatik kanporatzen. Hala ere, emakume horiek arrakala bat sortu zuten eta amorerik emango ez zutela adierazi, aldarri eta borrokarekin aurrera jarraituko zutela. Ordenaren berrezarkuntza, beraz, ez zen totala izan eta emakume horien borrokarako konbentzimenduak, eta hortaz, haien existentzia soilak, ordena zalantzan jartzen jarraitu zuen. Horren aurrean, 1996ko Alarde egunetatik aurrera erreakzioa antolatzen hasi ziren, hautsitako ordena berrezartzearen helburuarekin. Behin ordena apurtuta, hori berregituratzea ezinbestean biolentzia, obediencia eta beste hainbat mekanismoren bitartez egin behar izan zuten.

Kapitulu honetan azalduko ditudan elementu batzuen agerpena gatazkan zehar intentsitate edo maila ezberdinetan errepikatu ziren. Izan ere, 1996ko Alardeetan, gatazka lehertu osteko urtean, gauzak lurreratzen eta aurrekariak ezartzen hasi ziren, eta horiek luze joko zuten: Alardeetan sartu ziren emakumeen amorrua, beldurra eta borrokan jarraitzeko uste osoa; *beste objektuaren* eraikuntza gauzatu zuten diskurtso, praktikak eta indarkeriak; *beste* horien kontrako erreakzioa eta instituzio lokalen babes eza; emakumeak Alardeetan ateratzearen kontrako emakumeen antolakuntzak.

Urte hartan, Hondarribiko Alardetik soldaduz jantzitako emakumeak kanporatu zituzten, eta bertan bizi izan zutena azaltzea baliogarri zaigu momentu hartako tentsio eta indarkeriaz jabetzeko, eta ondoren etorriko zena aurreikusteko. Mariak hitz hauek erabiltzen ditu:

“Llorando acabamos todas, acojonadas. Pensábamos: ¡nos linchan aquí! ¡Igual es un poco exagerado, eh! Pero el momento, lo que sentimos en el momento: que se

movía la puerta de madera, los municipales sujetando, era que echaban abajo y nos iban a linchar ahí mismo.”²⁶²

Soldaduz jantzitako emakumeak Kale Nagusira portaletik irten eta berehala sartu ziren edo sarrarazi zituzten berriro. Mariak portalera bueltatu zireneko momentuak oroitzen ditu, beldur handikoak izan zirenak, beraien kontra azaldu zirenek atea bota eta lintxatzera sartuko zirela sentitzen baitzuten. Alardea bukatu arte itxaron zuten bertatik ateratzeko, eta ondoren, prentsaurreko bat egin zuten. Bertan, Hondarribiko alkate zen Borja Jauregi eta udalaren jarrera salatu zituzten, indarkeria horren aurrean ezer ez egin eta haien betebeharrei uko egin zietelako. Udalaren aurka salaketa judizial bat jartzea planteatuko zutela esan zuten, bai eta jo zituzten gizonen kontrako salaketa partikularrak ere. Alardeko agintariak gatazka baretzeko ahalegina egin beharrean, batzuek guztiz jarrera erasokorra izan zutela azaldu zuten.²⁶³ Ondoren, egun hartan bertan, Maria, urtero bezala, ahizparen etxera joan zen bazkaltzera:

“Me senté en la mesa, no abrí la boca. Tenía frío, además, tenía frío y viene gente de la compañía de él, todos de rojo, claro, todos mirándome. Nadie decía nada. Lo pasé tan mal que le dije a mi hermana: «no voy a venir más». No porque no quiera venir, pero es un momento que yo prefiero estar con mi gente, porque aquí me siento violentada. Esta gente, ellos de alguna manera participan también. Han sido violentos con nosotras, muy violentos y no puedo. Lo entendió. Yo prefiero estar con mi gente y sentirme arropada con mi gente, poder hablar, poder expresarme y no he vuelto a ir a comer a donde mi hermana.”²⁶⁴

Momentu gogorak bizi ostean, beldur eta indarkeria handikoak, askok nahiago izan zuten gertaera berbera bizi izan zutenekin egon, babestuta sentitzen baitziren elkarrekin. Aurretik askok elkar ezagutzen zuten, beste batzuek ez, baina handik aurrera, esperientzia, bizipen eta emozio konpartituak lehenagotik zeukaten pentsamendu edo nahi konpartituei gehitu zitzaizkien. Lehenagotik, emakume horiek batzen zituena Alardean atera nahi izatea eta hori lortzeko ahalegina egitea zen, baina egun hartatik aurrera, *gertakariak*, bertan bizitako egoera gordinak eta emozio konpartituek are gehiago elkar lotu zituzten.

²⁶² Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

²⁶³ Jakes Goikoetxea, “Irainak, muturrekoak eta eskopetakadak”, *Egunkaria*, 1996/09/10, 9.

²⁶⁴ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

Bestetik, jasotako erreakzio bortitzak amorrarazi zituen asko, emakumeak izateagatik Alardetik horrela kanporatzea bidegabea zenaren konbentzimendua eta horren aurrean antolatzeko eta saiateren jarraitzeko indarra ere eman zien. Horrez gain, BAEk irailaren 10ean Alardeko partaide baten kontrako salaketa jarriko zuela iragarri zuen, soldaduz irten zen emakumezko bat erasotzeagatik. Bi egun pasa ondoren, Emakundek BAEri babes juridikoa emango ziola adierazi zuen, gertakariak salatzeke salaketak jartzen hasi baitziren, eta prozesu judizialak epaiketa batean amaitzen bazuen, Emakunde soldaduz atera ziren emakumeen alde deklaratzera joango zela. Bertan egon ziren emakumeen testigantzek erakusten digute zalantzak izan zituztela salaketak jartzeko orduan; izan ere, haien herrikideak, bizilagunak edo ezagunak salatzea suposatzen zuen, eta horrek, ondorioak izan zitzakeen, gainera. Gema Sagarzazuk honela kontatzen du: “Gero pues hori, denuntziatu edo ez denuntziatu, orduan batzuek bai joan ziren, klaro, eske batzuek kulata-kolpeak jaso zituzten eta oso gogor eta, karo, joan ziren.”²⁶⁵ Beraz, egoeraren larritasunak bultzatu zituen batzuek salaketa jartzera.²⁶⁶

Hondarribiko Kale Nagusiko gertakarian entzun zirenak jaso zituzten hurrengo eguneko egunkariek. *Kanpotarrak*, *eskopeteras*, *putas* izan ziren gehien entzun ziren terminoak. Azkenekoa Irungo Alardeko gertakarietan ere entzun zen, eta jadanik azaldu dugu zer konnotazio eta esanahi hartzen zuen, baita nola itsasten zen praktika eta gorputz batzuetara. *Kanpotarrak* hitzaren erabilera 1996ko Hondarribiko Alarde egunean jasotzen da lehen aldiz testuinguru horretan, baina denbora luzean erabiliko zen hitza da, batez ere Hondarribian. Termino horrek kanpokoa zenari edota bertakoa edo herrikoa ez zenari egiten zion erreferentzia, baina konnotazio negatibo batzuekin. Izan ere, Hondarribiak XX. mendean zehar turismoa jaso zuen, batez ere Madrildik zetozen familia aberatsena, bertan bigarren etxeak zituztelako. Horiei, ez zieten *kanpotar* deitzen, *bañista* baizik, eta nahiz eta bertakoekin oso harreman gutxi izan, batez ere maila sozioekonomiko eta klase sozial desberdinetakoak baitziren, herrira dirua ekartzen zutenaren ustea zegoen. *Bañista* horiek Hondarribiko Alardean konpainia propioa zuten gainera, 40ko hamarkadatik, La Mixta izenekoa. *Kanpotar* hitza, beraz, ez zen herrikoak ez ziren guztiei erreferentzia egiteko erabiltzen; oster, zentzu negatiboan erabiltzeko arrazoiak zeudenean soilik jotzen zuten hitz horretara. Gainera,

²⁶⁵ Gema Sagarzazuri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/13 (pasarte bat).

²⁶⁶ Román Goena, “El burgomaestre teme que los incidentes del Alarde se reproduzcan el próximo año”, *El Diario Vasco*, 1996/09/10, 11; “El alcalde de Hondarribia pide respeto al acuerdo de que no desfilen mujeres”, *El Diario Vasco*, 1996/09/12, 11.

zer esan nahi zuen herrikoa ez izateak? Izan ere, Hondarribiko Alardera sartu ziren emakume horietako asko Hondarribian jaiotakoak ziren. Kale Nagusiko portaletik atera ziren hogeita sei emakumeetatik hamahiru Hondarribian jaiotakoak ziren, eta lau Irunen. Momentu hartan, ordea, hemeretzi Hondarribian bizi ziren, sei Irunen eta bat Oiartzunen.²⁶⁷

Beraz, *kanpotar* terminoak herrikoa ez zenari egiten zion erreferentzia, baina herria hitzak ez zuen leku fisiko bat adierazten, baizik eta eraikuntza politiko bat. *Kanpotar* hitza herriaren eraikuntza nazionalen tokirik ez zutenak edota bertatik kanporatzen zituztenak izendatzeko erabiltzen zen, eta beraz, emakume horiek herri-komunitate imajinariotik kanporatzeko ahalegin eta nahiarekin lotuta aztertu behar dugu hitz horren esanahia.²⁶⁸

Eskopeteras hitza erabiltzen hasi ziren emakumeak Alardera eskopetak sorbaldu zituztela sartu zirelako, baina egoera edo ekintza baten deskribapen soila izatetik urrun, mespretxuz erabili zen. Horren errepikapenaren bitartez, hitz horrek emakumeak Alardean soldaduz irtetearen alde zegoen edozeini erreferentzia egiten amaitu zuen. Azkenik, Irunen jaso zen esaldi batekin antz handia zuen bat esan zen Hondarribian. Honela zioen *El Diario Vasco*:

“Las personas de edad se mostraban más radicales en sus planteamientos. «Estas sólo quieren reventar la fiesta, ahora ya sabemos quiénes son, las de siempre», comentaba un indignado vecino.”²⁶⁹

Batetik, jaia suntsitzearen nahiarekin lotu zituzten emakume horiek, eta hori behin eta berriz errepikatzeak ondoren etorriko zen erreakzio bortitza sostengatu eta legitimatzeko ezinbesteko oinarri emozional eta ideologikoa jarri zuen. Batzuentzat, Alardean emakumeak soldadu gisa sartzea eta aldaketa hori aurrera eramatea Alardea suntsitzea zen, Alardea arau batzuk jarraituz egiten zen erritua baitzen eta arau garrantzitsuenetariko bat genero ordenan oinarrituta zegoen. Bestetik, berriro ere, “las de siempre” esaldia erabiltzeak behin eta berriro gatazkatsuak eta gogaikarriak zirela

²⁶⁷ Jakes Goikoetxea, “Irainak, muturrekoak eta eskopetakadak”, *Egunkaria*, 1996/09/10, 9; Kepa Petralanda, “El Alarde se volvió irracional”, *Egin*, 1996/09/09, 2; R.M., “División de opiniones entre los vecinos y silencio del alcalde”, *El Diario Vasco*, 1996/09/09, 12; Arantxa Urretabizkaia, *Bidean Ikasia*, Pamiela Etxea, Iruñea, 2016, 32.

²⁶⁸ Sebastian Balfour y Alejandro Quiroga, *España reinventada...*, 22-23; José Javier Díaz Freire, “El cuerpo de Aitor...”

²⁶⁹ R.M., “División de opiniones entre los vecinos y silencio del alcalde”, *El Diario Vasco*, 1996/09/09, 12.

esan nahi zuen eta ez zutela inongo barkamenik edo justifikaziorik. Hain zuzen, beti berdina egiten bazuten, jada ezin zieten bigarren aukerarik eman. Amaitzeko, “ahora ya sabemos quién son” adierazpena da aipatzekoa, agian oharkabea pasa ahal izan zena baina eragin handia izan zuena. Izan ere, 1996ko irailaren 8an hogeita sei emakume portaletik atera eta Alardean sartzen saiatu zirenetik, publiko bilakatu ziren, guztiak zekiten nortzuk ziren eta horrek ondorio handiak ekarri zituen.²⁷⁰

Adibide bat jartzeagatik, egun hartan bertan, emakume horietako batzuk kalera atera ziren herriko jaietako egun handia ospatzera. Pertsona batzuegandik jaso zutenaren bitartez, ohartarazten joan ziren goizean soldaduz Alardean sartzeak espero ez zuten eragina izango zuela euren bizitzetan. Gema Sagarzazuk honako hau kontatzen du:

“¡Joder! Pues porque tienes confianza en la gente, en la buena fe de la gente, zer pentsatu behar duzu ¿que van a venir todos a pegarte? ¿A darte culatazos? ¡Ni por un momento! Horrela da, orduan, hitz egiten genuen gure artean eta oroitzen naiz, urte horretan, lehenengo horretan, ni ez geroztik ez naiz sartu taberna horretan, zera Hermandadean. Hermandadean ginen, orduan hasi ziren nolabait, Hermandadean jendea ikusten genuen eta, karo, ezagunak ginen! (...) Orduan gero eta paretan kontra, gero eta gehiago paretan kontra! Eta hori, ba han. Hor badago goitik leiho bat, barrote batzuk daukana, eta orduan, hortik ura botatzen, ze ezagutzen genituen! Baina, begiratzen genuen eta ¡una cara de angelitos! Baina horiek ziren ura botatzen, eta hor ere Hermandadekoak ez zuen deus ere egin (...). Gainera errua botatzen: «¿qué hacen estas aquí?» Ez naiz sartu behin ere ez, eta ez dakit sartuko naizen, baina ez geroztik ez naiz sartu. Bai, eta orduan atera ginen (...).”²⁷¹

Lehenengo, behin eta berriz ikusi duguna azaltzen du, ez zutela horrelako erreakziorik espero haien herrikideengatik. Hau da, nola espero zezaketen haien bizilagunak, lagunak, familiakoak, ezagunak eta abar haiek jotzera joango zirenik? Ondoren kontatzen du lehen momentu hori igarota eta denboraldi batean ez zutela onartu nahi izan gauzak aldatu zirenik, bizitzak aldatu zitzaizkienik, eta beraz, aurretik egiten zituzten gauzak egiten saiatu ziren. Horregatik, egun hartan San Pedro kalera joan ziren poteatzera eta egun handia ospatzera. Baina antzematen hasi ziren ez zela erraza izango;

²⁷⁰ José Álvarez Junco, *Dioses útiles...*, 184.

²⁷¹ Gema Sagarzazuri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/13 (pasarte bat).

izan ere, eta azaldu dudan bezala, jada guztiek ezagutzen zituzten. Sagarzazuk kontatzen du nola taberna baten barruan inguratzen eta ura botatzen hasi zitzaizkien eta bertatik alde egin behar izan zuten.

Ikusiko dugun bezala, 1996ko Alarde egunean taberna batean egotea galarazi zieten goiz hartan Alardean soldaduz sartu ziren emakume batzuei. Emakume horiek bertan egoteak deseroso sentiarazten baitzituen beste batzuk, goiz hartan genero ordena zalantzan jarri zutelako. Eroso sentitzeko, gorputz horiek tabernatik atera behar izan zituzten, sortutako desordena berrezartzeko. Ez zituzten tabernatik soilik bota. Hurrengo urtean zehar aurrera eramandako indarkeria eta estigmatizazio bidez, herri-komunitatetik kanporatu zituzten eta gorputz edo komunitate *objektua* sortu zuten, genero, klase eta nazio ardatzek gurutzaturik: batetik, erreakzioak eman zion esanahi, estigma eta indarkeriak etengabe eraiki eta baldintzatu zuen. Bestetik, jomugan zeudenak eta kanporatuak izan zirenak defentsa terminoetan elkartu eta euren buruak legitimatzeko diskurtso eta praktikak aurrera eraman zituzten.

Garai hartan, Txaro Arteaga Ansa²⁷² zen Emakundeko zuzendaria, eta Kale Nagusian egon zen beste hainbat politikarirekin batera, BAEk lekuko gisa joan zitezene eskatuta. Han egon ziren baita ere Emakundeko idazkari nagusi zen Itziar Fernandez, EAJko Belen Greaves eta EBko Kati Gutierrez parlamentariak, Mertxe Agúndez EAEko Arartekoaren laguntzailea, EAko Esther Larrañaga eta EAJko Donostiako zinegotzi zen Koro Garmendia. Arteagak kontatzen duenez, bere asmoa ahalik eta alderdi politiko gehienetako emakumeen presentzia izatea zen, Alardean sartuko ziren emakumeen babes gisa. Haien ere irainak jaso zituzten eta gertutik bizi izan zuten guztia. Arteagak hurrengo egunean alkateari deitu ziola kontatzen du, aurretik ere gaiaren inguruan elkarrizketa bat izan baitzuten, eta azalpenak eskatu zizkionean oihuka eta modu txarrean erantzun zion. Geroztik ez zuen berriro ere Jauregirekin kontakturik izan, inoiz ez.²⁷³

Hondarribiko Alarde egunean, aipaturiko alderdi politikoen errepresentazioa izateaz gain, *Eginen* berri batek honako hau zioen: “Sólo HB había mostrado públicamente su

²⁷² Txaro Arteaga Ansa 1944an jaio zen eta kazetaria izanik hogeita bost urtez Donostiako Herri Irratian lan egin zuen. Ondoren, 1988tik 1999ra arte Emakundeko zuzendaria izan zen, feministatzat du bere burua eta Alardeen gatazkan paper esanguratsu eta protagonista izan du.

²⁷³ Jakes Goikoetxea, “Irainak, muturrekoak eta eskopetakadak”, *Egunkaria*, 1996/09/10, 9; Txaro Arteaga Ansari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/01/27 (pasarte bat).

apoyo a la participación de las mujeres.”²⁷⁴ HBk soilik esatean, herri mailan hitz egiten ari da; izan ere, lehenago aipatu bezala, BAEk herriko alderdi politikoengana jo zuenean, EAJk eta PSE-EEK erabakia Alardeko agintarien esku zegoela erantzun zioten eta haiek ziotena onartuko zutela. PPK eta EAK ez zieten ezta erantzunik ere eman.

Alde batetik, EAE mailan EAJ eta EAKo politikariak Kale Nagusira joan ziren, soldaduz atera nahi zuten emakumeei babesa ematera, baina, bestetik, alderdi politiko horien Hondarribiko jarrera publikoa Alardeko agintarien hitza errespetatzea zen, eta, beraz, emakumeak Alardean soldaduz irtetearen kontrakoa. Bai Hondarribian, bai EAEn bi alderdi horiek indar handia zuten, EAJkoa izanik Hondarribiko alkatetza eta EAEko lehendakaritza. Ondorioz, sortu zen konfliktoan hartu zuten posizioa oso garrantzitsua izan zen, konfliktoak hartuko zuen norabidean paper inportantea izango zutelarik. Lehen momentu hartan, 1996ko Hondarribiko Alarde egunean, ordea, bi posizio desberdinetan aurkeztu ziren, eta horrela mantenduko zen hurrengo urtean ere, alderdi berak bi iritzi, bi jarrera eta bi politika kontrajarri izanda. Azpimarratu behar da horrek ez zuela, publikoki behintzat, inongo gatazka edo zailtasunik sortu alderdiaren barnean, eta horrek zeresan handia ematen du.²⁷⁵

1996ko Irungo Alardeko gertakarien ondorengo erreakzio eta deklarazioak aztertu ditugu, baina nolakoak izan ziren Hondarribikoak? 1996ko irailaren 9an, hau da, hurrengo egunean, *El Diario Vascok* José Manuel Noguerasen, Hondarribiko kultura zinegotzi eta alkateordearen, adierazpenak jaso zituen eta honela zioen:

“(…) no dio importancia a los hechos que se produjeron en la calle mayor. «Considero que ha sido un suceso aislado dentro de unas jornadas de fiesta que han transcurrido con normalidad. (…) Considero que es el pueblo el que tiene que decidir si quiere que las mujeres participen en el Alarde.»²⁷⁶

Instituzio eta alderdi politiko lokal batzuen jarrera ez zen aldatu gertaera horiekin. Hau da, Alarde egunen aurretik egin zuten berdina egiten jarraitu zuten: garrantzia kendu, ez ikusiarena egin eta normaltasuna antzestu. Portaera hori izan zuten 1993tik 1996rako Alarde egunetako tartean instituzio, alderdi politiko, Alardeko agintari eta Junta eta jendartearen zati batek, eta instituzio eta alderdi politikoek horrekin jarraitu zuten.

²⁷⁴ Kepa Petralanda, “El Alarde se volvió irracional”, *Egin*, 1996/09/09, 2.

²⁷⁵ José Álvarez Junco, *Dioses útiles...*, 252; Sebastian Balfour y Alejandro Quiroga, *España reinventada...*, 261; Santiago de Pablo, Ludger Mees eta José A. Rodríguez Ranz, *El péndulo patriótico...*; Santiago de Pablo, *La patria soñada...*; Manuel Montero, “La reformulación identitaria...

²⁷⁶ R.M., “División de opiniones entre los vecinos y silencio del alcalde”, *El Diario Vasco*, 1996/09/09, 12.

Baina, emakumeak soldaduz irtetearen kontra zeuden Alardeko agintari, Junta eta pertsonak guztiz aldatu zuten estrategia eta antolatzen hasi ziren. Noguerasen deklarazioek erakusten duten bezala, ordea, batzuek bere horretan jarraitu zuten.

Bestetik, Hondarribiko HBk alkatearen dimisioa eskatuko zuela adierazi zuen, “istiluen erantzule zelako”, eta gaineratu zuenez, “alkateak ETBra deitu zuen istiluen irudiak ez emititzeko eskatuz”. Horrez gain, salatu zuen udalak desfilatzera sartu ziren emakume batzuen izenak zituela, babes pertsonala eskatu baitzuten izen eta abizenekin, baina emakumeek desfilatzearen kontra zeudenei eman zizkietela. Alardea igaro eta lau egunetara iritsi ziren alkatearen deklarazioak prentsa ohar batean, eta Alardeko agintarien erabakia errespetatzeko eskatzen zuen, Alardean aldaketarik egon behar bazen herriak aurrera eramango zuela. Horrez gain, hau esan zuen: “El Alarde deberá ser en cada momento lo que desee la mayoría del pueblo de Hondarribia, sin intervenciones ajenas al mismo y sin intereses políticos partidistas.”²⁷⁷ Gehiengo batez hitz egin zuen, gehiengoaren nahia errespetatu behar zela esanez. Batetik, gehiengoaren iritzia jasotzeko ez zen inolako prozedurarik egin, eta, bestetik, edozeren gainetik gehiengoaren nahia jartzea arriskutsua izan zitekeen, eskubide eta indarkeria batzuek gatazka gurutzatu zezaketenean. Hala ere, gehiengoaren nahia errespetatu behar zela eta gutxiengoarena kontutan hartu ezker inposizio bat litzatekeenaren diskurtsoa asko barneratu zen, eta alkatea bezalako figura batek hori esateak, iritzi kolektiboa sortzen lagundu zuen, legitimitate handia emanik pentsamendu horri.²⁷⁸

Aipatu dudana bezala, alde batetik udal eta alderdi politiko lokal batzuk gatazkari garrantzia kentzen saiatu ziren, baina herritarren zati batek beste modu batera erreakzionatu zuen. Hau da, irainka, kolpeka, kulata-kolpeak emanez Alarde egunean, eta hortik aurrera, beste mekanismo batzuen bitartez. Horietako bat, egunkarietara zuzendariarentzako gutunak bidaltzea izan zen, batez ere *El Diario Vasco*k publikatu zituenak.²⁷⁹ Jarraian, Alardean emakumeak soldaduz ateratzearen kontrako emakume batek idatzitakoa eta soldaduz atera nahi zuten emakumeei zuzendutakoa da:

²⁷⁷ “El alcalde de Hondarribia pide respeto al acuerdo de que no desfilen mujeres”, *El Diario Vasco*, 1996/09/12, 11; “Jauregiren iritziz alardearen egitura gehiengoaren borondatearekin bat dator”, *Egin*, 1996/09/12, 18.

²⁷⁸ Roman Goena, “El burgomaestre teme que los incidentes del Alarde se reproduzcan el próximo año”, *El Diario Vasco*, 1996/09/10, 11; Jakes Goikoetxea, “Hondarribiko HBk alkatearen dimisioa eskatuko du, «istiluen erantzule delako»”, *Egunkaria*, 1996/09/11, 9.

²⁷⁹ Aurrerago aztertuko ditugu egunkari desberdinek gaia lantzerako orduan nola jardun zuten.

“¡Qué poco conocéis a las hondarribitarras! ¡No habéis sintonizado! Hemos sido nosotras, las que junto a nuestros hombres, no hemos querido que ese exiguo remanente de iluminadas, 0,00 Batasuna, haya entrado en nuestro Alarde, para dar pábulo a sus frustraciones. (...) Habéis violado la intimidad de nuestra fiesta recurriendo a gente de fuera, chusma de choznas gaupasera, que ni sabían respondernos en euskera.”²⁸⁰

Gutunaren zati horrek bost lerro besterik ez zituen arren, informazio handia zuen bere baitan. Orokorrean, banaketa oso garbi bat egiten zuen *gu* eta *bestearen* artean. Alardean parte hartu nahi zuten emakumeei egozten zien ez zituztela hondarribiarrak ezagutzen, eta horrekin hondarribiarrak ez zirela esaten ari zen. Horrez gain, gutxi zirela, soberakinak eta *iluminatuak*. Jadanik aipatu dugun gehiengo eta gutxiengoaren logika erreproduzitzen zuen, eta gutxiengo hori, gainera, inork maite edo nahi ez zuela zioen, guztia zekitela uste zuten ezjakinak. Haiena ez zen Alardean indarrez sartu zirenak, frustrazio propio batzuei bide ematearren. Batasunakoak, kanpotik etorritako eta gaupasa egiten zuten txosnetako jendailaren laguntza izan zutenak, euskaraz jakin gabe gainera. Eta horren aurrean *gu* bat aurkezten zuen: hondarribiarrak, gizon eta emakumeen arteko adostasunean emakumeak Alardean nahi ez zituztenak, Alardearen jabeak nolabait, bertako egoera eta errealitatearen jakitunak, euskaldunak nahiz eta gutuna gazteleraz idatzi.

Nazioaren ardatzak gurutzatzen dituen diskurtsoa da; izan ere, euskal nazioa ulertzeko eta eraikitzeko elkarren talkan egon zitezkeen bi proiektu aurrez aurre jartzen ditu. Batasunakoak, gutxiengoa zirenak, txosnetan ibiltzen ziren parranda zaleak, guztia hankaz gora jartzen zutenak, eta parean, gehiengoa, bertakoak, hondarribiarrak baina euskal nazioaren gehiengoa izan zitezkeenak. Hau da, garai hartan EAJK eta EAK ordezkatzeko zuten gehiengoa.

Gu eta *bestearen* banaketa garbia egiten zuen, eta bakoitzari esanahi eta ezaugarri batzuk esleitzen zizkion. Banaketa eta bakoitzaren ezaugarri homogeen horiek ez ziren existitzen sortzen ari ziren diskurtsoaren aurretik. Diskurtso horren errepikapenaren bitartez eta mekanismo desberdinak erabiliz materializatzen joan zen bi komunitateen existentzia. Alardea ardatzetako bat zuen herri-komunitatetik kanporatu zituzten soldaduz desfilatzen saiatu ziren emakumeak. Baina horrekin batera, eta aipatu dugun diskurtso eta azalduko ditugun mekanismo desberdinekin, ez ziren horiek bakarrik

²⁸⁰ Miren Kanpandegi Elduaien, “Monopolio feminista en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1996/09/14.

kanpo geratu. Zentzu batean, genero ordena eta orden soziala zalantzan jarri ahal zuen guztia *beste* horren barruan geratu zen, desordena nagusitu zen momentuan normatik ateratzen zen guztia arriskutsu bihurtu baitzen.

Gutun hori emakume batek idatzi zuen, eta gizonekin harmonia eta adostasunean Alardean atera nahi zutenen kontra zeudela aldarrikatu zuen. Kapitulu honetan ikusiko dugu 1996 eta 1997 bitartean Hondarribiko eta Irungo emakume batzuk antolatu eta gatazkaren lehen lerroan kokatu zirela, gizonez osaturiko Alardearen alde. Emakumeek orden soziala eta genero ordena berrezartzeko erreakzioan paper garrantzitsua izan zuten. Izan ere, emakumeak nazio proiektuen parte dira, eta horiek sortzen, garatzen eta egonkortzen laguntzen dute. Nazioak genero orden batek gurutzatzen ditu, Alardean eta gure kasuan, sexu-genero sistema bitar batean oinarritutakoak. Hori zalantzan jartzeak, emakume batzuen erreakzioa eta antolakuntza bultzatu zuen, haiek ere aldaketa eta desordena sozialaren kontra lerratuz. Emakume horien paperak konfliktoan eragin handia izan zuen. Alde batetik, Alardean atera nahi zuten emakumeen aldarriak ahuldu zituzten, aldarri horiek emakumeen interesak defendatzen zituztenaren ideari legitimitatea kenduz. Bestetik, gorputz *abjektuaren* eraikuntzan aktore garrantzitsu izan ziren, batez ere emakume onak eta txarrak bereiziz eta emakumeen arteko gatazka gisa irudikatuz.

2.2. Emakumeen berrantolaketa: *gertakariaren* alde eta aurka

1996ko Hondarribiko Alardearen osteko egunak nahasiak izan ziren eztanda egin ondoren, eta testigantzetan inork gutxik oroitzen du nahasmen horretan hurrengo egunetan zehazki zer gertatu zen. Baina bai hortik aurrera ezer ez zela berdina izan, eta memorian gordeta dute askok nolakoa izan zen eszenatoki berria. Jon Alkain Etxeberriak²⁸¹ honela kontatzen digu:

“Hortikan aurrera hasi zen jada fase bat, lau bost urte, beldurtua. Benetan hitza beldurra. Teorian ez naiz beldurtia, baina egun horretan demostratu nuen nahiko kobardea nintzela eta gero, beste urtetan nahiz eta uste dut urtero atera izan nintzela Jaizkibelen saioetan. Beti urte bat ezik, jada ezin nuelako neure

²⁸¹ Jon Alkain Etxeberria 50eko hamarkadan jaio zen, Hondarribian. Ixabel Alkainen anai bezala aurkezten du bere burua, eta hiru urte zituenetik desfilatzen du Alardean. 1996an emakumeak Alardeko Kosta konpainian sartzen saiatu zirenean, bera jakinaren gainean zegoen. Kostan desfilatzen eta barrutik laguntzen saiatu zen. Hurrengo urtetik aurrera Jaizkibel konpainia mistoan desfilatu izan du.

buruarekin, ez dakit hirugarren edo laugarren urtean, halako tentsioa: semeak, ez dakit zer, eta alde egin nuen, alde egin nuen Landasetara. Ez nuen soportatzen halako tentsioa. Oso urte txarrak izaten ziren, bakarrik joatekoz kalean gaizki pasatzen nuen, nire familia denak.”²⁸²

Beldurra aipatzen du behin eta berriz, baita tentsioa eta kaletik ibiltzerakoan gaizki pasatzea ere. Baina, zerk eraman zuen egoera horretara? Nola gertatu zitekeen hori? Hautsi zuten ordena berrezartzeko saiakera azaldu behar da horretarako, eta konplexutasun handiko prozesuaren zati guztiak nola artikulatu ziren aztertu.

1996ko iraila bukaeran Hondarribian panfleto bat zabaldu zen, Alarde Aldeko Elkartearen izenez firmatua, nahiz eta inork ez jakin zeintzuk ziren. Bi orriko dokumentua zen eta “Los provocadores de los acontecimientos del Alarde” titulua zeraman, bukaeran irakurleak hamar fotokopia egitera eta horiek zabaltzera animatzen zituen. Informazio asko eta nahasia du, baina hasieratik hasteko, honako hau da lehen paragrafoa:

“Los hondarribitarras hemos recibido el mayor jarro de agua fría de toda nuestra historia, mucho peor que cuando fuimos invadidos por las tropas francesas, porque en esta ocasión se han reído de nosotros una cuadrilla de progres euskaldunes que haciendo uso de sus influencias convocaron a toda la prensa para ridiculizar a todo el pueblo de Hondarribia, y eso no lo podemos permitir de ninguna de las maneras.”²⁸³

Hasteko, 1638ko setioarekin konparatu, eta emakumeak Alardean sartzea okerragoa zela esaten du. Gainera, alderaketa hori eginez eta 1996ko gertakariak hondarribiarrek sufriturikoa izan zela esanez, kanpotik etorritakoen inbasioa izan zela esaten ari ziren. Berrero ere, arazoa kanpotik zetorrela aldarrikatzen ari ziren, eta praktika hori historikoki behin eta berriz errepikatu izan da. Izan ere, errazagoa da kanpotik datorren arrisku eta problema bati aurre egitea barruko bati baino. Kasu horretan, ezin dugu ukatu gatazka herrian bertan eta komunitate barruan sortu zela, baina behin eta berrero mezu hori errepikatuz, disidentzia herri-komunitatetik bota eta arazoa kanporatu zuten. Progre euskaldunen kuadrillak aurrera eramandako ekimena izan zela zioten, eta dokumentuaren beste zati batean honela zioen:

²⁸² Jon Alkain Etxeberria eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/08 (pasarte bat).

²⁸³ Alarde Aldeko Elkartearen, “Los provocadores de los acontecimientos del Alarde”, 1996/09/27.

“(…) lo curioso de estos progres es que despotrican de HB diciendo que son unos subnormales y unos HP pues bien que les han echo (sic) el juego los muy cretinos. Estos progres son de los que han venido a vivir a Hondarribia se les ha aceptado como a cualquier hondarribitarra se les a (sic) abierto todas las puertas y al final se han reido (sic) de nosotros como si fuéramos (sic) unos subnormales que no nos enteramos de la fiesta.”²⁸⁴

Dokumentu horrek adierazten digu erreakzioak nola ikusten zituen emakumeen Alardeetako parte hartzearen aldekoak, eta diskurtso horren errepikapenaren bitartez nola eta zer ezaugarriekin eraiki zuten *beste*a. Esan beharra dago, erreakzioaren diskurtsoa ez zela askotan koherentea edo berdina izan; sarritan kontraesanez beterikoa zen. Horrek erakusten digu talde homogeneoa izatetik urrun subjektu eta ideologia desberdinen batura izan zela eta nola denbora eta errepikapenen bitartez ikuskera bat gailendu zela. Dokumentu horretan, alde batetik, kanpotik etorritako euskaldun progreak traidore izendatu zituen, eta gehitzen du HBko jendeak horien nahiei men egin ziela, nahiz eta euren artean gaizki esaka ibili. Dezepzio eta traizio sentsazioa gailentzen da hitz horietan, nola komunitatearen parte izatea onartu eta haiengan konfiantza jarri ondoren komunitate horrek onartzen ez zuena egin zuten. Aipatzekoa da euskaldun terminoa; izan ere, azaltzen joango garen bezala, interesgarria da gatazka horretan hizkuntzen erabilera nola eman zen ikustea. Orokorrean, esan genezake, emakumeak soldaduz ateratzearen aldekoek euskara lehenetsi zutela asanbladetan, dokumentuetan eta abarretan. Erreakzioak, ordea, gaztelera erabili zuen gehien, baina horrek ez zuen esan nahi euskaraz ez zekitenik edo erabiltzen ez zutenik, baizik eta gauza asko nahasten zirela hizkuntza dinamika horien azpian. Saiatuko gara lanean zehar azaltzen. Hona hemen dokumentu horren beste zati interesgarri bat:

“Una institución como Emakunde que en vez de buscar la armonia (sic) social provoca conflicto con las algaradas de sus seguidoras y seguidores, y todo ello financiado con el dinero de todos. Y que no nos vengán diciendo que así (sic) la mujer a (sic) conseguido los derechos gracias a las primeras feministas americanas que murieron abrasadas en una fábrica incendiada por el dueño para acabar con los problemas laborales, porque estas feministas son unas burguesas

²⁸⁴ Ibidem.

que trabajan la mayoría en la administración y encima la Arteaga cobra un buen sueldo a costa del feminismo a costa de aquellas que fueron quemadas (...).²⁸⁵

Emakunde eta feminismoaren inguruko kritika honek ezjakintasun edo demagogiatik badu, eta historikoki feminismoari zilegitasuna kentzeko argudioak erabiltzen ditu. Dokumentuaren azterketarekin amaitzearen, aipatu behar ditugu erabilitako hitzak mespretxuz eta gorrotoz beterik zeudela. Esaterako, “tonta del bote”, “progre de mierda”, “subnormal” terminoak behin baino gehiagotan erabili ziren, eta jarraian, izen abizenak eta telefono zenbakiak azaltzen ziren. Dokumentu hori, 1996ko irailaren bukaerakoa, lehena izan zen praktika hori erabiltzen, hau da, emakume soldaduen eta horien aldekoen izen eta abizenak eta telefono zenbakiak publikatzen, baina ez zen azkena izan. Horrek ondorioak izan zituen, elkarrizketatuen testigantzek erakusten diguten bezala.

“(...) hor gertatu zen ba jende batek ez zizula agurtzen zurekin ibiltzen zena eta hori guztia bai, edo buzoneatu zutela pertsona batzuen zerrenda telefonoarekin eta guk erantzungailu automatikoa genuen eta desentxufatu behar izan genuen, zergatik bete zen disparteaz kontestadorea.”²⁸⁶

Izen abizenak eta telefonoak publikatzeak mehatxuz eta irainez beteriko deiak egitera bultzatu zuen jendea, eta emakumeak Alardean ateratzearen aldeko kideak, berriz, erantzungailua desaktibatzeraz, telefonoa ez hartzeraz edo gauetan deskonektatzeraz. Izan ere, ohikoak izan ziren goizeko ordu txikietan eginiko mehatxu deiak.

Hondarribian, 1996ko urrian erreakzioa antolatzeko pausuak ematen hasi ziren, *gertakaria* lurperatzeko helburuarekin. Azaldu dugunez, batzuek beste aldera begiratu edo gatazkari garrantzia kentzera bideratu zuten haien jarduna, instituzio edo alderdi politiko batzuek, hain zuen. Baina beste batzuek antolatzeari eta Alardea babesteko elkartzeari ekin zioten. Horren erakusgarri da urriaren 17ko bileraren deialdiaren dokumentua, “reflexiones para la creación de un colectivo en defensa de los Alardes” deiturikoa. Bertan, Alardeen kontra BAEk eginiko erasoak salatzeaz gain, horiei aurre egiteko kolektibo baten sorrera planteatzen zuen. BAEren fronte ezberdinetako estrategia analizatu, eta ondoren, fronte bakoitzean aurre egiteko proposamenak

²⁸⁵ Ibidem.

²⁸⁶ Maiteri (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketa eguna: 2020/08/03 (pasarte bat).

azaltzen ziren, Irun eta Hondarribian koordinatuta egongo ziren kolektibo bana sortzea aldarrikatuz. Kolektibo horiek politikoki anitzak, “multi-sozialak” eta adin ezberdinetakoek osaturikoak izango ziren, Alardeetako Juntako kideak eta alkateak alde batean geratuz, etorkizunean haien kontrako akusazioak ekiditeko. Helburu gisa honako hau azaltzen zuten:

“Esperamos no ser incrédulos y confiamos en una rápida actuación para atajar la ventaja que han adquirido. Detener o desbaratar las acciones de Bidasoaldeko Emakumeak, requiere una actividad constante y organizada por lo que proponemos los siguientes apuntes para crear una mesa de trabajo esperando que se amplíe, critique y modifique los asuntos que a continuación detallamos.”²⁸⁷

BAEren asmoak gelditu eta zapuzteko helburuarekin, beraz, propaganda, komunikabideen erabilera, politika, instituzioak, arlo juridikoa eta eskolak zerrendatu zituzten lehia espazio. Propagandarekin erlazionatuta, historialari eta folkloristen laguntza aurreikusten zuten, debateetan parte hartzeko, eta prentsa komite baten beharra, komunikabideetan diskurtso propioa zabaltzeko. Arlo horren baitan hurrengo esaldia ere agertzen da, azalpen handiagorik gabe: “Realizar un boicot a todos los establecimientos colaboradores de Bidasoaldeko Emakumeak.” Hurrengo atalean ere boikotaren aldarria egin zen, oraingoan komunikabide “alderdikoiei” zuzendurikoa.

Politikaren gaiari dagokionean alderdi batzuen boto goseak Alardeen edozein motatako erabilera bultzatu zuela salatzen zuten:

“Además, de no importarles la opinión del resto de la población, dentro de ciertos colectivos, nos encontramos con movimientos anti-sistema, anti-institucionales con un único fin, el de desestabilizar las fiestas. Tenemos que llegar a la población bidasotarra que los reventadores de los Alardes, los que boicotean la Salve donostiarra, el Riau-Riau pamplonica y demás actos organizados por cualquier asociación son las mismas personas adscritas a la misma ideología.”²⁸⁸

Ez zuten inolako momentuan esaten emakumeek Alardeetan parte hartu nahi zutela, baizik eta festa suntsitu nahi zutela. Bidasoaldean Alardeak ziren, baina beste herrietako festei erreferentzia egiten zieten, eta guztiak ideologia berberekoak zirela esan. Instituzioen gaian, berriz, Alarde eta alkateen arteko deslotura proposatzen zen eta

²⁸⁷ “Reflexiones para la creación de un colectivo en defensa de los Alardes”, d.g.

²⁸⁸ Ibidem.

finantziario propioa: “De esta manera, obtenemos que el Alarde sea ajeno al derecho público, a no estar ni financiado, ni organizado por el Ayuntamiento.” Horrek mahai gainean jarri zuen urte batzuen ondoren lortu zuten Alardeen pribatizazioaren ideia, udalarekin zuten harremana moztuta eta zuzenbide publikotik irtenda. Aspektu juridikoari dagokionez, BAEren kontra desordena publikoan oinarritutako salaketa bat jartzea planteatzen zen, eta, jadanik aipatu ditugun BAEk jarritako salaketan aurrean, elkartasuna eta babesa adierazi salatuei. Azkenik zioen eskoletan erreproduzitzen ziren Alardeak amaitzeko eskatuko zutela:

“Tenemos noticias de que en una mayoría de Centros Educativos, al término del curso escolar y coincidiendo con el inicio de las tradicionales fiestas, al menos en el caso de Irún, se realizan actos que tratan de imitar al Alarde, haciendo portar a niños de ambos sexos un palo a modo de escopeta bajo los sonos de las marchas del Alarde. Estos actos, para nosotros, suponen una degradación de nuestra fiesta y de los conceptos de la misma. Debemos exigir a los Centros Públicos que prescindan de estos actos y solicitamos a los Centros Privados que no realicen acto parecido alguno.”²⁸⁹

Ikusten dugunez, berriro ere, behin ordena apurtuta, hortik kanpo zegoen guztia arriskutsu bihurtu zen, eta hori berrezartzeko, ordena are zurrunago ezartzen saiatu ziren. Irungo Alardea eskolako kurtsuaren bukaeran ospatzen zen, eta Hondarribikoa hasieran; beraz, eskoletan, beste gauza batzuen artean, Alardeen erreprodukzioak egiten ziren. Antza, guztiek eskopetarien antzezpena egiten zuten, eskopeta ordeztu makila eramanez. Gatazka lehertu aurretik eta ordena seguru zegoenean, horrelako praktika batek ez zuen arrisku handirik suposatzen, orduan benetako Alardean onartuta baitzegoen emakumeek ezin zutela atera. Eskoletan egiten zenaren eta Alarde egunetako desfilearen artean, bai haurrak zirelako eta bai espazio desberdinean egiten zelako, ez zuten zertan erlazio zuzenik izan behar. Eskoletakoa kopia infantil bat zen, eta kalterik egiten ez zuela pentsatzen zen. Hala pentsatzen zela diot, zeren horrek ezinbestean genero rolen desnaturalizazio bat ekartzen zuen. Eskoletan praktikan jartzen ziren rolek eragina izan zuten emakume batzuek Alardeetan parte hartzeko nahiarekin; izan ere, neska izendaturiko haur batek baino gehiagok galdetu zuen edo adierazi zuen Alardean bere kide mutilek bezala desfilatzeke nahia. Rosaren testigantzek hau diote:

²⁸⁹ “Reflexiones para la creación de un colectivo en defensa de los Alardes”, d.g.

“Eta ni oroitzen naiz Maialen jaio zenean eta Mikel kubero gisa atera zen lau urterekin (...). Eta orduan bere [aitaren] ilusio handienetakoren bat izan zen semearekin Alardean ateratzea eta lau urte bete zituenean atera zen eta nik kalderoa erosi nion eta (...) orduan Maialen geratu zen nirekin espaloian eta orduan Maialenek, oroitzen naiz oso ongi. Alamedan, esan zidan: «eta ama, ni noiz aterako naiz?» eta nik esan nion -gero lagunek esaten zidaten: «¡qué bruta hija!», «pues bai»- esan nion: «zu ez zara inoiz aterako», eta «zergatik?», «potota duzulako». Eske, ez nuen bilatzen beste esplikazioren bat! Ez zegoen besterik. Bere aita oso gustura aterako zen berarekin ere bai, baino... herri honetan... eta potota duzulako, potota, alua. Deitu nahi duzun bezala, baino ezin duzulako atera.»²⁹⁰

Hemen ikusten dugu nola azaldu behar izan zion alabari ezingo zuela bere anaiak bezala Alardean aitarekin atera. Izan ere, 90eko hamarkadarako hurren sexu-genero bereizketa, esplizituki egiten zena, geroz eta urriagoa zen. Hau da, eskolara batera joaten ziren, gauza berberak egitera eta elkarrekin. Horrekin ez dut esan nahi ez zegoela sexu-genero sistema bitarra indarrean, baizik eta ez zela hain agerikoa eta hurrengan permisibitate handiagoa zegoela norma horietatik irteterako orduan, zentzu batean. Judith Halberstamek azaltzen duen bezala “(...) ser un chico, entre las niñas, se tolera hasta que ello amenaza con interferir en el surgimiento de la feminidad adolescente.”²⁹¹ Hurrengan genero normatik irtetea toleratzen zen, makila bat eskopeta gisa sorbaldan eramatea adibidez, gatazkan praktika horrek ordenaren berrezartzea oztopatu zuen arte.

Kasu horretan, beraz, haurrak zirenez gero, gatazka aurretik eskopetari gisa edonork desfilatzen zuen eskolan, ageriko arriskurik ez baitzuen suposatzen. Behin genero ordena urratuta, haurrek eginiko Alardeak ere ordena hori are gehiago jartzen zuen zalantzan, eta ordena berrezartzeko saiakeran praktika hori ere deuseztatu behar zen. Izan ere, prozesu horretan sexu eta generoen naturalizazioa izan zen erabilitako mekanismo bat, eta hurrengandik hasi behar zen. Butlerrek hori ongi azaltzen du:

²⁹⁰ Rosari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/22 (pasarte bat).

²⁹¹ Judith Halberstam, *Masculinidad...*, 297.

“En esta coyuntura ya queda patente que una de las formas de asegurar de manera efectiva la estabilidad interna y el marco binario del sexo es situar la dualidad del sexo en un campo prediscursivo.”²⁹²

Dokumentu horrek, aurrerantzean martxan jarriko ziren antolakuntzaren ildoak markatu zituen, ikusten joango garen bezala, hemen jaso ziren proposamenak aurrera atera baitzituzten. Azkenik, aipatzekoa da dokumentu horretan kolektibo feministen arteko elkartasun handiarekin kontuz ibili behar zirela azaltzen zutela, feministak Alardea suntsitzera zetoze eta beraz feminismotik babestu behar zirela esaten ari ziren. Horretarako, deialdi bat zabaldu zuten 1996ko urriaren 17rako, eta ikusiko dugun bezala, bere fruituak eman zituen hilabete batzuetara, Irungo Betiko Alardearen Aldekoak (BAA) eta Hondarribiko BAA kolektiboak sortuz.

Emakumeak Alardeetan ateratzearen kontrakoez gain, BAEren baitan, emakumeak desfilatzearen aldekoek antolatzen jarraitu zuten, eta beste gauza batzuen artean, Euskal Herriko herri ezberdinetan hitzaldiak eman zituzten. 1996ko azaroaren 27an, adibidez, Arrasaten egon ziren, eta Alardeen gatazkaren inguruan hitz egin zuten, tartean, gertatzen ari zenaren analisi bat emanez. Bertan, berdintasuna gezurrezkoa zela eta aldaketen aurreko erresistentzia, beldurra eta emakumeak emakumeen kontra egotea nola ulertu behar zen azaldu zuten. BAEren esanetan, nahiz eta azken urteetan gauzak asko aldatu, berdintasuna oraindik ez zen benetakoa, eta gizonek utzi nahi zituzten espazioak egokitzen zitzaizkien emakumeei, adibide nagusia kantinera izanik. Kantinerak gizonek hautatuak zirela oroitarazi zuten, eta askatasunaren oinarria erabakimena zela. Arlo guztietan erabaki nahi zuten zer egin eta ez beste batzuen eskuetan utzi. Gizarte-aldaketak askotan gutxiengoek aurrera eramaten zituztela aldarrikatu zuten, eta sufragisten kasua edo 70eko hamarkadako borroka feministak aipatu zituzten, emakumeak Alardeetan ateratzearen borroka bezala, hasiera batean behintzat gutxiengoek bultzatu zituztela. Erreferentzia horiek izanik, beraz, historiako borroka feministen lerroan kokatu ziren, eta parean, aurreko dokumentuaren azalpenean ikusi dugun bezala, Alardea feminismotik salbatu behar zituztenak izan zituzten.²⁹³

Feminismoari dagokionez, esan genezake gatazka horrek egin zituela asko feminista, edo beste era batera esanda, euren buruak feminista gisa identifikatzera bultzatu zituela.

²⁹² Judith Butler, *El género en disputa...*, 56.

²⁹³ BAE, “Eman beharreko hitzaldiak”, 1996/11/27.

Feminismoak gertatzen ari zena eta bizitzen ari ziren indarkeria guztia ulergarri egin baitzuen.²⁹⁴ Honela dio Rosak:

“Eta, ez dakit nola elkartu ginen. Elkartu ginen, agian, izutuak ez nuke esango, baino beharra, edo ez dakit nola esan: ¡que nos comen! edo... ez dakigu hemendik bizirik aterako garen! Orduan hasi ginen, nire ustez, feministatzat ikusten gure burua.”²⁹⁵

Alardeetara sartu ziren emakume batzuk mugimendu feministan ibiliak ziren, eta, beraz, euren burua feministatzat zuten. Baina beste batzuek ez, logika eta nahi batetatik sartu ziren Alardeetan, eta erreakzioak berehala seinalatu eta iraindu zituzten Alardea suntsitu nahi zuten feminista gisa. Horren aurrean, eta Rosak azaltzen duen bezala, feminismoaren terminoa hartu, propio egin eta autodefentsarako eta nahi zuten horren alde borrokatzeko tresna gisa ulertu zuten. BAEren dokumentuan ikusten dugunez, historiako borroka feministak ulertzeak haien gatazka azaltzeko balio izan zien eta gertatu zenaren analisi bat egiteko.

Hitzaldi horietan ere beldurraren inguruan hitz egin zuten, eta, alde batetik, aldaketen aurreko beldurra aipatu zuten, baina batez ere, gatazkan iritzi propioa emateko sortzen hasi zen beldurraren inguruan mintzatu ziren:

“Koadriletan, elkarte gastronomikoetan, eta abarretan, zenbaitek isilik egon nahiago izaten du, lagun eta ezagunekin istiluak ekiditeko, arazoak ekiditeko, lagunak ez galtzeko... jende asko dago desberdin pentsatzen duela adierazteko beldurra sentitzen duena. Gutxiengoaren, minoriaen parte izatearen beldurra ere badago. Erosoagoa da, noski, gehiengoarekin egotea (...).”²⁹⁶

1996ko azaroaren 27an, jada hitz egiten zen iritzi propioa ematearen beldurraz, eta arazoak eta istiluak ekiditeko eta lagunak ez galtzeko, jende askok bere iritzia emateari utzi ziola. Izan ere, eta ikusten joango garen bezala, behin emakumeak 1996ko Alardeetan sartu ostean, iritzi propioa emateak ondorio asko ekar zitzakeen, eta asko ez ziren prest egon horretarako. Horrek gatazkaren norabide eta indar korrelazioan pisu handia suposatu zuen.

²⁹⁴ Mercedes Arbaiza, “Dones en Transición...”

²⁹⁵ Rosari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/22 (pasarte bat).

²⁹⁶ BAE, “Eman beharreko hitzaldiak”, 1996/11/27.

Emakumeak emakumeen kontra zergatik azaldu zirenaren esplikazio bat ematen saiatu ziren. Batetik, uste zuten emakume batzuek eroso zeudela tokatu zitzaaien paperean, eta toki hori zalantzan jartzean, mehatxaturik sentitu zitezkeen. Gainera, azpimarratu zuten Alardeetan emakumeek desfilatuz gero familietan aldaketa handiak gertatu zitezkeela, egun horietan behintzat. Bestetik, neska gazte askok kantinera izatearen ametsa zutenez, publikoki emakumeak Alardean ateratzearen alde azaltzeak amets hori ez betetzea suposatu zezakeen. Horrez gain, kantinerak zuen protagonismoa gutxituko zenaren beldurra zeukaten kantinera atera nahi zuten askok. Interesgarria da ikustea, nola lehen momentu horietan, 1996ko Alardea pasa ondoren eta hurrengo urteetan gertatuko zena jakin gabe, adibidez, neska gazte askok kantinera atera nahi bazuten, ezin izan zutela emakumeen alde azaldu. Izan ere, kantinera irteteko konpainiako gizonengatik aukeratuak izan behar zuten, eta jada emakumeak soldaduz irtetearen aldarria Alardea suntsitzearekin lotu bazuten, nola aukeratuko zuten kantinera Alardea suntsitu nahi zuen bat? Horrekin, burura datorkigu Teresa del Vallek esan zuena: “El Aralde es «una acción en la que se ritualiza el orden más que la batalla, el acatamiento más que la disidencia» (...)”.²⁹⁷ Alardearen antolamenduaren formak erraz ahalbidetu zuen eztabaida batzuk errotik moztea, eta are gehiago emakumeen kasuan. Ikusi dugun bezala, kantinera irteteko konpainiako gizonengatik aukeratua izan behar izateak, haien baldintzak betetzera behartu edo bultzatu zituen asko.

Hondarribian, 1996ko abenduaren 11rako, emakumeak Alardean parte hartzearen aldeko batzarra deitu zuten, eta bertan ehun pertsona inguruk parte hartu zuten. Asteazkenero hamabost emakume inguru biltzen zirela azaldu zuten eta lanean jarraitzen zutela. Azken hilabeteetan informazio bilketa bat egin zutela adierazi zuten, bideo, argazki, egunkari, aldizkari eta abarren bidez. Juridikoki bide bat hartu zuten, Herri Ekimena izena jarri ziotena. Bide penala erabiliz Hondarribiko alkatea eta Alardeko agintariak salatzean zetzan, Alarde eguneko erasoak ekiditeko ezer egin ez zutela adieraziz. Bestetik, komisiok osatu zituzten: juridikoa, artxiboa, ikus-entzunezko medioak, sentsibilizazioa eta ekonomikoa. Jarraian, zein momentutan zeuden azaldu zuten, legalizazioa aurrera eraman edo ez eztabaidan, gionezkoak onartu edo ez zalantzan eta Irunekiko harremanak nola mantendu baloratzen. 1996ko

²⁹⁷ Margaret Bullen, “Hombres, mujeres, ritos y mitos...”

abenduaren 23an Mugarrietako Joana Elkarte – Emakumeak alardean parte hartzearen alde²⁹⁸ elkarte erregistratu zuten eta gizonak bertatik kanpo uztea erabaki zuten.²⁹⁹

Kolektiboaren izena azaltzea beharrezkoa da puntu honetan, sinbolismo eta esanahi handikoa baitzen. 1991ean, Maria Jesus Berrotaran Etxeberriak, Emeki elkarteko eta ondoren BAE eta Juana Mugarrietakoa kolektiboetako kideak, Florentino Portu Hondarribiko historialariari herriko historiako emakume garrantzitsuen edo nabarmendu zirenen informazioa eskatu zion. Portuk bere ikerketetan ikertutako zazpi emakumeen informazioa bidali zion. Horietako bat Maria Joan de Mugarrieta zen, 1638ko setio garaian Guadalupeko Ermitako serora. Bertan azaltzen zuen nola hartu eta eraman zuen Guadalupeko Ama Birjinaren estatua herriko parrokiara, harresien barnera 1638ko uztailaren 1ean, “frantsesak” herrira hurbiltzen ari zirela ikusirik. Setioak iraun zituen 69 egunetan debozio handia jaso zuen biztanleengandik Guadalupeko Ama Birjinak, eta setioa altxatzen lagunduz gero, urtero bere omenezko prozesio bat egingo zutela hitz eman zioten. Horrez gain, setioak iraun zuen egunetan emakumeen ausardia azpimarratzen zen dokumentu horretan:

“Más al mismo día sobresalió en gran manera el valor de las mujeres de Fuenterrabia; pues cien de ellas armadas en traje (sic) de hombres, unas con lanzas, otras con escopetas, en forma de escuadrón salieron a la plaza, y puestas en presencia del Gobernador le instaron les señalase el puesto, y porción de muros, para defenderlos. (...) Aplaudiólas el Gobernador, diciéndolas, que conservasen para la última necesidad animos tan sobre su sexo (...).”³⁰⁰

Hasiera batean, emakumeen parte hartzearen aldekoen argudioetako bat historikoa bazen ere, berehala beste arrazoi batzuk bihurtu ziren garrantzitsuenak, esaterako, emakumeen eskubideena. Orainaldiaren legitimazioa iraganetik lortzea behin eta berriz errepikatzen zen praktika bat zen, batez ere, nazionalismoen testuinguruan. Uste zuten 1638ko setioan emakumeek paper garrantzitsua izateak eta gainera soldaduz jantzi izanak arrazoa ematen ziela 90eko hamarkadako Hondarribiko Alardean ateratzeko. Hala ere, kontziente ziren XVII. mendean Hondarribian ez zeuden subjektu batzuek parte hartzen zutela XX. mendeko Alardean eta ez zutela iraganeko legitimaziorik behar

²⁹⁸ Izen ofiziala hori bazen ere beste forma batzuetan ere azaldu zen, Juana Mugarrieta izanik erabiliena.

²⁹⁹ “Para preparar la asamblea del 11/12/96”, d.g.; Bidasoa Aldeko Emakumeak Hondarribia, “Emakumeak Alardean parte hartzearen alde”, 1996/12/12; Emakumeak Alardean parte hartzearen alde, “Relación de las componentes de la Junta Directiva, 1996/12/23.

³⁰⁰ Florentino Portu, “Sitio de Fuenterrabia del año 1638, que escribió en latín el P. Moret y traducido por Don Manuel Silvestre de Arlegui”, 1991/03/15.

horretarako. Horrez gain, zer gertatuko litzateke 1638ko testigantza horiek ez bazituzten edo gertatu ez baziren? Onartuko zuten emakumeak ezin zirela atera, hiru mende lehenago ezin izan zutelako? Horregatik, emakumeak Alardean ateratzearen aldeko argudio historikoak berehala alde batean utzi, eta batez ere, eskubide eta bazterketa terminoetan eztabaidatu zuten horien parte hartzea. Hala ere, Juana Mugarrietakoa izena jarritz kolektiboari, Hondarribiko historia eta tradizioei aitortza bat egiten zioten, eta Hobsbawmek azaltzen zuen bezala, tradizio asmatuetan iraganari lotzen zitzaion hari hori mantenduz. Alardea eta herriaren parte zirela aldarrikatu zuten eta azpimarratu inolaz ere ez zutela Alardea suntsitzeko asmorik. Hondarribian Juana Mugarrietakoa elkarte sortu zenez, nahiz eta Irun eta BAErekin harremanetan mantendu, herri bakoitzean bide, estrategia eta eztabaida propioak izango zituzten gatazkan zehar.³⁰¹

1996 amaieran eta 1997 hasieran ekimen ezberdinak antolatu zituzten Juana Mugarrietako kideek Hondarribian, horien artean txalaparta eta pailazo ikuskizunak, bertso-bazkaria, Santa Ageda, inauteriak, pilota txapelketa eta herri bazkaria. Horrez gain, eskoletan lantzeko materiala prestatzeko asmoa azaldu zuten, pertsonen arteko berdintasuna eta ideia ezberdinen gaineko errespetua lantze aldera.

Bitartean, egunerokotasunean jende askori bizitza aldatzen ari zitzaion. Aipatu ditugun lagun eta familien barneko gatazkek eta orain azalduko ditugun praktiken bitartez emakume soldaduen alde lerratu zirenak beldurra izaten hasi ziren, eta horrek herriko espazioak birkonfiguratu zituen. 1996ko abenduan BAEk idatzitako zuzendariarentzako gutun batek hau zioen:

“Nosotras, trabajamos para encontrar una vía de solución al conflicto porque, no sólo vivimos el problema suscitado en nuestro pueblo sino que lo padecemos diariamente: han sido colocados nuestros nombres en los árboles y en los lugares públicos de nuestro pueblo, continúan las agresiones a personas que el día 8 de Septiembre nos brindaron su apoyo...”³⁰²

Zuhaitzetan Alardean emakumeak ateratzearen aldekoen izenak jarri zituztela azaltzen du, argi eta garbi beldurra sartzeko eta haien aldarriarekin amaitzeko saiakeran. Alardean sartu ziren emakumeen memorian iltzatuta geratu ziren momentuak dira, eta honela azaltzen du Mariak:

³⁰¹ David Lowenthal, *El pasado es un país extraño*, Akal, Madril, 1998 [1985], 79; Eric Hobsbawm eta Terence Ranger (ed.), *La invención de la...*

³⁰² BAE, “No nos dejéis solas”, d.g.

“Y ¡fíjate! Colgaron, como los nazis, todos nuestros nombres y apellidos en los árboles de la calle San Pedro. Fueron a avisar a mi hermana y dice: «llegué a la calle San Pedro, llorando, buscando tu nombre, buscando tu nombre, y ahí lo vi.» Y, alguien con luces mandó a quitar.”³⁰³

Espazio publikoan emakume soldaduen alde zeudenen izenak jartzearen ekintza naziek egiten zutenarekin konparatzen du. Konparaketa horrek gutxiengo baten kontra eginiko jazarpen eta markaketari egiten dio erreferentzia, horien kontrako gorrotoa transmititzearen helburuarekin egindakoa zelako. Puntu honetan, maitasunak eta gorrotoak nola funtzionatu zuten azaltzea komenigarria da. Sara Ahmeden tesiari jarraiki, Alardearekiko zuten maitasunak bultzatu zituen Alardea horrelako ekintzen bidez defendatzera. Lehenik, ordea, ikusi dugun bezala, Alardea suntsitzera zihoazen diskurtsoa eraiki behar zen, eta behin hori eginda, Alardea babesteak suposatzen zuen suntsitu nahi zutenen kontra egitea eta horiekiko gorrotoa azaltzea. Bestetik, Alardeari maitasuna adierazteak eta emozio hori sentitzeak herri-komunitatearen parte egin zituen. Esan beharra dago, maitasun konkretu bat zela, hau da, Alardea emakume soldadurik gabe nahi izatea bihurtu zela Alardea maitatzea: “Tener la emoción correcta es lo que permite que uno ingrese a la comunidad: en este caso, al exhibir «mi amor», muestro que estoy «contigo».”³⁰⁴

Emozio zuzena, beraz, Alardea emakume soldadurik gabe maitatzea zen. Izan ere, Alardean atera nahi zuten emakumeek behin eta berriro adierazi zuten Alardea maite zutelako eta herriaren parte zirelako parte hartu nahi zutela bertan. Baina ez zieten sinetsi edo ez zieten sinetsi nahi izan, eta Alardea beste modu batera maite zutela onartu edo aitortu beharrean, suntsitu nahi zutela zabaldu zuten.

Hondarribiko BAEk hasi eta Juana Mugarrietako taldeak jarraituta sentsibilizazio kanpaina bat egin zuten, eta horretarako, ikertzaile ezberdinen konferentziak antolatu zituzten, beste gauzen artean. Ikertzaile horietako bat Xabier Kerexeta Erro historialari irundarra izan zen, eta Irungo BAAk berekin kontaktuan jarri zen hau transmititzeko:

“Pensamos, tras analizar su peregrinaje por los distintos medios de comunicación, así como por las distintas ciudades de Euskadi, que no tendrá inconveniente alguno en intervenir en Irún, donde verdaderamente y únicamente estamos

³⁰³ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

³⁰⁴ Sara Ahmed, *La política cultural...*, 211.

interesados en dicho asunto. Por lo tanto Irungo Betiko Alardearen Aldekoak le invita a un debate público, a realizarse en un lugar a convenir.”³⁰⁵

Horren aurrean, Kerexetaren erantzunean bi gai azpimarratuko nituzke. Alde batetik, euskarazko izena zeraman eta tradizioaren defentsan ziharduen talde batek gutuna gazteleraz bakarrik bidaltzeak harridura, lotsa eta amorrua eragin ziola. Bestetik, proposamena onartzen zuela, “zabaldutuzuen erdara hutsezko panfletoetan adierazten dituzuen oker historiko galantak zuzentzeko” helburuarekin.³⁰⁶ Handik aurrera, Antonio Aramburuk Irungo BAAren izenean erantzun, eta gutun bidezko eztabaida bat hasi zuten euskararen eta historiaren erabileraren inguruan. Gutun horiek pertsonalak ziren eta ez dakigu zein puntura arte konpartituko zituzten haien kideekin, beraz, ez dugu gehiago sakonduko horretan, baina bai Kerexetak urtarrilean eman zuen konferentzian eta ondoren 1997ko apirila eta maiatzean *Egin* egunkarian eman zen eztabaidaren inguruan, tartean Antonio Aramburu zegoelarik.

Kerexetak 1997ko urtarrilean honela zioen Alardearen gatazkan historiaren erabileraren inguruan: “Lehenik emakumearen presentziaren aurka daude, eta gero bilatzen dituzke argudio historikoak.”³⁰⁷ Alardea forala zenez gero eta desfile foraletan emakumeek parte hartzen ez zutenez gero, orduan ere, argudio historiko horiek ezin zutela parte hartu ziren. Kerexetak zioen Alardeko beste hainbat elementu desfile foraletan azaltzen ez zirela, hala nola zaldiak, kantinerak, artilleria, ez eta beltzak, frantsesak edo protestanteak. Eta 90eko hamarkadan irteten baziren, nahi zutelako zen, eta ez oinarri historikoengatik. Horrez gain, Irungo Alardearen jatorria 1522ko batailan ere kokatzen du, eta historian zehar Hondarribiko eta Irungo emakumeek gerretan parte hartu zutela demostratzeko bi adibide jarri zituen. Azkenik, kantineren protagonismoarekin amaitu behar zela uste zuen. Konpainietako ordezkariak zirela onartzen zuen, baina konpainiako maskota zirela zioen eta horregatik aldatu behar zela horien papera.

Apirila eta maiatzean *Egin* egunkarian Alardeen zentzu historikoaren inguruan eztabaida egon zen, tartean Antonio Aramburu zegoelarik eta guztiak gizonak izanik. Hasi, ordea, Montxo Goikoetxea hasi zen, “No hay que alardear” titulua zeraman iritzi artikuluekin. Bertan, Irungo eta Hondarribiko Alardeak boikotatu behar zirela aldarrikatzen zuen, 1522ko bataila Nafar Erreinuak galdu zuelarik, ez zegoelako zer

³⁰⁵ Irungo Betiko Alardearen Aldekoak, “Muy Sr. mío”, 1996/12/XX.

³⁰⁶ Xabier Kerexeta, “Jaun-andreok (andreok?)”, 1996/12/XX.

³⁰⁷ Garbiñe Olaizola, “Xabier Kerejeta: «Alardeko tradizioa eskubide bat ukatzeko erabili da»”, *Egin*, 1997/01/26, IV (Gipuzkoa).

ospatu. “Alardeen ustedes menos, dejen de acusar de machistas y de reventadoras, y planteen el auténtico debate: ¿hay que celebrar una lucha entre hermanos, por muy vistosa y llamativa que sea la conmemoración?”³⁰⁸ Horri Antonio Aramburuk erantzun zion, zalantzan jartzen Nafar Erreinuaren berreskurapen saiakera izan zela, eta iradokiz frantses interesen mesedetan egindako konkista ahalegina izan zela. Ondoren, Pedro Esarte Muniain sartu zen eztabaidan, eta beste lau iritzi artikulu publikatu ziren, bi Arambururenak eta beste bi Esarterenak. Eztabaida interesgarria da, eztabaida historiko bat delako, baina orainaldiko interesek baldintzatuta eta orainaldian egiten zen errito bat legitimatzeko edota hori ospatu egin behar ez zela argudiatzeko. Tartean, proiektu nazional baten eraikuntzan estrategia desberdinek topo eginez. Izan ere, Alardeak ez egitea Gaztelako Erreinuaren garaipena ez ospatzearren proposatzen zen, euskal nazionalismotik. Aramburuk, ordea, Irungo Alardearen sorrera milizia foraletan kokatuz, euskal nazioaren eraikuntzaren parte egin zuen.³⁰⁹

Nazioaren gaiak Alardearen gatazka nola gurutzatu zuen ikusten joango gara. *Eginek* publikaturiko iritzi artikulu honetan espainiar eta euskal nazioen iruditegia erabili zen gatazka ulertzen saiatzeko:

“Visto lo de Irun, algunos devotos de la Vasconia idílica intentamos explicarlo: «Esto sólo podía ocurrir en el pueblo más españolizado de todo Gipuzkoa». Mas cuando la marea de idiotez se acercaba al puerto de Hondarribia, se nos pusieron coloradas hasta las orejas. ¿Es «ése» el País en que vivimos?”³¹⁰

Gatazka ulertzen saiatzeko, aurrez aurre jartzen ditu bi nazio: espainiarra eta euskalduna. Batzuen buruan, euskal nazio ideal eta perfektua irudikatzen zutenen buruan, ezin zen ulertu emakumeak Alardean desfilatzearen kontra azaldu zirenak euskaldunak izatea, eta Irunen gertatu zenez, Gipuzkoako herri espainolena zela esanez lasai geratu ziren. Hau da, emakumeak soldaduz irtetearen kontra azaldu zirenak espainolak zirela esaten ari zen. Diskurtso horrek ez zuen luze jo, eta, beraz, ezin izan zen materializatu; izan ere, Hondarribia ez zuten uste espainolez beterik zegoela, eta Irunen gertatutakoaren berdina gertatu zenez, ezin zieten espainolei errua bota. Nazioen

³⁰⁸ Montxo Goikoetxea, “No hay que alardear”, *Egin*, 1997/04/16, 8.

³⁰⁹ Antonio Aramburu, “¿El Alarde contra los navarros?”, *Egin*, 1997/04/23, 7; Pedro Esarte Muniain, “Españoles y franceses (aclaración a Aramburu)”, *Egin*, 1997/04/29, 8; Juan M^a de Olaizola Igiñiz, “El ejército del Reino de Navarra en Hondarribia”, *Egin*, 1997/04/29, 9; Antonio Aramburu, “¿El Alarde contra los navarros? ... Insisto”, *Egin*, 1997/05/07, 8; Pedro Esarte Muniain, “Aclarando ideas al señor Aramburu”, *Egin*, 1997/05/8, 8; Antonio Aramburu, “Céntrese, señor Esarte”, *Egin*, 1997/05/13, 8.

³¹⁰ Jose Mari Esparza Zabalegi, “Escopetas, largas y gordas”, *Egin*, 1996/09/10, 5.

kontzepzio oso sinplista, estatiko eta homogenea zuen ikuspegi horrek, nazioak berez eta naturalki onak edo txarrak zirela esaten baitzuen, nazioak gurutzatzen zituzten ardatz, dialektika eta hegemoniak kontutan hartzen ez zituztelarik. Hala ere, Alardearen gatazkan ikuspegi horrek ez zuen bide luzerik egingo.

Nazioaren eta historiako batailen eztabaidek, ordea, batez ere emakumeak soldaduz ateratzearen ondorioz, garrantzia hartu zuten berriro ere. Aurretik, azaldu dugun bezala trantsizio garaian izan zuten bere tokia, baina 90eko hamarkadara arte ez zuten garrantzirik izan, eta momentu hartan emakumeak Alardean ateratzearen kontra egiteko balio izan zuten, nahiz eta tartean nazio ardatzak gurutzatzen zuen eztabaida ere izan. Bestetik, gainera, Ixabel Alkain Etxeberriak Hondarribiko Alardearen jatorriari buruz zuten ezagutzaren inguruan esaten duena argigarria da herritarrengan zer eragin izan zuten edota zein zentzutan ospatzen zuten ikusteko:

“Baino, eske bat egiten den jai bat da, ondo pasatzeko jai bat da. Hauek, tradizioaren istorioan inork ez zekien. Bai, pues el 1638, ¿era el 1638 o 48? Sí, nos sonaba algo, pero quién sabía del sitio y sí, vale, había un sitio, y las bombas de los agujeros de no sé qué del Parador. Pero, zu joaten zinen jaietara, pues jaietara. Ya está. Zeinek zekien ezer? Jaia da, giza katarsi baten historia. Horretan parte hartu nahi dugu, espazio publiko horretan parte hartu nahi genuen, besterik ez. Que no me cuenten a mí ahora, que si... gainera historia kontutan hartuta, bazeuden ehun emakume soldaduz jantzita. Noski emakumeak parte hartu zutela defentsan eta bazeudela gainera. Ehun emakume gainera dokumentatua soldaduz jantzita, eta zer? Eta horretan ere ez genuen, ez ginen horrekin bat egin. (...) Para no caer en esto, no caer en esto, porque dices: ¡que me voy a volver más tradicionalista que tú! ¡No me jodas... que bastante tradicionalistas somos!”³¹¹

Horrek erakusten digu erritoen jatorri historikoak ez zuela zertan markatu edo ezarri orainaldiko esanahia. Noski tradizioek iragan bati erreferentzia egiten zioten, eta horrekin harremanetan, balio eta arau batzuk zabaldu komunitatera. Baina erreferentzia hori ez zen zertan erreala eta historikoa izan behar, eta moldagarria zen orainaldiaren interesen arabera. Bestetik, testigantza azken zatiak aurretik aipaturikoa azaltzeko ere balio digu: nola ez zuten historian oinarritu nahi izan haien argudioa.

³¹¹ Ixabel Alkain Etxeberriari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/16 (pasarte bat).

2.3. Guztia bihurtu zen Alardeen konflikto

Azaltzen saiatu garen bezala, 1996ko Alarde egunetako gertakarien ondoren bizitako esperientziak subjektibitateak guztiz irauli eta eszenatoki berri bat ireki zuen, bertan mugimendu desberdinak egin zirelarik. Ikusi dugu instituzio lokal eta alderdi politiko batzuek garrantzia kentzen saiatu zirela eta beste alde batera begiratu zutela. Emakumeak Alardeetan ateratzearen aldekoek biltzen eta antolatzen jarraitu zuten, ekimen desberdinak martxan jarritz. Eta kontrakoek, berriz, kolektibo desberdinak sortu zituzten horiei aurre egiteko asmoz, iraganera eta *gertakariaren* aurreko egunera bueltatzeko helburuarekin. Kanean giroa gaiztotzen ari zen eta tentsioa igotzen, batez ere, Alardeetan atera nahi zuten emakumeen kontrako jazarpenaren bitartez. 1997. urtea, beraz, kolektibo berriekin eta gatazkaren presentzia handiarekin iritsi zen, eta urtarrilean bertan, gai horren inguruko lehen manifestazioa egin zen, hurrengo urteetan tresna erabilia izango zelarik.³¹²

Nire hipotesietako bat da hiru fronte ezberdinek emakumeak Alardean ateratzearen kontrako erreakzioa osatu zutela. Agerian haien arteko harremana ukatu zuten askotan, baina finean, elkar elikatu eta indartu ziren, agian arrazoi desberdinak edukirik, baina helburu komun bat zutelarik: emakumeak Alardeetan ateratzea galaraztea. Lehen frontea instituzionala eta alderdiena izan zen, eta haien papera eskuak garbitzea eta edozein esku-hartzea ukatzea izan zen. Bigarrena emakumerik gabeko Alardea bermatzeko helburuarekin sorturiko kolektiboak izan ziren. 1997ko urtarrilean bi ziren, Hondarribiko eta Irungo BAA kolektiboak, baina gehiago sortzen joango ziren. Alardeetako Juntak eta Alardeetako agintariak ere bigarren fronte horretan sartuko ditugu. Horiek, azaldu dudana bezala, Alardea babesteko eta maitatzeko diskurtsoa plazaratu zuten. Azkenik, anonimotasunetik eta batez ere kanean osatu zuten frontea zegoen: bortitza, oldarkorra, indarkeria fisikoa eta sinbolikoa tresna gisa erabili zuena, irainez eta gorrotoz betea. Gure kronologian ikusten joango gara nola artikulatu ziren eta zein presentzia izan zuten fronte horiek.

1997ko urtarrilaren 7an Irungo BAA kolektiboak lehen prentsaurrekoa egin zuen, eta bertan, urtarrilaren 11n antolatu zuten manifestazioaren deialdia zabaldu zuen, “El Alarde es patrimonio del pueblo” eta “Irún, con su Alarde tradicional” lemapean. Horrez gain, urritik lanean zebiltzala eta eskuartean zituzten ekimenak azaldu zituzten, tartean Arartekoari eta Emakunderi bidaltzeko firma bilketa bat. “Totalmente apolíticos

³¹² Youtube: 14 agost/ Entrevista a Grosfoguel. Impossible triar només un titular; Alan Badiou, *El ser y...*

y terriblemente demócratas” gisa definitzen zuten euren kolektiboa, eta helburu gisa zuten “Mantener el Alarde de armas y la procesión del día de San Marcial como manifestación folklórico-cultural consolidada por la tradición”. Erreferendum bat egitea eskatu zioten Irungo alkateari, herriko iritzia kuantifikatzeko. BAErekin bi bilera egin zituztela adierazi zuten baina ezinezkoa izan zutela puntu komunak topatzea. Indarkeria gaitzetsi zuten, baina gehiengoari emakume soldaduak onartzen zituen Alardea inposatzea indarkeria zela gaineratu zuten. Aipatu beharra dago prentsaurrekoan gehiengoa emakumeak zirela eta gatazkan zehar emakume soldaduen kontra lehen lerroan egongo zirenak emakumeak izan zirela.³¹³ Horrez gain, Irungo Alardearen jatorria 1522an ez zegoela azaldu zuten, baizik eta milizia foraletan, eta bertan eta orduko Alardean emakume soldaduek tokirik ez zutela. Azkenik, honako hauek izan ziren haien hitz batzuk:

“Nuestro Alarde es hoy una manifestación de nuestra historia, cultura, folklore e identidad como pueblo. Este hecho dejaría automáticamente de tener sentido si se deformara uno de sus tres elementos fundamentales: el lugar, el tiempo y la coreografía, en la que la música, los trajes y el sexo de los personajes juegan un papel muy determinado.”³¹⁴

Irungo BAA kolektiboak indarkeria gaitzestean horren errekonozimendu bat egin zuen, hau da, existitzen zela onartu eta horren kontra azaldu. Ez zuten espezifikatu zein indarkeriaz ari ziren, gehiengoari emakume eta gizonez osaturiko Alardea inposatzeaz aparte, eta pentsa dezakegu Alardeetan atera nahi zuten emakumeen kontrakoaz ari zirela. Egia da BAA kolektiboek zuten diskurtsoa desberdina zela, aztertu ditugun gutun anonimo eta kaleko irainekin konparatuz gero. Agerian diskurtso bakezale eta tolerantak transmititzen zituzten, irainak alde batera utziz eta errespetuzko hitzak erabiliz. Baina, esan beharra dago haien diskurtsoetako herriaren eta Alardearen maitasunaren kontzepzio zurrunez bidea ireki zirela eta zabalpena ahalbidetu ikusi ditugun gorroto diskurtsoei.

Bestetik, emakumeak soldaduz Alardean ateratzearen kontrako erreakzioan emakumeek izango zuten paperaren lehenetariko eszenaratzea izan zen, hau da, lehen lerroa okupatu zuten. Momentu honetan komenigarri zaigu emakumeek historikoki tradizio eta

³¹³ Ana Grijalba, “Protesta de Betiko Alardearen Aldekoak contra las mujeres soldado”, *El Mundo*, 1997/01/08, 5; “Defensores del Alarde tradicional convocan una manifestación para el sábado”, *El Diario Vasco*, 1997/01/09, 14.

³¹⁴ Garbiñe Olaizola, “Por el Alarde sin mujeres soldado”, *Egin*, 1997/01/09, IV (Gipuzkoa).

ohituren babes eta transmisioan izandako paperarekin erlazionatzea. Sexu-genero sistema liberalean emakumeak zaintza lanak egitera bideratzeak suposatzen zuen tradizio eta ohituren zaintza ere emakumeen gain jartzea, eta XIX. mende amaierako eta XX. mendeko nazionalismoek emakumearen ama figura transmititu zuten, nazioaren ama gisa. Alardeetan, beraz, maitasun eta zaintza erakustaldiak emakumeek egin zituzten Alardean atera nahi zuten emakumeen kontra, emakume soldadurik gabe mantentzearen esanahia hartu baitzuen Alardea babesteak. Emakume horiek orden tradizionala babesteko hautua egin zuten, haien segurtasuna eta egonkortasuna horretan oinarritzen baitzen.³¹⁵

Alardearen gatazkaren inguruan egin zen lehen manifestazio horretan, 1997ko urtarrilaren 11an, bi pankarta eraman ziren. Lehenengoan “Irún, con su Alarde tradicional” idatzi zen, eta emakumeek eraman zuten. Bigarrena Alardeko agintariak zeramaten, “Alardea herriarena, El Alarde es patrimonio del pueblo” leloarekin.

Bestalde, 1997ko urtarrilean Juana Mugarrietakoa kolektiboak atxikimendu kanpaina bat hasi zuen Euskal Herrian. Borja Jauregi Hondarribiko alkateari gutun bat bidaltzean zetzan, gatazkaren konponbidea eskatuz eta “gizon zein emakumeek, nahi duten moduan, sexu bereizketarik gabe eta pertsonen ukaezinezko eskubideak errespetatuz, parte hartu ahal izateko eskubideak” bermatzea exijituz. Emakume talde ezberdinek parte hartu zuten, tartean Emakundek. Arartekoak ere gutun bat bidali zion Hondarribiko alkateari, gogoratuz “Hondarribiko biztanle guztiek dutela Alardean parte hartzeko eskubidea, sexuagatik edo norberaren beste edozein ezaugarriengatik bereizketarik egin gabe.” Horrez gain, 1996ko abuztuan emandako gomendioei erantzun ez eta hiru aldiz erantzuna eskatu ondoren, berriro ere, gomendio horiek onartzen zituen edo ez adierazteko eskaera egiten zion. Gutunak adierazten digun bezala, Borja Jauregik 1996ko abuztutik 1997ko otsailera arte behintzat, Arartekoak eskatutako gauzei muzin egin zien. Horrek gogorarazten digu Hondarribiko alkateak Emakunderekin izan zuen

³¹⁵ Amaren irudiak euskal nazionalismoan eta feminitate garaikidearen eraikuntzan duen garrantzia hainbat autorek aztertu dute: Mercedes Ugalde, *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, EH/UPV, Bilbo, 1993. Ana Aguado eta María Dolores Ramos, *La modernización de España (1917-1939). Cultura y vida cotidiana*, Síntesis, Madril, 2002; Miren Llona, “From Militia Women to Emakume: Myths Regarding Femininity during the Civil War in the Basque Country”, Aurora Morcillo, *Memory and Cultural History of the Spanish Civil War. Realms of Oblivion*, Brill Publishers, Leiden, Boston, 2013; Inmaculada Blasco, *Paradojas de la ortodoxia. política de masas y militancia católica femenina en España (1919-1939)*, Prensas Universitarias de Zaragoza, Zaragoza, 2003; Nerea Aresti, “De heroínas viriles...; Nerea Aresti, *Médicos, donjuanes y mujeres...*; Raúl Mínguez, *Evas, Marías y Magdalenas. Género y modernidad católica en la España liberal (1833-1874)*, AHC-CEPC, Madril, 2016; Miren Llona, “Polixene Trabudua, historia de vida de una dirigente del nacionalismo vasco en la Vizcaya de los años treinta”, *Historia Contemporánea*, 21. zkia., 2000, 459-484.

harremana, 1996ko udan Txaro Arteagarekin pare bat aldiz hitz egin ondoren, hurrengo urteetan haien arteko elkarrizketak bertan behera geratu zirela, hain zuzen.³¹⁶

Bestetik, gutxienez talde batek atxikimendu kanpainarekiko kritikak helarazi zizkien. Donostiako Universidad Popular Mundo Nuevok adierazi zien arazoa lokala eta herrian bertan konpondu beharrekoa zela, eta taldeko hondarribiar batek kanpainan gardentasun falta zegoela salatzen zuen. Hala ere, kolektibo gisa ez, baina modu indibidualean, hogeita hamabi emakume kanpainara batzen zirela helarazi zieten.³¹⁷

Urtearen lehen hilabeteak aurrera zihoazen eta geroz eta hurbilago zegoen ekaina, Irungo Alarde eguna. Gatazka honetan, denborak paper garrantzitsua izan zuen. Izan ere, urtean behin, bai edo bai, Alardea ospatzen zen eta ez zegoen atzeratzerik, ez aldatzerik. Hori ikustarazteko, Irungo BAE hilero 30ean kontzentrazioak egiten hasi zen San Juan plazan, udaletxe aurrean. Horien bidez salatzen zuten ekainak 30erako denbora amaitzen ari zela eta geroz eta denbora gutxiago geratzen zela gatazka konpondu ahal izateko. Mertxe Tranchek³¹⁸ honela oroitzen ditu mobilizazio horiek:

“Lo que hicimos durante ese año, además, fue empezar una cuenta atrás. Empezamos, me parece, en septiembre, en octubre, cada día treinta hacíamos un acto para recordar: quedan nueve meses, quedan ocho meses, quedan siete meses, con la idea de que la gente se sintiera: ¡oye!, ¡pues hay que hacer algo! No sabíamos que luego íbamos a tener que contar por años, pero contábamos por meses. Bueno, ya se había creado también otro ambiente: ya nos conocíamos, gente que antes no nos conocíamos para nada (...).”³¹⁹

Argigarria da nola urte hartan gatazkaren soluzioa hilabeteen bueltan bilatzeko esperantza zuten eta inola ere ez zutela uste urteetan zehar luzatuko zenik. Bestetik, Alardeetan atera nahi zuten emakumeen artean, hau da, herri-komunitatetik kanporatzen ari ziren emakumeen artean, aliantza eta gerturapenen bidez, beste komunitate bat sortzen joan zen, Alarde parekideko komunitatea, hain zuzen. Komunitate horren sorrera eta garapenaren inguruan hitz egiten joango gara, baina lehenik eta behin,

³¹⁶ Mujeres de IPES, “Hondarribiko Alkate jauna, Hondarribiko udaletxea”, 1997/02/18; Xabier Markiegi Candina, “Alkate jauna”, 1997/02/11.

³¹⁷ Universidad Popular Mundo Nuevo, “Amigas”, 1997/02/13.

³¹⁸ Mertxe Tranche Irunen jaio zen eta BAEko kide izan zen koordinadora sortu zenetik. Emakumeak Alardean desfilatzearen alde lan egin zuen hasieratik eta BAEko aurpegi ezagunenetakoa izan zen. Historialaria eta bibliotekaria da, eta Alardearen inguruan ikertu eta idatzi izan du.

³¹⁹ Mertxe Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

azalpen batzuk ematea beharrezkoa da. Komunitate hori, hasiera batean, herri-komunitatetik kanporatu zituztenek osatu zuten. Hau da, ez zen borondate edo jardun propioz sorturikoa izan, baizik eta herriak arauak ez betetzeagatik gorputz *objektu* gisa markatu zituen eta estigmatizazio bidez gizatasuna kendu zien. Mercedes Arbaizaren hurrengo zita, non Julia Kristevari erreferentzia egiten dion, argigarria zaigu:

“Porque, como afirmó la filósofa Julia Kristeva, no es tanto la ausencia de limpieza y de salud lo que vuelve abyecto, sino aquello que perturba una identidad, un sistema, un orden «aquello que no respeta los límites, los lugares, las reglas» y que construye la diferencia social, añadiríamos nosotros, a partir de emociones como el miedo o la repulsa.”³²⁰

Bestea eraiki ahala, *beste* horiek antolatu eta autodefentsa termino eta logiketan mugitzen saiatu ziren. Etengabeko dialektika batean, herriak eurengan proiektatzen zuen irudia eta propioaren artean sortu eta garatu zen; indarkeria eta irainen, eta horien aurreko autodefentsaren artean; herritik kanporatzearen eta herriaren parte izan nahiaren artean. Emakumeak Alardean ateratzearen aldeko aldarriaren inguruan komunitate bat sortu zen, baina beste hainbat ardatz gurutzatu zituen, eta horiek aztertzea eta azaltzea izango da lan honen helburuetako bat. Horrez gain, ezin dugu komunitate hori harmoniatsu eta homogeen bezala aurkeztu; izan ere, barne eztabaida eta gatazkak etengabeak izan ziren. Hala ere, azpimarratu behar dugu babesgune eta segurtasun espazio izan zela, borrokan jarraitzeko beharrezko oinarri. Horretarako ere, 1997ko otsailean Irunen martxoaren 9an egingo zuten manifestazioaren deialdia zabaldu zuen BAEk:

“«No queremos ser nuevamente agredidas el 30 de junio y el 8 de setiembre y la manifestación tiene un carácter de prevención». Las mujeres mostraron su preocupación porque «no se están dando los pasos necesarios para evitar que los sucesos del año anterior vuelvan a suceder. Parece que nadie con poder y medios para evitarlo quiera hacerlo»³²¹

Aurreko urteko Alarde egunetako erasoak berriz ez errepikatzeko saiakeretako bat zen, BAEk Alardearen gatazkaren inguruan deituriko lehen manifestazioa. Otsailetik martxora bitartean, ordea, hau da, manifestazioaren deialdia kaleratu eta manifestazioa egin zen bitarte horretan, mugimendu batzuk egon ziren. Martxoan Irungo BAAk

³²⁰ Mercedes Arbaiza, “Cuerpo, emoción y política...”, 61.

³²¹ Alazne Basañez, “Manifestación por un Alarde no sexista”, *Egin*, 1997/02/22.

BAErekin martxan zituzten negoziazio saiakerak eten zituen, BAEk Irungo Alardean diskriminazio delitua zegoela demostratzeko epaitegietara jo baitzuen. Alarde tradizionalaren aldekoek Alardearen kontrako erasotzat hartu zuten, eta negoziatzeko borondate ezaren adierazle zela esan. Izan ere, behin sententzia bat egonik, negoziatziorako margen handirik ez zela egongo uste zuten. BAEren erabakia Alberto Buen Irungo alkateari emakumeen desfilatzeko eskubidearen onarpena egiteko eskaeraren erantzunak bultzatu zuen. Zeren Buenek 1996ko maiatzeko Irungo Alardeko Juntaren erabakia errespetatzen zuela esan baitzuen, eta horrekin beste ate bat itxi zion aldaketarako aukerari. Hondarrribian, berriz, irailaren 8an jasotako erasoan ardura udalari egotzi zion BAEk. Hondarrribiko BAAk salaketak kendu ezean negoziatzeko ezer ez zutela adierazi zuen, eta horren aurrean Juana Mugarrietakoak salaketak kentzeko prest zeudela esan zuen, BAAren jarreran aldaketa bat ikusiz gero.³²²

Testuinguru horretan, BAEk mahai inguru bat antolatu zuen Irunen, bertako alderdi politikoetako kideekin, Alardearen inguruko eztabaida emateko. Bertan parte hartu zuten Irungo Udalean ordezkariak zuten alderdi politiko guztiek, PPK izan ezik, hots, PSE-EEK, EAJk, HBk, EBk eta EAK. Gertakaririk entzutetsuena EAJko zinegotziak bere posizioa bota ondoren alde egitea izan zen:

“Antes de su retirada, Alberto Olabarrieta, tras manifestar que «defendemos la igualdad de los derechos entre hombres y mujeres», matizó que «el Alarde es una representación de las milicias forales y en él tienen cabida los hombres y mujeres», estas últimas como cantineras. «Es un patrimonio del pueblo y tiene que decidir el pueblo», afirmó sobre la incorporación de las mujeres. Se mostró favorable al cambio «pero no por imposición si no lo que decida la mayoría.»³²³

EAJren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren kontzepzioa, beraz osagarritasunean oinarritu zen, alegia, gizonek eta emakumeek, biek ala biek Alardean parte hartu ahal zutela, bakoitzak bere lekuan. Sexu-genero sistema bitarrean oinarritu ziren, beraz, eta milizia foralen errepresentazioa zela aldarrikatuz emakumeek kantina izan behar zirela. EAJren kontzepzio hori ez zen soilik Hondarribi edo Irungoa, hau da, EAJren nazionalismo eta ideologiarekin bat egiten zuen. Nerea Arestik XIX. mendearen

³²² Ana Grijalba, “Los defensores de la tradición ven difícil negociar por la denuncia de las mujeres”, *El Mundo*, 1997/03/01, 5; Garbiñe Olaizola, “Se rompen las conversaciones”, *Egin*, 1997/03/04, IV (Gipuzkoa).

³²³ Garbiñe Olaizola, “El Alarde visto por los cargos municipales”, *Egin*, 1997/03/06, V (Gipuzkoa).

amaierako eta XX. mende hasierako euskal nazionalismoaren genero idealak aztertzean honako hau dio:

“Consecuencia de ambas circunstancias, internas y más generales, se produjo la incorporación, que podemos denominar «sexuada» de las mujeres al movimiento nacionalista vasco. Se pretendió luchar contra las que se consideraban peligrosas extravagancias modernas, la amenazadora corriente de cambio que, se decía, pretendía hacer desaparecer las diferencias entre hombres y mujeres.”³²⁴

PSE-EEren barnean iritzi ezberdinak zeudela adierazi zuen Amador Villamiak, baina beti ere marko juridikoaren barruan jardungo zutela eta gizarteko adierazpen desberdinak onartuz. Gatazka politikoa beharrezko zela, eta konponbideak, beraz, soziala, integratzailea eta gehiengoarena izan behar zuela azaldu zuen. Posizio horrek bi gaien inguruan hitz egitea ahalbidetzen du. Alde batetik, gehiengoaren diskurtsoaren atzean botoen galeraren beldurra zegoen, batez ere, ikusirik Alardea Irungo botere paralelo bat zela eta bertan EAJk zuela indarra. Baina, bestetik, alderdi konstituzionala izanik, trantsizioaren eta horrek sorturiko statu quoaren defendatzaile eta zutabeetako bat, legea, ez betetzea eztaba daezina zen, eta horregatik, baita marko juridikoaren barruan jokatzearen posizioa ez betetzea, batez ere BAEk epaitegietara joan ondorengo testuinguruan. Azkenik, alderdiaren barruan posizio ezberdinak zeudela zioen; izan ere, PSE-EEren barnean bazeuden euren buruak feminista eta progresistatzat zituztenak, eta, beraz, Alardeetan emakumeak ateratzea guztiz logikoa zitzaien. PSE-EEren espainiar nazionalismoan generoak nola gurutzatzen zuten aztertzen saiatuko gara lanean zehar, eta emakumeei bertan zein paper esleitzen zitzaien.

EBko Rosa Sanchezek, berriz, emakumeek Alardean ateratzeko eskubidea zutela azaldu zuen eta hori negoziatzen zela. Konpainia misto bat sortzea eta Alardean parte hartzea izan zen eskubide hori gauzatzeko proposatu zuten bidea, eta batez ere, aurreko urtekoa ez gertatzeko helburuarekin. HBk BAEren jarduna txalotu eta adierazi zuen tradizioa berreskuratzeko hautua egin behar zela, Alardean euskara erabiltzearena besteak beste. EAJ eta PSE-EEren inguruan horrela mintzatu zen:

³²⁴ Nerea Aresti, “El *gentleman* y el bárbaro...”, 93.

“A los responsables del PSOE les achacó el «no mojarse y no dar la cara, en clara contradicción con sus principios ideológicos» y al PNV le acusó de «tener poco de nacionalismo vasco y mucho de misoginia»³²⁵

Azkenik, Maribel Castellók, EAko zinegotziak, emakumeak Alardean ateratzeak sortu zuen erreakzioaren atzean beste gauza batzuk ezkututzen zirela azaldu zuen, eta Alardea maite zutela, eta horregatik, desfilatu nahi zutela gogorarazi zuen. EAren posizioa Irunen eta Hondarribian ezberdina izan zen. Ikusi dugun bezala, momentuz, Irunen BAEren alde azaldu zen, eta Maribel Castelló zinegotziak emakumeak Alardean ateratzearen aldeko figura publikoa izanik, jazarpen handia jaso zuen. Hondarribian, berriz, Alardeko Juntaren alde azaldu, eta, beraz, emakumeak Alardean kantineraz soilik ateratzearen alde lerratu zen. Urteetan zehar, gainera, mugimendu desberdinak egin zituen Bidasoaldean alderdi horrek, ikusten joango garen bezala.

Hondarribiko BAA kolektiboaren barneko emakumeek 1997ko martxoaren 8rako kontzentrazio bat deitu zuten kantineraren figuraren defentsan. Martxoaren 8a, emakume langilearen nazioarteko eguna, erabili zuten horretarako. Izan ere, Alardearen gatazka berdintasunarekin eta emakumeen eskubideekin zerikusirik ez zuela esan zuten behin eta berriz, eta matxistak zirenen irudiari aurre egiteko modua emakumearen figura aldarrikatzea izan zen. Gainera, kantineraren figura eztabaida iturri potentziala zen. Potentziala diot, inoiz ez zelako publikoki eztabaida izatera iritsi. Emakumeak Alardeetan soldaduz irteteak sortu zuen gatazkak beste gai batzuen inguruan hitz egitea aurreragorako utzi zutela esan genezake. Dena dela, barne mailan eta eztabaida pertsonaletan, emakumeak Alardeetan ateratzearen aldekoek askotan jarri zuten zalantzan kantineraren papera. Ixabel Alkain Etxeberriak azaltzen du zergatik hasieratik pentsatu zuten kantineraren papera ez zalantzan jartzea, nahiz eta azaldu dudana bezala, bera kantinera atera zenean, 1983an, jada pentsatzen zuten figura hori ez zela batere feminista eta gizonen mesedetara zegoela:

“Kantineraren figurarekin ez ginen sartu lehenengo momentutik, estrategias. Zergatik esaten genuen, sartu nahi badugu horrelako Alardean, onartu behar dugu oraingoz dagoen bezala, onartu behar dugula. Eta paradoxa guzti horrekin bizi izan behar.”³²⁶

³²⁵ Garbiñe Olaizola, “El Alarde visto por los cargos municipales”, *Egin*, 1997/03/06, V (Gipuzkoa).

³²⁶ Ixabel Alkain Etxeberriari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren

Emakumeak soldadu gisa parte hartu ahal izateko, gustatzen ez zitzaizkien beste gauza asko, hasiera batean behintzat, onartu zituzten, uste zutelako horrela errazagoa izango zutela. Horrekin batera, eta martxoaren 8an bertan EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak BAEk jarritako Irungo alkatearen eta administrazio publikoaren kontrako errekurtsoa onartu zuen, eta bide bat ireki zitzaien horrekin. Hurrengo egunean, gainera, martxoaren 9an, “Emakumeak Alardean bai” pankartarekin manifestazioa burutu zuten Irunen, nahiz eta hasieran emakumeak Alardean ateratzearen kontra zeuden batzuek tentsioa sortu:

“Para demostrar que las mujeres participan desde hace tiempo en fiestas y tradiciones de distintos puntos de Euskal Herria, acudieron a Irun los Zanpantzarres de Ituren y Zubieta, los blusas de Gasteiz, irrintzilaris, las lamias de Mundaka y algunas tamborradas de Donostia e Ibarra, además de un grupo de dantzaris de la localidad.”³²⁷

Bukaerako ekitaldian, tradizioak garaietara aldatzeko beharra aldarrikatu zuten, baita emakumeak Alardean gizonen pare ateratzeak ondorengoei diskriminazio sexistarik gabeko gizartea uztea suposatzen zuela. Berdintasuna espazio publiko guztietan emakumeek parte hartzeko zuten eskubidea bermatzea zela azaldu zuten, eta horretarako, oraindik ere bide luzea zuten arren, egunez egun gehiago zirela mundu hobeago baten aldekoak.³²⁸

Manifestazioa egin eta bi egunetara *Eginek* emakumeak Alardean ateratzearen aldeko Irungo gizonen plataformaren sorreraren berri ematen zuen. Udal gobernuaren 1995-1999rako programan hitz emandakoa betetzea eskatzen zion udalari, eta batez ere 108. puntua:

“Según se indica en el punto 108 de dicho programa, «nuestro objetivo es que hombres y mujeres tengan las mismas oportunidades de participación en el ámbito público y en sus principales actividades, es decir, el trabajo remunerado, la cultura, la política y la vida social. En este marco proponemos continuar una

eguna: 2019/11/16 (pasarte bat).

³²⁷ Bego Zubia, “Clamor por un alarde con mujeres”, *Egin*, 1997/08/10, 11.

³²⁸ Ixabel Alkaini egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/16 (pasarte bat); “Cientos de manifestantes pidieron en Irún que la mujer desfile en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/03/10, 13; “Bidasoaldeko Emakumeak: «Aurrera segituko dugu arrazoia dugulako»”, *Egunkaria*, 1997/03/11, 13.

política educativa en pro de la igualdad denunciando y sensibilizando a la población sobre la discriminación en el mundo de las mujeres». ³²⁹

Puntu horrekin ados zeudela eta hori betearaztea emakumeak Alardean ateratzea suposatzen zuela aldarrikatzen zuten. Adierazi zuten EAJk, PSE-EEK eta EAK osatutako udal gobernua kontrako jarrera hartu zuela, Maribel Castelló EAKo zinegotziak salbu, eta horrekin Alardean atera nahi zuten emakumeak bezain irainduta sentitzen zirela. Gai horren inguruan sakontzea interesgarria da, emakumeak Alardean ateratzearen aldeko borrokan eta komunitatean genero harremanak eta kontzepzioak nola artikulatu ziren ikusteko. Izan ere, agerikoa den bezala, emakumeak izan ziren protagonista eta bultzatzaile, baina zein izan zen emakumeak Alardeetan ateratzearen aldeko gizonen jarrera eta lekua? Momentu honetara arteko kronologian ikusi dugun bezala, aldarri hori bultzatu zuten Emeki eta BAE emakumez osaturik zeuden. Hondarribiko Juana Mugarrietakoa taldean, sortzean aipatu dugun bezala, zalantza sortu zen gizonak onartu edo ez, eta Mariak azaltzen digu hartu zuten erabakiaren arrazoia:

“Montamos Juana Mugarrieta para trabajar sobre esta problemática y los hombres quisieron entrar y les dijimos que no, porque se enfadaron. Primero teníamos que hablar entre nosotras de lo nuestro, porque era muy fuerte lo que estaba ocurriendo. Un hombre, enseguida... Decidimos que no, aparte porque enseguida toman la palabra, rápido. Y la mujer, normalmente no tiene la costumbre, se corta más. Nos cuesta, nos cuesta... y decidimos que no, que no, que era una cosa de nosotras. Queríamos estar nosotras a lo nuestro y ahí se quedó. Y quedó con Juana Mugarrietakoa con solo mujeres.” ³³⁰

Mariak azaltzen duen bezala, emakumeak ziren bazterketa pairatzen zutenak, kasu horretan Alardean, eta ondorioz, haiei zegokien horren inguruan hausnartzea eta zer eta nola egin erabakitzea. Bestetik, bakoitzaren hezkuntza eta zapalkuntzagatik barneratutako dinamika eta joerak aipatzen ditu, nola gizonak askoz erraztasun handiagoa zuten hitz egiteko eta espazioa hartzeko, eta horrek botere harreman estrukturalak erreproduzitzen zituela. Hori ekiditeko, gizonak kanpo uztea erabaki zuten. Logika eta diskurtso horiek bigarren bolada feministak zabaldu eta barneratu

³²⁹ Garbiñe Olaizola, “Creada una plataforma masculina en apoyo a las mujeres en el Alarde”, *Egin*, 1997/03/11, IV (Gipuzkoa).

³³⁰ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

zituela esan dezakegu, emakumeen hausnarketa eta borrokarako espazio propioak bultzatu zituztenak. Gatazkan zehar eta egoera aldatu ahala, kolektibo eta espazio ezberdinak sortu ziren, eta bertako genero konposizioa desberdina izan zen, eztabaidak tarteko. Lanean zehar horiek azaltzen joango gara, baina puntu honetan eta emakumeak Alardean ateratzearen aldeko gizonen plataformaren sorreraren inguruan, Mertxe Trancheren hausnarketa ezinbestekoa da:

“Desde el principio, también, casi desde el principio, hubo una tentativa por parte de algunos chicos, de tomar el poder, de ¡Ostia! ¡Esto es una movida social y política de puta madre! y nosotros ¿no tenemos nada que decir? Y por todos los medios trataban de filtrarse en las decisiones ¿no? Y nosotras era: esto es nuestro. A veces, incluso, había decisiones de las que vayan a salir [en el Alarde], porque si no, el miedo de las otras, también hacía que las decisiones no fueran las que creíamos que tenían que ser.”³³¹

Tranchek gizon batzuen jarrera kritikatzeko du, nahiz eta haien laguntza eta babesa eskertu. Izan ere, berdintasunaren edo feminismoaren borroka subjektuaren eztabaida historikoa ezinbestean eman zen gatazka horretan. Batzuen ustez, borroka gizon eta emakumeek egin behar zuten; helburua Alarde parekide bat izanik, bidea batera egin behar zuten. Beste batzuek, ordea, nahiz eta helburua gizon eta emakumeek parekidetasunean Alardeetan desfilatu ahal izatea izan, momentu horretako zapalkuntza estrukturala borroka eta kolektiboetan erreproduzitzen zela eta posizio ezberdinetan zeudela ikusirik, emakumeen espazio propioak defendatu zituzten. Lehenengo momentuan azken hori gailendu zen arren, ondoren ikusiko dugun testuinguru aldaketak gauza asko mugitu zituen.

1997ko martxo bukaeran iritsi zen Irungo 2. Auzitegiak Hondarribiko Alardeko gertakarien ondorioz BAEk jarritako kereilak atzera bota zituenaren berria. 1996ko irailean, alde batetik, Hondarribiko Alardean sartzen saiatu ziren emakumeen kontrako erasoan egile ziren gizonak salatu zituzten. Eta bestetik, Herri Ekimenaren bitartez, 156 indibiduok eta sei elkartek firmatuta beste salaketa bat jarri zuten Hondarribiko alkate eta Alardeko agintarien kontra. Honela zioen *Diario Vascon* kereila horren inguruan epaileak erabaki zuenak:

³³¹ Mertxe Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

“El Juzgado entiende, en función de la exposición de los hechos efectuada por las representantes de Bidasoaldeko Emakumeak el 21 de setiembre, que la dignidad de las mujeres no ha sido ofendida, al tiempo, que añade que los acontecimientos acaecidos en la calle Nagusia de Hondarribia «derivan más bien de un estado de arrebató o de ofuscación». (...) El Juzgado de Irún no ha encontrado ningún tipo de delito en este sentido, tras señalar que el alcalde «no ha impedido a ninguna persona ejercer sus derechos cívicos, expresión no equivalente a derechos fundamentales.»»³³²

Urteetan zehar luzatuko zen epaitegietako batailaren lehen erantzuna izan zen, eta instituzioek gertatutakoari garrantzia ez ematearen joera berberean deliturik ez zegoela adierazi zuten. Oraindik ere, Irunen, bide administratiboan jarritako salaketaren erantzuna falta zen, Alardeko Juntak ordenantzaren inguruan eginiko interpretazioaren harira jarritakoa. Esan bezala, geroz eta gertuago zegoen Irungo Alarde eguna eta ez zegoen inolako adostasunik.

Hondarribian, 1997ko apirilean, beste dokumentu anonimo bat zabaldu zen, “A los ciudadanos de Hondarribia” izenekoa, eta “Hondarribiko herria (sic) ez du barkatuko, Gora Hondarribia, Gora Ama Guadalupekoa” esaldiekin firmatuta. Honetan ere “traidoreen” izenak ageri ziren, lokal eta kanpotarren artean berezita. Dokumentuaren berezitasun handiena da progresuaren eta aurrerakuntzen lorpena balio eta tradizioekin harmonian egon zitekeela sinesten zuten hondarribiarrei zuzenduta zegoela eta HBko jarraitzaile eta boto-emaileak izandakoak zirela ziotela:

“Ayer simpatizabamos (sic) y votabamos (sic) a HB, creyendo ingenuamente que este partido representa los sentimientos e inquietudes del pueblo, pero a raíz (sic) de la pretensión de algunas mujeres de formar parte en el alarde como soldados, a pesar de la oposición general, y recibir de HB su apoyo incondicional, nos sentimos humillados y traicionados, porque HB desprecia nuestros sentimientos y a la opinión mayoritaria de nuestro pueblo. Semejante traicion (sic) debe tener respuesta clara y contundente. (...) También (sic) desde aquí (sic) denunciamos a

³³² “Desestimadas la querellas por las agresiones del Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1997/03/26.

nuestro hasta hace poco periodico (sic) EGIN por la manipulacion (sic) e intoxicacion (sic) que hace del tema que estamos tratando.”³³³

Dokumentu horrek eta elkarrizketatuen testigantza batzuek HBren barnean izan zen gatazkaren zantzuak ematen dizkigute. Izan ere, ikusten joan garen bezala, HBk Alardeetan atera nahi zuten emakumeei babesa adierazi zien, bai Irunen eta bai Hondarribian. Horrek, ordea, ez du esan nahi barne mailan eztabaida eta gatazkak egon ez zirenik. Dokumentuan dezepzio eta traizio sentsazioa gailentzen da, lehen HBk herriaren sentimendu eta egonezinak kontutan hartu eta babesten zituela sinetsi ondoren, hori horrela ez zela deskubritzeak sorturikoa. Hemen, berriro ere, herriaren termino eta kontzepzioaren inguruan hitz egitea dagokigu. Izan ere, HBk herriaren defentsan eta eraikuntzan jardungo zuela aldarrikatzen jarraitu zuen; aitzitik, dokumentuaren egileek guztiz kontrakoa pentsatzen zuten. Horrekin oso argi geratzen da herriaren kontzepzio ezberdinek nola talka egiten zuten; izan ere, herria ez da zer edo zer neutroa, ez da herritarren multzo bat, baizik eta generoak, klaseak eta beste hainbat ardatzek gurutzatzen duten eraikuntza bat. Alardearen auzian HBk hartu zuen posizioak aldarrikatzen zuen herria emakumeek Alardeetan parte hartu ahal zuten lekua zen. Traizionatuak sentitu zirenen arabera, berriz, gehiengo batek tradizioarekiko sentitzen zuena babestea zen herria defendatzea. Xabi Bengoetxea Erriondoren³³⁴ testigantzan horren inguruko informazioa ematen digu:

“Zeren etengabe esaten zaigu Ezker Abertzalea izan zela gatazka hau politizatu zuena. Ezker Abertzaleak egin du sufritu besterik ez gatazka honetan, zeren gatazka sortu zenean, gatazka sortu zen asanbladan bertan eta egondu zen, a punto, pikutara joateko. Ez zen gertatu, baino Ezker Abertzaleak bere gain hartu zuen bere ardura, bere ardura politikoa. Erabaki zuen, inork ez ziola esan behar zer egin behar zuen. Ez dakit, 36 jendea kunetetan zegoen, 68an akabatzen dute Txabi eta orain, hemen, emakumeak atera nahi dutela Alardean botako dugu basuretara haiek egin duten lan guztia, ez. Erabaki zen aurrera egitea herri honetan. Horrek ekarri zuen kriston suntsiketa Ezker Abertzalearen inguruan. Garai horretan, hori baino lehen, Ezker Abertzalea egon zen herri honetan bi

³³³ “A los ciudadanos de Hondarribia”, 1997/04/XX; “Amenazas anónimas por el alarde”, *Egin*, 1997/04/10, 14.

³³⁴ Xabi Bengoetxea Erriondo 1984ean jaio zen, Hondarribian. Alardea ez zaio inoiz gehiegi interesatu, baina gurasoek emakumeek desfilatzearen alde hasieratik hartu zuten posizio, eta bere gain eragina izan zuen. Herri mugimenduan ibilia eta Jaizkibelen desfilatzen du.

bozkara, bi edo lau ez dakit, Esteban Lekuonarekin, alkatetza lortzeko, eta PNVk hori oso ongi zekien.”³³⁵

Lehenik eta behin Ezker Abertzaleari egin zaion kritika nagusia, gatazka politizatzearena, ukatzen du, eta gatazkan batez ere Ezker Abertzaleak sufritu zuela dio. Bengoetxearen arabera, Ezker Abertzalearen baitan tentsio eta eztabaida handiak egon ziren, eta horrek ia suntsitu zuen nukleo lokala. Jarraian, Ezker Abertzalearen historiako erreferenteak aipatu, eta horrekin ere, herriaren eraikuntza nazionalaren baitako elementu eta ardatzak azaltzen ditu. Hau da, elkarrekin lotzen ditu gerra zibileko galtzaileak, alegia, 1936an altxamendu frankistak garaitu eta hil zituenak, 1968an Txabi Etxebarrieta ETAko militante eta teoriko garrantzitsuaren hilketa eta Alardean emakumeak atera ahal izatea. Kontraesanak kontraesan edo zailtasunak zailtasun, desfilatu nahi zuten emakumeen kontra azaltzeak egindako guztia alferrik egitea suposatzen zuen, beraz, Bengoetxearentzat eta Ezker Abertzaleko kide askorentzat. Horrek Hondarribiko Ezker Abertzaleari eragindakoa azaltzeko adibidera eramaten gaitu, boto kopurua zenbatuz. Gehiengoa lortzeko bi bototara egon zela aipatzen du 1987an; EA lehena geratu zen eta lau botorak HB. Aurrerago, 1999ko udal hauteskundeekin aztertuko dugu hobeto, alderdi politikoen boto kopurua gatazkarekin erlazionatuz, baina momentu honetan esan beharra dago, 1987tik beste bi alditan izan zirela herri bozak gatazka lehertu aurretik eta horietan HBk jaitziera nabaria izan zuela.³³⁶

Apirilean ere Irungo BAA biltzen zen lokalean “agresiorik ez” eta “aski da, matxistak” zioten pintadak egin eta sarraila zigilatu zietela salatu zuten. Horrekin batera beste manifestazio baterako deialdia zabaldu zuten, eta BAEk egindako errekursoari alegazioak jarri zizkietela azaldu. Bestetik, BAErekin izandako elkarrizketek ez zutela inongo fruiturik eman esan, eta hurrengo esaldiarekin amaitu zuten prentsaurrekoa: “«Ez dugu onartzen», zehaztu zuten, «gizonez trabestitutako emakumezkoek soldadu bezala parte har dezaten alardean, hau ez baita ihauteria.»”³³⁷ Azken esaldiak asko erakusten digu emakumeak Alardeetan ateratzearen kontrakoek zuten genero

³³⁵ Xabi Bengoetxea Erriondori eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2018/12/26 (pasarte bat).

³³⁶ Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Junio 1987. Hondarribia”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1991. Hondarribia”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1995. Hondarribia”.

³³⁷ “Alardearen inguruko auzia Auzitegi Nagusira iritsi da”, *Egunkaria*, 1997/04/10, 12.

kontzepzioen inguruan. Izan ere, haientzat emakumeak soldaduz janztea gizonez trabestitzea zen, praktika horrek gizartean zituen konnotazio negatibo guztiak horren gainean jarriz. Alardearen errito izaera eta seriotasunarekin, gainera, guztiz onartezina egin zuten emakumeak soldaduz irtetea, Alardearen esentzia aldatzearen esanahia eman baitzioten.³³⁸

1997ko apirilaren 12an egin zuten, beraz, Irunen manifestazioa, urtarrilean egindako formatu berberean. Bi pankartarekin, esaldi berberekin eta lehenengoa emakumeek eramanez. Alardeko agintariek ere parte hartu zuten, eta Irunen oroitzen zen manifestaziorik jendetsuena izan zela zioen *Deiako* berriak. Manifestazio bukaeran irakurritako komunikatua honela amaitu zen:

“Quienes pretenden hacer desaparecer el Alarde y quieren hacer simplemente un arma de su lucha política particular, deberán saber que aquí estaremos cuantas veces haga falta para defender lo que ha sido, por encima de todo, el principal vínculo de unión entre todos los iruneses y monumento vivo de nuestra historia.”³³⁹

Ikusi dugun bezala, hilabete gutxitan emakumeak Alardeetan ateratzearen kontra bi manifestazio eta emakumeak ateratzearen aldeko beste bat egin ziren Irunen. Alardeko agintariak emakumeak soldaduz ateratzearen kontrako mobilizazioetan parte hartzea esanguratsua da. Izan ere, zuten prestigio eta erabakimenak margen gutxi uzten zion emakumeak Alardean ateratzearen aukerari. Alardeko agintariak, beraz, BAArekin lerratu ziren, eta Alardea defendatuko zutela esan zuten. Hilabete horietan lehen erantzun judiziala ere eman zen, eta 1996ko Hondarribiko gertakariak delitu ez zirela ondorioztatu zuten. Azaldu dugun bezala, egoera hartan, Irungo alderdi politikoek iritzia eman zuten mahai inguru batean, eta EAJ eta PSE-EE emakumeak desfilatzearen kontra posizio hartu zuten. EB, HB eta EA, ostera, alde, eta PPk ez zuen parte hartu. Irungo Udalean zuten ordezkartzari begiratzuz gero, gehiengo osoa emakumeak Alardean ateratzearen kontra zegoen. Azkenik, adierazgarriak izan ziren panfleto anonimoak eta beste kaleko jazarpenak, eta horiek, batzuei bizitza guztiz aldatu zien. Mariak bizitakoa honela kontatzen du:

³³⁸ Iñaki Lekuona, “Otra manifestación, este sábado, en torno al Alarde”, *Egin*, 1997/04/10, III (Gipuzkoa); Brice Chamouleu, *Tiran al maricón...*; Judith Halbertstam, *Masculinidad...*

³³⁹ Mañu de la Puente, “El pueblo de Irún volvió a reclamar el Alarde tradicional”, *Deia*, 1997/04/13, 8.

“¡De miedo! Que te insultara alguien, que se metían contigo. Tenía Pedrito (...). Ese, siempre hacía ademán de atropello en la calle, si iba con el coche o la moto. Estaba todo el día... O sea, yo no le veía, y él me veía y ¡ra!, hacía ademán. Y yo llegaba todos los días llorando a casa. Eso es, por ejemplo. Y, luego, hemos tenido en grupo muchas movidas de encerronas, intento de agresión grupal. De esas hemos tenido un montón, pero nos daba miedo denunciar, entonces, por las represalias.”³⁴⁰

Testuinguru horretan, gatazka lehertu ostean aireratutakoa kokatzen joan zen eta posizio hartzen. Hala ere, gatazkaren historian gertatuko ziren gertaerek potentziala izan zuten aktoreak eta protagonistak tokiz mugitzeko, nahiz eta geroz eta solidoagoa edo pisutsuagoa eta mugitzen zailagoa izan guztia. Gainera, geroz eta gertuago zegoen 1997ko Irungo Alardea, oraindik ere inork ez zekielarik zer gertatu zitekeen bertan.

3.4. Urratsez urrats, korapiloa estutuz

Esan bezala, 1997ko Irungo Alardean zer gertatuko zen inork ere ez zekien. Izan ere, alde batetik, Alardeko agintariak eta BAA zeuden, esanez ez zituztela Alardean emakume soldaduak onartuko, eta, bestetik, BAE zegoen, negoziatzen eta errekurtsio bidez emakumeek parte hartzeko eskubidea bermatzen saiatzen. Bi hilabete besterik falta ez zirenean, apirilaren 29an eginiko prentsaurrekoan baieztatu zuten 1997ko Irungo Alardean emakumeek berriro ere eskopetarekin parte hartuko zutela. Izan ere, hurrengo egunean EAJk, PSE-EEK eta PPK mozio bat aurkezteko asmoa zuten, eta bertan zioen sententzia iritsi arte gehiengoaren nahiarekin bat egiten zutela eta sententzia iristean errespetatuko zutela. BAEk horren aurrean honako iritzi hau zuen:

“(…) epaileek ez dute «inondik inora» emakumeek eskopetero moduan parte hartzeko eskubiderik duten edo ez erabakiko, alkatea legearen kontra aritu zen edo ez baizik. (...) Gogoratu dute, alardean desfilatzeko eskubidea ez dela sententzia baten araberakoa, ezta konstituzioaren araberakoa ere; «Giza Eskubideen

³⁴⁰ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

Deklarazio Unibertsalak berak aitortzen du gizaki guztien arteko berdintasuna», azpimarratu dute.»³⁴¹

Hau da, BAEk argi zuen emakumeek Alardeetan ateratzeko eskubidea zutela eta horregatik aurrera jarraituko zutela. Sententzia aldekoa edo kontrakoa izateak ez zuela ezer erabakiko eskubide horren gainean, eta beraz, emakumeak Alardean ateratzearen inguruan. Horrekin batera, EBk eta HBk hiru mozio aurkezteko asmoa zuten: lehenik, 1996ko Alardeko istilu eta erasoak gaitzestea eskatzen zuena; bigarrenik, Alarde egunean diskriminazio mota guztiak debekatzea, eta, azkenik, emakumeek bertan parte hartzea bermatzeko bitartekoak jartzea. Udaleko plenoan, beraz, mozio horiek aurkeztu, eta azken hiruak ez ziren aurrera atera, bai, ordea, PPK, PSE-EEK eta EAJk aurkeztutakoa. Berezitasunetarikoa bi PSE-EEko zinegotzi zen Román Ricoren eta EAko Juan Zazperen jarrerak izan ziren, zeren eta bi horiek adierazi zuten emakumeak Alardean ateratzearen alde zeudela, baina gehiengoaren iritzia errespetatzearen aldeko mozioaren alde egin zuten, aurreko urteko gertakariak ekiditeko. Horren aurrean, BAEk adierazi zuen auzitegietan mozioaren errekurtsoa aurkeztuko zuela, eta Arartekoak Irungo herritar guztiek Alardean aktiboki parte hartzeko eskubidea berretsi zuen, espainiar konstituzioan oinarrituta zegoena. Eskubideak gutxiengoarenak baziren ere, gehiengo batek zalantzan jarri ezin zituela adierazi zuen, eta EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak sententzia atera arte, neurriren bat hartu behar bazuen udalak, emakumeak Alardean parte hartzearen aldekoa izan beharko lukeela.³⁴²

Mozioa onartu eta egun batzuetara, Irungo Udalak berriro ere Javier Vergara aukeratu zuen Alardeko jeneral. PSE-EE, PP, EAJ eta EAren botoei esker, Vergara, Irungo BAAk deituriko emakume soldaduen kontrako manifestazioetan parte hartu zuena, 1997ko Irungo Alardeko jeneral izendatu zuten. EBk kontra bozkatu zuen, esanez emakumeen parte hartzearen kontra jarri zela, funtzio bakegile bat bere egin beharrean.

³⁴¹ Jone Larrañaga, “Bidasoaldeko Emakumeak: «aurten ere irtengo gara alardean», *Egunkaria*, 1997/04/30, 10.

³⁴² “Bidasoaldeko Emakumeak anuncia que participará en el Alarde de Irún”, *El Diario Vasco*, 1997/04/30, 13; Bego Zubia, “Irungo Alardean emakumeak izango dira”, *Egin*, 1997/04/30, 16; Jone Larrañaga, “Bidasoaldeko Emakumeak: «aurten ere irtengo gara alardean», *Egunkaria*, 1997/04/30, 10; “El Pleno de Irún pide a las mujeres respeto a la voluntad de la mayoría sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/05/01, 12; Iñaki Lekuona, “Las mujeres de Irun, sin apoyo municipal”, *Egin*, 1997/05/01, 18; Jone Larrañaga, “Alardean ez irteteko eskatu die Udalak Bidasoaldeko Emakumei”, *Egunkaria*, 1997/05/01, 13; Mañu de la Puente, “Alarde: el Ayuntamiento de Irún solicita respeto a las mayorías”, *Deia*, 1997/01/02, 8; Ana Grijalba, “Las feministas recurrirán el acuerdo de ayer del Ayuntamiento Irún”, *El Mundo*, 1997/05/01, 5; “El Ararteko ratifica su postura sobre la participación de las mujeres en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/05/04, 22.

HBk bozketan parte hartuko ez zuela adierazi zuen, eta alkateari galdegin zion berak bete zezan jeneralaren postua eta 1996ko Alarde eguneko gertaerak ez errepikatzearen ardura.³⁴³

Javier Vergara Irungo jeneral berrizendatu zuten egun berean, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak bere gain hartu zuen BAEk aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ebazteko ardura. Hots, behin BAEk Alardeko Juntaren ordenantzaren interpretazioa errekurritu ondoren, Irungo BAAk alegazioak aurkeztu zituen, esanez ez zegokiola auzitegiari horren inguruan ezer erabakitzea. Maiatzaren 11n atera zen berriak zioen auzitegiak azken alegazioa atzera bota zuela:

“Presidida por el alcalde de Irún, Alberto Buen, la Junta del Alarde está integrada por un vocal de cada uno de los grupos políticos con representación en el Ayuntamiento, el general, un ex-general, el comandante del último Alarde y representantes de los mandos y de la tropa. El hecho de que el TSJPV se haya declarado competente para resolver el recurso, «supone que considera a la Junta del Alarde como un órgano administrativo», explica la asesora jurídica de Bidasaldeko Emakumeak, María Luisa Agirretxe. «Ahora tendrá que resolver si ese órgano administrativo está vulnerando un derecho».»³⁴⁴

Ekainaren 30a baino lehen ebaztea espero zen, Irungo Alardeari eragingo baitzion. Aurrera egin zuen, beraz, BAEk aurkeztutako errekurtsok, baina ez Juana Mugarrietakoak Hondarribiko gertakariak salatzeke hasi zuen bide penalak. Izan ere, Gipuzkoako Auzitegi Probintzialak, behin Irungo Auzitegiak atzera bota ondoren, kereila ez zuen onartu. Maiatzeko lehen erdialdeko egunetan ere BAAkoek Irungo Ertzaintzaren polizia-etxean Egizan antolakundea salatu zuten, Tolosan zabaldu zituzten kartel batzuegatik. Egizan 1987an Koordinadora Abertzale Sozialistaren (KAS) barruan adar autonomo gisa eratu zen emakume talde feminista zen, eta hasieratik emakumeek Alardean parte hartzearen alde posizio hartu zuen, LAB sindikatuak bezala. 1997ko maiatzean kartel batzuk atera zituzten Hondarribiko eta Irungo BAAren, alderdi politiko eta Alardeko agintari batzuen kideen aurpegi argazkiekin eta “Alardearen zapaltzaileak” esaldiarekin. BAE hasieratik aldendu zen kartel horiengandik, eta

³⁴³ “El pleno reelige a Javier Vergara por cuarto año como General del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/05/10, 18.

³⁴⁴ “El TSJPV se declara competente para resolver el conflicto del Alarde de Irún”, *El Diario Vasco*, 1997/05/11, 10.

adierazi zuen haiek ez zutela zerikusirik horiekin, on baino kalte gehiago egiten zietela. Hori guztia gutxi ez balitz, Maribel Castellók, Irungo kultura zinegotziak, Irungo epaitegietan Carlos Busto Hondarribiko Alardeko danbor nagusia salatu zuen, kaletik mehatxatu ostean. *Eginen* berri batek honela zioen: “A menos de 50 días de la celebración del Alarde de Irún el ambiente de la ciudad está lejos de la calma.”³⁴⁵

Ez ziren gauzak lasaitzen ari, ezta akordioetara iristen ari ere, eta korapiloa geroz eta estuago zegoen. Testuinguru horretan publikatu zen Irungo Udalak EHUko Euskobarometrori eskatutako inkesta. Bertan, 600 galdetegi egin ziren, eta horietatik % 65,7k Alardea ordura arte bezala mantentzearen nahia adierazi zuen. Polarizazioa handia zela ondorioztatu zuten; izan ere, % 38,9 ez zegoen prest bere posizioa aldatzeko, nahiz eta horrek istiluetara eraman. Baina % 56,1 bai, eta horrek bidea ireki zezakeen negoziazioetarako. Azkenik, esan beharra dago, inkestaren emaitzek % 95eko fidagarritasuna zutela. Handik aurrera, nahiz eta lehenago ere antzeman, Irunen emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoak gehiengoa zirenaren ideia ikerketa batean oinarrituta egongo zen. HBk inkesta hori kritikatu eta salatu zuen BAAk eskatzen zuen erreferendumaren simulakroa zela. Horrekin batera adierazi zuen emakumeen eskubide baten inguruan ezin zela eztabaidatu eta udalak iritzi horiek publikatuta arduragabetasun handian erori zela.³⁴⁶

Irunen Jaiak Guztiontzat izeneko plataforma aurkeztu zen maiatzaren bukaeran, emakumeak Alardean ateratzearen aldeko gizonoz osatuta. Horren aldeko firma bilketa hasia zutela adierazi zuten eta jendearekin hitz eginda haien ideiak zabaltzen ari zirela. Talde zabala eta sentsibilitate politiko eta sozial ezberdinetakoak zirela adierazi zuten, eta konponbidearen parte izateko eta negoziatzeko prest agertu ziren, nahiz eta aitortu zaila izango zela. Gizon horietako batzuek Alardean parte hartzen zuten, baina

³⁴⁵ Iñaki Lekuona, “El TSJPV ve al Consistorio responsable de la exclusión de las mujeres del Alarde”, *Egin*, 1997/05/11, V (Gipuzkoa); “Defensores del Alarde tradicional presentan una denuncia por unos carteles con sus fotos”, *El Diario Vasco*, 1997/05/13, 13; “Egizanen kontrako salaketa aurkeztu dute Betiko Alardearen Aldekoek”, *Egunkaria*, 1997/05/14, 10; Iñaki Lekuona, “Bidasoaldeko Emakumeak no suscribe los polémicos carteles editados por Egizan”, *Egin*, 1997/05/13, V (Gipuzkoa).

³⁴⁶ Mañu de la Puente, “Irún: un estudio de opinión pública se inclina por no modificar el Alarde”, *Deia*, 1997/05/16, 8; “El 65,7% de los iruneses se opone a que las mujeres desfilen en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/05/16, 13; Iñaki Lekuona, “Una mayoría de irundarras es dispuesta a ceder en el Alarde”, *Egin*, 1997/05/16, 21; Ana Grijalba, “El 65% de los irundarras es contrario a un Alarde con mujeres mientras que un 21% está a favor”, *El Mundo*, 1997/05/16, 15; “Irundar gehienek ez dute emakumezko nahi Alardean”, *Egunkaria*, 1997/05/17, 11; Iñaki Lekuona, “HB critica la encuesta sobre el Alarde”, *Egin*, 1997/06/03, VII (Gipuzkoa).

horietariko asko laster kanporatuko zituzten bertatik, barrutik zerbait egiteko aukera moztuz.³⁴⁷

Ekainean Hondarribiko eta Irungo Kontseilu Pastoralak ere deklarazioak egin zituen hamabi parrokiatan, jaia bakean eta harmonian bizi ahal izateko bitartekoak negoziatzeko deia eginez. Irainak, erasoak eta jarrera fanatikoak gaitzetsi zituen, baina konfliktoaren parte bakoitzaren arrazoiak errespetatzen zituztela esan, eta horretan sartuko ez zirela adierazi zuten. Egun horien bueltan Arartekoak proposamen bat bota zuen. Ikusita zaila izango zela urte hartan bertan emakumeek edozein modutan Alardean parte hartzea, konpainia gutxi batzuetan bakarrik onartzeko eskaera egin zien Alardeko agintari eta konpainiei. Lehen pausu bezala proposatu zuen, negoziazio baten baitan eta alde guztietatik jarrera arintze aldeko apustua eginez, konponbidea lortzeko.³⁴⁸

Irungo Udaleko plenoan emakumeei Alardean ez parte hartzearen eskaeraren mozioa onartu eta hilabetera, Gasteizko Legebiltzarrean alderdi guztiek deklarazio instituzional bat firmatu zuten. Bertan, udalek behar ziren elkarrizketak egin zituzten eskatu zuten, Irun eta Hondarribiko Alardeak parekidetasunean ospatu eta emakumeen parte hartzea bermatzeko. Hor kontraesan handi bat zegoen alderdi politiko batzuen barnean, maila lokal eta EAE mailan hartutako posizioaren artean. Hau da, EAJk, PPK eta PSE-EEK Irungo plenoan emakumeei Alardeetan ez irteteko eskaera egin zieten, eta legebiltzarrean, berriz, bertako alkateei eskatu zieten, haien alderdikide ziren alkateei, emakumeak berdintasunean parte hartzeko baliabideak jartzea. Borja Jauregi Hondarribiko alkateak horren aurrean bera Hondarribiko alkatea zela esan eta hondarribiar gehiengoan nahia beteko zuela adierazi zuen. Horrez gain, Hondarribiko Alardea ez zuela udalak antolatzen esan zuen, bere gainetik ardura guztiak kendu ahal izateko. Irungo EAJ ere bere posturan berretsi zen eta adierazi zuen sententzia firme batek gai horren inguruan erabakiko zuena errespetatuko zuela. Irungo EBk, ostera, bat egin zuen guztiz legebiltzarreko deklarazioarekin, eta gatazka konpontze aldera, Arartekoak egin zuen proposamenarekin jarraituz, konpainia misto baten bidez

³⁴⁷ Alazne Basañez, "Hombres de Irún buscan un Alarde integrador", *Egin*, 1997/05/18, 25; Mikel Arrieta, "Lasaitasunerako deia Irunen", *Egunkaria*, 1997/05/18, 11; Ana Grijalba, "Nace en Irún una plataforma de hombres por la integración femenina en el Alarde", *El Mundo*, 1997/05/18, 5.

³⁴⁸ Mañu de la Puente, "El Consejo Pastoral de Irún-Hondarribia llama a celebrar el Alarde en paz y fiesta", *Deia*, 1997/06/03, 10; "Los sacerdotes abogan por el diálogo para resolver el conflicto del Alarde", *El Diario Vasco*, 1997/06/03, 14; "El Ararteko pide a alguna de las compañías del Alarde que permita desfilar a las mujeres", *El Diario Vasco*, 1997/06/04, 20; Iñaki Lekuona, "El Ararteko apunta una solución para el Alarde", *Egin*, 1997/06/04, V (Gipuzkoa).

emakumeak Alardean atera ahal izatea proposatu zuen berriro ere. Irungo PSE-EEK eta PPK jarrerari eutsi zioten, eta Alberto Buen alkateak adierazi zuen ez zela eskubide bat, tradizio kontu bat baizik, eta gehiengoak erabaki behar zuela hori nola gauzatu.³⁴⁹

Arartekoaren proposamenak huts egin zuen, konpainia desberdinekin bildu ondoren guztiek ezezkoa erantzun ziotelako emakumeak haien konpainietan desfilatzearen eskariari. Baina, oraindik ere, ekainaren 30erako denbora zegoela adierazi zuen eta konponbide bat bilatzeko lanean jarraituko zuela. Bide horretan, ekainaren 11an, BAE eta BAAko kideak Eusko Legebiltzarrera joan ziren Giza Eskubideen Batzordean haien iritzia azaltzera. BAAk aurreko egunetan ez zela joango adierazi zuen, Alardearen gaiak giza eskubideekin zerikusirik ez zuelako, baina BAAren kide batzuen eskaeragatik, azkenean joatea erabaki zuten, aukera izango zutelako haien hitza entzuna izateko. BAEk egunerokotasunean jasaten zuten jazarpena salatu zuen, hots, emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoek beldurraren eta indarraren estrategia erabiltzen ari zirela. Deklarazio instituzionala eskertu zuen, baina baita alderdi batzuen “inkoherentzia politikoa” mahai gainean jarri ere, ordezkari lokalek guztiz kontrako jarrera hartu baitzuten.³⁵⁰ Horrez gain, honako hau adierazi zuen Mertxe Tranche bozeramaileak: “Es una situación extrañamente dramática porque existe una fecha, un día y una hora, una cita, para una vulneración de derechos que se produce por medio de la fuerza física.”³⁵¹ Irungo BAAk eginiko agerraldia, berriz, honela jaso zuen *Egineko berriak*:

“La intervención de los representantes de Irungo Betiko Alardearen Aldekoak se produjo en un tono distinto. (...) solicitó al Parlamento «que reconozca expresamente que la decisión soberana en este tema la ostentan los tribunales de

³⁴⁹ “Declaración institucional por alardes igualitarios”, *Egin*, 1997/06/06, 20; “El Parlamento, a favor de que las mujeres participen en los alardes”, *El Diario Vasco*, 1997/06/06, 12; “Emakumeek Alardean parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatuko du Legebiltzarrak”, *Egunkaria*, 1997/06/06, 12; F. Odriozola, “Apoyo institucional al Alarde con mujeres”, *Deia*, 1997/06/07, 12; Ana Puelles, “Unanimidad al pedir un alarde igualitario”, *Egin*, 1997/06/07, 17; “Herriari zor natzaio eta ez dut nire jarrera aldatzeko motiborik ikusten”, *Egunkaria*, 1997/06/07, 10; F.O., “El PNV de Irun espera sentencia sobre el Alarde y reclama «cordura»”, *Deia*, 1997/06/08, 10; “La postura del Parlamento Vasco sobre el Alarde provoca división de opiniones”, *El Diario Vasco*, 1997/06/08, 22.

³⁵⁰ “Alardeari buruzko bi jarrerak Giza Eskubideen batzordean”, *Egunkaria*, 1997/06/08, 12; Xabier Garmendia, “Los tradicionalistas del Alarde anuncian hoy si acuden a Gasteiz”, *El Mundo*, 1997/06/10, 3; “Los defensores del Alarde tradicional no comparecerán en el Parlamento Vasco”, *El Diario Vasco*, 1997/06/11, 16; Mikel Lizaso, “«Betiko Alardearen Aldekoak» no irá a Derechos Humanos”, *Egin*, 1997/06/11, 23; “Los defensores del Alarde tradicional deciden acudir hoy al Parlamento”, *El Diario Vasco*, 1997/06/12, 16; I. Petxarroman, “Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean alardeak aztergai gaur”, *Egunkaria*, 1997/06/12, 11; I. Urrutia, “Los partidarios del Alarde tradicional acuden hoy al Parlamento”, *El País*, 1997/06/12, 10.

³⁵¹ Ana Puelles, “Alarde de buenas intenciones en Gasteiz”, *Egin*, 1997/06/13, 21.

Justicia». Exigió a la Cámara que se comprometiera a acatar la decisión que sobre este tema tome la Administración de justicia. También pidieron a la Comisión que inste a Bidasoaldeko Emakumeak a que obedezca la ordenanza municipal, que está recurrida, y no salgan en el Alarde del próximo día 30.»³⁵²

BAE eta Irungo BAAko ordezkariak hitz egiteaz gain, alderdi politikoek ere haien hitza bota zuten. Adierazgarriena PPren bozeramailearena izan zen, eskubideak ezin zirela erreferendum baten bidez erabaki esan baitzuen. PPren Irungo ordezkariak oso urrun zegoen iritzi horretatik, eta HBk horren aurrean koherentzia eskatu zien alderdi politikoei.³⁵³

Egun horietan bertan, Hondarribiko Udaleko plenoan Juana Mugarrietakoa taldeak, HBren bitartez, mozio bat aurkeztu nahi izan zuen, baina alkateak bide guztiak itxi zituzten. Mozioan aurreko urteko Alarde eguneko erasoak gaitzesteko eskatzen zen eta emakumeek Alardean zituzten zailtasunak gainditzeko bitartekoak jartzea. Horren aurrean, pankarta eta mezu bidez saiatu ziren plenoan presentzia izaten. Irunen, berriz, Alarde egunerako hamabost egun besterik falta zirenean, Alardeko agintariek adierazi zuten gizonez osatutako Alardearen alde berresten zirela, eta tradizioarekiko errespetua eskatu zuten.³⁵⁴

1997ko Irungo jaien atarian behintzat ez zegoen inolako adostasunik Alardearen inguruan. Azken hilabeteetan adierazpen instituzionalek hartu zuten prentsako presentzia handiena, eta alderdi politiko eta kolektiboek ere euren iritziak plazaratu zituzten etengabe. Akordio batera iritsi beharrean, bi aldeetako iritziak ordezkatzeko zituzten kolektiboak ea norik amore emango zuen borroka baten barnean zeudela zirudien, erlojuaren kontra lehiatzen. Horretarako, pisu handia jarri zuten legebiltzarreko eta udaleko deklarazioetan, eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren

³⁵² Ibidem.

³⁵³ Belén Alonso, “Los alardes de Irun y Hondarribia generan enfrentamientos incluso en el Parlamento vasco”, *Deia*, 1997/06/13, 13; “La cámara reitera su apoyo a las mujeres e insta al diálogo en el conflicto del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/06/13, 8; Luis Karlos Garcia, “Alardeei buruzko akordiorik ez dela izango erakutsi dute Legebiltzarreko agerraldiek”, *Egunkaria*, 1997/06/13, 10.

³⁵⁴ “Alardean emakumeen aldeko mozioa baztertu zuen alkateak”, *Egin*, 1997/06/14, IV (Gipuzkoa); “El colectivo Juana Mugarrieta reivindica en el Pleno la participación de la mujer en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/06/14, 20; Luis Fernandez, “Alardearen inguruko moziorik ez zen sartu Hondarribiko plenoan”, *Egunkaria*, 1997/06/14, 13; Mañu de la Puente, “Irún: la Junta del Alarde hace un llamamiento al respeto de las tradiciones”, *Deia*, 1997/06/15, 9; “Los mandos del Alarde piden a las instituciones respeten las tradiciones”, *El Diario Vasco*, 1997/06/15, 16; “La Junta del Alarde se reafirma en no admitir mujeres soldados en el desfile”, *El Mundo*, 1997/06/15, 7; “Los defensores de los alardes tradicionales siguen sin aceptar cambios”, *Egin*, 1997/06/18, 23.

epaiaren zain zeuden, horrek baldintzatuko baitzuen gatazka. Emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoek epaia errespetatuko zutela esan zuten, bitartean gehiengoaren nahia betetzen jarraituko bazuten ere. Emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek, berriz, auzitegiak eskubideen inguruan ez zuela ezer esateko iritzia zuten, eta sententziak alkateak legez kanpo jardun zuen ala ez besterik ez zuela epaituko adierazi zuten. Testuinguru horretan, eta esan bezala, jende askori bizitza aldatu zitzaion. BAEko kideak antolatzen eta borrokatzen egon ziren etengabe, kaletik jazarpena jaso zuten bitartean. BAAkoek ere, aurretik antolatzen ez ziren asko, elkartu egin ziren eta Alardean emakumeak ateratzearen kontra aritu.

Irungo jaien bezperan, ez zen espero EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Alardearen inguruko sententzia ateratzea, denbora gehiago beharko baitzuen horretarako. BAEk kautelazko neurriak hartzea galdegin zion, ekainaren 30 aurretik atera zedin eta emakumeek Alardean desfilatzea bermatzeko. Ekaina hasieran ezezkoa adierazi zuen auzitegiak, baina BAEk errekurtsioa aurkeztu eta ekainaren 19an onartu zuen. Hobeto ulertzeko, hemen *El Diario Vasco*ren egun hartako berriaren zati bat:

“El TSJPV dictó el pasado día 6 un auto desestimatorio sobre esta solicitud, formulada por el colectivo que reivindica la participación de las mujeres como soldados en el Alarde. Bidasoaldeko Emakumeak recurrió el auto una semana después y ayer el tribunal dictó la providencia en la que se replantea la suspensión cautelar de la resolución firmada por el alcalde de Irún, Alberto Buen. Bidasoaldeko Emakumeak comparecerá como parte recurrente; el Ayuntamiento, como institución demandada, e Irungo Betiko Alardearen Aldekoak, colectivo defensor del Alarde tradicional, como codemandado, ya que se ha personado en el proceso.”³⁵⁵

Horrek esan nahi zuen, beraz, Irungo Alardearen aurretik, agian behin behineko neurri gisa, alkateak sinatutako erresoluzioa bertan behera geratuko zela, eta horrenbestez, emakumeak Alardean ateratzea babestuko zuela auzitegiak. Eta horixe gertatu zen, BAEk, Irungo BAAk eta Irungo Udalak auzitegian deklarazioak egin ostean, fiskalak gizonen bakarrik desfilatuko zutela zioen erresoluzioa bertan behera uzteko eskatu zuen, eta handik egun batzuetara, ekainaren 25ean auto bat kaleratu zen, erresoluzioa behin

³⁵⁵ “El TSJPV convoca en vista pública a las partes enfrentadas en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/06/19, 10.

behinean bertan behera geratuz.³⁵⁶ Mertxe Tranchek ongi azaltzen duen bezala, tentsio eta urduritasun handiak sortu zizkien azken momentura arte zer gertatuko zen ez jakiteak:

“El caso es que inaugurando una tradición que se iba a cumplir durante varios años, el tribunal falló, creo que el 26 de junio, algo así, y falló que teníamos derecho a salir en el Alarde. Como medida preventiva, eso no prejuzgaba lo que iba a decir, finalmente, pero, como medida preventiva para proteger nuestros derechos, falló que nos teníamos que incorporar. Y bueno, ahí también empezó un tira y afloja, porque la resolución estaba claro que no conocían el Alarde. Entonces, con una unidad propia al final del Alarde, pero, ¿qué es una unidad propia?, ¿qué es el final? Entonces, ahí empezó una negociación con el ayuntamiento de «no dice compañía», porque el ayuntamiento nos decía que una compañía, y nosotras teníamos el miedo, otro de esos miedos ridículos a que si hacíamos una compañía, ya íbamos a ser siempre una compañía, y no queríamos ser una compañía, ¿no?»³⁵⁷

Alde batetik, azken momentuko erabakia izateak egoera zailtzen eta aztoratzen zuela dio, eta gainera, ondorengo urteetan ere antzeko ibiliko zirela. Izan ere, erresoluzioak zioena modu desberdinetan interpreta zitekeen, eta era berean, argi geratzen zen auzitegiak ezagutza gutxi zuela Alardearen erritoaren inguruan. Auzitegiak Alardean desfilaratzeko emakumeen eskubidea errekonozitzen zuen, eta urte horretan, Alardearen eta konpainien antolamendua ez nahasteko, formazio propio baten bidez egitea proposatzen zuen eta udalak hori bermatu behar zuela zioen. Udalak azken konpainia izatea proposatu zuen, baina Alardea ezagutzen duen edonork badaki azken konpainia Artilleriarena dela eta horrek ixten duela desfilea. Beraz, Artilleriaren atzetik joateak, Alardetik kanpo desfilarzea esan nahi zuen. Horren aurrean, gainera, Tranchek dio beldur barregarri bat zutela, ea betirako konpainia bakar batean desfilarzera mugatuko

³⁵⁶ “Irungo Alardea epaitegietan aztergai gaur”, *Egunkaria*, 1997/06/20, 11; Nekane Lauzurika, “La fiscal solicita al TSJPV que suspenda la resolución de la alcaldía de Irun que impide desfilar a las mujeres”, *Deia*, 1997/06/21, 16; “La fiscal pide la suspensión cautelar de la resolución que excluye del Alarde a las mujeres”, *El Diario Vasco*, 1997/06/21, 8; Kepa Petralanda, “La fiscal, contra la Junta del Alarde”, *Egin*, 1997/06/21, 15; Gorane Agirre, “Fiskalak emakumeen baztertearen kautelazko suspentsioa eskatu du”, *Egunkaria*, 1997/06/21, 10; Juan José Mateos, “La fiscal pide al TSJPV que suspenda el acuerdo por el que sólo pueden participar hombres en el Alarde”, *El Mundo*, 1997/06/21, 5; “Bidasoaldeko Emakumeak reitera que desfilarán en el Alarde sea cual sea el fallo hoy del TSJPV”, 1997/06/23, 15.

³⁵⁷ Mertxe Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

zituzten emakumeak. Barregarria dio, gaur egunetik ikusita Alarde barruan konpainia bakar batean desfilatzea aurrerapauso handia izango zelako, orain arte lortu ez dena. Autoa atera aurretik Alardean emakumeak ateratzearen kontrako elkarte eta alderdi politikoek sententzia onartuko zutela azaldu zuten behin eta berriro, baina irten ondoren Alardeko agintarien lehen erreakzioa honako hau izan zen:

“Los mandos del Alarde de San Marcial podrían adoptar una postura traumática y definitiva respecto al desfile del próximo día 30 como respuesta a la resolución (...) Una coyuntura de ese corte –asociada a su dimisión- podría concluir en la suspensión de un Alarde que se lleva celebrando desde 1881.”³⁵⁸

Horrez gain, Irungo BAAko kide askok adierazi zuten haiek ez zutela emakumeen ondoan desfilatuko, tartean Ricardo Requejo pianistak, ondorengo hitzekin: “Yo nunca desfilaré en el Alarde con una señora al lado.”³⁵⁹ BAEk, ordea, positiboki baloratu zuen autoa, nahiz eta argi utzi hori ez zela haiek aldarrikatzen zutena, baizik eta tarteko bide bat, hilabete batzuk lehenago Arartekoak eta EBk antzeko proposamena egin zutelarik. Izan ere, haien ustetan edozein konpainiatan ateratzeko eskubidea zuten. Baina hurrengo orduetan eztabaidak izan ziren alkatearen eta BAEren artean, alkateak hogeita lau ordutan konpainia bat osatzea exijitzen baitzien, eta BAEren ustez hori ezinezkoa zen. Gainera, sententziak ez zuen hori adierazten. EBk, HBk, EAK eta PPK zioten hori ezin zela eskatu, eta bi edo hiru konpainiak emakumeak onartzea proposatu zuten konponbide gisa. Horrez gain, BAEk alkatearen estrategia bat zela salatu zuen, emakumeak Alardean ateratzea galarazteko, eta horren aurrean kantinera eta agintaririk gabeko formazio propio batean desfilatuko zutela adierazi zuen.³⁶⁰

Ekainaren 27an, ordea, Alardeko Juntako bederatzi kidek, politikoak ez zirenek, dimititu zuten. Horrek ez zuen berez Alardea suspenditzen, baina guztia zailtzen zuen. Arratsalde hartan bertan Alardeko agintarien bilera egin zuten eta Jaiak Guztiontzat,

³⁵⁸ Mañu de la Puente, “Irún: los mandos del Alarde de San Marcial podrían dimitir de sus cargos”, *Deia*, 1997/06/25, 16.

³⁵⁹ “«Acataré la resolución del Tribunal Superior de Justicia, aunque no participaré en ese carnaval»”, *El Diario Vasco*, 1997/06/25, 11.

³⁶⁰ Luis Fernández, “Emakumeen parte hartzea ziurtatzeko agindu dio Auzitegiak Irungo Udalari”, *Egunkaria*, 1997/06/25, 8; “El TSJPV exige al Ayuntamiento de Irún que autorice la presencia de las mujeres en el Alarde”, *El Mundo*, 1997/06/25, 1, 3; Xabier Garmendia, “Una compañía de mujeres en 24 horas”, *El Mundo*, 1997/06/26, 4; Mañu de la Puente, “24 horas para formar”, *Deia*, 1996/06/26, 15; “El alcalde de Irún emplaza a las mujeres que en 24 horas creen una compañía propia”, *El Diario Vasco*, 1997/06/26, 8; “Las mujeres pedirán participar con una unidad «ajustada» al auto judicial”, *El Diario Vasco*, 1997/06/26, 9; Luis Fernández, “Emakumeek uste dute alkatearen eskaintza partehartzea oztopatzeko maniobra dela”, *Egunkaria*, 1997/06/26, 9.

emakumeak Alardean ateratzearen aldeko gizonen plataformak, azaldu zuen azken hilabeteetan Alardeko agintari batzuekin elkarrizketak izan zituztela, baina Alardeko jeneralak horiek gelditzeko agindu zuela. Horrekin batera hau adierazi zuten Jaiak Guztiontzat plataformako ordezkariak: “Javier Gómez cree que algunos capitanes accederían a la incorporación de las mujeres en sus compañías «pero están demasiado presionados para dar el paso adelante».³⁶¹ Azaldu dugun bezala Alardearen estruktura eta sakralizazioak guztiz blindatzen zuen barneko iritzi eta jarrera, oso zaila izanik posizio hegemonikoarekin apurtzea.

Beraz, ekainaren 27an egoera honelakoa zen: Alberto Buen alkateak emakumeek formazio propio batean desfilatzea onartu zuen, baina Artilleriaren atzetik. Bestetik, bilera bat egin zuen Alardeko agintariekin eta aukera ezberdinak planteatu ziren bertan. Alardeko agintariak boto sekretu bidez hartu zuten erabakia, baina ekainaren 29ra arte ez zuten komunikatu. Bide horretan, Irungo BAAk autoa obedituko zuela zioen, baina ez zuela emakume soldaduak zituen “pantomima” batean parte hartuko. Berriro ere, eta urte bete lehenago gertatu bezala, Alardearen suspentsioaren mamuarekin mehatxu egin zuten, azaldu dudana bezala horrek 1976ko Alardea eta 1996koa gogorarazten zituelarik. 1997ko Irungo Alardea baino egun bat lehenago, agintarien erabakia zabaldu zen, hamabost emakumeen formazioa onartzearen alde eta hamabi kontra. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren autoarekin, Alardeko agintarien emaitza horrekin eta hain denbora gutxirekin pentsa zitekeen emakumeek Alardean desfilatuko zutela, formazio propioan. Javier Vergara jeneralak udalean eman zuen emaitzaren berri, eta irain eta txistu artean hartu zuten, traidoretzat hartuz. Emakumeak onartzearen kontra bozkatu zuten hamabiek bertatik alde egin zuten, eta Beñardo Urtizberea komandanteak dimisioa aurkeztu zuen. Jon Miranda Labaienek honela oroitzen du egun hori:

“Ze juxtu San Pedro egunean Irunen erabaki zuten, itxura denez, emakumeak onartzea edo holako zer edo zer. Arratsaldean Revista zen eta guk txalo egiten genion jeneralari erabaki hori hartu izanagatik eta ikusten genuen konpainiatan nola deskolgatzen zen jendea, Revistan. Joaten zen, eta «Pues yo, con las mujeres ¡no!». Fuera, eta ateratzen zen. (...) Eta gero, gau horretan oraindik ere, gaupasa egiten genuen berriz ere, eta gogoratzen dut gauean gaupasa egiten ari ginen bitartean bat etortzen zitzaizun eta «ez dakit zer konpainia deskolgatu egin da»,

³⁶¹ “Negociación frustrada”, *El Diario Vasco*, 1997/06/27, 10.

«ez dakit ze konpainia deskolgotu egin da», «Dunboatik aterako da» Nola da posible? Ez dakit zer. Eta iritsi ginen goizeko 6tan Dianako zera horretara eta ordun jada esan ziguten. Bueno, ordun jada esaten zuten denak aterako zirela bestetik. Eta ordun gu joan ginen arrankadako momentu horretara eta hantxe lau katu. Eta hori, hori, egun edo gau hori niretzako klabea da baita ere Irunen behintzat pasatu dena.³⁶²

Ekainaren 29an Alardeko Arma-Ikuskatzea ospatzen zen, eta batzuek jenerala txalo artean jaso zuten arren, beste batzuek formazioa utzi zuten, emakumeekin desfilatuko ez zutela esanez. Horrez gain, gauean zehar konpainiak Alardetik irtengo zirenaren mezua zabaltzen hasi zen eta Alarde paralelo bat egingo zutela, Dunboatik, Irungo auzo batetik hasita. Irungo Alardea Dunboatik hasteak esan nahi zuen urte luzeetan zehar mantentzen zen Alardeko ibilbidea aldatuko zela, eta tradizioa betetzearen izenean tradizioa aldatuko zutela. Horrez gain, udal korporazioak urtero egiten zuen aureskua bertan behera geratu behar izan zen, tentsio handia baitzegoen, txalo eta irainen arteko talkan. *El Diario Vascok* honela jaso zituen egun hartako gertakariak:

“En el transcurso de la revista de armas, los soldados fueron recibiendo la convocatoria de sus capitanes para asistir al Alarde alternativo, que partirá a la misma hora que el oficial (8.15) pero con distinto itinerario. Dentro de las propias compañías, se registraron ayer momentos de tensión, especialmente en aquellas cuyos capitanes aceptaron la propuesta del alcalde. La Batería de Artillería emitió un comunicado, en el que explica que participará en el Alarde oficial –su lugar es el anterior al de la unidad de mujeres- porque así lo decidió una votación, al entender que con esa ubicación la nueva unidad quedaba fuera del Alarde.”³⁶³

Horrek argi erakusten digu emakumeekin desfilatzearen aukeraren alde bozkatu zutenek ez zutela horien eskubide edo nahia betetzeko egin, baizik eta besterik ez zutelako eta Alarde paralelo bat egitea kaltegarriagoa eta tradizioari apurketa handiagoa egitea suposatzen zuelako. Gainera, Artilleriakoek azaldu zuten bezala eta BAetik behin eta berriro alkateari adierazi bezala, Artilleriaren atzetik joatea Alardetik kanpo desfilatzea zen. Eta horrek ere eztabaida handiak sortu zituen BAeren barnean, Mertxe Trancheren testigantzek erakusten diguten moduan:

³⁶² Jon Miranda Labaieni eginiko elkarrizketa. Iargi Bengoetxea Gartziaik egin. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/19 (pasarte bat).

³⁶³ “Dos Alardes recorrerán Irún”, *El Diario Vasco*, 1997/06/30, 7.

“El calvario de Maribel Castelló fue impresionante y nosotras, en ese momento, empezamos una reunión, justo en el momento que supimos la decisión, empezamos una reunión, porque ya sabíamos que no nos iban a cambiar. Ya habíamos intentado negociar lo de antes de Artillería, pero el tipo dijo que no, entonces empezamos una reunión. Entonces, en la reunión, otra vez era esa reunión, fue igual 150 tías, muchísimas, muchísimas y una persona que decía que detrás de Artillería, no; y 149, sí, y una que no, pero las decisiones se tomaban por consenso. Entonces empezamos la reunión a las diez de la mañana, paramos como a las cinco de la tarde para comer algo, y cuando salimos al pueblo flipamos. Flipamos porque estaba el pueblo lleno de pasquines: «no te unas al esto, no sé qué, al carnaval igualitario», me parece que era. Habían empezado la Revista de las compañías y se habían insubordinado un montón de compañías. Habían abucheado al general. Bueno, se había montado el de San Quintín dentro del pueblo.”³⁶⁴

Maribel Castellók pasa behar izan zuena aipatzen du; izan ere, bertan behera geratu zen aureskuan bera izan zen irainduena. Tranchek barrutik bizi izan zutena kontatzen digu, nola Artilleriaren atzetik joatea adosteko ordu asko pasa behar izan zituzten, baina asanbladatik irtetea, beste errealitate batekin topo egin zutela. Kartelez josia zegoen Irun, “inauterian” ez parte hartzeko deialdiarekin eta arratsaldeko Arma-Ikuskatzean gertaturikoak hurrengo egunean gertatuko zena aurreikusteko balio izan zuen. Hala ere, tentsioa eta ezegonkortasun handia zegoen oraindik ere, baina testigantza batzuek erakusten digute batzuek konfiantza zutela oraindik ere emakumeak Alardean aterako zirela. Maite Vergara Iraeta, momentu hartako Alardeko jeneralaren iloba zen, eta Irungo Alarde eguneko bezperan eta gauean gertatutakoa kontatzen digu:

“Era algo muy orquestado, o sea, no fue algo espontáneo para nada, para nada. (...) Bueno, terminó el día, y yo -o sea, mi hermana vivía, la casa donde vivía mi tío, el general, es la misma donde vivía mi hermana porque esa pertenecía a mi amaxi- (...) no durmió nadie. Ni nosotros, ni ellos en su casa. El teléfono de esa casa no paró de sonar. Y, tan es así, que nos acostamos. Pensamos que al día siguiente las mujeres se incorporaban, y por la mañana ya había un dictamen del general diciendo que se iba a salir desde Dunboa por no salir con las mujeres. Y

³⁶⁴ Mertxe Trancheri eginiako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

caro, yo bajé las escaleras de casa -la casa era solo de la familia- y estaba en la puerta mi primo, y le mandé a la mierda, «a ti y a tu padre».³⁶⁵

Bertan azaltzen du eraikin berean pasa zutela gaua eta mugimendu handia egon zela, inork ez zuela lorik egin. Emakumeek Alardean parte hartuko zutela pentsatzen oheratu ziren, baina gaueko mugimendu guzti horiek ahalbidetu zuten hurrengo egunean Mosku plazara konpainiarik ez azaltzea, soilik emakume eta gizonez osaturiko formazio berezia.

Konfliktoaren protagonista edo testigu izandakoei eginiko elkarrizketetan urteetan zehar gertaturikoa ez dute oso presente edo diluituagoa dute, Alarde egunetako gertakariekin konparatuz gero. Hau da, 1996ko irailetik 1997ko ekainera arte gertaturikoa, orain arte aztertu duguna, ez dute detaile eta konkrezio handiarekin kontatzen. Ikusi dugun bezala gainera, etengabeko mugimendu eta gertakariak izan ziren. Alarde egunak, ordea, memorian iltzatuago dituztela esango nuke, eta horrek zerikusia du lehenagotik ere Alarde egunek suposatzen zutenarekin eta gatazka beraren dimentsioak egun horietan handiak zirenekin. Urtean zehar gertaturikoak pisu handia zuen, eta gatazkaren norabide eta indar korrelazioa alda zezakeen. Baina esan beharra dago, gutxi batzuegan zuela eragina, batez ere gatazkaren protagonisten bizitzetan, eta komunikabide edo sareen bitartez zabaltzen zela gainontzekoengana. Alarde egunetan, ordea, herri guztia zegoen bertan, gatazkaren epizentroan eta bertan gertatzen zenak izugarritzko eragina zuen. Alarde egunek zuten pisu emozionala oso handia zen, eta azken finean, egun horietan emakumeak Alardeetan desfilatzea lortzea edo ez zen gatazkaren funtsa eta egun horietan bertan bakarrik egikaritu zitekeena.

1997ko ekainaren 30ean, 300 gizon eta emakumek osaturiko unitate berezia Mosku plazan bildu zen. Aurreko egunetik bazekiten konpainia batzuk uko egingo ziotela haiekin desfilatzeari, baina, hala ere, konpainia baten bat agertuko zenaren esperantza zuten, Artilleria tartean, aipatu dugun komunikatua egin ostean. Aurreko eguneko Arma-Ikuskatzea tentsua izan zen, jeneralari txistu egin eta soldadu batzuek bertatik alde egin baitzuten. Horrez gain, gizon batzuk konpainia batzuetatik kanporatu zituzten, Alarde mistoaren aldekoak zirelako. Karmele Tolosak honela oroitzen ditu San Pedro eta San Martzial egunak:

³⁶⁵ Maite Vergara Iraetari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/18 (pasarte bat).

“San Pedro egunean oroitzen dut, nola egin ziren Revistak, eta konpainietakoak, hemen Moskun, nola hasi zen jendea etortzen: «no, es que nos han echado, nos han echado. Han hecho una asamblea y nos han echado», jakinki más o menos nola pentsatzen zuten mutil horiek nola pentsatzen duten, ba bota egin zituzten zenbait konpainiatik eta orduan hori, izango ziren arratsaldeko bostak edo horrelako zerbait. Orduntxe edo joan ginen biltzera, gure asanblada egitera, zeren jada bagenekien nola zegoen asuntua eta hori dena, baina, ez dakit, gaueko 10tan joan nintzen, baina banekien, 12ak arte edo horrela egon ziren eta gau hartan izan zen la del golpe de estado, betikoe egin zutena.”³⁶⁶

Momentu hartatik aurrera, beraz, jada Irungo Alardeko bazterketa ez zen soilik generoari dagokionez egingo, ideologiaren araberakoa ere izango zen. Aurretik azaldu dudana bezala, Alarde barruan batez ere klaseari eta ideologiari dagokionean desorekak existitzen ziren, baina edozein gizon izan zitekeen soldadu, nahiz eta bertakoa ez izan. 1997tik aurrera, ordea, ideologia edo pentsamendu konkretu bati loturikoak kanporatu zituzten Alardetik *abjektuaren* esparrura. Eta horrek ahalbidetu zuen ordena mantentzea. Izan ere, barrutik gauzak aldatzen saiatzeari bideak itxi zizkioten, eta barruan emakumeen parte hartzearen inguruko pentsamendu edo jarrera bakarra gotortu zen. Pentsamendua baino, jarrera zela azpimarratuko nuke, emakumeen parte hartzearen aldekoa bazen norbait baina horren alde ez bazuen ezer egiten edo ezer esaten, hau da, ordena zalantzan jartzen ez bazuen, onartua izango zen Alardean.

Bestetik, estatu kolpe bezala izendatzen du Karmele Tolosa Errok ekainaren 29ko gauean gertaturikoa. Alegia, berez emakumeak Alardearen ateratzearen kontrakoe eginiko eta zilegitasuna emandako bozketa baten gaintik pasa ziren eurak berak, emaitza onartu ez zutelako. Horrekin ere ikus dezakegu nola Alardearen barnean nahiz eta gehienak emakumeak ateratzearen kontrakoak izan, testuinguru konkretu batean, hau da, auto judizial bat egonda, iritzi ezberdinak izan zituztela, eta nahiz eta agintarien gehiengo batek emakumeekin desfilatzea onartu bozketa baten bitartez, agintarien gutxiengo horien nahia bete zela. Nahi horrek EAJren nahiekin bat egiten zuen, PSE-EE eta PPK, emakumeak Alardean ateratzearen kontra azaldu ziren beste bi alderdiek, autoa betetzea onartu baitzuten.

³⁶⁶ Karmele Tolosa Errori eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/02/24 (pasarte bat).

Goizean goiz, emakume eta gizonez osaturiko unitate berezia Mosku plazatik bakarrik irten zen, beraz, udaletxe plazarantz, bertan alkateak herriko bandera emateko. Bitartean, Alardeko konpainia guztiak Dunboa auzoan bildu eta bertatik hasita, ibilbide desberdin batetik abiatu zuten haien Alardea. Mertxe Tranchek unitate berezian bizitakoa da honako pasarte hau:

“Entonces, el flipe de la mañana del 30 de junio del 97 de llegar a la plaza y que no hubiera nadie, pues fue realmente un flipe. Volvimos a hacer el ridículo, llegamos a la Plaza San Juan, nosotras hicimos la arrancadilla, «nosotras somos el Alarde, nosotras somos el Alarde», hicimos la arrancadilla, llegamos a la Plaza San Juan y: «queremos la bandera de la ciudad», y entonces subimos varias por las escaleras a pedir la bandera de la ciudad. El ridículo más absoluto: no nos la dan. Y más ridículo todavía, nos vamos a Juncal a pedir el pendón y «que nos den el pendón, y que nos den el pendón», hasta que el cura sale y dice «pero si el pendón no sale desde el año 80». Era nuestro nivel de, pero si tú no has participado. Es como desfilarse, tú puedes ser muy de Irún y te puede gustar mucho el Alarde, pero si no has desfilado, no sabes desfilarse, si no has tocado el txibilito, no sabes tocar el txibilito, si no has hecho las descargas en la misa del monte, no sabes cuándo son las descargas. Entonces, eso se vendía luego como falta de amor al Alarde, pero no, precisamente conoces el Alarde cuando estás dentro. Entonces, bueno, ahí hicimos otra vez el ridículo, y para cuando llegamos otra vez de vuelta ahí, pues el alcalde ya había suspendido el Alarde por incomparecencia de la mayoría de las compañías, y estos estaban desfilando por Dunboa, por la Avenida de Iparralde y hasta el tanatorio. Cosa que no les gustó, nada de nada, porque es un recorrido tristísimo.”³⁶⁷

Berriro ere barregarri hitza erabiltzen du gertaera bat deskribatzeko. Izan ere, gertatu zena ikusita, eta momentuan haiek espero eta nahi zutena konparatuta, barregarri geratu zirela dio. Lehenik, alkateak herriko bandera eman ez zielako, unitate berezia Alardea ez zela iritzi, nahiz eta bertan desfilatu zutenek pentsatu ordenantza betetzen ari ziren bakarrik zirela, hots, Alardea zirela. Bigarrenik, elizako zutoihala eskatzera joan, eta bertan enteratu zirelako bazela hamarkada bat baino gehiago hori ez zela egiten. Azken gertakari horrek emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoaren diskurtsoa elikatu zuen,

³⁶⁷ Mertxe Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egin. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

Alardea maite ez zutenaren eta suntsitu besterik egin nahi ez zutenaren diskurtsoa, hain zuzen. Tranchek horren aurrean, ezjakintasun hori Alardean desfilatu ezin zutelako zela argudiatzen du eta ez Alardea maite ez zutelako. Behin Alardean soldaduz parte hartzen hastean, hori guztia ikasiko zutela pentsatzen zuen. Alkateak Alardea suspenditu zuen, hala ez bazuen egiten Alardearen atzetik udalbatzak desfilatu beharko baitzuen, kasu horretan gizonez eta emakumez osaturiko unitate bereziaren atzetik. Eman zituen arrazoiak bi izan ziren: batetik, unitate berezia bakarrik aurkeztu zela ordenantzak arautzen zituen denbora eta tokira, eta bestetik, konpainiak ordenantzatik kanpo desfilatzen ari zirela.

Aipatu beharra dago unitate bereziak bakarrik desfilatu eta bandera ez jasotzeaz gain, zailtasun gehiago izan zituela ibilbidean zehar. Moskun plazatik desfilatzen hasi aurretik istiluak izan ziren, eta sei pertsona anbulantziaz eraman behar izan zituzten osasun zentro eta ospitalera, kolpe eta botilen kristalekin eragindako zauriengatik. Ibilbidean zehar Irungo udal poliziak eta emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek osaturiko kordioak beste eraso saiakera eta istiluak eragotzi zituzten. Hor ikusten dugu, berriro ere, emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoek hiru fronteek nola eragotzi zuten auto judiziala betetzea. Batetik, kalean eta anonimotasunetik egindako eraso fisikoek desfileari zailtasunak jarri zizkioten. Bigarrenik, Irungo BAA eta Alardeko agintarien antolakuntzak ahalbidetu zuen hogeita lau ordutan beste desfile bat antolatzea eta hori gehiengoak betetzea. Hirugarrenik, udal eta alkatearen jarrerak unitate bereziari ofizialtasuna kendu zioten, bandera ematea eta horren atzetik desfilatzea ukatuz, eta beste Alardea baimenik gabe eta udalaren materialarekin egitea utziz. Peio Tranchek³⁶⁸ Dunboatik atera zen Alardean parte hartu zuen, nahiz eta emakumeek desfilatu behar zutela uste. Aurreko egunetan lanean ibili zen eta ez zen gauza askotaz enteratu; horrela, pixkanaka konturatzen joan zen Alarde egunean bertan gertatzen ari zenaz:

“Nik pentsatzen nuen jendea aterako zela normal, emakumeak aterako zirela, baina joan ginen bertzaldera. Nik ez nuen ulertzen eta ni gogoratzen naiz egun horretan desfilatzen eta gero gelditzen ginen hitz egiten normala eta nik sumatzen nuen zerbait arraroa. Nik hitz egiten nuen esaten «joe pero si es que sartu behar dira» ez dakit zer... sartu behar dira, onartu behar dugu eta horrela, eta jendea

³⁶⁸ Peio Tranche Irunen jaio zen 60ko hamarkadan, eta hamalau urte zituenetik desfilatu du Irungo Alardean. Mertxe Trancheren anaia da, eta gatazka lehertu zenetik emakumeek Alardean soldaduz desfilatzearen alde dago. 1998an irten zen lehen aldiz Irungo Alarde mistoan.

zegoen isilik, inork ez zuen ezer esaten eta bueno bat-batean konturatzen nintzen jada goizean nire kideak eta horrela ez zuten ezer esaten, ez kontra eramaten eta ez ados. Eta ez nuen ulertzen, pentsatzen nuen zerbait gertatzen zela, zerbait arraroa, zerbait... jendeak ez zuen hitz egiten, jendea ez dakit zer baino begiradak eta horrelako gauzak... joaten zara pote bat hartzera eta orduan kontatzen duzu eta jendeak ez zuen ezer esaten. Bakarrik desfilatzen momentuan, jendea sutan, baino sutan, baina gauzak esaten oso, oso bortitzak, ez dakit, gogorrak bai. Oso, oso gogorra. Ni jada hortikan aurrera ez nintzan berriro Alardean jada atera. O sea, ez nintzen jada berriro atera horiekin inoiz ez gehiago. Inoiz ez gehiago. Bat-batean onartu nuen Alardean atetzeko horrelako gauzak egiteko, beraiekin egoteko, ez zuela pena merezi.”³⁶⁹

Peio Tranchek pentsatzen zuen egun hartan emakumeek ere osaturiko unitate bereziarekin desfilatuko zuela Alardean, baina konturatzen joan zen ezetz, eta gainera inguruko jendeak ez ziola gauza handirik argitzen. Tranchek uste zuen ingurukoek berak bezala pentsatzen zutela, eta ezer ez erantzutean zer edo zer arraroa gertatzen ari zela. Gertatzen ari zena zen Dunboatik hasi zela Alardea emakumeak ez onartzeagatik eta bere ingurukoak horrekin ados zeudela, eta are gehiago, momentu batetik aurrera oso gauza bortitzak esaten hasi zirela desfilatu nahi zuten emakumeen kontra. Desfilatu nahi zuten emakume horietako bat Mertxe Tranche zen, Peioren arreba, eta bizi izan zuen momentu horretatik aurrera ez zen berriro ere Alarde horretan atera. Ikusten goaz nola, alde batetik, gizonen Alardetik batzuk kanporatu zituzten emakumeen alde egoteagatik, eta beste batzuk haien kabuz irten ziren, ezin zutelako onartu gertatzen ari zena eta esaten zirenak. Horrela, geroz eta gehiago bereizten joan ziren emakumeak Alardean ateratzearen alde eta kontrakoak.

Egun hartan, Alardearen purutasunaren izenean tradizio bat hautsi zen. Izan ere, azaldu dugun bezala, Alardean espazioak eta denborak berebiziko garrantzia zuten, eta urte hartan gizonen osaturiko Alardeak guztiz desberdina zen ibilbide bat egin zuen. Jose Ramón Uriz Zurutzak honela azaltzen ditu horren arrazoiak:

“Urte hartan Alardea atera zen, hogeita lau orduz antolatu zen Alardea, Alarde nolabait esateko tradizionala, beste ibilbide batetik. Ezta ibilbide tradizionalaren

³⁶⁹ Peio Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/14 (pasarte bat).

metro bat erabilia, beste ibilbide batetikan eta izandu zen nahiko penagarria baina beste aldetikan nahiko hunkigarria ere, zen hogeita lau ordutan antolatu zen hori. Bai, eta azkenean, nolabait, azkenean egin zen zerbait ordenantza barruan ez zegoena, zen, ibilbidea aldatu egin zen, baina eske bestela ezin zen egin. Zen edo beste ibilbide batetik joan edo Alardea ez egin eta egin zen. Hori, 97. urtean eta hori izandu zen nire ustez Irunen behintzat unerik mingarriena. Zen nahiko, nahiko gaizki bizi ginen hori, egoera hori.”³⁷⁰

Puntu horretan eta Urizek dionaren arabera, ez zeukaten beste aukerarik, Alardea Dunboatik atera edo bertan behera utzi. Burura datorkigun galdera da: baina nola ez zeukaten beste aukerarik? Emakumeekin desfilatzea zuten. Argi geratzen da 1997ko ekainean ez zela aukera bat, emakumeekin atera baino nahiago zutela Alardea ez egin. Baina nola iristen gara puntu horretara? Urte osoan zehar egin ziren mugimendu eta antolakuntza guztiek hori ahalbidetu zuten. Emakumeak ateratzea ez zen aukera, emakumeak ateratzea Alardea suntsitzea bihurtu zutelako, edo inauteri bilakatzea. Hori ez zen egun batetik bestera egin, ikusi ditugun diskurtsoen errepikapenaren bitartez egin zen, bai eta horrek suposatzen zuen emozioen transmisioarekin. Alardearekiko maitasunak ez zien uzten emakumeak Alardean ateratzea posible ikusten, eta beste askori beldurrak hori onartzea eragin zien. Beldurra herritar batzuek egindako gertakariak eraginda zabaldu zen gehienbat, baina, aldi berean, beldurrak beste gauza asko eragin zituen, ikusten joango garen bezala.³⁷¹

Bestetik, Urizek harrotasun puntu batetik Alardea salbatu zutela uste du eta hogeita lau ordutan soilik beste Alarde bat antolatzeke gai izan zirela. Nahiz eta mingarria izan, beste ibilbide bat egin zuten, baina merezi izan zuen, testuinguru horretan eta gertakari guztien artean, hori zen Alardea mantendu ahal izateko modu bakarra. Hogeita lau ordutan beste Alarde bat antolatzea urte osoko antolamenduari esker egin zen eta udalaren permisibitateak ahalbidetuta. Izan ere material asko publikoa zen, Alardeko agintarien traje asko, adibidez. Horiek gabe, ezinezkoa izango zen Alardea aurrera ateratzea. Horrez gain, Alberto Buen alkateak erresoluzio bidez Alardea bertan behera utzi ondoren, herriko bandera gizonez osaturiko Alardeari entregatu zion San Martzial

³⁷⁰ Jose Ramón Uriz Zurutzari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/20 (pasarte bat).

³⁷¹ José Álvarez Junco, *Dioses útiles...*, 184; Judith Halberstam, *Masculinidad...*, 23; Sara Ahmed, *La política cultural...*, 105-132.

ermitan. Arratsaldean emakume eta gizonez osaturiko unitate bereziak ez desfilatzea erabaki zuen, gizonez osaturiko Alardeak bai, ordea.³⁷²

Irungo Alardeko hurrengo egunean, BAEk Alberto Buen alkatearen dimisioa eskatu zuen lege iruzurra egotzita, eta Irungo Ertzaintzaren polizia-etxean alkatea bera, Alardeko jenerala eta agintariak salatu zituen. Gizon armatuz osaturiko manifestazio ilegal bat antolatzea leporatzen zieten, eta horrek segurtasun kolektiboaren kontrako delitua suposatu zezakeela. Alkateari ere zegokion autoritate eta ardura ez betetzea egotzi zioten. Lehen egun horretan desfilatu zuten emakumeak pozik zeudela adierazi zuten, lehen aldiz ibilbide osoan zehar desfilatu ahal izan zutelako.³⁷³

Emakumeak desfilatzearen kontrako artean aukera baten proposamena zabaltzen hasi zen, Alardea privatizatzearena. Izan ere, 1997ko Irungo Alarde egunean demostratu zen bezala, nahiz eta auto edo sententzia judizial bat egon, Alardea forman udaletik bereiziz gero, gizon soldaduz bakarrik egin zitekeen. *El Diario Vascon* irtendako berrian gaineratzen du asmoa gatazkaren aurretikoa zela:

“En círculos políticos se ha llegado a comentar que los apuntes sobre la realización de este Alarde al margen del público no son nuevos. Según señalaba, esto es anterior a la reivindicación de las mujeres del colectivo Bidasoaldeko Emakumeak, solicitud que incluso podría haber servido de acicate para la recuperación de la mencionada idea.”³⁷⁴

Aurreko kapituluan azaldu bezala, 1996ko apirilean Irungo Udaleko Alardeko ordenantzaren inguruan Alberto Buen alkateak proposatu zuen aldaketa Alardeko Juntatik alderdi politikoaren ordezkariak ateratzea zen, lehenagotik zetorren prozesua jarraitzeko. Hau da, Alardea udaleko kontroletik at uztea. Horrekin antzematen hasi zen edozein epaitegiren sententziek zaila izango zutela gatazka konpontzea, instituzioek eta udalek hori beretzen ez bazuten behintzat. Betetzen bazuten ere, Alardeko agintari eta

³⁷² F. Odriozola, “Las mujeres desfilaron solas en el Alarde de Irún”, *Deia*, 1997/07/01, 12; “Diecinueve compañías y la gran mayoría de los iruneses secundaron el Alarde tradicional”, *El Diario Vasco*, 1997/07/03, 3; Bego Zubiria eta Ramón Sola, “El Alarde contó con mujeres”, *Egin*, 1997/07/01, 13; Luis Fernandez eta Jone Larrañaga, “Alkateak suspentsioa agindu arren, bi Alarde izan ziren atzo Irunen”, *Egunkaria*, 1997/07/01, 10; Jone Larrañaga, “Bidasoaldeko Emakumeak: «Aurrez hitzartutako iruzurra izan da»”, *Egunkaria*, 1997/07/01, 12; Xabier Garmendia eta Ainhoa Castells, “Las mujeres denuncian al alcalde de Irún por suspender el Alarde oficial y permitir el alternativo”, *El Mundo*, 1997/07/01, 3.

³⁷³ “Las mujeres piden la dimisión del alcalde y denuncian al General del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/07/01, 5; Bego Zubira eta Ramón Sola, “Las escopeteras denuncian al alcalde”, *Egin*, 1997/07/07, 15.

³⁷⁴ “Los que apoyan el desfile tradicional plantean un Alarde privado”, *El Diario Vasco*, 1997/07/01, 7.

gizonez osaturiko Alardeen aldekoak hori saihesten saiatuko zirela ere argi geratu zen. Emakumeek Alardean ateratzearen aldekoen artean, aipatu dugun bezala, iritzi desberdinak zeuden prozesu judizialak hastearen inguruan. Mertxe Tranchek hau adierazten du eduki zituzten eztabaiden bueltan:

“Hubo muchísimas, hubo el del camino jurídico, hubo la de... para empezar la de seguir o no el año 96, la de poner o no el juicio, o cuando se empezó la vía jurídica también fue: «pues las que queráis poner la vía jurídica la ponéis» y si tu repasas los nombres de las que interpusimos la demanda, verás que faltan nombres. No hay ni un nombre de la Izquierda Abertzale, ni un nombre, porque no creían en esa vía.”³⁷⁵

Izan zituzten zalantzen inguruan hitz egiten du, eta horietako bat prozesu judizialarena izan zela dio. Bertan azaltzen du batik bat HBko kide eta jarraitzaileek ez zutela estrategia jarraitu, horretan sinesten ez zutelako. Tomas Elgorriaga,³⁷⁶ Hondarribiko HBko garai hartako zinegotzia, honela mintzatzen da horren inguruan:

“Batzuek konfiantza handia zioten estruktura judizialean, eta uste zuten legeak direla eta eskubideak eta guzti hori epailearen aurrean agertuz ezkerro, epaileek arrazoia emango zigutela. Eta guk, besteok, esaten genuen, bueno, noski, garai horretan borroka gordina zen eta noski, guk ez genuen batere sinesten sistema judizialean Euskal Herriko esperientzia ikusita, alde batetik ez genuen sinesten horretan.”³⁷⁷

Elgorriagak dio askok ez zutela sinesten sistema judizialean, izandako esperientzia eta auzitegi eta sistemaren inguruan egiten zuten analisiaren ondorioz. 1997ko uztailaren 1eko berri batek honela dio: “Jaime Iribarren fue detenido ayer por la Policía española en Iruñea para cumplir una condena por su condición de insumiso.”³⁷⁸ Gogoan eduki behar dugu intsumisioaren garaiak zirela eta epaileek aginduta asko atxilo eraman zituztela espetxera, soldaduska egitea ukatzeagatik. Bestetik, Euskal Herrian, 1997an,

³⁷⁵ Mertxe Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

³⁷⁶ Tomas Elgorriaga 1963an jaio zen Hondarribian, eta hamalau urterekin hasi zen Alardean desfilatzen. Hondarribiko HBko zinegotzi izan zen 1991tik 1995era. 1998an atxilotu zuten ETArri laguntza emateaz akusatuta, 1999an ihes egin zuen eta herrira itzuli zenerako hemezortzi urte eman zituen kanpoan, ezkutaturik eta preso.

³⁷⁷ Tomas Elgorriagari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/02/08 (pasarte bat).

³⁷⁸ “Jaime Iribarren, en prisión por insumiso”, *Egin*, 1997/07/01, 20.

EPPKren arabera 559 euskal preso politiko zeuden. Ezker Abertzalean, beraz, eta beste ezkerreko mugimendu batzuetan, ez zegoen inolako konfiantzarik epaitegiengan. Izan ere, haien sententzia askok zigortu egin zituzten eta horienganako ikuspuntu eta irakurketa kritikoa zuten.

El Mundok Irungo Alardeko hurrengo egunean “El pacto político de San Marcial” berria argitaratu zuen. Bertan, aurreko astean alderdi politiko batzuen negoziazioen berri ematen du, EAEko Justizia Auzitegi Nagusia desobeditu gabe emakumeak Alardean ateratzea galarazteko. EAKo idazkari nagusia zen Inaxio Oliverik honako hau esan zuen publikoki legebiltzarrean, EAK emakumeen aldeko deklarazio instituzionala firmatu eta gutxira: “Las mujeres no participarán en el Alarde ni este año ni ninguno”.³⁷⁹ Artikuluak zioen Oliveriren familia Irungoa zela eta emakumeak soldaduz desfilatzearen kontrako antolakuntzaren kideak zirela, eta horregatik aurretik zekiela emakumeek ez zutela desfilatuko. Honela jarraitzen du berriak:

“Según ha podido saber EL MUNDO DEL PAIS VASCO de fuentes de diferentes partidos, el recorrido alternativo y los actos posteriores habían sido previamente pactados, de forma que la resolución del alcalde del PSE-EE en sus tres puntos incluía la suspensión del Alarde y la entrega de la bandera al general de un Alarde inexistente en la ermita de San Marcial, como si ésta se hubiera desarrollado con normalidad. A lo largo de la semana pasada, las direcciones de los partidos estuvieron negociando con sus representantes en Irún para estudiar la posibilidad de salvar la situación sin desobedecer al TSJPV.”³⁸⁰

Berri horren arabera, 1997ko gizonez osaturiko Irungo Alardea ez zen hogeita lau ordutan antolatu, aurretik negoziatu zen. Horrela, pentsa dezakegu, lehenagotik, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren autoaren eta bozketaren gainetik pasatzeko asmoa zutela batzuek, erantzunak ez baziren haien aldekoak. HBk jeneralaren jarrera koldarra salatu zuen, eta Irungo BAAkoen “txotxongilo” bat besterik ez zela izan.³⁸¹ Javier Vergara jeneralak, ordea, aurreko egunean honela azaldu zuen autoaren eta bozketaren emaitzak ez errespetatzearen portaera:

³⁷⁹ Carmen Gurruchaga, “El pacto político de San Marcial”, *El Mundo*, 1997/07/01, 6.

³⁸⁰ Ibidem.

³⁸¹ “Irungo alkateak «aurrez hitzartutako paktu sekretua» salatu du HBk”, *Egunkaria*, 1997/07/02, 16.

“Con respecto a lo ocurrido en la votación de los mandos en el Ayuntamiento, cuyo resultado favorable a acatar el auto del TSJPV se dio a conocer el domingo, Javier Vergara explicó que «lo que pasó es que sólo se plantearon dos alternativas, si se estaba de acuerdo con la posible incorporación de las mujeres o no. También había una tercera opción la del Alarde alternativo, pero no se llegó a votar. Si hubiera entrado en la votación todos nos hubiéramos decidido por ella».”³⁸²

Bestetik, uztailaren 2ko beste berri batean Vergarak aitortu zuen dimisioa ematetik gertu egon zela Alardeko aurreko egunean, baina desfilea erabaki zuela bere postura pertsonala argi uzteko, alegia, emakumeen parte hartzearen kontrakoa. Alkateak ere egin zitzaizkion akusazioen aurrean erantzun zuen, berak EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren autoa betetzeko saiakera guztiak egin zituela esanez, baina egoera izan zena izanda, ez zuela beste aukerarik eduki ordenantzak jarraituz Alardea bertan behera uzteko. Antzeman dezakegun bezala, testigantza eta komunikabideetan elkarrizketatu askok esan zuten ez zutela beste aukerarik izan, 1997ko Irungo Alarde eguneko gertakarien harira. Zalantzan jartzekoa bada ere, horrek erakusten digu geroz eta estuago zeudenaren sentazioa nagusitzen hasi zela, gatazkan bertan eta inguruan zeuden aktoreen posizioa askoz markatuagoa zegoela jada eta amore emateko asmo gutxi zutela guztiek. Udal ordenantza batek araututako Alardean eta testuinguru horren aurrean alkateak ezer egin ezin zuela esatean, egoerak eskuetatik ihes egin ziola aitortzen ari zen nolabait, eta EBk hori salatu zuen: “el problema futuro no va a ser si la mujer participará o no en el Alarde, pues objetivamente ya lo está haciendo, sino si tendremos una fiesta abierta, tolerante, pública y democrática o, por el contrario, secuestrada por un grupo de poder local.”³⁸³

Urte hartan, Irungo historian lehen aldiz, bi desfile egin ziren. Komunikabideen portadek Irun bitan zatitu zela zioten, eta gatazkak luzerako joko zuela igartzen hasi ziren. Izan ere, bitan zatitu baino soldaduz desfilea nahiago zuten emakumeak eta horien aldekoak Alardetik kanporatu zituzten eta beste bat egitera bultzatu. Behin disidentzia Alardetik, eta beraz, herri-komunitatetik kanporatuta, errazagoa zen barruan gotortzea eta emakumeak ateratzea ekiditea, haien Alardean behintzat. Gainera, ikusi

³⁸² “«Este es el Alarde que quiere la mayoría del pueblo», dice el General”, *El Diario Vasco*, 1997/07/01, 6.

³⁸³ Joseba San Juan, “«Opte por desfilar para mostrar mi posición personal»”, *El Diario Vasco*, 1997/07/02, 24; Itziar Otaño, “«Yo no había pactado absolutamente nada con nadie»”, *El Diario Vasco*, 1997/07/02, 24; “El Alarde está secuestrado por un grupo de poder local, según IU”, *El Diario Vasco*, 1997/07/05, 19.

zen nahiz eta auto judizial bat egon, hori beretzeko borondate politikorik ez bazegoen, gutxirako balio zuela. Askotan aipatu dugun bide berebean, Alardeak herria eraikitzen du, eta gizarte balio eta arau batzuk transmititzen ditu. Gizonez osaturiko Alardeak, nahiz eta lehenagotik ere gizonez bakarrik osatu, gatazka lehertuta eta disidentzia kanporatuta, transmititzen zuena ere aldatu edo behintzat polarizatu edota biziagotu zen. Edozeren gainetik tradizioa mantendu behar zenaren mezua zabaldu zuten, emakumeak ez ateratzearen tradizioa. Eta horretarako guztiak balio zuela, bai Alarde egunetan, baita urte osoan ere. Lanean zehar azaltzen joango garen gaia da, zer herri eraikitzen ari ziren Alarde horrekin.

Behin Irungo Alarde eguna pasata, hurrengo egunetako komunikabideetako deklarazio, elkarrizketa eta kolektiboen komunikatuen ostean, Hondarribikora begira jarri ziren guztiak, zer gertatuko ote zen galdezka. Izan ere, Hondarribiko Alardea bi hilabete aurretik izandako Irungoak baldintzatzen zuen zentzu askotan.

2.5. Jaizkibel konpainiaren sorrera soluzio gisa

Hondarribiko 1997ko Alardetako bi hilabete falta ziren, eta Juana Mugarrietakoa kolektiboak lanean jarraitu zuen denbora horretan, emakumeek Alardean soldaduz desfilatzea lortzeko. Hala ere, Irunen gertatutakoa ikusita ez zegoen emakumeak edozein konpainiatan aterako zirenaren itxaropen handirik. Maria Jesus Berrotaran Etxeberriak komentatzen duen bezala, gainera, Irunen gertatzen zenak eragina zuen Hondarribian: “hemen guk nahi eta nahi eta ez, Irunek markatzen du Hondarribia, herri txiki bat dela. Eta asko. Askok markatzen du Hondarribia.”³⁸⁴ Irun eta Hondarribiaren arteko harremana handia zen, eta Berrotaranek azaltzen duenez, Hondarribia herri txiki bat izanik, bertako biztanleak askotan joaten ziren Irunera, lanera, ikastera, erosketak egitera, aisialdira eta abar, eta horrek eragina zuen.

Gauzak horrela, Juana Mugarrietakoa kolektiboak uztailaren 9an Hondarribiko alkate zen Borja Jauregiri eskaera formal bat egin zion, emakumeek Alardean parte hartzeko zuten eskubidea errekonozitzeko, bakoitzak bere auzoko konpainian desfilatzea ahalbidetuz. Borja Jauregiri bidali zioten, Alardeko Juntako kide zelako eta bestetik

³⁸⁴ Maria Jesus Berrotaran Etxeberriari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/10/09 (pasarte bat).

herriko ordezkari gorena. Hondarribiko Alardeko ordenantzan “gizon” terminoa azaltzea espainiar konstituzioko 14. artikulua eta EAEko autonomi estatutuko 9. artikuluekin kontraesanean zegoela argudiatzen zuten. Horrez gain, 50 pertsonak sinatutako eskaera bat egin zen, gizon eta emakumez osaturiko infanteria konpainia batek Alardean parte hartzea eskatuz. Alkateak bi aste pasata erantzun zion Juana Mugarrietakoa kolektiboak eginiko eskaerari, Alarde Fundazioa Hondarribiara (AF) jotzeko eta bertan eskaera egiteko esanez.³⁸⁵ Horren aurrean, honako deklarazio hauek egin zituen Juana Mugarrietakoa kolektiboak:

“Según denunciaron ayer representantes de la asociación Juana Mugarrietakoa, la fundación «está constituida supuestamente por los mandos del Alarde y otras persona para continuar organizando la fiesta bajo la forma de patronato». Las portavoces de Juana Mugarrietakoa denunciaron que la mencionada fundación «no está legalmente constituida» y que no representa más que un intento de «privatizar» la fiesta, sustrayendo a «la ciudadanía de un bien común, en favor de su apropiación por unos particulares».”³⁸⁶

1997ko uztaileko, beraz, Alarde Fundazioa Hondarribia izeneko elkarte sortua zegoen, nahiz eta lege aldetik erregistratua ez egon. Fundazio horren helburua Alardea antolatzea zen, eta horrela, udaletik bereizita egongo zen Hondarribiko Alardea bera. Juana Mugarrietakoa kolektiboak herriarena zen ondasuna izatetik gutxi batzuen eskuetan egongo zen ekitaldi pribatu bihurtuko zela salatu zuen. Horrela, gainera, Alardearen inguruko erabakimen eta kontrol espazioa udaletik fundaziora, Alardea batzuek nahi zuten moduan egitera pasako zen, eta hortaz, baita herri identitate eta eraikuntzaren ardatz nagusietako bat AFk kontrolpean izatera ere. Alkatearen erantzunaren aurrean Juana Mugarrietakoak berriro ere Borja Jauregiri bidali zion aurretik egindako eskaera berbera, eta ez zuen onartu AFk inolako eskumenik edukitzea. Horrez gain, konpainia berri baten sorrera babestu zuen, emakumeak konpainia guztietan berdintasunean ateratzeko bidea errazteko modu gisa. Hori, ordea, ez zen erraz hartu zuten erabaki bat izan. Zeren askok uste zuten Alardean edozein

³⁸⁵ “Mujeres de Hondarribia reivindican su derecho a participar en el Alarde”, *Egin*, 1997/07/09, 19; M. Marin, “Vecinos de Hondarribia exigen que se cree una compañía mixta para el próximo Alarde”, *El País*, 1997/07/09, 3; “Alardean parte hartzeko baimena eskatu du formalki Hondarribiako emakume talde batek”, 1997/07/10, 10; “«Juana Mugarrieta» solicita la incorporación al Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/07/25, 14.

³⁸⁶ Bego Zubia, “Intento de privatizar el Alarde de Hondarribia para limitar la participación”, *Egin*, 1997/07/25, 19.

konpainiatan ateratzeko zuten eskubideari uko egitea suposatzen zuela. Ixabel Alkain Etxeberriak hau dio gai horren inguruan:

“Orduan hasi ginen 96-97 ikasturtean konpainia bat sortzeko ideia horrekin eta bueno, eztabaidak oso potenteak gure artean, emakume taldearen artean. Zergatik amore ematea zen, baina ikusten genuen hura maratoi bat zela, ez hain luzea, ez hain luzea. Askok ez genuen pentsatzen hain luzea izango zenik baina bueno, jada helburuak, eta egin behar zen lana, sozialki luzea zela eta pedagogikoa izan behar zuela eta orduan esaten genuen: «bueno tarteko bide bat, guk amore ematen dugu eta beraiek onartu behar dute». Gizon emakumez osatutako konpainia bat baina klaro, hor erabili zuten terrorea eta oso, oso, oso gogorra izan zen, oso gogorra izan zen guztientzat eta jendea bazegoela gure alde eta oso (...) ez zen ausartzen hurbiltzea, eta hurbiltzen zirenak gogor ordaintzen zuten, edo ordaintzen genuen.”³⁸⁷

Alkainek azaltzen duen bezala, batzuentzat konpainia bat sortzea eta horretan bakarrik desfilatu ahal izatea amore ematea zen; izan ere, uste osoa zuten eskubidea zutela edozein konpainiatan gizonen pare desfilatzeko. Bestetik, aurreko urtean gertatutakoa eta urte hartako Irungo Alardea ikusita, erdibideko pausu bat ematea erabaki zuten, tentsioa jaisteko intentzioarekin. Bi postura kontrajarrien arteko puntu bat zela pentsatzen zuten eta onartu egin beharko zutela, luzera begira edozein konpainiatan desfilatzeko borrokarekin aurrera jarraituko bazuten ere. Tentsioa jaistearen asmoa askorentzat berebizikoa zen haien bizitzekin aurrera egiteko, etengabeak baitziren emakumeen parte hartzearen kontra eginiko ekintzak:

“Hala ere, onartu zuten herrian egoera gatazkatsua dagoela, mehatxuak egunero gertatzen direla, eta zenbait emakume lanpostutik kaleratu dituztela. Halaber, Jon Elizalde Udaleko Hezkuntza zinegotziari leporatu zioten Irunen egon izana eskopetero gisa desfilatzen ari ziren emakumeei botilak botatzen ari zen taldearen barruan.”³⁸⁸

³⁸⁷ Ixabel Alkain Etxeberriari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/16 (pasarte bat).

³⁸⁸ I. Petxarroman, “Konpainia mistoa baimentzeko eskatu diote berriz Udalari”, *Egunkaria*, 1997/07/25, 10.

Kaletik egindako mehatxu, irain eta inguratzeaz gain, lan arloan ere eragina izan zuen, emakume batzuk lanetik bota baitzituzten. Horrek agerian uzten du, nola gorroto diskurtso batzuen errepikapenak, emozioen inguruko apelazioek eta herri-komunitatetik sinbolikoki kanporatzeak eragin material asko zituela, indarkeria fisikoa eta lan kaleratzeak tartean. Errito baten inguruan sortu zen gatazka eguneroko bizitzan materializatzen zen, erritoak berak garrantzi handia baitzuen eta guztiz gurutzatzen baitzuen herriko egunerokotasuna, ekonomia, kultura eta politika.

Testuinguru horretan eta anekdota gisa, edo BAAk dokumentu batean azaldutako kolektibo feministen elkartasunaren adierazgarri, Ordiziako jaietan Egizanek planteatutako ekintza aurrera eramane zen. Irungo Musika Bandak herrian zehar jo behar zuen, eta dozena erdi emakume inguru haien aurrean jarri ziren desfilatzen, zuriz jantzita, zapi eta txapela gorriekin eta eskopetekin sorbaldan. Horrela, Irungo musikarien eta zehazki Musika Bandak Alardean izan zuen jarrera salatu nahi izan zuten.³⁸⁹

Uztaileko azken egunean Hondarribian beste dokumentu anonimo bat zabaldu zen,³⁹⁰ oraingoan, eskuineko espainiar nazionalismoaren zantzuak zituena. Izenburua “Boicot a Herri Batasuna” zuen, eta horretarako arrazoi nagusia Ermuko PPko zinegotzi zen Miguel Angel Blancoren hilketaren zela zioten.³⁹¹ Jarraian, izen abizen eta komertzio batzuk zerrendatzen zituen, bertara ez joatera deituz. Horietan, Alardearen gaia ateratzen zen, eta pertsona batzuk ETaren hilketaren konplize izateaz gain emakumeak Alardean ateratzearen aldekoak izateaz akusatu zituen:

“(…) conocida agitadora de mujeres en el alarde. Frecuencia la cueva batasunera de OLAGARRO (...) una de las fuentes económicas de HB y donde trabajan muchos militantes. Una de las mujeres es activista marimacho para que desfilen las mujeres en el alarde.”³⁹²

³⁸⁹ Mirenbe Korta, “La banda de Irun, tras las escopeteras”, *Egin*, 1997/07/27, IV (Gipuzkoa).

³⁹⁰ Bego Zubia, “La lista de Hondarribia”, *Egin*, 1997/08/01, 13.

³⁹¹ Miguel Ángel Blanco Ermuko PPko zinegotzia zen 1995tik, eta 1997ko uztailearen 12an ETak buruan bi tiro sartuta hil zuen. Bi egun lehenago bahitu zuten eta Espainiako PPko gobernari euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzeko exijitu, Blanco askatzeko baldintza gisa. Manifestazioak antolatu ziren Blanco askatzeko eskatuz, eta gizartearen parte handi baten ukapena jaso zuen ETak, inflexio puntu bat markatuz antolakunde horren legitimitate eta babesean, bai eta Ezker Abertzalearen inguruan. Blancoren hilketaren ondoren Foro de Ermua 1998an eta ¡Basta Ya! Plataforma sortu ziren ETaren kontra egiteko.

³⁹² “Boicot a Herri Batasuna”, 1997/07/XX.

Horrez gain, alkatea eta *El Diario Vasco* ere seinalatzen zituen. Alkatea “fariseo” adjektiboarekin deskribatzen zuen, eta bi aurpegi izatea egotzi. Azken plenoan HBko zinegotziak kanporatzeko ausardiarik ez zuela esaten zuen eta Alfonso Sastre “biolentoaren” laguna zela. *El Diario Vascon* inguruan “volvemos a señalar al DIARIO VASCO por su corresponsal indecente” zioen.

Handik gutxira, abuztuan bertan, beste dokumentu bat zabaldu zen, oraingoan “Amigos por la Salvación de España” antolakundeak sinatuta.³⁹³ Bertan, azaltzen zuten Alardearen gatazka Donostian egin zen Miguel Angel Blancoren hilketa salatzeke manifestazioan ezagutu zutela, dokumentuan “gran manifestación patriótica” deiturikoan. Honako mezu hau bidali nahi zieten gizon soldaduz osaturiko Alardeko kideei:

“Estamos de vuestra parte. No nos gustan las mujeres-soldado y menos si son de HB. (...) Nos hemos organizado ya y tenemos echas (sic) citas con varios grupos. Iremos a Fuenterrabia y no podrán levantar cabeza esos cabrones amigos de la ETA y sus acolitos (sic) que quiere pervertir el sexo débil (sic) y acabar con la paz de vuestro pueblo. (...) Les daremos una lección. ¡VIVA ESPAÑA UNIDA! ¡Vivan los vascos y los españoles hechos carne y uña! ¡MUERA HB Y SUS ZORRAS!”³⁹⁴

Dokumentu horrek espainiar eskuin muturraren forma eta edukiak erreproduzitu, eta berriro ere guztiz lotzen zituen HB eta emakume soldaduak. Sexu ahul gisa izendatzen zituen emakumeak eta horien perbertsioak herriaren bakearekin amaitzen zuela. Kapitulu honetan azaldu dugun bezala, genero ordena perbertitzeak orden eta bake soziala hausten zituen, eta eskuin muturrak ordenaren aldarri oso garbia egiten zuen, horien espainiar nazioa gizontasunarekin eta zuzentasunarekin identifikatuz, gizonez soilik osaturiko Alardearekin.³⁹⁵

Abuztu erdialdean, eta alkateak Juana Mugarrietakoak eginiko eskaera atzera bota ostean, EAEko Justizia Auzitegi Nagusian errekurtsio bat jarri zuen, oinarrizko eskubideen babes juridikzionalaren babespean. Kautelazko neurriak eskatu ez zirenez,

³⁹³ Jon Abril, “Emakumeen parte hartzearen aurkako anonimoak”, *Egunkaria*, 1997/09/28, 7; “«¡Muera HB y sus zorras!»”, *Egin*, 1997/08/29, 14.

³⁹⁴ Amigos por la Salvación de España, t.g., d.g.

³⁹⁵ Zira Box, “Masculinidad en línea recta. A propósito del pensamiento binario del fascismo español”, Nerea Aresti, Karin Peters eta Julia Brüne (ed.), *¿La España invertebrada?...*, 238.

momentu horretan behintzat ez zen espero irailaren 8a baino lehen inolako sententziarik irtetea. Irungoa gertatu ostean, zaila izan daiteke ulertzen nola jarraitu zuten bide berbera, baina pentsa liteke sententzia edota auto judizialik gabe, are zailagoa izango zela emakumeak Alardean desfilatzea lortzea. Horren aurrean, Borja Jauregi alkateak alegazioak aurkeztu zituen, zeinetan adierazten zuen emakumeak Alardetik kanpo uzteak ez zituela oinarrizko eskubideak urratzen. Horrez gain, Irunen gertatu zena errepikatzearen arriskua zegoela adierazi zuen, hau da, nahiz eta auto bat egon gehiengoak hori ez onartzea. Azaldu zuen alkateak ez zuela Alardearen gaineko inongo kompetentziarik eta ez zela existitzen Alardea arautzen zuen ordenantzarik. Azkenik, emakumeak Alardean ateratzearen nahia Alardea ezegonkortze sozial eta politikoko prozesu baten baitan sartzearekin lotu zuen. Hondarribiko alkatearen azken hitz horiek larriak ziren; izan ere, nahiz eta anonimoak eta erasoak kondenatu eta gaitzetsi, emakumeen nahiari horrela zilegitasuna kenduz eta engainutzat hartuz, jarrera horiek ahalbidetzen zituen.³⁹⁶ Abuztu bukaeran Jaizkibel konpainia mistoa sortu zen, 52 pertsonak osatua eta Alardean desfilatzeko asmoarekin:

“Que el ambiente de tensión y miedo pueden cortarse con un cuchillo deja de ser una metáfora en Hondarribia. Al menos así lo sienten las 52 personas, mujeres y hombres, que han conformado una nueva compañía. (...) Anteayer mismo, en un ensayo de los que viene realizando esta compañía todos los jueves, estuvieron vigilados por un grupo que les filmaron en vídeo y les lanzaron huevos. «Es duro –explicó un componente masculino de la nueva formación- que te señalen por la calle o que te amenace un amigo con romperte la cara el día 8».”³⁹⁷

Jaizkibel konpainia sortu zuten, beraz, eta Juana Mugarrietako kolektiboarekiko independentea eta bitarteko bide bat jarraitzearen aldekoa zen. Izan ere, azken horrek edozein konpainiatan ateratzeko eskubidea aldarrikatzen zuen. Hala ere, urte horretan bertan eskubide horri uko egin eta Jaizkibel konpainiaren inizatibaren barnean sartuko

³⁹⁶ Fran Manso, “El TSJPV tramita un recurso para que las mujeres puedan participar en el alarde de Hondarribia”, *Deia*, 1997/08/14, 9; “Mujeres de Hondarribia recurren al TSJPV para participar en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/08/14, 7; “El TSJPV tratará el Alarde hondarribitarra”, *Egin*, 1997/08/14, 17; “El alcalde de Hondarribia presenta recurso”, *Deia*, 1997/08/15,15; “El alcalde de Hondarribia presentará alegaciones ante el TSJPV sobre el Alarde”, *Egin*, 1997/08/15, 18; “El alcalde de Hondarribia dice que la ausencia de mujeres en el alarde no vulnera sus derechos”, *Deia*, 1997/08/20, 21; “El alcalde de Hondarribia defiende el alarde tradicional”, *El Diario Vasco*, 1997/08/20, 6; “«Alardean ez desfilatzeak ez du oinarrizko eskubiderik urratzen»”, *Egunkaria*, 1997/08/20, 9; “Critican con dureza al alcalde de Hondarribia por las alegaciones al Alardea”, *Deia*, 1997/08/21, 21.

³⁹⁷ Iñaki Lekuona, “Nueva compañía en Hondarribia”, *Egin*, 1997/08/23, 13.

zela adierazi zuen. Jaizkibel konpainiak Alardean desfilatzeko baimena eskatu zuen, baina Alardeko agintariak uko egin zioten. Blokeo puntu batean zeuden berriro ere, eta horren aurrean, alkateak elkarrizketarako deia luzatu eta proposamen bat egin zien emakumeak Alardean ateratzearen aldeko eta kontrako kolektiboak: 1997ko Hondarribiko Alardean Jaizkibelet eta emakumeek parte ez hartzea, eta horren truke, irailaren 8tik aurrera foro bat martxan jartzea, 1998ko maiatzaren 31ren aurretik gatazkan akordioetara iristeko. Juana Mugarrietakoa kolektiboak positibotzat jo zuen komunikazioa eta elkarrizketa bultzatzea, lehenagotik ez baitzen ia horrelako espaziorik egon. Alkateak lehen bilera urriaren 10ean proposatzen zuen, eta esan zuen gehienez alde bakoitzeko sei emakumeek parte hartuko zutela. Alderdi politikoak kanpo geratuko ziren eta bitartekaria emakume neutral bat izango zen. Bertan negoziatuko eta erabakiko zenaren aurrean Alardeko agintariak irekiak agertuko zirela zioen. Ez dakigu zehazki horrek zer esan nahi zuen: emakumeek eztabaidatu eta negoziatuko zutela, eta ondoren, Alardeko gizonak onartu edo atzera bota zezaketela?³⁹⁸

Egun horietan bertan, Hondarribiko BAAREN baitako emakumeek, Hondarribiko Emakumeak kolektiboan antolatuta, manifestazio bat deitu zuten, “Herriko hitza betiko alardea- El pueblo quiere su Alarde de siempre” lemapean. Emakumeek Alardean zuten kantinera papera defendatu zuten, eta ez zirela baztertuak sentitzen, are gehiago, eskubideak haiek inork baino gehiago defenditzen zituztela aldarrikatu zuten. Manifestazio bukaeran irakurritako komunikatua bozeramaileak hau esan zuen: “Dijo no entender «la lucha de estas mujeres, como reivindicación de la mujer, si luego quieren salir en el Alarde vestidas de hombres». ”³⁹⁹ Esaldi honek erakusten digu, nola generoa ulertzeko eta bizitzeko modu ezberdinek talka egin zuten eta Hondarribiko eta Irungo Alardeen gatazka Euskal Herriko bolada feminista berri baten aurrekari izan zenaren hipotesia planteatzen dut, emakume soldaduak emakume subjektua zalantzan jarri edota emakume kategoria eta identitatearen mugak zabaldu edo hausten zituena.⁴⁰⁰

³⁹⁸ “La compañía mixta de Hondarribia decide hoy si desfila en el Alarde”, *Egin*, 1997/08/26, 16; Javier Roldan, “El alcalde de Hondarribia propone un diálogo para no tensionar el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/08/28, 10; Iñaki Lekuona, “Oferta del alcalde de Hondarribia”, *Egin*, 1997/08/28, 15; Jon Abril, “Alardeari buruzko bilerarako deia egin du Hondarribiko alkateak”, *Egunkaria*, 1997/08/28, 7; Javier Roldan, “El alcalde propone que las mujeres de Hondarribia pacten el futuro del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/08/29, 6; “El alcalde propone diálogo después del Alarde”, *Egin*, 1997/08/29, 14; Jon Abril, “Alardearen ondoren hasi nahi ditu alkateak elkarrizketak”, *Egunkaria*, 1997/08/29, 10.

³⁹⁹ “Jaizkibel no desfilará si el Ayuntamiento de Hondarribia ratifica el acuerdo del Parlamento”, *Deia*, 1997/08/31, 15.

⁴⁰⁰ Jon Abril, “Alardeari buruzko bilerarako deia egin du Hondarribiko alkateak”, *Egunkaria*, 1997/08/28,

Jaizkibelek alkatearen proposamenari emandako erantzuna hurrengoa izan zen: urte horretan ez desfilatzea onartzen zuen, baldin eta udalak legebiltzarreko ekaineko deklarazio instituzionala onartzen bazuen. Gogorazi nahi dut deklarazio hori alderdi politiko guztiek babestu zutela, hau da, baita Hondarribiko Udalean zeuden guztiek ere. Hori ez bazen onartzen, irailaren 8an Gernikako Arbolaraino, Alardea hasten den tokiraino, desfilatuko zutela adierazi zuten, kantinera jaso ondoren, eta bertan burgomaisuari Alardean desfilatzeko baimena eskatuko ziotela. Onartzen ez bazuen, atzera egingo zutela. Hondarribiko BAAk ere erantzun zion alkateari, eta elkarrizketetan alde bateko zein besteko ordezkaritza proportzionala izatea jarri zuen baldintza gisa. Bestetik, egindako azken manifestazioan, tartean eramandako pankarta batek “Hablar si, negociar no” zioen. Guzti horren aurrean, Jauregik bere proposamenak ez zuela aurrera egingo onartu zuen, eta adierazi zuen jaiak bakean eta istilurik gabe ospatzeko ardura bakoitzarena zela eta ez berea.⁴⁰¹

Egun gutxi falta ziren Hondarribiko 1997ko Alarderako, baina Irunen ez bezala, aurreikusi zitezkeen gertatuko zena: Jaizkibelek erabakia baitzuen desfilatzen irtetea, burgomaisuari baimena eskatzea, eta bazekiten ezetz esan eta buelta eman beharko zutela. Horrez gain, ez zen espero EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko sententzia kaleratzerik irailaren 8a baino lehen; beraz, ezuste gutxi espero zituzten, ez bazen egunean bertan sortu zitezkeen istiluengatik. Beste aldetik, ordea, Alardea pribatizatzekeo pausuak eman ziren; horien artean AFren bazkide izateko orriak banatzen hasi ziren. Hori beteta, alde batetik Alarde tradizionala babestu eta errespetatzeko konpromisoa hartzen zen, fundazioko zuzendaritzak hartutako erabakiak onartu eta diru kopuru bat jarri. Nahiz eta urte horretarako helburua betetzera ez iritsi, martxan zegoen fundazioko zuzendaritzak gidatu eta kontrolatuko zuen Alardea. Horrez gain, momentu hartatik aurrera, gizonez osaturiko Alardeari adjektibo bat itsasten joan zitzaion: “tradizionala”. Emakumeak Alardean ez ateratzearen diskurtsoan tradizioa mantentzea zen argudio nagusia, nahiz eta horrek pribatizazio bat ekarri edota beste aldaketa batzuk.

7; “Hondarribiko Emakumeak convoca una manifestación en defensa del Alarde”, *Deia*, 1997/08/29, 15.

⁴⁰¹ “Jaizkibel no desfilará si el Ayuntamiento de Hondarribia ratifica el acuerdo del Parlamento”, *Deia*, 1997/08/31, 15; Javier Roldan, “Las mujeres ponen condiciones a la oferta del alcalde de Hondarribia sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/08/31, 10; Bego Zubia, “La propuesta del alcalde «es insuficiente»”, *Egin*, 1997/08/31, 19; Jon Abril, “Emakumeak ez ateratzeko prest, Udalak jarrera aldatzen badu”, *Egunkaria*, 1997/08/31, 10; “El alcalde de Hondarribia insiste en evitar un pronunciamiento político”, *Deia*, 1997/09/02, 13; Javier Roldan, “El alcalde de Hondarribia lamenta que no prospere su oferta de diálogo sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/09/02, 7; Luis Fernandez, “Legebiltzarreko deklarazioa onesteari uko egin dio Hondarribiko alkateak”, *Egunkaria*, 1997/09/02, 13.

Hala ere, Alarde tradizionala kontzeptua erabili eta zabaltzen hasteak beste ondorio batzuk zituen. Hau da, jada ez zen soilik diskurtso bat, izaera eta identitate bat baizik, esentzialista, eta emakumeen parte hartzearen inguruko eztabaida errotik mozten zuena.⁴⁰² Momentu horretako egoera *Deiak* honela azaltzen zuen:

“Hasta llegar a esta situación, el clima se ha ido enrareciendo en Hondarribia; tras la agresividad desatada durante el desfile del año pasado, durante el invierno la vida en el pueblo no ha sido tan tranquila como siempre: panfletos amenazantes contra la Asociación Juana Mugarrietakoa, Emakunde y el Ararteko, anónimos con nombre y apellidos, manifestaciones... Incluso se han disparado rumores sobre lo que les van a tirar encima a las mujeres si salen en el Alarde. Pese a todo siguen ensayando: «No vamos a dejar de salir por miedo. Si nos convenciera de que estamos equivocadas no saldríamos, pero por miedo no nos quedaremos sin salir», dice Isabel Alkain (...)»⁴⁰³

Alardean desfilatu nahi zuten emakumeen egoera zaila zen, urte bat zeramaten etengabeko borroka batean, jazarpen handiarekin eta haien helburuak beste urte batez ez zirela beteko aurreikusten zuten. Horrez gain, nahiz eta urtebete pasa Hondarribiko Alardean sartu zirenetik, aurretik beste hiru urte zeramatzaten eskaerak eta bilerak egiten. Beldurra aipatzen da, behin eta berriro, eta nola eragin zien eguneroko bizitzetan, baina horrek ez zituela atzera botako. Isabel Alkain Etxeberriari eginiko elkarrizketa batean, ea noizbait amore ematea pentsatu zuten galdetzean, honela erantzun zuen:

“Ez, ez. Es como renunciar a dejar de ser. ¿Tú te puedes dejar de ser? No, y dices «¿qué?, pues ahora te vas a joder», te digo porque a mí lo de salir o no salir, guk beti horrela defendatu dugu, pues nahi duena parte hartu eta gainera zuk erabakitzen baduzu Landetara joatea pues estupendamente, eta erabakitzen baduzu ez ateratzea estupendamente baina nahi baduzu atera zergatik ez? y digo «¿qué? ¿Porque soy tía? ¡Ah! o sea, ¿me estás negando sentido de pertenencia, el sentido... el sentir, el ser, solamente por pedir esto?» Anda, no puedo renunciar a ser. Entonces, no sé... no sé si me va a ir la vida en esto. Nire eguneko bizitza eta

⁴⁰² “Las mujeres pedirán permiso al general del Alarde para desfilan como soldados”, *Egin*, 1997/09/03, 18; Jone Larrañaga, “Jaizkibel konpainiak alardean irtetea berretsi du batzarrean”, *Egunkaria*, 1997/09/04, 10; “Alarde pribatizatzeke lehen urratsak hasi dira”, *Egin*, 1997/09/05, 20.

⁴⁰³ E. Iribarren, “El Alarde de la discordia”, *Deia*, 1997/09/06, 8.

oso, oso gogorra izan da eta nik uste dut gero ondorioak, fisikoak edo, edukitzen dituzula.”⁴⁰⁴

Atzera egiteak edo borroka bertan behera geratzeak izateari uztea suposatzen zuela dio Alkainek. Izan ere, Alardea izanik Hondarribiko herri-komunitatearen ardatz nagusienetarikoa bat, herritartasuna bertan desfilatzeak ematen zuen, eta sexu-genero ardatzaren arabera bereizketa eginik, lehen mailako eta bigarren mailako herritarrak sortzen ari ziren. Are gehiago behin eskaera eta borroka hasita ezezkoa jaso ondoren. Ezezko horrek herritar izatea ukatzen zien eta hori ezin zutela onartu dio, hondarribiarrak zirelako, bertako herritarrak eta ezin zutela hori izateari utzi. Oso gogorra izan zela azaltzen du eta ondorioak izan zituztela, fisikoak barne, baina amore emateak herritar izateari uztea zekarren eta haientzat askoz okerragoa zen hori.

Hondarribiko Alardea baino egun bat lehenago, urtero bezala, alkateak herriko aginte makila burgomaisuari eman zion, Alarde egunean burgomaisua baitzen herriko agintari nagusia. Bestetik, Alardeko agintariak hurrengo egunean Gernikako Arbolan Jaizkibelen eskaera jasoko zutela onartu zuten, baina horrek ez zuen horren errekonozimendua ez eta onarpena suposatzen. Onarpen horrek nolabaiteko lasaitasuna ekarri zien Jaizkibeletako kideei. Izan ere, Gernikako Arbolara arte desfilatzen joango ziren eta bertan seguruenik buelta emango zuten, baina lehenagoko ibilbidea inork ez zuela galaraziko pentsatzen zuten eta hori aurrerapausoa izango zela: “Hori pauso handi bat izango da. Jendeak ikusiko du beste konpainia bat bezala garelako, talde polita garelako, eta zerbait aurreratuko dugu.”⁴⁰⁵ Zeren eta urte osoan zehar emakume soldaduen kontra errepikatu ziren diskurtsoekin irudi bat eraiki zuten haien inguruan.⁴⁰⁶ Rosaren hitzek hori azaltzen dute:

“O sea, zein inportantea den gure aurpegiak ikustean adierazteko ez ginela denak ez kanpotarrak, ez munstro batzuk, ez... la visibilización de nuestras caras en un Alarde, bueno, o sea, beraien konpainia bat bezala. Zein inportantea zen beraiek ikustea zeintzuk ginen baita ere asko eta asko lasaitzeko zeren eta zurrumurrak eta denetatik zabaltzen zuten gutaz. ¡Hombre!, pues bazekiten gu ez ginela

⁴⁰⁴ Ixabel Alkain Etxeberriari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/16 (pasarte bat).

⁴⁰⁵ Luis Fernandez, “Desfilatuko ez duen kantinera”, *Egunkaria*, 1997/09/07, 12.

⁴⁰⁶ Javier Roldan, “El traspaso de poderes, prólogo del Alarde de mañana en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1997/09/07, 29; “Los mandos del alarde recogerán el escrito de las mujeres mañana”, *El País*, 1 (País Vasco).

berdeak eta baino ia-ia batzuk sinesten zuten, ez dakit nola esan. Ez dakit zer espero zuten. «Ikusiko duzu hauek ateratzerakoan, izango da hori, no sé, una cuadrilla de satanasas o de brujas.»⁴⁰⁷

Beste edozein konpainia bezala desfilatzen ikusten bazituzten, haien kontra esandako gauza asko desmuntatuko zirela pentsatzen zuten. Horien artean, Alardea suntsitu nahi zutela, guztiak *kanpotarrak* zirela, *putak*, *lesbianak* edota *etarrak* zirela. Seguruenik batzuei eragingo zien zentzu batean baina beste askori ez. Izan ere, emakumeak soldadu gisa ateratzea, nahiz eta seriotasun eta arau guztiak betez egin, batzuentzat jada Alardea suntsitzea zen. *Kanpotarrak*, azaldu dudana bezala, ez ziren zertan Hondarribitik kanpo jaio edo bizitakoak izan behar, herri-komunitatetik kanpo zeudenak ziren eta emakumeen Alardean irteteak 1997rako jada *kanpotar*, *puta*, *lesbiana* edota *etarra* bihurtzen zituen. Testuinguru horretan iritsi zen 1997ko irailaren 8a.

Guztia hitz eginda eta adostua zegoenez, ezusteko handirik egongo ez zela pentsatzen zuten Jaizkibeleko kideek, baina goizean goiz elkartu, kantinera jaso eta Gernikako Arbolara hurbiltzen ari zirela, emakumez osaturiko harresi batekin egin zuten topo, gainontzeko Alardeko konpainietara gerturatzea ekiditen zuena. Bertan “¡las cochinas a su pueblo!” oihukatuz jaso zituzten, eta Alardeko agintarien ordezkari batek jendearen artetik pasatzea lortu ondoren, Ixabel Alkain Etxeberriak, Jaizkibel konpainiako kapitainak, gutun bat eman zion Alardean sartzeko baimena eskatuz, eta bueltan beste gutun bat jaso zuen ezezkoarekin. Elkarri eskua eman eta adostu zuten moduan, buelta eman, Alardetik urrundu eta handik gertu amaitu zuten ibilbidea.⁴⁰⁸

Jaizkibelek positiboki baloratu zuen gertaturikoa, nahiz eta Alardean onartu ez, kaletik desfilatu baitzuten eta Irunen urte horretan egon ziren istilu eta erasoak jaso ez zituztelako. Bestetik, negoziatziorako eta konponbiderako jarrera zutela erakutsi zuten, eta egozten zieten gehiengoaren gaineko inposizioa ez zela egiazkoa adierazi nahi zuten. Komunikabide askotan azpimarratukoaren eta alkatearen deklarazioen arabera, jaia

⁴⁰⁷ Rosari (pseudonimo) egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/22 (pasarte bat).

⁴⁰⁸ Nagore García de Vicuña, “Pólvora en paz”, *Deia*, 1997/09/09, 8; N. García de Vicuña, “Hondarribia festejó su Alarde sin incidentes, pero las mujeres no recibieron permiso para desfilan”, *Deia*, 1997/09/09, 12; “Alarde soleado”, *El Diario Vasco*, 1997/09/09, 15; “La fiesta continúa”, *El Diario Vasco*, 1997/09/09, 16; Alazne Basañez, “Las soldados desfilan en Hondarribia”, *Egin*, 1997/09/09, 12; Mikel Lizaso, “«Las cochinas a su pueblo»”, *Egin*, 1997/09/09, 13; Luis Fernandez, “Emakumeak aurrez aurre”, *Egunkaria*, 1997/09/09, 12; Iban Arregi, “«Pauso handia eman dugu, baina oraindik egiteko asko dago»”, *Egunkaria*, 13; M. Marin, “Alarde sin mujeres en Hondarribia”, *El País*, 16.

bakean ospatu zen, gatazka existituko ez balitz bezala. Bestetik, espazioak eta denborak gatazkan zituzten dimentsioak berriro ere mahai gainean jarri ziren. Izan ere, horretan itzultzen edo materializatzen zen konfliktua: egun eta ordu konkretu batean emakume edo kolektibo batek, 1997an Jaizkibel konpainiak hain zuzen, Alardeko denbora eta espazioan sartzearen alde eta kontrako borroka edo gatazka fisikoan. 1997an aurrekari bat ezarri zen, Jaizkibelen kontrakoek, emakumeek batez ere, haien gorputzak erabiliz espazio eta denbora horretara sartzea ekidinez. Emakumeak izan ziren protagonista, alde batetik, irudi hori eman nahi zutelako, emakumeak emakumeen kontrako gatazkaren irudia, eta ez gizonak emakumeen aurkakoa. Azken irudi hori kaltegarriagoa eta agerikoagoa izango baitzen eta jarrera matxista leporatzea errazagoa. Jadanik aipatu dugun emakumeen paperak ere eragina izan zuen, emakumeak baitziren tradizioaren zaintzaile eta transmisoreak. Azkenik, ezin dugu ahaztu, gizonak Alardean desfilatzeko prestatzen ari zirela, eta horregatik ere ez zeudela lehen lerro horretan. Faktore guzti horiengatik emakume soldaduen kontra zeuden emakumeak, haien genero rola betez, hori apurtzen joan ziren zentzu batean. Hau da, espazio publikoa hartzen, antolatzen eta borrokatzen. Historian askotan gertatu izan den fenomeno gatazka honetan ere gertatu zen, eta lanean zehar ikusiko dugu zein prozesu eta forma hartu zituen.⁴⁰⁹

Nahiz eta Jaizkibelek zati bat beste edozein konpainiak bezala desfilatu, tapoiaren bitartez gutxi batzuek besterik ez zituzten ikusi, eta, beraz, ez zuten guztiz lortu beste edozein konpainia bezala herriaren aurrean azaltzea. Tapoian zeudenak gainera, esan daiteke, gizonzkoen Alardearen defendatzaile sutsuenak zirela, eta haien kontra oihukatutako esaldi eta irainek erakusten digute, kanpotar gisa hartzen jarraituko zituztela. Haizea Galarraga Lopetegik⁴¹⁰ kontatzen duena oso adierazgarria da zentzu horretan:

“Bai, nik gogoratzen dut urte bat, de hecho, duela ez asko, nire lagun honekin, ni baino urte bete lehenago atera zena, berak ere sinestua zeukan gauza bat: zela urte batean atera ginela kapelu berdearekin. Hori ez duzu entzuna? Eske da super ona. En plan, gainera esaten nion «aber, nola?», «baina urte batean atera zineten kapelu berdearekin!», pues hori pixka bat inauteriak edo ze seriedade gutxi daukaten.

⁴⁰⁹ Temma Kaplan, *Ciudad roja, período azul: los movimientos sociales en la Barcelona de Picasso (1888-1939)*, Península, 2003.

⁴¹⁰ Haizea Galarraga Lopetegi Hondarribian jaio zen 1986an. Ama 1997an hasi zen Jaizkibel konpainian desfilatzen, eta gatazka alde horretatik bizi izan zuen txikia zenean eta nerabetan. Hamazazpi urte inguru zituela atera zen lehen aldiz bera Irungo Alarde mistoan eta jarraian Hondarribiko Jaizkibel konpainian.

Kapelu berdea, gainera ezin du izan ez dakit... Bai, baina igual 97 edo 98, hasi hasieran. Eta ze atera behar ziren kapelu, gainera, berdea, esaten duzu... eta «bai, bai, esaten zuten ez dakit nola ateratzen ginela». Eta esaten dizut hain zen, egia bezala esaten zuten hori, inklusio guk ere sinesten genuela batzuetan, ez bazinen hor egon. Karo, nik uste dut ere, gertatzen zela ere bai, jende askok sinesten zuen gutxi batzuk sortzen zuten errealitate hori. Ze gero hurbiltzen baldin bazinen, ikusten baldin bazenun zeintzuk ziren, zer egiten zuten edo zer nahi zuten... Bai, bai, eta nik uste dut urte askotan horrela funtzionatu duela. O sea, ez dakit, ez dakit esaten zenbat urte, baino urte gehienetan jendeak sinestu du, jendeak ez du bere begiekin ikusi, ez zaie utzi ikusten bere begiekin, orduan demonizatu da gauza bat, hori edo, demonizatu da.»⁴¹¹

Galarragak istorio adierazgarria kontatzen du. Bere lagun batek, zeinak Jaizkibelen desfilatzen duen 2000. hamarkada erdialde ingurutik, pentsatzen zuen hasiera batean Jaizkibekek txapela berdeekin desfilatu zuela. Hondarribiko eta Irungo Alardeetan txapela gorriak soilik erabiltzen dira, salbuespena Hondarribiko konpainia bat da; txapela beltzekin desfilatzen du. Txapela berdeak guztiz lekuz kanpo egongo ziren, eta gainera, Jaizkibelen sorreratik txapel gorriak erabili dituzte. Pertsona horrek txapel berdeekin desfilatu zutela sinesteak adierazten du nola konfliktoan zehar zurrumuru eta asmakizun asko zabaldu zirela, eta horien errepikapenaren bitartez zentzu batean egia bihurtu zirela. Txapel berdeekin desfilatu zutela errepikatzeak ez zuen hori egia bihurtu, argi dago, baina bai askok hori pasa zela sinestea. Kanpotarrak zirela behin eta berriz errepikatzeak, ordea, kanpotar bihurtu zituen Jaizkibeledako kideak, eta ez horien iragana aldatu zutelako baizik eta kanpotar izatearen zentzua moldatu zutelako.

Urte hartako Alarde egunean, beraz, ukatu egin zieten Alardean desfilatzea, baina herriko jaiak ospatu nahi izan zituzten Jaizkibeledako askok eta horretarako festa girora hurbildu ziren. Hasiera batean ez zutelako onartu nahi haien herriko jaietan lehen bezala ongi pasatzeko aukera ere kenduko zietenik. Alardean desfilatzeko eskubidea irabazi nahi zuten, eta hori lortzeko bidean, herrian lasaitasunez eta normaltasunez egoteko eta disfrutatzeko aukera ere ukatu zieten. Aurreko urtean bezala, Jaizkibeledako kide batzuk taberna batean inguratu eta bertatik kanporatu zituzten berriro ere. Honela azaltzen du Maite Iraolak:

⁴¹¹ Haizea Galarraga Lopetegiri egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/08 (pasarte bat).

“Pero bueno, bien, y luego ya, el año conflictivo fue ese y, luego tuvimos, además, lo del bar que nos hicieron una encerrona, el primer año. Segundo año volvimos a caer, otra vez. (...) Yo el día 8 no se me ocurre bajar a esta puta calle y nada, a raíz de entonces fue cuando ya se empezó a poner muy feo durante todo el año. (...) A ver, el primer año sí, porque bueno, fue el año del conflicto, pero no sabíamos hasta qué punto el termómetro estaba. Pero el termómetro ya estaba al máximo que, en cuanto nos vieron y nos pillaron. (...) En fiestas solíamos venir aquí [Alde Zaharra]. Yo andaba con casco para entrar en casa. Yo iba en la moto, cada vez que iba a la farmacia, en prefiestas. Iba todos los días a ver qué me han hecho, qué me han pintado. Todos los días, y el primero fue sorpresa, 97. Ahí adelgazamos kilos y kilos antes del día 8. Te puedes imaginar, era un estrés.”⁴¹²

Irailaren 8an eta 1997ko Hondarribiko jaietan, beraz, nahiz eta istilurik ez egon, inguruko egunetan tentsio eta estres handia bizi izan zuten emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek. Urte hartako jaiak ere igaro ziren, baina hor ez zen ezer amaitu, gatazkak jarraitu zuen eta geroz eta dimentsio handiagoa hartzen joan zen. Irailean ikasturtea hasten da, eta eskola eta institutuetan ere eragina izan zuen gai horrek. Ixabel Alkain Etxeberria Irunen irakasle zen, eta ikasleek lehen egunean arbelean “Betiko Alardea” idatzi zioten. Ikasleei dagokionez, emakume soldaduen alde zeuden gurasoak zituzten haur eta nerabeen testigantzek erakusten digute egoera zail eta gogorrak pasa behar izan zituztela. Xabi Bengoetxea Erriondok hamahiru urte zituen 1997an, eta aita etakide izateagatik espetxean egon zela klase-kideak enteratu zirenean, “etarraren” estigma jarri zioten. Alardearen konfliktoak, ordea, gogorrago jo zuen:

“Baina zen sektore txiki bat bazuena zera hori puñal hori erabiltzen zuena, hori gutxi batzuk izatetik, derrepente zen estigma bera, biolentzia bera, bazterkeria berdina, iguala, ez zen aldatzen, baina jende gehiagorekiko, mespretxu gehiago. Jada jendea ez zen gerturatzen zuregana horren taldean, edo horren, eta, karo, ni ari naiz, garai horretan ni ez nintzen ume bat. (...) Pasa zen hortik, beste plano batera, pasa zen hori, nabaritzen zenuen zurekin hitz egiten jarraitzen zuenak edo, zurekin harremana mantentzen zuenak mantentzen zuela modu esplizitu batean eta kontziente batean. Zuk nabaritzen zenuen horrek kosto bat zuela, eta sentitzen

⁴¹² Maite Iraolari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/18 (pasarte bat).

zinen, hombre, kosto horren arduradun, igual ez erantzule baino bai arduradun, azkenean.»⁴¹³

Interesgarria da ikustea nola erreproduzitzen zen gatazka institutuan, bertako eta nerabeen logikak jarraituz, noski. Aldi berean, Bengoetxearekin harremana mantentzen zutenentzat kostu bat zuela entzuteak adierazten digu zerbait minoritarioa izatetik urrun zegoela. Azaldu dugun bezala, estigma itsasten zen, kontagiatzen zen, harremanen bitartez baita nerabeen artean ere, eta horrek eragina izan zuen, batzuek hori ekiditeko Alarde tradizionalaren alde hartu baitzuten posizioa. Nerea⁴¹⁴ txikiagoa zen Alardearen gatazka hasi zenean, baina oroitzapen txarrak gordetzen ditu oraindik ere:

“Bale orduan, nik txikitatik bizitu izan dut, justo, konfliktoa hasi zen momentuan, nire familiako jendea hasi zen parte hartzen, eta, baino, nire familiako jendea alde zegon. Baina gero nire gelan, nire klasean, nire betiko lagunak, mundu guztia kontra zegon. Ginen hamazazpi uste dut klasean eta bakarrik zegoen bat edo, gurasoak ere zeuden un poco a favor y eso. Orduan pues neretzat hasieratik izan da, gaizki, porke gainera, ez dakit, zazpi edo bederatzi urterekin hasi zen. Orduan, zu zera txikia, ez duzu ulertzen, zaude erdian. Alde batetik gurasoek esaten dizute hau baina gero lagunak te esto... orduan nik uste dut, egondu ziren urte batzuk txarrak.»⁴¹⁵

Haurrak eta nerabeak jaien parte ziren: Alardean txikitatik desfilatzen zuten mutilek, eta neskek espaloitik ikusten zuten. Beraz, konfliktoaren erdian zeuden, eta haien familiak hartutako posizioak eragin handia izan zuen horiengan. Gehienetan gurasoek pentsatu eta hartutako jarrera transmititzen zieten seme-alabei, eta orokorrean hori jarraitzen zuten. Hala ere, Nereak azaltzen duen bezala, zaila zen ulertzen gertatzen ari zena eta bere kasuan gurasoek gauza bat esaten zioten, baina lagun artean guztiz kontrakoa entzuten zuen. Bestetik, asko izan ziren lagunekin haserretu eta harremana moztu zuten helduak, bai eta familiarekin ere. Familia zabalarekin, hots, anai-arrebekin edota gurasoekin izan ziren batez ere apurketak, familia nuklearraren barneko hausturen

⁴¹³ Xabi Bengoetxea Erriondori egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2018/12/26 (pasarte bat).

⁴¹⁴ Nerea (pseudonimo) 1990ean jaio zen Hondarribian. Gatazka lehertu zenean sei urte zituen, eta gurasoek hasieratik emakumeen aldeko posizioa hartu zuten. Nereak pare bat urtez Jaizkibel konpainian desfilatu bazuen ere hemezortzi urte inguru zituenean, ez zaio egun hori gustatzen, batez ere oroitzapen txarrak gordetzen dituelako oraindik ere.

⁴¹⁵ Nereari (pseudonimo) egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/15 (pasarte bat).

ebidentziarik, ordea, ez dago. Espelikazioa familia nuklearrak Alardeak baino garrantzi handiagoa zuela izan daiteke, edo aipatu dudan bezala, Alardearekiko harremana familia nuklearretik egiten zela, eta, beraz, iritzi bateratu bat izatea zela norma. Ander⁴¹⁶ haurra zen gatazka lehertu zenean, eta bere familia emakumeak ateratzearen kontrakoa. Honelakoak dira bere lehen oroitzapenak:

“Karo kontatzen zizuten zazpi urterekin, zu ez zara kontziente. «Eta nola neskak ateratu?», «Bai, zu joaten zera kuboarekin. Pues imajinatu neska bat zure ondoan» eta nola ikusten zenuen pues inork, zure entornoko inork ez zuela hori kontentatzen, izan zen como zerbait txarra neskak sartzea. Kontatzen badizute igual era batean, «ba begira igual aterako dira neskak kuboakin». Ez, izan zen como «kontuz zeren arazo bat egongo da, zeren neskak nahi dute sartu eta imajinatu zure gelako norbait ateratzen dela zurekin kuboarekin ez?», pues pixka bat horrela saldua gurasoengatik. (...) Orduan ideia horrekin, como etortzen zirela azkenean nik, guk ospatzen genuen Alardea puskatzera, suntsitzera edo ez dakit... horrela bizi izan nuen zortzi urterekin.»⁴¹⁷

Haur eta nerabeei horrelako mezuak zabaltzeak eragina izan zuen. Izan ere, mezua zen “badatoz gure Alardea puskatzera edo suntsitzera”, arrisku gisa transmititu zieten, eta horren aurrean defendatu behar zirela zen ondorio nagusia. Beraz, haien klase-kideen gurasoak edo klase-kideak etsaiak bihurtu ziren, eta lanean zehar ikusten joango gara nola eragin zuen horrek gatazkan. Institutuan edota eskolan gertatu zitekeena Bengoetxearen testigantzak erakutsi digu, eta Rosaren honek kalean izan zuen eragina azaltzeko balio dit:

“Joaten nintzenean Zuloaga etxerantz, pues hor dago zubia eta orduan nik han ikusten nuen mutil asko txirrindekin gora eta behera. Baina bueno, esan nuen, jo pues hori, uda zen, pues bueno hemen daude mutil guztiak txirrindekin gora eta behera. Besterik gabe. Konturatu arte erabat inguratuta nengoela eta denak gurpilakin pues jotzen nolabait, ez fuerte, pero bueno, molestando mucho, ba jotzen eta gainera erabat inguratuta. Eta ezin nuen ezer egin eta eskerrak oroitzen

⁴¹⁶ Ander (pseudonimo) 1989an jaio zen Hondarribian eta txikitatik desfilatu izan du Alardean. Familia emakumeak Alardean ateratzearen kontra izan du, eta berak ere urte askotan konpartitu izan du jarrera hori. Egun gizonez osaturiko Alardean desfilatzen badu ere, emakumeek Alardean ateratzeko eskubidea dutela pentsatzen du.

⁴¹⁷ Anderri (pseudonimo) egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/02/07 (pasarte bat).

naiz azaldu zela Jon, Carmenen semea, eta esan zuen: «utziyozu bake santuan da Julenen ama». (...) Adibidez hori, bakar bakarrik ikustea Alde Zaharrear, bueno agian pertsona batzuk pasatzen ziren, baina denak bazekiten mutilek zer egiten ari ziren.(...) Halako sentazioa zeren eta heldu batzuk pasa ziren eta «¡mira! A esa ya le están dando bien». Eta orduan, inpotentzia horrek agian, mingarriagoa iruditzen zait, inpotentzia hori eta halako gauzak egiten zizkiguten. Bai, kalean ibiltzea, batzuetan egiten genuen atzera begiraka. Edo kontuz ibiltzen nondik pasako naiz.»⁴¹⁸

Nerabe batzuek emakumeak Alardean ateratzearen aldekoen kontrako jazarpenean parte hartu zuten, heldu askoren konplizitateaz. Argi utzi behar dugu, hala ere, pasarte horretan Jonek egin zuena ere askotan gertatu zela, hau da, ezaguna zelako edo ados ez zegoelako, lagunei aurre egitea. Horrelako jarrerak kalean eta batez ere erdialdeko lekuetatik ibiltzearen beldurra eragin zuten, egoera mingarriak baitziren eta indarkeria fisikoa ere erabili baitzuten askotan. Gatazkaren lehen urte horietako neguak gogorrak izan zirenaren sentazioa oso barneratuta dute askok, baina horren aurrean elkartu eta komunitate bat osatzen joan ziren, elkar babestuz. Eta tartean babes eta elkartasun ekintzak ere bultzadak ematen joan ziren, bidean jarraitu ahal izateko. Aipatzen joan garen Euskal Herritik izandako babesaz gain, azpimarratzekoa da 1996ko neguan Negu Gorriak taldearen azken diskoko portadan lau argazki ateratzen zirela: handiena, bi palestinar aizkora banarekin, Negu Gorriaken ikurra egiten; bigarrenik, Negu Gorriakeko taldekideak; Che Guevararen banderak zeramatzaten latinoamerikarren manifestazioa, eta azkenik, Alardeko soldaduz jantzitako bi emakumek eskopetak eskuan zeramatzaten argazkia. 1997ko neguan ere Fermin Muguruzak eta Dut Hondarribiko talde maitatuenetariko batek disko bat atera zuten, eta bertan *Bidasoa Fundamentalista* abestia kaleratu, emakumeak Alardean ateratzearen aldekoa. Alardeetan atera nahi zuten emakumeek, beraz, ez zuten guztia kontra izan.

1996an gatazka piztu zenean, momentu batean bazen ere, guztia izan zen posible, baina hurrengo hilabeteetako gertaera eta posizioek, eta batez ere, 1997ko Alarde egunek argi erakutsi zuten konfliktoak hartuko zuen norabidea eta bertako indar korrelazioa. 1996an emakumeak Alardetik kanporatu zituzten, eta ondoren, irain, dokumentu anonimo eta diskurtso bidez herri-komunitatetik bota zituzten emakume horiek eta haien aldekoak.

⁴¹⁸ Rosari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/22 (pasarte bat).

Ez hori bakarrik, ordena zalantzan jarri zezakeen guztia arriskutsu eta susmagarri bilakatu zuten, ordena are zurrunagoa ezarriz. Herri-komunitatetik kanpo bidaltzeak ondorio materialak ere eragin zituen, konfliktoa esparru eta espazio desberdinetan materializatuz. Guzti horrek gorputz *abjektua* sortu zuen, emozioen artikulazio eta indarkeriaz lagundurik eta esanahi eta ardatz desberdinek gurutzaturik. Behin hori sortuta, norabide oso konkretu bat hartuko zuen konfliktoak, emakumeak Alardeetan ateratzearen kontrako erreakzioa nagusitu eta ordena berrezarri.

3. Kapituluak. Zer egin gorputz *abjektuarekin*: estigmatizatu edo kanporatu (1998-1999)

3.1. Sarrera: zelatatu eta zigortu

Emakumeak Alardeetan ateratzearen aldekoentzat 1997ko negua gogorra izan zen, zentzu askotan. Gehiegi luzatzen ari zen gatazka bat bezala antzematen hasi ziren eta amaiera luze joango zela aurreikusten. Egoera asimilatzen joan ziren eta haien buruak zaintzearen espazio asko uzten, errutinak moldatzen, bizitzak aldatu zitzaizkiela onartzen. Herri guztia kontra zutenaren sentsazioa barneratzen joan ziren eta epaitegiek emango zuten epaiak borroka erraztu bai baina ez zutela konponduko argi geratu zitzairen. Eraso eta jazarpen dinamikak aurrera jarraitu zuten eta harreman asko hausten joan ziren. Hori dena gutxi balitz, 1997ko irailean bertan, Irungo alkateak Alardeko ordenantzaren behin behineko suspentsioa proposatu zuen, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren autoaren eta gehiengoaren posizioaren ondorioz, urte hartan bete ez eta hurrengoetan zaila izango zelako betetzen. Bere hitzak honako hauek izan ziren:

“Esta suspensión tiene como objetivo básico el ajuste de la normativa a la realidad social y la consideración de que el problema existente no encuentra su resolución en la vía judicial –siempre respetada y acatada por este ayuntamiento- sino en el ámbito sociológico.”⁴¹⁹

Alberto Buen alkatearen proposamena, beraz, ordenantzak errealitatera moldatzea izan zen eta ez alderantziz, gatazka prozesu judizialek konponduko ez zutela pentsatzen baitzuen. Horrez gain, elkarrizketetan oinarrituko zen lantalde baten sorrera proposatuko zuela iragarri zuen, konfliktuari konponbidea topatzeko helburuarekin. Guzti hori udaleko plenoan aurkeztu behar zuen, baina 1997ko irailean jada Irungo hiru plenoetan iskanbilak egon ziren. ETak Miguel Ángel Blanco hil ostean, Irungo plenoa Ajuriaeneako Mahaiko uztailaren 13ko komunikatura atxiki zenetik, HBko zinegotziei euskal preso politikoen argazkien kartela kentzeko exijitzen zitzairen. HB hori egitera ukatu ondoren, Buenek plenoak bertan behera utzi zituen. Azken plenoan, publikoan zegoen jende multzo batek “Gerra zikina Euskal Herriaren kontra” esaldia zeraman pankarta zabaldu, eta alkatea, PP eta EAJren aurkako kontsignak oihukatzen hasi zen. Gainera, gogoratu behar dugu momentu hartan HBko Mahai Nazionaleko hogeita hiru

⁴¹⁹ “La Alcaldía pedirá al Pleno la suspensión provisional de la ordenanza del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/09/26, 18.

kide epaitzen ari zirela Madrilen, 1996ko hauteskundeetako kanpaina ETaren Alternatiba Demokratikoaren bideo bat telebistan zabaltzeagatik.⁴²⁰

Beraz, alkateak ezin izan zuen plenoan bere proposamena aurkeztu, eta EBk salatu zuen komunikabideei lehenago iragarri ziela proposamena zinegotzietan aurretik. Bestetik, proposamena alkateak bere ardurak ez betetzeko saiakeraren parte zela kritikatu zuen. BAEk, bide berean, Buenek Alardea legalitatetik at egiteko nahiarekin bat egiten zuela adierazi zuen eta pribatizazioan amaitzen zen estrategia bat zela, emakumeak baztertzeko helburuarekin. Gogorarazi zioten horrek ez zuela gatazka konpontzen, Alardea baztertzailerik eta ilegala izaten jarraituko zuelako. Bestetik, pribatizazioak ondorio gehiago eragingo zituela pentsatzen zuten:

“Ante esta posibilidad, BAE se pregunta «¿cuántos Alardes habrá el próximo año?, ¿Habrá que pagar para participar? ¿Se buscarán patrocinadores?». Señalaron que la discriminación se puede extender a otros sectores de la población.”⁴²¹

Alardea batzuen eskuetan egonik eta pribatua izanik, publikoa ez zen finantziarioa ezinbestekoa zen eta hori lortzeko parte-hartzaileek edota enpresa eta indibiduo babesleek dirua jarri beharko lukete, zentzu batean Alardearen gaineko boterea lortuz. Desfilatzeko, ezinbesteko baldintza ordaintzea izango bazen, ordaindu ezin zuena kanpo geratuko zen? Jatorria, klase soziala, erlijioa edo arrazaren arabera bazterketa ahalbidetuko zuenaren beldur zirela adierazi zuten. Irungo EAJk kaleratutako komunikatu batean, ordea, proposamenari babesa eman eta Alardea herriaren eskuetan uztea izango zela Alardearen etorkizuna esan zuen. Egun berean, Irungo Alardeko agintariek 1998ko Alardea antolatzeke lanetan hasi zirela adierazi zuten, Alarde tradizionala egiteko. Hau da, ordenantzatik kanpo eta emakumerik gabeko Alardea martxan zegoen jada.⁴²²

⁴²⁰ El alcalde aplaza el Pleno al negarse HB a retirar un cartel con fotografías de presos”, *El Diario Vasco*, 1997/09/26, 18; David Lazkanoiturburu, “Por la libertad de expresión... en pleno”, *Egin*, 1997/10/27, V (Gipuzkoa); 1997ko azaroaren 30ean Espainiako Auzitegi Gorenak zazpi urteko espetxe zigorra eta 500.000 pezetako multa bana ezarri zien HBko 23ei. Hala ere, urte eta erdi beranduago eta denbora hori espetxean igaro ondoren Espainiako Auzitegi Konstituzionalak sententzia baliogabetu eta HBko kideak espetxetik atera zituen.

Julio M. Lázaro, “Siete años de cárcel para los 23 dirigentes de HB”, *El País*, 1997/12/01; “El Tribunal Constitucional anula la sentencia del Supremo y excarcela a la Mesa de HB”, *El País*, 1999/07/21.

⁴²¹ Mikel Lizaso, “Temen una privatización del Alarde”, *Egin*, 1997/10/26, 22.

⁴²² “IU critica la decisión de Alcaldía de pedir la suspensión de la ordenanza del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/09/26, 18; “Bidasoaldeko Emakumeak critica la propuesta de suspensión de la ordenanza”, *El Diario Vasco*, 1997/10/04, 20; “Los mandos trabajan en la organización del próximo Alarde de San

EAJ eta PPren botoei esker, 1997ko urriaren 29an, behin-behinean bertan behera geratu zen Irungo Alardeko ordenantza. PSE-EEren barruan, ordea, zatiketa egon zen, alderdiko zinegotzi batek alkatearen proposamenaren kontra bozkatu eta beste bat abstenitu baitzen. HBk egindako bi galdera erantzunik gabe geratu ziren: batetik, zenbateko epean geratuko zen bertan behera, eta bestetik, nori emango zion 1998ko Alardea antolatzeko eskumena. Ondorengo egunetan, BAEk Tolerantziaren zinegotziaren dimisioa eskatu zuen, plenoan izandako jarreragatik. Haien hitzetan, jarrera “etsaitasunezkoa, erasokorra eta iraingarria” izan zuen. “San Martinek duen karguaren kontrakoa den jokabidea azalduz, mota guztietako irainak egin zituen areto barruan zein kanpoaldean.” Gogoratu behar dugu ez zela lehen aldia BAEk bere dimisioa eskatzen zuela. 1996ko Irungo Alardeko gertakarietan eta ostean izan zuen jarreragatik ere publikoki salatu eta bere dimisioa eskatu zuten. Ikusi dugunez, ordenantza bertan behera uztea BAEren esanetan pribatizaziorantz egindako pausu bat zen; EAJ eta Irungo BAAren arabera, aldiz, herriaren esku uztea. Erabili zituzten terminoak kontrajarriak ziren hein batean, baina, bestetik, herri hitzak izan zitzakeen aldaera eta ulerkera ezberdinak mahaigaineratzen ziren. Azken horientzat, herriaren esku uztea, Alardeko agintarien esku uztea zen, horiek baitziren Alardean herria ordezkatzeko zutenak. Gizonak ziren guztiak, zuriak, adin tarte jakin batekoak, erlijiorik bazuten katolikoak, heterosexuak eta emakumeen parte hartzearen kontrakoak, eta ondorioz, inor ez seguruenik EA, HB edo EB alderdietatik hurbilekoa. Herriaren errealitatearen zati bat kanpoan uzten zutela? Izan daiteke, baina herria ez zen inoiz ere izan leku fisiko batean jaio edo bizi ziren kide guztiak, baizik eta proiektu edota eraikuntza sozial eta nazional baten barruan sartzen zirenak. Kasu horretan Alardeko agintariak herriak ordezkatzeko zituzten. Agintarien ezaugarriak aipatu ditut, baina ez du esan nahi herria soilik gizon zuri, katoliko, heterosexualek osatzen zutenik, baizik eta norma edo ordena sozial hori onartzen zuen edonor izan zitekeen herritar. Suspentsioa onartu eta gutxira, Irungo EBk EAEko Justizia Auzitegi Nagusian errekurtsioa ezarri zuen, esanez bai forman eta bai edukian akatsak izan zituela prozedurak. Horiek, beste

Marcial”, *El Diario Vasco*, 1997/10/04, 20; “El PNV cree que el futuro del desfile pasa por depositar en el pueblo su organización”, *El Diario Vasco*, 1997/10/26, 20; “Bidasoaldeko Emakumeak pide a los iruneses que no dejen el Alarde en manos privadas”, *El Diario Vasco*, 1997/10/26, 20; “El Pleno debate la suspensión provisional de la ordenanza del Alarde de San Marcial”, *El Diario Vasco*, 1997/10/28, 16; “El Ayuntamiento de Irún debate hoy en pleno la suspensión temporal de la ordenanza del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/10/29, 11; Maribel Marín, “El alcalde de Irún propone hoy al pleno desvincular al Ayuntamiento de Alarde”, *El País*, 1997/10/29, 11.

askok bezala, ez zuten ordena hori onartzen, eta, beraz, herritik kanporatuak izan ziren.⁴²³

Udalean eta epaitegietan guzti hori gertatzen ari zen bitartean, kalean eta egunerokotasunean gatazkak jarraitzen zuen. Maite Iraolaren arabera, 1997ko eta ondorengo neguak gogorrenak izan ziren. Berak farmazia bat zuen eta boikota egin zioten, eta hala, urte gogorrek pasa zituen, baita arlo ekonomikoari dagokionean ere:

“Para mí, heavy heavy, yo creo que fue el segundo año y el tercero, lo que es el invierno. Todo el año, los 365 días del año. (...) Una pintada, una pintada que ponía, el símbolo nazi. Es que era un poco absurdo todo, no tenía ni pies ni cabeza. Jo, es que no he mirado, tengo una denuncia hecha y tengo lo que ponía en la denuncia en casa, tendría que mirarlo. Fueron una, llamé a la Ertzaina y los municipales llegaron antes y empezaron a borrar y digo: «aquí no borraís nada, aquí se sacan fotos y tal». Ya, lo primero limpiar, aquí no ha pasado nada, otro día tomate. Tomate me han echado unas cuantas veces. Y el tomate no lo puedes limpiar, y luego aparte de eso no... me hacían boicot y a la gente que venía le decían que no viniesen. Y fueron años malos, muy poca gente, lo tengo que decir, pero bueno.”⁴²⁴

Sinbolo nazia margotu zioten farmaziako erakusleihoan, eta hori bi modutara interpreta genezake. Orokorrean eta historikoki sinbolo nazia zeramatzen pintadak naziek egin izan zituzten, eta ikusita eskuin muturra ere konfliktoan sartu zela modu batean, mehatxu gisa ulertu genezake ekintza, “Amigos por la salvación de España” taldeak bidalitako gutuneko hurrengo esaldia ere kontutan hartuta: “Les daremos una lección (...) ¡Tenemos que dar una lección a los esbirros y esbirras que destruyen la paz!”⁴²⁵ Hala ere, bestetik, eta behin eta berriro emakume soldaduen kontra errepikatu zen

⁴²³ Mikel Arrieta, “Alardea arautzen duen ordenantza bertan behera utzi du Irungo Udalak”, *Egunkaria*, 1997/10/30, 12; “El alcalde niega que su propuesta pretenda la privatización del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/10/31, 20; Iñaki Lekuona, “Udalak eten egin du Alardearekiko lotura”, *Egin*, 1997/10/31, 23; “Bidasoaldeko Emakumeak pide la dimisión del concejal de Tolerancia”, *El Diario Vasco*, 1997/11/02, 20; “Bidasoaldeko Emakumeak taldeak zinegotzi baten dimisioa eskatu du”, *Egunkaria*, 1997/11/02, 11; “IU recurre ante el TSJPV el acuerdo plenario por el que se suspendió la ordenanza del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1997/11/15, 18; “Recurso contra la suspensión de la Ordenanza del Alarde”, *Egin*, 1997/11/15, 17; “IUk errekurritu egingo du Alardeko ordenantza bertan behera uzteko akordioa”, *Egunkaria*, 1997/11/15, 13; M. M., “IU de Irún recurre al Tribunal Superior la suspensión de la ordenanza del Alarde”, *El País*, 1997/11/15, 7.

⁴²⁴ Maite Iraolari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/18 (pasarte bat).

⁴²⁵ Amigos por la Salvación de España, t.g., d.g.

inposizioaren diskurtsoarekin, pintada horiek naziak zirenaren akusazioa egiteko intentzioarekin egin zirela pentsatu daiteke. Hau da, emakumeak Alardean ateratzearen nahia inposizio gisa hartuz, naziak egin zutenarekin konparatzen ari ziren. Esan beharra dago, paralelismo horrek ez duela zentzurik eta agian oso aldrebestua dela interpretazio hori egitea, baina konfliktoan zehar ikusiko dugun bezala, aurrerago logika hori erabili zuten emakume soldaduen kontra egiteko. Maite Iraolak, bestetik, boikota egin ziotela kontatzen du eta urte gogorrak izan zirela, jende oso gutxi sartzen baitzen farmaziara. Adierazgarria da hori, ikusteko zein indar lortu zuten herrian emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoek eta nola haien deialdi eta jarraibideak errespetatzen ziren, erabaki propioz edo beldurrak eraginda. Izan ere, horrelako ekintzak egiten zirela ikusirik, farmazia horretan sartzea zentzu batean arriskatzea zen. Horrelako erasoen bitartez jada posizio hartu zutenak zigortzea eta atzera botatzea bilatzen zuten, baina oraindik ere zalantzan zeudenak edo publikoki iritzia eman ez zutenak diziplinatzea zuten helburu nagusi.

Gai horretan Foucault ere erabilgarri zaigu. Izan ere, boterea ez bada estatuak jabetzan duen propietate bat, baizik eta harremanen bitartez gauzatzen den makinaria bat, Bidasoaldean eta Alardean boterearen funtzionamendua eta horren bitartez zigortzeko eta zelatatzeko dinamikak azaltzeko balio digu. Nire hipotesia da, ordena hautsi zutenek zigorra jaso zutela: lehenik, herri-komunitatetik kanporatuz, eta ondoren, ikusten ari garen indarkeria eta estigmatizazioaren bitartez. Zelatatuak ere izan zitezkeen, baina hori, batez ere, ordena mantentzen jarraitu zutenei zegokien, herri-komunitatearen barnean etengabeko elkar zaintza artikulatu baitzuten. Zaintza horrek elkar zelatatzean zetzan, eta zigorraren mehatxua zegoen atzean, mehatxu handiena herri-komunitatetik kanporatzea izanik. Hau da, zigorra eta zaintza elkar harremanean egon eta artikulatu ziren. Esan genezake zaintza barrura begira egin zela eta zigorra kanpora, nahiz eta bien arteko continuum bat izan. Hurrengo zita baliagarri zaigu zein logika jarraitu zuten ikusteko:

“La proporción entre la pena y la calidad del delito está determinada por la influencia que tiene sobre el orden social el pacto que se viola (...) Calcular una pena en función no del crimen, sino de su repetición posible. No atender a la

ofensa pasada sino al desorden futuro. Hacer que el malhechor no pueda tener ni el deseo de repetir, ni la posibilidad de contar con imitadores.”⁴²⁶

Gurean ez dago ez delitu, ez pena formalik, baina baliagarri zaigu zigorra errepikapen posiblearen bitartez baloratu zela azaltzeko. Eta Alardearen konfliktoan hori zen muina; izan ere, Alardean atera nahi zuten emakumeek ez zutela amore emango behin eta berriro esan zuten, hau da, egindako arau haustea aldarrikatu eta etengabe errepikatu zuten. Etorkizuneko desordena elikatu. Eta horren mehatxu handienetarikoa imitatzailak ateratzea izan zen, alegia, emakumeak Alardean ateratzearen aldekoak geroz eta gehiago izatea. Horregatik, guztiaren gaintik, hori saihesten saiatu ziren, aldarria manipulatzeko, gorputz *objektuak* sortu eta isolatzen, arau haustearen ondorioak jasanezinak egiten, eta garrantzitsuena, hori guztia arau haustea egin aurretik gainontzekoei erakusten. Rosaren testigantzek azaltzen digute zein eragin izan zuen horrek:

“Eta klaro, jendea ez ateratzeko anonimotan egiten zuen edozer gauza nahiz eta batzuk, hasieran, gurekin zeuden. Eta anonimotan azaldu zirenean ba ez dakit, batzuk kontrari eta beste batzuk beste aldera begiratu zuten, beldurtu zirelako eta nik hori ulertzen dut ere bai. Beldurtzea.”⁴²⁷

Sara Ahmedek beldurraren inguruan egiten duen irakurketa erabiliko dugu hori azaltzeko. Beldurrak etorkizuneko min posiblea aurreikustea suposatzen du, kasu konkretu honetan, anonimoetan ateratzeak eragin zezakeena, eta horren arabera orainaldia moldatzea bultzatu zezakeen hori ekiditeko. Aldaketa horrek beldurra sentitzen zuen subjektua beldurra ematen zion horretatik urruntzea suposatu zezakeen, kasu honetan Jaizkibel konpainiatik. Urruntze horrek aldi berean komunitatearen mugak eraiki zituen, eta horrez gain, Ahmeden hitzetan hurrengo eragiten du:

“(…) el miedo funciona para alinear el espacio corporal y social: funciona para permitir que algunos cuerpos habiten y se muevan en el espacio público mediante la restricción de la movilidad de otros cuerpos a espacios que están acotados o contenidos.”⁴²⁸

⁴²⁶ Michel Foucault, *Vigilar ...*, 97.

⁴²⁷ Rosari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/22 (pasarte bat).

⁴²⁸ Sara Ahmed, *La política cultural...*, 117.

Beldurak Alardearen gatazkan emakumeak Alardean ateratzearen alde zeuden batzuk Jaizkibel konpainiatik urrundu zituen, etorri zitezkeen jazarpenen beldur zirelako. Bestetik, emakumeak Alardean ateratzearen alde jarraitu zutenak herritik fisikoki kanporatzea ekarri zuen, azaltzen joango garen bezala.

Aipatu ditugun hiru fronteetatik, kaleko fronteak eraman zituen aurrera praktika gordinenak, baina esan genezake herri-komunitatea hiru fronteek osatzen zutela eta hiruren artikulazioari esker eman zituela emandako fruituak. Kapitulu honetako bi urteetan eraginkorra izan zen, eta barne zelata herri-komunitateko kide guztien artean egin zen, inplikazio gehiago edo gutxiagorekin. Isolamendu hori apurtzeko, Hondarribian Jaizkibel konpainiak saiakera asko egin zituen. Horietako bat, 1997ko Gabonetan egindakoa, liburuxka bat kaleratu eta banatzea izan zen. Bertan, historiari erreferentzia egiten zitzaion, 1638an emakumeen paperaren inguruan hitz eginez, baina, batez ere, Alardea hautsi nahi izatearen akusazioari aurre egiten. Horretarako, emakumeak Alardean atertzearen aldekoen nahia Alardea zaindu eta goratzea zela adierazi zuten: “eskubideak hor egonda ere, sentimenduak eta emozioak dira emakumeok desfilatzeko daukagun arrazoi nagusia.”⁴²⁹

Negu hartan bertan, baina 1998 urtean, iritsi ziren EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren bi sententziak, eta bertan, emakumeek Alardeetan parte hartzeko zuten eskubidea aitortu zen, Espainiako konstituzioaren 14. artikuluan oinarrituta, urtarrilaren 23an publiko egin zituen epaian. Horretarako, EHUri eta Eusko Ikaskuntzari eskatutako Irun eta Hondarribiko Alardeei buruzko txosten historiko bana erabili zituen, alde demandatuak egindako baieztapen historikoak gezurtatzeko. Izan ere, argudio historikoak erabili zituzten emakumeen parte hartzea ukatzeko, eta nahiz eta aldekoen diskurtso nagusia giza eskubideetan eta argudio juridikoetan oinarritu, txosten horiek ondorioztatu zuten historiak ere arrazoia ematen ziela. Txostenak historian zehar Alardeetan aldaketa handiak egon zirela demostratzen zuen, eta, beraz, berregite historiko fidela zen argudioa zalantzan jartzen zen. Horrekin batera, Irungo Udalaren eta Alardeko Juntaren arteko harremana baieztatzen zuen epaiak eta udalak eskubideak bermatzeko betebeharra zuela.⁴³⁰

⁴²⁹ Jaizkibel Konpainia, “Jaizkibel Konpainia”, 1997ko abendua, 9.

⁴³⁰ “El TSJPV une a las pruebas sobre el contencioso del Aralde un informa histórico realizado por la UPV”, *El Diario Vasco*, 1998/01/17, 18; Alazne Iturriotz, “Bidasoaldeko Emakumeek aldeko sententziak espero dituzte bihar”, *Egunkaria*, 1998/01/18, 10; Ainhoa Castells, “Un informe histórico apoya la

“En la sentencia ahora notificada, el TSJPV presenta como piedra angular de su decisión el artículo 14 de la Constitución, señalando que prohíbe «de manera explícita», el mantenimiento de «determinadas diferenciaciones históricamente muy arraigadas y que han situado, tanto por la acción de los poderes públicos como por la práctica social, a sectores de la población en posiciones no sólo desventajosas, sino abiertamente contrarias a la dignidad de la persona.»⁴³¹

Berri horren aurrean, Maria Luisa Agirretxe, BAE eta Juana Mugarrietako taldeen abokatua, pozik azaldu zen, haiek babesten zituzten argudioen berme definitiboa zelako eta jada aitzakiarik ez zegoelako emakumeak Alardeetan ateratzea galarazteko. Baina egun bat pasa eta Hondarribiko eta Irungo BAAk sententziak onartzen ez zituztela azaldu zuten eta honako hau salatu:

“Hondarribiako e Irungo Betiko Alardearen Aldekoak denuncian en su comunicado «injerencias políticas, institucionales y mediáticas interesadas en conseguir notoriedad pública y en hacer incurrir en error al poder judicial. Es nuestra voluntad» -continúan- «mantener los Alardes tal y como los hemos conocido, como se han mantenido durante siglos. Animamos a nuestros mandos y al pueblo a seguir organizando nuestros Alardes como los hemos heredado de nuestros mayores.»⁴³²

Irungo 1998ko Alardea antolatzeke lanak hasiak zituzten Alardeko agintariek, udaleko ordenantza bertan behera geratuta zegoen, eta BAAk sententziak ez zituen onartu. Nahiz eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emakumeen desfilatzeko eskubidea babestu, ikusteko zegoen oraindik 1998ko Alardeetan gertatuko zena. BAEk, hala ere, emakumeen desfilatzeko eskubidea aitortua zutela uste zuen, eta nahiz eta Alardeak pribatizatu, eskubide horrek existitzen jarraitzen zuela eta finean momentu hartatik

presencia femenina en el Alarde de Hondarribia”, *El Mundo*, 1998/01/20, 7; M. Marin, “Aval académico al papel femenino en la defensa en 1638 de Hondarribia”, *El País*, 1998/01/20, 9; Jone Larrañaga, “Eusko Ikaskuntzak berretsi du emakumeek parte hartu zutela Hondarribiaren defentsan”, *Egunkaria*, 1998/01/21, 12; “El TSJPV reconoce el derecho de las mujeres a participar en los Alardes de Irún y Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1998/01/24, 3-4; Jone Larrañaga, “Auzitegiak arrazoia eman die alardean gizonen pare irten nahi duten emakumeei”, *Egunkaria*, 1998/01/24, 9; Ainhoa Castells, “El TSJPV reconoce el derecho de las mujeres a participar igual que los hombres en el Alarde”, *El Mundo*, 1998/01/24, 3; Maribel Marín, “Las mujeres de Irún y Hondarribia ganan la «batalla del alarde»”, *El País*, 1998/01/24, 1, 3.

⁴³¹ Gotzon Aranburu, “Las mujeres podrán desfilar en el Alarde”, *Egin*, 1998/01/24, 12.

⁴³² “Defensores del Alarde tradicional no aceptan la sentencia y denuncian presiones al TSJPV”, *El Diario Vasco*, 1998/01/25, 10.

aurrera emakumerik gabeko Alardetik egongo ez zela. Behin eskubidea aitortuta, azaldu zuen botere publikoei, eta batez ere, alkateei zegokiela hori bermatzea.⁴³³

Irungo alkatea izan zen lehena sententziaren inguruko komunikatua ateratzen, eta bertan, 1997ko ekaineko autoa bezala, sententzia onartu eta beteko zuela adierazi zuen. Dena dela, esan zuen gatazkaren konponbidea eta eskubidea bermatzea ez zegoela bere esku bakarrik, eta biztanleei ulermenerako eta elkarlanerako deia egin zien. Gogoratu beharra dago, hala ere, 1997ko Irungo Alardearen ostean alkateak kritika ugari jaso zituela Alardea bertan behera uzteagatik eta bandera gizonen osaturiko Alardeari emateagatik. Hau da, emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek ez zuten uste Alberto Buenek autoa bete zuenik; izan ere, emakume eta gizonen osaturiko unitate bereziak ez zuten gainontzeko konpainiekin desfilatu, ezta udaleko bandera jaso. Ikusteko zegoen, beraz, 1998ko Alardean sententzia betetzea zer zen alkatearentzat. Testuinguru horretan, Egizanek Hondarribiko eta Irungo alkateen dimisioa eskatu zuen: “Ez ditugu eraso, irain eta abarren bultzatzaileak herrietako ordezkartzan nahi.”⁴³⁴ Irungo EAJk, berriz, herriaren sentimendu eta antolatze gaitasuna auzitegiak zapaldu zuela salatzen zuen, eta horren aurrean, sententziaren aurka errekurtsioa aurkeztu beharra zegoela adierazi zuen.⁴³⁵

Pare bat egun geroago iritsi zen Hondarribiko alkatearen iritzia. Borja Jauregik sententzia obedituko zuela esan zuen, nahiz eta ez konpartitu. Horrelako edukia zuen sententzia irmorik ez zuela espero adierazi zuen eta zartada handia izan zela beretzako. Hala ere, bere iritzia ez zela aldatu esan zuen, nahiz eta errekurtsorik aurkezteko asmorik ez zuela onartu. Honako hitzekin hauekin, ordea, aurretik esandako guztia kontrajartzen zuela zirudien:

“Al mismo tiempo, quiso enviar un mensaje a los que son partidarios de la inclusión de la mujer en el Alarde señalando que «no piensen que por el hecho de

⁴³³ Mikel Lizaso, “Participarán en todos los alardes”, *Egin*, 1998/01/25, 19; “Emakumeek oso ontzat jo dute Auzitegi Nagusiaren epaia”, *Egunkaria*, 1998/01/25, 13; Ainhoa Castells, “Los defensores del alarde tradicional rechazan el fallo del TSJPV e instan al pueblo a no secundarlo”, *El Mundo*, 1998/01/25, 4; Aurora Intxausti, “Las mujeres de Irún y Hondarribia exigen medios para que se cumplan las sentencias sobre los Alardes”, *El País*, 1998/01/25, 3.

⁴³⁴ Alazne Basañez, “Hondarribia eta Irungo alkateen dimisioa eskatu du Egizanek”, *Egin*, 1998/01/28, 18.

⁴³⁵ “El alcalde de Irún acepta la sentencia del TSJPV y pide colaboración a los ciudadanos”, *El Diario Vasco*, 1998/01/27, 7; “El alcalde de Irún acepta el fallo del TSJPV y pide entendimiento a la ciudadanía”, *Egin*, 1998/01/27, 17; “Auzitegiaren erabakia onartu egingo duela esan du Irungo alkateak”, *Egunkaria*, 1998/01/27, 11; M. Marín, “El alcalde de Irún quiere recuperar la «normalidad» en el Alarde”, *El Mundo*, 1998/01/27, 4; “EAJ: «Auzitegiak ez du ulertu gehiengoaren nahia»”, *Egunkaria*, 1998/01/28, 11.

que el tribunal les haya dado la razón el asunto está zanjado. El Alarde será en cada momento lo que el pueblo quiera. Lo que ocurre es que hay una sentencia y, diga lo que diga el pueblo, por encima está el respeto a un sistema de convivencia».⁴³⁶

Alardea aldioro herriak nahi zuena izango zela esan zuen, baina, aldi berean, horren gainetik sententzia bat eta bizikidetasun sistema bat zegoela. Gatazka horretan deklarazio, komunikatu eta iritziak etengabekoak izan ziren, mota guztietakoak eta batzuetan oso nahasiak. Jauregik sententzia obedituko zuela adierazi zuen, baina zer esan nahi zuen horrek?

Irungo BAAk berehala adierazi zuen epaiaren aurka errekurtsua jartzen saiatuko zela, eta 1998an inoiz egindako Alardetik ikusgarriena egingo zutela aldarrikatu zuen, emakume soldadurik gabe. Hondarribikoek manifestazio baten deialdia zabaldu zuten sententziaren kontra, alkateari errekurtsua aurkeztea eskatuz. Otsailaren 1ean Hondarribiko kaleetatik manifestatu ziren “Errekurtsua bai, recurso si” pankarta baten atzean. Lehen lerroan emakumeak joan ziren, eta guztira 2.000 pertsona inguru bildu ziren udal poliziaren arabera. Bukaerako komunikatuan, Alarde Fundazioaren sorrerak aurrera jarraitzen zuela adierazi zuten, herriaren Alardea antolatzeke helburuarekin.⁴³⁷

Manifestazioa egin eta egun gutxira, Hondarribiko udalak prentsa-ohar baten bidez adierazi zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurka Espainiako Auzitegi Gorenean errekurtsua jarriko zuela, EAJ eta EAren aldeko botoekin eta PSE-EEren abstentzioarekin. Jauregik bere postura ez zela aldatu esan zuen, egun batzuk lehenago argi utzi baitzuen ez zuela bat egiten sententziarekin, eta errekurtsua jartzea legala zenez gero, bide judiziala agortzeko prest agertu zen, nahiz eta sententzia aldatzeko aukera gutxi zeudela uste. Manifestazioak herriaren gehiengoaren nahia islatzen zuela argi geratu zela adierazi zuen eta hori jarraitu behar zuela. Mugimendu horren aurrean

⁴³⁶ “El alcalde de Hondarribia acata la sentencia del TSJPV sobre el Alarde pero no la comparte”, *El Diario Vasco*, 1998/01/29, 12; “Hondarribiko alkateak onartu egingo du epaia”, *Egunkaria*, 1998/01/30, 13.

⁴³⁷ “Los defensores del Alarde tradicional de Irún intentarán recurrir la sentencia sobre la participación femenina”, *El Diario Vasco*, 1998/01/30, 12; Jone Larrañaga, “Betiko Alardearen Aldekoek errekurtsua aurkeztuko diote Auzitegiaren epaiari”, *Egunkaria*, 1998/01/30, 13; “Los «betikos» de Hondarribia convocan una manifestación contra el fallo del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1998/01/31, 6; “El colectivo contra la participación de la mujer en el Alarde recurrirá al TSJPV”, *Egin*, 1998/01/31, 19; “Betiko Alardearen Aldekoak convoca una manifestación en contra de la sentencia del TSJPV”, *El Diario Vasco*, 1998/02/01, 31; “Cientos de hondarribitarras exigieron que se recurra el fallo del TSJPV sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1998/02/02, 10.

Hondarribiko BAA pozik azaldu zen. Juana Mugarrietakoa kolektiboak eta BAEk gogor kritikatu zuten erabakia, eta batez ere, EAJ eta EAri Hondarribiko BAAren presioei men egitea egotzi zieten, hurrengo urteko udal hauteskundeetako botoen beldur. Horrez gain, errekurtsua aurkeztuz gero epaiketaren kostuak handituko zirela adierazi, eta herri osoaren diruarekin ordaintzea injustizia izango zela uste zuten. Maribel Castellók, Irungo EAko zinegotziak, bere alderdiko jarrera salatu, eta adierazi zuen zinegotzi bakoitzak ezin zuela nahi zuena egin, gai garrantzitsua baitzen alderdiak iritzi eta postura bateratu bat hartzeko.⁴³⁸

Horrez gain, EAJ eta EAko legebiltzarkide ziren Belen Greaves eta Igone Martínez de Luna haserre agertu ziren haien alderdietako Hondarribiko ordezkariekin. Esan zuten haien erabakia ez zutela onartzen, ez ulertzen eta eskubideak ezin zirela zalantzan jarri. Irungo Udalak errekurtsua jartzeari uko egin zion, eta horregatik, Irungo BAAren kritika jaso zuen. Bakarrago baina borrokan jarraituko zutela aldarrikatu zuen eta inola ere ez zeudela prest udalak proposatzen zuen konponbiderako mahaietan esertzeko, horren helburua Alardea “inauteri” bihurtzea bazen.⁴³⁹ Beraz, Alberto Buen Irungo alkateak errekurtsorik ez aurkeztea eta konponbiderako mahai bat sortzea proposatu zuen, baina haren deklarazio hauek legitimitatea kentzen zien emakumeak Alardean parte hartzearen aldekoiei:

“Yo entiendo a quienes exigen la igualdad, pero estoy convencido de que la mayoría de las mujeres que han planteado esta reivindicación no tienen ningún interés en el Alarde. No entiendo a quienes defienden como derecho fundamental desfilar con escopeta y luego son incapaces de condenar el asesinato de un conciudadano suyo.”⁴⁴⁰

Hondarribiko alkateak hasieratik izan zuen jarrera Alardea udalaren esku ez zegoela esatea izan zen, eta gehiengoaren hitza babesteaz gain, emakumeak soldaduz ezin desfilatzea bazterketa ez zela argudiatu zuen. Irungoarena, ordea, anbiguoagoa izan zen.

⁴³⁸ “El Ayuntamiento de Hondarribia recurrirá la sentencia sobre las mujeres en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1998/02/04, 9; “PNV y EA de Hondarribia deciden recurrir la sentencia del TSJPV”, *Egin*, 1998/02/04, 15; Iñaki Petxarroman, “Alardeari buruzko epaia errekurritzea erabaki du Hondarribiko Udalak”, *Egunkaria*, 1998/02/04, 11.

⁴³⁹ Oskar Bañuelos, “PNV y EA, contra sus ediles en Hondarribia”, *Egin*, 1998/02/05, 17; “El Ayuntamiento de Irún reitera su renuncia a recurrir el fallo del Alarde y buscará el diálogo”, *El Diario Vasco*, 1998/02/05, 7; “La alcaldía de Irun anuncia que no recurrirá”, *Egin*, 1998/02/05, 17; Iñaki Petxarroman, “Irungo Udalak ez du epaia errekurrituko, eta konponbidea bilatzen saiatuko da”, *Egunkaria*, 1998/02/05, 11.

⁴⁴⁰ “«Debemos afrontar el problema sin pensar en las elecciones»”, *El Diario Vasco*, 1998/02/09, 7.

Neutraltasun irudi bat ematen saiatu zen, baina, aldi berean, egindako ekintzek posizio bat adierazten zuten, eta hitz horiek neutraltasunetik urrun zeuden. Emakumeen eskaeraren edukia zilegi eta ulergarria zela zioen, baina eskaera egin zuten pertsonengatik etorria izanda, zalantzan jarri zuen emakume horien benetako arrazoia. Alardean soldaduz desfilatu nahi zutenen irudia 1996tik hasi ziren termino horietan eraikitzen, batez ere, anonimoetan, kaleko irainekin eta BAAko komunikatuetan. Instituzio eta alkatetzatik, ordea, hori errepikatzeak diskurtso hori zein zabaldua zegoen adierazten digu, eta momentu hartara arte gizonez osaturiko Alardearen aldekoen ekintzak legitimatzen ziren horrekin. Horrez gain, Alberto Buen alkatearen esaldiak alderdi politiko batean kokatzen zituen, jakin dakigunean Irunen hiru alderdik egin zutela emakume soldaduen alde. HBrekin lotzea “Amigos por la salvación de España” taldearen diskurtsoa ere zabaltzea zen, eta Alardean irten nahi zuten emakumeei legitimitatea kentzea. Izan ere, azaldu bezala, urte horietan ETak enpresari eta politikoen bahiketak aurrera eraman zituen, eta Miguel Angel Blanco hil ostean, indarkeria horren kontrako erreakzioa handitu zen. Testuinguru horretan, Alardean atera nahi zuten emakumeak hori kondenatzen ez zutela esateak ahalbidetu egiten zuen biztanleriaren sektore bat horien kontra jartzea, Alardearen konfliktoko arrazoi konkretuetatik haratago.

Otsailean, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Irungo Alardearen ordenantzaren suspentsioa baliogabetu zuen EBk errekurtsioa jarri ostean, eta indarrean sartu zen berriro, emakume eta gizonen parte hartzearen bermearekin. Alardea, beraz, Irungo Udalera lotuta zegoen berriro ere. Irungo Alardeko agintariek kaleratutako komunikatu baten bitartez, ordea, haiek udalaren laguntzarekin edo gabe herriak nahi zuen Alardea egiten jarraituko zutela adierazi zuten. Hori babesteko Irungo BAAk manifestazio bat deitu zuen martxorako. Guzti horren erdian, Emakume Irundarrak izeneko taldea sortu zen, gizonez osaturiko Alardearen alde. Komunikatu batean salatu zuen BAE bi urte zeramatzala herria mehatxatu eta erasotzen.⁴⁴¹

⁴⁴¹ “El TSJPV anula cautelarmente la suspensión de la Ordenanza del Alarde de Irún”, *El Diario Vasco*, 1998/02/14, 8; “El TSJPV revoca la suspensión de la Ordenanza”, *Egin*, 1998/02/14, 20; Jone Larrañaga, “Alardea dela eta, Irungo Udalaren kontra egin dute berriz epaitegiek”, *Egunkaria*, 1998/02/14, 16; Y. M., “El TSJPV revoca la suspensión de la Ordenanza que el Alarde de Irún”, *El Mundo*, 1998/02/14, 4; “Los Mandos desean un Alarde con varones y cantineras”, *El Diario Vasco*, 1998/02/21, 14; “Defensores del Alarde tradicional de Irún convocan una manifestación”, *El Diario Vasco*, 1998/02/22, 16; “Betiko Alardearen Aldekoek pozik hartu dute buruen erabakia”, *Egunkaria*, 1998/02/22, 12; “BAE estudia denunciar por calumnias a Emakume Irundarrak”, *El Diario Vasco*, 1998/02/25, 20.

Aldi berean, Irungo alkateak bultzatutako hausnarketa talde bat sortu zen, zazpi irundarrek osatuta. Guztiek Irungo jaien agurra protagonizatu zuten aurreko urteetan eta manifestu bat idatzi zuten, kontsentsuzko Alarde baten alde. Alardea batasuna mantentzeko jaia izan beharko lukeela adierazi zuten, eta horretarako, alderdi politikoak konfliktotik ateratzea eskatzen zuten, eta ahalik eta jende gehienek sortutako talde horri babesa adieraztea. Gatazkaren alde ezberdinetan kokatutako jendearekin kontaktuak egiten hasi ziren adostasun batera iristeko. Hala ere, ia hasi aurretik kritikak jasotzen hasi ziren, lehenak EBk egindakoak. Izan ere, gatazkan alderdi politikoak alde batera geratzearena ez zuten zentzuzkoa ikusten, eta gainera, zioten, horrek ematen zuen irudia batzuek behin eta berriz errepikatzen zutena zela: alderdi politikoak gatazka distortsionatu eta nahasten zutenarena. HBk bide beretik jo zuen eta sententziak agindutakoa betetzea exijitu zion Irungo alkateari.⁴⁴²

Martxoaren 14an Irungo BAAk deituriko manifestazioa burutu zen, 5.000 pertsonaren parte hartzearekin. “Konpainia bakoitzean emakume bat” eta “Alarde si, política no” pankartak eraman zituzten. Egun hartan bertan Alardeko agintariak ohar bat banatu zuten etxez etxe, haien asmoa berresteko, hau da, beti ezagutu zuten Alardea 1998an ere egiteko. Testuinguru horretan sortu zen Irunen “Guztientzako Alarde bakarraren aldeko plataforma”, eta Alardeko agintarien komunikatuaren aurrean, BAEk gogorarazi zien betidanik ezagutu zuten Alardea Alardeko Juntak eta udalak antolatua zena zela.⁴⁴³

Guzti horretaz gain, 1998ko martxoan Juana Mugarrietakoa kolektiboak 1996ko gertakariengatik egindako salaketa penalak kenduko zituela iragarri zuen. Herrian zegoen giro gaiztotua ikusirik eta konponbidea errazte aldera, beharrezko ziren negoziazioei bidea irekitzeko asmoarekin egin zutela adierazi zuen. Gogoratu behar dugu Hondarribiko BAAk elkarrizketak aurrera eramateko jartzen zuen lehen baldintza

⁴⁴² “El grupo de reflexión irunés en favor de un Alarde de consenso pide apoyo popular”, *El Diario Vasco*, 1998/03/08, 3; “Se forma en Irún una comisión para buscar una solución al Alarde”, *Egin*, 1998/03/08, 26; “IU dice que emitirá opiniones sobre el Alarde cuando lo considere oportuno”, *El Diario Vasco*, 1998/03/10, 20; “HB califica de «provocadora» la convocatoria de manifestación del Alarde tradicional”, *Egin*, 1998/03/13, 22.

⁴⁴³ “IBAA celebra una manifestación en favor del Alarde tradicional”, *El Diario Vasco*, 1998/03/14, 20; “La manifestación a favor del Alarde tradicional congregó a miles de personas en Irún”, *El Diario Vasco*, 1998/03/15, 14; “Miles de personas respaldaron en Irun un Alarde que deja fuera a la mujer”, *Egin*, 1998/03/15, 30; Ane Sarasketa, “Milaka lagun bildu dira betiko alardearen alde”, *Egunkaria*, 1998/03/15, 15; X. G., “Irún se volcó en favor del Alarde tradicional”, *El Mundo*, 1998/03/15, 5; “Un grupo de iruneses ha creado la «plataforma por un único Alarde para todos»”, *El Diario Vasco*, 1998/03/14, 20; “BAE considera que la organización del Alarde compete al Ayuntamiento”, *El Diario Vasco*, 1998/02/14, 20; “Bidasoaldeko Emakumeak critica la manifestación a favor del Alarde tradicional”, *Egin*, 1998/03/14, 18.

salaketak kentzea zela. Gauzak horrela, epaileak zortzi auziperatuak absolbitu zituen, baina horren aurrean Hondarribiko BAAk adierazi zuen faltsuak zirela zortzi horien kontra egindako salaketak.⁴⁴⁴

1998ko apirilean, Hondarribiko Emakumeak kolektiboak hamabi orriko aldizkari bat atera zuen, Guadalupe izenekoa. Bertan, Alarde tradizionalaren alde egiteko helburua zuten, “aspertu gara itxoiteaz horregatik ekintza berri bati ekin diogu” adieraziz. Bertan, besteak beste, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren balorazio bat egiten zen, Hondarribiko Alardeko agintarien komunikatu bat azaldu, iritzi artikulu pare bat eta zortzi auziperatuak absolbitu zituzten epaia. Interesgarriena da haien irudi matxista eta otzana kontra argudiatu zutela. Kantineraren paperaren inguruko iritzi negatiboak, bigarren mailakoa eta desprestigioskoa zela ziotenak, matxistak zirela adierazi zuten. Bestetik, martxoaren 8an, 250 emakume bazkari eta jai baten bueltan bildu zirela azaltzen zuten. Azkenik, poema baten bitartez haien kontrako irudiaren parodia bat zabaldu zuten:

“Estas analfabetas mujeres te imploramos/ que no nos castigues con tu ausencia, / tú que con afán nos muestras/ de las cosas la esencia. /Muéstranos la luz, somos tus elegidas, / ¡Oh paladín del feminismo radical!, / para ser rescatadas (aunque sea a la fuerza)/ de nuestras miserables vidas.”⁴⁴⁵

Feminismoak gutxietsi, eta agentzia eta erabakimenik gabeko emakume gisa irudikatzen zituela kritikatu zuten, biktima gisa. Horren aurrean, emakume indartsu eta libre bezala aldarrikatu ziren, haien erabakia zela herria eta Alardea defendatzea, gizonekin eta ordena sozialean harmonian mantentzea. Alardean ez ziren baztertuak sentitzen, ongi zekiten beharrezkoak zirela erritua aurrera ateratzeko, eta bertan zuten papera onartzen zuten. Haien izenean, hau da, emakume guztien izenean hitz egiten zuen feminismoa gaitzesten zuten, paternalista zelakoan.

Geroz eta gertuago zegoen 1998ko Irungo Alardea, baina nola gauzatuko zen ez zegoen adostuta. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emakumeen parte hartzearen eskubidea aitortu zuen, eta BAEk udalari exijitu zion hori betearaztea. Alkateak, ordea,

⁴⁴⁴ “Las mujeres de Hondarribia renuncian a la vía judicial”, *Egin*, 1998/03/22, 24; “Absueltos los ocho denunciados en los sucesos del Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1998/03/28, 10; “Errugabetzat jo ditu epaileak 1996ko Alardean emakumeak jo zituztenak”, *Egin*, 1998/03/28, 21; “Alardeko istiluengatik epaitutako zortziak libre”, *Egunkaria*, 1998/03/28, 16.

⁴⁴⁵ Hondarribiko Emakumeak, *Guadalupe*, 1998ko apirila, 9.

kontsentsurako Alarde baterako lantalde bat osatu zuen, alderdi politikoak kanpo utziz. Alardeko agintariak gizonez osaturiko Alardea egingo zutela berretsi zuten, eta horien alde manifestatu ziren Irungo BAAkoak. Kontsentsurako Alardearen lantaldeak proposamen bat luzatu zuen: konpainiak elkarte bihurtu, eta bakoitzak erabakitzea horien barneko emakumeen parte hartzea nolakoa izango zen. BAEk onartu zuen; Irungo BAAk, aldiz, ez.⁴⁴⁶

Emakumeak 1996 eta 1997an Alardeetatik kanporatu zituzten, eta Alardea herriaren eraikuntzaren ardatz nagusienetako bat zenez gero, baita herri-komunitatetik ere. Ez soilik emakume soldaduak, baita horien alde zeudenak ere eta ordena zalantzan jarri zezakeen edonor. Indarkeriaren bitartez eta emozio batzuen transmisioarekin urtean zehar ere gatazka mantendu zen, etengabe herritar ez zirela gogoratuz eta errepikatuz. Honako hipotesi hau planteatzen dut: Alardeak herria eraikitzen badu, eta 1996 eta 1997an Irungo herri-komunitatetik kanporatuak izan zirenek 1998an beste Alarde bat eginez, beste herri bat eraikitzeko prozesua hasi zutela. Bi Alarde eta bi herri horiek talka egiten zuten, eta bakoitzak balio eta arau ezberdin batzuk zabaltzen zituen bere komunitatearen baitan, genero, klase eta nazio perspektiba konkretu batzuek gurutzaturik. Bi Alarde horien erronka eta helburua herrian hegemonia lortzea zen, eta, beraz, herri bakar bihurtzea. Hondarribian, aldiz, herri-komunitatetik kanporatu zituztenak arrazoi eta baldintza ezberdinengatik 1998an Alardean sartzen saiatu ziren, baina berriro ere ez zieten utzi, eta, beraz, herri bakar batek existitzen jarraitu zuen, emakume soldaduak eta haien aldekoak kanpo geratuz eta haien existentzia bera ere arriskuan geldituz.

Azkenik, bi sententzia irten ziren EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak igorrita, eta bertan emakumeek Alardean parte hartzeko zuten eskubidea babestu eta hori bermatzea exijitzen zieten udalei. Hala ere, berehala jarri zen martxan horien kontrako erreakzioa. Aurreko bi urteetan zehar jada antolatuta egonik eta disidentzia herrietatik kanporatuta, lortu zuten Alardeetan emakumeek ez parte hartzea. Horretarako, aipatutako hiru fronteak beharrezkoak izan ziren, eta horietako batean instituzio eta alderdi politiko lokalek paper garrantzitsua jokatu zuten.

⁴⁴⁶ “La junta de portavoces trató el documento de grupo de reflexión sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1998/04/30, 18.

3.2. Bi herri, bi Alarde: bereizketaren zigorra. 1998ko Irungo jaiak

Alardeak herria eraikitzen zuen eta herriak Alardea. 1996ko Irungo Alardetik emakumeak kanporatu zituzten, eta ondoren, urtean zehar, herri-komunitatetik. 1997an Alardeak gizon eta emakumez osaturiko unitate bereziarekin desfilatzeari uko egin, eta beste ibilbide eta ordutegi batean egin zen. Disidentzia herri-komunitatera batzea ekidin zen horrela, eta jada ez ziren emakumeak bakarrik gorputz *objektu*. Horien alde egin zuten gizonak ere kanporatu zituzten, eta, ikusi dugun bezala, baita ordena zalantzan jartzen zutenak ere, arriskuaren aurrean ordena berrezartzen saiatu zirenek are gehiago zurrundu baitzuten. *Objektuaren* esparrura kanporatu zituztenak komunitatea osatzen joan ziren, eta emakumeak Alardean ateratzearen alde borrokan jarraitu. 1998ko maiatzeko berriek urte hartan seguruenik bi Alarde egingo zirela aurreikusten zuten. Nire hipotesia da horrek Irunen bi herriren eraikuntza bultzatu eta aurrez aurre, talkan, kokatu zituela, bakoitza genero, nazio eta klase ardatzek gurutzatzen zituztelarik. Esan genezake komunitate *objektuaren* ardatz horiek kanpotik errepikapenaren bitartez inposaturiko esanahiek eta barrutik propio eraikitakoen arteko nahasketa eta talka izan zirela.

Kontsentsuzko Alardearen lantaldearen proposamena ez zuten ontzat eman Irungo BAAk eta EAJk, eta Alardeko Junta berri bat eratu zuten gizonez osaturiko Alardearen aldekoek, ekainaren 30ean, Alarde bat antolatzeke. Alkateak horren aurrean legalitatearen barnean egingo zen Alardearen alde egin zuen eta hori antolatzeke deialdia zabaldu. Gizonez osaturiko Alardea antolatzen hilabeteak zeramatzen, eta maiatzaren 9an, jeneral berria ezagutu zen, jendez beteriko plaza batean. Beñardo Urtizberea aukeratu zuen Alarde tradizionalerako Juntak jeneral, aurreko urteetan komandante izandakoa. Urtizberea izan zen 1997ko Alardeko agintarien bozketan emakumeen parte hartzea onartzen zela jakin eta dimisioa aurkeztu zuen lehenetarikoa.

Maria de Maeztu elkarteak eta EBk Gasteizko Barne Sailari gizonez osaturiko Alardea ez baimentzeko eskatu zioten. Irungo Udalak, berriz, Alarde ofiziala antolatzeke zentsu bat egin zuen, bertan parte hartu nahi zuen jende kopurua kontabilizatzeke, eta horretarako, hamazazpi pertsonako talde bat martxan jarri zen. Momentu hartan, hala ere, argi utzi zuen udalbatzak ez zuela Alardean parte hartuko, eta ez zitzaiola Alarde ofizialari herriko bandera emango. Partaide gehiago batu eta Alarde bakar eta parekidea lortzera bidean lan egingo zutela azaldu zuten Alardeko Junta ofizialerako kideek, eta

Alarde tradizionalako agintari eta soldaduak gonbidatu zituzten horretara. Momentu hartara arte, Irungo Alardean BAE antolatzen zen emakumeen parte hartzearen inguruan eta haiek erabakitzen zuten hori nola aurrera eman. Handik aurrera, ez ziren bakarrak izango. Eta aurretik eztabaida eta desadostasunak bazituzten, jende berria eta perfil desberdinetakoa sartuta, are gehiago.⁴⁴⁷ Mertxe Tranchek honela kontatzen du:

“Buen hizo una convocatoria a los iruneses que quisieran organizar el Alarde y nos pone, en principio nos pone los medios, nos cede los locales, nos paga el Alarde. Cuando vamos a por esos medios, resulta que los han robado. Los betikos, lo han llevado todo y hay que comprar todo nuevo. Y esa convocatoria bueno, fue, en una parte fue exitosa ¿no? Fue, apareció gente de Irún, pues que en ese momento, incluso gente de la derecha pero constitucionalista, pero que decía hay una sentencia, ya está. Pues estoy pensando en Carlos Fernández de Casadevante, Fernando Francés. Bueno gente, pues decía: «si hay una sentencia esto se ha acabado».”⁴⁴⁸

Emakumeak Irungo Alardean ateratzearen alde eta hori lortzeko antolatzen momentu hartara arte BAE koordinadora feminista eta gizonez osaturiko kolektibo bat zeuden, eta horiek alderdi politiko batzuek babesten zituzten. 1998ko Alarde ofiziala antolatzeko junta bat sortu zen, hiriko jende ezberdinez osaturikoa eta egiteko bakarrarekin, alegia, Alarde ofiziala aurrera eramatea. Horrek aurrerantzean borroka hartan gizonek paper bat izatea eragin zuen Juntaren barnean, eta bestetik, bi ildo ezberdin posible existitzea: bata BAE, feminista eta emakumez osaturikoa; eta bigarrena, Junta. Juntan BAEko kideek ere parte hartu zuten, baina gizonek eta ideologia eta pentsamendu zabalagoa zuten jendeak osatu zuten. Azaldu dugun bezala, barne mailan eztabaida handiak egon ziren hasieratik, eta hortik aurrera ere jarraitu zuten, baina kanpora begira ere azalduko ditugun talkak egon ziren bi marko horien artean.

⁴⁴⁷ “El Ayuntamiento de Irún apoya la celebración de un Alarde que cumpla con la legalidad”, *El Diario Vasco*, 1998/05/02, 9; “Rechazan el Alarde de consenso en Irún”, *Egin*, 1998/05/01, 16; Jone Larrañaga, “Irungo Udala, legaltasuna betetzen duen alardearen alde”, *Egunkaria*, 1998/05/01, 13; “IU se muestra esperanzado con las posiciones manifestadas en la junta de portavoces”, *El Diario Vasco*, 1998/05/2, 16; “El Alarde tradicional de Irún eligió un nuevo General para los sanmarciales”, *El Diario Vasco*, 1998/05/10, 17; “«María de Maeztu» pide a Interior que no autorice los alardes de Irun y Hondarribia”, *Egin*, 1998/05/13, 22; “Emakumerik gabeko alardea debekatzeko eskatu dio Atutzari Maria de Maeztu taldeak”, *Egunkaria*, 1998/05/15, 14; “IUk eskatu dio Barne Sailari ez diezaiola baimenik eman Irungo «tradizionalisten» alardeari”, *Egunkaria*, 1998/05/20, 11.

⁴⁴⁸ Mertxe Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

Alarde tradizionaleko Juntak, bestetik, alkateari eskatu zion aurreko ibilbide eta ordutegi berberean desfilatu ahal izatea. Alardea errito bat izanik, berebiziko garrantzia zuten espazioak eta denborak. Hau da, Alardearen ordenantzak Alardea zer ordutan eta nondik igaroko zen arautzen zuten, eta horrez gain, desfileari zentzua eta afektu emozionala ematen zion. Bi Alarde egongo baziren, nola kudeatu zitekeen hori? Izan ere, emakumeek parte hartuko zuten Alardea zen ofiziala eta udaleko ordenantzen arabera araturikoa, baina Alarde tradizionalak ibilbide eta ordutegi berbera nahi zuten. Urte hartan hasi zen luze joko zuten Alardeko gatazkaren beste bataila bat, aurreko urtean eginiko ibilbide, gizonen Alardekoen hitzetan, triste eta zentzugabekoa ez errepikatzeke nahiarekin. Mertxe Trancheren arabera, 1998ko bataila honela irabazi zuten:⁴⁴⁹

“Entonces la única posibilidad es hacer dos Alardes. Eso ¿a qué nos avocaba desde ese momento? A pelear por los espacios simbólicos, por el horario y por el recorrido. Y ese primer año nos salió bien porque el horario y el recorrido estaban en el programa de fiestas. Entonces, nosotras tuvimos el recorrido y el horario pero caro, a partir de ese año aprendieron la lección.”⁴⁵⁰

Zentzu horretan eta Irungo alkateak herriko bandera ez ziola ez Alarde bati ez besteari emango adierazi zuenean, Emakume Irundarrak kolektiboak herriko bandera berri bat bordatu eta Alarde tradizionaleko Juntari eman zion ekitaldi jendetsu batean. “Gure” bandera zela eta jada inork ez ziela eman beharko adierazi, eta, beraz, ez zirela inoren menpe egongo esan zuten. Bestetik, batasunaren kontrako bandera izatetik urrun, irundar guztiak elkartzen zituela aldarrikatu zuten.⁴⁵¹

Ekaineko lehen egunetan, ordea, Alarde ofizialeko konpainiak sortzen joan ziren. Landetxa izan zen lehena, eta momentu hartatik aurrera bi Landetxa konpainia existituko ziren; bata, gizonez soilik osatuta, eta bestea, emakume eta gizonez.

⁴⁴⁹ “El Ayuntamiento de Irún abre un censo para quienes quieran participar en el Alarde oficial”, *El Diario Vasco*, 1998/05/22, 20; Iñaki Lekuona, “El Ayuntamiento de Irun apoyará el Alarde legal”, *Egin*, 1998/05/22, 20; “La organización del Alarde oficial inicia su trabajo para celebrar un desfile con mujeres”, *El Diario Vasco*, 1998/05/24, 10; Mikel Lizaso, “Surge una iniciativa ciudadana para organizar el Alarde de Irun”, *Egin*, 1998/05/24, 23; Amagoia Mujika, “Alarde bakarraren alde egiteko lan talde bat sortu da Irunen”, *Egunkaria*, 1998/05/24, 12; Ainhoa Castells, “Defensores del abrazo de San Marcial”, *El Mundo*, 1998/05/24, 5.

⁴⁵⁰ Mertxe Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

⁴⁵¹ “Emakume Irundarrak entregó una bandera a la Junta del Alarde Tradicional”, *El Diario Vasco*, 1998/05/31, 24.

Fenomeno berbera gertatu zen beste hainbat konpainiarekin; izan ere, Irungo konpainia ia guztiak auzoetakoak ziren, eta auzoen izena zeramaten. Beraz, Alarde ofizialeko konpainiak sortuz joan ahala, Irungo konpainiak bikoiztu ziren, auzoetako infanteria konpainiez gain, baita Hatxeroak, Zalditeria, Danborrada, Banda eta Artilleria ere. Jon Miranda, aurretik, ez zen inoiz Alardean atera, baina 1998an, bere auzoko konpainia sortzeko prozesuan parte hartu, eta gero bertan desfilatu zuen:

“Eta orduan ni oroitzen naiz, Anakan antolatu zela bilera bat, eta ni han azaldu nintzen, bakarrik. (...) Hori da, konpainia sortzeko. Eta ginen lau katu egia esan. Pixka bat a lo, ba hori, momentuan ez dakit zer egin behar zela, ez dakit zer eta horrela gogoratzen dut. Uste dut, orduko hartan, 98an, zerarekin atera nintzela, eskopetarekin. (...) Nik ez nuen inoiz nire buruari planteatu esatea «ba bueno parte hartuko dut baina igual beste era batera edo ikusten edo...» ez ba, orduan zen horrela, eta gainera konbentzitu beharra ingurukoak eta nire lagun min hori, nire pixukidea zena atera zen nirekin, beste lagun bat ere bai... ba hori, eskopetak ez dakit nondik lortu, ez dakit zer... eta trajea egin eta atera ginen han.”⁴⁵²

Gutxi zirenez, ez zuela Alarde egunean desfilatzea beste aukerarik planteatu azaltzen digu, baita nola bere gertukoak konbentzitu zituen ere. Alarde ofiziala egin behar zen eta jendea behar zen horretarako. Jon Mirandak, adibidez, aurretik ez zuen arrazoirik edo bultzadarik izan Alardean parte hartzeko. Gustura ikusten zuen Alardea espaloietatik. Orain ordea, motibo handi bat zuen, Alardean emakumeak ateratzea ahalbidetzea, eta horretarako modu hobereana desfilatzea zen. Gizonez osaturiko Alarde pribatuaren antolaketa ere aurrera zihoan, finantzaketa eta antolaketa propioarekin. Alarde ofiziala nahiz eta udalaren ordenantzaren araupean eta finantzaketapean egin, Alarde aurreko ekitaldiak udaleko programatik ezabatu ziren, hala nola kantineren aurkezpena, eta bandera eta munizioaren entrega.⁴⁵³

Maria de Maeztu kolektiboak oraingoan Alarde pribatuari eskopetak eta suzko armak eramatea debekatzea eskatu zion Espainiako Gobernuko Gipuzkoako ordezkariordetzari, horiek kontrolatzea ezinezkoa zela argudiatuz eta gertatu

⁴⁵² Jon Mirandari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/19 (pasarte bat).

⁴⁵³ “Se constituye la primera compañía del Alarde oficial”, *El Diario Vasco*, 1998/06/02, 14; Iñaki Lekuona, “El Alarde oficial forma sus primeras compañías”, *Egin*, 1998/06/02, V (Gipuzkoa); Iñaki Lekuona, “Aprobado el programa festivo sin los actos previos al Alarde”, *Egin*, 1998/06/03, V (Gipuzkoa).

zitekeenaren kezkatik. Alardeen gatazka eta egun horietako tentsio altua 8.000 gizon armaturen erdian izatea kezka iturri izan zen hasieratik. Mertxe Tranchek honela kontatzen du:

“Al fin y al cabo son 8.000 hombres armados y azuzados y muy perjudicados y no sabes si a alguien se le va a ocurrir la maravillosa idea de pegarte un tiro. Nosotras contábamos siempre con la idea de que alguien iba a morir. En abril ya nos descomponíamos, o en marzo ya nos descomponíamos y no dormíamos, ya empezaban las colitis. Fatal, porque asumíamos: bueno es muy posible que alguien muera.”⁴⁵⁴

Edozer gertatu ahal zenaren sentsazioa eta beldurra handia zen, eta horrek eragin handia izan zuen emakumeak Alardean ateratzearen aldekoengan. Tranchek zioen barneratuta zutela norbait hil egingo zutela, hainbeste arma, alkohol eta tentsioaren erdian, baina hala ere, aurrera jarraitu zuten. Bizia emateko prest zeuden haien herriko jaietan berdintasunean parte hartu ahal izateko. Izan ere, Ixabel Alkain Etxeberriak azaldu zuen bezala, ez zen soilik egun bateko garrantzirik gabeko parte hartzea, haien izatearekin eta existentziarekin lotzen zuten eskubidea baizik. Hiltzeko arriskuaren pertzepzioari aurre egiteko, konbentzimendu ideologiko eta emozional handia zutela esan dezakegu, amore emateak ez ziela balio eta besterik ez zutela sentitzea borrokan jarraitzeko beharrezkoa izan zen.

Ekainean, LAB sindikatuaren aldizkarian, aitortza egiten zien Irun eta Hondarribian Alardean parte hartu nahi zuten eta horregatik borrokan zebiltzan emakumeei, eta aldarrikatu zuen Euskal Herriko emakumeen borroka feministan mugarri bilakatu zirela. Langile sindikatu bat, LAB, Alarde mistoaren alde lerrotu zen, eta horrek klase borrokatik Alardeen gatazkan nola edo hala errekonozimendu bat eman zien desfilatu nahi zuten emakumeei. Ezin dugu ahaztu, hala ere, LAB Ezker Abertzaleko sindikatua zela eta Ezker Abertzaleak jada posizio hartu zuela gatazkan, politika berbera konpartitzen zutela eta eraiki nahi zuten euskal nazioan emakumeek Alardean atera behar zutela aldarrikatzen zutela, horrek suposatu zezakeen genero ordenaren aldaketarekin.⁴⁵⁵

⁴⁵⁴ Mertxe Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

⁴⁵⁵ LAB, “Berrito Alardea”, *Iraultzen*, 1998ko ekaina, 6.

1998ko ekainaren 3an, Alarde ofizialeko Ama Xantalen konpainia sortu zen. Agintariak aukeratu ziren, eta Ana Fernández Otondo izendatu zuten kapitain, hots, konpainiako kargu altuena. Gatazka edo emakumeen parte hartzea beste era batera gertatu izan balitz, hau da, gizonen osaturiko Alardean sartu izan balira, emakume batek kargu bat hartzera iristeko seguruenik denbora gehiago pasako zen. Lehenik eta behin, soldaduz desfilatuko lukete eta behin denbora bat eramanda, agian, eta onartuko balitz, Alardeko hierarkian baten batek gora egin ahalko luke. Gatazkaren norabide eta zirkunstantziak ahalbideratu zuten gatazka hasi eta bi urtera emakume bat konpainia bateko kapitain izatera iristea. Fermin Muguruzaren testigantza interesgarria da ikusteko nola talka egiten zuen horrek imajinario kolektiboarekin eta barneratuta zituzten rolekin, baita emakumeen parte hartzearen aldekoen baitan ere:

“Mugimendu feministak aldatu gintuen, baita emakumeak ateratzearen alde geundenok, erabaki zutelako egitea beste Alarde bat. Baina ez da bakarrik emakumeak aterako direla konpainietan, «aterako gara toki guztietan». Eta lehenengo urtea, izan zen ba justu Otxoaren ama eta Jaioneren ama eta horrela. Bera zen Ama Xantaleneko kapitaina. Orduan kapitana bat, «nola kapitana bat?» Pues karo, nola ez eta ez genuen asimilatzen ere ez: «baina nola, den, den, dena? Eta hatxero ere?» «Eta hatxero izango da lehenengoa, irekitzen duena izango da emakume bat ere bai». Eta izan zen, zera, apurketa bat oso oso handia, eta niretzat ere bai. Pertsonalki esaten dizut. Bai bizitza osoa bizi izan dudalako hori, eta nola ez dira aterako? baina bat batean egitura guztia aldatzea, horregatik ez dela bakarrik parte hartzea jaietan, baizik eta irudikatzea gizarte oso bat, festa baten bidez.»⁴⁵⁶

Muguruzaren testigantzaren pasarteak adierazten digu emakumeak Alardean parte hartzeak, gizonen pare, hierarkiako goiko postuetan barne, aldaketa eta transformazio handia suposatu eta horrek ere gizartean eragina izango zuela. Izan ere, Alardea tradizio asmatu gisa analizatzean, balio eta arau batzuk gizartean ezartzen zituela esaten ari gara, eta momentu hartatik aurrera, bi Alarde egonik, balio eta arau desberdinak zabalduko zirela espazio eta denbora berberean. Alarde bakoitza egiten zuen komunitatearen ezaugarriek eta ideologiek ere Alardean eragina izango zuen. Hori esanda, argi utzi

⁴⁵⁶ Fermin Muguruzari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/09/07 (pasarte bat).

behar da prozesu bat zela, etengabeko elkar eraginean eta talkan sarturik Alardea, komunitatea eta gizartea.

Irungo Alardeko ordenantzen arabera alkateordeak izendatu behar zuen jenerala, eta Román Ricok Alberto Lizarraga aukeratu zuen. Alberto Lizarragak, ordura arte, gizonen osaturiko Alardean Zalditeria konpainian parte hartu zuen, eta 1998an, behin behineko Alardeko Juntan sartu zen, emakume eta gizonen osaturiko Alardea antolatzeko. Hilabete bat zuten Alarde oso bat egiteko, eta Alardeko agintarien aukeraketa oso modu espontaneoan egin zen, hau da, bakoitzak zekiena egin edota ikasteko prest bazegoen, postu bat edo beste hartzen zuen. Lizarragak zaldi gainean ibiltzen zekien, eta zentzu handi batean, horregatik izan zen aukeratua. Logika hori ere guztiz kontrajarria zen Alardeko 90eko hamarkadako dinamikekin, Alardeko agintari izatera iristeko baldintza batzuk bete behar zirelako eta lehia zegoelako horiek lortzeko. 1998ko Alarde ofizialean, ordea, dena libre zegoen, eta ahalik eta azkarren bete behar ziren postu guztiak. Kantinekin ere antzekoa gertatu zen. Alardean ateratzeko boto bidez aukeratuak izan behar ziren kantinerak eta baldintza batzuk bete behar zituzten. Emakume eta gizonen osaturiko lehen Alarde horretan kantinerak behar zituzten, eta edonor ez zegoen prest parte hartzeko. Lehen urte horietan, beraz, Alarde ofizialaren egiteko eta antolatzeko modua ere asko aldatu zen: botere harremanak, prestigio iturriak eta hierarkiak, tartean. Oso agerikoa da, baina mahaigaineratzea beharrezkoa: lehen urteetan soldaduz irten ziren emakumeak markatu eta estigmatizatu bazituzten, kantinera edo Alardeko agintari gisa ateratzeak ematen zuen ikusgaitasunarekin, are gehiago.⁴⁵⁷

Horren adierazle nagusia izan zen 1998ko ekainaren hasieran Irunen zabaldu zen anonimoa. Bertan honako hauen kontra egiten zen: Román Rico –alkateordea–, Enrique Noain –zinegotzi sozialista ohia eta Junta ofizialeko kide– eta Alberto Lizarraga –Alarde ofizialeko jenerala–. Román Ricori interes alderdikoiak babestea egozten zioten, eta HBrekin batera jardutea, garai hartan, lehenagotik azaldu dudanagatik, suposatzen zuen guztia ere Ricori egotzi zioten. Beste bien kontra honela zioen dokumentuak:

⁴⁵⁷ “El Alarde municipal de Irún eligió al que será su General en el desfile de San Marcial del día 30”, *El Diario Vasco*, 1998/06/06, 12; Iñaki Lekuona, “El Alarde municipal ya tiene general”, *Egin*, 1998/06/06, V (Gipuzkoa); “El primer teniente de alcalde presentó al nuevo General del Alarde municipal”, *El Diario Vasco*, 1998/06/07, 22; “El Ayuntamiento prohíbe al Alarde alternatibo coincidir con el oficial”, *Egin*, 1998/06/07, 32; M. M., “El Ayuntamiento de Irún impedirá al Alarde paralelo hacer el recorrido oficial”, *El País*, 1998/06/08, 10.

“Al principio eran las lesbianas del Bidasoa las que iniciaron las reivindicaciones de participación en el Alarde y, ahora aparecen en la palestra Enrique Noain y Alberto Lizarraga haciendo un llamamiento oficial a la unificación del Alarde. La Mafia Rosa trata de hacerse con el control y no es pura casualidad, porque les va a faltar tiempo para reivindicar lo que ellos consideran su espacio (...). Esta sentencia también abre la puerta a los gays que enseguida van a reivindicar su derecho a salir de cantineras.”⁴⁵⁸

Lizarraga eta Noain mafia arrosaren parte izateaz akusatzen zituzten eta Alardearen kontrola hartzen saiatzeaz, gero haiek kantinera atera ahal izateko. Esan beharra dago, urte horietan gizonak kantinera ateratzearen aldeko aldarrien ebidentziarik ez dugula. Erreproduzitu dugun zatian akusazio eta baieztapen batzuk egiten ziren, eta 1998ko urte hasierako sententziari egiten zioten erreferentzia, emakumeek Alardean ateratzeko eskubidea zutela zioenari. Horren aurrean, erantzun bat ematea proposatzen zuten, hori onartezina zelako:

“Esta sentencia convierte automáticamente nuestro Alarde en un carnaval, en un insulto para la ciudad de Irún, en algo imperdonable y que no estamos dispuestos a aceptar. (...) Ante semejante situación sólo cabe una solución, la insumisión, la rebelión a la estupidez, recibámosles a los carnavaleros con tomates maduros (...). Tenemos que mantenernos firmes y defender nuestro Alarde con firmeza y con orgullo, como ciudadanos responsables y dignos.”⁴⁵⁹

Emakumeak Alardean soldaduz irtetea herriarentzat irain bat zela zioten, inauteri bihurtzen zelako, eta hala, Alardea izateari uzten ziola, Alardea suntsitzen zuelako. Hori onartezina zen, eta edonola ere Alardea defendatu behar zuten. Diskurtsoak eta horrek elikatzen zuten emozioen artikulazioak legitimatu egiten zituen Alarde egunean tomateak jaurtitzera edo indarkeria fisikoa erabiltzera. Bestetik, sexu eta genero disidentzia egiten zuten emakumeak Alardean sartzearen aldeko erantzule, eta, beraz, Alardea suntsitzearen arduradun. Horrek, bi norabidetan eragiten zuten. Aurretik azaldu dugun bezala, Alardean irten nahi zuten emakumeak lesbiana gisa eraiki zituzten, horrek zituen konnotazio eta marka negatibo guztiekin. Eta alderantziz, lesbiana hitzak Bidasoaldean esanahi bat gehiago zuten; lesbiana Alardean atera nahi zuten emakumea

⁴⁵⁸ “A la ciudadanía de Irún”, 1998/06/XX.

⁴⁵⁹ Ibidem.

bihurtu zen. Horrek zaildu egiten zuen guztiz, adibidez, sexu-genero disidentziaren armairutik ateratzeko prozesua edota horien harrotasuna. Zein egoera izan zezakeen Alarde tradizionalaren aldeko gay edo lesbiana batek, termino horiek jada, emakumeak Alardean ateratzearen aldekoak izendatzen bazituen?

Gainera, gogoratu behar dugu 90eko hamarkadan termino horiek oraindik ere guztiz estigmatizatzaileak zirela. Nahiz eta zabaldua egon espainiar Estatuan trantsizioaz geroztik tolerantzia eta onarpena zegoela sexu-genero disidentziarekiko. Brice Chamouleu-k baieztapen horrekiko deskonfiantza batetik ikerketa hasita, hau planteatzen du:

“Las subjetividades estudiadas aquí revelaron que la Transición no era tiempo fundacional, sino perpetuación, en tanto que mutación, de un orden anterior, nuevamente codificado en lenguajes demócratas. Enunciaron esta violencia en términos inequívocos: las fuerzas del orden en 1978 «tiran al maricón», el consenso constitucional es «barbarie institucionalizada».”⁴⁶⁰

Lesbiana eta gay kolektiboen, lesbiana feministen eta ondoren LGBT gisa artikulatutako borroka luze joan bazen ere, eta horiek aldarrikapen ugari egin bazituzten ere, 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadetan zehar, oraindik ere genero ordena eta ordena soziala zalantzan jartzen zutenek, norma heterosexuala apurtuz, bazterretan jarraitu zuten, termino horien estigma eta kriminalizazioa handia izanik eta horrek horien kontrako indarkeria legitimatzen zuelarik:

“Estas mujeres son castigadas por ser lesbianas y/o mostrar comportamientos o actitudes masculinas, porque están poniendo en tela de juicio una importante norma, la heterosexual, y así sus guardianes reaccionan para mantener la legitimidad de la misma. (...) Es decir, que su lesbianismo produce un desorden de género y sexualidad que va más allá de ser una opción sexual.”⁴⁶¹

Panfleto horretaz gain beste hiru zabaldu zituzten gizonez osaturiko Alardearen aldekoek, P.A.T. (Partido del Alarde Tradicional) siglekin sinatuta. Txaro Arteaga eta Emakunderen kontra egin zuten, bai eta Irungo Udalaren aurka, Alarde ofiziala

⁴⁶⁰ Brice Chamouleu, *Tiran al maricón...*, 16-17.

⁴⁶¹ Raquel Platero (koord.), *Lesbianas...*, 19-21.

finantzatzeagatik. Behin eta berriro emakume soldaduz osaturiko Alardea inauteri gisa kalifikatu, eta Alarde tradizionala babestuko zuen alderdi baten sorrera proposatu zuten:

“(…) señores-as, el pueblo no olvida, así como que ustedes no deben olvidar que las próximas elecciones municipales son el próximo mes de junio de 1999 y el pueblo votará a aquel partido que apoye a su pueblo y, señores, la mayoría del pueblo les ha dicho que quiere el Alarde continúe como estaba. (...) si no hay partido que apoye el sentir del pueblo, fundemos un partido, el PAT por ejemplo. Votemos al Partido del Alarde Tradicional.”⁴⁶²

Urte bete falta zen hurrengo udal hauteskundeetarako, eta hori mehatxu gisa erabili zuten, alderdiek Alarde tradizionala babesten ez bazuten, botoak galduko zituztela esanez. Izan ere, EHUko inkestak eta gizon soldaduz osaturiko Alardearen aldeko mobilizazioek erakutsi zuten, Alarde tradizionalaren aldekoa zela gehiengoa, eta gatazkaren dimentsioa ikusita, horrek botoaren intentzioa guztiz determinatu zezakeen. Zaila da ulertzea nola alderdi bateko Alardeko gatazkaren inguruko posizioak jendearen botoa guztiz baldintzatu ahal zuen, baina orain arte, konfliktoaren nondik norakoak, aspektu emozionalak eta bizitzetako eraginak azaltzen digute nola gai horrek guztia gurutzatu zuen eta politika instituzionalean jendea alde batera edo bestera mugitu zuen.

“Alardea baino askoz gehiago, herri honetan badakigu doala hogeitau urte gatazka bortitza hasi zenean, herrian zatiketa ideologia eta familia eta izan zela. Eta min asko egin duela eta ordun jendea oso progresista zena garai batean, bat batean alde reaktionarioan gelditu zen.(...) Ikusten dut bai, egoera zehatz batzuegatik izan zen zatiketa eta gero, noski, denborarekin jendea joan da urruntzen eta politikoki joan da despolitizatzen.”⁴⁶³

Testigantza horrek balio digu azaltzeko nola behin gatazka lehertuta eta horrek suposatu eta eragin zituen prozesuekin indibiduoak eta kolektiboak ideologikoki ere mugitu zituela, ez soilik Alardearen gaiaren inguruan. Ez ziren egun batetik bestera progresistak zirenak kontserbadore bihurtu, ezta alderantziz ere, baina progresista-kontserbadore edo ezker-eskuin ardatz horietan mugimenduak egon ziren, ez iritzi bat edo beste izategatik soilik, baizik eta ekintza, diskurtso eta komunitateen eraikuntza ezberdinetan kokatu,

⁴⁶² B.S., “Cuatro cartas circulan por Irun”, *Egin*, 1998/06/16, 18.

⁴⁶³ Tomas Elgorriagari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/02/08 (pasarte bat).

aukeratu edo harrapatuak geratu zirelako. 1996an haustura bat egon zen Alardeen gaiaren inguruan, eta jendea emakumeak ateratzearen alde edo kontra posizio hartzen joan zen, ideologia, emozio eta indarkeriaren artikulazioak bultzatuta. Aldeko eta kontrako taldeak heterogeneoak izan zitezkeen hasieran, baina gatazka luze joan zenez eta komunitate zurrinak eraiki zirenez horien inguruan, nahiz eta komunitate barnean etengabeko dialektika eta hegemonia lortzearen lehia egon, kanpora begira batasun bat mantentzen zuten. Komunitate horiek Alardearen bueltan jardun zuten, baina, ikusi dugun bezala, ardatz eta errealitate gehiagok gurutzatzen zituen. Zentzu batean, Elgorriagak dioen esaldia adierazgarria da: “jendea oso progresista zena garai batean alde reaktionarioan geratu” zela. Eta horrek hauteskundeetako botoa ere baldintzatu zuen; nahiz eta Alardearen gaiagatik soilik alderdi bat bozkatu, alderdi horrek Alardeaz gain materializatzen eta egiten zituen politikak indartzen zituen boto horrek.

Alardea, gainera, ez zen urte haietako Bidasoaldeko arazo eta gatazka bakarra. Hasieran esan bezala, garai haietan Irunen oraindik ere agerikoak ziren industriaren deslokalizazio eta aduanen desagerpenaren ondorioak, zeinak tertziarizazio, neoliberalismo eta globalizazio mundialaren adierazgarri baitziren. Irunen itxi zen azken fabrikako langileak 1998ko otsailean oraindik ere kale-gorrian zeuden, eta beste enpresa baten planta berri batean lan egitera sartuko zirenen adostasuna bertan behera gelditu zen, planta eraikitzeko proiektua atzera bota zenean. Egoera hori Irungo langabezia-mailako datuetan islatzen zen, 1998ko ekainean Gipuzkoako altuena zelarik. Hondarribian ere lan gatazkek bazuten zeresana, batez ere arrantza munduan. Frantziar estatuko arrantza barkuek bolanta sareen bidez arrantzatzearen kontra 90eko hamarkada hasieran borroka luzea egin ostean, 1998ko ekainean Europar Batasunak legez kanpo utzi edo ez, eta noiz, erabaki behar zuen. Izan ere, sare horiek erabilia Bizkaiko Golkoan ez zen arrainik sartzen eta oso gutxi arrantzatzen zuten, euskal arrantzaleen egoera oso larria izanik. 2002ra arte bolantak legezko izaten jarraitzea erabaki zen, eta nahiz eta positiboki baloratu, Hondarribiko arrantzaleen aldetik mesfidantza handia zuten.⁴⁶⁴ Hondarribiko Kofradiako abade nagusiak hau zioen:

“Olaizola recuerda que en el Cantábrico 7.000 familias viven del mar. Un mar que
«no es patrimonio de ningún empresario y tampoco de ninguna generación –

⁴⁶⁴ “«Ha sido un palo muy fuerte”», *El Diario Vasco*, 1998/02/04, 16; “IU solicita al alcalde que explique por qué la comarca mantiene el mayor índice de paro de Gipuzkoa”, *El Diario Vasco*, 1998/06/11, 18; Joseba Aiarza, “Bolantak noiz desagertu erabakiko du bihar Europako Arrantza kontseiluak”, *Egunkaria*, 1998/06/07, 16; Jaime Anduaga Matud, *Hondarribiko arrantzale-kidegoaren bidegurutzea...*

señala-. En el Cantábrico tenemos un mar rico y los políticos deberían pensar más en nuestro mar y olvidarse un poquito del mar de fuera».»⁴⁶⁵

Alardearen gaiaz gain, beraz, gatazka eta arazo ugari zeuden Bidasoaldean, baina azken urteko manifestazio eta mobilizazio gehienak eta jendetsuenak emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoak izan ziren. Ekaineko lehen egunen bueltan, Alarde tradizionaleko Juntak gizonen osaturiko Alardeak eskaera egin zuen ordenantzak zioen ibilbide eta ordutegia betetzeko, haiena baitzen herriaren Alardea. Román Rico alkateordeak argi utzi zuen Alarde ofiziala zela benetako Alarde tradizionala eta emakumeek bertan parte hartzeko eskubidea zutela, eta, beraz, ordenantzek arautzen zuten ordutegi eta ibilbidea emakume eta gizonen osaturiko Alardeari zegokiola. Horren aurrean, Irungo BAA, Emakume Irundarrak, Nahikide eta Pagoki elkarteek prentsaurreko batean guztien dirua herriaren sentimenduen kontra erabiltzea egotzi zioten udalari, emakumeak onartzen zituen Alardea antolatuta eta finantzatuta. Alarde egunerako geroz eta egun gutxiago falta zirenean, Irungo alkate zen Alberto Buenek bi Alardeetako antolatzaileak Alarde eguna koordinatzeko bilera batera deitu zituen. Bakoitzaren ordutegiak eta ibilbideak zehaztea zen asmoa, nahiz eta egun batzuk lehenago alkateordeak Alarde ofizialari babesa eta lehentasuna eman nahi zuten ordu eta ibilbidea egiteko. Alkateak, ordea, beste proposamen bat eraman zuen alderdi politikoaren bozeramaileen juntara: Alarde tradizionalaren ordutegia ordu eta erdi aurreratzea, eta Alarde ofizialarena ordu bete atzeratzea, ibilbide berbera eginez. Horrela, haien artean bi ordu eta erdiko tartea egongo zen istiluak ekidite aldera. Proposamena bi Alardeen artean eztabaidatu eta erabaki behar zela planteatu zen, eta horregatik deitu zituen bi aldeak bilera batera, baina ez ziren inolako adostasunera iritsi. Horren aurrean, Román Rico eta Alberto Lizarragak Alarde tradizionaleko agintariei Alarde ofizialera batzeko gonbitea egin zieten, baina Alarde tradizionaleko antolatzaileek EAeko Barne Sailari manifestazio gisa komunikatu zioten haien Alardearen ospakizuna.⁴⁶⁶

⁴⁶⁵ “La prohibición del uso de las volantas es acogido con cautela por los arrantzales”, *El Diario Vasco*, 1998/06/10, 18.

⁴⁶⁶ “Emakumeak Alardean parte hartzeko eskubidea du, Irungo alkateordeak dioenez”, *Egunkaria*, 1998/06/07, 15; M. M., “El Ayuntamiento de Irún impedirá al Alarde paralelo hacer el recorrido oficial”, *El País*, 1998/06/08, 10; “Betiko acusa al Ayuntamiento de actuar «contra el sentir del pueblo»”, *El Diario Vasco*, 1998/06/09, 10; Arantxa Iraola, “Irungo Betiko Alardearen Aldekoek Udalaren jarrera salatzen dute”, *Egunkaria*, 1998/06/09, 15; “Los grupos del Alarde tradicional dicen que el dinero público de Irún se usa «contra el pueblo»”, *El País*, 1998/06/09, 6; Iñaki Lekuona, “Alarde de nervios contra el Alarde municipal”, *Egin*, 1998/06/10, IV (Gipuzkoa); “El alcalde celebrará una reunión conjunta con los

Ordutegi eta ibilbideari dagokionez, inolako adostasunera iristen ez zirenez, gainera, Alarde tradizionalako Juntak eta agintariek manifestazioa deitu zuten ekainaren 20rako, Irungo instituzioei “herriaren benetako nahia erakusteko”. Mobilizazioaren amaieran, Alardeko agintariek hitza hartu eta bakea, lasaitasuna eta errespetua aldarrikatu zituzten, “besteez ahaztu eta gurekin egotea” eskatuz. Manifestazioa egin eta hurrengo egunean erabaki zituen Eusko Jaurlaritzako Hiritarren Segurtasunerako Zuzendaritzak zeintzuk izango ziren Alarde bakoitzaren ordutegi eta ibilbideak. Alarde tradizionalari goizeko 7:00etan eta arratsaldeko 17:00etan irteteko baimena eman zion, eta Alarde ofizialari, berriz, 8:25ekoa goizean eta 18:30etakoa, hau da, ordenantzek arautzen zutena. Ibilbide antzekoa izango zutela ere jakinarazi zuen, eta horrek Alarde ofizialekoak kezkatu zituen, istiluak sortzeko arriskuagatik. Alarde tradizionalakoen antolatzaileek ontzat jo zuten, nahiz eta aitortu gustatuko litzaiekeena baino okerragoa zela. Testuinguru horretan iritsi ziren 1998ko Irungo jaiak, bi Alarde banandu eta kontrajarriren antolakuntzarekin.⁴⁶⁷

Urte hartako jaiak desberdinak izango zirela argi zegoen, hasteko, historian lehen aldiz, bi Alarde egingo baitziren. Aurreko urtean ere bananduta ospatu zuten Alardea emakumeak ateratzearen aldeko eta kontrakoek, baina esan beharra dago ez zirela bi Alarde oso izan, Alarde bat eta unitate berezi bat baizik. Horrez gain, beste ekitaldi batzuk ere aldatu ziren; jaien agurra ez zen udaletxeko balkoitik egingo, komunikatu baten bidez baizik. San Pedro egunean udaletxetik Junkal elizaraino egiten zen udalbatzaren prozesioa eta aurrekoa ere bertan behera geratu ziren, jadanik azaldu dugun kantineren aurkezpena bezala. Azkenik, udalak Alardeari egiten zion herriko

colectivos organizadores de los dos Alardes”, *El Diario Vasco*, 1998/06/12, 22; Iñaki Lekuona, “El alcalde reunirá a las dos partes”, *Egin*, 1998/06/12, V (Gipuzkoa); Ainhoa Castells, “Representantes de los dos Alardes de Irún se reúnen en busca de consenso”, *El Mundo*, 1998/06/12, 5; Iñaki Lekuona, “No hubo acuerdos sobre horarios y recorridos”, *Egin*, 1998/06/14, IV (Gipuzkoa); “Solicitan a los mandos del Alarde tradicional que se unan a un desfile unitario”, *El Diario Vasco*, 1998/06/14, 26; “La Junta municipal pide al Alarde tradicional que varíe su recorrido”, *El Diario Vasco*, 1998/06/16, 13; “La Junta del Alarde pide, en pro de la paz y la seguridad, dos recorridos”, *Egin*, 1998/06/16, 18.

⁴⁶⁷ “Los mandos del Alarde tradicional convocan mañana una manifestación”, *El Diario Vasco*, 1998/06/19, 10; “Los mandos del Alarde «tradicional» convocan una manifestación para mañana”, *Egin*, 1998/06/19, 23; “Alarde tradizionalaren aldeko manifestazioa egingo dute gaur Irunen”, *Egunkaria*, 1998/06/20, 14; “Interior dispone que el Alarde tradicional arranque a las 7 de la mañana y cambia ligeramente su recorrido”, *El Diario Vasco*, 1998/06/21, 14; “Miles de personas en la marcha convocada por los mandos del Alarde tradicional”, *El Diario Vasco*, 1998/06/21, 15; Joseba Salbador, “Aumenta la tensión en Irún”, *Egin*, 1998/06/21, 20; Amagoia Mujika, “Seguratsuna bermatzeko eskatu dio Alarde ofizialak Barne Sailari”, *Egunkaria*, 1998/06/21, 9; “Ez dute ibilbide bera egingo Irungo bi alardeek”, *Egunkaria*, 1998/06/23, 10; “La Junta del Alarde municipal de Irún hace una valoración negativa de la decisión de Interior”, *El Diario Vasco*, 1998/06/23, 14; Iñaki Lekuona, “La Junta del Alarde, en contra de la medida de Interior”, *Egin*, 1998/06/24, IV (Gipuzkoa); Iñaki Lekuona, “El saludo de fiestas, mediante un escrito”, *Egin*, 1998/06/26, V (Gipuzkoa).

banderaren entrega ez egitea erabaki zen. Esan daiteke, udalaren jarrera hori distantziakidea zela. Alde batetik, sententzia betetzen zuen, eta bestetik, herriaren gehiagoaren nahia ahal zuen heinean errespetatzen zebilen, udalak Alarde ofizialari eman ziezaiokeen legitimitatea kenduz. Jarrera horrek gatazka konpondu beharrean, gehiengoaren nahia eta EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia betetzeko helburua zuen, betiere PSE-EEk zuen boterea mantentze aldera. Esan beharra dago, hala ere, Irungo politikari batzuek haien alderdien jarrera lokalarekin kontrajarriak ziren posizioak hartu zituztela, eta horrek galera pertsonal handia eragin zien askori.⁴⁶⁸ EAko Maribel Castelló eta PSE-EEko Román Rico izan ziren horietariko bi:

“Yo le adoro a Maribel Castelló, que es una persona muy criticada pero que hay que ver donde estaba cuando estaba todo esto: tenía la vida resuelta, corona, pasta, era concejala, teniente de alcalde y se unió a cuatro locas a las que no conocía de nada. Ese es el tipo de políticos que siempre reclamamos que haya.”⁴⁶⁹

“Badago jendea galdu du pila, estatus sozial. Zinegotzia ze, kulturako zinegotzia, baina adibidez baita ere PSOEkoa, nola da? Román Rico, pues tipoa oso jatorra zen, ematen zuen, PSOEkoa eta beti daukazu, ni klaro udaletxean lan egiten dut eta PSOErekin harremana oso oso txarra izan dut (...) baina tipoa baita ere jarri zuen pila, jarri zuen bere burua rollo honekin eta momentu hartan asanblada hartan.”⁴⁷⁰

Bi politikari horiek Irungo Udaleko zinegotzi ziren, bata EAkoa eta bestea PSE-EEkoa. Esan genezake alderdi horiek Alarde tradizionalaren alde jo zutela Irunen, nahiz eta Castelló hasieratik emakumeak Alardean ateratzearen aldeko aurpegi ezagunetariko bat izan zen eta Rico 1998ko Alarde ofiziala antolatzearen udaleko arduradun. Azken horrek gainera, deklarazio batzuetan emakumeek Alardean desfilatzeko zuten eskubidea

⁴⁶⁸ “El aurreku de la Corporación en el Juncal se suspende temporalmente”, *El Diario Vasco*, 1998/06/23, 20; I. L., “Comienzan las fiestas con un comunicado de Alcaldía”, *Egin*, 1998/06/23, IV (Gipuzkoa).

⁴⁶⁹ Mertxe Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

⁴⁷⁰ Juantxi Ugarte Lopetegiri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/01/28 (pasarte bat).

Juantxi Ugarte Lopetegi 60ko hamarkadan jaio zen Irunen eta hamahiru urterekin hasi zen bere auzoko konpainian desfilatzen, Anakako konpainian. Konfliktua sortu zenetik emakumeak Alardean ateratzearen aldekoa da eta 1997an unitate berezian eta 1998tik aurrera Alarde mistoan eta Oiasso konpainian desfilatu izan du.

aldarrikatu zuen. Aurrerago ikusiko dugu horrek nola eragin zuen 1999ko udal hauteskundeetan bertan eta haien alderdietako zerrendetan.

1998ko jaietan udalak ekitaldi batzuk bertan behera utzi zituela azaldu dugu, eta hala ere, Irungo hogeita lau elkartek uko egin zioten udalak antolatutako harrerara. Haien esanetan, udalaren jarduerarekin ados ez zeudela adierazi nahi zuten horrela, udalak distentsio giroa bultzatzen ez zuelako. Horrez gain, San Juan egun bezperan, alkateak sua piztu bitartean, txistu egin zioten eta jaietako kartel eta programak sutara bota. Protesta egin nahi zuten udaleko programan Alarde ofiziala azaltzen zelako, hau da, emakumeak onartzen zituena. Horren aurrean Irungo PSE-EEk Alardea bake giroan ospatzeko deia egin eta iritzi desberdinak errespetatzeko eskatu zuen. Egizanek, ordea, alkatearen jarrera salatu zuen, bera gatazkaren erantzule nagusitzat hartuz, Alarde tradizionalak behar zuen guztia eman ziolako. Egizanek eta HBk ekainaren 30ean Alarde ofiziala babestera joateko deia egin zuten, “berdintasunaren aldeko borrokari laguntza ematearren.”⁴⁷¹

Urte hartako Irungo jaietan Fermin Muguruzak kontzertu bat jo zuen Mosku plazan, eta istiluak egon ziren emakumeak Alardean ateratzearen alde adierazpenak egiteagatik. Ondoren, urte askotan zehar ezin izan zuen Irunen berriro jo:

“Bueno, plaza beteta eta hor atera ginen eta momentu batean klaro, eske oso zaila da konturatzea ze giro zegoen. Bat batean nik esateko, «kantu hau emakumeentzako, Alardean atera behar direlako gurekin eta toki guztietan gurekin» eta ez dakit zer. Eta hasi ginen eta ez zen kanta bat laralara baizik eta «Bidasoa Fundamentalista pum, pum, pum Bidasoa Fundamentalista». Muntatu zen tangana bat, bota ziguten denetatik baina botatzen zigutenak ostiak jasotzen zuten, gure jendea zegoelako baita ere. Orduan ostiak bakarrik, baina guk bukatuko dugu kanta, bukatuko dugu kontzertua. Kriston ostiak, gainera muturrekoak, guri ailegatu zitzaigun denetarik. (...) Nik urtez urte jarraitu nituen egiten jirak eta ez dakit zer, eta 2013 arte udaletxeak ez zuen berriz ere nik hemen

⁴⁷¹ “Veinticuatro sociedades irunesas rechazan la invitación a la recepción municipal”, *El Diario Vasco*, 1998/06/23, 20; “La Junta del Alarde municipal de Irún hace una valoración negativa de la decisión de Interior”, *El Diario Vasco*, 1998/06/23, 14; “Irungo PSE-EEk Alarde bake giroan ospatzeko deia egin du”, *Egunkaria*, 1998/06/25, 14; “El PSE-EE hace un llamamiento para que las fiestas se celebren en paz”, *El Diario Vasco*, 1998/06/26, 26; “Egizanek hilaren 30ean Irungo Alardera joateko deia egin du”, *Egin*, 1998/06/23, 20.

jo nahi izatea. Boikota izan dut politikoa, toki pila batetan, baina Irunen izan nuen boikot bat, emakumeen alde jartzeagatik.”⁴⁷²

Alarde eguna gertu zela, BAEk Barne Sailaren ordutegia eta ibilbidea arautzen zuen erresoluzioaren kontra EAEko Justizia Auzitegi Nagusian errekurtsio bat aurkeztu zuen, Alarde tradizionalari lehentasuna ematen ziola uste baitzuen. Horrez gain, Irungo Auzitegian Beñardo Urtizberea eta Javier Iriarteren, Alarde tradizionaleko jeneral eta komandantearen, kontrako demanda zibila jarri zuen, oinarrizko eskubideak ekintza pribatuetan ere bermatu behar zirelako, eta, beraz, ezin zelako inolako bazterketarik egon. Azkenik, alkateari Alarde tradizionaleko ordutegi eta ibilbidearen aldaketa atzera botatzeko eskaera administratiboa egin zion. Hala ere, Alarde ofizialeko Juntako kide batzuk ez zeuden ados horrekin, eta salaketa horiek desegokiak zirela uste zuten, udaleko PSE-EE, EAJ eta EA alderdiek bezala. Horrekin ikusten da jadanik aipatu ditudan emakumeak Alardean ateratzearen aldeko bi ildoek batzuetan ez zutela bat egiten. Irungo Alardea baino egun bat lehenago, demanda zibilaren eta errekurtsioaren inguruko epaia kaleratu zen, nahiz eta eragin handirik ez zuen izango. Izan ere, BAEren arabera, nahiz eta emakumeak desfilatzearen aldekoa izan epaia, haiek Alarde ofizialean desfilatuko zuten. Ekainaren 19an, bai Irungo Auzitegiak eta bai EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak BAEren salaketak atzera bota zituen.⁴⁷³ Horren aurrean BAEk honako balorazioa egin zuen:

“María Luisa Agirretxe explicó que el colectivo acudirá a la vía civil, que es la que apunta el TSJPV, y demandará a los organizadores del Alarde tradicional por organizar un desfile que no respeta los derechos fundamentales como el de la igualdad. Recordó que los derechos fundamentales no afectan únicamente a los poderes públicos, sino también a los particulares, y por ello acudirán a la vía civil,

⁴⁷² Fermin Muguruzari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/09/07 (pasarte bat).

⁴⁷³ “El colectivo de mujeres BAE de Irún recurre la resolución de Interior sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1998/06/27, 17; Alazne Basañez, “Bidasoaldeko Emakumeak recurre a las resoluciones de Interior y Alcaldía”, *Egin*, 1998/06/27, 22; A. B., “Berdintasunaren aldeko borrokari laguntza ematearren Alardera joateko eskatu du HBk”, *Egin*, 1998/06/27, 22; Arantxa Iraola, “Herri Batasunak Alberto Buen alkatearen jarrera salatu du Irungo Alardearen aferan”, *Egunkaria*, 1998/06/27, 13; “Organizadores de los dos Alardes piden respeto para sus respectivos desfiles”, *El Diario Vasco*, 1998/06/28, 11; G. Aramburu, “Errekurtsioak kentzeko eskatu dio Irungo alkateak Bidasoa Aldeko Emakumeaki”, *Egin*, 1998/06/28, 26; Arantxa Iraola, “Liskarra piztu du Bidasoaldeko Emakumeek epaitegietara jotzeak”, *Egunkaria*, 1998/06/28, 11; “El juzgado de Irún resuelve hoy sobre la demanda civil del colectivo BAE”, *El Diario Vasco*, 1998/06/29, 8; “El TSJPV y el Juzgado de Irún desestiman los recursos sobre el Alarde tradicional”, *El Diario Vasco*, 1998/06/30, 8.

para evitar que en los próximos años «un grupo de particulares pueda organizar lo que quiera».⁴⁷⁴

Irungo 1998ko Alarde eguneko bezperan, beraz, epaitegiek errekurtsua eta demanda atzera botatu zuten, eta aste bat lehenago indarrean zeuden ordutegi, ibilbide eta Alardeek aurrera egin zuten. Berrero ere, azken momentura arte inork ez zekien epaitegiek zer esango zuten, ezta egunean bertan zer gertatuko zen ere. Urte hartan, lehen aldiz, Alardearen inguruko ekitaldiak bikoitzak eta paraleloak izan ziren, bakoitzak bere aldetik eta elkar ezin ikusita egin baitzituzten: kantineren bi aurkezpen ekitaldi, bi arma-ikuskatze eta izen berbereko konpainiez osaturiko bi Alarde. Urte hartan, aipatzekoa da Pagoki elkarteak lastargien desfilea antolatu zuela, 1522ko batailan emakumeek izandako paperean oinarriturik. Alardearen bezperako iluntzean, emakume eta haurrek, lastargi eta koko oskolekin zaldien zarata eginez, isilean ibilbide bat egin zuten. San Martzialeko batailan etsaiak engainatzeko egin omen zen ekintzari erreferentzia egiten zion, “frantsesek” pentsatu baitzuten horiek zirela soldaduak eta bien bitartean benetako soldaduek atzetik eraso egin zieten. Esan beharra dago nahiz eta iragan urrun batean oinarritu, orainaldiak baldintzatuta egin zutela, gizonen Alardearen aldeko emakumeek festan toki bat izateko. Hala ere, bistakoa da Alardearen zentraltasunaren bazterrean egiten zela eta genero ordena zalantzan jarri gabe, eta hori zela herri-komunitatea partekatzen eta eraikitzen ari zen genero rol eta tokia.

Alarde ofizialean hamar konpainiak, eta, beraz, bederatzi kantinerak desfilatu zuten, 1.000 pertsona inguruk guztira. Alarde tradizionalan, berriz, hogeitun konpainiak, hemeretzi kantinerak eta 7.574 gizonen. Orokorrean espero bezala irten zen dena, Alarde ofizialeko desfilean tentsioa egon bazen ere, irain eta txistu artean hartu baitzituzten emakumeak Alardean ateratzearen kontrako batzuek. Aipatzekoa da baita ere San Juan Plazan jenerala zaldiz sartu zen momentu hartan, mundu guztia isilik zegoenean, Alarde ofizialaren kontrako batzuk “Lizarraga marikon” oihukatzen ibili zirela. Herriko bandera ez zuen Alarde batek ez besteak jaso, baina Maribel Castellók, EAko zinegotziak, ofizialari bandera bat eman zion, eta tradizionalak ere Emakume Irundarrek eginiko bandera jaso zuen, Javier Vergararen eskutik, aurreko urteko jeneralaren eskutik, hain zuzen. Aipatzekoa da Román Ricok, PSE-EEko alkateordeak, Alarde ofizialean desfilatu zuela, HBko eta EBko beste zinegotzi batzuekin batera. Bi

⁴⁷⁴ “Desestimados los recursos sobre el Alarde”, *Egin*, 1998/06/30, 18.

Alardeak elkartu ziren momentu bakarra San Martzialeko goizeko meza izan zen, eta Alberto Buen alkatearen ustetan horrek tentsioa areagotu zuen. Alarde ofizialeko beste berritasun bat jeneralak aginduak euskaraz eman zituela izan zen, aurretik gazteleraz izaten baitziren eta Alarde tradizionalan horrela egiten jarraitu baitzuten. Hizkuntzak eta horrek eraiki zezakeen nazioaren inguruan Alarde bakoitzak hartutako erabaki edo norabideak desberdinak izanda, errito horiek zabaldu zituzten balio eta arauak ere ezberdinak izan ziren. Euskara euskal nazioaren oinarri nagusietariko bat zen eta Alarde mistoak hori erabilita, zentzu batean herri euskaldun bat eraikitze bidean laguntzen zuen. Alarde tradizionalak gazteleraz emanda aginduak espainiar edota euskal nazionalismoetariko bat babestu zezakeen, EAeko bi hizkuntza ofizialetako bat erabiliz.⁴⁷⁵ Juantxi Ugarte Lopetegiri Alarde ofizialeko komandantea eta Juntako kidea izan zen 1998an, eta honela gogoratzen du:

“Bai, izan zen la ostia, una locura. Zaldi gainean, bai, bai oso harro gainera, bueno incoscienza total, (...) Irunen nik uste dut denak atera gara, bueno gizonak, baina izan zen nahiko la ostia mantentzea ordena. Ni, soy un poco anarko, mantentzen sableekin eta ez dakit zer eta karo, orden y mando. Es que, jada hasi ginen asanbladarekin eta auzo bakoitzak bere kabuz, nik ezin nuen, ni nengoen zaldiarekin eta ez dakit zer. Ni inoiz ez nintzen ibili zaldiz, inoiz, zortzi egun egon nintzen Loiolan eta bueno nola nintzen komandante jauna lortu nuen kriston zaldi, handia eta oso (...) karo gero mantendu behar da jende tartean. Hori incoscienza total, «no tiene ni idea de andar en caballo», baina nik bueno, sartzen zara antzerkian edo paperean eta a saco con el papel. Mandando a los ertzainas, mandando a los munipas, pues nengoen nire saltsan eta zen nahiko gogorra.”⁴⁷⁶

Ugarteren testigantza zaren pasarte horrek adierazten digu Alarde oso bat denbora gutxian sortu zutela, eta nahiz eta bertako gizon askok lehenagotik Alardean desfilatu, gehienek soldadu soil gisa egiten zuten, eta Tranchekek lehen azaldu bezala, emakumeek

⁴⁷⁵ “Irún, tuvo la fiesta en paz”, *El Diario Vasco*, 1998/07/01, 9; “Desfile multitudinario”, *El Diario Vasco*, 1998/07/01, 10-11; “Con espíritu festivo”, *El Diario Vasco*, 1998/07/01, 12-13; “El Alcalde de Irún se mostró satisfecho por el transcurso de la jornada”, *El Diario Vasco*, 1998/07/01, 13; “Bajo el «sirimirí» y sin novedad”, *El Diario Vasco*, 1998/07/01, 22; Alazne Basañez, “El Alarde de Irun no distinguió de género”, *Egin*, 1998/07/01, 20; Begoña Simon, “Más vítores que silbidos en Irun”, *Egin*, 1998/07/01, 21; Arantxa Iraola, “Jai giroa nagusitu zen atzo Irunen kalez kale ibili ziren bi alardeetan”, *Egunkaria*, 1998/07/01, 9; M. Etxeberria eta A. Castells, “Los alardes Oficial y Tradicional compartieron las calles de Irún sin que se produjeran incidentes”, *El Mundo*, 1998/07/01, 8; M.E. eta A.C., “Un solo San Marcial, pero dos formas de vivir la fiesta”, *El Mundo*, 1998/07/01, 9.

⁴⁷⁶ Juantxi Ugarte Lopetegiri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/01/28 (pasarte bat).

desfilatzen ikasi behar izan zuten. Tradizio asmatu berri bat sortu zuten horrela, balio eta arau batzuk haien komunitatera transmititzen zituztelarik. Hala ere, Alarde tradizionala Alarde ofiziala bezain asmatua zen, eta termino horrekin aztertzea dagokigu. Ugartek azaltzen digu nola ordena mantendu behar zen; izan ere, Alardea ordena batean oinarritzen zen, ordena militarrean, hain zuzen. Horrez gain, aginduak eman behar ziren, eta hori zentzu batean kontraesanean sartzen zen bere ideologia edo jarrera anarkistarekin. Argi uzten digu egun bateko antzerkia edota paper bat betetzea zela Alardeko agintariek aginduak ematea eta besteek jasotzea. Aurreko kapituluaz azaldu dugu nola gatazkaren aurretiko Alardean eta Alarde tradizionalan agintarien prestigio eta boterea ez zela Alarde egunera mugatzen, eta ikusi beharko dugu nola gauzatu zen hori Alarde ofizialean. Argi dago, lehen urtean, hilabete batean korrika eta presaka antolatu zen Alardean, agintaria paper hori betetzeko prest zegoen edonor izan zitekeela. Eta horrez gain, beste berritasun bat sartu zen funtzionamenduari dagokionez. Konpainietako kantinerak boto bidez aukeratu beharrean, aurkezten ziren emakumeen artean zozketa bidez hautatzen hasi ziren, eta horrek, zentzu batean, Alardea demokratizatu zuen. Izan ere, momentu hartatik aurrera, berdin zen familia prestigiodun edo boteretsuetatik etortzea edo ez, zoriak aukeratzen zuen eta horren aurrean, aurkeztutako guztiek aukera berberak zituzten.

Alkateak egindako deklarazioetan positiboki baloratu zuen eguna, istilurik egon ez zelako, eta nahiz eta irain eta txistu batzuk egon, salbuespena izan ziren normaltasunez igaro zen egunean. Hurrengo urteari dagokionean, hitz hauek bota zituen: “En cuanto a lo que pueda ocurrir el próximo año (...) «lo desconozco, pero pensando en cómo están las cosas, seguramente el año que viene habrá también dos Alardes.”⁴⁷⁷ Alkatearen hitz horiek erakusten digute jada datorrena aurreikusten hasten zirela, jada dena ez zela posible, aurrekari batzuk ezarri zirela eta 1996an lehertu zen guztia kokatzen ari zela: instituzioak, alderdi politikoak, biztanleak, epaitegiak, kolektiboak, etab. Indar korrelazioa kontuan hartuta, ez alde batek, ez besteak ez zuten indar eta babes nahikoa nahi zuten guztia lortzeko. Hots, Alarde tradizionalaren aldekoek 1998an haien Alardean emakumeak ez ateratzea lortu zuten, baina ez zuten udalaren finantzaketa, ez eta nahi zituzten ordutegi eta ibilbidea ere. Batzuentzat, gainera, emakumeak beste Alardean ateratzea ere iraingarria zen, eta are gehiago udalaren finantziazioa izanda.

⁴⁷⁷ “El Alcalde de Irún se mostró satisfecho por el transcurso de la jornada”, *El Diario Vasco*, 1998/07/01, 13.

BAerentzat, ordea, ezin zen emakumeak baztertzen zituen Alarde bat existitu, nahiz eta Alarde ofizialean emakumeak atera. Herri bat izanda, gainera, Alarde bakar bat egotea zen haien azken helburu eta nahia. Horrez gain, Alarde ofizialak udalaren finantzaketa eta babesa izan arren, ordutegi eta ibilbidearengatik ere borrokatu behar izan zuen. Horrekin hau esan nahi dut: bi alde existitzen ziren, helburu eta nahi kontrajarriak zituzten eta bakoitzak horien alde borrokan jarraituko zuen, baina jada marjina txikiagoa zegoen eta dena ez zen posible.

Bi komunitate sortuak ziren jada eta bakoitza bestearekin elkarreraginean garatu zen. Emakumeak ateratzen ziren Alardearen komunitatea esan dugu autodefentsa logika batzuetan eraiki zela, Alarde tradizionaleko komunitatearen erasoei aurre egiteko, baina aldi berean, azken horien diskurtso, irain eta imajinarioaren zama guztiarekin ere sortzen joan zen. Zentzu horretan, adierazgarria da 1998ko Alarde egunean emakume batek esandakoa: “Acababa de pasar el desfile mixto, y una señora elegantemente vestida decía en voz alta, «ya se sabe, todos estos son de HB».”⁴⁷⁸ Ikusten joan garen bezala, hasieratik, Irunen HB, EB eta EA izan ziren emakumeak Alardean ateratzearen aldekoak, eta behin EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia aterata, konstituzionalista askok ere udalak antolatutako Alardearen alde egin eta bertan desfilatu zuten. Horrez gain ere aztertu beharra dago ea Alarde ofizialean ateratako guztiak komunitate berbereko kide izatera iritsi ziren edo ez. Emakume horrek esandakoa, alegia, 1998ko Alarde ofizialeko guztiak HBkoak zirela, egia ez zela argi zegoen, baina zer eragin zuen behin eta berriro hori errepikatzeak? Maripi Solbesek bere familiarekin bizi izan zuenak ederki balio digu errepikapen horrek zer eragin izan zezakeen azaltzeko:

“Izango zen 98an, urtero bezala joan ginela bazkari horretara. Eta horrelako inprobisatutako bodegan, zen pixka bat euria ari zuen, eta tablero eta horrelako mahai batzuk jarria eta gainera jende pila bat egun horretan, ez zirela justu gure aldekoak. Eta etorri zitzaidan izeba: «Maripi, tu fuera de aquí», hitzik esan gabe haur txiki batekin, beste hiru haur txikirekin, badakit ze arropa neraman, badakit ze aurpegia geratu zitzaiten. Izeba etorri eta «Maripi tu fuera de aquí», begiratu nion nire lagunari, hartu genuen, alde egin genuen. Osea ez bronka eta ez ezer, agente huts hutsa, handik bidaliak izan ginen. Ez geroztikan karo, nire etxeko

⁴⁷⁸ Begoña Simon, “Más vótores que silbidos en Irun”, *Egin*, 1998/07/01, 21.

bazkari familiar horretara sekula santa ez agertua baina hori ere izan zen izugarria. (...), teorian zen nengoelako besteen, baina nik ahoa ireki gabe, karo denak ezagutzen dugu elkar, baina ez nintzen joan errebindikazio batekin, ez nuen deus erran, deusi buruz, eta hala ere izandu nintzen igorria, izandu nintzen bidalia.”⁴⁷⁹

Maripik azaltzen du ez zuela inongo momentuan familiaren aurrean iritzirik eman, jakitun baitzen bere familiak nola pentsatzen zuen. Hala ere, bazkaritik bidali zuten, emakumeak Alardean ateratzearen alde zegoela uste baitzuten, elkar ezagutzen baitziren. Jada, herri-komunitatetik kanporatzearen arrazoia ez zen ekintza bat egitea, hau da, emakumeak Alardean ateratzearen alde borrokatzea, baizik eta norbait izatea. Ideia, iragan eta arrisku bat izatea nahikoa zen *objektu* bilakatzeko.

Bestetik, 1998ko Irungo Alarde eguneko berri guztiak atera ziren egunean, hots, uztailaren 1ean, egunkari gehienetako portadan PSE-EEK Eusko Jaurlaritzak utzi zuela azaltzen zen, hamahiru urte EAJrekin gobernatu ostean. 1998ko ekainaren 29an EAJ, EA eta HBk atzera bota zuten PPK aurkeztutako emendakin bat, zeinetan legebiltzarkideek espainiar konstituzioari zin egin behar zioten eta Ganberaren eraketa erregeari komunikatu. PSE-EEK EAJri egotzi zion HBri gerturatzea eta Miguel Angel Blancoren hilketaren ondoren adostu zuten HBren isolamendua apurtzea. Nahiz eta diputazio eta udaletan EAJrekin zituzten paktuak mantenduko zituztela esan, EAJk Eusko Jaurlaritzako hausturak beste instituzioetan eragina izango zuela adierazi zuen. Zuzenean Alardearen gatazkan eragin gutxi izan zuen horrek, baina kontuan hartuta alderdi politiko horiek udalean zeudela bai Hondarribian eta bai Irunen, eta, gainera, Alardeko gatazkan presente, haustura hori aipatzea derrigorrezkoa da.⁴⁸⁰

Testuinguru horretan, Irungo EAJk 1998ko Alarde ofizialaren udal gastuak ikertuko zituela adierazi zuen. Batetik, ikusita zenbat pertsonak hartu zuten parte Alarde bakoitzean, guztien diruarekin Alarde bakarra eta gutxiengoarena finantzatzea zalantzan jarri behar zela uste zuten, eta, gainera, aurrekontuaren gaintik egindako gastuak zeudela susmatu. Zentzu horretan, Emakume Irundarrak elkarteak udala kritikatu zuen,

⁴⁷⁹ Maripi Solbesi eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketa eguna: 2020/08/17 (pasarte bat).

⁴⁸⁰ “No a la Constitución”, *Egin*, 1998/06/30, 1; “El PSE deja el Gobierno Vasco pero seguirán los pactos en diputaciones y ayuntamientos”, *El Diario Vasco*, 1998/07/01, 1; “El «espíritu de Ermua» acabó con el tripartito”, *Egin*, 1998/07/01, 1; “PSE-EEK hiruko hautsi du, baina beste erakundeetan jarraitu nahi du”, *Egunkaria*, 1998/07/01; “Redondo rompe con el Gobierno Vasco por la «deslealtad» del PNV al pactar con HB”, *El Mundo*, 1998/07/01, 1.

500 pertsonako Alarde “lotsagarri” bati babesu emateagatik eta Alarde tradizionala baztertzeagatik. Honela zioten:⁴⁸¹

“Afirmar que los miembros del Alarde municipal «no han tenido reparos en pretender convertir el Alarde en una mascarada, transformando nuestra música en pasacalles de charanga mal conjuntada y nuestros más seculares en papel de comedia mal aprendido. (...) y mostrando nuestro rechazo a un acto impuesto por manipuladores, mamporreros y trepasillones que nada tiene que ver con nuestras fiestas ni con el sentir mayoritario de nuestro pueblo».”⁴⁸²

Deklarazio horiek Alarde ofizialari legitimazioa kentzeko helburuarekin egin ziren, eta haien Alardetik guztiz bereizteko. Hau da, kontua ez zen bakarrik Alarde batean gizonen soilik desfileatzen zutela, eta bestean emakumeekin batera. Izan ere, gatazkaren lehen urtetik zeukaten diskurtsoa zen emakumeak Alardean soldadu gisa desfileatzeak Alardea suntsituko zuela. Eta 1998an Alarde oso batek emakume eta gizonekin desfileatu ostean, zailtasunak zailtasun –azaldu ditugun testigantzek erakutsi dizkigutenak–, Alarde bat egitea lortu zuten, eta horrek ez zuela berez Alardea suntsitzen erakutsi. Batzuek hori ezin zuten onartu, eta bi Alardeen arteko desberdintasunak handitu nahi zituzten, bateragarriak ez zirela argi uzteko. Aurreko urteetako estrategia berbera erabili zuten, eta esan hori ez zela Alarde bat, inposatutako desfile barregarri bat baizik. Izan ere, 1998an Irunen eszenatoki berri bat ireki zen, bi Alarde berdinean eta paralelo egin baitziren, erakutsiz ez zutela Alardea suntsitu nahi, barrutik ospatu baizik. Horrela, batzuen helburua Alarde bakarra eta parekidea egitea zen, eta bide horretatik lortuko zutela uste zuten. BAEk zentzu horretan positiboki baloratu zuen urte hartako Alarde eguna, eta esan zuen geroz eta herritar gehiago zeudela emakumeak desfileatzearen alde

⁴⁸¹ I.L., “El PNV «investigará los gastos municipales» para el Alarde”, *Egin*, 1998/07/11, III (Gipuzkoa); “Emakume Irundarrak critica al Ayuntamiento”, *El Diario Vasco*, 1998/07/12, 21; I.L., “Emakume Irundarrak califica de «bochornoso» el Alarde”, *Egin*, 1998/07/14, IV (Gipuzkoa).

⁴⁸² Azaltzea komeni den beste gertakari bat, *Eginen* erreproduzitutako azken zitaren hurrengo egunean, 1998ko uztailaren 15ean, Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzón epailearen agindupean egunkaria bera eta *Egin Irratia* itxi zituztela da, ETArekin sarearen parte zirela egotzita eta horien hemezortzi arduradun atxilotuta. 18/98 sumario ezagunaren baitan sartu zuen auzia, non beste antolakunde politiko, sozial eta kulturaletako hainbat pertsona epaituko zituzten. Hortik aurrera eta 1999ko urtarrila arte, *Euskadi Información* egunkaria publikatzen hasi ziren. Esan beharra dago handik hamaika urtera Espainiako Auzitegi Gorenak itxiera legez kontrakoa izan zela, eta atxilotutako pertsonak hasiera batean banda armatuko kide izateaz leporatu bazituzten ere, azken honetan banda armatuko kolaboratzaile, eta ondorioz, haien kondenak erdira jaitsi zituen.

David Fernández i Ramos, “El Supremo decreta la ilicitud del cierre del diario «Egin» 11 años después de su clausura”, *Diagonal*, 2009/06/11; Fermin Munarritz, “Veinte años del cierre de «Egin» y Egin Irratia”, *Gara*, 2018/07/15.

eta posizio hori azaltzera ausartzen zirela.⁴⁸³ Jose Ramón Uriz Zurutuzaren testigantzetan, ordea, argi geratzen da bi Alarderen existentzia bera gatazkaren konponbidea zela ulertu zuela, bakoitzak bere Alardea nahi zuen moduan egiteko aukera izango zutelako:

“96an hasi zen hau Irunen, hor, garai hartan nire erreakzioa izan zen amorrua, zen nik ikusten nituen zeintzuk ziren hor sartuak eta 97an berdin, berdin. Baina gero, 98an jada egin zen beste Alarde bat eta niretzat hori izandu zen, bueno jada beste gauza bat da. Guk guria egin behar dugu, bestea ez zaigu gustatzen baina hor dago, ezin ditugu ezabatu, ezin ditugu ezabatu. Hor daude, eske oso gutxi dira, bueno gutxi baina, hor daude. Hor daude.”⁴⁸⁴

Nahiz eta emakume eta gizonez osaturiko Alardea ez gustatu, onartu behar zutela uste zuen, existitzen jarraituko baitzuten horren aldekoek. Beraz, gizonez osaturiko Alardea berdin mantentzea izan zen haien erronka.

Irunen, beraz, aurreko urteetan emakumeak Alardetik eta herri-komunitatetik bota ondoren eta EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren sententziak babestuta, Alarde ofizial mistoa antolatu zuten. Alardeak herria eraikitzen zuen heinean, bi Alarde egiteak bi herriren eraikuntza bultzatu zuen, herriek Alardeak eraikitzen zituzten bitartean. Alarde bakoitza ospatu zuen komunitateak balio, arau eta ordena desberdin batzuk zabaldu eta ezarri zituen, genero, klase eta nazioek gurutzatuta. Batean, gizon soldaduz osaturiko Alardeak sexu-genero sistema bitarra indartu eta produzitzen zuen, gizon eta emakumeei paper, toki eta rol ezberdinak ezarriz. Alarde mistoan, aldiz, emakumeak soldaduz atera ziren, eta horrek sexu-genero sistema bitarra ezbaian jarri eta gizarte parekideago bat praktikan jarri zuen. Hierarkia, klasea eta prestigioa kontuan hartuta, gizonez osaturiko Alardeak ordena militarra guztiz erreproduzitzen zuen, eta bertako botere harremanak guztiz ezarrita zeuden prestigio eta klasearen arteko zirkuituan. Alarde mistoa ospatzen zuen herria komunitate *abjektua* izanik, bertan artikulatu ziren harremanak, lehen urte hartan behintzat, hierarkiatik urrunago zeuden eta prestigioa ematen ez zuen errito batean zirkulatuz. Nazioari dagokionez, hizkuntza erabilerak eta Alarde bakoitza babestu zuen alderdi politikoak kontuan hartuta, Alarde tradizionala

⁴⁸³ “Alardearen gaineko balorazio baikorra egin dute Bidasoaldeko emakumeek”, *Egunkaria*, 1998/07/14, 13.

⁴⁸⁴ Jose Ramón Uriz Zurutuzari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/20 (pasarte bat).

EAJren nazio eraikuntzaren parte zela esan genezake, bere baitan bestelako nazionalismo edota pentsamenduak bazeuden ere, hegemonia horrek lortu baitzuen. Alarde mistoa, ordea, kanpotik ezarri zitzaion estigmak baldintzatuta, Ezker Abertzaleko Alarde gisa eraiki zuten, nahiz eta beste ideologia eta nazioek tokia izan bertan.

3.3. Herri bat, Alarde bat: bazterketaren zigorra. 1998ko Hondarribiko jaiak

Gogoratu behar dugu Hondarribian Irunen bezalako epai bat zegoela: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiarena, zeinaren arabera Alardea publiko izanik emakumeek parte hartzeko eskubidea zuten. Desberdintasuna Hondarribiko Udalak sententziaren aurka errekurtsoa aurkeztu zuela da, nahiz eta Juana Mugarrietakoa kolektiboaren arabera horrek ez salbuetsi sententzia betetzeaz. Testuinguru horretan, eta ikusita Irunen gertatu zena, Juana Mugarrietakoa kolektiboak Hondarribiko Udalari eskatu zion emakumeen parte hartzea bermatzea, epaiak behartzen zuen bezala, eta gogor salatu zuen alkatea, ordura arte ez baitzuen erakutsi inolako asmorik horretarako. Mehatxuak jasotzen jarraitzen zutela ere adierazi zuten. Horrez gain, Alardearen inguruko erabakiak Alardeko agintarien gain zeudela berrestu berri zien alkateak eta oraindik legalki erregistratu gabe zegoen AFk antolatuko zuela 1998ko Hondarribiko Alardea.⁴⁸⁵ Juana Mugarrietakoa kolektiboaren salaketaren aurrean, komunikatu hau atera zuen Hondarribiko Emakumeak taldeak:

“El Alarde de Hondarribia es del pueblo y que condenamos cualquier intento de agresión a sus normas, cualquier intento de imposición por la fuerza de quienes no saben o no quieren respetar la voluntad claramente mayoritaria de nuestro pueblo y nuestro derecho natural a celebrar el voto a la virgen de Guadalupe en paz. (...) El único alarde discriminatorio y restringido sería aquel que, a expensas del pueblo y poniéndonos las mujeres como pretexto, estaría constituido por un grupo minoritario unido a una determinada ideología y constituido por una mayoría foránea en busca de sus propias reivindicaciones políticas.”⁴⁸⁶

⁴⁸⁵ Ainhoa Oiartzabal, “Alardeari buruzko epaia betetzeko eskatu diote Hondarribiko alkateari”, *Egunkaria*, 1998/07/19, 13; Y. M., “Piden que se asegure la participación de la mujer en el Alarde de Hondarribia”, *El Mundo*, 1998/07/19, 5.

⁴⁸⁶ “Hondarribiko Emakumeak se apoya en la voluntad del pueblo para constituir el Alarde”, *El Diario*

Hondarribiko Alardea bere egin zuten eta hori aldatzeko kanpotik etorritako edozein saiakera eraso gisa hartu zuten. Kanpotik diot, 1996ko leherketaren ostean Alardean ateratzen saiatu ziren emakumeak herri-komunitatetik kanporatu zituztelako. Eta ikusi dugun bezala, ez horiek bakarrik: horien alde egin zutenak, horiekin itsatsi zirenak eta arriskuan jarri zen norma zalantzan jarri zuen edonor. Behin kanporatuta, harresi handi bat eraikitzen hasi ziren diskurtsiboki eta emozionalki, *gu* eta *bestearen* artean. 1998ko abuzturako jada distantzia handia zegoen emakumeak Alardean parte hartzearen aldekoen eta kontrakoaren artean, baita egunerokotasunean ere. Mariak oroitzapen hauek ditu:

“Para ellos, yo ser de la Portua, hija de pescadores, haber salido en una compañía emblemática, es la traición, más traición que pude hacer. Y por eso fui bien castigada, (...) no podía salir a la calle, todo el mundo me insultaba, todo el mundo aprovechó la ocasión para insultar. Claro, es que para ellos, que pretenden, la forma de actuar de ellos, el sistema que montaron era, aparte de amedrentarnos, asustarnos, echarnos del pueblo. Era eso, acojornarnos de tal manera que nos daba miedo hasta ir por las calles donde estuvieran ellos. Y hubo un momento que sí lo consiguieron. Yo no iba, no íbamos a la Marina. Sí, y entonces dejamos de ir a la Marina. Pero yo vivía en el centro, yo vivía en la calle San Pedro en ese momento. Yo tenía que mirar por la ventana a ver quién estaba. Y según quién estaba bajaba o no. Porque sabía que esa persona me iba a insultar.”⁴⁸⁷

Mariak, eta beste batzuek, ezin zuten kaletik lasai ibili, eta ondorioz, zentrotik ibiltzeari utzi zion. Herri-komunitatetik kanporatua izan zen, baina horrekin batera baita herritik fisikoki ere. Traizioaz hitz egiten du; izan ere, arrantzaleen alaba izanik eta gazteago zela kantinera gisa desfilatu ondoren, gizonen Alardearen alde egotea espero zen, arau eta balio batzuk betetzea. Horrela izan ez eta 1996an soldaduz Alardean sartu zenez, Alardetik botatzeaz gain, herritik ere kanporatu zuten. Barruan geratuz gero, arrisku handiagoa suposatuko lukeelako, eta zentzu batean, Alardea infektatuko zuelako, ez baitzuen etsiko Alardean emakumeak atera arte. Aurreko komunikatura bueltatuz, Hondarribiko Emakumeak kolektiboak jaia gehiengoak nahi zuen eran ospatzeko eskubide naturalaz hitz egiten hasi zen, eta eskubidea izanik, hori eztaba daezina zela

Vasco, 1998/07/29, 8.

⁴⁸⁷ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

aldarrikatu zuen. Emakumeak baztertuak ez izateko eskubideari gehiengo baten eskubidea kontrajarri zioten eta diskurtsiboki zabaltzen hasi, nahiz eta inolako oinarririk ez izan eskubide horrek. Bestetik, behin eta berriro errepikatzen zuten kanpotik etorritako jendea eta ideologia konkretu bati lotutakoa zela Alardean emakumeak nahi zituztenak eta hori nahi izateko benetako arrazoiak beste batzuk zirela. Errekonozimendu bat ez egoteak gatazkaren betikotzea errazten zuen, eta diskurtso horiek etengabe errepikatuz luzerako zihoan konfliktu baten oinarriak jarri ziren.

Abuztu hasierarako jada, Hondarribiko 1998ko Alardeko kantinerak aukeratuak izan ziren, eta Alardearen antolakuntzak aurrera jarraitzen zuela agerian geratu zen. Ondorioz, berriro ere, Juana Mugarrietakoa kolektiboak udalari eskatu zion urtero bezala Alardea antolatzea eta sententzia betetzea. Alardea esku pribatuetan uztea, hau da, AFren esku, tradizioa apurtzea eta jaiei uko egitea litzatekeela uste zuen. Udalak Alardea antolatuko ez balu, Juana Mugarrietakoa kolektiboari ematea horretarako eskumena eskatu zuen. Ikusita erantzunik ez zuela, Jaizkibel konpainia gisa 1998ko Alardean aterako zirela komunikatu zieten udala eta Alardeko Juntari, eta entseguekin hasi ziren. Adierazi zuen ez zutela Alardea apurtu nahi eta horregatik ez zirela konpainia guztietan sartzen saiatuko, erdibideko bidea hartu eta konpainia propioan desfilatuko zutela. 1997an 70 pertsona inguru izan zirela azaldu zuten, eta urte horretan 200era iristea espero zutela, Kale Nagusia igotzeko esperantzarekin. Egun horietako giroa *Euskadi Información* egunkariak jasotzen du:⁴⁸⁸

“Por las calles del pueblo se siente, a falta de cuatro semanas, el silencio. «El año pasado, para estas fechas, ya había insultos, amenazas y miradas extrañas por la calle. Ahora, notamos más la indiferencia, el silencio, pero no sabemos si esto es bueno o malo», señalan desde Jaizkibel. Acaso es la calma que precede a la batalla o quizá la prueba de que el pueblo quiere una fiesta en paz, por encima de atavismos irracionales. (...) Y el miedo existe. «Cuando convocamos públicamente la primera reunión para organizar la compañía, la gente de los

⁴⁸⁸ “Relación de las cantineras que tomarán parte en el Alarde de 1998”, *El Diario Vasco*, 1998/08/05, 15; “Alardean emakumeen parte hartzea bermatzeko eskatu diote Hondarribiko Udalari”, *Egunkaria*, 1998/08/06, 9; Maialen Mariscal, “Instan al Ayuntamiento de Hondarribia a crear un Alarde con mujeres”, *El Mundo*, 1998/08/06, 4; “El colectivo Juana Mugarrietakoa solicita que se organice un Alarde con mujeres”, *El Diario Vasco*, 1998/08/07, 17; Ainhoa Oiartzabal, “Hondarribiko konpainia mistoak Alardean izango dela dio”, *Egunkaria*, 1998/08/13, 11; “Las mujeres participarán, en el Alarde de Hondarribia”, *Euskadi Información*, 1998/08/13, 4; “La compañía Jaizkibel anuncia su intención de tomar parte en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1998/08/14, 17.

betikos nos estaba esperando en la puerta de la casa Zuloaga y nos hizo pasillo para entrar –relatan los miembros de Jaizkibel-. Mucha gente joven que se acercaba a la reunión se dio la vuelta porque se encontraron con unas cien mujeres.”⁴⁸⁹

Berriro ere mahaigaineratzen da emakume batzuek hartu zuten jarrera eta emakumeak Alardean ateratzearen kontra egin zuten hautua. Jaizkibeleko bileraren sarreran jendea ez sartzeko edo beldurtzeko asmoarekin ehun emakume inguru bertaratu ziren. Emakume horiek gizonez osaturiko Alardea eta horrek babesten zuen genero ordena defendatu zuten; izan ere, horrek zentzu askotan segurtasuna eta egonkortasuna ematen zien, eta horren alde lerrotu ziren.

Lasaitasunezko giro bat zegoela azaltzen du, baina ez zekitela horrela jarraituko ote zuen edo ekaitzaren aurreko barea zen. Bestetik, adierazi zuen Jaizkibel konpainia antolatzeke lehen bilera publikoan emakumeak Alardean ateratzearen kontrako emakumeak azaldu zirela eta horrek jende asko sartzea ekidin zuela. Ekintza horien helburua, beraz, Alardean emakume soldaduak ateratzearen aldekoak desmobilizatzea eta desaktibatzea zen, beldurra erabiliz. Hondarribian, Irunen ez bezala, herri-komunitatetik kanporatutakoek ez zuten Alarde parekide ofiziala antolatzeke aukerarik izan. *Abjektuaren* esparrutik herri-komunitatera sartzeko ahalegina egin zuten 1998an, Jaizkibel konpainia bidez Alardean parte hartzen saiatuz. Herri-komunitatetik kanporatu ondoren, *besteari* esanahi asko ezarri eta markatu zizkioten, eta horrek komunitate bat sortzea eragin zuen, kanpotik ezarritako estigmatizazioaren pisu guztiarekin, baina baita barrutik autodefentsa terminoetan eraikiz ere, horien arteko harreman dialektiko baten baitan. Nire hipotesiaren arabera, Jaizkibel konpainia Alardean eta kalean egotea galarazteak, emakumeak Alardean ateratzearen aldeko komunitatea eraikitzeke orduan, kanpo eragina pisutsuagoa izan zen, eta ezin izan zioten Alarde tradizionalak eraikitzen zuen herri proiektuari beste bat kontrajarri, Irunen gertatzen ari zen bezala.

Testuinguru horretan, Juana Mugarrietakoa kolektiboak zabaldu zuen AF Nafarroan erregistratzen saiatzen ari zirela, 1998ko otsailean EAEn ukatu ondoren, berdintasun eskubidea urratzeagatik eta “Hondarribitar guztion kultur ondarearen zati garrantzitsu bat” pribatizatzeagatik. AFk adierazi zuen maiatzaren 6an lortu zuela Nafarroan erregistratzea, eta, beraz, 1998ko Alardea antolatzeke berme legalak zituela. Fundazioa

⁴⁸⁹ “Jaizkibel, un alarde de valentía”, *Euskadi Información*, 1998/08/18, 3.

Alardeko agintariek eta beste hamar pertsonak osatu zuten, eta ohorezko presidentea Guadalupeko Ama Birjina izendatu zuten. Bide berean, alkateak, PSE-EE, EAJ eta EAren babesarekin, Alardeko agintariak errekonozitu zituen Alardearen antolatzaile, eta, beraz, Juana Mugarrietakoa kolektiboaren proposamena atzera bota zuten. Bestetik, udaleko programan Alardearekin zerikusia zuten ekitaldiak ez azaltzeak ez zuela inongo transzendentzia juridikorik azaldu zuen, eta gehitu zuen AFk udalbatzari urtero bezala Alardearen atzetik desfilatzera eginiko gonbidapena onartu zutela. Horren aurrean, Jaizkibel konpainiak Alardean parte hartzeko eskaeren erantzunik ez zuenez, isiltasun administratiboa baiezkoko gisa kontsideratu zutela adierazi zuen, eta aurreko urtean ez bezala, 1998an Alardean desfilatzen saiatuko zirela. Hau da, 1997an Alardeko Juntak irailaren 8an desfilatzeko baimena ukatzen bazien, buelta emango zutela adostu zuten. Urte horretan isiltasunak baimena eman ziela uste zutenez, ez zutela buelta emango komunikatu zuten.⁴⁹⁰ Jauregi alkatearen egoera garbi azaltzen da berri honetan:

“Oraingoz kostaldeko herri horretan lasaitasuna dagoen arren, Jauregik onartu du jendea «kezkatuta» dagoela, «beste horiek agertzen badira zer pasatuko den zain». Hala ere, Jauregik ziurtatu du ez dagoela kezkatuta egoteko arrazoirik: «Badakigu gurekin daudela justizia eta eskubide guztiak, eta, horregatik, lasai gaude.»⁴⁹¹

Lehenik eta behin, Jaizkibel konpainia “beste horiek” bezala izendatzeak, eta gainera herriko alkatearen hitzak izanda, guztiz berrestu eta babesten zuen herriko komunitatetik kanporatzearen praktika. Kezkatuta ez zegoela adierazi zuen, justizia eta eskubide guztiak haien alde zeudelako, eta ez zituen kontuan hartu gerta zitezkeen istiluak. Adierazpen horiek arduragabeak zirela esan genezake, nahiz eta alkateak arduragabekeria Jaizkibeleko kideei egotzi, baimenik gabe Alardean sartu nahi izategatik. Alarde eguna gerturatu ahala, alkateak adierazi zuen jada ez zela Alardeko Juntako kide eta udalak ez zuela urte horretako Alardea finantzatzeko, ez eta

⁴⁹⁰ Ramón Sánchez, “La «Fundación del Aralde» de Hondarribia intenta su legalización por las leyes navarras”, *Deia*, 1998/08/21, 24; Arantxa Iraola, “Hondarribiko Betiko Alardearen Aldekoek fundazio bat eratu zute”, *Egunkaria*, 1998/08/21, 7; “Denuncian la maniobra legal de Aralde Fundazioa”, *Euskadi Información*, 1998/08/21, 4; “Jaurlaritzak ez du legezatu Aralde Fundazioa, berdintasun printzipioa «hausteagatik» eta gizarte talde bat «diskriminatzeagatik»”, *Egunkaria*, 1998/08/25, 10; “Aralde Fundazioa efectuará la ofrenda del acta de constitución a la virgen”, *El Diario Vasco*, 1998/08/29, 17; “El Ayuntamiento de Hondarribia reconoce a Aralde Fundazioa como organizador del desfile”, *El Diario Vasco*, 1998/09/03, 7; “El Ayuntamiento reconoce a los Mandos como los organizadores del Aralde”, *El Diario Vasco*, 1998/09/03, 16; Gobierno de Navarra/ Nafarroako Gobernua, “Resolución 1102/1998”, 1998/09/04.

⁴⁹¹ Iñaki Petxarroman, “Jaizkibel konpainiak Alardean parte hartuko duela berretsi du”, *Egunkaria*, 1998/09/03, 11.

burgomaisua aukeratuko. Irailaren 7an alkateak burgoimasuari herriko aginte makila ekitaldi garrantzitsu baten baitan ematen zion, eta hori ere moldatu zen. 1998an, AFk herriko aginte-makilaren kopia bat emango zion burgomaisuari. Guzti horren helburua EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak erabili zituen argumentuak baliogabe uztea zen, Alardea udalaren esku ez zegoela frogatzeko. Baina horrek, ezinbestean, ageriko aldaketa batzuk ekarri zituen, nahiz eta aldaketa horiek norma eta ordena soziala zalantzan ez jarri eta horregatik izan posible eta erraz. Privatizazioaren praktika, gainera, justuki 90eko hamarkadan neoliberalismoarekin normalizatu zen praktika orokortua izan zen arlo sozial eta kulturean.⁴⁹²

Jaizkibel konpainia 1998ko irailean atera zen lehen aldiz beste konpainiak bezala kaleetatik entseatzera, baina emakumez osaturiko murru batekin eta bi pankartarekin egin zuen topo, eta Hondarribiko Emakumeak kolektiboak honela arrazoitu zuen:

“(…) señaló que su propósito «no era boicotear a la compañía Jaizkibel su ensayo, sino evitar que se mezclara con las compañías que van a participar en el Alarde. Nuestra intención no va a ser nunca la de agredir a nadie, sino la de evitar que se mezcle con las compañías del Alarde», concluyó.”⁴⁹³

Emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoek zioten ez zutela nahi Jaizkibel haien Alardearekin nahastea, jakitun baitziren haien Alardea herriaren Alardea zela. Esaten ari ziren ez zutela arazorik Jaizkibel eta emakumeen kontra, haien espazio eta denbora okupatzen ez bazuten. Momentu horietan, Jaizkibel konpainia herritik desfilatzen saiatzen ari zela eta parean murru batek geldiarazten zuela, tentsio uneak bizitzen ziren, Jaizkibeleko kideen kontrako irainak etengabeak zirelarik, irain pertsonalak barne. Ertzaintzak Jaizkibelen kontrakoak disolbatzen ez zituela ikusirik, irailaren 3an atzera egin behar izan zuten.⁴⁹⁴ Egun horretakoa, ordea, errepikatzen joan zen, eta ohikoak bihurtu ziren egoera horiek honela oititzen ditu Mariak:

“Porque al principio teníamos un Ertzaina, cada uno de dos metros. Entonces tenían que venir a defendernos, pero no es que quisieran venir a defendernos.

⁴⁹² Ainhoa Castells, “El Ayuntamiento de Hondarribia reitera su desvinculación de la organización del Alarde”, 1998/09/03, 3; “El alcalde trata de irresponsable a la compañía mixta Jaizkibel”, *El Diario Vasco*, 1998/09/04, 12.

⁴⁹³ “Jaizkibel konpainiak Hondarribiko kaleetan egin ditu entseguak”, *Egunkaria*, 1998/09/04, 13.

⁴⁹⁴ Ainhoa Oiartzabal, “Joana Mugarrietakoa: «Alkateak, Alardea privatizatu, ardura saihestu nahi du», *Egunkaria*, 1998/09/05, 9.

Porque nos metían la porra por aquí o ibas tocando y te decía «cómeme la polla». Y entonces cuando pasamos, cuando venía toda esa masa a insultarnos: «¡ellas os matan! ¡Ellas os matan!» Y era todo el rato. Pero en ese momento ¡ostia!, dices: «¡joe!... caro, entre Ertzainas éramos todas etarras de HB, queríamos romper el Alarde». O sea, nadie se planteó que ahí se movía la indignación. Queríamos romper, porque «siempre hemos querido romper el Alarde, los de HB siempre han querido romper, son etarras, asesinas». Luego, españolas porque acatábamos la Constitución. Bueno, luego, putas, zorras, lesbianas... los insultos clave, clave, clave. Bigotudas. (...) Luego, había días que sabían cosas personales de las personas: «¡Tú! ¡Que tu marido no se qué! ¡Tú, que le debes no se qué, no se cuan! Tú que tu...» y una vez a Rosario, le dice Cristina: «Rosario, que te dicen a ti» «¡Ah! no sé, estoy sorda». Ahora nos reímos, nos hemos reído mucho, pero luego nos hemos reído mogollón, menos mal.»⁴⁹⁵

Emakumeak Alardean ateratzearen aldeko komunitatea termino horietan ere eraiki zen, barruko pertzepzio, adostasun eta oinarriekin lehiatuz eta elkar eraginez. Hala ere, esan beharra dago kanpotik ezarritako estigmatizazio eta esanahiek asko baldintzatu zutela, eta horren kontra egiteko tresna gutxi zituzten. Behin eta berriro errepikatzen baitziren, eta azkar zabaldu. Horrez gain, komunitate *abjatuarekiko* harreman eta zubi guztiak apurtzeko ahalegina eginez, isolatuta utziz, barneko informazio eta diskurtsoak zabaltzen oso zail izan zuten.

Ertzaina Jaizkibeleko kideak babestera joaten zen, baina testigantza askotan azaltzen da kontrakoa zirudiela eta borrak erabiltzen zituztela molestatzeko. Euskal gatazkaren testuinguruan, Jaizkibelen kontrakoek ertzainei oihukatzen zieten Jaizkibeleko kideek Ertzainak hiltzen zituztela, hau da, ETako kideak zirela. Gehiago edo gutxiago sinetsi ahal zieten, baina ikusi dugun bezala, egia da hori etengabe errepikatuz adjektibo horiek –“etarra” edo “HBra”– pegatu zitzaizkiela. Gainera, Jaizkibelekoek buelta eman behar izaten zutenean, kontrakoek ertzainak txalotzen zituzten. Horrez gain “españolas” edo “constitucionalistas” deitzen zieten, irain gisa, konstituziora eta epaitegietara jotzeagatik.

⁴⁹⁵ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

Irain horiek kontrajarriak ziren, HBk eta ETAk espainiar Estatua eta konstituzioa zituztelako etsai, beste gauza batzuen artean. Irainek ez zuten zertan zentzua izan, pertsona desberdinek oihukatu ahal zituzten, eta bakoitzarentzat iraingarriena izan zitekeena erabiltzen zuten, hain zuzen. Argi dagoena da iraingarri kontsideratzen ez zen terminorik ez zutela oihukatzen, eta horregatik, irainak aztertzeak batez ere igortzen zuten pertsonaren edo kolektiboaren informazioa ematen digu. Kolektiboa diot; izan ere, irain bat behin eta berriz errepikatuz gero, suposatzen da kolektiboak onartzen zuela termino horren erabilera. Hau da, talde, komunitate edo kolektibo batek aurrera eramandako ekintza batean, pertsona batek irain gisa hitz bat erabiliz gero eta ingurukoak ados ez baleude, seguruenik ez lukete hitz hori erabiltzen jarraituko. Beraz, nahiz eta pertsona ezberdinek “etarras” eta “españolas” oihukatu, kolektiboak onartzen zituen, behin eta berriz errepikatzen zirelako, eta horrek politikan non kokatzen zirenen berri ematen digu. Hau da, euren burua espainoltzat zutenek edota espainiar nazioa errespetatzen zutenek ez zuten “español” hitza irain gisa erabiliko. Era berean, Ezker Abertzaleko eta herri mugimenduetako jendeak ere ez luke “etarras” terminoa erabiliko. Zeintzuk geratzen ziren hor erdian? EAJ eta EA alderdi politikoek ordezkatzeko zuten espektra edo euskal nazionalismoan zentro eta eskuinak. Horrela bada, guztiz kointziditzen zuten Hondarribiko Udalean gizonez osaturiko Alardearen alde egin zuten alderdi politikoekin. Hau da, esan dezakegu kalean Jaizkibelen kontra egiten zutenek bat egiten zutela EAJ eta EAekin. Horrekin ez dut esan nahi guztiak ideologia berdinekoak zirenik eta homogeneoa zenik komunitatea, baina bai hegemonia bat zegoela, eta are gehiago gatazka baten erdian komunitateak homogeneizatzen eta barne diferentziak eta disidentziak gutxitzera jo zuenean.⁴⁹⁶

Bestetik, Hondarribiko Emakumeak kolektiboaren komunikatuan, Jaizkibelen aldeko gizon batek honako hau esan zuela zioten: “¿Es que no tenéis cosas que limpiar en casa?” Adibide hori baliagarri zaigu azaltzeko nola emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek ere genero ordenan eta sexu-genero sistema bitarrean oinarritutako jarrera edo pentsamenduak izan zitzaizketela. Hasieran azaldu dut nola 1996an Alardean atera nahi zuten emakumeei logikoa eta posiblea iruditzen zitzaie Alardean ateratzea eta hori zentzu handian mugimendu feministaren ideiei esker izan zela. 1998an emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek arrazoi desberdinak izan zitzaizketela ere azaldu dut, eta

⁴⁹⁶ Ainhoa Oiartzabal, “Joana Mugarrietakoa: «Alkateak, Alardea pribatizatua...»; Ainhoa Castells, “Aumenta la tensión en Hondarribia a 3 días del Alarde”, *El Mundo*, 1998/09/05, 6; “Apoyo a la mujer en el Alarde”, *Euskadi Información*, 1998/09/05, 4.

nahiz eta mugimendu feministaren ideiak barneratuta izan, ezin ditugu pertsona horiek sexu-genero sistema bitar eta erregimen heterosexualetik kanpo kokatu, gizarte horretan bizi baitziren.⁴⁹⁷ Irailean, Hondarribiko Emakumeak kolektiboak Guadalupe aldizkariaren bigarren alea kaleratu zuen. Bertan, lehen alean bezala, haien irudiari kontra egin zioten, oraingoan kazetariak jarritako estigmari:

“El honor de un pueblo, el pueblo “BOTARATE”... ¿a quién le importa lo que opinen?... no son más que una masa IGNORANTE; ALDEANOS que gustan de exhibir a sus mujeres como “PROSTITUTAS” públicamente, mientras en privado las mantienen amarradas a la pata de la cama, sin derecho a queja. Y, esas mujeres, ENVIDIOSAS de la libertad ajena, que son INDIGNAS de aspirar a cualquier tipo de consideración, esclavas NEGRAS acostumbradas a besar la mano que les pega, aptas solo para las faenas domésticas e incapaces de comprender sus propios derechos. ANALFABETAS adoradoras del MACHISMO y capaces de llevar su doctrina a las últimas consecuencias.”⁴⁹⁸

Hondarribiko Emakumeak kolektiboak haien inguruan zegoen irudia hau zela pentsatzen zuen: landa eremuko ezjakinak, atzerakoiak, kantinerak, prostitutak, eta aldi berean, gizonen emakumeak etxean preso zituztela, analfabetoak, matxistak eta agentzia eta erabakimen ahalmenik gabeak. BAE eta Alardean atera nahi zuten emakumeek gizonetako Alardeak emakumeen eskubideak urratzen zituela aldarrikatu zuten, eta horri kritika egin, emakume eta gizonen arteko dominazio eta desberdintasunak azaltzen saiatuz. Hondarribiko Emakumeak kolektiboak, ordea, horrela interpretatu zuen analisisa, eta emakumeen eskubide gisa aldarrikatzen ari zirenak haiei, emakume izanda, ez zituela ordezkatzeko, are gehiago guztiz kontra zeudela erakutsi zuten, subjektu feminista eraikitzeke errepikatzen ziren zailtasunak agerian geratuz. Historian zehar zapalduak edota menderatuak horien askapenerako diskurtso eta borrokekin bat egin ez zuten fenomeno berbera dugu.

Horren aurrean, honelako esaldien bitartez egiten zieten aurre Alardean atera nahi zuten emakumeei: “Si eres o vas a ser escopetera, recuerda que ejercer como tal, es lo peor que puedes hacer por tu pueblo.”⁴⁹⁹ Juana Mugarrietakoa izena emakumeak Alardean

⁴⁹⁷ “Hondarribiko Emakumeak frena los ensayos de Jaizkibel”, *El Diario Vasco*, 1998/09/06, 24.

⁴⁹⁸ Hondarribiko Emakumeak, *Guadalupe*, 1998ko iraila, 5.

⁴⁹⁹ *Ibidem*, 8.

ateratzearen aldeko kolektiboak erabili zuen, eta aldizkari honetan beste interpretazio bat eman zitzaion emakume horren historiari:

“Juana de Mugarrieta, mujer valerosa que supiste ayudar a tu pueblo cuando más lo necesitaba, serora de Guadalupe, cumpliste con tu responsabilidad y tu obligación no empuñaste ningún arma, no prendiste ningún cañón, no te disfrazaste de soldado, porque muchas maneras hay de ayudar y participar, todas igual de notables, lo importante es que defendiste tu libertad, tus creencias, tu fé, tus tradiciones, tu casa. Las mujeres hondarribitarras te reconocerán y admirarán como lo que fuiste, no como algunos quisieran que hubieses sido.”⁵⁰⁰

Berriro ere, historiaren bi erabilera ezberdin ikusi ditzakegu, orainaldiko interes batzuen mesedetan. Jadanik azaldu dugun bezala, Hondarribiko Alardean atera nahi zuten emakumeek kolektibo bat sortu eta Juana Mugarrietakoa izena jarri zioten, Hondarribiko historiako emakume bati erreferentzia egiteko, bere eginkizuna balioan jartzeko eta tradizioek behar duten iragana gogora ekartzeko, besteak beste. Izen hori jarrita, Hondarribian maitatua eta errekonozitua zen emakume baten ondorengoak zirela esaten ari ziren, eta horrek, 90eko hamarkadan Alardean ateratzearen nahia babestu zezakeen. Hondarribiko Emakumeak kolektiboak, berriz, emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoak, Juana Mugarrietakoak egin zuenaren inguruan iritzi eta epai bat eman zuen: ez zituela armak hartu, ez kanoirik piztu eta ez zela soldaduz mozorrotu eta hori zela bere ardura eta betebeharra. Horrela, 90eko hamarkadako Alardean emakumeak ateratzeko arrazoirik ez zegoela adierazten ari zen, eta gainera, soldaduz mozorrotzen ez ziren emakumeek jaso zutela Juana Mugarrietakoaren legatua. Kasu horrek erakusten digu gertaera edo pertsonaia historiko bat nola erabili daitekeen orainaldian, proiektu edo konfliktu batean aurrez aurre dauden bi aldeak justifikatu edota indartzeko.⁵⁰¹

Juana Mugarrietakoaren inguruan egin ziren bi interpretazioak eta figura horren erabilera baliagarriak zaizkigu Alardeko gatazkan talkan zeuden bi genero kontzepzio azaltzeko. Hondarribiko Emakumeak kolektiboak adierazi zuen Juana Mugarrietakoak eginkizun konkretu bat zuela emakume izateagatik eta hori betetzeagatik miresten zutela, eta aldarrikatu zuen emakumeek bizitzan toki eta eginkizun bat zutela,

⁵⁰⁰ Ibidem, 11.

⁵⁰¹ David Lowenthal, *El pasado...*

kontzepzio esentzialista bat adieraziz. Juana Mugarrietakoa kolektiboak, ordea, XVII. mendeko setioan emakume batzuek soldaduz jantzi eta armak hartzeko izan zuten adorea goraipatu zuen hasierako momentuan, gerora emakumeak Alardean ateratzearen aldeko argumentuak historian bilatu ordez, orainaldia erabiliz. Hala ere, emakumeek historian zehar inposatu zitzairen tokia eta dominazioari aurre egitea hartu zuten eredu, eta 90eko hamarkadako gatazkan ere hori egiten ari zirela uste zuten, zapalkuntzaren kontrako borrokaren hariaren ondorengoak izanik.

El Diario Vasco egunkariak Hondarribiko alkateari egindako elkarrizketa publikatu zuen Alarde eguna baino egun bat lehenago, eta berriro ere adierazi zuen Alardea herriak nahi zuen bezalakoa izango zela eta Alardeko agintarien bidez gehiengoak nahi zuen moduan egingo zela. Jaizkibel konpainiari eta gizonez osatutako Alardearen aldeko erreferentzia eginez, azken egunetako tentsioaren inguruan honako hau esan zuen:

“Para quienes, mujeres y hombres, quieren celebrar el Alarde como es, serenidad, absoluto control de sus actos y máximo respeto a las instrucciones de los Mandos del Alarde que asumen una gran responsabilidad. Para quienes quieren modificarlo que sean conscientes y valoren correctamente la voluntad y sentir de la gran mayoría del pueblo, evitando actos irresponsables que puedan resultar provocadores.”⁵⁰²

Alde batetik, emakumeak Alardean ateratzearen kontra zeudenei lasaitasunez jarduteko eta Alardeko agintarien aginduak jarraitzeko eskatzen zien. Jaizkibeleko kideei eskatzen zien arduragabeak ziren eta probokatzailleak izan zitezkeen ekintzak herriaren gehiengoaren nahiaren arabera baloratzeko, zentzu batean gertatu zitezkeenaren ardura haiengan jarriz. Testuinguru horretan iritsi zen 1998ko Hondarribiko Alarde eguna.

Imajinario kolektiboan “baratzeetako urtea” izenez ezagutzen da 1998koa. Izan ere, Gernikako Arbolara iristeko, hau da, Hondarribiko Alardea hasten den tokira iristeko, emakumez osaturiko tapoiak gainditu behar izan zituzten, eta horretarako, bidetik joan beharrean baratzeetatik sartu ziren, haien kontra zeudenak distraitzeko eta aurreratzeko. Gernikako Arbolatik gertu zeudela, tapoi batekin topo egin zuten, baina Jaizkibelen jarraitzaileen babesarekin lortu zuten aurrera egin eta bertara sartzea, bultzada eta

⁵⁰² Xabier Galarza, “«El Alarde es del pueblo de Hondarribia y será lo que su mayoría quiera»”, *El Diario Vasco*, 1998/09/07, 6-7.

ostikada artean. Kontra zeudenek “el ocho de septiembre no desfilaréis”, “Alardea gurea”, “Alardeko emakumeak, kantinerak” eta “españoles” oihukatu zieten, besteak beste. Jaizkibelen aldekoek, berriz, “emakumeak Alardera” oihuekin erantzun zuten. Gernikako Arbolan zeudenean, ordea, Ertzaintzak inguratu eta geldiarazi zituen Jaizkibeletako kideak, eta behin Alardea hasi eta konpainia guztiak desfilatu zutenean, Jaizkibeletako sartzeko ahalegina gelditu zuen. Ez zuten bertatik alde egitea beste aukerarik izan, Ertzaintzaren argudioak “ordena publikoa gorde, konpainiakoak babestu eta kalte okerragoak eragoztearren” izan ziren bitartean.⁵⁰³

“Ahora ya se sabe, pero un año por las huertas, para mí esa fue fantástica, esa fue para mí la mejor. Luego fue una historia la vuelta, entrar al Árbol de Gernika. Pero sí, y luego nos íbamos a comer a Oyarzun, ¿a dónde íbamos a comer? (...) fue el de las huertas que hicimos y ahí se pusieron. Yo estuve a punto de (...) porque yo sufro de pánico, la gente me da, y no sé cómo me dieron un empujón y pasé al otro lado, fue como, en Gernikako Arbola. Dicen que les dimos, nuestra gente para abrir paso. Caro, lo mismo que ellas están ahí para que no pases, te ponen la zancadilla, tu pones el codo porque quieres pasar y luego sálvese quien pueda. Pero si te pones a denunciar, todos hemos estado denunciados, una cosa y la otra, aquello era una guerra, yo quiero pasar y tu no me dejas.”⁵⁰⁴

Maite Iraolaren testigantzak dio fantastikoa izan zela; izan ere, gizonez osaturiko Alardearen aldekoak engainatzea eta Alardea hasten zen tokira iristea lortu zuten, aurretik lortu ez zutena. Horrez gain, gaizki pasa zuela ere azaltzen du, bultzada batez beste aldera pasa zela, hau da, babes lerrotik edo ertzainen lerrotik beste aldera. Gerra baten erdian etsaiaren aldean zegoenaren sentsazioa izan zuen, zeren eta tentsio handiko eta indarkeria fisiko nabariko testuingurua zen. Ongi adierazten du guztiaren muina: Jaizkibeletako Alardean sartu nahi zuen, baina kontrakoek justu kontrakoa nahi zuten, ez Jaizkibel ez emakumerik ez sartzea Alardean. Aurrez aurreko talka zen, beraz, eta nahiz eta urte osoan zehar gauzatu, Alarde egunean era gordinenean azaltzen zen.

⁵⁰³ “Hondarribia vivió un Alarde tenso”, *Deia*, 1998/09/09, 12-13; “Alarde festivo”, *El Diario Vasco*, 1998/09/09, 5-8 (Dverano); Jone Larrañaga, “Betikoek eta Ertzainek eragotzi egin diote Jaizkibel konpainiari Alardean irtetea”, *Egunkaria*, 1998/09/09, 9; A. Castells, “Las mujeres de Hondarribia no lograron desfilar entre insultos, forcejeos y golpes de los tradicionalistas”, *El Mundo*, 1998/09/09, 3; Maribel Marín, “La Ertzaintza impide desfilar a las mujeres en el Alarde de Hondarribia”, *El País*, 1998/09/09, 29; “Tapones humanos contra la igualdad”, *Euskadi Información*, 1998/09/09, 4.

⁵⁰⁴ Maite Iraolari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/18 (pasarte bat).

Goizean Jaizkibel konpainiak atzera egin ostean Guadalupera igo ziren. Izan ere, goizeko Alardea ondoren, meza izaten zen eta bertan ere desfilatzen zuen Alardeak. Beste behin ere, Ertzaintzak galarazi zien Guadalupera iristea. Autobusetik jaitzarazi, eta ondoren, oinez abiatu ostean, polizia-lerro baten bitartez geldiarazi zituzten. Hori dela eta, Juana Mugarrietakoa kolektiboak Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren kontra ekintza legalak burutuko zituela adierazi zuen, oinarrizko eskubideak, hau da, emakumeek Alardean desfilatzea, ekiditeagatik:

“A juicio del colectivo feminista, se ha dado una «connivencia política clara entre el Ayuntamiento, cuyo alcalde es del Partido Nacionalista Vasco, y el Departamento de Interior, también del Partido Nacionalista Vasco» para evitar que las mujeres pudieran desfilan como soldados. María Luisa Agirretxe, una de las portavoces de Juana Mugarrietakoa, consideró que la Policía autonómica trató a las integrantes de Jaizkibel «como provocadoras de desorden público, cuando quienes los están provocando son quienes se oponen al ejercicio de los derechos fundamentales» (...).”⁵⁰⁵

Horrez gain, *El Mundo* egunkariak salatu zuen kazetari eta argazkilariei eraso egin zieten Jaizkibelen kontrakoek. Tartean *El Mundoko* bi zeuden, eta hau kontatu zuen horietako batek:

“Alguien tira fuertemente de mí hacia atrás, alguien comienza a gritar con la fuerza de la histeria «periodistas, hijos de puta». Un grupo vociferante –mujeres, hombre, niños- me rodea y comienza a darme patadas, empujones, a escupirme con saña: tiran fuerte de las cámaras, intentan arrancármelas, me piden los carretes: «Cabrón, hijo de puta, manipulador, a lo único que venís es a joder las cosas». Uno de los desafiantes me encañona: «Te vas a comer el cañón de la escopeta», me dice, y noto en sus ojos una rabia que no consigo entender.”⁵⁰⁶

Kazetari eta komunikabideen lana konfliktoaren hasieratik zaila izan zen. Besteak beste, 1996ko Hondarribiko Alardean grabatzen ari zen kameragile bati kamara apurtu zioten, eta beste urteren batean ETBk Kale Nagusian jartzen zuen dorre bat botatzen saiatu ziren emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoak. Hori guztia kontuan hartuta, eta

⁵⁰⁵ A. Castells, “Las mujeres de Hondarribia no lograron desfilan entre insultos, forcejeos y golpes de los tradicionalistas”, *El Mundo*, 1998/09/09, 3.

⁵⁰⁶ Iñaki Andrés, “«Te vas a comer el cañón de la escopeta»”, *El Mundo*, 1998/09/09, 4.

1998ko Hondarribiko Alardean gertatu zenarekin, harrigarria da *El Diario Vascoren* irailaren 9ko azala: “Hondarribia fue una fiesta”.⁵⁰⁷ Beste egunkarietako azaletan, *Egunkaria*, *El Mundo*, *El País* eta *Euskadi Información* egunkarietakoetan, batez ere, Jaizkibekek ezin desfilatzeari eta istiluei egin zieten erreferentzia. *Deiako* portada tartean geratzen zen: “Hondarribia celebró su Alarde pese a la tensión”.⁵⁰⁸ *El Diario Vascorenak*, ordea, 1998ko apirilean antolatutako boikot batekin zerikusia izan zezakeen; izan ere, emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoek Hondarribian bi egunetako boikot bat antolatu zuten *El Diario Vascoren* kontra, apirilaren 25ean, larunbata, eta apirilaren 26an, igandea. Honako hau zioen zabaldutako paskinak:

“Por el Alarde tradicional. Boicot. Diario Vasco. 25 y 26 de abril. Por la manipulación intencionada que este periódico está haciendo de las noticias sobre nuestros Alardes. Por el desprestigio que ha propagado de nuestra comarca, sus gentes y de nuestras tradiciones. Defiendete de sus agresiones.”⁵⁰⁹

Horrek eragin zezakeen 1998ko irailaren 9ko azalean gertatutako istiluei erreferentzia gutxi edo garrantzia kentzeko ahalegina egitea, gizonez osatutako Alardearen aldekoen men egite aldera.

Maite Iraolaren testigantzak adierazten digun bezala, ez ziren herrira jaiak ospatzera jaitsi, Oiartzunen bazkaldu baitzuten. Ikusi dugu, Hondarribiko Alardeko gatazkaren lehen bi urteetan, Alarde egunean soldaduz ateratzen saiatu ziren emakume batzuk zentrorra joan zirela jaiak ospatzera, baina ez zieten utzi, inguratu eta jazarri ostean alde egin behar izan baitzuten. 1998an jada ez ziren saiatu, aurreko urteetan gertatutakoarekin eta urtean zehar jasandakoarekin espazio hori utzi behar izan zuten. Herritik kanporatu zituzten. Urte hartan gertatutakoak hurrengoetarako aurrekariak ezarri zituen, bai Irunen eta bai Hondarribian. Irunen Alarde ofizial oso bat egitea lortu zuten, alkatearen jarrerak eta Irungo biztanle kopuruak lagunduta. Izan ere, alkateak ez zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurka errekurtsorik aurkeztu, eta 60.000 biztanle inguru izateak aukera gehiago ematen zituen Alarde misto baterako jendea izateko. Baina horrek bakarrik ez zituen baldintzatzen Hondarribi eta Irunen arteko desberdintasunak. Irun migrazio handiko hiria zen, fabrikek langile klase identitate bat sortu zuten, eta ondorioz, ezkertiar mugimendu edo pentsamendu

⁵⁰⁷ “Hondarribia fue una fiestas”, *El Diario Vasco*, 1998/09/09, 1.

⁵⁰⁸ “Hondarribia celebró su Alarde pese a la tensión”, *Deia*, 1998/09/09, 1.

⁵⁰⁹ “Boicot”, 1998/04/XX.

handiagoa zegoen. Hondarribian, ostera, alkateak epaiaren kontra errekurtoa jarri zuen, eta jende gutxiago zegoen Alarde oso bat egitea lortzeko. Horrez gain, Hondarribi herri bat zen, eta nahiz eta 15.000 biztanle inguru izan, herri dinamikak askoz barneratuago zeuden. Herri dinamika horiek, ikusi ditugun bezala, botere paralelo faktikoek indar handiagoa eta udalaren onespena izatea ahalbidetzen zuten, herriaren espazioaren kontrola haiek izanez. Horregatik, Oiartzunera joan behar izan ziren 1998ko irailaren 8an. Irunen, aldiz, handiagoa izanik eta beste dinamika batzuk edukiz, jazarpen hori nabarmena zen, baina ez zen hain eraginkorra eta zabala, eta askatasun espazio handiagoak existitu ziren.

Hondarribian, beraz, 1998an Alarde bakarra egon zen, eta esan genezake baita herri bakarra ere. Hau da, emakumeak Alardean ateratzearen aldekoak herri-komunitatetik eta herri fisikotik kanporatu zituzten, *abjektuaren* esparrura. Gorputz eta komunitate *abjektu* horri definizio eta esanahi ugari, askotan kontrajarriak, ezarri zitzaizkion, eta autodefentsa logika batzuetan bertara kanporatu zituztenak elkartu eta babestu ziren. Ez zuten, ordea, Alardean desfilatzea lortzerik izan, kalean egotea ukatu baitzieten, eta, ondorioz, ez zieten herri-komunitatearen parte izaten utzi, ezta Irunen bezala, beste herri baten proiektua aurrera eramaten, existentzia soila ukatu zitelako. Horrek, Jaizkibelen inguruan sortu zen komunitate *abjektuaren* definizioa batez ere kanpotik ezarritakoa izatea eragin zuen, eta desfilatzea eragotzi zieten, ez zuten lortu beste irudi eta esanahi propio bat kontrajartzea.

Hondarribian herri-komunitatea gizonezko Alardearen inguruan artikulatu zen, eta emakumeak Alardean ateratzearen aldekoak *kanpotarrak* bihurtu ziren. Beraz, herri bakar bat eraikitzen jarraitu zen. Hala ere, horrek ez du esan nahi herri hori neutroa zenik, baizik eta, ikusi dugun bezala, genero, klase eta nazio kontzepzio eta ardatzen inguruan antolatu zela modu konkretu batean.

4. Kapitulum. Ordena zurruntzera bidean (1999-2000)

4.1. Sarrera: arazoa oraindik hor zegoen

Apurtutako ordena berrezartzen saiatu ziren, hori zalantzan jarri zuen disidentzia herri-komunitatetik kanporatuz, indarkeria, estigmatizazio eta emozioen bitartez. Horrekin, Alardeetan emakumeak ateratzea galarazi zuten, baina oraindik ere arriskua zegoen, emakume horiek antolatzen eta borrokatzen jarraitu zutelako eta lehen epaiak horien aldekoak izan zirelako. 1999an udal hauteskundeak izan ziren, eta Alardeen gatazkak eragina izan zuen emaitzetan eta alderdi politikoen programetan. Eragin hori aztertuko dut, eta emaitzek ordena berrezartzearen aldekoen jarduna legitimatu eta babestu zutela planteatu. 2000. urteko Alardeetako gertakariak agerian utzi zituzten Bidasoaldeko herrietako ordenaren eta emakumeak Alardean ateratzearen aldeko sententzien arteko kontraesanak, eta horrekin batera indarkeriaren legitimazioak egoera zenbateraino gordindu zezakeen erakutsi zuten.

Alardeetan gatazkak izan ziren hirugarren urtea izan zen 1998koa, eta Alardean atera nahi zuten emakumeek hasieran izan zituzten aurreikuspenak erortzen hasi ziren: “genuen oso garbi como que lo íbamos a conseguir en nada, dos años o así.”⁵¹⁰ Hiru Alarde pasata, oraindik oso urruti zeuden hasierako helburutik, alegia, emakumeak Alardeetan eta edozein konpainiatan ateratzetik. Beste ikasturte bat hasi zen orduantxe, eta berriro ere, hamar hilabete gelditzen ziren 1999ko Irungo Alarde egunerako, hamar hilabete helburuetan pixka bat aurrera egiteko. Irungo Alardea baino lehen, ordea, udal hauteskundeak zeuden. Horiek eragina izan zuten gatazkan, eta gatazkak udal hauteskundeetan.

Hasteko, 1998ko Hondarribiko Alarde eguneko biharamunean, EBk, HBk eta LABk gogor kritikatu zuten Alardean Jaizkibel konpainia sartzea galarazi zituztenak, tartean herritarrak eta bereziki Ertzaintza, “modu antidemokratikoan aritu den talde baten interesak” defendatzeagatik. Horrez gain, Alarde tradizionalaren aldeko hogeit hamar emakume inguruk Jaizkibel konpainiaren kontra salaketa jarriko zutela adierazi zuten, tapoia

⁵¹⁰ Gema Sagarzazuri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egin. Elkarrizketaren eguna 2020/08/13 (pasarte bat).

gurutzatzean zauritu baitzizuten. Aldi berean, Juana Mugarrietakoa kolektiboak Ertzaintza, AF eta Hondarribiko alkatea salatuko zituela adierazi zuen.⁵¹¹

“La asociación Juana Mugarrietakoa manifestó que «el orden público que ha preservado la Ertzaintza es un orden sin libertades, sin derechos fundamentales. Es una actitud totalitaria. La actuación ha ido a reforzar el objetivo de quienes querían excluirmos.»⁵¹²

Izan ere, Alarde eguneko Ertzaintzaren jokabidea babesten zuen argudioa pertsonen segurtasuna eta ordena publikoa mantentzea zen. Juana Mugarrietakoa kolektiboak, ordea, ordena hori askatasunik eta eskubiderik gabekoa zela adierazi zuen. Hau da, gizonez osaturiko Alardeak berrezarri nahi zuen ordena. Bestetik, Alardea bukatu eta ordu batzuetara Jaizkibel konpainiako kide batzuk ospitalean artatu behar izan zituzten, Alarde tradizionalaren aldekoek kalean zeudela eraso egin eta lesioak eragin ostean. Elkarrenganako salaketa eta akusazioen artean, urtean zehar tentsio eta gatazka mantendu zen, baina jada markatuta zeuden herriko espazio eta gorputz *objektuak*. Lehenagotik ere pasa ziren momentu berdinetik, eta handik aurrera gauza berdinak etengabe errepikatuko zirenaren sententzia nagusitu zen, dena gelditu izan balitz bezala eta ez aurrera, ez atzera, inora ez zihoazela sentituz. Horrez gain, “Egiten duzun adiskide berriak, osea ghetto batean sartzen zarenean, pues jende berria ezagutzen duzu eta baloratzen duzu gauza horiek.”⁵¹³ Ghetto batean zeudenaren pertzepzioa zuten, herri-komunitatetik kanporatu zituztenak. Ghettoak hori dauka; marjinazio eta estigmatizazio baten ondorioz sortzen dira, baina, aldi berean, erresistentzia eta existentziarako beharrezko bilakatzen dira. Hondarribiko Alarde eguneko gertakariez informatzeko Juana Mugarrietakoa kolektiboak egin zuen prentsaurrekoan “nos sentimos judías en el Tercer Reich” adierazi zuten, eta, eraso egin zietenak gutxi batzuk

⁵¹¹ “Ertzainak Hondarribiko Alardean herenegun izan zuen jarrera salatu dute IUk, HBk eta LABek”, *Egunkaria*, 1998/09/10, 12; Ainhoa Castells, “Mujeres partidarias del Alarde tradicional denuncian agresiones”, *El Mundo*, 5; “IU llama «grupo de fanáticos» a quienes impidieron desfilar a las mujeres en el Alarde”, *El País*, 1998/09/10, 4; Jone Larrañaga, “EAJk emakumeen eskubideen kontra egin duela salatu du Juana Mugarrietakoak”, *Egunkaria*, 1998/09/11, 10; Maribel Marín, “Las mujeres de Hondarribia culpan al PNV de impedirles desfilar en el Alarde”, *El País*, 1998/09/11, 9.

⁵¹² “Mugarrietakoa denunciará a la Ertzaintza, a Alarde Fundazioa y al alcalde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1998/09/11, 14; “Alarde Fundazioa de Hondarribia califica el desfile de «impecable»”, *El Diario Vasco*, 1998/09/13, 20.

⁵¹³ Jon Alkain Etxeberriari eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/08 (pasarte bat).

izan baziren ere, arrisku handia zegoela, gauzatzen zuten indarkeria sexista eta xenofobo hori faxismoaren germena baitzen.⁵¹⁴

Testuinguruari dagokionean, aipatzekoa da 1998ko iraila eta urrian hainbat alderdi politiko, sindikatu eta kolektibok Lizarra-Garaziko Hitzarmena sinatu zutela, Euskal Herriko gatazkari konponbidea bilatzeko helburuarekin eta Irlandako bake akordioa erreferente izanik. EAJ, HB, EA eta EB alderdiak izan ziren inplikatu ziren alderdietako batzuk, eta gatazka politikoa zela aitortu eta negoziazio fase bat irekitzea zen proposamena. Baina gainontzeko Espainiako alderdi handienak kontra azaldu ziren. Hilabete horretan bertan ETAk su etena iragarri zuen, eta indar abertzaleen artean elkarlanerako giroa sortu zen. Horrek Bidasoaldean ere eragina izan zuen.

Hala ere, urrian, Irungo EA, zeinak bi zinegotzi zituen, udal taldetik irten zen. Jarraian, alkateak kargutik kendu zuen Maribel Castelló, kultura departamentuko arduraduna, konfiantza falta argudiatuz. Honela azaldu zuen Alberto Buenek:

“El alcalde añadía que «el último eslabón de esta cadena fue la cesión por parte de la señora Castelló de un traje de cantinera, propiedad del Ayuntamiento de Irún, a la compañía Jaizkibel para tomar parte en el Alarde de Hondarribia. Esta decisión, no consultada con los socios de Gobierno, pudo producir un conflicto institucional con un Ayuntamiento al que tantos y tan buenos lazos nos unen».”⁵¹⁵

Gauzak horrela, PSE-EE eta EAJ geratu ziren Irungo udalbatzarrean, hamabi zinegotzirekin, gehiengoa izateko hamahiru behar zituztelarik. Horrez gain, EAK zentsura mozio bat aurkezteko asmoa zuela adierazi zuen, alkatearen kontra, eta horretarako, gainontzeko alderdi politikoekin harremanetan jarriko zela. Alkateari eginiko kritika izan zen elektoralismo baldar eta merkea egitea eta Alardearen gaia botoak irabazteko erabiltzea.⁵¹⁶

Hasteko, horrek agerian uzten zuen 1996an sorturiko desordena udalaren barnera iritsi zela. Izan ere, Maribel Castelló kargutik kentzeko alkatearen argudioa konfiantza falta

⁵¹⁴ “Excluidas y agredidas”, *Euskadi Información*, 1998/09/11, 5.

⁵¹⁵ “La salida de EA del Gobierno municipal deja al PSE y al PNV como únicos socios”, *El Diario Vasco*, 1998/10/08, 20.

⁵¹⁶ María José Atienza, “EA abandona el tripartito de Irún y el alcalde cesa a la delegada de cultura”, *El Diario Vasco*, 1998/10/21; “Alberto Buen asegura que la salida de EA no ralentizará los proyectos municipales”, *El Diario Vasco*, 1998/10/09, 32; Y. M., “El PNV no apoyará una moción de censura en Irún”, *El Mundo*, 1998/10/11, 7; “IU-EB pide que se expliquen «las verdaderas razones» de la crisis del Gobierno municipal”, *El Diario Vasco*, 1998/10/14, 26.

izan zen, eta horren azken adibidea –eta eman zuen bakarra– kantinera traje bat, Buenek jakin eta bere baimenik gabe, Jaizkibel konpainiari uztea izan zen. Alkatearen kontroletik at eta udalari eragin ziezaiokeen ekintza bat egitea, gatazka testuinguru batean, arriskutsua izan zitekeen, itxuraz kantinera traje bat uztea bezalako gertakari soil bat bazen ere. Kontrara, Irungo Udaleko Alardeko materialaren zati handi bat 1997ko Alardearen ostean bueltatu ez zela salatu zuen Alarde ofizialeko Juntak, 1998ko urrian bertan, eta Buen alkatearen eta materiala hartu zutenen kontra bide legetatik joko zuela adierazi. Alardeko gatazka, beraz, materialaren eskuratzearen inguruan ere materializatu zen, eta kantinera traje baten erabilera udal gobernuan krisi bat eragitera irits zitekeen, desordena eta kontrol eza suposatu zezakeelako. Udalaren jabetzakoak ziren zalditeria eta artilleriako trajeak, erredoble eta partxeak eta zaldiz ibiltzeko materiala, aldiz, gizonez osaturiko Alardearen aldekoen eskuetan zegoen, eta horrek ez zuen udalaren barnean, agerian behintzat, ezer suposatu. 1998ko Alarde ofiziala egiteko bueltatu ez zen material guzti hori erosi behar izan zuen udalak, eta Irungo EAJk aurrekontuaren igoera salatu zuen. Horren aurrean, Alarde ofizialeko Juntak oroitarazi zien materiala bueltatu izan balitz ez zela hainbeste diru gastatuko.⁵¹⁷

Urte hartako negua ere gogorra izan zen, batez ere, emakumeak Alardean ateratzearen aldekoentzat eta horien ingurukoentzat. Oraingoan, Pasaiako fanfarre bat izan zen gutun eta panfleto anonimoen hartzaile. 1999ko otsailaren 13an, inauterien programazioaren baitan, Irungo Udalak Tirri-Tarra fanfarrea kontratatu zuen ikuskizun bat emateko. Egun bat lehenago, ordea, prentsa ohar baten bidez komunikatu zuten bertan behera uzten zutela emanaldia, mehatxuak zirela medio. Azaldu zuteneguz, egun batzuk lehenago gutun anonimo bat jason zuten, esanez Irunen ez zirela ongi etorriak izango. Izan ere, 1998ko Irungo Alarde ofizialean kontratatuak izan ziren eta bertako bandan desfilatu zuten, emakumeekin bat. Gutunean, Irunera itzultzea probokaziotzat jotzen zuten, baina hasiera batean, fanfarreko kideek ez zioten garrantzirik eman. Egun batzuk beranduago, ordea, Irungo etxe eta dendetan dokumentu anonimo bat banatu zela azaldu zuten eta horrek eragin ziela ikuskizuna bertan behera uztea, haien segurtasun fisikoa eta instrumentuena arriskuan ez jartzeko. Dokumentu anonimo horretan, istiluak iragartzen ziren, eta udala egin zuten horren erantzule, irundarren aurkako burla eta irainezko

⁵¹⁷ “La Junta del Alarde oficial insiste que se devuelva el material municipal”, *El Diario Vasco*, 1998/10/14, 26; “El Pleno debate hoy las cuentas de las fiestas de San Marcial y del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1998/10/16, 26; “IBAA acusa a BAE y a la Junta del Alarde oficial de «abuso de derecho»”, *El Diario Vasco*, 1998/10/16, 26.

jarrera gisa hartu zuelako. *Egunkariak* fanfarreari gazteleraz bidalitako gutuna euskaraz erreproduzitu zuen:

“Izan ere, aurreko sanmartzialetan Irungo hiriri eta bertako herritarrei iseka egin zenieten, eta errespetu falta erakutsi, «udal alardea» izeneko parodia hartan era ironiko eta lotsagarrian «zuen trasteekin esku hartu eta jokatu» egin zenutelako. Nor uste duzue zaretela kanpotik etorri eta guri esateko nola ospatu behar ditugun gure jaiak eta sanmartzialetako Alardea?”⁵¹⁸

Azaldu bezala, 1998an, Irunen bi Alarde egin ziren eta horrek tentsioa zentzu batean baretu zuen, nahiz eta gatazka egon ordutegi eta ibilbidearen inguruan batez ere. Alarde ofizialak, gizon eta emakumez osaturik, desfilatu ahal izateak herri egin zituen, nahiz eta Alarde tradizionalak eraikitzen zuen herriarekin kontrajarrita egon. Hondarribian, ordea, Jaizkibeli herritik desfilatzea ukatzeak eta Alarde bakar bat egoteak, herri izatea ukatu zieten. Irunen ere batzuk hori egiten saiatu ziren, gutunean azaltzen den bezala. Nahiz eta batzuek, Jose Ramón Urizek bezala, bakoitzak bere Alardea egitea onartu, beste batzuek gizon eta emakumez osaturiko edozein Alarderen existentziaren kontra egiten jarraitu zuten.⁵¹⁹

4.2. Herri hauteskundeak eta alderdi politikoek irabazitako legitimitatea

Udal hauteskundeetarako kanpaina otsailean hasi zen, eta testuinguru horretan Gipuzkoako kolektibo feministek 1999ko emakume langilearen nazioarteko egunaren manifestazioa Hondarribian konbokatu zuten, Alardeetako emakumeen parte hartzea aldarrikatzeko eta elkartasuna adierazteko. Horrekin, Bidasoaldean gertatzen ari zen gatazkan posizioa guztiz hartu eta Gipuzkoako kolektibo feministek Alardeetan ateratzeko aldarria bere egin zuten. Pankarta ugari eraman zituzten, tartean: “parte-hartzea, eskubidea”, “erein dezagun askatasuna”, edo “Borja legea bete, emakumeak Alardera”.⁵²⁰ Mariak egun horretakoak oroitzen ditu:

⁵¹⁸ Arantxa Iraola, “Tirri-Tarra mehatxatu dute, Irungo alarde mistoan agertu zelako”, *Egunkaria*, 1999/02/13, 13.

⁵¹⁹ “Una fanfarre no actuará en Irun por amenazas ligadas al Alarde”, *Gara*, 1999/02/13, 10

⁵²⁰ Arantxa Iraola, “Gipuzkoako hainbat emakume taldek Hondarribian egingo dute bat igandean”, *Egunkaria*, 1999/03/03, 14; “Las feministas de Guipúzcoa celebrarán en Hondarribia el Día de la Mujer”, *El País*, 1999/03/03, 4; ”Gipuzkoako emakumeek Hondarribian egingo dute Martxoaren 8ko ekitaldia”,

“Y seguimos, montamos cada ocho montamos una gorda. Cada ocho montamos una gorda. No violenta por nuestra parte, violenta por parte de ellos (...). Y sí... nos juntábamos, nos reuníamos y siempre preparando el día 8 de septiembre. Conseguimos montar un 8 de marzo, como este año, conseguimos montar una manifestación aquí [en Hondarribia]. Y en el Itsas Etxea, en los balcones, ahí se pusieron el día 8. Ahora no se atreverían.”⁵²¹

Hasieran, irailaren 8ari egiten dio erreferentzia. Amore eman ez, eta gainera, urtero antolatzen zirela Alardean ateratzen saiatzeko. Tartean, Hondarribian, martxoaren 8ko Gipuzkoako manifestazioa egin zutela azaltzen du, eta nola Itsas Etxeko balkoietatik oihukatu eta iraindu zituzten eta ibilbidean zehar manifestazioa gelditzen saiatu. Azkenik, esaten du, garaipen gisa, orain ez zirela hori egiten ausartuko. Izan ere, testigantzetan elkarrizketatuek orainalditik egiten dute memoria ariketa eta ezinbestean gaur egungo subjektibitatek oroitzen dute, ondoren gertatutako guztiak eta etorriko denaren esperantzak baldintzatuta. Hori oso argi ikusten da Mariaren azken pasartean; izan ere, elkarrizketatutako momentuan, 2019an, mugimendu feministak zuen legitimitate eta indarra aipatzen du eta 1998an gertaturikoa 2019an ezinezkoa izango zela azaldu.

Irungo Alarde eguna eta udal hauteskundeak gerturatu ahala, antolaketa, kanpaina eta mugimenduak hasi ziren. Maiatzaren 8an, prentsaurreko batean, Román Rico alkateordeak Alberto Lizarraga aukeratu zuen berriro ere Alarde ofizialeko jeneral. Horrekin batera, Ricok hurrengo nahia adierazi zuen: “el Alarde sea una fiesta integradora, donde las personas de cualquier tipo de procedencia, creencia o género tengan la capacidad de poder participar.”⁵²² Puntu honetan, komeni da esatea, Román Rico, 1987tik udaleko zinegotzi izan ondoren, ez zela aurkeztu 1999ko hauteskundeetako PSE-EEko zerrendetan. Ikusten joango gara alderdi politikoetako zerrendetako hautagaitzak nola aldatu edo mantendu ziren eta Alardearen konfliktoak nolako eragina izan zuen. Ricok Irungo PSE-EEren barnean Alarde ofizialaren alde egin zuen; bertan desfilatu eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia atera ostean, emakumeek Alardean parte hartzeko eskubidea zutela publikoki esan zuen bakarra izan

Gara, 1999/03/03, 12; Alazne Basañez, “Eskubide erasotua”, *Gara*, 1999/03/08, 9, “Berdintasna oraindik urrun dagoela aldarrikatu dute emakumeek”, *Egunkaria*, 1999/03/09, 14.

⁵²¹ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

⁵²² “Alberto Lizarraga acepta por segunda vez el nombramiento de General del Alarde municipal”, *El Diario Vasco*, 1999/05/09, 24.

zen. Horrez gain, emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoek mafia arrosaren inguruan zabaldu zuten panfletoan bere izena agertu zen.⁵²³

Egun horietan, Beñardo Urtizberea Alarde tradizionaleko jeneral berrizendatu zuten, eta horrekin 1999an ere Alarde propioa egingo zutela aldarrikatu zuten. Aipatzekoa da EAJ eta EAko zerrenda bateratuan aurkeztu zirela emakumeak Alardean ateratzearen kontrako bi izen garrantzitsu, gutxienez. Lehenik, eta alkatetzarako hautagai, Elena Etxegoien izan zen, Irungo BAAren abokatua zena, eta bigarrenik, ordezkoen artean Antonio Aramburu zegoen. Bere izena behin baino gehiagotan atera da; 80ko hamarkadan Irungo Alardearen jatorria milizia foraletan kokatu zuen eta Irungo BAAren kide zen, besteak beste. Maribel Castelló, 1991etik EAko zinegotzia izandakoa, 1999ko zerrendetatik desagertu zen. EA urte horretan EAJrekin batera aurkezten zen, eta pentsa dezakegu horrek are ezinezko egin zuela Castelló bere alderdiarekin aurkezten jarraitzea.⁵²⁴

Maiatzaren 16an Irungo BAAk antolaturiko Alardealdia ospatu zen Irunen, hots, Alarde tradizionala finantzatzeko festa. Horretaz gain, azken urteetako polemikaz ahaztu eta egun dibertigarri eta atsegin bat pasatzeko helburua zuen. Egun horren bueltan, Alarde tradizionaleko agintariak prentsaurrekoa egin zuten, gehiengoa eta “betikoa” zirela argi zegoenez, Alardeko ohiko ibilbide eta ordutegia haiena zela aldarrikatzen. Jarraian, agiri publikoa bidali zieten “hauteskunderen ondoren hiritarren ordezkariak bere gain hartzeko asmoa duten alderdi politikoei”. Azkenik, udalaren babes egiturazko eta ekonomikoa eskatu zuten haien Alardearentzat. Udal hauteskundeak baino hilabete lehenago Irungo Alarde tradizionaleko agintariak politikariak zuzenean interpelatu zituzten, gehiengoaren nahia babesteko eta hauteskunderen aurretik posizioa azaltzeko exijituz.⁵²⁵

Hilabete horretan bertan, ordea, Irungo Lehen Instrukzio Epaitegiak epaitu zuen Alarde tradizionalak ezin zituela emakumeak baztertu, 1998an BAEk salatu ostean. Alarde

⁵²³ Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 1999/05/12, 87, XLIII-XLIV; Arantxa Iraola, “Alberto Lizarraga izango da aurtien ere Irungo Alarde ofizialeko jenerala”, *Egunkaria*, 1999/05/09, 18; “El Alarde de Irun apuesta porque la fiesta sea unitaria”, *Gara*, 1999/05/09, 17.

⁵²⁴ “Los generales de los dos alardes de Irún reciben sus nombramientos”, *El Diario Vasco*, 1999/05/09, 14.

⁵²⁵ “El colectivo Irungo Betiko Alardearen Aldekoak organiza la fiesta Alardealdia”, *El Diario Vasco*, 1999/04/30, 16; Jone Larrañaga, “Ohiko ibilbidea eta ordutegia aldarrikatu ditu Irungo Alarde tradizionaleko Juntak”, *Egunkaria*, 1999/05/14, 19; “El colectivo IBAA celebrará mañana el «Alardealdia-99»”, *El Diario Vasco*, 1999/05/15, 20.

tradizionala baztertzaila zen erabakitzea epaitegi zibilari ez zegokiola esan zen, baizik eta epaitegi administratiboari, eta horrek EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak 1998an ateratako epaiari erreferentzia egiten zion. Izan ere, edozein Alarde ekitaldi publiko, herrikoiki eta parte hartzailea zenez gero, ezin zituen emakumeak baztertu.⁵²⁶ Horrela zioen *Garako* berriak:

“El citado juez ha declarado que el Alarde, tanto si lo organiza un grupo de particulares como si lo organiza el Ayuntamiento es siempre un acto público, popular y participativo. Según han señalado las citadas mujeres, la sentencia «asume plenamente nuestra tesis de que no se discute el derecho de dos grupos distintos a reunirse, sino el derecho de las demandantes y de todas las mujeres a no ser discriminadas en ningún acto público y participativo».”⁵²⁷

Egun berean, ordea, Irungo hogeikirol elkarte, elkarte kultural, asoziazio eta klubek udalari eskaera formala egin zioten, Alarde ofiziala ez finantzatzeko ez eta inongo laguntzarik emateko eskatuz. Maiatza bukaeran, berriz, politikariek Alarde tradizionala babestea exijitzeko manifestazioa egin zuten milaka pertsonen, Alarde tradizionaleko agintariek zeramaten “herriaren borondatea errespetatu” pankartaren atzean. Bukaeran, alderdi politikoei galdegin zieten hauteskudeen aurretik adierazteko ordutegi eta ibilbidearen inguruan hartuko zuten jarrera. Manifestazioan EAJ-EAko udal zerrendako hautagaitzek parte hartu zuten, HB eta EBk Alarde ofiziala babestu zuten eta PSE-EEko politikariek soilik maila pertsonalean eman zuten iritzia. PPK, hilabete hasieran, Alardearen gaia kanpainatik kanpo uzteko proposamena egin zuen, ikusten dugun bezala aurrera atera ez zena. Beñardo Urtizberea jeneralak amaieran hau esan zuen: “Hay intereses de algún sector para que el Alarde desaparezca totalmente”.⁵²⁸ Alardea suntsitzearen mamua oraindik ere oso presente zegoen, nahiz eta emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek beste Alarde bat egin. Izan ere, gizonez osaturiko Alardearen

⁵²⁶ Arantxa Iraola, “Alardea beti ekintza «publikoa» dela esan du epaile batek, eta ezin dela inor ere baztertu”, *Egunkaria*, 1999/05/23, 18; “El juez exige al Alarde tradicional que no discrimine”, *Gara*, 1999/05/25, 12; “Demandados del Alarde piden una aclaración de la sentencia”, *El Diario Vasco*, 1999/05/30, 20; “La Junta del Alarde reitera que no hay sitio para la discriminación”, *Gara*, 1999/06/01, 18.

⁵²⁷ “El Juez sentencia que el Alarde de Irun es un acto público y participativo”, *Gara*, 1999/05/23, 14.

⁵²⁸ “Miles de iruneses piden a los políticos respaldo oficial para el Alarde tradicional”, *El Diario Vasco*, 1999/05/30, 8.

aldekoentzat haiena bakarrik bazen Alardea, orduan bai, gizonez bakarrik osaturiko Alardea desagerrarazi nahi zen.⁵²⁹

Ekainaren 13an egin ziren udal hauteskundeak eta emaitzak Alardearekin erlazionatuta aztertuko ditugu. Izan ere, ikusi dugun bezala, alderdi politikoen deklarazioek, zerrendetako hautagaiek eta Alarde tradizionaleko agintarien exijentziek kanpaina baldintzatu zuten. Eta horrek emaitzetan eragina izan zuen. EAJ-EA eta PSE-EEko zerrendetan azaldutako pertsonen aldaketak azaldu ditut jada: emakumeak Alardean ateratzearen aldeko edota Alarde ofiziala babestu zituzten zinegotziak kendu zituzten. EAJ eta EA batera aurkeztu ziren, beste herri batzuetan bezala, eta gizonez osaturiko Alardearen aldeko pertsona ezagunak sartu zituzten. EBn, berriz, Manuel Millan, udalean emakumez osaturiko Alardearen aldeko aurpegi ezagunetarikoa bat, alkategai izan zen berriz ere. Euskal Herritarrok (EH) koalizioa, HB, Batzarre eta Zutikek osaturikoa, Irunen ere aurkeztu zen, eta horren zerrendan BAeko eta emakumeak Alardean ateratzearen aldeko izen ezagunak ageri ziren, tartean Josune Urrusolo, Txaro Arribas eta Maider Larrañaga. Horrez gain kanpainako proposamenean emakume zein gizonek osaturiko Alarde bakar eta publikoaren alde egingo zutela adierazi zuten.⁵³⁰

Gauzak horrela, emaitzetan lehenik eta behin, azpimarratzekoa da Irungo EAJ-EAko zerrendan izandako boto kopuruaren eta zinegotzien igoera. 1995ean EAJ eta EAren emaitzak batuz, 7.113 boto, % 26,37, eta sei zinegotzi lortu zituzten. 1999an, berriz, zerrenda bakarrean aurkeztu ziren, 8.774 boto, % 29,9, eta zortzi zinegotzi lortuz. Horrek bigarren zerrenda bozkatuenaren tokian uzten zituen, PSE-EEK baino berrehun boto gutxiagorekin eta zinegotzi kopuru berberarekin. Oso gutxiatik ez zen zerrenda bozkatuena izan, eta EA EAJtik eszinditu aurretik lortu zituen emaitzak erreperatu zituzten. PSE-EE, PP eta EHk boto kopurua handitu zuten, nahiz eta zinegotzi kopuru berberarekin geratu, PP izanik salbuespen, zeren oraingoan bat gehiago lortu zuen, hau da, sei zinegotzi. EBk jasan zuen porrot handiena; izan ere, hiru zinegotzi bazituen, oraingoan ez zuen bat bera ere lortu.⁵³¹

⁵²⁹ “Representantes de varias sociedades piden que no se subvencione al Alarde municipal”, *El Diario Vasco*, 1999/95/23, 24.

⁵³⁰ Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 1999/05/12, 87, XLIII-XLIV; Josune Urrusolo, “EH por la dignidad de la mujer”, *EH Euskal Herritarrok*, 1999.

⁵³¹ Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Abril 1979. Irún”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1983. Irún”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados

Emaitza horiek alderdi bakoitzak babesten zuen Alardearekin erlazioan aztertzen baditugu, Irundarren gehiengoak babestu zituen proiektu politiko eta nazional nagusietariko bik, EAJ-EA eta PSE-EErenak, gizonez osturiko Alardeak artikulatuko zuen herri proiektua babesten zuten. Gai horri dagokionean, ezberdintasuna da PSE-EE epaiak betetzearen alde zegoela, espainiar ordenaren oinarri zen justizia onartu eta babestuz. Baina, ikusi dugun bezala, PSE-EE betiere gehiengoaren nahia, gizonez osaturiko Alardearen aldekoa, errespetatzen eta betetzen saiatu zen. Horren aurrean, beste proiektu nazional batek, EHk eraikitakoak, Alarde misto baten alde egin zuen – horrek genero ordenan suposatzen zuen aldaketarekin–, eta 3.525 boto, % 12,01, eta hiru zinegotzi lortu zituen. Hau da, 1998an bi Alarde egin zirenean, hauteskundeetan ere islatzen ziren bi herri eraikitzen ari ziren, herri terminoak Irungo herriari erreferentzia eginez, baina baita ere proiektu nazional bati. EBk Alarde mistoaren alde egin bazuen ere ez zuen ordezkartzarik lortu.

Hondarribiko emaitzek antzeko joera izan zuten, EAJ-EA eta EH alderdiei zegokienean. Hau da, EAJ-EA zerrenda bozkatuena izan zen, 1995ean EAJ izan zelarik, 2.608, % 36,39 eta zazpi zinegotzirekin. 1995ean EAk 1.340 boto jaso zituen, % 18,7 eta hiru zinegotzi. 1999an bi alderdi horiek zerrenda bakarrean joanda, 1995ko emaitzak hobetu zituzten, 4.645 boto jasoz, % 58,21 eta hamaika zinegotzi, hau da, gehiengo absolutua lortu zuten. EHk, berriz, aurreko hauteskundeetan HBk baino ehun boto gehiago irabazi zituen, eta zinegotzi kopuru berbera lortu. Beste bi alderdiek, PPk eta PSE-EEK, antzeko emaitzak lortu zituzten, zinegotzi bana lortuz. Hondarribian EAJ eta EAk, udalean egonda, gizonez osaturiko Alardearen alde egin zuten aldi oro, epaia errekurrituz eta AFren esku utziz. HBk horren aurrean, Hondarribian ere emakume eta gizonez osaturiko Alardearen alde egin zuen publikoki, nahiz eta hasieran barne gatazkak egon. Hemen ere bi proiektu nazional zeuden aurrez aurre, Alardeak horiek guztiz gurutzatuz. Irunekiko ezberdintasuna, ordea, honako hau zen: Hondarribian ez zegoela Alarde mistoak eraikitzen zuen herria, Jaizkibeli desfilatzea ukatuz, herri proiektu horren existentzia ukatzen baitzuten. Horrela, Hondarribian herri bakarra eraikitzen ari ziren, *bestea* herritik kanporatuz eta beste bat sortzea baztertuz, nahiz eta hauteskundeetan

Electorales. Municipales Junio 1987. Irún”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1991. Irún”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1995. Irún”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Junio 1999. Irún”.

herri hori eraikitzeko proiektua herritarren zati batek babestu eta beraz saiakerak aurrera jarraituz.⁵³²

4.3. Gizonez osaturiko Alardeen nagusitzea

Udal hauteskundeetako emaitzek gatazka hasi zenetiko joera egonkortu eta legitimatu zuten. Izan ere, aztertu dugun bezala, EAJ, EA eta PSE-EE alderdien zerrendetatik emakumeak Alardean ateratzearen aldekoak kendu eta gizonez osaturiko Alardearen aldekoak gehitu zituzten, azken horren aldeko apustu garbia eginez. Emaitza onak lortzeak aurretiko jarrera eta posizioan jarraitzeko babes eman zieten, eta azaldu ditugun erreakzioaren hiru fronteetako bat –instituzionala– indartu egin zen, eta horrekin, baita beste biak ere. Fronte instituzionalak hauteskundeetan porrota edota galera nabaria izanez gero, beste bi fronteen sostengua gutxituko zen zentzu batean, ikusi dugun bezala, kaleko fronteak eta kolektiboak indartsu ageri baitziren. Kontrakoa gertatu zen, eta, beraz, botoek kaleko frontea eta kolektiboena babestu eta legitimatu zutenaren hipotesia planteatzen dut eta horrekin indartu zirela, indarkeriaren gorakada izanik ondorio nabariena.

Bestetik, hasieran alderdi batzuen ordezkariak lokal eta EAE mailakoaren arteko kontraesanak nabariak baziren, apustu lokalak funtzionatu zuela ikusteak EAE mailan izandako posizioa moldatzera edo moderatzera ekarri zituen EAJ eta EA alderdia, besteak beste.

Ekainaren 13an izan ziren hauteskundeak, eta handik aste gutxitara Irungo Alardea zetorren. Urte hartako gatazka nagusia ordutegi eta ibilbidearen inguruan izaten ari zen, eta horiek erabakitzea Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari egokitu zitzaion. Segurtasun sailburuordea Alberto Buen alkatearekin bildu zen proposamen bat adosteko, tentsio uneak ahalik eta gehien ekiditeko helburuarekin. BAE eta Juana Mugarrietakoa kolektiboak egun horietan hitza hartu zuten Eusko Legebiltzarrean, eta Alardeen gatazkaren gaineko jarraipena egiteko lantalde baten sorrera eskatu zuten. Aldi berean EAJ, PSE-EE eta PP alderdien barne kontraesanei irtenbidea topatu eta udaletan eta

⁵³² Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 1995. Hondarribia”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Junio 1999. Hondarribia”; “EHren nagusitasuna”, *Egunkaria*, 1999/06/16, 11.

legebiltzarrean postura berdina azaltzea exijitu zieten. Horren ostean iritsi zen Alarde tradizionalaren ordutegi eta ibilbidearen inguruko Barne Sailaren erabakia. Goizeko 7:15ean ateratzeko ordua jarri zuen, eta ohiko ibilbidea. Alarde ofizialarena, ordea, alkatearen erresoluzio bidez ezarri zen goizeko 9:45ean, ordenantzak ezartzen zuena baino ordu bat eta hogeita minutu beranduago. Alarde ofizialeko Juntak desadostasuna adierazi zuen, Barne Sailak legalitatearekin bete zuela baina ez alkateak. Horren aurrean Alarde ofizialak ordenantza bete eta 8:25ean aterako zela aldarrikatu zuten. Alarde eguna gerturatu ahala, lasaitasuna eta errespetua eskatzeko deklarazioak ugaritu ziren, eta horietako bat Alarde tradizionaleko Juntarena izan zen.⁵³³

“(…) hizo ayer público un comunicado en el que invita «a demostrar nuestra tolerancia y nuestro respeto hacia los que no piensan como nosotros. No caigamos en provocaciones que sólo rentabilizan a aquellos que quieren destruir nuestro Alarde y para los que la voluntad popular es un sonsonete aplicable solamente cuando les interesa». Los organizadores del Alarde tradicional calificaron de «irresponsables» a quienes «están llamando a desobedecer las resoluciones de Interior y Alcaldía» y no se hace responsable «de las consecuencias que se deriven de estos llamamientos.»⁵³⁴

Alarde ofizialeko Juntak egindako adierazpenetatik nobedadea, berriz, publizitate komertziala interpelatzea izan zen; izan ere, horietako askok gizonez osaturiko Alardearen irudiak soilik erabiltzen zituzten. Gatazkatik kanpo geratzea eta neutraltasuna mantentzea eskatu zien horiei. Bestetik, Alarde egunean Alarde tradizionaleko kideekin bi espazio partekatuko zituztela iragarri zuten, Diana eta meza. Tentsioa sortzeko helburutik urrun, hurbiltze eta elkarbizitzarako lehen pauso gisa kalifikatu zuten. Eusko Legebiltzarrak ere deklarazio instituzional bat zabaldu zuen, alderdi politiko guztien babesarekin, eta bertan, EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren

⁵³³ “El Gobierno Vasco decidirá en breve los horarios de los Alardes”, *El Diario Vasco*, 1999/06/20, 20; “El Alarde oficial de Irún pide al Parlamento Vasco una comisión de seguimiento”, *El Diario Vasco*, 1999/06/24, 10; Luis Karlos Garcia, “Alderdiek Irunen eta Hondarribin dituzten arduradunak presionatzeko eskatu dute”, *Egunkaria*, 1999/06/24, 17; “Interior dispone que el Alarde tradicional arranque a las 7.15 de la mañana con el recorrido habitual”, *El Diario Vasco*, 1999/06/26, 14; “El alarde oficial de Irún saldrá a las ocho y media”, *Gara*, 1999/06/26, 15; “El Alcalde de Irún pide que se cumplan los horarios fijados para los dos Alardes”, *El Diario Vasco*, 1999/06/27, 16; “El alcalde hace un «llamamiento a toda la población al respeto hacia los demás», *El Diario Vasco*, 1999/06/27, 22; “Irteera ordua atzeratzeari uko egin dio Alarde Ofizialeko Batzordeak”, *Egunkaria*, 1999/06/27, 15; “La Junta oficial acusa al alcalde de priorizar el Alarde discriminatorio”, *El País*, 1999/06/27, 6; Martxelo Diaz, “El alarde oficial cumplirá los horarios tradicionales”, *Gara*, 1999/06/27, 15.

⁵³⁴ “Organizadores de los Alardes de Irún apelan al espíritu festivo y al respeto”, *El Diario Vasco*, 1999/06/29, 10.

epaia berresten zuten. Bestetik, bizitza sozial eta kulturalean gizon eta emakumeen berdintasuna eta Irun eta Hondarribiko Alardeetan emakumeen parte hartzea bermatzeko eskatu zieten udalei.⁵³⁵

1999ko Irungo Alardeko biharamuneko egunkarietako berriek azpimarratu zuten istilurik gabeko eguna izan zela. Alarde tradizionalan 8.000 gizon inguruk desfileatu zuten, eta ofizialean, berriz, 800 gizon eta emakumek. Alarde ofizialak, aurretik adierazi zuten bezala, 8:25ean ateratzeko saiakera egin zuen, baina San Martzial aldapan, atera eta ehun metrotara Ertzaintza eta udaltzaingoak hesia egin eta desfilea geldiarazi zuten. Momentu horretan, komandanteak aginduta eserialdi sinboliko bat egin zuten, txapela kendu eta lurrean eseriz. Bi Alardeetako antolatzaileek positiboki baloratu zuten eguna, errespetua eta lasaitasuna nagusi izateagatik. Tentsio eta irainak baretu zirela ere adierazi zuten, nahiz eta Alarde ofizialaren ibilbidearen puntu batzuetan nabariak izan. Diana eta mezan elkartuko zirela aurreikusi zuten, baina Alarde tradizionalako kideek batera egotea ukatu eta ez ziren agertu ez Dianara, ez mezara. Azken horren ordez lore eskaintza bat egin zuten San Martzialen.⁵³⁶

Bi Alardeak eta horiekin erlazonatutako ekitaldiak paraleloak izan ziren, hau da, nahiz eta ia berdinak izan, ez ziren inongo momentuan elkartu. Alarde ofizialeko kideek bi ekitaldi konpartituko zituztela iragarri zuten, baina Alarde tradizionalakoek uko egin zioten. Horrela, bi Alardeak elkar nahastea ekidin zuten, eta horrekin batera, bi herrien mugak lausotzea. Izan ere, bi Alardeek espazio eta denbora konpartituz gero, emakume soldaduak bertan egongo lirateke, Alarde tradizionalak babesten zuen genero ordena zalantzan jarriz. Alarde bakoitzak eraikitzen zuen herriaren muga gainera genero

⁵³⁵ “La Junta del Alarde oficial pide neutralidad a cierta publicidad comercial”, *El Diario Vasco*, 1999/06/29, 16; Martxelo Diaz, “La diana y la misa de San Marcial se celebrarán de manera unitaria”, *Gara*, 1999/06/29, 12; “Los generales de los Alardes confían en que la fiesta irunesa transcurra en paz”, *El Diario Vasco*, 1999/06/30, 7; Jone Larrañaga, “Hirugarren urtez jarraian, bi alarde bereizi izango dira gaur Irungo kaleetan”, *Egunkaria*, 1999/06/30, 19; “Las mujeres iniciarán el desfile a la hora oficial pero anuncian que evitarán los enfrentamientos”, *El Mundo*, 1999/06/30, 4; “Irún celebra hoy por segundo año consecutivo dos Alardes”, *El País*, 1999/06/30, 6; “Lasaitasunerako deia egin dute Irungo bi alardeek”, *Gara*, 1999/06/30, 9.

⁵³⁶ “Irún disfruto su fiesta de San Marcial”, *El Diario Vasco*, 1999/07/01, 1; “Dos Alardes en paz”, *El Diario Vasco*, 1999/07/01, 14-15; “Satisfacción en los dos desfiles”, *El Diario Vasco*, 1999/07/01, 17; “Los Alardes vivieron diferentes actos en la ermita de San Marcial”, *El Diario Vasco*, 1999/07/01, 18; “Resaca sanmarcialera”, *El Diario Vasco*, 1999/07/01, 19; “Istilurik gabe egin dira Irungo bi Alardeak” *Egunkaria*, 1999/07/01, 1; Jone Larrañaga, “Bi alarde egin dira Irunen istilurik gabe”, *Egunkaria*, 12; “Jai bakarrean, mundu bi”, *Egunkaria*, 1999/07/01, 13; “Alardea, bere orduan irten ezinik”, *Gara*, 1999/07/01, 1; M. Diaz eta A. Zuazabeitia, “El alarde mixto fue el más participativo y tranquilo de los últimos años en Irun”, *Gara*, 1999/07/01, 12; Martxelo Diaz eta Ainhara Zuazabeitia, “Ofiziala, baina zain”, *Gara*, 1999/07/01, 13.

ordenan oinarritzen zen, beste ardatz batzuekin batera. Muga hori difuminatuz gero, bi herriak disolbatuko lirateke hein batean eta emakume soldaduak barne geratu. Alarde tradizionaleko antolatzaileek hori ekidin zuten, eta horretarako, tradizioa zen mezara joan ordez, beste tradizio bat asmatu zuten: lore eskaintza.

Uztailaren 1ean, *El Diario Vasco* Alberto Buen Irungo alkateari eginiko elkarrizketa kaleratu zuen, udal hauteskunderen ingurukoa. Bertan hau aitortu zuen: “Hay quien me ha dicho que esta vez no me daba el voto por el Alarde”. Alardearen gatazkak Irungo eta Hondarribiko udal hauteskundeak baldintzatu zituela pentsatzen zuen, eta horregatik, EAEko joera orokorretik atera zirela EAJ-EAren eta EHren emaitzak batez ere. Aurreko hauteskunderekin konparatuz gero, EAEko beste herrietan EAJ-EA zerrenda bateratuek ez zuten igoera handirik edo igoerarik izan, Irun eta Hondarribian bai, ordea. EHk batez ere Gipuzkoan oso emaitza onak lortu zituen. Bidasoaldean, aldiz, 1995koen antzekoak izan ziren. Udala osatzea zen hurrengo pausua. Alde batetik, EAJ, EA eta PSE-EEK akordio bat zuten zerrenda bozkatuena errespetatzeko, eta beste aldetik, Lizarra-Garaziko Hitzarmena sinatu zuten alderdien artean ere akordio berdina zuten, hau da, EAJ, EA eta EHk. Ezustekorik ezean, Alberto Buen izango zen berriz ere Irungo alkate.⁵³⁷

Alardea pasa eta egun batzuetara, Alarde tradizionalaren antolatzaileek alkateari Alardeko ordenantza bertan behera uztea eskatu zioten. Horrela, udalak ez luke Alardea antolatzeko betebeharririk izango, eta EAJ-EA, PSE-EE eta PPK hauteskunde kanpainan erakutsitako babesaren beteko luketela azaldu zuten. Balorazio positiboa egin zuten, ohiko ibilbidea berreskuratu eta soilik ordutegia lortzea falta zitzaielako. Alarde ofizialaren orduz aurretiko irteera probokaziotzat jo zuten, eta adierazi zuten ez zutela inongo asmorik horien antolatzaileekin biltzeko.⁵³⁸

Testuinguru horretan iritsi ziren Hondarribiko Alardearen prestakuntza eta deklarazioak. Uztailaren 24 eta 25ean, urtero bezala, konpainia gehienek kantinerak aukeratu zituzten. Handik egun batzuetara Jaizkibel konpainia eta Juana Mugarrietakoa kolektiboak deialdia egin zuten, irailaren 8an babesaren ematera joateko, “demokraziaren alarde” bat

⁵³⁷ Aingeru Munguia, “«Hay quien me ha dicho que esta vez no me daba el voto por el Alarde»”, *El Diario Vasco*, 1999/07/01, 3.

⁵³⁸ “Alardeko ordenantza indargabetzeko eskatu dute”, *Egunkaria*, 1999/07/11, 13; Ainhara Zuazabeitia, “Alarde tradizionaleko Juntak ez du hitzik egingo ofizialeko kideekin”, *Gara*, 1999/07/11, 10.

egitera. Bidasaldeko udalak eta Herrizaingo saila gogor kritikatu zituzten, Alarde baztertzailleak egiteko babesa emateagatik.⁵³⁹

“«Porque impedir la presencia de las mujeres en cualquier espacio es cuestionar los pilares de la democracia, por eso llamamos a los ciudadanas y ciudadanos vascas comprometidos con los derechos fundamentales a que vengan el 8 de septiembre a Hondarribia, a hacer un Alarde de democracia».”⁵⁴⁰

Demokrazia ulertzeko era ezberdinek aurrez aurre topo egin zuten konflikto horretan. Izan ere, ikusten joan garen bezala, gizonez osaturiko Alardearen aldekoek demokrazia gehiengoaren nahia errespetatzearekin lotzen zuten, eta emakumeak Alardean parte hartzea, gutxiengoa izanik, inposizioa zela zioten. Jaizkibel Konpainia eta Juana Mugarrietakoak, berriz, demokrazia eskubideen errespetuan eta berdintasunean oinarritzen zela uste zuten. Demokrazia terminoaren kontzepzio ezberdin horiek ez ziren soilik Alardera mugatzen; Alardeak eraikitzen zuen herrian eta zabaltzen zituen balioetan ere eragina zuten. 1999ko abuztu bukaeran, Jaizkibel konpainiak Alardean parte hartzeko eskariei erantzunik eman ez zietela adierazi zuen, eta epaiak eta deklarazio instituzionalak betetzea eskatu zuen. Beste urteetan udalarekin edota Alardeko agintariekin kontaktu minimo bat izan zutela kontatu zuen, baina urte hartan isiltasuna zela nagusi. Horrek tentsio eta enfrentamendu egoera batean hurbilpenik egotea galarazten zuen eta arazoa enkistatzea zekarren.⁵⁴¹

Irailaren hasieran, Alardeko entseguak hasi ziren. Jaizkibel beste urte batez kaletik desfilatzen saiatu zen, baina berriro ere, giza tapoiak sortu, arrautzak bota eta ertzainen lerroak ez zien aurrera egiten utzi. Hala ere, Kale Nagusitik pasatzea lortu zuten, Hondarribiko sinbolismo handiko kaletik, hain zuzen. Irainak eta oihuak ere bota

⁵³⁹ “Las compañías del Alarde convocan a sus componentes para elegir a las cantineras”, *El Diario Vasco*, 1999/07/24, 18; “El colectivo Juana Mugarrietakoa pide «un Alarde de democracia»”, *El Diario Vasco*, 1999/07/30, 16; “«Demokraziaren alarde» bat egitera deitu dute”, *Egunkaria*, 1999/07/30, 17;

⁵⁴⁰ “Colectivos de Hondarribia llaman a hacer «un Alarde de democracia»”, *Gara*, 1999/07/30, 12.

⁵⁴¹ Juana Mugarrietakoa Elkarte, “Alkate Jaun Agurgarria”, *Hondarribiko Udala*, 1999/07/16; “La compañía mixta anuncia su deseo de desfilar en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1999/08/28, 8; Ainara Mendiola, “Instituzioen erabakiak betetzeko eskatu du Jaizkibel konpainiak”, *Egunkaria*, 1999/08/28, 13; Miren Izquieta, “La compañía Jaizkibel anuncia que desfilará en el Alarde de Hondarribia”, *El Mundo*, 1999/08/28, 4; “La compañía mixta de Hondarribia anuncia que desfilará en el Alarde”, *Gara*, 1999/08/28, 11.

zizkieten, tartean “españolas”, “kanpotarra”, “putas”, “el ocho de septiembre no desfilaréis”. Jaizkibel konpainiako kideek Ertzaintzaren jarrera kritikatu zuten.⁵⁴²

“No obstante, desde las filas de la compañía Jaizkibel hubo críticas hacia la Policía vasca por no garantizar su derecho a circular libremente. Esta crítica no es nueva, dado que el colectivo feminista Juana Mugarrietakoa interpuso el año pasado una denuncia contra la Policía autonómica por haber impedido a la compañía mixta incorporarse al Alarde.”⁵⁴³

Horrez gain, erreportari grafikoek ere gutun bat bidali zieten Barne Sailburuari eta Hondarribiko alkateari, haien kontrako erasoak salatzen eta autoritateek haien lana egiteko beharrezko baliabideak jartzeko exijitzen. Entseguetan haiei ere arrautzak eta urez beteriko globoak bota zizkietela adierazi zuten eta entseguak bukatzean kolpeka hartu zituztela, udal poliziaren presentziarean. Azkenik, gogoratu zuten horrelako gertakariak Alardeetako konfliktoaren hasieratik gertatzen ari zirela. Guzti hori ikusita, Jaizkibel konpainiak eta Juana Mugarrietakoa kolektiboak prentsaurreko bat egin, eta Alarde egunean haien segurtasunaren beldur zirela adierazi zuten. Horrez gain, aurreko urtean baino okerrago zeudela pentsatzen zuten eta oso zaila izango zutela Alardera batzea. Agintariei haien ardurak betetzeko eskatu zieten, biktimarik egon ez zedin.⁵⁴⁴ BAEk komunikatu bat bidali zuen prentsara, eta honako zati hau da interesgarriena:

“Elkarte horren arabera, Alardeko gatazkak hainbat oztoporekin topo egin du azken urteotan, irtenbidea galarazi dutenak: boterearen kontzentrazioa esku batzuetan, errebindikazioa lagunduko luketen erakunde eta gizabanakoen «informazio falta», eta egungo egoera politikoa, «zeinek alardea bezalako gai txikiagoak neurri handiagoko hitzarmen batzuen menpe utzi baititu». (...) Bestalde, Lizarra-Garaziko akordioak egoera ez duela hobetu ziurtatu du elkarteak, eta EH alderdiaren jarrera gaitzetsi du bereziki, «beharrrik izan gabe»

⁵⁴² A.U., “Intentan boicotear el ensayo de la compañía Jaizkibel”, *Gara*, 1999/09/03, 10; “Jaizkibel ensaya en medio de incidentes para participar en el Alarde hondarribiarra”, *El Diario Vasco*, 1999/09/04, 7.

⁵⁴³ A. Castells, “Alarde de Hondarribia: un ensayo accidentado”, *El Mundo*, 1999/09/03, 2.

⁵⁴⁴ Jaizkibel Konpainia eta Juana Mugarrietakoa, “Comunicado de prensa”, d.g.; A.U., “Los reporteros gráficos exigen garantías para desarrollar su trabajo en el Alarde”, *Gara*, 1999/09/04, 9; “La compañía mixta de Hondarribia teme por su seguridad en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1999/09/05, 6; Xabier Garmendia, “La compañía mixta denuncia la pasividad del alcalde ante la proliferación de agresiones”, *El Mundo*, 1999/09/05, 3; M. M., “Los partidarios del Alarde mixto culpan a Interior y al alcalde de Hondarribia de «la inseguridad ciudadana»”, *El País*, 1999/09/05, 3; “SOS deia luzatu diete botere publikoei Juana Mugarrietakoak eta Jaizkibelek”, *Gara*, 1999/09/05, 12.

Borja Jauregi EAJko alkatearen alde bozkatzegatik. «Harritzen gaitu horrek guztiak, batez ere ez dugulako uste bere militantziaren sentsibilitateari erantzuten dionik».⁵⁴⁵

Lizarra-Garaziko akordioak EAJ, EA eta EH alderdiak elkar gerturatu zituen, beste batzuk tartean, eta akordio nazional horrek Bidasaldeko gatazkan eragina izan zuen, BAEren arabera. EH EAJra gerturatzeak Alardeen gatazka gutxiestea eta garrantzia kentzea ekarri zuela pentsatuz.

Borja Jauregik horren aurrean gehiengoaren nahia babestu eta istilurik ez gertatzeko herritarren erantzukizunean sinesten zuela adierazi zuen. Egoera ikusita bi aldeen arteko elkarrizketa eta adiskidetzea ezinezkoa zela zeritzon. Adierazgarria da nola alkatea lasai zegoen nolabait, herritarrei konfiantza emanaz, baina beste aldetik, Juana Mugarrietakoa eta Jaizkibel konpainiako kideak benetan beldurtuta eta kezkatuta zeuden Alarde egunari begira eta entseguetan jazotakoa ikusita.⁵⁴⁶

“Las mujeres que estamos metidas en esto, después de las experiencias del año pasado y de lo que nos pasó en los ensayos, no salimos en Hondarribia por la noche. El año pasado varias mujeres fuimos a casa escoltadas dentro de un coche de la Policía Municipal. Este año parece que la gente está todavía más caliente, y lo que no queremos es arriesgarnos a tener que salir de un bar abucheadas. La situación se ha agudizado más con la proximidad de las fiestas.”⁵⁴⁷

Guzti hori salatzeko eta emakumeak Alardean ateratzea aldarrikatzeko, irailaren 7an, Alarde egunaren bezperan, hamaika lagun Hondarribiko elizan sartu, “emakumeak Alardean” pankarta korotik eskegi eta bertan giltzapetu ziren. Bertatik alkatearekin hitz egin ondoren aterako zirela adierazi zuten, baina alkateak uko egin eta Ertzaintza eta udal polizia koordinatuz, gogoz kontra atera zituzten. Kanpoan jendea bildu, eta barrukoei oihukatu eta irainak bota zizkieten. Arratsaldeko 16:00ak aldera sartu ziren, eta 20:00tan Salbea zenez, 19:30etan atxilotu eta Irungo polizia-etxera eramán zituzten. Guztiak identifikatu ondoren, aske utzi zituzten. Egun horretan gertaturikoa memorian iltzatuta du Gema Sagarzazuk. Izan ere, Elizan gertatutakoak eragina izan zuen

⁵⁴⁵ “Hondarribian «biktimarik» izan ez dadin beren ardurak betetzeko eskatu diete botere publikoei”, *Egunkaria*, 1999/09/05, 10.

⁵⁴⁶ Xabier Galarza, “«Confío en la responsabilidad de todos para que no haya incidentes en el Alarde»”, *El Diario Vasco*, 1999/09/07, 6.

⁵⁴⁷ “«Tras los ensayos, tenemos miedo de lo que pueda suceder mañana»”, *Gara*, 1999/09/07, 12.

parrokiako koroan parte hartzeko orduan. Sagarzazu parrokiako korotik kanporatu baitzuten, emakumeak Alardean ateratzearen alde egoteagatik eta horretarako borrokatzeagatik:⁵⁴⁸

“Banekien zerbait egin behar zutela. Sartu dira hau, hau eta hau, «bueno joan behar dut». Nola utziko ditugu, gainera, pentsatzen genuen, gero ez ziren barrenean, baina nik pentsatzen nuen beste batzuk bazirela hondarbikoak, eta nire lagunak eta. Digo «pero cómo, que no les puedo dejar ahí dentro, como que tenemos que ir allá, que no podemos ir que están dentro», ¡bueno, una cosa...! Eta klaro, hori izan zen, eta ni koro parrokiakera joan nintzenez kantatzera, joan nintzen ensaio batera, eta orduan Alberto Lasa, le faltó tiempo. Horrela atzetik egin, zera iskin batera, koroan goian, eta «ezin duzu kantatu zeren ez dakit zer», «zer? Ezin dutela kantatu? Bueno bai, nik kantatuko dut». Eta joan nintzen nire tokira y toda digna. Voy a cantar, por supuesto que sí, porque tengo todo el derecho. (...) Gero hasi nintzen pentsatzen, merezi du? Osea, ni bakarrik contra toda esta gente.”⁵⁴⁹

Esan bezala, herriko espazio desberdinetatik bota zituzten eta Jaizkibeli desfilatzen ez uzteak, ez bakarrik Alarde barruan, baizik eta kaleetatik, herri propioa eraikitzea ere galarazi zieten. Horrez gain, herria gotortzen joan zen eta barne mailako kontrola areagotu zen. Horren adierazgarria da 1999an konpainia batzuetan desfilatu ahal izateko NANA erakustea beharrezkoa izaten hasi zela. Joxe Marik honela azaltzen du Alarde tradizionalak izan zuen prozesua:⁵⁵⁰

“Bai, lehenago zen más fiesta! Igual jada dago más tipo facción, más marcial, más ejército, más ez dakit nola esan. Sí, serio, más orden, más mando, ulertzen? Lehenago igual joaten ginen eta «zer? ze kanta tokatuko digu?», «Goazen bigarrena porke besteak gaizki etortzen dira!» Eta orain dago tipo bat ke dice «la primera» y la primera, y nadie discute. La segunda, y hay cabo de txibilitos. Lehenago ez zegoen kabo de txibilitos eta deus erez. Edo kabo de tambores, eta lehenago... bakarrik zegoen kapitaina, eta tenienteren bat. Pero gero ateri ziren

⁵⁴⁸ I. Petxarroman, “Hamar emakume elizan itxi dira, Alardean parte hartzeko eskubidea aldarrikatzeko”, *Egunkaria*, 1999/09/08, 18; “Alardean emakumeen partehartzea aldarrikatzeko ekintza baketsua elizan”, *Gara*, 1999/09/08, 13.

⁵⁴⁹ Gema Sagarzazuri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna 2020/08/13 (pasarte bat).

⁵⁵⁰ “Ensayos de las compañías para el fin de semana”, *El Diario Vasco*, 1999/09/04, 12.

pillabat mando. (...) Bai! da orain más tipo facción, mas fundamentalista! Fundación fundamentalista. Hori neretzat! ¡No tienes tanta libertad! Joan behar duzu nahita nahiez ensaiotara eta apuntatzen dute. Joan behar zara ensaiora eta ematen dizute tokea.”⁵⁵¹

Geroz eta seriotasun handiagoa zegoela kontatzen du, eta hori, hasieran aipatu dugun bezala, nahiz eta 90eko hamarkadarako hasita zegoen prozesua izan, konfliktoarekin areagotu zen. Desordena nagusitu zen momentuan Aftik kontrol handiagoa ezarriz, eta seriotasuna eta baldintzarik gabeko atxikimendua exijitu zuten. Hondarribiko Emakumeak kolektiboak Guadalupe aldizkariaren hirugarren alea kaleratu zuen, eta aurrekoen diskurtso eta linea berean jardun zuen. Adierazgarriena da seme-alaben hezkuntzaren inguruko artikulua bat datorrela, honela hasten dena: “Debemos vigilar la educación que algunos «profesores» intentan inculcar a nuestros hijos tomando posturas partidistas en el tema de Nuestro Alarde”.⁵⁵²

Testuinguru horretan iritsi zen 1999ko Hondarribiko Alardea, eta azkeneko bi urteetan bezala, Jaizkibel konpainia goizean goiz Gernikako Arbolara gerturatzen saiatu zen, bertatik hasten baitzen Alardea. 105 pertsonak osatzen zuten konpainia abiatu eta metro gutxitara ertzainez osaturiko hesi batek geldiarazi zituen, enfrentamenduak eta Alardean kanpo injerentziak ekiditeko. Hala ere, babesa adieraztera gerturatu zirenekin hesia gainditzea lortu zuten, baina bigarren batekin topo egin zuten. Bertan, ertzainek borrekin kargatu zuten, konpainia geldiarazteko asmoz. Hamabi lagun zauritu, eta ospitalera eraman behar izan zituzten. Beste batzuk, ordea, errepide erdian eseri ziren, baina horiek ere indarrez atera zituzten. Egoera ikusita, Jaizkibel konpainiak buelta eman eta ezin izan zuen Alardera sartu, eta Guadalupera igotzeko asmoa ere bertan behera utzi behar izan zuten. Alardeak ohiko ibilbide eta ordutegia bete zuen, normaltasun osoz eta istiluetatik urrun.⁵⁵³

⁵⁵¹ Joxe Mariri (pseudonimo) egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketa eguna: 2019/07/16 (pasarte bat).

⁵⁵² Hondarribiko Emakumeak, “La educación de nuestros hijos”, *Guadalupe*, 1999ko iraila.

⁵⁵³ “Las fiesta vivió momentos de tensión en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1999/09/09, 1; Javier Roldan, “Tensión en el inicio”, *El Diario Vasco*, 1999/09/09, 6-7 (Dverano); Xabier Galarza, “Tambores y pólvora”, *El Diario Vasco*, 1999/09/09, 8-9 (Dverano); “Las veintiún unidades marcharon en el Alarde bajo un intenso calor”, *El Diario Vasco*, 1999/09/09, 14-15; “Ertzaintzak indarrez eragotzi du Jaizkibel konpainiaren desfilea”, *Egunkaria*, 1999/09/09, 1; Mikel Arrieta, “Ertzaintzak Alardean desfilatzea eragotzi dio Jaizkibel konpainia mistoari”, *Egunkaria*, 1999/09/09, 14-15; Iñaki Petxarroman, “Ezer gertatuko ez balitz bezala”, *Egunkaria*, 1999/09/09, 15; Mikel Arrieta, “Jaizkibel: «Guztiak mahai inguruan eseri eta irtenbidea aurkitu behar dugu»”, *Egunkaria*, 1999/09/09, 16; “La tradición machista

Hurrengo eguneko egunkarietako azaletako irudi nagusia Hondarribiko Alarde egunekoa zen; Ertzainak ageri ziren Jaizkibeleko kideak eta laguntzaileak borraz kolpatzen, eta horrek polemika eta zer esan handia eragin zuen. Izan ere, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia zegoen eta askok ez zuten ulertzen zergatik agindu zitzaion Ertzaintzari Jaizkibel Alardean sartzea edozein modutan ekiditea. Horren aurrean PP eta EBk azalpenak emateko eskatu zioten Barne sailburuordea zen Javier Balzari Eusko Legebiltzarrean. Zenbat agentek parte hartu zuten eta zeintzuk ziren aginduak galdegin zion PPko Carlos Urquijok. EBtik, berriz, Ertzaintzaren jokaera neurrigabea eta gehiegizkoa izan zela salatu zuten eta Jaizkibeleko kideen kontrako irainak bota zituztela. EH eta PSE-EE alderdiek ere sailburuordeari esplikazioak eskatu zizkioten hurrengo egunetan.⁵⁵⁴ EHren esanetan: “debe explicar por qué un policía al servicio de la sociedad «se dedica a apalea a ciudadanos cuyo único delito es reivindicar un espacio en el Alarde».”⁵⁵⁵

Emakundeko zuzendaria zen Txaro Arteagak ere gogor kritikatu zuen Jaizkibel konpainiaren kontrako jarrera, eta adierazi zuen guztien ardura zela gatazkaren konponbidea bilatzea. Bide horretatik, azaldu zuen gatazkan inplikaturako aldeak mahai baten bueltan eseri eta elkarriketara bultzatzeko lanean hasiko zela. Borja Jauregi Hondarribiko alkatearen hitzak, ordea, guztiz kontrako norabidean joan ziren:⁵⁵⁶

“Borja Jauregi Hondarribiko alkateak ertzainen «profesionaltasun eta eraginkortasuna» goraiatu zituen. «Haiengatik izan ez bazen, ezingo genuke esan Alardea bakean ospatu dugula». Bestalde, Jaizkibel konpainiari mezu argia bidali

volvió a imponerse en el Alarde”, *El Mundo*, 1999/09/09, 1; “La Ertzaintza impide a golpes el Alarde mixto”, *El Mundo*, 1999/09/09, 1 (Vivir Aquí); Xabier Garmendia eta Ruth Perez, “Diez heridos leves al impedir la Ertzaintza que desfilen mujeres”, *El Mundo*, 1999/09/09, 2 (Vivir Aquí); Xabier Garmendia, “Sin derecho a fiesta y apaleados”, *El Mundo*, 1999/09/09, 3 (Vivir Aquí); M. M., “10 heridos al impedir la Ertzaintza el desfile de mujeres en el Alarde de Hondarribia”, *El País*, 1999/09/09, 28; “Acción brutal de la Ertzaintza”, *Gara*, 1999/09/09, 1; Amaia Ugarte, “Ertzaintzaren indarra Jaizkibelen aurka”, *Gara*, 1999/09/09, 10; A. U., “Reacciones de denuncia ante la actuación de la Policía autonómica contra la compañía mixta”, *Gara*, 1999/09/09, 11.

⁵⁵⁴ “PP e IU piden a Balza que explique los incidentes del Alarde”, *El Correo*, 1999/09/10, 42; “IU y PP piden explicaciones a Balza por la carga «desproporcionada» de la Ertzaintza en el Alarde”, *El País*, 1999/09/10, 3; “Emakunde intentará mediar en el conflicto del Alarde”, *Gara*, 1999/09/10, 14; “Alardean Ertzaintzak izan zuen jarrera «neurritz kanpokoa» kritikatu du PSEk”, *Egunkaria*, 1999/09/11, 18; “EH y PSE se suman a las críticas por la carga del Alarde”, *El País*, 1999/09/11, 1 (País Vasco).

⁵⁵⁵ “EH y PSE solicitan a Balza que explique la intervención de la Ertzaintza en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1999/09/11, 12.

⁵⁵⁶ “Emakunde apuesta por el acuerdo en torno al Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1999/09/10, 6;

zior: «Tradizioa ezin da horrela aldatu. Horrela ez goaz inora. Nik Bidasoaldeko herritarren iritziari men egiten segituko dut, nire kontzientzia oso lasai dago.»⁵⁵⁷

Alkatearen deklarazioek, berriro ere, garbi uzten zuten zer zen beretzat garrantzitsuena: Alardea salbatzea, bakean egitea. Eta horretarako edozer zen zilegi, giza tapoiak edota ertzainen borrak. Gertatzen zenaren eta gertatu zitekeenaren erantzukizun bakarra Jaizkibelen jartzen jarraitu zuen. Horren aurrean, Jaizkibel konpainiak eta Juana Mugarrietakoa kolektiboak prentsaurreko bat egin zuten, eta bertan, Ertzaintza eta alkatea salatuko zituztela adierazi zuten, eskubide baten kontra pakto bat egiteagatik. Azaldu zuten, Hondarribiko udala eta Herrizaingo Saila alderdi beraren esku zegoen, eta aldez aurretik hitzartu zuten Jaizkibelek Alardean parte hartu zezan galaraztea. Azkenik, herriko giroa oso gaiztotua zegoela adierazi zuten eta egun horietako batean herritar talde bat txarangarekin batera hurrengo kantatzen ibili zela: “si te ha pegado la Ertzaintza, ¡jódete!”⁵⁵⁸ Javier Madrazok, EBko koordinatzaileak, Juan Jose Ibarretxeren, EAEko lehendakariaren interpelazioa eskatu zuen; Borja Jauregiren aldarriak konpartitzen zituen galdegin zion eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiren epaia betetzeko zer neurri hartuko zituen.⁵⁵⁹

Balzaren lehen azalpenak egun gutxitara iritsi ziren. Lehenik eta behin, Alarde egunaren aurretik bi aldeekin akordio batera iristeko saiakerak egin zituela adierazi zuen baina ezinezkoa izan zela. Ondoren esan zuen Ertzaintzaren egun hartako eginbehar bakarria enfrentamenduak eta indarkeria ekiditea zela eta hori profesionaltasunez egin zuela. Azkenik, kargak justifikatu zituen, esanez polizia lerroa puskatzen saiatzeagatik izan zirela eta Ertzaintza ez zegoela inoren eskubidea definitzeko.⁵⁶⁰

⁵⁵⁷ “Alardearen inguruko adostasuna bilatzen saiatuko da Emakunde, «gaur bertatik», *Egunkaria*, 1999/09/10, 17.

⁵⁵⁸ “Jaizkibel estudia la vía para denunciar la actuación de la Ertzaintza antes del inicio del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1999/09/12, 14; I. Petxarroman, “Jaizkibel konpainiak EAJri eskatu dio ardura politikoa hartu eta elkarrizketa zabal dezala”, *Egunkaria*, 1999/09/12, 15; “Jaizkibel acusa al PNV de impedir desfilar a las mujeres”, *El Mundo*, 1999/09/12, 1 (Vivir Aquí); Ainhoa Castells, “Jaizkibel pide al PNV que Interior y el alcalde garanticen sus derechos”, *El Mundo*, 1999/09/12, 4 (Vivir Aquí); “Jaizkibel ve un «pacto» entre Interior y el alcalde de Hondarribia”, *El País*, 1999/09/12, 1 (País Vasco); Amaia Ugarte, “Hondarribiko alkateak eta Barne Sailak sinatu akordioa gaitzetsi du Jaizkibelek”, *Gara*, 1999/09/12, 17.

⁵⁵⁹ “Madrazo (IU) pide la interpelación del lehendakari”, *El Diario Vasco*, 1999/09/15, 17; “Alardeko istiluen inguruan duen jarrera argitzeko eskatu dio IUK Ibarretxeri”, *Egunkaria*, 1999/09/15, 16.

⁵⁶⁰ Luis Caldevilla, “Interior justifica la acción de la Ertzaintza en Hondarribia para evitar males mayores”, *El Diario Vasco*, 1999/09/17, 7; Aitor Guenaga, “Balza dice que la Ertzaintza no está para «definir derechos» en el Alarde”, *El País*, 1999/09/17, 1 (País Vasco); “Alardea burutu karga justifikatu du Balzak”, *Gara*, 1999/09/17, 1; Carlos Garcia, Balza justifica la carga de la Ertzaintza en Hondarribia”, *Gara*, 1999/09/17, 13.

Urte hartan, Alardeko gatazkak Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzarrean presentzia handia izan zuen, orain arte azaldutakoagatik. Horrez gain, 1999ko irailean Udalbiltza⁵⁶¹ sortu zenean, BAE eta Juana Mugarrietakoa kolektiboa Borja Jauregiren dimisioa eskatzera bertaratu ziren. Udalbiltzaren sorrera Lizarra-Garaziko akordioaren testuinguruan kokatu behar dugu, Euskal Herri osoa elkartuko zuen erakunde nazional bat izatearen eta euskal nazioa aldarrikatu eta eraikitzearen helburuarekin egina. Euskal Herriko zazpi probintzietako udal hautetsi eta alkateek osatzen zuten, eta Borja Jauregi kide zenez, bertara eraman zuten protesta.⁵⁶²

««Gure etorrerak Biltzarraren sinesgarritasuna kaltetu dezakeen oztopo bat agerian uztea du helburu. Oztopo hori Hondarribiko alkate den Borja Jauregi Euskal Herriko Udal Hautetsien Biltzarreko iraunkorrean egotea da», zioen banatutako orriak. «Emakumeontzako iraina izateaz gain, presentzia horrek zalantzan jartzen du egungo Biltzarra EAeko Legebiltzarrak bere garaian emakumeen eskubideen alde eginiko aldarrikapen mailara iritsiko ote den».⁵⁶³

Horregatik, Borja Jauregik batzar hartan garrantzizko ardurarik ez izatea eskatzen zuten, eta horrek Udalbiltzak “gure herriaren eraikuntza nazionalean paper garrantzitsua jokatzea” eta “emakumezkoek batzar horrengandik sostengua jasotzea” erraztuko lukeela adierazi zuten. Horretarako, Jaizkibel konpainiak Bilbon desfilatu zuen, Euskalduna Jauregiaren aurrean, Udalbiltza bildu zen tokian, hain zuzen, eta pankarta bat zabaldu zuen txalo artean. Jaizkibel eta BAEk, beraz, Udalbiltzaren helburu eta proposamenak bere egin zituzten, “gure herriaren eraikuntza nazionalean” zuen papera aitortuz, baina, aldi berean, aldarrikatuz euskal nazioaren eraikuntza horretan ezinbestean parekidetasuna eta emakumeak Alardeetan ateratzearen eskubidea aitortua eta bermatua egon behar zela. Hori horrela ez bazen, eraikuntza nazional horretatik kanpo geratuko zirela azaldu zuten. Egun berean, eta horri kontra egiten, Hondarribiko udaletxearen aurrean Borja Jauregiren alde bildu ziren Alarde tradizionalaren aldekoak, eta Txaro Arteagaren dimisioa eskatu zuten.⁵⁶⁴

⁵⁶¹ Euskal Herriko Udal Ordezkarien Biltzarra.

⁵⁶² “Borja Jauregik Euskal Herriko Udal Ordezkarien Biltzarreko Batzorde iraunkorra utz dezala eskatuko dute”, *Egunkaria*, 1999/09/14, 19.

⁵⁶³ “Hondarribiko Jaizkibel konpainiak Udalbiltzara eraman du alkatearen kontrako salaketa”, *Egunkaria*, 1999/09/19, 8.

⁵⁶⁴ “Bidasaldeko Emakumeak eta Juana Mugarrietakoa taldeek Borja Jauregiren dimisioa eskatuko dute Bilbon”, *Gara*, 1999/09/15, 12; “Convocatoria popular para apoyar al alcalde”, *El Diario Vasco*,

Urrian, oraindik ere presente zegoen irailaren 8ko ertzainen jokaeraren eztabaida, oraingoan batzorde parlamentarioan Balzak bi orduz azalpenak eman baitzituen. Aurreko deklarazioetan esandakoa errepikatu eta Jaizkibelek zituen asmoen berri izanez gero beste era batean jokatu ahal izango zutela azaldu zuen. Alderdiei egotzi zien urte batzuetan konpontzeko gai izan ez zirena ezinezko zela Ertzaintzak egun batean zuzentzea. Berriro ere, EBko Madrazok esan zuen “ordena publikoak ezin duela sekula oinarrizko eskubide bat zapaldu” eta ertzain nahikoa zegoela kordioak Jaizkibel babestuz Alardean sartzea ahalbidetzeko. Baina ordena publikoa finean ordena soziala mantentzea zen, eta hori behin eta berriro errepikatu dugun genero ordenan oinarritzen zen, emakumeak soldadu gisa onartzen ez zituenean, hain zuzen. EH, EB eta PSE-EE kritiko agertu ziren Balzak esandakoaren ondoren ere; EAJ, PP eta Unidad Alavesak (UA), berriz, azalpenak onartu zituzten. Hala ere, ertzain batzuen inguruko ikerketa hasi zuen Herrizaingo Sailak, jarrera eta irain matxistak izan ote zituzten argitzeko.⁵⁶⁵

Txaro Arteaga legebiltzarrean izan zen, eta erantzun egin zion EBko Javier Madrazok egindako kritikari: urte horretako Alardean epelkeriaz jokatzeko, hain zuzen. Hala ere, uko egin zion Ertzaintzaren jokabidea baloratzeari, eta Eusko Jaurlaritzak zituen ardurak bete zituela adierazi zuen, batez ere Emakunderen bitartez. Txaro Arteagari 2021an nik eginiko elkarrizketa batean, Alardeen gatazkan Ertzaintzaren jokabidea positiboki baloratu zuen, nahiz eta aitortu agente batzuk emakumeen parte hartzearen kontra egon eta jarrera indibidual ezegokia izan, agintariei zegokionez ez zeukala inongo kritikarik adierazi zuen. EAJk ez ezik, beste alderdiek legebiltzarrean Borja Jauregiren agertzea eskatu zuten, baina EAJk autonomia municipalaren argudiopean

1999/09/18, 17; “Alkatearen aldeko kontzentrazioa deitu dute gaur Hondarribian Betiko Alardearen Aldekoek”, *Egunkaria*, 1999/09/18, 18; “Elkarretaratzeak gaur Bilbon eta Hondarribian, Alardea dela eta”, *Gara*, 1999/09/18, 12; “Concentración popular en apoyo al alcalde”, *El Diario Vasco*, 1999/09/19, 21; “El Alarde de Hondarribia, en Bilbao”, *El Mundo*, 1999/09/19, 1 (Vivir Aquí); X. G., “El alcalde de Hondarribia, objeto de actos de apoyo y repulsa el mismo día”, *El Mundo*, 1999/09/19, 5; “Normalidad en las marchas contra y a favor del alcalde de Hondarribia”, *El País*, 1999/09/19, 4 (País Vasco); “Manifestación en apoyo al alcalde de Hondarribia”, *Gara*, 1999/09/19, 13.

⁵⁶⁵ “Transcripción literal de la sesión celebrada por la Comisión de Instituciones e Interior”, 1999/10/07; Luis Karlos Garcia, “Balzak hitzetan geratzea egotzi die erakunde eta alderdiei alardearen auzian”, *Egunkaria*, 1999/10/02, 18; “Balza responde a las críticas del PSE”, *Gara*, 1999/10/02, 9; “Interior apela a los partidos a que promuevan un diálogo social en torno al Alarde”, *El Diario Vasco*, 1999/10/08, 1; Luis Caldevilla, “Balza apela a los partidos a encauzar el conflicto del Alarde por la vía del diálogo”, *El Diario Vasco*, 1999/10/08, 10; L. C., “Vídeo policial explicativo de la operación”, *El Diario Vasco*, 1999/10/08, 11; Luis Karlos Garcia, “Balzaren ustez, Jaizkibelen laguntza faltak ekarri du alardean gertatua”, *Egunkaria*, 1999/10/08, 10; Carlos Garcia, “Interior investigará la actitud de ertzainas en Hondarribia”, *Gara*, 1999/10/08, 13.

kontra bozkatu eta EH, EA eta PP abstenitu zirenez, proposamena ez zen aurrera atera.⁵⁶⁶

Urria bukaeran ere atzera bota zuten EBk PSE-EEren babesarekin Eusko Legebiltzarrean proposatu zuen ponentzia, EAJ, EH, EAren ezezko botoekin eta PPre abstenzioarekin. Proposamena ponentzia bat sortzea zen, hiru hilabetetan Hondarribiko eta Irungo Alardeen gatazka konponduko zuen akordioa bultzatzeko. Ezezkoa bozkatu zutenek, gatazkaren soluzioa bertan bilatu behar zela esan zuten, kanpoko irtenbide artifizialik gabe. Horren aurrean Juana Mugarrietakoa kolektiboak eta BAEk dezepzionagarritzat eta mingarritzat jo zuten EA eta EHren erabakia, eta EAJko tesiei jarraitzea egotzi zieten:⁵⁶⁷

“Azkenik, bi elkarteek diote berriz ere gutxiengoaren arazoak, eta bereziki emakumeen berdintasunarekin lotuta daudenak, «marjinaltasunean» eta «salerosketa politikoaren menpe» geratu direla, «betiere ustez gorago dauden interesen faboretan», nahiz eta azkenik haiek bukatzen duten «emakumeek dituzten eskubideak zapaltzen».”⁵⁶⁸

Handik egun batzuetara EH, PSE-EE, EB eta EAK zuzenketa bat adostu, eta Alardeetako gatazkaren inguruan Eusko Legebiltzarreko Emakume eta Gazteria Batzordera iritsiko ziren agente sozialen proposamenak aztertzea onartu zen. Hala ere, proposamenak ez zuen ezer esaten lan talde parlamentarioaren sorreraren inguruan, nahiz eta hori izan BAEren eskaeretako bat. EAJk kontra bozkatu zuen berriro ere, eta PP abstenitu egin zen. Hori ikusita, esan dezakegu EAJren eta PPre jarrera aldatu zela legebiltzarrean; izan ere, emakumeak Alardeetan irtetearen aldeko aurreko proposamenak onartu zituzten. Bestetik, 1999ko azaroan ETAk urtebete lehenago

⁵⁶⁶ Luis Caldevilla, “Emakunde insta a los poderes públicos a defender la igualdad en los Alardes”, *El Diario Vasco*, 1999/10/14, 10; Luis Karlos Garcia, “Alardeari buruzko konponbide adostuak lortzeko estrategia iragarri du Arteagak”, *Egunkaria*, 1999/10/14, 15; C. G., “«Nuevas estrategias» en Hondarribia”, *Gara*, 1999/10/14, 12; Txaro Arteagari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketa eguna: 2021/01/27 (pasarte bat).

⁵⁶⁷ Joana Mugarrietakoa eta BAE, t.g., 1999/10/28; Jaizkibel Konpainia, “Jaizkibel konpainiako komisioren kideak oso minduta gaude”, 1999ko urria; Luis Caldevilla, “El Parlamento Vasco rechaza inmiscuirse en los alardes de Irún y Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1999/10/26, 12; Luis Karlos Garcia, “Alardeei buruzko lan talde berezirik ez dute sortu, kanpoko esku-hartzeak sahiestearren”, *Egunkaria*, 1999/10/26, 16; “PNV, EH, EA descartan crear una ponencia sobre los Alardes en Gasteiz”, *Gara*, 1999/10/26, 13; “BAE critica el rechazo de EH y EA a la creación de un grupo de trabajo sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1999/10/29, 17; Carlos Drona, “Colectivos de Hondarribia e Irun critican a PNV, EA y EH”, *Gara*, 1999/10/29, 11.

⁵⁶⁸ “«Dezepzionagarritzat» jo dute alardeei buruz EAK eta EHk Legebiltzarrean hartutako jarrera”, *Egunkaria*, 1999/10/29, 21.

iragarritako su-etena bertan behera utzi, eta handik bi hilabetera berriro ere atentatua egin zuen. Horrek, EH eta beste alderdien arteko harremana gaiztotu zuen eta Lizarra-Garaziko Hitzarmena eta beste hainbat akordio eten. EH koaliziotik Batzarre eta Zutik atera ziren.⁵⁶⁹

4.4. Indarkeria normalizatu zenekoa

Ikusi dugu 1996an lehertu zen gatazkak zer norabide hartu zuen, jokoan sartu ziren kolektibo, instituzio eta herritarren arteko indar korrelazioari esker. Herri-komunitatetik disidentzia kanporatzeak luzerako joango zen konfliktorearen oinarriak ere jarri zituen, eta bertan emozioek eta indarkeriak izan zuten papera ere azaltzen joan gara. Atal honetan, indarkeriaren espiralak nola egin zuen gora ikusiko dugu, horren normalizazioaren bidez, eta 2000. urtea inflexio puntu bat izan zela planteatzen dut, indarkeria maila altuaren ondorioz. Bestetik, hainbat indarkeria mota gauzatu zirela erakutsiko dut, eta batez ere, indarkeria ez dela neutroa frogatu nahi nuke. Indarkeriatzat hartzen dugun ekintza, berdina izanik ere, nork, nola, zer posiziotik eta zer arrazoirekin egiten den analizatzea beharrezkoa da.

1999. urte amaieran Irungo Kasinoak antolatutako konferentzia zikloa egin zen, Hondarribiko AFk eta Irungo Alarde tradizionalako Juntak babestuta. Bertan, Alardeen konfliktoa ikuspuntu juridiko batetik aztertzea zen helburua, eta batez ere, partikularren arteko erlazioetan berdintasun eta askatasun kontzeptuak analizatzea. Hitzaldi horietan oinarrituta liburu bat kaleratu zen; auziaren egoeran jadanik aipatu dugu eta Alardeen pribatizazioei bultzada eman zien. Adierazgarriena da *El Diario Vasco* egunkariak hitzaldi bakoitzaren orrialde bateko kronika publikatu zuela, berebiziko pisu eta garrantzia emanaz, eta guztira, egun ezberdinetan ia zazpi orrialde oso dedikatu ziotelarik konferentzia ziklo horri.⁵⁷⁰

⁵⁶⁹ BAE, Jaizkibel Konpainia eta Joana Mugarrietakoa, “A la comisión de mujer y juventud del Parlamento Vasco”, 1999ko azaroa; “PP y PNV rechazan que la Cámara vasca intermedie en los Alardes”, *El Diario Vasco*, 1999/10/30, 10; Luis Karlos García, “Agente sozialen proposamenak jasotzeko gertu dela dio Legebiltzarreko bilkurak”, *Egunkaria*, 1999/10/30, 17; Carlos Drona, “El Parlamento valorará las propuestas de los implicados en los Alardes”, *Gara*, 1999/10/30, 11.

⁵⁷⁰ “Un ciclo de charlas aborda desde una visión jurídica el conflicto de los Alardes”, *El Diario Vasco*, 1999/11/07, 21; “El derecho de asociación garantiza poder determinar «qué personas forman el grupo»”, *El Diario Vasco*, 1999/11/09, 16; “El Alarde mediático se ha movido «entre la prudencia y el tratamiento como espectáculo»”, *El Diario Vasco*, 1999/11/11, 22; “El problema de fondo de los Alardes «es un

Handik egun gutxitara EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren berria iritsi zen, eta bertan 1998an Juana Mugarrietakoa kolektiboak jarritako errekurso bat atzera botatzen zuen. Juana Mugarrietakoa kolektiboak udalari eskatu zion Alardea antolatzea, eta horrela ez bazen, kolektiboari uztea ardura hori. Alkateak uko egin zion eskaera horri, eta horren kontra jarri zuten errekurtoa. Oraingoan, erabaki hori legezkoa zela esan zuen epaitegiak. Hala ere, modu ezberdinetan eta kontrajarrian ere interpretatu zuten alkateak eta Juana Mugarrietakoak, eta horren adierazle dira *El Diario Vasco* eta *Gararen* lerroburuak: batetik, “El TSJPV no exige que el Ayuntamiento de Hondarribia sea el organizador del Alarde”, eta bestetik, “El TSJPV señala que la organización de los alardes no puede ser privada”. Alde batetik, Borja Jauregik zioen arrazoia ematen ziola eta ez zuela zertan udalak Alardea antolatu behar. Kontrara, Juana Mugarrietakoa kolektiboak udalak ez zuela Alardea antolatzeko obligaziorik ulertu zuen, baina nahiz eta esku pribatuetan egon Alardea, udalarekin zuen harremana argitzen zela eta publikoa izaten jarraitzen zuela. Beraz, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1998ko epaiak eragiten ziola, nahiz eta AFk antolatu. Horren harira, Hondarribiko Emakumeak, Alarde tradizionalaren aldeko kolektiboak, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren azken epaia azaltzeko hitzaldi bat antolatu zuen.⁵⁷¹

Testuinguru horretan iritsi zen Irungo Udalaren osaketan PSE-EE eta PPren arteko paktua, eta Alardeak kapitulu propioa zuen bertan. Elkarbizitzaren alde lan egitearen ardura hartzen zuten, eta horretarako Alardearen ordenantza aldatzea adostu zuten, udala eta Alardea bereiziz. Horren aurrean BAEk honako hau adierazi zuen:

“La asesora legal de colectivo Bidasoaldeko Emakumeak, María Luisa Agirretxe, señaló ayer que con la celebración de los dos alardes «se había alcanzado en Irún cierta paz social, que en caso de modificarse la ordenanza va a quedar rota. Cuando en su día se organizó el Alarde oficial, los disidentes fueron quienes se marcharon para organizar el Alarde tradicional. Si ahora nos dicen que no va a haber un desfile municipal, nosotros no vamos a organizar ningún Alarde.

malentendido de índole cultural»”, *El Diario Vasco*, 1999/11/12, 22; “«No hay un derecho fundamental a ser admitido en un Alarde privado»”, *El Diario Vasco*, 1999/11/12, 22; “La exclusión de las mujeres-soldado «está amparada por el derecho de asociación»”, *El Diario Vasco*, 1999/11/13, 16; “Terreno público y privado”, *El Diario Vasco*, 1999/11/14, 12; “La igualdad «no puede llegar a ahogar la expresión libre y mayoritaria de la fiesta»”, *El Diario Vasco*, 1999/11/10, 18.

⁵⁷¹ “El TSJPV no exige que el Ayuntamiento de Hondarribia sea el organizador del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1999/11/20, 10; Martxelo Diaz, “El TSJPV señala que la organización de los alardes no puede ser privada”, *Gara*, 1999/11/20, 12; “Charla explicativa sobre la sentencia del TSJPV en torno al Alarde”, *El Diario Vasco*, 1999/11/25, 21.

Participaremos en el que haya con absoluto respaldo legal, porque no queremos alentar la segregación ni perpetuar espacios discriminatorios».»⁵⁷²

Soluzioaz hitz egiten zutenean, gauza ezberdinez ari ziren. Alkatearentzat, kasu honetan, udala Alarde ofizialetik askatzea eta bakoitzak bere Alardea egitea zen, ageriko istilurik gabe. BAEk, ordea, ez zuen Alarde propio bat egin nahi; Alarde bakar bat nahi zuen, udalak antolaturikoa eta parekidea. Izan ere, emakumeak baztertzen zituen Alarde baten existentzia soila ezin zen soluzioaren parte izan. Udalak Alardea antolatzeari uzten bazion, existitzen zen Alardean parte hartuko zutela adierazi zuten, beraz.

Abenduan Irungo epaitegietatik zetozen berriak, bi gertakari epaitu baitziren. Alde batetik, Jaizkibel konpainiako hiru kidek bost pertsonari jarritako salaketa, San Pedro kaleko tabernetara joaten ari zirela eraso eta iraindu zituztela zioena. Bigarrenik, zazpi emakumek Jaizkibel konpainiako zazpi kideren kontra jarritako salaketa, 1998ko Alarde egunean egindako giza tapoia indarrez pasatzen saiatu eta zauritu zituztelako. Lehenengo epaiketaren epaiaren berri ez dugu, baina bigarrenarena bai: zazpietatik bost isun altuak ordaintzera kondenatu zituzten. Horren aurrean emakume salatzaileak justizia minimo bat egin zela aitortu eta hurrengoa adierazi zuten.⁵⁷³

“(…) se hace «una mínima justicia a todos los hondarribitarras que a pesar de las continuas provocaciones, demostraron una serenidad y mesura propias de quien tiene la razón. Ningún participante en el Alarde contestó a las agresiones como lo demuestra la carencia total de denuncias por parte del grupo llamado Jaizkibel, por lo tanto queda demostrado quién realmente emplea la violencia para imponer sus criterios».»⁵⁷⁴

Deklarazio horietan zazpi emakume salatzaileak hondarribiar guztien ordezkari gisa azaldu zituzten, eta horiei justiziak arrazoi ematean hondarribiar guztientzako justizia

⁵⁷² “El nuevo Gobierno de Irún plantea desvincular al Ayuntamiento del Alarde”, *El Diario Vasco*, 1999/11/27, 16.

⁵⁷³ “Dos incidentes relacionados con el Alarde de Hondarribia se juzgan hoy en Irún”, *El Diario Vasco*, 1999/12/02, 14; “Piden multas de hasta 180.000 pesetas en los dos juicios sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 1999/12/03, 16; “Un millón de pesetas de multa por agresiones en el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 1999/12/15, 10; “Multas para cinco partidarios de un Alarde igualitario”, *Gara*, 1999/12/15, 17; “Las mujeres agredidas en el Alarde del pasado año reconocen que se ha hecho «una mínima justicia»”, *El Diario Vasco*, 1999/12/16, 19; “Las mujeres a favor del Alarde tradicional, satisfechas con la sentencia”, *Gara*, 1999/12/16, 15.

⁵⁷⁴ “Las mujeres agredidas en el Alarde del pasado año reconocen que se ha hecho «una mínima justicia»”, *El Diario Vasco*, 1999/12/16, 19.

minimoa egin zela esan zuten. Horrek balio digu herria nork eta nola gorpuztu zen eta gizonen aldeko emakumeek izan zuten garrantzia ikusteko. Indarkeriaren erabileraren eta kontzepzioaren inguruan ere eztabaida egon zen. Emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek eta kontrakoek, bakoitzak bere alde egiteko besteari egozten zion indarkeria erabiltzea, horrek legitimazioa eman edo kentzen ziolako. Euskal Herrian, euskal gatazkaren testuinguruan, indarkeriaren polemika oso presente zegoen, eta horrek ere baldintzatu zuen Alardeen gatazkaren inguruko indarkeriaren debatea. Indarkeria batzuk onartuagoak, normalizatuagoak edo ikusezinoagoak ziren, eta kasu horretan, Alarde tradizionalaren aldeko emakumeek indarkeria eta inposizioa nork erabiltzen zuten oso garbi geratu zela adierazi zuten, epai batean oinarrituta, gainera. Gai horrekin jarraituz, 2000. urte hasieran Juana Mugarrietakoa kolektiboak komunikatu bat atera zuten, bizitzen ari ziren egoera gordinaren berri emateko. Honela zioen:

“Los frecuentes destrozos de vehículos, insultos en la vía pública y establecimientos públicos se están viendo respaldados por el silencio cómplice de numerosos testigos que asisten a estos actos de vandalismo. Sin embargo, creemos que se ha llegado a una situación muy grave, ante la cual, ya no valen los argumentos de las mayorías para justificar este tipo de situaciones. ¿O es que fue en nombre de la mayoría del pueblo de Hondarribia que al amanecer del 1 de enero y en un local público, en la carpa de la Benta, unos valientes jóvenes de la ciudad agredieron a una joven hasta romperle la nariz, por el simple hecho de desfilar en la compañía Jaizkibel?”⁵⁷⁵

Ikusi dugun bezala, emakume batzuei eguneroko bizitza aldatu zitzaizkien 1996an Alardera sartu zirenetik, irain, mehatxu eta erasoen ondorioz. Jazarpena ez zen soilik haienganakoa izan, ingurukoei ere itsatsi zieten estigma, baita ordena zalantzan jartzen zuten edonori ere. Komunikatu horrek, ordea, urgentziazko deialdi bat egiten zuen, neska bati jai giroan Jaizkibeleko kide izateagatik sudurra puskatu ondoren. Horrez gain, indarkeriarekiko tolerantzia eta normalizazioa kezkarria zela adierazten zuen, eraso gertatu zenean inork ez baitzuen esku hartu eta udalak ez baitzuen inongo neurririk hartu edo adierazpenik egin. Horren aurrean, udalari eta instituzioei neurriak hartzea exijitu zieten, eta hori gertatzen ez zen bitartean prozesu judizialera jotzea,

⁵⁷⁵ Rosario Iraola (Juana Mugarrietakoa), “Clima de intolerancia social”, *El Diario Vasco*, 2000/01/21, 17.

autodefentsa taldeetan antolatzea eta prentsan salatzea beste aukerarik ez zutela adierazi zuten.

Otsaila hasieran iritsi zen Eusko Legebiltzarrak Alardeen gatazkari jarraipena egiteko lan talde bat sortuko zuenaren berria. Horrez gain, emakumeek gizonen pare Alardeetan parte hartzeko helburua izango zuen, eta horretan lanean hasiko zen. EAJ alderdia izan zen kontra bozkatu zuen bakarra, eta PP abstenitu egin zen. Izaskun Bilbaok bere alderdiaren ezezko botoaren arrazoia azaldu zuen:

“La parlamentaria nacionalista Izaskun Bilbao justificó su rechazo a la creación de una ponencia en el Parlamento Vasco y la promoción de una campaña institucional a favor de la participación de las mujeres en los alardes por entender que este conflicto «no supera el ámbito local y no debe ser abordado fuera del mismo». Bilbao consideró intervenir en esta problemática desde el Parlamento Vasco «no facilita una solución al problema» y subrayó que «violencia, intolerancia y agresividad se producen por ambas partes en el conflicto».⁵⁷⁶

Alarde tradizionalaren aldekoen tesiei jarraituz, Bidasoaldea kanpotik egindako esku hartzeen kontra lerratu zen. Gainera, konfliktuaren ardura bi aldeei bota, eta bakoitzaren indarkeria, intolerantzia eta agresibitatea parekatu zituen. Hondarribiko Emakumeak kolektiboa Eusko Legebiltzarrera bidalitako gutunean kanpo injerentzien kontra azaldu zen, eta manipulazioa eta oportunismo politikoa gaitzetsi zituen, horrek haien identitatearen desagertzea helburu zuela adieraziz. Martxoaren 8an, gainera, Alarde tradizionalaren aldeko kontzentrazioa burutu zuten Hondarribiko eta Irungo Emakumeak kolektiboek deituta, eta hau azpimarratzekoa da: “En el escrito se definen como «la representación real y mayoritaria de las mujeres de nuestros pueblos y exigimos que se nos considere y se nos respete como tales».”⁵⁷⁷ Martxoaren 8an kontzentrazioa eginez, emakumeen eskubideen aldekoak zirela esaten ari ziren, eta, emakumeak izanda, haien iritzi eta postura errespetatzea aldarrikatzen zuten.

Martxoan iritsi zen 1998an Juana Mugarrietakoa kolektiboak jarri zuen errekursoaren epaia, eta bertan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Ertzaintzak berdintasun eskubidea

⁵⁷⁶ Belen Barrio, “El Parlamento Vasco realizará un seguimiento de los alardes”, *El Diario Vasco*, 2000/02/09, 8; Joseba Vivanco, “El Parlamento de Gasteiz decide crear un grupo de seguimiento de los alardes”, *Gara*, 2000/02/09, 23.

⁵⁷⁷ “El «8 de marzo», un grupo de mujeres se concentró en favor del Alarde tradicional”, *El Diario Vasco*, 2000/03/10, 13.

urratu zuela adierazi zuen, ez ordea biltzeko eskubidea, Alardea ez zelako sartzen manifestazio edo aldarrikapenen jardutean. 1998an, gogoraztearren, Jaizkibel konpainiak baratzetatik abiatuz Gernikako Arbolarara sartzea lortu zuen, gainontzeko konpainiekin batera eta giza tapoiak gurutzatu ostean. Bertan, ordea, ertzainek Jaizkibelen inguruan hesi bat egin, eta ez zieten Alardera sartzen utzi, jendearen integritate fisikoa babestearren. Barne Sailak epaiaren aurka errekurtsioa aurkeztuko zuela adierazi zuen, Ertzaintzaren jardunaldiaren defentsa eginez. Bestetik, Balzak adierazi zuen Barne Sailak emakumeen parte hartzearen eskubidea barneratuta zuela, baina hori gauzatzeko baldintzak egotea ez zegokiola Ertzaintzari. Horretaz gain, honako hau esan zuen apirilean legebiltzarrean: “Añadió que considera «lícita» la fuerza policial presente y modificar la posición de la compañía Jaizkibel, establecer una separación o incluso cambiar el itinerario a realizar.”⁵⁷⁸ Hau da, poliziaren indarkeria erabiltzea bidezkoa eta legala zela zioen, segurtasuna eta ordena mantentze aldera.⁵⁷⁹

Testuinguru horretan, Irun eta Hondarribiko presbiterioko plenoak, hamabi parrokiak osatzen zutenak, hausnarketa bat kaleratzera behartuta ikusi zuten haien burua, eliztarrek hala eskatuta. Konfliktoan erdibidean geratzen zirela esan dezakegu, eta hau adierazi zuten:

“Así, «de la innegable igualdad del hombre y la mujer en su dignidad personal» no hay que sacar la conclusión «de la necesaria igualdad en el modo en que las mujeres han de participar en el Alarde. Igualmente, del innegable carácter histórico del Alarde», no debe concluirse «una intangibilidad del supuesto modo tradicional de celebrarlo».”⁵⁸⁰

Bidasoaldeko elizaren Alardeen konfliktoaren inguruko iritziak orokorrean elizak zuen genero kontzepzio eta ordenarekin bat egin zuen. Hau da, emakume eta gizonen duintasuna aldarrikatzen zuen, baina horrek ez zuen esan nahi Alardean parte hartzeko

⁵⁷⁸ Belen Barrio, “Balza confía en un acuerdo entre las partes que evite la actuación policial en lo Alardes”, *El Diario Vasco*, 2000/04/07, 14.

⁵⁷⁹ “La Ertzaintza hizo discriminación en el Alarde de Hondarribia, según el TSJPV”, *El Diario Vasco*, 2000/03/17, 14; “La Ertzaintza vulneró el derecho de igualdad en el Alarde de Hondarribia”, *Gara*, 2000/03/17, 1; Belen Barrio, “Interior recurrirá la sentencia sobre el Alarde de Hondarribia ante el Supremo”, *El Diario Vasco*, 2000/03/18, 8; Carlos Drona, “Interior tiene previsto recurrir el fallo judicial para defender la actuación de la Ertzaintza”, *Gara*, 2000/03/18, 14; “Un conflicto que se remonta a 1996”, *Gara*, 2000/03/18, 15; Joseba Vivanco, “Interior tomará medidas ante el Alarde según el clima social previsto”, *Gara*, 2000/04/07, 26.

⁵⁸⁰ “El presbiterio irunés pide un esfuerzo para recobrar la unidad del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/03/25, 11.

modu berbera izan behar zutenik, elizan bertan gizon eta emakumeek zuten parte hartze desberdinak bezala, adibidez. Horrek, hala ere, ez zuen esan nahi tradizio zena ezin zela aldatu, eta horrekin burura datorkigu elizak historian zehar izan dituen aldaketa guztiak, tradizio bat mantendu bitartean egin dituenak.

Berriro ere, geroz eta gutxiago geratzen zen 2000. urteko Irungo Alardera, eta hara begira jarri ziren. Alkateak ordenantza aldatzeko proposamena egin zuen, bere esanetan, errealitatera egokitzeko. Horrela, Alarde ofizialak udalaren medioak izango lituzke eskura Alardea antolatzeko, baina jenerala ez luke jada alkateordeak aukeratuko, eta ordutegi eta ibilbideak ez lituzke ordenantzak arautuko. Alardea egiteko konpainia kopuru minimoa hogeita bat izatetik, bost izatera pasako litzateke, eta gogoratu behar dugunez, Alarde ofiziala ez zen lehen kopuru horretara iristen. PPK positiboki baloratu zuen; EAJk nahikoa ez zela baina aurrera pausu gisa kalifikatu zuen, eta EHk Alarde tradizionalaren exigentziei men egitea egotzi zion alkateari. Irungo BAAk, ordea, adierazi zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ez zuela udala behartzen inongo Alardea antolatzera, eta ordenantzaren aldaketa Irungo gehiengoaren iritzia kontra egitea zela gehitu zuen. Horrez gain, Alarde ofiziala sexuarengatik baztertzaila ez bazen, orduan jeneraletik hasi eta kantineretaraino ere izan beharko lukeela iritzi zioten. Zentzu berean, EAJk zioen gehiengoak babesten zuen Alardeak lehentasuna izan behar zuela, eta horregatik, Alarde tradizionalak ohiko ordutegi eta ibilbidea berreskuratu behar zituela iritzi zuen.⁵⁸¹

EAJk, kasu horretan, eta gizonez osaturiko Alardearen aldekoek, orokorrean, gehiengoaren argumentua erabili zuten, beste batzuen artean. Gehiengoak emakume soldaduak Alardean nahi ez zituztenez, ezin zirela atera zen horien logika, eta gutxiengoa izanik emakume soldaduak nahi zituztenak, inposizio bat litzatekeela gehiengoak hori onartu behar izatea. Kaleko fronteak, adibidez, nazien svastikak erabili izan zituen, inposizio hori salatzeko eta herriaren kontra egiten ari zirela esateko. Horren aurrean, ordea, emakumeak Alardeetan ateratzearen aldekoek adierazi zuten guztia ezin zuela gehiengo batek erabaki edo gehiengo baten nahiaren arabera Eskubideak urratzen ziren kasuetan, adibidez, ezin zela gehiengo baten nahiaren arabera

⁵⁸¹ “El alcalde de Irún plantea modificar la ordenanza del desfile de San Marcial para adecuarla a la realidad”, *El Diario Vasco*, 2000/03/30, 9; “IBAA pide la adecuación de la Ordenanza del Alarde «al sentir mayoritario de los iruneses»”, *El Diario Vasco*, 2000/04/20, 12; “El PNV de Irún cree que «se debe dar prioridad» al Alarde mayoritario”, *El Diario Vasco*, 2000/05/10, 18; “El alcalde se reunirá próximamente con representantes de Alarde oficial”, *El Diario Vasco*, 2000/05/12, 20; “El alcalde de Irun asegura que las fiestas de San Marcial «se pueden vivir en paz»”, *Gara*, 2000/05/18, 30.

jardun uste zuten eta gehiengoak ezin zuela eskubideen inguruan erabaki, giza eskubideak eztaba daezinak izateak egiten baitzituen eskubide. Juana Mugarrietakoa kolektiboak ere judutarrak Hirugarren Reichean bezala sentitzen zirela adierazi zuen, haien kontrako indarkeria eta jazarpena salatzeke.

Egoera hori ikusita, Alarde ofizialeko Juntak prentsaurrekoa egin eta urte horretan ez zutela Alardetik antolatuko azaldu zuen, gatazkari irtenbidea bilatzeko balio ez zuela iritzita. Izan ere, irtenbidea Alarde bakarra, ez diskriminatzailea eta ez baztertzaila lortzea zen haientzat. Horrez gain, aurreko urteetan udalaren laguntza eskasa izan zutela salatu zuen eta bertan zeuden pertsonen helburua ez zela Alardea antolatzea. Aurreko urteetan Alardea antolatu bazuten, konponbidearen parte zelako egin zuten, eta momentu horretan bidea geldituta zegoela pentsatzen zuten. Hala ere, Alarde egunean ez zirela etxean geldituko adierazi zuten eta haien eskubideen defentsan jarraituko zutela. Mertxe Tranchek oroitzen du urtero eztabaidan ibiltzen zirela emakumeak Alardean ateratzearen aldekoak, zer egin, zer estrategia jarraitu eta beste gai batzuen inguruan:

“Eso empezó con el Alarde municipal, que duró tres años. Pero cada año ya empezó, desde el principio, el alcalde nos dijo: «vale, se va a organizar el Alarde municipal, es decir, nosotros lo vamos a pagar, vamos a poner los medios etc. pero no hay entrega de la bandera, no hay presentación de las cantineras y no hay nombramiento del general en el pleno». O sea las cosas que el ayuntamiento podía hacer para darle legitimidad, esas no estaban. Y además, poco a poco se fue avanzando, fueron cayendo más cosas, cada vez había más dificultades para conseguir locales. Cada vez había menos dinero, los betikos nos seguían mucho con el asunto del dinero. Y bueno, fue, siendo evidente, las calles vacías, las calles completamente vacías, las fotos son de flipar. Hay más, muchos más ertzainas que público. Había una serie de gente que no le parecía que ese era el camino, esa gente planteaba cada año un dilema. Un dilema muy fuerte, y nuestra idea siempre fue acertada o equivocadamente, hay que conseguir acuerdos. No podemos extinguirnos, no podemos sacar esto, no puede ser público que hay entre nosotras estos desacuerdos. Entonces, tenemos que seguir juntas y para seguir juntas

tenemos que conseguir acuerdos, y esos acuerdos muchas veces eran difícilísimos de conseguir.”⁵⁸²

Tranchek kontatzen digu nola urtero eztabaidak zituzten, testuingurua eta baldintzak aldatzen zirelako, eta batez ere, helburua, Alarde bakar eta parekidea zena, ez zutelako gerturaten ikusten. Horren aurrean, haien artean akordioetara iristea garrantzitsuen zela uste zuten, banatuta askoz zailagoa izango baitzen helburura iristea eta etsaitasunezko testuinguru horretan borrokan jarraitzea. Alarde ofizialeko Juntak prentsaurrekoa egin zuen egunean, Javier Balzak legebiltzarrean aurreikusi zuen urte horretako Irungo Alardean Ertzaintzak esku hartu beharko zuela; izan ere, alde desberdinak ez baziren akordio batera iristen, desordena nagusituko zen.⁵⁸³

Irungo Alarde tradizionaleko Juntak berehala adierazi zuen 2000. urtean ere beti bezala ospatuko zutela Alardea. Udala egin zuen egoeraren arduradun, eta hauteskunde kanpainako konpromisoak ez betetzea aurpegiaratu. Bestetik, Alarde ofizialeko Juntak jaia suntsitu besterik ez zuela nahi salatu zuen:

“Nunca ha estado en su ánimo el hacer Alarde; sólo exterminarlo. A lo largo de los últimos 25 años, en diversos momentos, han esgrimido varias razones para destruirlo, pero no lo han conseguido y ahora menos que nunca.”⁵⁸⁴

Azken hogeita bost urteetako hainbat momenturi egiten die erreferentzia komunikatuak. Hogeita bost urte atzera joanda 1975ean kokatzen gara, eta berriro ere, 1976ko Alarde eguneko gertaerak etortzen zaizkigu burura. Kontua da 1976ari erreferentzia eginez ez dakigula haien ustetan nor saiatu zen Alardea suntsitzen, Guardia Zibila edota atxilotetaren protesta gisa musika jo gabe, txapelak kenduta eta eskopeta eskuan desfilatu zutenak. Bestetik, pentsa daiteke 80ko eta 90eko hamarkadan antimilitarista eta intsumisoei egiten diela erreferentzia, eta azkenik, emakumeak Alardean ateratzearen aldekoiei, noski.

⁵⁸² Mertxe Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

⁵⁸³ “La junta del Alarde oficial declina organizar el desfile en las condiciones que propone el alcalde”, *El Diario Vasco*, 2000/05/26, 14; Belen Barrio, “El consejero de Interior cree que habrá conflicto en Irún si no hay dos desfiles”, *El Diario Vasco*, 2000/05/26, 14; Martxelo Diaz, “Emakumeen aldekoek ez dute aurtengo Irungo Alarde Ofiziala antolatuko”, *Gara*, 2000/05/26, 24; J. V., “Balza pronostica que la Ertzaintza intervendrá”, *Gara*, 2000/05/26, 24.

⁵⁸⁴ “La junta del Alarde tradicional de Irún anuncia que su desfile se celebrará «como siempre»”, *El Diario Vasco*, 2000/05/31, 13.

Hondarribian, berriz, Borja Jauregi alkateak legebiltzarraren aurrean konfliktoa konpontzeko herri kontsulta bat egitea proposatu zuen. Izan ere, ukatu egin zuen emakumeek Alardean atera ezin izateak oinarritzko eskubide baten urraketa suposatzen zuenik. Emaitza alde guztiek onartuz gero, horrek gatazkaren konponbidea suposatuko luke, baina gogoratu behar dugu hasieratik BAEk uko egin ziola erreferendum bat egiteari, haienezako ez baitzen gehiengo edo gutxiengo kontua. Bide horretan, Jauregiren proposamena kritikatu zuen Emakundek, bi aukeretako bat demokratikoki legitimoa ez zenean ez zegoela kontsultarik egiterik adieraziz. Arartekoak ere herri kontsulta egitea onartezintzat jo zuen, gutxiengo baten eskubideak inoiz ezin baitziren gehiengo baten borondatearen esku utzi.⁵⁸⁵

Egun horietan AFren eta Juana Mugarrietakoa kolektiboaren artean elkarrizketa batzuk aurrera eramane zirela publiko egin zen, hiru egun ezberdinetan eta azken kolektiboak bultzatuta. Elkarrizketak aurrera eramateko AFren baldintzetako bat bertan parte hartuko zuten pertsonak Hondarribian jaiok izan behar zirela zen. Ekainean, Juana Mugarrietakoa kolektiboak adierazi zuen elkarrizketa horiek ez zutela fruiturik eman. Bere proposamena emakumeek konpainia guztietan desfilatzeko zuten eskubidea momentuz Jaizkibel konpainia Alardean sartuz bideratzea zen. Aldaketa gehiengoak nahi zuenean egingo zutela adierazi, eta momentu horretan baldintza hori betetzen ez zenez, ez zuten proposamena onartu AFko kideek.⁵⁸⁶

Irungo Alarde egunerako hilabete bat soilik falta zenean, Alarde ofizialaren Juntak bere horretan jarraitzen zuen, hau da, udalak Alardearen ordenantza ez bazuen betetzen, ez zutela Alardea antolatuko esanez. Beraz, adierazi zuten udalaren eskuetan zegoela Alarde ofiziala egitearen ardura. Horri jarraiki, EHk udalean mozio bat aurkeztu zuen, ordenantza betetzea exijituz, baina ez zen aurrera atera, EHko hiru zinegotzik bakarrik bozkatu zutelako alde. Bien bitartean, Alardealdia festa ospatu zuten Alarde tradizionalaren aldekoek, finantzaketa lortzeko eguna eta Alarde tradizionalaren inguruan giro ona sustatzeko helburuarekin. Ekaineko egun horietan emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek, BAEk eta Juana Mugarrietakoa kolektiboak bultzatuta,

⁵⁸⁵ Belen Barrio, "El alcalde de Hondarribia propone realizar una consulta popular en la localidad", *El Diario Vasco*, 2000/05/31, 13; Joseba Vivanco, "El alcalde de Hondarribia insiste en la consulta popular", *Gara*, 2000/05/31, 27; "El Ararteko reitera que un referendo sobre el Alarde «sería inaceptable»", *El Diario Vasco*, 2000/06/01, 9; "El Ararteko cree inaceptable una consulta sobre el Alarde", *Gara*, 2000/06/01, 23.

⁵⁸⁶ "Los colectivos enfrentados en torno al Alarde de Hondarribia se han reunido al menos en tres ocasiones", *El Diario Vasco*, 2000/06/02, 14.

Gasteiza martxa bat hasi zuten oinez, lehendakariari mezu bat helarazteko eta gatazkan inplikatu zedin eskatzeko.⁵⁸⁷

Testuinguru horretan, Irungo alkateak onartu egin zituen Alarde ofizialeko Juntak Alardea antolatzeko eskatzen zizkion baldintza batzuk. Esan bezala, Alarde ofiziala egiten ez bazen, Alardean desfilatu nahi zuten emakume batzuek Alarde tradizionalen sartuko zirela aldarrikatu zuten, eta hor sortu ahal ziren istiluen aurrean alkateak men egin zien Alarde ofiziala antolatzeko eskaerari. Jenerala udalak izendatuko zuen eta Alardea guztiz finantzatu. Ordutegien eztabaidan, ordea, ez ziren akordio batera ailegatu, nahiz eta Alarde ofizialeko antolatzaileek ordenantzaren arabera egingo zutela adierazi, hau da, ordenantzak araututako ordutegian. Alkateak, ordea, Alarde ofizialeko Juntak zabaldu zuen akordioa ez zela guztiz zuzena adierazi zuen eta oraindik ere udalak erabaki bat hartu behar zuela. Horrez gain, ordutegia Barne Sailaren esku zegoela azaldu zuen.⁵⁸⁸

Ordutegiaren gatazka izan zen nagusi ekaineko azken asteetan, baina beste gertaera batzuk ere izan ziren. 1998ko Irungo Alarde egunean Alarde ofizialeko kide baten kontra eraso bat egin eta lesioak eragiteagatik, pertsona bat multa bat ordaintzera kondenatu zuten. 2000. urtean ere Alarde ofizialeko Juntak publizitate “sektarioa” salatu zuen, komertzio eta erakusleihoak Alarde tradizionalaren aldeko tresna propagandistiko bihurtu zirela esanez, eta neutraltasunez jokatzeko eskatu zien. Eusko Legebiltzarrean, berriz, Alardeetan emakumeen parte hartzeari babes ematea adostu zen, tolerantzia eta lasaitasunerako deia eginez eta elkarrizketara bultzatuz, Alarde ez diskriminatzaile bat lortzera bidean. Bien bitartean, Hondarribian 2000. urteko Alardean Jaizkibel onartzeko lanean jarraitu zuten, tartean alkateari bilera bat egitea eskatuz. AFk

⁵⁸⁷ “El Pleno rechaza una moción de EH sobre la Ordenanza del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/06/02, 22; “EH aboga por el diálogo para los Alardes”, *El Diario Vasco*, 2000/06/03, 12; “El colectivo Irungo Betiko Alardearen Aldekoak celebra mañana la fiesta del Alardealdia”, *El Diario Vasco*, 2000/06/03, 16; A. L., “EH llama al diálogo ante el conflicto del Alarde”, *Gara*, 2000/06/03, 28; “La junta del Alarde oficial de Irún dice que la celebración del desfile «está en manos del alcalde»”, *El Diario Vasco*, 2000/06/04, 20; “Miles de bidasoarras participaron en la fiesta de Alardealdia 2000”, *El Diario Vasco*, 2000/06/05, 19; “EH cree que el resto de las fuerzas políticas pretende culpabilizarte de la suspensión del Alarde municipal”, *El Diario Vasco*, 2000/06/07, 16; “Defensoras del Alarde mixto inician hoy una marcha a pie hasta Vitoria”, *El Diario Vasco*, 2000/06/10, 13.

⁵⁸⁸ “El alcalde de Irún accede a cumplir parte de las peticiones de los integrantes del Alarde mixto”, *El Diario Vasco*, 2000/06/11, 14; “La Junta acepta la nueva oferta del alcalde para organizar el Alarde mixto”, *El Diario Vasco*, 2000/06/13, 14; “Acuerdo para organizar el Alarde oficial en Irún”, *Gara*, 2000/06/13, 21; “El alcalde de Irún niega que exista un acuerdo sobre el Alarde mixto”, *El Diario Vasco*, 2000/06/14, 7; Nagore Olkoz, “El horario que fije Interior determinará la celebración del Alarde mixto de Irún”, *Gara*, 2000/06/14, 26; “La asamblea del Alarde oficial de Irún ratifica la decisión de organizar el desfile”, *El Diario Vasco*, 2000/06/15, 15.

komunikatu bat atera zuen. Bertan zioten Alardeak ez zituela eskubideak urratzen, eta Jaizkibel konpainia urte horretan ere ez zela Alardean sartuko aldarrikatu zuten.⁵⁸⁹

Alarde bakoitzeko ordutegiari dagokionez, Irungo EAJk Alarde tradizionalari lehentasuna ematea eskatu zuen, gehiengoaren Alardea zelako. Hori eskatu eta hurrengo egunean Barne Sailak hartutako erabakia publiko egin zen: Alarde ofiziala 8:00etan aterako zen, eta tradizionala 9:15ean, ordu eta laurdeneko tartearekin, hau da, aurreko urteetako baino gutxiagorekin eta kontrako ordenarekin. Horren aurrean, Irungo Udalak kezka adierazi zuen, bere proposamena aurreko urteko ordutegiak errepikatzea baitzen eta Alarde tradizionalakoak izan baitziren kaltetuenak ezarpen berriarekin. Hori ikusita, bi Alardeei dei egin zien, ordutegiak batera adosteko. Gainera, Alarde tradizionalak ofizialaren ostean desfilatuz gero, tradizionala ikustera joaten zen jendea jada tokia hartzen egongo zen ofiziala pasatzen zen momentuan. Beraz, espazio berdinean Alarde ofiziala eta horren kontrako asko elkartuko lirateke. Ordutegi berri horiek ordena arriskuan jarri zutela antzeman zuten gizonez osaturiko Alardeen aldekoek, eta horregatik erreakzioa berriro ere handitu eta indarkeria aktibatu zuten. Horrek kalean ere erreakzioak eragin zituen, adibide bat jartzearren, ekainaren 22an Ama Xantalen konpainia mistoaren entsegu baten kontra objektuak bota, irainak oihukatu eta bidea oztopatzen saiatu ziren emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoak. Bestetik, Alarde tradizionalako Juntak ordutegia aldatzeko eskatu, eta hori lortzeko manifestazio baten deialdia zabaldu zuen. Manifestazioan EAJ, PSE-EE eta PPko zinegotzi batzuek parte hartu zuten, eta udal alderdi guztiek, EHk ezik, Javier Balzari ordutegia aldatzeko eskatu zioten.⁵⁹⁰ *El Diario Vasco* berriak momentuko egoeraren berri ematen zuen:

⁵⁸⁹ “Condenado por lesiones a una participante en el Alarde oficial”, *El Diario Vasco*, 2000/06/11, 26; “La Junta del Alarde Oficial de Irun denuncia «propaganda sectaria»”, *Gara*, 2000/06/11, 15; “La junta oficial pide neutralidad en la utilización publicitaria del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/06/13, 16; Belen Barrio, “La Ponencia del Parlamento apoya la participación igualitaria de las mujeres en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/06/14, 6; Jaizkibel y Juana Mugarrietakoa solicitan una entrevista al alcalde”, *El Diario Vasco*, 2000/06/18, 24; “Alarde Fundazioa piensa que en el desfile no se vulnera ningún derecho”, *El Diario Vasco*, 2000/06/21, 12.

⁵⁹⁰ “El PNV de Irún pide prioridad en los horarios para el Alarde tradicional”, *El Diario Vasco*, 2000/06/22, 14; “Los alardes de Irún arrancarán con una hora y cuarto de diferencia”, *El Diario Vasco*, 2000/06/23, 18; “El Ayuntamiento de Irún expresa su inquietud ante los horarios fijados para los dos alardes”, *El Diario Vasco*, 2000/06/24, 7; Arantxa Iraola, “Desfile mistoaren aldeko ordutegiak ebatzi dituzte Irungo Alarderako”, *Egunkaria*, 2000/06/24, 16; Nagore Olkoz, “El alcalde de Irun quiere reunirse con los alardes para consensuar horarios”, *Gara*, 2000/06/24, 28; “El Alarde tradicional de Irún pide un cambio de horarios y el oficial apela a la tolerancia”, *El Diario Vasco*, 2000/06/25, 9; “Agreden a los miembros a favor del Alarde mixto al ensayar el desfile”, *Gara*, 2000/06/25, 1; Aitziber Laskibar, “Ama Xhantalen konpainiari eraso egin diote Irunen, entseatzan ari zela”, *Gara*, 2000/06/25, 15; “Varios miles

“Cuando faltan sólo cinco días para la celebración de los alardes de Irún, la tensión parece haberse disparado. La resolución de la consejería de Interior sobre los horarios de arrancada de los desfiles ha sido mal recibida, especialmente por la junta y los mandos del Alarde tradicional, que han convocado para hoy una manifestación de protesta y han pedido que la decisión sea modificada. Desde que se dieron a conocer los horarios, los ensayos de algunas compañías mixtas se han visto alterados por insultos, empujones y lanzamiento de objetos.”⁵⁹¹

Egun horietan ere Euskal Herriko mugimendu feministak kanpaina bat hasi zuen emakumeek jaietan berdintasunean parte hartzea aldarrikatuz eta kanpainaren izenak Alardeei erreferentzia zuzena egiten zien: “emakumeok Alardeetan, emakumeok edonon”. Irungo Alarde eguna baino hiru egun lehenago, Balzak ordutegiak berretsi zituen, sententzia eta legebiltzarreko deklarazioetan oinarrituta. Horren aurrean, Alarde tradizionaleko Juntak haien Alardea hiru ordu laurden atzeratzea erabaki zuen, tarte gehiago utziz bi Alardeen artean. Haien esanetan, haien publikoa Alarde ofizialeko publikoarekin nahastea ekidin nahi zuten horrela. Bestetik, udalari kritika gogorrak egin zizkioten kanpainan hitz emandakoa ez betetzeagatik.⁵⁹²

Egoera horretan iritsi zen 2000. urteko Irungo Alarde eguna. Aurreko eguneko Arma-Ikuskatzea eta meza giro lasaian egin ziren, eta egun handirako ere hori eskatzen zuten udalak eta bi juntak. Uztailaren 1ko egunkarietako berriek Alarde eguneko jai giroa eta presentzia polizial handia azpimarratzen zuten. Izan ere, 200 ertzain inguruk eskoltatu zuten 800 kidek osaturiko Alarde ofiziala, kasko eta guzti. 7.000 gizonek osaturiko Alarde tradizionala itxaroten ari zirenek bizkarra eman zieten, eta etxeetako leihoak

de personas piden en las calles de Irún un cambio en los horarios de los alardes”, *El Diario Vasco*, 2000/06/26, 8; “El alarde tradicional reúne a miles de personas contra el horario”, *Gara*, 2000/06/26, 20; A. Castells, “El Ayuntamiento pide una reunión a Balza para modificar el horario de los alardes”, *El Mundo*, 2000/06/27, 2 (Vivir Gipuzkoa); “La Junta de Portavoces de Irun pide que se cambie la hora de los alardes”, *Gara*, 2000/06/27, 22.

⁵⁹¹ Itziar Otaño, “«Pido la serenidad que siempre han demostrado los iruneses»”, *El Diario Vasco*, 2000/06/25, 8.

⁵⁹² “Balza mantiene los horarios de salida de los alardes de Irún”, *El Diario Vasco*, 2000/06/28, 10; Aitzol Uriarte, “Alardeetan emakumeek parte hartzearen aldeko kanpaina”, *Gara*, 2000/06/28, 23; “La junta del Alarde tradicional decide retrasar tres cuartos de hora la arrancada de su desfile”, *El Diario Vasco*, 2000/06/29, 12; “Herrizaingo Sailaren erabakia errespetatzeko eskatu die Irungo alkateak herritarrei”, *Egunkaria*, 2000/06/29, 18; “Udalak Alardearen ordutegia errespetatzeko eskatu du”, *Gara*, 2000/06/29, 27.

itxita ageri ziren. Aurreko urtean bezala, Diana eta San Martzial mendiko ekitaldiak bereizita egin zituzten bi Alardeek.⁵⁹³

Lasaitasunezko eta istilurik gabeko Alarde eguneko berriek atal honen izenburua kontraesanean sartu dezakete. Baina, alde batetik, 200 ertzain inguruk jai bat eskoltatu behar izatea indarkeriaren normalizazioaren ebidentzia garbia da, eta bestetik, normalizazio horrek eta indarkeriaren inpunitateak egoera are larriagoak bultzatu zituenaren hipotesia planteatzen dut. Horren adierazle garbiena Alarde egun bezperaren gauean hemeretzi urteko gazte bat Donostiako ospitalean egun batzuek ingesatu behar izan zutela da, jipoi bat jaso ostean. EHk salatu zuenez, Jon Mikel Pikabeak emakumeak Alardean ateratzearen aldeko aldarri bat egin ostean, Alarde tradizionalaren aldekoek gazteari eraso zioten, eta hiltzeko zorian egon zen. Alarde ofizialeko Juntak herri akusazio gisa aurkeztuko zela iragarri zuen, eta erantzukizuna jipoi eman zutenek izateaz gain, egoera onartzen zutenek ere bazutela salatu zuen. Handik egun batzuetara Hondarribiko gizon bat atxilotu zuen Ertzaintzak, Pikabeari lesioak egitea egotzita. Deklarazioak egin ostean libre geratu zen, epaiketaren zain.⁵⁹⁴

Behin Irungo Alardea pasata Hondarribira begira jarri ziren. Jaizkibekek Javier Balzarekin biltzea eskatu zuen, Ertzaintzaren jardunbidea zein izango zen jakiteko, batez ere martxoan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak 1998ko Ertzaintzaren jardunak berdintasun eskubidea urratu zuela epaitu ostean. Horretaz gain, urtero bezala, Jaizkibel konpainiak Borja Jauregi alkateari eta Alardeko Juntari gutun bana bidali zien Alardean parte hartzeko eskatuz. Egun horietan Alardeko prestakuntzak martxan zeuden eta

⁵⁹³ “Los generales de los Alardes de Irún animan a disfrutar de la fiesta”, *El Diario Vasco*, 2000/06/30, 10; “Todos los aplausos para ellas”, *El Diario Vasco*, 2000/06/30, 22; “Listos para el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/06/30, 23; “Bi orduko aldearekin aterako dira gaur alardeak Irunen”, *Egunkaria*, 2000/06/30, 17; Estitxu Paskual, “Gora San Martzial!”, *Egunkaria*, 2000/06/30, 51; “Fiesta en Irún”, *El Diario Vasco*, 2000/07/01, 1; “El ambiente festivo y la fuerte presencia policial marcaron la fiesta grande de los iruneses”, *El Diario Vasco*, 2000/07/01, 18-19; “Satisfacción entre los organizadores de los dos alardes”, *El Diario Vasco*, 2000/07/01, 20; Joseba San Juan, “En agradecimiento al santo”, *El Diario Vasco*, 2000/07/01, 21; “En el calor de la fiesta”, *El Diario Vasco*, 2000/07/01, 24; “«Somos el Alarde oficial y no lo parece»”, *Gara*, 2000/07/01, 20-21.

⁵⁹⁴ “Un joven de Irún pasó tres días en la UVI tras recibir una paliza la víspera de San Marcial”, *El Diario Vasco*, 2000/07/05, 11; “EH responsabiliza a simpatizantes del Alarde tradicional de la agresión a un joven de Irún”, *El Diario Vasco*, 2000/07/06, 10; Arantxa Iraola, “Alardea dela-eta erasotu zuten Irungo gaztea, EHren ustez”, *Egunkaria*, 2000/07/06, 19; “El joven agredido en Irun evoluciona favorablemente”, *Gara*, 2000/07/06, 21; “Jipoiutako gaztearen kasuan herri akusazio gisa aurkeztea aztertzen ari da Alarde Ofizialeko Junta”, *Egunkaria*, 2000/07/08, 16; M. M., “La Junta del Alarde se plantea personarse en el caso del joven agredido”, *El País*, 2000/07/08, 5 (País Vasco); “Un detenido por la agresión a un joven durante las pasadas fiestas de Irún”, *El Diario Vasco*, 2000/07/14, 14; “Identificado uno de los agresores del joven de Irún”, *El Diario Vasco*, 2000/07/22, 9; “Un testigo identifica en el juzgado a un presunto agresor de Pikabea”, *Gara*, 2000/07/22, 19.

konpainietako kantinerak aukeratu zituzten, Barne Sailak Jaizkibel konpainiak Alardean desfilatzea bermatuko zuela esan zuenean. Horrez gain eta sententziak onartuz eta betez, Ertzaintzak Jaizkibelen entseguak kaletik egitea ahalbidetuko zuen. Jaizkibel konpainiak eta Juana Mugarrietakoa kolektiboak positiboki baloratu zuten Herrizaingo Saileko jarrera. Hala ere adierazi zuten Alardean ateratzeko eskubidea Ertzaintzak eskoltatu behar izateak atsekabetzen zituela.⁵⁹⁵

Hondarribiko Emakumeak taldeak abuztua erdialdean egin zuen prentsaurrekoan Emakunde salatu zuen, bere izenean eta Euskal Herriko mugimendu feministaren izenean firmatuta zegoen kartel batengatik. Bertan honako hau irakur zitekeen: “Euskal Herriko Jaiak, eta Alardeetan zer? Emakumeok edonon. Ni por tradición, ni por derecho... Sólo los hombres. ¡Sólo por cojones!” Probokaziotzat jo zuten eta gogoratu Alardeetan emakumeak parte hartzearen aldekoek ez zutela inola ere ordezkaten emakume hondarribiarren nahia. Handik egun batzuetara, ordea, Emakundek adierazi zuen kartel hori ez zela berea eta ez zuela inongo kanpaina komunikatiborik aurrera eramán Alardearekin erlazioan. Gatazka horren inguruan eta emakumeak Alardeetan berdintasunean ateratzearen alde lanean ziharduela gehitu zuen, baina elkarrizketa eta akordioak bultzatuz. Hala ere, Hondarribiko Emakumeak kolektiboak ez zituen hitz horiek sinetsi, Emakunderen logoa baitzuten kartelek. AFk komunikabideei bidalitako mezuak ere hautsak harrotu zituen, eta ondorioz, atzera egin behar izan zuen. Lehen mezuak honako hau zioen:⁵⁹⁶

“En el texto que «anuló en su totalidad», AF indicaba que sería de «total obligatoriedad» que el día del evento «se vista, por lo menos, de blanco con pañuelo rojo al cuello», y llevar la acreditación a la vista, para cuya obtención era

⁵⁹⁵ A. C., “Jaizkibel pide un encuentro con Balza para conocer cómo actuara la Ertzaintza en el Alarde”, *El Mundo*, 2000/07/15, 4 (Vivir Gipuzkoa); Arantxa Iraola, “Jaizkibel konpainiak Ertzaintzak Hondarribiko Alardean zer jarrera izango duen jakin nahi du”, *Egunkaria*, 2000/07/20, 17; “Las compañías convocan a sus componentes para elegir a sus cantineras”, *El Diario Vasco*, 2000/07/23, 14; “Interior permitirá este año que la compañía Jaizkibel desfile en el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2000/07/25, 9; “Herrizaingo Sailak bermatuko du Jaizkibelek parte hartzea alardean”, *Egunkaria*, 2000/07/25, 13; M. D., “Interior garantizará que las mujeres participen en el Alarde de Hondarribia”, *Gara*, 2000/07/26, 18; “Las compañías del Alarde eligen a sus cantineras”, *El Diario Vasco*, 2000/07/30, 24; “Elegidas cantineras del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/08/04, 15.

⁵⁹⁶ “Hondarribiko Emakumeak califica como provocativo el cartel de Emakunde sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/08/19, 8; Ainara Mendiola, “Emakundek egin afixa salatu du Hondarribiko Emakumeak taldeak”, *Egunkaria*, 2000/08/19, 15; Nagore Olkoz, “Hondarribiko Emakumeek Emakunde salatu dute”, *Gara*, 2000/08/19, 18; “Emakunde no ha realizado campañas sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/08/22, 14; “Emakundek gezurtatu egin du alardeaz kanpaina egin duela”, *Egunkaria*, 2000/08/22, 13; “Alarde Fundazioa de Hondarribia anula las exigencias a periodistas”, *Gara*, 2000/08/23, 16; “Hondarribiko Emakumeak insiste en sus críticas a la campaña de Emakunde” *Gara*, 2000/08/25, 15.

necesario abonar 2.000 pesetas «en metálico, en el momento de su recogida». El escrito advertía de que, en caso de que no se cumplieran estos requisitos, «no se les permitirá acceder al Alarde y/o serán sacados del mismo, tanto por la Guardia Municipal como por los componentes de las compañías y/o las personas encargadas de ello colocadas a lo largo del recorrido del Alarde».⁵⁹⁷

Guzti horren erdian iritsi zen Herrizaingo Sailaren erabakia, eta polemika handia eragin zuen. Izan ere, Jaizkibel konpainiak Alardea irekiko zuela erabaki zuen eta Ertzaintzak hori betearaziko zuela. Jakina denez, Alardeak ordena konkretu bat du eta Hatxeroen unitate bereziak irekitzen du, jarraian doazen konpainiek ere ezarritako segida bat dutelarik. Irunen gertatu bezala, Herrizaingo Sailaren erabakiak Alardea kontrolpetik kendu zietela suposatu zuen, eta, indarkeriaren normalizazioak ahalbidetuta, berriro ere ordena zalantzan jarri ondoren, hori berrezartzeko ahalegina indarkeriaren goranzko eskalada bidez egin zuten. Berri horren inguruan hitz egiteko bilera egin zuten Jaizkibel konpainiako kideek egun horretan bertan, baina ezin izan zuten bertatik nahi izan zutenean atera. Jaizkibelen kontrako 300 bat pertsona elkartu baitziren bilduta zeuden eskolaren kanpoan, eta nahiz eta istiluen kontrako Ertzaintza gerturatu, ordu batzuetan barruan harrapatuta geratu ziren, kanpoan “hil egingo zaituztegu” eta antzeko esaldiak oihukatzen zituzten bitartean.⁵⁹⁸

Hurrengo egunean ere, Hondarribiko eskolan Jaizkibelen entsegua hastear zela, ehunka pertsona bertaratu eta Jaizkibelen desfilea ekidin zuten. Horretaz gain, goizeko hiruak arte ez zutenez alde egin, eskola barruan harrapatuta geratu ziren zazpi ordu inguru. Nahiz eta Ertzaintza kanpoan egon eta Jaizkibeleko kideei eskolatuta ateratzea eskaini zieten, ez zuten nahi izan. Kanpotik “asesinos” eta “nosotros gritamos, no disparamos” oihukatzen zieten. Bertara hurbildu ziren kazetarien kontra egin zuten Jaizkibelen kontrakoek, besteak beste *Egunkariako* argazkilaria bost bat lagunek inguratu eta bertatik bota zuten, burua eta kamera hautsiko ziotenaren mehatxupean. *Gara* eta *El*

⁵⁹⁷ A. C., “Anulan la exigencia de pagar para cubrir el Alarde de Hondarribia”, *El Mundo*, 2000/08/23, 12.

⁵⁹⁸ Jon Uriarte Unzu, “Con fecha 30 de agosto de 2000 el Director de Seguridad Ciudadana del Departamento de Interior del Gobierno Vasco ha dictado resolución del siguiente tenor literal”, *Eusko Jaurjaritza/Gobierno Vasco*, 2000/08/30; “La compañía mixta abrirá el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2000/09/01, 1; “Interior resuelve que el Alarde de Hondarribia esté encabezado por la compañía mixta Jaizkibel”, *El Diario Vasco*, 2000/09/01, 6; “Increpan a los componentes de la Compañía Jaizkibel tras el ensayo”, *El Diario Vasco*, 2000/09/01, 7; “Ehunka pertsonak Jaizkibel konpainia inguratuta eduki zuten Hondarribian”, *Egunkaria*, 2000/09/01, 12; “Cientos de vecinos de Hondarribia acorralan durante horas a partidarios del Alarde mixto”, *El Mundo*, 2000/09/01, 1; “Defensores del Alarde tradicional atacan a la compañía Jaizkibel”, *Gara*, 2000/09/01, 1; “Defensores del Alarde tradicional sitian a Jaizkibel”, *Gara*, 2000/09/01, 15.

*Diario Vasco*ko argazkilariak karreteak entregatzera behartu zituzten. *Garak* hori salatzeke hurrengo eguneko azaleko argazki nagusiaren tokia zuri utzi zuen, barruan esaldi hau idatzita: “La fotografía que debía ilustrar esta página fue robada con violencia al redactor gráfico de GARA por partidarios del Alarde tradicional”.⁵⁹⁹

Jaizkibel konpainiak Ertzaintza eta alkatearen jarrera kritikatu zuen, setio horiek gertatzen utzi zituztelako. Egoerarekin kezkatuta zeudela ere adierazi zuten, eta honako hau azaldu: “(...) «se está llegando a unos grados de violencia mucho mayores que otros años», y que la ciudad vive una situación que calificaron de «fascismo puro y duro que es aceptada» por las autoridades municipales y policiales.”⁶⁰⁰ Ertzain batek eskola kanpoan *Egunkariako* kazetari bati adierazpen hauek egin zizkion: “(...) adierazi zion ezin zutela besterik egin, gehiago ez egiteko agindua zutelako. «Gainera, batzuetan eraso egiten digutenak babesteko batere gogorik ez daukagu» (...)”.⁶⁰¹ Azken esaldia adierazgarria da; izan ere, Jaizkibeleko kideak babestu behar zituzten, eta ertzainaren arabera haiek eraso egiten zieten. Pentsa dezakegu emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoek eraiki zuten irudia erreproduzitzen ari zela, hau da, etakideak zirenaren irudia, hain zuzen.

Eskolako gertaera horiek testigantza ia gehienetan ateratzen dira; gehienek gogoratzen dute gertatutakoa eta memorian iltzatuta geratu zaie. Garai hartan haurrak edo gazteak zirenek ere gogoan dute oraindik, eta Haizea Galarraga Lopetegik honela oroitzen ditu momentu horiek:

“97an zehazki ez dakit esaten baina nire oroitzapenak dira hasierako urtekoak. Ez dakit, egia esan asko ditut baina, adibidez ensaioekin lotuta. Ni ez nintzen joaten ensaiotara baina banekien bazeudela, orduan ni lagunekin edo geratzen nintzen eta beti nengoen beldurrez etxera iristean zer aurkituko nuen edo zer ez nuen aurkituko. Zeren gertatu izan zitzaidan etxera joan eta ama oraindik ez egotea

⁵⁹⁹ “Impiden el ensayo del Alarde por la calle de la compañía mixta Jaizkibel”, *El Diario Vasco*, 2000/09/02, 7; “Tentsioa Alardearen prestaketa egunean”, *Egunkaria*, 2000/09/02, 1; I. Petxarroman eta A. Mendiola, “Bi gautan jarraian inguratuta eduki dituzte Jaizkibelgoak alarde tradizionalaren aldekoek”, *Egunkaria*, 2000/09/02, 12; “Jaizkibel, acorralada de nuevo”, *Gara*, 2000/09/02, 1; Amaia Ugarte, “«Qué sucederá con nosotras mañana, el 8 de septiembre y en adelante?»”, *Gara*, 2000/09/02, 18.

⁶⁰⁰ A. Castells, “La compañía mixta acusa a la Ertzaintza y al alcalde de «amparar» las agresiones”, *El Mundo*, 2000/09/02, 2 (Vivir Gipuzkoa).

⁶⁰¹ I. Petxarroman eta A. Mendiola, “Bi gautan jarraian inguratuta eduki dituzte Jaizkibelgoak alarde tradizionalaren aldekoek”, *Egunkaria*, 2000/09/02, 12

eskolan zeudelako hor sartuta, inkluso gu ikastolatik gertu bizi gera eta ikusi fula guztiak. Holako gauza desatseginak.”⁶⁰²

Etxera iristean zer topatuko zuen pentsatzeak beldurtzen zuen, bere amak Jaizkibel konpainian desfilatzen baitzuen. Konkretuki, urte hartan zer aurkituko ez zuen, hau da, ama etxean egongo ez zenaren beldurrez itzultzen hasi zen etxera, pare bat egunetan eskolan harrapaturik geratu baitzen. Bestetik, eskola ondoan bizi zirenez, polizia kotxe eta fulak ikusteak ere urduritzen zuen. Presentzia poliziala handitzen joan zen gatazka piztu zenetik, eta geroz eta material gehiago zeramaten. Hau da, lehen urteetan ertzainek txapela eta borrarak bestetik ez zituzten; oster, 2000. urtetik aurrera, kasko, pilota eskopeta eta ezkutuak eramaten hasi ziren, alegia, istiluen aurka espezializatutako polizia bidali zuten. Festaren bueltan poliziaren presentziak, beste gauza askoren artean, festaren kontzepzioa eta bizitzeko era guztiz aldatu zituen, eta hori haurrengan ere nabaritu zen. Eneko Arzuaga Iridoi⁶⁰³ oso txikia zen urte horretan, eta oroitzen duen lehenetariko gauza bat polizia da: “Eta oroitzen naiz ematen zidan beldur bakarra zirela poliziak.”⁶⁰⁴ Idoia Zubeldiak ere oroitzen du bere semeak txikia zenean esaten zuena: “Harek behin baino gehiagotan esaten zidan «zergatik amaren ondoan beti daude poliziak? Zergatik daude poliziak? Hauek ez dira jaiak, hauek ez dira jaiak».”⁶⁰⁵ Gogoratu behar dugu Hego Euskal Herria Europar Batasunean pertsona bakoitzeko polizia kopuru handiena zuen lurraldea zela, NBEk gomendatutako kopurua baino askoz altuagoa.⁶⁰⁶

⁶⁰² Haizea Galarraga Lopetegiri egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/08 (pasarte bat).

⁶⁰³ Eneko Arzuaga Iridoi 1998an jaio zen Hondarribian eta urte horretan bertan atera zen bere ama Jaizkibel konpainian desfilatzen. Sei urte inguru zituela atera zen lehen aldiz kubero Jaizkibel konpainian eta ordutik urtero desfilatzen du.

⁶⁰⁴ Eneko Arzuaga Iridoi egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/17 (pasarte bat).

⁶⁰⁵ Idoia Zubeldiari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/10/08 (pasarte bat).

⁶⁰⁶ Iñaki Iriondo, “La CAV tiene el ratio policial más alto de la UE con 6,9 agentes por mil habitantes”, *Gara*, 2013/02/05, <https://gara.naiz.eus/paperezkoa/20130205/386290/es/La-CAV-tiene-ratio-policial-mas-alto-UE-69-agentes-mil-habitantes>; Danilo Albin, “Euskadi se mantiene como el lugar con más presencia policial de la UE pese al fin de ETA”, *Público*, 2018/01/16, <https://www.publico.es/espana/euskadi-mantiene-lugar-presencia-policial-ue-pese-eta.html>; Igor Santamaría, “El PNV recuerda a Loza que Euskadi es el territorio europeo con más policías”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2018/08/14, <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/politica/2018/08/14/pnv-recuerda-loza-euskadi-territorio/570001.html>; Mikel Segovia, “El Gobierno saca de País Vasco y Navarra a 1.724 policías, guardias civiles y militares desde 2011”, *El Independiente*, 2019/09/12, <https://www.elindependiente.com/politica/2019/09/12/el-estado-adelgaza-en-1-700-los-agentes-de-guardia-civil-policia-y-ejercito-en-euskadi-y-navarra/> [2021/08/24ean begiratua].

Irailaren 2an, Alarde tradizionalaren aldekoek manifestazioa burutu zuten Hondarribian, “Alardea pakean utzi. Herriak ez du barkatuko” emakumeek zeramatzaten pankartaren atzean. Hondarribiko BAAk antolatu zuen, eta Jaizkibelek urte horretan ere ez zuela Alardean parte hartuko ziurtatu zuten. Udaltzaingoak 12.000 pertsonak parte hartu zutela zenbatu zuen; beste iturri batzuek, 7.000-8.000. Zifra desberdinak badira ere, bat edo bestea, 15.000 biztanleko herri batentzat oso altua da. Aipatzekoa da Euskal Herriko Informatzaile Grafikoen Elkarteko argazkilariek protesta gisa manifestaziora ez joatea erabaki zutela, aurreko egunetako mehatxu eta erasoengatik. Horrela, *El Mundo*, *El País*, *Egunkaria* eta *Gara* egunkarien manifestazioaren berriak momentuko argazkirik gabe ageri ziren. *El Diario Vasco* izan zen bakarra mobilizazioaren irudiak atera zituen.⁶⁰⁷

Hurrengo egunean Jaizkibelek entseatzeko saiakera egin zuen berriz ere. Oraingoan, mila pertsona inguru konpainia mistoaren ibilbidearen hasieran jarri, errepidea moztu eta 300 metro besterik ez zieten utzi desfilatzen. Jaizkibel konpainiak ertzainez inguratuta hasi zuen bidea, eta parean eserita jarri ziren pertsonak sakabanatzen saiatu ziren. Horretan hamaika lagun atxilotu zituzten, bederatzi gizon eta bi emakume, eta hainbat identifikatu egon ziren. Tentsio handiko momentuak izan ziren, eta azkenean, ordu bete geldirik egon ostean, Jaizkibelek buelta eman eta entsegua amaitutzat eman behar izan zuen.⁶⁰⁸ Horrez gain, azken egunetan emakumeak Alardean ateratzearen aldekoen kontra erasoak eman zirela azaldu zuen *Gara* egunkariak:

⁶⁰⁷ “Varios miles de manifestantes en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2000/09/03, 1; Javier Peñalba, “Varios miles de personas se manifiestan en Hondarribia en apoyo del Alarde tradicional”, *El Diario Vasco*, 2000/09/03, 6; “«Alardea bakean utzi; herriak ez du barkatuko» leloarekin manifestatu dira betiko alardearen aldekoak Hondarribian”, *Egunkaria*, 2000/09/03, 1; A. Argoitia, “«Alardea bakean uzteko» eskatu dute milaka lagunek Hondarribian», *Egunkaria*, 2000/09/03, 10; “Miles de personas amenazan con impedir el desfile de mujeres soldado”, *El Mundo*, 2000/09/03, 1 (Vivir Gipuzkoa); Xabier Garmendia, “Miles de personas advierten de que no permitirán «mujeres soldado» el día 8”, *El Mundo*, 2000/09/03, 2 (Vivir Gipuzkoa); “Varios miles de defensores del Alarde tradicional se manifiestan en Hondarribia”, *El País*, 2000/09/03, 1 (País Vasco); “La compañía mixta Jaizkibel invita a políticos y jueces a «resistir al fascismo»”, *El País*, 2000/09/03, 3 (País Vasco); “Manifestación multitudinaria en Hondarribia a favor del alarde tradicional”, *Gara*, 2000/09/03, 1; Martxelo Diaz, “Miles de personas marcharon a favor del Alarde tradicional”, *Gara*, 2000/09/03, 8.

⁶⁰⁸ “Impiden en Hondarribia el ensayo de la compañía mixta”, *El Diario Vasco*, 2000/09/04, 1; Javier Peñalba, “Más de un millar de personas impide por segunda vez el ensayo por las calles de Hondarribia de la compañía mixta”, *El Diario Vasco*, 2000/09/04, 7; “Once detenidos en Hondarribia tras boicotear el ensayo de la compañía mixta”, *El Mundo*, 2000/09/04, 1; “La Ertzaintza detiene a 11 personas en el ensayo de la compañía mixta”, *El Mundo*, 2000/09/04, 1 (Vivir Gipuzkoa); Fernando Alvarez, “Once detenidos en Hondarribia por boicotear el ensayo de la compañía mixta”, *El Mundo*, 2000/09/04, 2 (Vivir Gipuzkoa); “La compañía mixta del Alarde no puede ensayar”, *Gara*, 2000/09/04, 1; Martxelo Diaz, “Miles de personas impidieron a la compañía Jaizkibel desfilar en el ensayo del Alarde”, *Gara*, 2000/09/04, 9.

“Honez gain, zenbait eraso ere jazo dira Alardearen inguruan pizturiko eztabaida eta ika-mikak direla eta. Horrela, Hondarribiko biztanle bati autoa margotu zioten, bandera espainiarra ipiniz, larunbat gauean. Herrian abertzaletzat hartua den pertsona honi, gainera, «faxista» iraina idatzi zioten ibilgailuaren sabaian.”⁶⁰⁹

Jaizkibeleko kideek, zegoen indarkeria giroa ikusita, azken entsegua bertan behera uztea erabaki zuten, jasanezina baitzen egoera. Alarde egunari begira konpainiak eta Barne Sailak bilera bat egin zuten, baina Jaizkibeleko bozeramailea zen Maria Luisa Agirretxek hau adierazi zuen: “Sentsazioa dugu ez gaituztela babesten haiek babestuko lituzketen bezala, gure lekuan izango balira”. Hala ere, irailaren 5ean entseguen azken saiakera egin zuten, baina berriro ere bidea oztopatu eta Ertzaintzak Jaizkibelen kontrako beste hamaika pertsona atxilotu zituen. Oraingoan, bi mila pertsona inguru gerturatu ziren bidea ixtera, eta ordu bete blokeatuta izan ondoren, buelta emateko bidea ireki zieten. Jaizkibel konpainia hasierako puntura itzultzera bidean musika jotzen hasi zenean, berriro ere bidea itxi zieten, eta musika jotzeari utzi ziotenean bakarrik utzi zieten jarraitzen.⁶¹⁰

Egoera horren aurrean Eusko Legebiltzarreko alderdiek deklarazio instituzional bateratu bat egin zuten. Bertan, lasaitasun, tolerantzia eta errespetura dei egin, eta salatu zuten Jaizkibel konpainiako kideak irainduak eta mehatxatuak izan zirela, baita eraso egin zietela ere. EHk Alarde egunerako kontzentrazio bat deitu zuen, Jaizkibel babestera joateko, eta honako hau esan zuen EAJren inguruan:

“También destacó Permach que «las fuerzas políticas llaman una y otra vez a EH a que haga construcción nacional de forma democrática y pacífica, pero si la

⁶⁰⁹ M. D., “Mehatxu eta erasoak izan dira”, *Gara*, 2000/09/04, 9.

⁶¹⁰ “La compañía Jaizkibel suspende un ensayo ante nuevos incidentes”, *El Diario Vasco*, 2000/09/05, 1; Javier Peñalba, “Jaizkibel suspende un ensayo del Alarde ante la reiteración de los incidentes”, *El Diario Vasco*, 2000/09/05, 9; I. Petxarroman, “Alardeen segurtasuna aztertuko dute gaur Jaizkibel konpainiak eta Herrizaingoak”, *Egunkaria*, 2000/09/05, 11; “La compañía Jaizkibel tampoco pudo ensayar ayer en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2000/09/06, 1; Javier Peñalba, “La Ertzaintza detiene a otras once personas en Hondarribia por impedir el ensayo de Jaizkibel”, *El Diario Vasco*, 2000/09/06, 8; Ainara Mendiola, “Eragozpen handiekin lortu du Jaizkibel konpainiak kalean desfilatzea”, *Egunkaria*, 2000/09/06, 1, 11; “Otros once detenidos en Hondarribia durante un nuevo boicot al ensayo de la compañía mixta del Alarde”, *El Mundo*, 2000/09/06, 1; “La Ertzaintza intentará garantizar que Jaizkibel desfile, pero evitará las cargas”, *El Mundo*, 2000/09/06, 1 (Vivir Gipuzkoa); Ainhoa Castells, “Interior se compromete a garantizar la participación femenina mediante detenciones”, *El Mundo*, 2000/09/06, 2 (Vivir Gipuzkoa); “La Ertzaintza no garantiza el último ensayo de Jaizkibel ante la presión de los partidarios del Alarde excluyente”, *Gara*, 2000/09/06, 1; A. Ugarte, “Jaizkibel tampoco pudo realizar el último ensayo”, *Gara*, 2000/09/06, 16.

construcción nacional que ellos quieren hacer está basada en la conculcación de los derechos de las mujeres, no estaremos con ellos».⁶¹¹

Ezker Abertzalearen eta EAJren artean nazio eraikuntzaren inguruan zituzten talketako bat Alardeko gatazka zela mahai gaineratu zuen Permachek. Hau da, EAJk eraiki nahi zuen herrian emakumeen eskubideak errespetatzen ez baziren, eta, beraz, emakumeak Alardeetan ateratzea galarazten bazitzaien, ez zirela nazio berberaz ari azaldu zuen. Gogorarazi behar dugu, gainera, momentu horretan jada Lizarra-Garazi Akordioa apurtuta eta bi alderdi horien harremanak hoztuta zeudela, borroka armatuaren ikuspegi desberdinak tarteko. Horren aurrean, EAJk EHri jarri zion Alarde egunean istiluak gertatuz geroko ardura. Fiskaltzak, Alarde Fundazioak jarritako errekurtsio bati jarraiki, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari, Alardea baino bi egun lehenago, Barne Sailaren erabakia bertan behera uzteko eskatu zion, zituen eskumenetatik kanpo geratzen zela argudiatuz. Jaizkibeleko kideek beldurrez zeudela adierazi zuten, eta ondorioz, batzuek haien etxeetatik kanpo lo egiten zutela salatu zuten. Horrez gain, Barne Sailak Ertzaintza giroaren arabera arituko zela adierazi zuen eta ezin zuela lehenagotik bermatu Jaizkibelen desfilea. Alkateak indarkeria alde batera uzteko eskatu zuen, baina Jaizkibelek Alardearen aurretik desfilea erabaki oker, desorekatu eta ezegokia zela esan zuen. Irunen bezala bi Alarde egitea irtenbidea izan zitekeela planteatu zuen. Alarderako egun bat falta zenean, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak AFren errekurtsioa atzera bota eta Barne Sailaren erabakia berretsi zuen.⁶¹²

⁶¹¹ “El PNV de Gipuzkoa responsabiliza a EH de posibles incidentes por convocar a sus bases”, *El Diario Vasco*, 2000/09/07, 7.

⁶¹² “Dirigentes institucionales y partidos llaman a la calma y tolerancia en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2000/09/07, 1; “Los grupos parlamentarios suscriben una llamada a «la calma y la tolerancia» para un Alarde en paz”, *El Diario Vasco*, 2000/09/07, 7; Javier Peñalba, “La Fiscalía pide al TSJPV que anule la decisión de Interior que permite a Jaizkibel abrir el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/09/07, 9; I. Petxarroman, “Jaizkibelek dio Herrizaingo Sailak ez duela bermatzen Alardean irten ahal izango dutela”, *Egunkaria*, 2000/09/07, 12; “Jaizkibel konpainiak dio Herrizaingo Sailak ez duela bermatzen Alardean irten ahal izatea”, *Egunkaria*, 2000/09/07, 1; “Alardean indarkeria baztertzeko eskatu du alkateak, arrazoa galtzea eragiten duelako”, *Egunkaria*, 2000/09/07, 13; I. de Iturriaga eta A. Castells, “La fiscal pide al TSJPV que revoque la decisión de que Jaizkibel encabece el Alarde”, *El Mundo*, 2000/09/07, 1-2 (Vivir Gipuzkoa); A. C., “EH y PNV entrecruzan duras críticas”, *El Mundo*, 2000/09/07, 3; A. I., “El alcalde de Hondarribia pide calma y serenidad ante el Alarde”, *El País*, 2000/09/07, 3; Martxelo Diaz, “Los integrantes de Jaizkibel se sienten «aterrorizados ante el clima de tensión»”, *Egunkaria*, 2000/09/07, 16; “El TSJPV dice que el Alarde debe abrirlo la compañía mixta Jaizkibel”, *El Diario Vasco*, 2000/09/08, 1; Javier Peñalba, “El TSJPV confirma la decisión de Interior que permite a Jaizkibel abrir el desfile”, *El Diario Vasco*, 2000/09/08, 2; “Aurten ere, tentsioz beteriko alardea izango da”, *Egunkaria*, 2000/09/08, 1; “Jaizkibelek alarde buruan desfilea behar duela berretsi du EAEko Auzitegi Nagusiak”, *Egunkaria*, 2000/09/08, 14; Ainara Argoitia, “Aurten ere tentsioz beteriko Alardea egingo dute hondarribitarrek”, *Egunkaria*, 2000/09/08, 15; “Jaizkibel intentará desfilar una vez más”, *Gara*, 2000/09/08, 16-17.

Testuinguru horretan iritsi zen 2000. urteko Hondarribiko Alardea. Egun horretako gertakariak beste urteetako Alardeetatik guztiz ezberdina egin zuten egun hura. Entseguetako dinamikak jarraiki, adierazgarriena Ertzaintzak 58 pertsona atxilotu zituela izan zen, eta berriro ere, Jaizkibel konpainia, eta beraz, emakume soldaduak Alardean desfilatu gabe geratu zirela, nahiz eta Ertzaintza hori ahalbidetzen saiatu zela esan. Jaizkibel konpainia Alardea Kale Nagusitik behera desfilatzeko momentuan kokatu behar zen, baina ehunka lagunak bidea itxi zuten lurrean eseriz. Hogeita hiru emakume atxilotu zituen Ertzaintzak, eta AFko eta Jaizkibel konpainiako kideekin hitz egiten saiatu zen ertzain-burua. Baina ez ziren inolako adostasunera iritsi; konpainia mistoak desfilatzeko inongo aukerarik ez zuela esan, eta Jaizkibel konpainiak buelta eman behar izan zuen, Kale Nagusi osoa Alarde tradizionalaren aldekoek hartuta baitzuten. Orduan, eserialdia egin zutenak altxa, eta Alarde tradizionalari bide eman zioten txalo artean. Guadalupeko desfilean ere saiatu ziren parte hartzen, baina berriro ere Jaizkibelen kontrakoek oztopatu, eta ondorioz, beste hemezortzi lagun atxilotu zituzten bertan. Arratsaldean gertaerak errepikatu ziren. Giza harresia eginez, hamazazpi pertsona atxilotu zituzten, eta oraingoan bi orduz ez atzera ez aurrera egon ostean, Alarde tradizionalak ibilbidea aldatu eta konpainia mistoa bakarrik utzi zuen.⁶¹³

Jaizkibel konpainiako bozeramaileek salatu zuten Ertzaintzak epaiek behartuta jardun zuela, baina gogo txarrez, eta ez zela inongo borondate politikorik egon konpainia

⁶¹³ “58 detenidos en un Alarde sin la compañía mixta”, *El Diario Vasco*, 2000/09/09, 1; Javier Peñalba, “El Alarde desfiló sin la compañía Jaizkibel, que fue bloqueada por tapones humanos”, *El Diario Vasco*, 2000/09/09, 2-3; Jorge Sainz, “Desfile entre nervios e incertidumbre”, *El Diario Vasco*, 2000/09/09, 4-5; J. Peñalba, “«La Ertzaintza ha actuado obligada por las sentencias aunque de mala gana»”, *El Diario Vasco*, 2000/09/09, 6; Jorge Sainz, “«Se ha demostrado que la gente del pueblo está con el Alarde de siempre»”, *El Diario Vasco*, 2000/09/09, 6; Jorge Sainz, “«Es un fenómeno social difícil de entender fuera del Bidasoa»”, *El Diario Vasco*, 2000/09/09, 7; Jorge Sainz, “Alegria, color y muchos aplausos”, *El Diario Vasco*, 2000/09/09, 8-9; “La fiesta en imágenes”, *El Diario Vasco*, 2000/09/09, 18-19; “Jaizkibeli eragotzi egin diote berriro desfilean parte hartzea”, *Egunkaria*, 2000/09/09, 1; I. Petxarroman eta A. Mendiola, “Alarde tradizionalaren aldeko ehunka lagunak desfilatzea eragotzi diote berriz Jaizkibeli”, *Egunkaria*, 2000/09/09, 14; Ainara Mendiola, “«Herrizaingo Sailaren erabakia betetzeko ez da borondate politikorik egon»”, *Egunkaria*, 2000/09/09, 15; “Erne, baina alai”, *Egunkaria*, 2000/09/09, 16; “La Ertzaintza no logra que desfilen mujeres en el Alarde pese a detener a 58 personas”, *El Mundo*, 2000/09/09, 1; A. Castells, “Cientos de mujeres boicotean a la compañía mixta”, *El Mundo*, 2000/09/09, 1 (Vivir Gipuzkoa); “La Ertzaintza detiene a 58 personas pero no fuerza al Alarde a integrar a la compañía mixta en el desfile”, *El Mundo*, 2000/09/09, 2 (Vivir Gipuzkoa); A. C. eta M. M., “El PSE y EB-IU pedirán la comparecencia de Balza para que explique la actuación policial”, *El Mundo*, 2000/09/09, 3 (Vivir Gipuzkoa); A. C., “Jaizkibel se siente «engañada» por Interior”, *El Mundo*, 2000/09/09, 3 (Vivir Gipuzkoa); M. Mariscal, “«Esta situación es peor que la dictadura de Franco»”, *El Mundo*, 2000/09/09, 4 (Vivir Gipuzkoa); “La Ertzaintza no logra que las mujeres desfilen”, *El País*, 2000/09/09, 1; Mikel Ormazabal, “La Ertzaintza no logra hacer cumplir la ley e integrar a las mujeres en el Alarde”, *El País*, 2000/09/09, 28; “Jaizkibel no pudo desfilarse”, *Gara*, 2000/09/09, 1; Nagore Olkoz eta Martxelo Diaz, “Una sentada impidió desfilarse a Jaizkibel”, *Gara*, 2000/09/09, 22-23; “El reflejo de una jornada salpicada de emoción y rabia”, *Gara*, 2000/09/09, 24.

mistoak desfila zezan. Beñardo Lazkanotegi Alarde tradizionalako burgomaisua, ordea, pozik agertu zen, eta adierazi zuen herriak berriro ere demostratu zuela betiko Alardearekin zegoela. EHk istiluak EAJren ardura izan zirela salatu zuen; PSEk legebiltzarrak gertaturikoaren aurrean erreakzionatzeko beharra adierazi zuen, eta EBk Javier Balzaren agerraldia eskatu. Balzak alderdi politikoei egotzi zien konfliktoari konponbidea bilatzeko porrota, eta ontzat hartu zuen Ertzaintzaren jarrera. Juana Mugarrietakoa kolektiboak atxilotuen kontrako akusazio gisa, bere burua aurkeztea baloratzen ari zela adierazi zuen, baina fiskalak kasuen artxibazioa eskatu zuen, arau hauste penalik ikusten ez zuelako. Horrela gertatu zen, Irungo 3. Instrukzio Epaitegiak 2000. urteko Hondarribiko Jaizkibelen entsegu eta Alarde egunean atxilotutako 80 lagunen kontrako epaiketa artxibatu baitzuen.⁶¹⁴ Alardearen osteko egun eta asteetan Jaizkibelen kontrako indarkeriak jarraitu zuen, eta Maria Luisa Agirretzek salatu egin zuen:

“Hondarribiko jaiak amaitu diren arren, oraindik ere Jaizkibel konpainiako kideen eta haien jarraitzaileen aurkako indarkeria giroa «oso gogorra» dela salatu zuen Agirretzek. «Ezin ditugu zapaldu Hondarribiko kaleak», adierazi zuen. Horrez gain, jaietan zenbait herritarrek *Agirretxe heriotza*, eta *Zer eskatzen du herriak? Ixabelen burua* (Ixabel Alkain Etxeberria Jaizkibel konpainiako kapitaina zen) oihukatu zutela arbuiatu zuen Agirretzek berak. Herritarrak «beren onetik aterata» daude, Maria Luisa Agirretxeren arabera, baina nabarmendu duenez, horrek ez du eragotziko beren eskubideen aldeko borrokan «tinko» aritzea.”⁶¹⁵

Urrian, Txingudi eguna ospatzen ari zirela, taloak saltzen zeuden lau emakume hogeitortu pertsonen inguratu, eta irainka eta mehatxuka hasi zitzaizkien. Talo saltzaileak Jaizkibeleko kide ziren, eta “hasta que no os echemos a todas de este pueblo no vamos a

⁶¹⁴ “«Irtenbidea alderdi politikoetatik eta elkarrizketatik abiatu behar da», *Gara*, 2000/09/11, 13; Javier Peñalba, “La Ertzaintza remitirá hoy al juzgado los últimos atestados de los detenidos durante el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/09/12, 7; “Alardeari buruzko agerraldi-eskaera egin du Balzak Legebiltzarrean”, *Egunkaria*, 2000/09/12, 20; “Juana Mugarrietakoa estudia personarse como acusación contra los detenidos en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2000/09/13, 6; “Alardean atxilotuen akusazio izatekotan da Juana Mugarrietakoa”, *Egunkaria*, 2000/09/13, 1, 17; “Joana Mugarrietakoa estudia ejercer la acusación particular”, *Gara*, 2000/09/13, 23; Luis Caldevilla, “Balza acusó a los partidos del fracaso de una solución dialogada en el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2000/10/05, 10; Luis Karlos Garcia, “Ertzaintzak Alardean eginikoa txalotu du Balzak, «kargatzerik ez zegoelako»”, *Egunkaria*, 2000/10/05, 14; Carlos Drona, “Balza asegura que «nadie va a dar un pelotazo para resolver lo del Alarde»”, *Gara*, 2000/10/05, 21; “Abren 80 expedientes por los incidentes ocurridos en el Alarde de Hondarribia”, *Gara*, 2000/10/17, 21; “La Fiscalía pide que se archive la causa por los arrestos del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/10/21, 11; J. Peñalba, “El juez de Irún archiva las denuncias contra las 80 personas detenidas con motivo del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/10/24, 14.

⁶¹⁵ “Alardean atxilotuen akusazio izatekotan da Juana Mugarrietakoa”, *Egunkaria*, 2000/09/13, 1, 17.

parar” entzun behar izan zuten. Horrez gain, furgonetako atzerako ispiluak puskatu zizkieten.⁶¹⁶ Mariak gogoan du egun hori:

“Teníamos todo preparado, íbamos y con su carbón y estábamos esperando y yo: «va a pasar algo». De repente veo que empiezan a aparecer. Como la película de Hitchcock, la de los pájaros, ¿has visto? Empiezan a aparecer con los niños en brazos, y nos rodean en los talos. Y teníamos cola de la gente del barco que venía a comprar y «¡Putá! ¡Zorra! Marizikina! Hemendik kanpora!» Y yo le digo a una «ez pasa marra hau!», y «¡qué marra! ¡qué marra!», no había ninguna marra... y yo «marra hau ez pasa!» Ahora me río pero en el momento... Bueno, nos rompieron el retrovisor de la furgoneta. No se iban, cada vez más cerca del puesto, vinieron los municipales, consiguieron echarlas para atrás. Entonces vino Kontxi y: «no, es mejor que os vayáis», y digo: «no, es nuestro trabajo, los que se tienen que ir son ellos». O sea, nos defendíamos: «los que se tienen que ir ellos, nosotras no, nos habéis contratado. Es nuestro trabajo, que se vayan ellos». Se reunieron con ellos y nunca más nos llamaron. Yo, aún me acuerdo: «que se queden, pero nunca más». En todas las cosas incidieron, ¡fíjate cómo era todo! Todo el rato, todo el rato, decidían en tu trabajo, porque era nuestra forma de vida en aquel momento. Incidían en tu vida cotidiana, todo el rato.»⁶¹⁷

Hilabete horretan bertan Irungo neska batek Hondarribiko dantzaleku batean iraindu eta eraso egin ziotela salatu zuen. Urte horretan gertatutakoak oihartzun eta eragin handia izan zuen, eta ez soilik Bidasoaldean.⁶¹⁸

Behin emakumeak Alardean ateratzearen aldeko disidentzia herritik kanporatuta, hori mantentzeko mekanismoek aurrera jarraitu zuten. Urtero, Alarde egunetan emakumeen parte hartzea ekidinez, baina urtean zehar ere horiek desaktibatzen eta desmobilizatzen

⁶¹⁶ J. V., “Carpetazo institucional a la ponencia de los alardes mientras Jaizkibel denuncia nuevas agresiones”, *Gara*, 2000/10/11, 24.

⁶¹⁷ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

⁶¹⁸ Irailean Amnistiaren Aldeko Gestorak Donostian egindako manifestazio baten aurrean Basta Ya! mugimenduko kideek giza tapoi bat egin zuten horien aurka eta oihukatu zuten esaldietako bat «en el Alarde aprendimos» izan zen. Nahiz eta Gestorakek baimena izan mobilizazio horretarako lau ordu egon ziren blokeatuta, Ertzaintza bi taldeen artean kokatu zelarrik.

“Una joven de Hondarribia, partidaria del Alarde mixto, denuncia una agresión”, *El Diario Vasco*, 2000/10/20, 12; Arantxa Iraola, “Irungo Alarde ofizialeko Juntak neska bati egin eraso salatu du”, *Egunkaria*, 2000/10/21, 22; “El alarde mixto de Irun denuncia la agresión a una joven”, *Gara*, 2000/10/21, 29; “Manifestantes de Basta Ya cierran el paso a la marcha de Gestoras”, *Gara*, 2000/09/16, 16; Maite Ubiria, “Alarde unionista en la calle San Martín”, *Gara*, 2000/09/17, 6.

saiatzen ziren, horien jardun eta borroka bertan behera uzteko helburuarekin eta ordena haustearen arriskua guztiz ezabatzeko nahiarekin. Hauteskunderen bitartez emakumerik gabeko Alardeak, eta, beraz, genero ordena eta ordena sozialak gehiengoaren babesa zuela erakutsi zen, eta horrekin batera alderdi politikoek muga gutxiago izan zituzten ordenaren alde egiteko. Indarkeriaren bitartez ordena zalantzan jartzeko oraindik ere existitzen zen mehatxua neutralizatu zuten, normalizazio eta inpunitate handiarekin. Hala ere, ez zuten arriskua guztiz ezabatu. Izan ere, emakumeak Alardean ateratzearen aldeko mugimenduak existitzen eta borrokatzen jarraitu zuen, nahiz eta herritik kanpo Hondarribian eta beste herri bat eraikiz Irunen, *abjektuaren* esparruan, indarkeria handia jasanez eta alderdi politiko nagusiak kontra zituztelarik. Euskal Herriko mugimendu feministaren, herri mugimenduaren, Arartekoaren, Emakunderen, alderdi politiko batzuen eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren babesa zuten, nahiz eta azken horrenak gutxi iraungo zuen. Nolanahi ere, bistakoa zen arazoa oraindik hor zegoela.

5. Kapituluua. Ordena aldatzeko saiakera berriak (2001-2002)

5.1. Sarrera: komunitate *abjektuaren* potentzialtasunak

Indarkeriaren normalizazioak indarkeria mailaren igoera ahalbidetu zuela ikusi dugu; izan ere, apurtutako ordena berrezartzea horren bitartez egin zuten, beste mekanismo batzuekin batera. Emakumeak Alardeetan irtetearen kontrakoek indarkeriaren erabilera emozioen eta herri-komunitatearen defentsaren bitartez legitimatu zuten, eta botere publikoek horren aurrean ez zuten esku hartu. Gauzak horrela, erreakzioak hasieran martxan jarri zituen mekanismo eta estrategiak hein batean baliagarri zirela ikusi eta hobetu, moldatu eta berriak asmatu zituen, egoerari egokituz. BAE eta Juana Mugarrietakoa kolektiboak horren aurrean ere borroka aurrera eramateko saiakera berriak egin zituzten, nahiz eta haien kontrako indarkeriak askorengan eragin handia izan. Mariak Hondarribitik alde egin behar izan zuen, urruti eta urte batzuetarako, ezin baitzuen eguneroko egoera gehiago jasan:

“Nos asustamos mucho, mucho. Pasamos mucho miedo pero lo bueno es que hemos resistido, que cada ocho, pum. Bueno, yo, personalmente, me tuve que ir del pueblo. Me fui durante unos años porque ya no podía más. (...) no podía salir a la calle, todo el mundo me insultaba. Todo el mundo aprovechó la ocasión para insultar: niños, adolescentes, viejos, mayores, las portuarras y decidí irme. No quería volver, no quería volver.”⁶¹⁹

Eguneroko bizitza aurrera eramateko ezintasunak eta beldurrak bultzatu zuten alde egin behar izatera, baina beste emozio bat aipatzen du pasarte honetan:

“Mira, te voy a decir una cosa, yo, la primera vez que oí a una de las nuestras «¡qué asco me dan!», yo le dije: «¡ay! no digas eso». Yo todavía no había empezado a sentir eso. O sea, no sentía todavía «¡qué asco me dan!». Cuando lo pronuncié yo, hora de irse. Asco sentía cuando veía a toda esa gente, asco. Claro que me siento del pueblo, a ver. Pero consiguen hacerte no sentir, por el maltrato que recibes. Te va minando, claro, y luego todo se ensalzó. Entonces ya, ¡todo te da tanto asco! Cuando la primera vez que dije la palabra «¡qué asco me dan!», mala señal, para mí, para mí. Pero no consiguieron. Consiguieron que nos dieran

⁶¹⁹ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

asco, pero no, no sentirme de aquí, del pueblo. Yo soy de aquí, de Hondarbi. Les guste o no.”⁶²⁰

Herri-komunitatetik kanporatuak izan ondoren, ordena berrezarri zutenekiko askok nazka sentitzen zutela azaltzen du. Mariari, ordea, hori entzuteak min ematen zion. Izan ere, haien herrikideengatik nazka sentitzeak guztiz bereizten eta urruntzen zituela uste zuen, eta haiek azken finean Alarde bakar batean eta batera desfilatu nahi zuten. Beraz, guztiok batera desfilatzeko ezin zuten nazka sentitu, edo oztopo bat bihur zitekeen helburua lortze aldera. Horretaz gain, Sara Ahmedek azaltzen du errepikapenaren bitartez nazka esanahi eta subjektuetara itsasten dela. Alardearen kasuan, «ze nazka ematen duten» behin eta berriz esateak ekintza konkretu bat egin ahal izan zuten pertsoneri erreferentzia egitetik komunitate oso bati erreferentzia egitera pasa zen, herriak nazka emateraino. Horren ondorioetariko bat, nahiz eta Mariak esan beregan ez zutela lortu, herritar ez sentitzea zen, eta hori ordena berrezarri nahi zutenen garaipentzat zuen. Behin arriskua herritik kanporatzea lortuz gero, disidentzia neutralizatzea errazagoa izango zitzaien. Herritarrak ez baziren, zergatik eman herriko errito batean parte hartzeko eskubidea?

Beste aldetik, ordea, emozio konpartitua izateak, nazka kasu horretan, komunitate *abjektuaren* sorrera edo eraikuntzan lagundu zuen, baina baita ere herri-komunitatetik gehiago bereiztea: “(...) genera una comunidad de aquellos que están ligados a través de la condena compartida de un objeto o sucesos repugnante.”⁶²¹ Maite Iraolaren testigantzaren pasarte honekin azaldu dezakegu nazka nola itsatsi zen herriko beste esparru batzuetara. Berdea Hondarribiko kolorea da, eta batez ere estropadak zeudenean, jendeak berdez janzteko edo zapi berdea eramateko ohitura zuen:

“Yo verde vamos, me da alergia. Mientras no quiten a toda esta gente, que todavía siguen ahí, que son unos dinosaurios, y siguen ahí todos, no los quitan, yo desde luego, a mí, el este verde... A mí esos me han hecho mucho daño. Yo, por ejemplo, no me puedo poner un pañuelo verde. Hay gente que no entiende. Es una cosa que no puedo decir libremente que yo nunca me voy a poner un verde mientras esté esta gentuza, porque para mí es una gentuza. Me han hecho mucho

⁶²⁰ Ibidem.

⁶²¹ Sara Ahmed, *La política cultural...*, 133-159.

daño. Yo, no me voy a poner, y me va a costar. Mucho tendría que cambiar. Es que es lo mismo.⁶²²

Maite Iraolak arraunlariei egiten die erreferentzia, eta Alardearen konfliktoan horietako batzuek izandako jarreragatik kolore berdeak eta zapi berdeak alergia edo ezinikusia eragiten ziola dio. Horrela, Alardeak sorturiko emozioak beste elementu batzuei itsasten zitzaizkien, arraun elkarteari kasu horretan edo EAJ alderdiari nagusiki. Bizitako indarkeriak ere asko laguntza psikologikoa behar izatera eraman zituen, Maria Jesus Berrotaran Etxeberriaren hitzek azaltzen duten bezala:

“Nik momentu hartan gaizki pasa nuen, lau urte pasa nituen oso gaizki, 2000. urtean laguntza psikologikoa izan nuen. Zeren hasieran egiten duzu postura bat hartu eta bueno «aquí voy yo» eta bale, baina horrek zenbat irauten du? Egin behar duzu bertan lana, egunez eta gauez, doble turno eta gainera errespetua jarri behar duzuna eta etortzen ziren «zuregatik herria dena izorratu da zuregatik» eta horrela.»⁶²³

Ikusten goazen bezala, konfliktoak ondorio kolektibo zein pertsonal asko eragin zituen; gatazkak Bidasoaldea guztiz aldatu zuen, baita bertako herritarrak ere. Hala ere, emakumeen parte hartzearen alde borrokatu zuten elkarrizketatuetako gehienek gatazkak kendu baino gauza gehiago eman zizkiela uste dute. Harrotasun sentazioa konpartitua da; konfliktoaren alde zuzenean lerrokatu zirenaren uste osoa dute, eta horrek sortu dezakeen osotasuna handia da. Testigantzek esperientzia eta egoera desberdinak erakusten dizkigute, baita momentu gogor eta bortitzen artean erresistentziarako indarra eman zizkieten elementuak ere:

“Entonces Oihana decía: «yo, de un día para otro, no tenía a quién llamar, no podía salir a la calle, no tenía ni un amigo. Ni un amigo a quien llamar». Entonces eso, cuando tienes veintipico años, es demoledor. Es demoledor. ¡Hombre! y ahí BAE sustituyó a las cuadrillas, a las familias, a todos. (...) También ha sido fantástico. Por ejemplo, yo que había vivido el lesbianismo en la absoluta soledad. Para mí, el Alarde, de repente encontrarnos todas, y había un montón de lesbianas

⁶²² Maite Iraolari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/18 (pasarte bat).

⁶²³ Maria Jesus Berrotaran Etxeberriari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/10/09 (pasarte bat).

y reconocerse y vivirlo de otra manera. Fue, no te voy a decir una salvación, no, tampoco, pero fue glorioso, glorioso.”⁶²⁴

Harreman asko amaitu zirela baina berriak egin eta BAE, Jaizkibel edo Alarde mistoak aurrekoak ordezkatu zituela azaltzen du Tranchek, komunitatea sortu zutela emakumeak Alardean ateratzearen alde borrokan zeudenek. Harreman berri horiek esperientzia konpartitu batetik sortu ziren, baina aurretik bizi esperientzia berberak izan arren ere elkar ezagutzen ez zen jendea elkartu zituen Alardearen gatazkak. Sortu ziren sare sozialak beste borroka edo bizi eredu bat aurrera eramateko hazi eta oinarriak izan zitezkeen.

Kontra zituztenak 2000. urteko azken hilabeteetan Irungo udal ordenantza aldatzen saiatu ziren. Lehenik eta behin, irailean 1997ko urrian Irungo alkatearen proposamenari jarraiki Alardeko ordenantza bertan behera uzteko erabakia atzera bota zuen EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak, prozedura akatsak zeudela argudiatuz eta EBk jarritako errekurtsioa onartuz. Aldaketa handirik ez zuen suposatzen; izan ere, 1998an auzitegi berberak behin-behineko ordenantzaren suspentsioa ukatu zuen, eta, beraz, baita Alardea ordenantzak arautu zituen azken urteetan ere.⁶²⁵

Azaro bukaeran Irungo Alarde tradizionaleko agintariak kontzentrazio baten deialdia egin zuten udaletxe aurrean, konfliktoaren irtenbidea aldarrikatzen, “Alardeak ez du promesa gehiagorik behar, irtenbideak eskatzen ditu” lemapean. Ordenantzaren aldaketa eskatu zuten; batez ere ordutegiari egiten zioten erreferentzia, eta horren inguruan herrian bertan erabaki ahal izatea exijitu zuten. Alderdi politikoek hauteskunde testuinguruan hartutako konpromisoak betetzea beharrezkoa zela esan zuten, EH izan ezik, guztiak Alardeen ordutegiak Irunen erabakitzearen alde lerratu baitziren. Horientzat gatazkaren konponbidea gehiengoaren nahia errespetatuz lortuko zen. EAJ-EAko zinegotziek bertan parte hartu zuten, eta hurrengo egunetan egingo zen udaleko plenoan ordenantza aldatzeko mozio bat aurkeztuko zutela azaldu zuten, bertan

⁶²⁴ Mertxe Trancheri egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

⁶²⁵ “El TSJPV anula el acuerdo del Pleno de Irún que suspendió temporalmente la Ordenanza del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/09/23, 18; “IU expresa satisfacción por la sentencia del TSJPV sobre la Ordenanza del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/09/26, 16; M. D., “El TSJPV suspende la derogación de la Ordenanza del Alarde de Irun”, *Gara*, 2000/09/26, 18.

ordutegiaren inguruko edozein arau bertan behera uzteko. PP eta PSE-EEko zinegotzien babesarekin aurrera atera zen proposamena.⁶²⁶

Egoera berri horren aurrean eta aurreko urteetako esperientzia eta ikaspenak kontutan harturik, BAE Alarde ofizialetik aldendu zen, eta bi Alarde egoteak herrian bizi zen zatiketa areagotzeko baino ez zuela balio izan adierazi zuen. Ordura arte Alarde ofiziala antolatzea konponbidera bidean tarteko pausu bat izateagatik babestu zutela azaldu zuen baina agortu zela jada. Udalarentzat soluzioa bi Alarde egotea baitzen, eta horrek errealitate hori betikotzea zekarren, erdibideko pausua beharrean helmuga izanda. Hala ere, Alarde egunean etxean geratuko ez zirela argi utzi zuten, borrokan jarraituko zutela. Eszenatoki berri bat ireki zen, beraz, estrategia eta norabide berriak asmatzeko garaia eta eztabaidatzen jarraitzekoa.⁶²⁷

5.2. Estrategia aldaketak

Urte berria iritsi zen, Irungo Alardeko ordenantzan aldaketak eginda eta BAEk Alarde ofiziala ez zuela babestuko esanez. Bestetik, gogorarazi behar dugu geroz eta handiagoa zela aurreko urteko indarkeria eta presentzia polizial handia, bai eta gatazka oso luze joaten ari zenaren sententzia ere. Bide berrien alde apustu egin nahi zuten askok, Alarde bakar eta parekidea lortze aldera, bi Alarde egotea ez baitzuten eraginkor ikusten, egoera hori betikotzearen beldurra zutelako. Mertxe Tranchek honela azaltzen du:

“Entonces, por un lado, la vía jurídica ya no daba para más. Por otro lado, estaba claro que el ayuntamiento cada vez nos apoyaba menos. Por otro lado, teníamos a las que no querían hacer el Alarde municipal todo el rato comiéndonos la oreja, y ya hubo un momento en el que la gente que más o menos reflexionábamos y que nos reuníamos y tal, porque luego estaban las asambleas que venía la gente, y estaba el núcleo que pensaba que había que dejar. Porque lo que habíamos hecho

⁶²⁶ “Los mandos del Alarde tradicional convocan una concentración”, *El Diario Vasco*, 2000/11/25, 16; “Cientos de iruneses reclamaron un cambio en la ordenanza del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/11/27, 11; “PNV-EA presentará al Pleno una moción para modificar la Ordenanza del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/11/28, 16; “PNV y EA de Irún piden un cambio de la Ordenanza para que los horarios del Alarde se decidan en pleno”, *El Diario Vasco*, 2000/11/29, 11; “Moción de PNV-EA para «fijar desde Irun» el horario del Alarde”, *Gara*, 2000/11/29, 24; “El equipo de gobierno de Irún y PNV-EA acuerdan cambiar la Ordenanza del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2000/11/30, 15; “Ordenanza sin horarios”, *El Diario Vasco*, 2000/12/01, 20.

⁶²⁷ Amaia Ugarte, “Bidasoaldeko Emakumeak no colaborará con el Alarde municipal”, *Gara*, 2000/12/17, 15.

en esos tres años era amenazar todo el tiempo, decir: «¡oye! que dejamos de hacerlo, y si dejamos de hacerlo se te crea un problema de orden público porque las tías van a ir al otro Alarde, ¡oye! que dejamos de hacerlo». Y eso nos había funcionado, sobre todo para los horarios de Interior, etc. Nos había funcionado, pero llegó un momento en el que había que llevarlo a cabo, ¿no?»⁶²⁸

Barne eztabaidak mahaigaineratzen ditu: urtero Alardeari nola ekin eta zein bide hartu. Aurreko hiru urteetan bi Alarde egin ziren Irunen, baina helburu ezberdinekin babestu zuten aukera hori herriko aktore ezberdinek. BAErentzat, azaldu bezala, Alarde bakar eta parekidearen bidean tarteko pausu bat zen. Udalak sententzia betetzeko antolatzen zuen Alarde ofiziala, eta gehiengoaren nahia errespetatzeko Alarde tradizionala baimendu. Emakumeak Alardean ateratzearen aldeko askorentzat Alarde parekide bat egotea nahikoa zen emakumeen eskubideak bermatzeko, nahiz eta beste bat existitu gizonen osatuta bakarrik. Emakumeak Alardean desfilatzearen kontrako askorentzat haien Alardea bakean uzteko modu hoberena zen, eta elkarren artean inolako kontakturik ez egotea ahalbidetzen zuen. Azken horientzat Alarde parekidea ofiziala, diru publikoz finantzatuta eta ordenantzetako ordutegiaz araututa izatea zen arazoa, ikusten joan garen bezala. Tranchek azaltzen du nola udalaren aurrean nahi zutena lortzeko Alardea antolatzea uztearekin presio egiten ziotela, bi Alarde egonda kontrol eta ordena soziala mantentzea errazagoa baitzitzaion. Mehatxu horiek azken urteetan fruitu batzuk eman zituzten baina, BAEk nahikoa ez zela erabaki zuen. Horrekin, ordea, beste eztabaida bat sortu zen: ez bazuten Alarde ofiziala antolatzen, zer egingo zuten emakumeen parte hartzearen alde Irungo 2001eko Alarde egunean?

“Nik uste dut nire bizian izan ditudan eztabaida gogorrenak gure artean izan direla, Alarde mistoan. Nire bizian izan ditudan eztabaida gogorrenak, bortitzenak. Alardeari esker, jende pila bat ezagutu dut, hori argi dago, baina jende askorekin ere haserretu. Batzuk nahi genuen konpainian gelditzea eta beste batzuek nahi zuten Alardea montatu. Eta hori zen eztabaida. Batzuk konpainia montatu nahi genuela eta beste batzuk ez, Alardean sartu behar genuela edozein konpainietan, hori izan zen beste, baina kristona. Eztabaida oso gogorrak, oso gogorrak eta batzuk esaten zuten sartu behar genuela konpainietan eta punto, eta

⁶²⁸ Mertxe Trancheri egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

gertatzen zena gertatu zela eta beste batzuk esaten genuen edo konpainia bat antolatu behar genuela.”⁶²⁹

Behin erabakita Alarde ofiziala ez zela 2001ean egingo, apirilaren 24an alkatetzak Alarde ofizialaren antolatzaileei gutun bat bidali zien. Batetik, udalak eskatutako ikerketa soziologiko batean oinarrituz, bi Alarderen existentziaren alde egiten zuten. Ikerketa horrek konfliktoaren hasieratik herritarren posizioak oso gutxi aldatu zirela demostratzen zuten, nahiz eta “indiferente” gisa aurkezten zirenak geroz eta gehiago izan. Udalak horiek soluzioaren protagonista izango zirenen ustea zuten, gatazkaren bi aldeek, gizonez osaturiko Alardearen gehiengoak eta emakumeak Alardean ateratzearen aldeko gutxiengoak indarkeriazko jarrera zurruna zutelako. Egoera horrelakoa izanda, honako hau zioen gutunak:

“La única manera razonable de intervenir en esta situación sería, entonces, asegurar que esa mayoría quede dentro del orden de derecho. Esto parece implicar, necesariamente, el mantenimiento de la realización de dos alardes, mientras dure la situación de conflicto, a la vez que se ponen los medios necesarios para la negociación, quizá apoyándose precisamente en aquellos sectores de la población con una posición favorable a su solución y más o menos equidistante de las dos posiciones de litigio.”⁶³⁰

Hori azalduta, aurreko urteetako baliabide berberak eskaintzen zituela azaltzen zuten eta nahiz eta aitortu iraganeko erlazioak adeitsuak izan ez zirela, bake eta harmoniaren alde haien esanetara jartzen zela esanez amaitu zuten gutuna. Hala ere, emakumeak Alardean ateratzearen aldeko BAE eta Alarde ofizialaren antolatzaileek erabakia zuten ez zirela bi Alarde izango 2001ean, eta bi aukera nagusi planteatu ziren. Lehena, konpainia misto bat egin eta gizonez osaturiko Alardean sartzen saiatu, eta bigarrena, emakumeak edozein konpainiatan sartzen ahalegindu. Eztabaida gogorak eta haserreak oroitzen ditu Zubeldiak, asanblada luzeak eta kontsentsuz erabakiak hartzearen zailtasunak. BAEk eta Alarde bakar baten aldeko Plataformak ekainean proposamen bat luzatu zieten Alarde tradizionaleko agintariei: sortu berri zuten Oiasso izeneko konpainia mistoak Alardean desfilatzea eta jada existitzen zen konpainia batean emakumeak onartzea. Horretaz gain, udalari gogorarazi zioten Alarde tradizionala gizonez bakarrik osaturik

⁶²⁹ Idoia Zubeldiari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/10/08 (pasarte bat).

⁶³⁰ Alkatetza, “Carta de Alcaldía a organizadores/as del Alarde oficial”, 2001/04/24.

desfilatzea delitu izan zitekeela eta Alardea baimenduz gero ezin zuela baztertzaila izan. Azkenik, hau salatu zuten:

“Sobre el artículo que publicó un diario español en el que vinculaba a los partidarios de la participación igualitaria con la *kale borroka*, denunciaron que «es un intento claro de desnaturalizar el conflicto y pretende influir en el Tribunal Supremo. Es difamatorio y mentiroso, y pretende calentar el ambiente» (...) Por otro lado los integrantes de Oiaso denunciaron que en los últimos días han aparecido pegatinas en las que figura el nombre de la nueva compañía mixta junto a una bandera española en los centros de trabajo y en los domicilios de sus integrantes, entre otros lugares.»⁶³¹

Emakumeak Alardean ateratzearen aldekoen kontrako kriminalizazio saiakerak ez ziren berriak, eta oraingoan Alarde mistoa kale borrokarekin erlazionatu zuten. Kale borroka 1990eko hamarkadan eta batez ere 2000ean Ezker Abertzaleko gazteriak aurrera eraman zuten borroka praktika izendatzeko erabili zen, ekintza zuzenean eta sabotajeetan oinarriturikoa. Nahiz eta Hondarribian eta Irunen Alardeen konfliktoan ekintza horiek ez praktikatu, diskurtso hori zabaldu eta barneratu zen. Anderrek garai horretan hamabi urte inguru zituen, eta hau kontatzen du:

“Gero ere bai, pues karo, zure inguruan ematen dituzten argumentuak zeintzuk diren, etorri direnak. Orduan, orokortasun horrek nire buruan egin zidana da Alarde mistoa sinestea zerbait suntsitzea zetorrela esatea zeren azkenean begira, nik erlazionatzen nuen ere bai: ikusten zenuen teleberrian, telebistan, Donostin zer egiten dute garai horretan? Karo nago hitz egiten dena ba 97-2000 urte horietan. Zer ikusten zen telebistan Donostiko jaietan? Ikusten zen, hori, hartzen zutela kale borrokakoak, autobus bat hartu, denei esan autobusetik ateratzea, autobusa kale erdian gurutzatzea gehi gero basura batzuk ere bai eta azkenean koktel molotov batekin pum. Azkenean zen komo talde horrek nik erlazionatzen nuen etortzen zirela, herri guztietako jaietara beraien errebindikazioa egitera, bai presoak, bai Euskal Herriko hizkuntza, ez dakit.»⁶³²

⁶³¹ Amaia Ugarte, “Los colectivos por un Alarde igualitario exigen una respuesta a su propuesta”, *Gara*, 2001/06/26, 17; A. U., “La nueva compañía mixta Oiaso ya está constituida”, *Gara*, 2001/06/26, 17.

⁶³² Anderri (pseudonimo) egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/02/07 (pasarte bat).

Beraz, zabaldua zegoen emakumeak Alardean ateratzearen alde borrokatzen ari zirenak Alardea suntsitzera eta kanpotik etorritako HBko jendea zela. Horrez gain, Oiasso konpainiaren izena zeramaten pegatinak azaldu ziren egun horietan, espainiar banderarekin eta nazien “SS” tipografiarekin idatzita. Emakumeak soldaduz desfilatzearen aldekoak, eta kasu horretan, Oiasso konpainiakoak naziak zirela esaten ari ziren, inposizioarekin erlazionatuz. Kideen etxe eta lantegietan pegatina horiek agertzea mehatxu gisa kalifikatu dezakegu, eta mezu hau helarazten zuten: “Badakigu nortzuk zareten eta non bizi eta lan egiten duzuen.”⁶³³

Ekainaren 26an, Irungo Alarde eguna baino lau egun lehenago, alkateak Alarde tradizionalaren desfilea baimendu zuen. Pribatua zenez gero antolatzaileek emakume eta gizonen papera aukera zezaketela adierazi zuen eta berdintasun eskubideak ezberdin jarduten zuela arlo horretan. BAEk Alardean ateratzearen eskariari alkateak ezin ziola erantzun adierazi zuen, hots, Alardearen antolatzaileei zegokiela baimen hori ematea. Horren aurrean, BAEk errekurtso bat aurkeztuko zuela azaldu zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, eta horrekin batera kautelazko neurriak eskatuko zituela, Alarde eguna baino lehen irteteko:

“SUPLICO a la Sala que, teniendo por hechas las alegaciones precedentes, disponga con carácter cautelar las medidas necesarias para garantizar la libre participación de las mujeres que así lo deseen en el acto autorizado por la resolución recurrida, ordenando a las autoridades local y gubernativa la disposición de cuantos medios sean precisos a tal fin, por ser de justicia que reitero.”⁶³⁴

Emakunde eta Arartekoak ere alkatearen erabakiarekiko desadostasuna adierazi zuten, eta gogoratu Alardea beti publikoa izango zela, nahiz eta esku pribatuetan erori horren antolakuntza. Alarde tradizionalako Juntak, ordea, desfilea “beti bezala” egingo zutela azaldu zuen, eta gehiengoaren nahia errespetatzea exijitu.⁶³⁵

⁶³³ J. Sainz, Forcejeos entre partidarios de los alardes tradicional y mixto durante un ensayo en Irún”, *El Diario Vasco*, 2001/06/25, 5; “los partidarios del Alarde mixto reiteran su demanda y piden una respuesta de los mandos del tradicional”, *El Diario Vasco*, 2001/06/26, 10.

⁶³⁴ Isabel Quintana Cantero, “A la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco”, 2001/06/27.

⁶³⁵ “El alcalde autoriza el desfile tradicional como acto privado”, *El Diario Vasco*, 2001/06/28, 1; “El alcalde de Irún autoriza la celebración del Alarde tradicional como acto privado”, *El Diario Vasco*, 2001/06/28, 12; “El alcalde de Irun autoriza el Alarde «tradicional»”, *Gara*, 2001/06/28, 1; “El alcalde de

Alarde egunaren bezperan, EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak kautelazko neurriak hartzeari uko egin zion, baita emakumeak Alardean parte hartzeko bitartekoak jartzeari ere, eta, beraz, Alarde tradizionalari alkateak emandako baimenak indarrean jarraitu zuen. Horrek eta ekainaren 29ko Arma-Ikuskatzean gertaturikoak 2001ko Alarde egunean gertatuko zena iragartzen zuen. Hogeita hamar emakume eta gizon inguru Arma-Ikuskatzean konpainietan sartzen saiatu ziren, eta Alarde tradizionalaren aldekoek eta Ertzaintzak bertatik kanporatu zituzten. Hau da, Alarde pribatua zela aitortzean, antolatzaileek erabaki zezaketen nor kanporatu, eta horretarako Ertzaintzaren laguntza izan zuten. Aurreko urteetan Ertzaintzak emakumeak gizonez osaturiko Alardean sartzea galarazi zuenean, ordena publikoa eta pertsonen integritate fisikoa mantentzeko argumentuarekin egin zuen. Urte horretan, 2001ean, ertzainek berriro ere emakumeak entseguetan sartzea ekidin zuten, baina oraingoan sententzia batek babestuta eta ekitaldi pribatua izanik, emakumeak horretan ez parte hartzea erabaki zezaketela izan zuten oinarri. Nahiz eta agerian eta forman Ertzaintzaren jarrera aurreko urteetakoaren antzekoa izan, edukian eta oinarrian asko aldatzen zen eta eragin handiak izan zitzakeen gatazkan, argi geratuz indarkeriaren monopolioa gizonezko Alardearen alde lerratu zela.⁶³⁶

Alarde egunean bi era ezberdinetan saiatu ziren emakumeak Alardean desfilatzen. Batetik, Oiasso konpainiaren bitartez. Bertan, emakumeek ere desfilatu zuten eta Alardean sartzen saiatu ziren, baina Ertzaintzak jarraitu zituen, eta, beraz, ezin izan zuten sartu. Karmele Tolosa Erro Oiassoko kapitaina izan zen, eta honako hitz hauekin azaltzen du gertaturikoa:

“Eta orduan bi urtez egon zen Oiasso, egin zen pues Jaizkibeleko esperientzia hemen ere bai. Por cierto, ni izandu nintzen kapitaina. Eta egia, orandikan ezin ditut ikusi bideoak, garai hartako bideoak eta gauzak ezin ditut ikusi, negar egiten dut. Badut barrenean hainbesteko mina, ezin dut. Oso gogorra, eta orduan, pues

Irun autoriza el Alarde «tradicional» pese a la advertencia de la Ararteko”, *Gara*, 2001/06/28, 12; Mikel Jauregi, “La Junta del Alarde Tradicional afirma que el desfile se hará «como siempre»”, *Gara*, 2001/06/29, 18; “Emakunde y la Ararteko, contra la decisión de Buen”, *Gara*, 2001/06/29, 18.

⁶³⁶ “El Alarde tradicional recurrirá a la Ertzaintza si las mujeres intentan entrar en las compañías”, *El Diario Vasco*, 2001/06/29, 15; “El TSJPV se pronunciará hoy sobre el recurso presentado por los partidarios del desfile mixto contra la resolución del alcalde”, *El Diario Vasco*, 2001/06/29, 15; “El TSJPV no respalda la intención de las mujeres de incorporarse como soldados al Alarde de Irún”, *El Diario Vasco*, 2001/06/30, 2; “El general cree que la decisión judicial «demuestra que la mayoría de un pueblo no podía estar equivocada», *El Diario Vasco*, 2001/06/30, 2; “La Ertzaintza impidió la entrada de las mujeres a tres compañías en la revista”, *El Diario Vasco*, 2001/06/30, 3.

bueno, ahal genuena egin genuen. Eskerrak ondo ezagutzen dudan Irun, ertzainak erotu egin ziren. Hemendikan, handikan eta espero ez zuten tokitikan hortxe agertzen ginen eta azkenean ez dakit zer zen sargentoa edo zer zen, zegoen hasta, zegoen goitainaino betea, zeren zen orain hemen, orain han, orain hemendikan hara, gero horrela. Oso gogorra izan zen.”⁶³⁷

Bestetik, emakume taldeak konpainien bukaeretan sartzen saiatu ziren, baina ez zuten lortu, presentzia polizial handiarengatik eta behin sartuta konpainia geratu eta kanporatu zituztelako. Ertzainek kargak burutu eta emakumeak Alardean ateratzearen aldeko zortzi lagun atxilotu zituzten.⁶³⁸ Mertxe Tranchek honela oroitzen du egun hori:

“Nos tenían super controladas, con el helicóptero nos veían porque conocíamos muy bien la ciudad, mejor que los ertzainas. Entonces, nos colábamos por un lado, nos colábamos por el otro, pero con el helicóptero nos veían inmediatamente por dónde íbamos. Entonces pues eso, unas cargas policiales de cuidado.”⁶³⁹

BAEk Ertzaintzaren eta Irungo alkatearen jarrerak gaitzetsi zituen, eta Alarde bakarraren alde lanean jarraituko zuela aldarrikatu. Ertzainen jarrera bi Alardeekiko desberdina zela salatu zuen: Jaizkibel 2000. urteko Hondarribiko Alardean sartzeko kapaza ez zen izan, baina Oiassori Irungo Alardean desfilatzea galarazteko bai. Saiakera berri horren bitartez ez zuten Alarde bakarrean emakumeek desfilatzea lortu, ezta ere aurreko urteetan bezala tentsioa jaitsi zuen bi Alardeetako batean. Baina Mertxe Tranchek hurrengo egunean egin zituen deklarazioetan positiboki baloratu zuen eguna, konfliktoak existitzen jarraitzen zuela agerian geratu baitzen. Aurreko urteetan bi Alarde eta nolabaiteko lasaitasuna egoteak gatazkaren existentzia ukatzera eraman zituelako asko, horrek bi Alarde egotea irtenbidea zela esatera eta egoera betikotzera.⁶⁴⁰

⁶³⁷ Karmele Tolosa Errori egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/02/24 (pasarte bat).

⁶³⁸ “Emakumeek ezin izango dute Alardean soldadu gisa parte hartu”, *Gara*, 2001/06/30, 1; “El TSJPV no adopta ninguna medida para que las mujeres desfilen como soldados en el Alarde”, *Gara*, 2001/06/30, 12; H. R., “La Ertzaintza impide a las mujeres participar en la revista”, *Gara*, 2001/06/30, 12; “Los incidentes aislados no deslucieron la fiesta en Irún”, *El Diario Vasco*, 2001/07/01, 1; “La fiesta se impuso en Irún”, *El Diario Vasco*, 2001/07/01, 18-19; “La exclusión de la mujer del Alarde termina de nuevo con incidentes”, *Gara*, 2001/07/01, 1; Haritz Rodríguez, “La Ertzaintza evitó a porrazos que las mujeres desfilaran”, *Gara*, 2001/07/01, 20-21; “El alcalde de Irún acusa a los grupos que trataron de entrar en el desfile de querer reventar la fiesta”, *El Diario Vasco*, 2001/07/01, 20; “Mensaje de paz en la misa de campaña”, *El Diario Vasco*, 2001/07/01, 21.

⁶³⁹ Mertxe Trancheri egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

⁶⁴⁰ Amaia Ugarte, “Alarde bakarraren alde lanean jarraituko du BAEk”, *Gara*, 2001/07/06, 17.

Hondarribian beste urte batez Jaizkibel konpainiak Alardeko Juntari galdegin zion zein posiziotan atera behar ziren Alardean, baina AFko abokatuekin hitz egiteko erantzun zieten. Juana Mugarrietakoa kolektiboak adierazi zuen Alardeak ezin zuela manifestazio eskubidearen babesean ospatu, baizik eta Espektakulu Publikoen Legearen babesean, eta horretarako udalaren baimena behar zen. Baimen hori emanez gero antolakuntza pribatuak ezin izango zituen emakumeak baztertu. Uztailean Juana Mugarrietakoak Ertzaintzari gutun bat bidali zion, emakumeen eskubideak betetzeko beharrezkoa zuten laguntza eta bermea exijitzen. Abuztuan Hondarribiko Emakumeak kolektiboak, AFk, Juana Mugarrietakoa kolektiboak, Jaizkibel konpainiak eta Hondarribiko Udaleko alderdi politikoek bi bilera egin zituzten gatazka konpondu nahian. Ez ziren inolako akordiora iritsi eta alderdi politikoek elkarrizketarako deia egin zuten, aurretik suposatu gabe irtenbidea ezinbestean emakumeak Alardean ateratzea izango zenik. Autokritika ere egin zuten, alderdiek ez baitzuten baldintza egokirik topatu elkarrizketa ahalbidetzeko.⁶⁴¹

2001. urteko Jaizkibelen lehen entseguan Ertzaintzak hamar lagun identifikatu zituen eta desfilea kaletik egitea galarazi zuen, espaloietara bidaliz. Alardeko entseguak inoiz ez ziren espaloietatik egiten, eta kaleak beti ixten ziren konpainiek desfilatzeko. Hala, Ertzaintzak «beste konpainia guztiak egiten duten ibilbidea egitea galarazi» zietela salatu zuten konpainia mistoko kideek. Alkatearen azalpenaren arabera, Jaizkibel konpainiako kideen osotasun fisikoa babesteko ukatu zieten Hondarribiko hirigunean entseatzea.⁶⁴² Maite Iraolak honela oroitzen ditu egun horiek:

“Pero han sido años muy duros. Los ensayos no eran como ahora ji-ji, ja-ja, venga que si un ensayo, una cenita, unos potes. No, no, los ensayos eran un nudo ya, con la txapela escondida, todo escondido. Todo el mundo sabía, pero daba igual, todo escondido y ya te ponías. Y era ya, era con la Ertzaina, rodeados, que no nos dejaban venir para aquí, que si un año teníamos que ir en fila india porque por la ley de no sé qué, no podíamos ir más de 10 o de 20 porque era una manifa,

⁶⁴¹ María Isabel Alcain Echeverría, “A la Ertzaintza de Irún-Hondarribia”, 2001/07/17; EA, PSE-EE, BATASUNA, IU-EB, EAJ-PNV, “Encuentro de los partidos políticos de Hondarribia con los representantes de Hondarribiko Emakumeak, Alarde Fundazioa, Juana Mugarrietakoa y Jaizkibel Konpainia”, 2001/08/09.

⁶⁴² “La compañía mixta anuncia su intención de desfilarse en el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2001/09/01, 9; “La compañía Jaizkibel intentará tomar parte en el Alarde de Hondarribia”, *Gara*, 2001/09/01, 16; “Tenso ensayo de Jaizkibel”, *Gara*, 2001/09/03, 11; “Jaizkibel solicita permiso a Interior para ensayar hoy por Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2001/09/05, 11; Haritz Rodríguez, “Jaizkibel: «Hondarribiko Alardean desfilatzeko gure erabakia ez da aldatu»”, *Gara*, 2001/09/05, 16.

entonces uno detrás de otro. En la calle mayor, en las aceras, tocando el txibilito para que no fuera una manifestación, si no, nos ponían multa. En fin, así todo el día.»⁶⁴³

Adierazgarria da, nahiz eta Jaizkibel konpainiako kideak nortzuk ziren herrian jakin, Alardeko elementuak ezkutuan eramaten zituztela kaletik entsegu edo Alardera iritsi arte. Agerian eramateak arazoak handitu eta haien kontra egiteko arrazoiak eman besterik egingo ez zuela pentsatzen baitzuten. Testuinguru horretan Hondarribiko alkateak Espektakulu Publikoen Legearen babesean Alardea baimendu zuen, eta bazterketarik ez zela gauzatzen azaldu, baina horren aurrean Juana Mugarrietakoa kolektiboak baimena errekurrituko zuela iragarri zuen. Hori dela eta, 2001eko Hondarribiko Alardea baino egun bat lehenago, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak kautelazko neurriak ezartzeko eskaeraren inguruko erabakia kaleratu zuen. Juana Mugarrietakoa kolektiboaren abokatuak hau salatu zuen aurreko egunean: “No nos batimos sólo contra los «betikos», sino contra todo un poder político e institucional”. Hurrengo egunean irten zen erresoluzioa, eta fiskalaren, udaleko abokatuen eta Alardeko antolatzaileen eskaerari jarraiki, ez zuen Jaizkibel babestu Alardean atera ahal izateko.⁶⁴⁴ Adierazgarria da udalaren abokatuak defendatutakoa:

“La misma postura defendió el letrado del Ayuntamiento de Hondarribia al asegurar que «Jaizkibel podría haber pedido una autorización para realizar su propio desfile, pero su intención es romper la concepción de desfile de los organizadores o que éstos se atengan a sus propios criterios».”⁶⁴⁵

Horren aurrean, ordea, Jaizkibel konpainiak Alardean desfilatzen saiatuko zela adierazi, eta haien presentziarekin emakumeen bazterketa salatu nahi zuten. Horrez gain, udalaren laguntzarekin herriarena zen festa pribatizatu zutela salatu zuten, gutxi batzuen

⁶⁴³ Maite Iraolari egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/18 (pasarte bat).

⁶⁴⁴ “El tradicional desfilará amparado en la fórmula de representación de un acto histórico”, *El Diario Vasco*, 2001/09/06, 1; “El Alarde tradicional desfilará amparado en la fórmula de representación de un acto histórico”, *El Diario Vasco*, 2001/09/06, 12; “El alcalde de Hondarribia autoriza el Alarde sin mujeres-soldado”, *Gara*, 2001/09/06, 1; “El alcalde de Hondarribia autoriza el desfile que no permite mujeres-soldado”, *Gara*, 2001/09/06, 16; “El TSJPV decide hoy si la compañía Jaizkibel se incorpora al Alarde”, *Gara*, 2001/09/07, 1; C. Dronda eta A. Basañez, “«No nos batimos sólo contra los ‘betikos’, sino contra todo un poder político e institucional»”, *Gara*, 2001/09/07, 10; “El TSJPV desestima la petición de que la compañía Jaizkibel pueda desfilarse hoy”, *El Diario Vasco*, 2001/09/08, 1; “El TSJPV desestima la petición de que Jaizkibel pueda desfilarse hoy en el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2001/09/08, 9; “El TSJPV no ampara la presencia de Jaizkibel en el alarde de hoy”, *Gara*, 2001/09/08, 1.

⁶⁴⁵ “El TSJPV rechaza que Jaizkibel tome parte en el desfile”, *Gara*, 2001/09/08, 16.

eskuetan utziz. Maria Luisa Agirretxe abokatuak urtero Alardea berdina zela baina erresoluzio desberdinen pean geratzen zela gaineratu zuen, Alarde baztertzaila ospatzeko hutsune legalak izateko baliatuz hori. Udalbiltza eta Arartekoaren babesak jaso zuten emakume soldaduek, eta irailaren 8an bertan egongo zirela adierazi zuten.⁶⁴⁶

Hondarribiko Alarde eguna iritsi eta Jaizkibel konpainiakoak Saindua baselizan bildu ziren, Alardea bukatzen zen puntuan, hain zuzen. Argi utzi zuten ez zutela legearen aurka joko eta beraz ez zirela Alardean sartzen saiatuko. Hala ere, kale horretan desfilatzen ibili ziren, betiere ertzainen begirada eta kontrolpean. Hamarrak hurbildu ahala, Alardearen bukaera ordua, ertzainek kordoi bat egin zuten eta Jaizkibeleko kideak espaloietara mugatu. Bertan, Alardea pasatzen zen bitartean Jaizkibeleko bandera astindu eta “emakumeak Alardean” oihukatuz aldarrikatu zuten haien borroka.⁶⁴⁷

Beste urte batez emakumeei Irun eta Hondarribiko Alardeetan soldaduz desfilatzea galarazi zieten, oraingoan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren babesarekin eta berriro ere ertzainen laguntzarekin. Orain arte justiziak emakumeak Alardean ateratzearen aldeko sententziak kaleratu zituen, Alardea publikoa zenez gero ezin baitzen bazterketarik egon. Alardea esku pribatuetan egonda, gauzak aldatzen hasi ziren, bai epai eta ertzainen aginduetan, baina baita antolakuntza eta desfilearen ereduan. Gainera, lehenagotik zetorren seriotasun eta martzialtasun prozesuak aurrera jarraitu zuen gutxi batzuen erabakien pean. Aipatzekoa da Jaizkibel konpainiari herriko kaleetatik entseatzea eta Alarde egunean desfilatzea ukatu ziotela, berriro ere herritik kanpo utziz.

5.3. Pribatizazioek ordena blindatu zutenekoa

Gatazka hasi zenetik seigarren Alardea pasa zen, eta ezin daiteke esan emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek Hondarribian aurrerapen handirik lortu zutenik.

⁶⁴⁶ Alazne Basañez, “La compañía mixta intentará incorporarse al Alarde”, *Gara*, 2001/09/08, 17; “Udalbiltza eta Arartekoa bertan izango dira”, *Gara*, 2001/09/08, 17.

⁶⁴⁷ “Un Alarde tranquilo y alegre”, *El Diario Vasco*, 2001/09/09, 1; “Un Alarde con sabor tradicional”, *El Diario Vasco*, 2001/09/09, 14; “«La sensación que se ha tenido este año ha sido de mayor tranquilidad»”, *El Diario Vasco*, 2001/09/09, 15; “«No se puede mantener más tiempo esta fractura social con amigos y en el lugar de trabajo»”, *El Diario Vasco*, 2001/09/09, 15; JM. V., “Hondarribia se volcó en el día grande de sus fiestas”, *El Diario Vasco*, 2001/09/09, 16; “El burgomaestre Lazkanotegi vivió el Alarde más tranquilo de los últimos años”, *El Diario Vasco*, 2001/09/09, 17; “El Alarde desfila sin incidentes, pero también sin mujeres soldado”, *Gara*, 2001/09/09, 1; F. Fernandez eta H. Rodriguez, “Emakumeek ezin izan zuten soldadu gisa ibili Hondarribiko Alardean”, *Gara*, 2001/09/09, 16.

Jaizkibel konpainia kaleetatik desfilatzea galarazi zuten urte guztietan edo zailtasun handiak jarri zizkieten. Bestetik, herri-komunitatetik kanporatzean isolatu, eta urte osoan zehar horren ondorioak jasan zituzten. Inoiz ez zuten amore ematea planteatu, baina oso urte gogorak izan ziren zentzu horretan, aurrerapenik ez zegoela ikustean eta haien bizitzetan kostu oso handia izaten ari zela ikustean:

“Decíamos: «¡ostia! no viene nadie, ¿qué vamos a hacer nosotras? ¿Dónde están los jóvenes? Yo ahora estoy tranquila, en el sentido de que ya veo tanta juventud que digo: «esto ya, esto ya». Pero, al principio, había tanto miedo, no se acercaba nadie. Decíamos, «si no viene la juventud, esto no tiene mucha... ¿Cuánto vamos a durar nosotras?» Con el machaque que nos estaban dando. Pero al final resistimos.”⁶⁴⁸

Emakumeak Alardean ateratzearen aldekoak herri-komunitatetik kanporatzeak, beste gauza batzuen artean, jende berria aldarrikapen horretara batzea ekidin zuen, beldurragatik edota ondorio handiak zekartzan borroka bat izateagatik. Urtean behin Jaizkibel konpainiarekin desfilatzeak bizitzak aldatu zituen, eta oso kontzienteki egiten zen pausua zen konpainia mistoan parte hartzea. Horrez gain, 2002ko lehen hilabeteetan Irunen eta Hondarribian emakumeak soldaduz ateratzearen aldeko kide batzuk epaitu zituzten. Lehenik, otsailean, 1999ko Hondarribiko Alardeko gertakariengatik hogeit hamar pertsona ingururi Ertzaintzaren aginduei desobedientzia egitea egotzi zieten. Urte hartan Jaizkibel Alardean sartzen saiatu zen, baina ertzainek galarazi zuten. 2002ko urtarrilean ere 2001eko Irungo Alardeko istiluetan autoritatearekiko erresistentzia eta desobedientziak akusaturik hiru pertsona epaitu zituzten, eta gainera, ez ziren lehenak. Izan ere, 2001eko Irungo Alarde egunean Alarde mistoaren aldeko zortzi lagun atxilotu zituzten, eta horietako bi 10.000 eta 15.000 pezetako multak ordaintzera kondenatu zituzten. Azken hiruak, ordea, absolbitu egin zituzten, eta Hondarribiko hogeit hamar kasua artxibatu.⁶⁴⁹

⁶⁴⁸ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

⁶⁴⁹ “Señalan para febrero un juicio por los incidentes en el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2002/01/24, 9; “1999ko Hondarribiko Alardeko istiluegatiko epaiketa, hilaren 13an”, *Gara*, 2002/01/24, 19; “Tres de los detenidos en el Alarde serán juzgados hoy en Irún”, *El Diario Vasco*, 2002/01/31, 14; Imanol Inziarte, “Juicio contra tres personas por intentar participar en el desfile del Alarde de Irun”, *Gara*, 2002/01/31, 17; Imanol Inziarte, “Absuelven a tres personas juzgadas por incidentes en el Alarde de Irun de 2001”, *Gara*, 2002/02/01, 19; “Absueltos tres de los detenidos en el Alarde de 2001”, *El Diario Vasco*, 2002/02/02, 14.

Apirilean, Alardearen gatazka Ararteko berriaren izendapenera iritsi zen. Izan ere, idatzi gabeko tradizioari jarraiki eta Arartekoa izendatzeko beharrezkoa zen gehiengoa lortzeko, oposizioako kide ziren PSE-EE eta PPri eskaini zieten Arartekoaren laguntzailearen izendapena. EAJ, EA eta EBk osatutako gobernuak Joaquin Okiñena proposatu zuen Ararteko izateko, eta PSE-EEren aldeko botoekin eta PP eta Batasunaren abstentzioekin aurrera atera zen. Izendapena egin aurrerik Okiñenak egindako adierazpen batzuek PPren kritikak jaso eta “euskar nazionalismoaren fiskal” izateaz egotzi zuten. Adierazpenetan elkarbizitza lortzeko gauza batzuetan moldatzearen beharraz hitz egin zuen, eta Batasuna legez kanpo uztearen kontra posizio hartu. PSE-EEK Alberto Buen Irungo alkatea proposatu zuen Arartekoaren laguntzaile izateko, eta horrek polemika handia sortu zuen, azken urteetan Arartekoaren aholkuak jarraitu ez zituen pertsonak postu hori okupatzearen kontra. Okiñenak berak desegokitzen jo zuen Buen, eta postu hori betetzeko beste pertsona bat aurkeztea eskatu zuen, baina Patxi Lopezek Buenen kandidatura berretsi zuen. Hori zela eta Okiñenak uko egin zion postua betetzeari; izan ere, Buen ez zuen onartu, baina aldi berean kontraesanean sartzen zela adierazi zuen, PSE-EEren botoei esker Ararteko izango baitzen, eta ez zuen hori onartu nahi.⁶⁵⁰

Horrek eragina izan zuen hiru alderdiko gobernuaren eta PSE-EEen artean, eta kritika gogorrak elkar banatu zituzten. EAJk PSE-EEren Buen Irungo Udaletik ateratzeko estrategiaren parte izan zela eta horretarako postu bat bilatzearen interesei jarraiki egin zutela aurpegiratu zien. Horren aurrean, Bidasoaldeko PSE-EEko idazkariak, Miguel Ángel Páezek, honako adierazpen hauek egin zituen:⁶⁵¹

“Miguel Ángel Páez recordó que «la postura que ahora esgrime el señor Egibar frente al conflicto del Alarde es exactamente la contraria la que ha venido adoptando el PNV en esta ciudad. Quisiéramos recordar que en las últimas elecciones municipales los nacionalistas utilizaron el tema del Alarde para intentar

⁶⁵⁰ “El PP llama al Ararteko «fiscal del nacionalismo vasco»”, *Gara*, 2002/04/09, 16; Iñaki Iriondo, “La propuesta de Buen como adjunto genera polémica”, *Gara*, 2002/04/09, 16; “Okiñena renuncia a ser el nuevo Ararteko por negarse a nombrar adjunto al socialista Alberto Buen”, *El Diario Vasco*, 2002/04/10, 1; “Okiñena renuncia al cargo a causa de la polémica”, *Gara*, 2002/04/10, 18;

⁶⁵¹ Belen Barrio, “El frustrado nombramiento del Ararteko frena el acercamiento entre el tripartito y el PSE-EE”, *El Diario Vasco*, 2002/04/11, 4.

conseguir una alcaldía que se les resiste desde hace nada más y nada menos que 19 años».⁶⁵²

BAEk Okiñenari babesa adierazi zion, eta argi esan zuen Alberto Buenek kargu hori betetzea emakumeen eskubideei mespretxu egitea zela. Gauzak horrela, berriro ere Arartekoaren izendapenaren inguruko negoziazioak hasi zituzten, euskal gobernuaren eta PSE-EEren arteko erlazioak gaiztotuta eta elkarri akusazioak eginez. PPK Ararteko Legea aldatzea proposatu zuen, horrelako egoerak ekiditeko eta Arartekoaren laguntzailearen izendapenak Arartekoarena ez baldintzatzeko.⁶⁵³

Irungo Alarde eguna gerturatzen ari zen, eta Ezker Abertzaleak Irungo Udalean mozio bat aurkeztu zuen, Arartekoaren aholkuei jarraitzeko eta emakumeak onartzen ez zituen Alarderik ez baimentzeko eskatuz. Ez zen onartu eta horren aurrean gainontzeko alderdi politikoek beste mozio bat aurkeztu zuten, esanez emakumeek Alardean parte hartzeko eskubidea bermatu zuela udalak Alarde ofiziala eginez eta 2001ean egin ez bazen Alarde mistoaren aldekoek nahi ez zutelako izan zela. 2002an ere, ekaina gainean zela, Alarde ofiziala antolatzeko mugimendurik ez zen egin, eta ikusteko zegoen zer gertatuko zen. Alarde tradizionala finantzatzeko Alardealdia festa ekaina hasieran egin zuten, eta horren antolaketa lanak aurrera zihoazen.⁶⁵⁴

Alardearen gatazka urte horretan *El Diario Vasco*ko kanpaina nagusi batera iritsi zen, eta Gipuzkoako markesina askotan ikusi ahal izan zen. 2000ko Hondarribiko Alarde eguneko irudi bat erabili zuten. Bertan ageri zen emakumeak Alardean ateratzearen

⁶⁵² “El PSE-EE acusa al PNV de organizar una «cacería política» contra los socialistas de Irún”, *El Diario Vasco*, 2002/04/11, 16.

⁶⁵³ Iñaki Iriondo, “PNV y PSE se acusan mutuamente de mentir sobre la designación de Buen”, *Gara*, 2002/04/11, 12; “Buen atribuye la polémica sobre el Ararteko a un intento de desprestigiar a los socialistas de Irún”, *El Diario Vasco*, 2002/04/12, 6; “Buen desvía la polémica a la lucha por la alcaldía”, *Gara*, 2002/04/12, 20; “El PNV de Irún acusa al PSE de «irresponsable» por «utilizar la institución del Ararteko con fines partidistas»”, *El Diario Vasco*, 2002/04/13, 16; “IU de Bidasoa aplaude la «lección de ética» de Joaquin Oquñena”, *El Diario Vasco*, 2002/04/13, 16; “La Ararteko reitera que Alberto Buen discrimina”, *Gara*, 2002/04/13, 21; “IU-EB pide coherencia a PNV y PSE”, *El Diario Vasco*, 2002/04/13, 21; Maria Jose Aienza, “«Egibar no va a marcar mi calendario»”, *El Diario Vasco*, 2002/04/14, 16; “Elena Etxegoyen afirma que las contradicciones sobre el Alarde «están en casa de otros»”, *El Diario Vasco*, 2002/04/16, 16; “EAJk Buenek esandakoak gezurtatu ditu”, *Gara*, 2002/04/16, 16; “Santano pide al PNV que «no se entrometa» en las decisiones internas de su partido”, *El Diario Vasco*, 2002/04/17, 14; A. S., “«Buen sería adjunto de no haber existido escándalo»”, *Gara*, 2002/04/21, 22; “El PP pide reformar la Ley del Ararteko para que el adjunto lo nombre el Parlamento”, *El Diario Vasco*, 2002/04/14, 7.

⁶⁵⁴ “Batasuna presenta una moción sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2002/05/28, 12; “Rechazada la moción del Alarde presentada por Batasuna a iniciativa de un grupo de ciudadanos”, *El Diario Vasco*, 2002/05/30, 14; “El pleno de Irún rechaza una moción contra la desigualdad”, *Gara*, 2002/05/30, 18; “Irungo Betiko Alardearen Aldekoak celebra mañana la fiesta del Alardealdia”, *El Diario Vasco*, 2002/06/01, 13.

kontrako hemezortzi urteko emakume bat atxilotuta, begirada desafiatzaile batekin istiluen kontrako ertzainari begira. Leloa “Piensa como quieras pero infórmate” zen, eta 2002ko ekainean argazkiko emakumeari elkarrizketa egin zioten, Alarde egun horren eta egunkariaren kanpainaren inguruan. *El Diario Vasco*k zabaltzen zuen informazioa neutrala zela adierazten ari zen, ideologia edota pentsatzeko modu konkretu batekin zerikusirik ez zuena. Baina, aldi berean, gatazka bateko irudia erabili zuen, emakumeak Alardean ateratzearen kontrako jarrera balioan jarritz.⁶⁵⁵

Aldi berean, BAEk kanpaina bat hasi zuen, “egin ezazu guztiontzako, haz un alarde de tolerancia” leloarekin. Telebista eta irratieta azaltzeko asmoa zuten, eta kartel eta pegatinen bidez kalean presentzia izan nahi zuten. Sentsibilizazio kanpaina egitearen ideia berria ez zela azaldu zuten eta 2000 urteko Alarde ofiziala egiteko udalarekin adostutako parte bat zela, egitera inoiz iritsi ez zena. Horrelako ekintzak egitea instituzioei zegokiela adierazi zuten, baina egiten ez zutenez, euren kabuz egitea erabaki zutela. Telebistan irtengo zen bideoan historian zehar izandako lorpenetan zentratu zen, garai batean polemikoak eta gatazkatsuak izan ziren auziak orainaldian onartuak zirela erakusteko.⁶⁵⁶

Ekainaren 26an Irungo Udalak Alarde tradizionalak herriko kaleetatik desfilatzea baimendu zuen, Ikuskizun Publikoaren Legearen babesean, baina ikuskizun pribatua zela ulertuz eta emakumeak kantineraz soilik desfilatzea onartuz. Hala ere, oraindik ebatzi gabe zegoen aurreko urtean BAEk jarritako errekurtoa, eta sententziaren arabera egoera alda zitekeen, berriro ere, Alarde eguneko aurreko astean. Bitartean, Alarde tradizionalako jeneral berria izendatu, eta aginte makilaren kopia eman zion aurreko urteetako jeneralak ekitaldi jendetsu batean. BAEk eta Alarde bakar baten aldeko plataformak prentsaurrekoan azaldu zuten aurreko urtean bezala Oiasso konpainia Alarde tradizionalan desfilatzen saiatuko zela, baita ere emakume batzuk beste konpainietan sartzen. Oiasso konpainiaren entsegu batean irainak eta erasoak eman zirela salatu zuten eta nahiz eta giza tapoi bat egin pasatzen ez uzteko haien bidea egin eta entsegu bukatzea lortu zutela.⁶⁵⁷

⁶⁵⁵ David Taberna, “La chica del anuncio”, *El Diario Vasco*, 2002/06/04, kontraportada.

⁶⁵⁶ “BAE inicia una campaña publicitaria por un Alarde igualitario”, *El Diario Vasco*, 2002/06/09, 13.

⁶⁵⁷ “El ayuntamiento de Irún podría comunicar hoy la autorización del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2002/06/26, 6; “Autorizado el desfile tradicional”, *El Diario Vasco*, 2002/06/27, 6; “Un nuevo general”, *El Diario Vasco*, 2002/06/27, 10-11; “La compañía mixta Oiasso intentará incorporarse mañana al desfile tradicional”, *El Diario Vasco*, 2002/06/29, 5; “Las mujeres intentarán entrar en compañías

Ekainaren 29an, Arma-Ikuskatzean hogeit hamar emakume inguru Ama Xantalen konpainian integratzen saiatu ziren Mosku plazan. Konpainiako kapitainak Ertzaintzari deitu, eta berehala azaldu ziren istiluen kontrako agenteek emakumeen eta konpainiaren artean hesi bat egin eta hamaika emakume atxilotu zituzten. Oiasso konpainia Arma-Ikuskatzean parte hartzen saiatu zen, baina Ertzaintzak ekidin zuen. Landetxa auzoan, berriz, batzuek “emakumeak Alardean” pankarta baten atzean bildu ziren auzoko konpainiaren aurrean, baina berriro ere ertzainek hesi bat egin, eta emakumeak Alardean ateratzearen aldeko eta kontrakoak nahastea ekidin zuten. Alarde eguna iritsi zen, sententzia berririk gabe, eta, beraz, Alarde tradizionalak emakume soldadurik gabe desfilatzeko baimenarekin eta hori bermatzeko ertzainen babesarekin. Oiasso konpainiako kide zen batek honela oroitzen du gertaturikoa:⁶⁵⁸

“Hicimos la famosa tumbada en la cuesta de San Marcial, que llovió ese día. Pero la gente, yo aluciné, porque estamos más de 200 personas pensando en tirarnos al suelo y, primero, encontronazo con los municipales, que vaya tela también, que hay algunos que tela, como ertzainas. (...) Y fue un poco así, fue fiesta, fue fuerte, pero no sé, una cosa, una sensación de estar haciendo algo decente, que tienes razón. O que yo no tenía miedo, pero hubo momentos de mucha tensión, de mucha violencia. (...) Yo estaba en primera fila de txibilitos y tuvimos encontronazos con la Ertzaintza, contra el casco. Fue curioso y estuvimos ahí, de guerra de guerrillas, estuvo bien, fue gracioso. La gente estaba muy motivada y en fin, de repente pensar en tumbarse al suelo 200 personas y nos sacaron a ostias.”⁶⁵⁹

Oiasso konpainia Alardea hasten zen tokitik metro batzuetara kokatu zen, baina Ertzaintza berehala agertu zen, eta konpainiako kideek lurrean esertzeko hautua egin zuten kartel batzuk erakusten zituzten bitartean. Juan Jose Ibarretzek lehendakari izendatu zuteneko inbestidura saioan esandakoa zeramaten idatzita kartel horiek: “es necesario erradicar, de una vez por todas, cualquier forma de discriminación entre hombres y mujeres.” Ertzainek, ordea, banaka, arrastaka eta kolpeka atera zituzten San

«tradicionales»”, *Gara*, 2002/06/29, 20; “Agresiones e insultos contra un ensayo de Oiasso”, *Gara*, 2002/06/27, 19.

⁶⁵⁸ “La Ertzaintza detiene a once mujeres en la revista del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2002/06/30, 8; “La tropa, a punto”, *El Diario Vasco*, 2002/06/30, 13; “Once detenidas durante la revista de armas de Irun”, *Gara*, 2002/06/30.

⁶⁵⁹ Juantxi Ugarte Lopetegiri egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/01/28 (pasarte bat).

Martzial kaletik, emakume bat atxilotuz, denbora gutxian toki horretatik pasa behar baitzen Alardea. Udaletxean Alberto Buen alkateak harrera egin zion Alardeari, baina emakumeak Alardean ateratzearen aldeko bi kidek “emakumeak Alardean” idatzita zuen pankarta udaletxetik zintzilikatzea lortu zuten, txistu artean. Bost minutu ere ez ziren pasa eta pankarta kendu zuten, orduan, txalo artean. Oiasso konpainia eguerdiko mezara joaten saiatu zen, bai eta arratsaldean berriz desfilatzera, baina ertzainek galarazi zieten, kargen bitartez eta guzti. Bitartean, egunean zehar emakume batzuk Alardeko konpainia desberdinetan sartzen saiatu ziren.⁶⁶⁰

“El segundo año las cargas policiales fueron brutales, le rompieron la pierna a una. Brutales, brutales, de esas de, el mando haciendo así «a por ellas» y brutales. El segundo año yo me acuerdo que habíamos otra vez pasado montones de horas, planos, así, enormes, «podemos entrar por aquí, podemos entrar por allá». «No, yo creo que el mejor punto para entrar es aquí, a la mañana». Nos encontramos, primero, que la compañía Oiasso ha decidido ir al mismo sitio que nosotras y, entonces, toda la bronca está ahí. Y, segundo, que la Ertzaina ha aparcado todas las furgonetas en el sitio por donde íbamos a entrar. Entonces, rápidamente, todavía no había muchos móviles, pero, rápidamente, oye, tal. Y, entonces, vino toda la gente a mi casa, a nuestra casa y esperando hacer un salto desde ahí. Para cuando salimos al portal, la Ertzaina estaba abajo. Las betikos habían hecho un esto de seguridad para que no pudiéramos entrar por ahí. Y nos fuimos por el otro lado, por la calle Vera de Eguzkiza y ahí que íbamos por ahí, «pues oye, pues que mal, pues no sé qué». Y, de repente nos encontramos a los hatxeros, nos encontramos el Alarde y pudimos entrar, les paramos, bueno, fue un momento

⁶⁶⁰ “Irún celebró un Alarde de San Marcial festivo y multitudinario”, *El Diario Vasco*, 2002/07/01, 1; “Alarde de fiesta en Irún”, *El Diario Vasco*, 2002/07/01, 2-3; “El alcalde de Irún cree que el conflicto se resolverá «con tiempo y tranquilidad»”, *El Diario Vasco*, 2002/07/01, 4; “La Corporación compartió con las cantineras y los mandos del Alarde la misa del monte San Marcial”, *El Diario Vasco*, 2002/07/01, 5-8; “Saralegi, Perurena y Beloki, no va más”, *El Diario Vasco*, 2002/07/01, 8; Jone Guindo eta José María Alonso, “Irún celebra un Alarde con escasos incidentes sin la participación de las mujeres”, *El Mundo*, 2002/07/01, 14; Jone Guindo, “Buen considera que el Alarde se ha «normalizado» y «la gente está tranquila»”, *El Mundo*, 2002/07/01, 15; J. G. eta J. M. A.; “Una fiesta que revoluciona Irún de sol a sol”, *El Mundo*, 2002/07/01, 16; M. Marín, “La Ertzaintza impidió el Alarde de la compañía mixta”, *El País*, 2002/07/01, 1 (País Vasco); “Un año más el Alarde de Irun se celebró sin la participación de la mujer”, *Gara*, 2002/07/01, 1; Imanol Inziarte, “La Ertzaintza privó a las mujeres del derecho a participar en el desfile de San Marcial”, *Gara*, 2002/07/01, 11; Imanol Inziarte, “«No nos vamos a marchar»”, *Gara*, 2002/07/01, 12-13.

ridiculísimo. El cabo de hatxeros diciéndoles a la policía, «dejadnos que les pasamos por encima».⁶⁶¹

Alardearen ibilbidean zehar soldaduz jantzita desfilatzen saiatu ziren emakume batzuk, baina emakumeak Alardean ateratzearen kontra zeudenak eta ertzainak saihestu behar zituzten, eta kaleak horiez beteta zeuden. Alde batetik bestera igaro zuten eguna, eta azkenean, espero ez zutenean, Alardearekin aurrez aurre topatu eta desfilatzen saiatu ziren. Berehala kanporatu zituzten, borrekin kolpatuz eta kargak burutuz. Hurrengo egunetako egunkari batzuetan istilu gutxiko eguna izan zela eta normaltasunaren gailentzean jarri zuten begirada, baina Mertxe Tranchek egunkariari eskainitako elkarrizketan egun guztian zehar liskarrak egon zirela eta horiek izan zirela nagusi azpimarratu zuen. Hala ere, positiboki baloratu zutela eguna azaldu zuen, aurreko urteko logikari jarraiki, istiluak egoteak zentzu batean konfliktoaren existentzia oso argi uzten zuen eta bestetik, haien presentzia eta aldarriak uneoro kalean egotea poztekoa zitzaien.⁶⁶²

Beste urte batez, emakumeak Alardean soldaduz desfilatzen saiatu ziren Irunen, aurreko urteko estrategia berdinekin eta positiboki baloratu zuten eguna. Helburu zuten Alarde bakar batetik urrun zeuden, baina egoera ikusita gatazka existitzen zela ikustaraztea garaipen txiki bat izan zitekeen, bi Alarde betiketarekin konparatuz. Izan ere, saiakera eta estrategia berriak aurrera eramaten saiatu ziren, baina azken urteetan emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoek eraiki zuten horma zurrun batekin talka egin zuten. Horma hori gizonezko Alardearen aldeko hiru fronteek osatu zuten, baina komunikabide batzuen laguntza izan zuten, Bidasoaldetik haratagoko alderdi politiko batzuen posizioak babestu zituen, eta azkenik, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiek eta Ertzaintzaren ekinbideak guztiz blindatu zuten.

2002ko Irungo Alardea pasa eta bost egunera, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak atzera bota zuen 2001ean BAEk alkateak Alarde tradizionalari desfilatzeko eman zion baimenaren kontrako errekurtsioa. Horrek gizonez osaturiko Alarde pribatuaren desfilea baimentzen zuen, baita emakumeak bertatik baztertzea ere. BAEk Espainiako Auzitegi

⁶⁶¹ Mertxe Trancheri egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

⁶⁶² Iñaki Gurrutxaga, “«Alardearekin sortu den arazoa behin betiko konpontzeko eskatzen diogu klase politikoari»”, *Egunkaria*, 2002/07/02, 16.

Gorenean errekurtsua aurkertuko zuela iragarri zuen, konstituzioaren 14. artikuluan oinarrituz.⁶⁶³

Abuztuan Jaizkibel konpainiako kideek berriro ere Alardean parte hartzen saiatuko zirela plazaratu zuten, nahiz eta EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren sententzia aurretik ez irten eta Irungoa ikusita, haien aldekoa izango zenaren esperantza handirik gabe. Beti bezala udalari Alardean parte hartzeko baimena eskatuko ziotela iragarri zuten, baita entseguak egiteko kaletik desfilatzekoa ere. Inolako erantzunik jaso ez eta udalak Alardea egiteko eskumena eman zion hogeita bost pertsonen izenean eskatutako baimenari, tartean burgomaisua zegoelarik. Hala ere, Jaizkibelek bertan parte hartzen saiatuko zela azaldu zuen. Urte hartako entseguetan ez ziren istiluak edota tapoiak egin Jaizkibelen kontra; izan ere, Alarde tradizionaleko kideek ziurtatuta zuten ezin izango zirela emakumeak soldaduz Alardean atera. Aurreko urtean ikusi bezala, Ikuskizun Publikoen Legearen babesean, antolakuntza pribatua izanik, erabaki zezaketen emakumeak eta Jaizkibel konpainia Alardetik kanpo geratzea, eta horretarako Ertzaintzaren babesa zuten. Hau da, ez zegoen arriskurik emakumeak Alardean sartzeko, eta, beraz, ez zegoen modurik ordena zalantzan jartzeko. Ondorioz, ez ziren herritarren tapoiak behar genero ordena eta ordena soziala bermatzeko, indar polizialek beteko baitzuten eginkizun hori, legearen babesean.⁶⁶⁴

Deia eta *El Diario Vasco* egunkariaren Alardearen hurrengo eguneko berria normaltasuna azpimarratzen zen. Polemika eta istilurik gabekoa izan zela eguna, eta, beraz, zentzu batean konfliktua amaitutzat ematen zuten. Borja Jauregi alkatearen hitzak norabide berean joan ziren, eta honako deklarazio hauek egin zituen:⁶⁶⁵

⁶⁶³ “El TSJPV ampara la celebración del Alarde tradicional”, *Gara*, 2002/07/06, 15; “La junta del Alarde tradicional muestra su satisfacción por el desfile y el último fallo del TSJPV”, *El Diario Vasco*, 2002/07/20, 10; “Bidasoaldeko Emakumeak recurirá ante el Supremo”, *Gara*, 2002/08/03, 14.

⁶⁶⁴ “Jaizkibel tiene previsto tomar parte en el Alarde”, *Gara*, 2002/08/03, 14; “La compañía mixta Jaizkibel prevé desfilar en el próximo Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2002/08/04, 10; “La compañía mixta intentará desfilar de nuevo en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2002/08/31, 11; “El Ayuntamiento de Hondarribia concede el permiso para celebrar el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2002/09/06, 7; “El Ayuntamiento de Hondarribia autoriza el Alarde tradicional”, *Gara*, 2002/09/06, 19; “Jaizkibel se suma al desfile a pesar de no contar con autorización”, *Gara*, 2002/09/06, 21.

⁶⁶⁵ “Hondarribia vivió un Alarde brillante y sin polémicas”, *Deia*, 2002/09/09, 1; Eduardo Ortuzar, “Una enorme marea de rojo y blanco”, *Deia*, 2002/09/09, 6; Eduardo Ortuzar, “La lluvia respetó un Alarde de Hondarribia en el que no hubo incidentes”, *Deia*, 2002/09/09, 5; “Alarde festivo en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2002/09/09, 1; Ane Urdangarin, “Gran ambiente festivo y ausencia de incidentes en el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2002/09/09, 2-3; A. U., “«Seguiremos participando y dialogando, siempre en paz, para acabar con esta fractura social»”, *El Diario Vasco*, 2002/09/09, 5; “Lazkanotegi destaca el ambiente cordial en el que discurrió su último Alarde”, *El Diario Vasco*,

“Todos estos años atrás ha habido mucha tensión y este año no la ha habido. Por eso me alegro por el conjunto de la ciudad de Hondarribia. Lo importante es que haya paz social, como ha ocurrido esta vez. (...) El grupo minoritario tiene que ser responsable de que los cambios sociales o las formas de pensar no son algo que se puede resolver en dos días.”⁶⁶⁶

EAJko alkate zenak bake sozialari eman zion lehentasuna, Alardearen konfliktoan ere eta alderdi politiko horren posizio hori ez zen soilik Bidasoaldean ematen. Kasu horretan, emakumeak Alardean ateratzea ukatzea bake soziala mantentzea bazen, eta horrekin batera ordena soziala bermatzea, horren alde jardungo zuten. Beste gatazka batzuetan, EAJ alderdiko politikaren oinarria 1990eko eta 2000ko hamarkadetako berdina izan zen, eta, beraz, askotan aipatzen ziren Bidasoaldeko EAJ eta EAeko EAJren arteko inkoherentziak agian ez ziren hain handiak, eta logika berberetik jardun zuten. Izan ere, ordena eta bake sozial horren baitan zuten boterea.

Jaizkibel konpainia irailaren 8an, goizean goiz formatu, kantineraren bila abiatu, eta ondoren, Alardea hasten zen tokira joaten saiatu zen, baina Ertzaintzaren lerro batek ekidin zuen Gernikako Arbolara gerturatzea. Enfrentamenduak ekiditeko Alardearen ibilbidetik kanpoko kale batzuetatik desfilatzen ibili ziren Jaizkibeleko kideak, Ertzaintzak disolbatzea agindu zien arte. Orduan, Alardea amaitzen zen puntura joan ziren batzuk, eta bertan, “emakumeak Alardean” pankarta bat zabaldu zuten Alardea aurretik pasatzen zen bitartean. Ixabel Alkain Etxeberria kapitainak emakume eta gizonen Alarde bakar baten alde borrokan jarraituko zutela adierazi zuen. Guztiena zen festa bat gutxi batzuen eskuetan uztea egotzi zion alkateari, eta pribatizazio horrekin tradizioa hautsi zutela salatu.⁶⁶⁷

Irunen gertatu bezala, 2002ko Alardea igaro eta gutxira, Juana Mugarrietakoa kolektiboak 2001ean jarritako errekurtsioa atzera bota zuen EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak. Errekurtsio hori alkateak Alarde tradizionalari Ikuskizun Publikoen Legearen

2002/09/09, 5.

⁶⁶⁶ “«Este año hemos dado un salto cualitativo hacia la normalidad», sostiene el alcalde”, *El Diario Vasco*, 2002/09/09, 4.

⁶⁶⁷ Jone Guindo, “La Ertzaintza disolvió a Jaizkibel tras permitir que desfilara fuera del recorrido durante una hora”, *El Mundo*, 2002/09/09, 16; J. G., “Descargas de pólvora y emoción”, *El Mundo*, 2002/09/09, 17; M. Marín, “Las mujeres del Alarde de Hondarribia se limitaron a una propuesta simbólica”, *El País*, 2002/09/09, 1 (País Vasco); “Arteaga y la «ararteko» mantienen la reivindicación femenina”, *El País*, 2002/09/09, 3 (País Vasco); “La compañía Jaizkibel fue marginada un año más”, *Gara*, 2002/09/09, 15; “Emakumeek ezin izan zuten parte hartu soldadu modura”, *Egunkaria*, 2002/09/10, 13.

babesean desfiltatzeko eta bertan emakumeak baztertzeko baimenaren kontra zen, eta auzitegiak hori ukatzean antolakuntza pribatuaren formula legalitatearen barnean sartzen zela esaten ari zen. Hori gertatu eta egun batzuetara, Espainiako Auzitegi Gorenak berretsi egin zuen 1998an EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Hondarribiko Alardeari buruz emandako epaia, hau da, publikoa zen Alardea izanik emakumeak baztertzea konstituzioaren kontrakoa zela zioena. Borja jauregi alkateak EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurka errekurtsioa aurkeztu zuenez, Espainiako Auzitegi Gorenak horren epaia eman behar zuen, eta emakumeen alde egin zuen. Hala ere, ez zuen eragin handirik izango. Izan ere, 2002an Alardeek antolaketa pribatua zuten gero EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak horren parte hartzaileen inguruan erabakitze eskumena zutela epaitu zuen, eta, beraz, baita emakumeak soldadu gisa kanpo geratzea ere. Mertxe Trancheren egun horietako deklarazioak jaso zituen *Egunkariak*:⁶⁶⁸

“(…) atzo EGUNKARIAri adierazi zionez, «kontentu» daude, «epaiak eragin praktikorik izango ez duen arren». «Jada ezinezkoa da epai hau betetzea; baina guri, indarra eta zilegitasuna ematen digu. Izan ere, azken aldian gauzak hain gaizki atera zaizkigu, ez genuela atzerapauso bat emango zenik baztertzen. Baina ez da horrela gertatu, eta egindako bidea trinkoa eta sendoa dela argi gelditu da», gaineratu du Tranchek.»⁶⁶⁹

Azken aldian gauzak gaizki atera izana aipatu zuen. Izan ere, zazpigarren urtea zen jada emakumeak Alardean ateratzearen alde borrokan zeudela, eta hasiera batean inolaz ere ez zuten uste izan hain luze joko zuenik. Alardeen pribatizazioarekin eta azken sententziekin, gainera, lehenagotik ere zaila eta gogorra izaten ari zen borroka are zailago bihurtu zen. Juana Mugarrietakoa kolektiboak alkateari emakumeak Alardean parte hartzea bermatzea exijitu zion, azken sententzian oinarriturik, eta Jauregik eta Buenek erantzun zuten udalek antolatutako ekimenetan berdintasun printzipioak bete behar zirela argi zutela, baina Alardeak ez zirela kasua adierazi zuten. BAAk bide

⁶⁶⁸ “Alarde tradizionala baimenduz Udalak ez duela legea hautsi dio EAEko Auzitegi Nagusiak”, *Egunkaria*, 2002/09/26, 19; “El TSJPV falla a favor de la fórmula de organización del Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2002/09/26, 7; “Emakumeek alardean parte hartzeko eskubidea berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak”, *Egunkaria*, 2002/10/01, 1; “Auzitegiak arrazoi eman die emakumeei”, *Egunkaria*, 2002/10/01, 2; “El TS reconoce el derecho de la mujer a desfilar en Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2002/10/01, 1; “El TS reconoce el derecho de la mujer a desfilar en el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2002/10/01, 4; “El alcalde no cree que la sentencia vaya a modificar la fiesta”, *El Diario Vasco*, 2002/10/01, 5; “El Supremo reconoce el derecho de las hondarribitarras a desfilar en el Alarde”, *Gara*, 2002/10/01, 17.

⁶⁶⁹ Eider Goenaga, “Emakumeak Alardean parte hartzeko eskubidea dutela berretsi du Gorenak”, *Egunkaria*, 2002/10/01, 14.

berean momentu horretako Alardeei ez ziela eragiten esan zuen. Bestetik, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren Alarde pribatuen aldeko epaiaren aurka Espainiako Auzitegi Gorenean errekurtsioa aurkeztu zuen Juana Mugarrietakoa kolektiboak, Irunen gertatu bezala. Nahiz eta antolakuntza pribatua izan, diskriminazioa ilegala zela aldarrikatu zuten, eta enpresa pribatu baten baitan pertsonen kontratazioa ezin zela bazterketan oinarritu, eta, beraz, Alarde pribatuetan ere ezin zen azaldu.⁶⁷⁰

Alardeen gatazkan gizonetzko soldaduak soilik nahi zituztenek erabili zuten tresnetako bat pribatizazioarena izan zen. Arlo pribatuan berdintasun eskubidearen gainetik zegoen erabakitze eskubidea. Festa bat, herriaren ondasuna, sinbolikoki eta emozionalki oso errito garrantzitsua bihurtu zena, esku pribatuetan uztearen posibilitate eta erabakia ezin dugu ulertu 90eko hamarkadako testuinguru eta egoera politiko, sozial eta kulturaletik aparte. Izan ere, edozer gauza izan zitekeen merkantzia, eta publiko izan ziren sektore eta jardueren pribatizazio prozesuak nabariak ziren hamarkada horretan:

“(…) *mendebaldeko* jendarteetan, asko aldatu da festen testuinguru eta izaera: laborantza-jardueraren galerak (eta, ondorioz, horrek bizitza soziala markatzeko moduen galtzea), industrializazio- eta urbanizazio-prozesuek, turismoak, ikuskizunen kultura edota kontsumoaren kulturaren gisako aldagaiek eragina izan dute festen izaeraren garapenean, jendarteko eremu guztietan, nola, kulturaren eremuan ere gertatu den merkantilizazioa ahaztu gabe.”⁶⁷¹

Aldaketa horrek Alardearen egiteko moduetan ere eragina izan zuen. Horietako bat Alardean desfilatzeko kuota bat ordaindu behar izatea zen, lehen diru publikoz finantzatzen zena ordaintzeko. Alardean ateratzen ziren gizon batzuei ordaindu behar izate horrek eragin zien desfilatzeari uztea: “Eta ni hasi zirenean egin behar zutela Alarde Fundazioa eta pagatu behar zela kuota eta ez dakit zer, ni jada fuera, ez nintzen ateratzen, ez batian, ez bestian.”⁶⁷² Alarde tradizionalen norabide eta aldaketak, emakumeak irtetea ekiditeko, desadostasun eta ondoezak eragin zituen barne mailan.

⁶⁷⁰ Ainara Arratibel, “Udalak emakumearen parte-hartzea bermatu behar duela dio Jaizkibelek”, *Egunkaria*, 2002/10/04, 17; “El colectivo de mujeres recurre al TS contra la fórmula que autoriza el Alarde privado”, *El Diario Vasco*, 2002/10/04, 5; Imanol Inziarte, “Exigen al alcalde de Hondarribia que cumpla las sentencias sobre el Alarde”, *Gara*, 2002/10/04, 20; “Borja Jauregi reitera el carácter privado de la fiesta actual”, *Gara*, 2002/10/04, 20; “Betiko asegura que la sentencia del TS «no afecta a los Alardes»”, *El Diario Vasco*, 2002/10/06, 8; “Alcaldía recuerda que los tribunales respaldaron su autorización del Alarde privado”, *El Diario Vasco*, 2002/10/17, 14.

⁶⁷¹ Miren Guilló Arakistain (koord.), *Festak, genero-harremanak eta feminismoa...*, 9.

⁶⁷² Joxe Mariri (pseudonimo) egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziaik egin. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/16 (pasarte bat).

Baina azken urteetan disidentzia isilarazteko eraikitako makinaria guztiak komunitatearen barnean zalantzak eta kontrako iritziak plazaratzea ekidin zuen, eta banaka Alardean parte hartzeari uztea izan zen askoren irtenbidea.

Herria terminoaren esanahi ezberdinek talka egin zuten; izan ere, batzuentzat Alardearen antolakuntza AFren edota Alarde tradizionalaren Juntaren esku uztea herriaren esku uztea zen, eta beste batzuentzat, ostera, herriari bere ondasuna lapurtzea. Bi herriren definizioak kontrajartzen ziren, beraz, herri horien osaketa eta kontzepzioak desberdinak zirelarik. Zeintzuk osatzen zuten herria? Zer parametro eta ardatzen inguruan eraikitzen zen herri bakoitza? Herri terminoak partzialtasun batetik osotasun bat edota unibertsaltasun bat materializatzeko aspirazioa du. Partzialtasun ezberdin horiek hegemonia lortzeko harreman dialektiko batean daude. Gizonez osaturiko Alardearen komunitateak herri izatearen bataila irabazi zuen, gehiengoaren ordezkari bihurtuz eta genero ordena mantenduz. Haienezako Alardea udalaren esku egotea, finantzaketa publikoa izatea eta horrekin epaiek ezarritakoa bete behar izatea ez zen herriaren ondasun izaten jarraitzea, haiek irudikatzen eta eraikitzen zuten herriaren ordena soziala apurtzen baitzuen horrek. AFren esku egoteak, esku pribatuetan egotea suposatu arren, herriaren nahia betetzeko balioko zuela uste zuten, hau da, emakumeak Alardetik kanpo geratuko zirela, nahiz eta horrek beste aldaketa batzuk eragin herriaren definizioaren baitan. Herriaren kontzepzio horri beste batzuk kontrajarri arren, emakume eta gizonak Alardean berdintasunean desfilatzearen alde, beste batzuk herritar sentitzea ekidin zuen:

“Ematen du hondarribitarra izatea dela betiko Alardearen aldekoa izatea eta remoa gustatzea, orduan, niri me ha llegado un momento que Hondarribiak ematen dit nazka pixka bat egia esan. Porke jende guztiak baina niretzat, nik bizitu dudana Hondarribiak... remoak ere ematen du, herrian... es que no sé... es que ezin dut ulertu, ezin dut ulertu. Eta ematen dit nazka bastante, eta oraindik ere eta bai.”⁶⁷³

Alarde tradizionalaren aldeko partzialtasun horretatik herri izatearen osotasuna materializatu zuten, eta horren ondorioz, jende askok osotasun horretan egon ahal izateko partzialtasun hori onartu edo barneratu behar izan zuten. Beste asko

⁶⁷³ Nereari (pseudonimo) egindako elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/15 (pasarte bat).

partzialtasun hori ez onartzeagatik osotasunetik kanpo geratu ziren, herritik kanpo, hain zuzen.

2002ko irailean Alberto Buenek Irungo alkate karguari uko egin zion, legealdia amaitzeko urte bete baino gutxiago falta zenean. Bere azken batzarra gatazkatsua izan zen, Batasunako zinegotziek Euskal Herriko demokrazia falta salatzeke kartelak jarri zituztelako, eta alkateak horiek kentzeko eskatu zuelako. Ezezko erantzuna jaso ostean udal poliziarri agindu zion kartel horiek kentzeko, eta protesta gisa Batasunako zinegotziek alde egin zuten. Momentu horretan, publikoan zeuden batzuek kartel berdinak atera, eta oihuka hasi ziren demokraziaren alde, Euskal Herriari hitza eta erabakimena ematea exijituz. Alberto Buen alkateak eman nahi zuen normaltasun irudiarekin apurtzeko egin zutela adierazi zuten. Espainiako Partiduen Legea indarrean zegoen jada, eta Baltasar Garzón Audientzia Nazionaleko epaileak Batasuna alderdiaren jarduna geratzeko agindua emana zuen. Handik hilabete batzuetara iritsiko zen Batasuna, EH eta HB legez kanpo uzteko erabakia. Alkate aldaketak eta emakumeak Alardean ateratzearen alde zegoen alderdia legez kanpo uzteak Alardearen gatazkan eragina izan zuen. José Antonio Santano izendatu zuten alkate PSE-EE eta PPren aldeko botoekin, eta hilabete batzuk atzerago egon zen Arartekoaren laguntzailearen izendapenaren polemikaren ondorioz, Buen kargu publikorik gabe geratu zen denbora batez.⁶⁷⁴

1996an emakumeak soldaduz Alardean sartzen saiatu zirenean zalantzan jarri zuten ordena soziala, eta horren aurrean, mekanismo desberdinen bidez berrezartzen saiatu ziren. Hasiera batean, herri-komunitatetik kanporatu zituzten emakume horiek, eta *abjektuaren* esparrura kanporatu, *bestea* eraikiz. Alarde egunetan emakumeek desfilatzea ekidin zuten giza tapoien bitartez, eta urtean zehar ere herritik bota zituzten irain eta eraso bidez. Emozioen artikulazio eta herri-komunitatearen eraikuntzak ordena berrezartzeko beharrezko indarkeria legitimatu zuen. Bertako alderdi eta udalen babesa, zuzena ala zeharkakoa, hasieratik izan zuten emakumeak Alardean ateratzearen kontrakoek. 2002. urtean auzitegien epaiek ordena berrezartzeko prozesuan pausu bat aurrera egitea ahalbidetu zuten, genero ordena mantentzen zuen Alarde pribatuaren alde eginez. Horrela, indarkeriaren monopolioa zuten indar polizialek Alarde egunetan emakumeak Alarde pribatuetatik kanporatu zituzten, eta ondorioz, herritarren tapoia ez

⁶⁷⁴ “Alberto Buen expulsado a un grupo de ciudadanos del salón de plenos durante su despedida como alcalde”, *Gara*, 2002/09/05, 12; “Santano tomó su cargo como alcalde”, *Gara*, 2002/09/11, 18.

ziren beharrezkoak izango, ezta egunerokotasuneko eraso eta jazarpena ere, horiek ordena berrezartzeko eta arriskua ezabatzeko egiten baitziren. Aurreko urteetan ordena publikoa mantentzera bidalitako ertzainek ordena soziala bermatu eta babestu zuten, emakumeak Alardeetatik kanpo uzten zituen ordena, hain zuzen. 2001etik aurrera, ordea, emakumerik gabeko Alarde pribatua babestera joan ziren indar polizialak, eta horretarako, bertara sartzen saiatu ziren emakume eta konpainia mistoak kanporatu zituzten. Finean, emaitza berbera izan arren, arrazoi ezberdinak zeuden tarteko. Hala, Alardean atera nahi zuten emakumeak guztia kontrari eta aukera oso gutxi zituztela iritsi ziren 2002ko urte bukaerara. Ordena blindatu zuten instituzio eta botere lokalek, hauteskondeek emandako legitimazio bitartez, epaitegietako sententziek eta hori betearazteko betebeharra zuten indar polizialek. Horrez gain, nahiz eta komunitate *abjektuarekiko* indarkeria zentzu batean apaldu, inoiz ez zen desagertu, horren existentzia soila arrisku potentzial baitzen. Azaltzen joan garen emozioen artikulazioa errotu zen, Alardearekiko maitasuna eta *bestearekiko* gorrotoa, eta norma emozional bilakatzean oso zaila izan zen hori aldatzea.

6. Kapituluia. Guztia galtzen denean, edozer irabaztea izan daiteke (2003-2008)

6.1. Sarrera: hamar urte borrokan

Emakumeak Alardean ateratzearen aldeko planteamendua egin eta horren bueltan Hondarribian antolatzen hasi zirenetik hamar urte pasa ziren. Hasiara hartan, denbora gutxian lortu zezaketen helburutzat zuten emakumeak modu batean edo bestean baina gizonen pare Alardeetan irtetea. Urteek aurrera egin ahala, konturatzen joan ziren luzerako joango zela sorturiko gatazka eta helburura iristea, baina ez zuten etsi eta urtero Alarde egunetan soldaduz jantzitako emakumeak kalean presente egon ziren, nahiz eta Alardeetatik kanpo. Modu ezberdinetan saiatu ziren Alarde egunetan aldarria aurrera eramaten, baina baita ere urte guztian zehar, elkarriketak, errekursoak, sentsibilizazio kanpainak eta abar eginez. Emakumeak Alardeetan ateratzearen kontrakoak, ordea, bere horretan mantendu ziren, eta erreakzioa antolatu zuten ordena berrezarri eta Alardea gizon soldaduz bakarrik osatuta jarraitzeko.

Bi aldeak aurrez aurre mantendu ziren, emakumeak Alardeetan ateratzearen aldekoek negoziazio eta prozesu mailakatu batez hitz egiten zuten, urte batzuetan emakumeak Alardeetako konpainia guztietan ateratzearen eskubideari uko egin baina gatazka konpontzeko helburuarekin. Blokeo momentu batera iritsi ziren, ordea, bide eta aukera guztiak agortuta zeudela zirudien, aktore guztiak posizio hartuta, komunitateak zurrun eta polarizatuta. Baina ez zegoen atzera bueltarik. Emakumeak Alardeetan parte hartzearen aldekoek borrokan jarraitu zuten, eta kontrakoek haien Alardeak babesten eta horiek arriskuan jarri zitzakeen edozein ekintza mozten saiatzen. Alarde pribatuen aldeko epaiek gizon soldaduz osaturiko Alardeak babestu eta ordenaren berrezarpena blindatu zuten, herriak gauzatutako indarkeria maila altua beharrezkoa izateari utziz. Eta nahiz eta emakume soldaduen existentziak soilik ordena zalantzan jartzeko potentzialtasuna izan, disidentzia herritik kanporatuz eta gizonez osaturiko Alardeak defendatuz lortu zuten ahalmen hori neutralizatzea.

BAE, Juana Mugarrietakoa edota Jaizkibel konpainiako kide askorentzat egoera sostengaezina zen, eta haien bizitzetan izandako eragina gehiegizkoa. Horregatik eta bide guztiak agortuta zeudela, borrokan jarraitu zuten, baina tentsioa jaitsi nahian eta enfrentamendu zuzenak edota bortitzak ekiditen. Frustrazio eta desesperazio puntu altu batera ere iritsi ziren, generazio eta jende berria gerturatzen ez zela ikusirik eta luzera

zihuan gatazka izango zela argi zegoenean, beharrezkoa izango zen denbora iraun ez zezaketenaren beldurrez. Irunen azken bi urteetako Alardeetako enfrontamenduen eta Ertzaintzaren bortizkeriaren ondoren, berriro ere Alarde parekidea antolatzearen apustua egin zuten, luzera begira geroz eta jende gehiago batzearen helburuarekin, eta noizbait Alarde tradizionalak baino kide gehiago izanda, azken hori zaharkituta geratu eta Alarde parekidea herriaren Alarde bihurtzeko. Hondarribian Jaizkibel konpainia ez zen gehiago Alardean baimenik gabe sartzen saiatu, bere ordutegi eta ibilbide propioa eginez geroz eta jende gehiago batzearen itxaropenarekin eta noizbait Alardean beste konpainiekin bat desfilatzen uztearen ideiarekin.

6.2. Normalizazioa ezartzera bidean

Udal hauteskundeak 2003ko maiatzean izan ziren, eta nahiz eta Alardeen gatazkak lau urte atzerago eragindakoa askoz handiagoa izan, ezinbestean gatazkan posizio hartzen jarraitu zuten alderdi guztiek eta Alardeek hauteskundeetan eragina izaten. Hala ere, gatazkan jada alderdien lekua, pisua eta jarrera ezarrita zegoen. Ez zegoen pertsona deserosoak zerrendetatik ateratzeko beharrik, eta ez zen ezustekorik izan, aurrekoetako tendentziak jarraitu zuelarik. Urte horretako hauteskundeak Ezker Abertzaleko alderdien ilegalizazioak ere baldintzatu zituen, eta Hondarribian eta Irunen Branka eta Irun Herria izeneko plataforma abertzaleen bitartez hartu zuten parte.⁶⁷⁵ Hondarribian EAJ-EA koalizioak berriro ere gehiengo osoa lortu zuen, 400 boto gehiago irabazita eta zinegotzi kopuru berdina lortuta. Brankak 2003an EHk 1999an lortutako emaitzak okertu zituen, 300 boto eta zinegotzi bat gutxiagorekin. PP eta PSE-EEk emaitzak mantentzea lortu zuten, zinegotzi bana lortuz, eta EB udalean sartu zen, zinegotzi bakarrarekin. Irunen, berriz, PSE-EEk emaitzak hobetu, eta bederatzi zinegotzi eta 1.000 boto gehiago izan zituen. EAJ-EAk ere 1.000 boto gehiago lortu zituen, baina zinegotzi kopuru berdinarekin geratu, zortzirekin, hain zuzen. PPK boto gutxi batzuk galdu zituen, baina zinegotzi bat gutxiago lortzea eragin zuen horrek. Irun Hiriak lau urte lehenago EHk lortutako baino 1.000 boto gutxiago izan zituen, eta zinegotzi bat

⁶⁷⁵ Ezker Abertzalearen eta ETAREN kontrako jazarpen prozesuan aipatu behar dugu 2003ko otsailean *Euskaldunon Egunkaria* Audientzia Nazionalaren aginduz eta ETAREN tresna izatea argudiatuz itxi zutela. Horrez gain, hamar lagun atxilotu zituzten, horietatik bostek inkomunikazio egunetan torturak salatuz eta 2010ean ateratako sententzian errugabetzat joz. 2003ko ekainak 21ean *Berria* egunkaria publikatzen hasi ziren.

galdu zuen, birekin geratuz. EBk Irungo udalean presentzia izatea lortu zuen berriz ere, zinegotzi batekin.⁶⁷⁶

Udaletako egoerak bere horretan jarraitu zuen, eta, beraz, Alardearen gatazka desblokeatzeko koiuntura berezirik ez zen sortu. Irunen 2002ko irailean alkate berria izendatu zen, Alberto Buenek alkatetza utzi eta José Antonio Santanok hartu baitzuen. 2003ko hauteskundeetan hori berretsi zen, eta alkate berria aurrekoaren bide antzekotik joan bazen ere, Alarde mistoaren kontra nabarmena izan zen mugimendu bat egin zuen. Mertxe Trancheren hitzek honela azaltzen dute:

“Entonces decidimos volver a organizar el Alarde municipal, pero ya había cambiado el alcalde. Llegamos ahí, nos enseñó la ley de bases del régimen local: «aquí no pone que yo tenga la obligación de organizar un Alarde, tengo que llevar agua a las casas, luz, asfaltar, pero no pone que yo tenga que organizar un Alarde», pues no organizó un Alarde.”⁶⁷⁷

Sententziek behartuta Buenek Alarde ofizial parekidea antolatu behar izan zuen, Alarde tradizionala baimendu eta legitimatzen zuen bitartean. Azken sententziek Alarde pribatuak legalak zirela zioten, eta gainera, Santanok inolako Alardetik antolatzeko betebeharririk ez zuela aldarrikatu zuen. Beraz, Alarde parekidea finantzaketa eta udalaren babesik gabe geratu zen, eta arautuko zuen ordenantzatik kanpo, tartean gatazka iturri izan ziren ordutegia eta ibilbidea markatzen zituena. Hala ere, aurrera egitea erabaki zuten, eta udal finantzaketarik gabeko Alarde bat antolatzeko lanekin jarraitu zuten. Orduan ere eztabaidak izan ziren emakumeak Alardean ateratzearen aldekoen artean, eta oraingoan, baita botere harremanek, prestigiozko postuek eta kontrola nork edukiko zuen lehiak eraginda ere. Jon Mirandaren hitzak dira hauek:

“Oiasso atera ondoren, berriz ere berreskuratu zen Alarde mistoa eta berriz ere auzoetan antolatzen hasi ginenean, bueno zenbat borrokan izan ziren. Esate baterako, kapitaina, prestigiozko postu moduko horiek eskuratzeko. Deslejitimatuz jendea, adibidez hasieran atera ziren emakume horietako batzuk.

⁶⁷⁶ Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Junio 1999. Hondarribia”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 2003. Hondarribia”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Junio 1999. Irún”; Gobierno de España, Ministerio del Interior, “Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 2003. Irún”

⁶⁷⁷ Mertxe Trancheri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/04/16 (pasarte bat).

Esanez betiko argudio horiek baina gure jendeak edo Alarde parekidean ateratzen den jendea esanez ez zutela balio batzuk postu horretan ateratzeko eta beste batzuk bai. Ez dakit, igual baita ere segun eta zein ideologiatako jendea hortik apartatu nahian. Hor bazeuden borroka pila bat, nik uste dut hor barruan. Pixka bat, mugimendu bera hori ere, pixka bat kontrolatzeko edo ez dakit. Egongo ziren beraien mobidak eta pixka bat gu hor harrapatu gintuen tartean eta erabili ere bai. Gu, gazteagoak ginenak, «jarri zaitez zu, zu zarela pertsona neutro bat eta horrela neutralizatzen ditugu bi zera horiek» eta holako joko zikin batzuk.⁶⁷⁸

Barne eztabaidak hasieratik egon zirela azaldu dugu, batez ere helburu eta estrategiei begira. Eta Mirandak azaltzen digu Alarde parekidea sortu eta gutxira ere Alardeetan zeuden tirabirak erreproduzitu zirela. Lehen Alarde parekidean prestigio postuen lorpenaren lehiakortasuna hein handi batean gertatu ez zela azaldu dugu, egoera eta testuinguruak eraginda, baina urte batzuk pasa eta azaltzen joan ziren. Ez soilik hierarkian gora egitearen inguruan, baita hegemonia eta kontrola nork edo zein ideologiak lortzearen artean ere. Alardea bere baitan gatazka zela esplikatu dugu, eta, beraz, baita Alarde parekidea ere. Karmele Tolosa Erroren hitzak argigarri zaizkigu dinamika horiek azaltzerako orduan: “Nik horrela oroimena, azkenean Alardea zen sakrosantoa, zen lehenago eta da orain. Eta jarraituko du izaten, izango da manera batean edo bestean.”⁶⁷⁹ Iritzi horrekin azaldu nahi dudana da Alardearen ezaugarri batzuek ahalbidetzen zutela dinamika eta logika batzuetan erortzea. 90eko hamarkadako Alardean postu desberdindu batzuk egotea eta prestigio iturri izatea zaila zen aldatzen Tolosaren esanetan, Alardearen esentziak berak ezinezko egiten zituelako aldaketa batzuk. Alarde mistoan, esan beharra dago erabakiak demokratizatu zirela maila batean, kantineren aukeraketa zozketa bidez egitean, adibidez. Elitismo eta hierarkia maila apaldu bazen ere, ez zen guztiz ezabatu, eta denbora igaro ahala handitu zitekeen. Estitxu Urbina⁶⁸⁰ esaldiak ondo laburtzen du esandakoa: “Alardea, estrukturalki no deja de ser un dinosaurio viejo eta oso zaila da horri buelta ematen.”⁶⁸¹

⁶⁷⁸ Jon Miranda Labaieni eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/19 (pasarte bat).

⁶⁷⁹ Karmele Tolosa Errori eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2021/02/24 (pasarte bat).

⁶⁸⁰ Estitxu Urbina Pastor 1990ean jaio zen Irunen eta 18 urtetatik Irungo Alarde mistoan desfilatzen du.

⁶⁸¹ Estitxu Urbina Pastorri eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/07/25 (pasarte bat).

Testuinguru horretan Irun Herria plataformak Alarde bakar eta parekide baten alde egin zuen, eta hori lortzeko lanean zebiltzala esan. PP, PSE-EE, EAJ eta EAren jarrera elektoralista eta baztertzaila kritikatu, eta irtenbidearen bidean ezer gutxi egin izana egotzi zien. Alardearen gatazka Irunen emakumeen eskubideak existitzen ez zirenen adibidea zela azaldu zuen. Bide berean BAEk udalari bazterkeria babesten zuela aurpegiratu zion, gizonen Alardeari kobertura legal eta instituzionala emanaz. Horren aurrean BAEk Alarde publiko bakar eta parekide bat defendatu zuen. 2003ko Alardearen bezperan, bost urte atzerago egiteari utzi zitzaion zinegotzien aureskua egin zen, eta bertan kontzentrazio baten bidez Santanori Alarde mistoa egitea exijitu zioten. Kontrara 2.558 pertsonak firmatutako agiri baten bidez Arartekoaren dimisioa eskatu zuten, instituzioaren estatutuaren 13. artikulua urratzeagatik, hau da, epaitegien esku zeuden prozeduretan sartzearen debekua ez betetzeagatik.⁶⁸²

Egoera horretan iritsi zen Alarde eguna, finantzaketa propioa zuten bi Alarderekin. *Gara* egunkariko azalak honela azpimarratu zuen gertatutakoa:

“San Martzial egunean normaltasun eza izan zen nagusi. Emakumeek berriz ere soldadu gisa desfilatzeko aukera izan arren, San Martzial egunean ez zen normaltasunik izan. Alarde tradizionalaren ordutegiaren menpe egoteaz gain, Alarde mistoko lagunak irain sexistak entzun behar izan zituzten. Geldiuneak egitera ere behartu zituzten, desfile diskriminatzailearen aldekoek buxadura egin baitzuten emakume soldaduen jarduna oztopatzeko.”⁶⁸³

Aipatzekoa da Barne Sailak erabaki zituela ordutegiak, Alarde tradizionalari ohikoa emanaz, 8:25ean markatuz ateratzeko ordua, eta parekideari 11:15ean. Erabakia ordena eta bakea mantentzearen argudiopean egin zuen, baina horrek gizonez osaturiko Alardeari lehian zegoen ordutegia ematea suposatzen zuen. José Antonio Santano alkate berriak, gainera, Alarde tradizionalari udalean harrera egin zion, ez ordea parekideari.

⁶⁸² “Ertzainas pedirán en el Alarde de Irún más medidas de seguridad ante el terrorismo”, *El Diario Vasco*, 2003/06/24, 29; Aritz Sorzabal, “Irun Herria apuesta por «un único Alarde no discriminatorio»”, *Gara*, 2003/06/26, 18; “La Ararteko acudirá a Irún el día de San Marcial para apoyar el Alarde mixto”, *El Diario Vasco*, 2003/06/28, 5; “Dos desfiles y una marcha, en Irún”, *El Diario Vasco*, 2003/06/29, 11; “Bidasoaldeko Emakumeak subraya que en el Alarde «están en juego derechos»”, *Gara*, 2003/06/29; “Irún aplaudió la Revista de Armas”, *El Diario Vasco*, 2003/06/30, 10; “Concentración para reclamar un Alarde no discriminatorio en Irun”, *Gara*, 2003/06/30, 13.

⁶⁸³ “Irún se vistió de rojo, negro y blanco”, *El Diario Vasco*, 2003/07/01, 1; “Alarde con 7.600 soldados”, *El Diario Vasco*, 2003/07/01, 12-13; “Un tapón humano detuvo por unos minutos el Alarde mixto”, *El Diario Vasco*, 2003/07/01, 14; “El alcalde de Irún cree que «dos desfiles son la mejor solución con esta realidad»”, *El Diario Vasco*, 2003/07/01, 15; “San Martzial egunean normaltasun eza izan zen nagusi”, *Gara*, 2003/07/01, 1.

Urte horretan luze joko zuen fase berri bat hasi zen. Emakumeak Alardean parte hartzeko saiakera ezberdinak egin zituzten azken urteetan Alarde egunetan bertan, baina baita urte guztian zehar ere. Fronte ezberdinak izan zituzten, baina kontrakoek guztiak neutralizatzea lortu zuten, pribatizazioaren ondorioz epaitegiak eta indar polizialak ere esplizituki kontra lerrokatuz. Hau da, lehen urteetan Ertzaintzak ordena publikoaren eta segurtasun fisikoa mantentzearen aitzakiapean emakume soldaduak Alardean sartzea ekidin bazuen ere, oraingoan Alarde tradizionalako kideek horrela nahi eta agintzen zutelako egiten zuten. Gainera, Santano alkate berriak Alarde publikoa egiteari utzi, eta Alarde tradizionalari eman zion babes. Hala, emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek egoera zaila zuten, baina ez zuten amore eman eta Alarde propioa egiten jarraitu zuten, tradizionala “bakean” utziz. Nahiz eta horrela zentzu batean tentsioa eta indarkeria jaitsi, gizonez osaturiko Alardea defendatzeko beharrik ez zegoelako, beste batzuentzat emakume soldaduak beste Alarde batean, guztiz bananduta irtetea ere, haien existentzia soila, arriskua zen eta ordena apurtzeko potentzialtasun eta bilakaera izan zezakeen. Horregatik, urte horretan ere batzuk Alarde mistoa oztopatzen ahalegindu ziren.⁶⁸⁴

Hondarribiko Alardea gerturatu ahala, mugimenduak handitzen joan ziren. Arartekoak eta Emakundek udalari emakumeen parte hartzea bermatzeko eskatu zioten. Antolakuntza pribatua bazen ere, berdintasuna espazio horretan betetzeko eginbeharra zuela argudiatuta. Juana Mugarrietakoak udalari Alarde publiko eta parekidea antolatzeko proposamena egin zion, baina udalak AFri desfile tradizionala antolatzeko baimena eman, eta Alardetik antolatzeko betebeharririk ez zuela erantzun zion. Egoera ikusita, Jaizkibel konpainiak Barne Sailari goizeko 11:00 eta 13:00 artean desfilatzeko baimena eskatu zion, hau da, Alarde tradizionaletik guztiz kanpo. Guztia kontra izatearen ondorio izan zela suposatu dezakegu, eta borrokarekin jarraitzeko Hondarribiko kaleetatik haien kabuz desfilatzeko hautua egin zuten. Horrek ere luze joango zen etapa berri bat ireki zuen. Jaizkibelen estrategia noizbait gauza lasaitu eta Alarde barruan beste konpainia baten gisan desfilatzeko baimena lortzea zen. AFk, ordea, Barne Sailari baimena ukatzeko eskatu zion, Jaizkibelek ordu horietan desfilatzeak istiluak sortuko zituela esanez. Jaizkibelek egindako prentsaurreko batean konpainiaren asmoa berretsi zuen, eta azaldu urte horretako entseguak istilurik gabe

⁶⁸⁴ Aritz Sorzabal, “San Marcial no deparó nada nuevo”, *Gara*, 2003/07/01, 14.

egiten ari zirela eta giroa lasaitzen ari zela zirudiela.⁶⁸⁵ Alarde egunaren ondorengo *Garako* azalak honako hau zioen:

“Satisfacción de la compañía Jaizkibel. Los integrantes de la compañía mixta Jaizkibel completaron, aun rodeados por agentes de la Ertzaintza, el recorrido del Alarde de Hondarribia por primera vez. La capitana Ixabel Alkain manifestó que el día de ayer supone «el principio del fin» para la discriminación de la mujer en el desfile, aunque advirtió que «el camino todavía es largo» e instó a los representantes políticos a dar los pasos necesarios de cara a la normalización.”⁶⁸⁶

Jaizkibeleko kideek positiboki baloratu zuten ibilbide guztia egin ahal izatea, eta inoiz egin ez zutenez, aurrerapauso gisa kalifikatu zuten. Hori bai, Alardearekin ez ziren inongo momentuan nahastu ezta gertu egon, eta ertzainez inguratuta desfilatu zuten. Bestetik, Alardea ikusten zuten milaka pertsona desagertuak ziren konpainia mistoa kaleetatik pasa zenerako. “Bukaeraren hasiera” zela uste zuten, denborarekin konpainia handitzen joan eta tentsioa apaltzen zenean, Alardean sartuko zirenaren konbentzimendurekin. Horretarako, hala ere, herri-komunitatearen eta komunitate *abjektuaren* mugak lausotzea beharrezkoa zen. Ez ziren tapoi batekin ere topatu eta ibilbide osoa egin ahal izan zuten; izan ere, Alardean sartzeko inongo aukerarik ez zuten, eta, beraz, ezta ordena arriskuan jartzeko ere. Bestetik, kalean egotea lortu zuten, eta Alarde oso bat ez, baina konpainia misto bat egin eta desfilatu ahal izateak *abjektuaren* esparrutik herri-komunitate eta proiektu bat eraikitzen joatea ahalbidetu zuen, Alarde tradizionalak eraikitzen zuen herriarekin talka eginez, baina betiere horren barruan sartu nahian.⁶⁸⁷

Bai Irunen eta bai Hondarribian 2003ko Alardeetan tentsioa eta istiluak jaitsi zirela esan daiteke, emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek haien kabuz eta separaturik ospatu baitzituzten jaiak, eta horrez gain, Alarde tradizionala guztiz blindatuta geratu zen pribatizazioaren ondorioz, baina aurretik erreakzioak egindako guztiarekin bat.

⁶⁸⁵ “Hondarribiko Udalari dei egin dio Emakundek Alardea mistoa izateko”, *Gara*, 2003/09/02, 12; El Ayuntamiento autoriza el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2003/09/03, 18; “Autorizado en Hondarribia el Alarde «tradicional», *Gara*, 2003/09/03, 16; “Alarde Fundazioa dice que el desfile mixto «invita a la gresca», *Gara*, 2003/09/04, 18; “Jaizkibel realizará una manifestación el día del Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2003/09/05, 8; Aritz Sorzabal, “Partidarios del Alarde igualitario afirman que desfilarán pese «a las amenazas»”, *Gara*, 2003/09/05, 16.

⁶⁸⁶ “Alarde en Hondarribia con ambiente festivo”, *El Diario Vasco*, 2003/09/09, 1; Ane Urdangarin, “Hondarribia vivió el Alarde con gran ambiente festivo y sin incidentes”, *El Diario Vasco*, 2003/09/09, 10-11; Satisfacción en la compañía Jaizkibel”, *Gara*, 2003/09/09, 1.

⁶⁸⁷ Mikel Jauregi, “«Bidea luzea da, baina bukaeraren hasiera da hau»”, *Gara*, 2003/09/08, 14.

Maria 2004an itzuli zen Hondarribira. Beldurrarekin bueltatu zen, baina gauzak lasaitu zirela esan zioten, eta arrazoi zutela deskubritu zuen:

“Habían privatizado el Alarde para cuando yo regresé y, entonces, se había tranquilizado el pueblo a la hora de la convivencia del día a día. No del día 8, del día a día. Yo venía acojonada. «Que sí, que tranquila -me decían- que está todo bien», «¿seguro?», «Sí, sí, puedes volver». Volví y era cierto. (...) Y volví otra vez al día 8. O sea, eso no lo iba a dejar, cuando algo lo tienes claro, muy claro, te pueden meter mucho miedo: que me iban a echar del pueblo, que me iban a quitar la casa porque es de protección oficial... yo qué sé, bueno! No lo consiguieron, a pesar de todo el miedo que teníamos todas, resistimos.”⁶⁸⁸

Mariak pribatizazioa aipatzen du, eta hiru urte kanpoan pasa ondoren, Hondarribira itzuli zenean, haien kontrako eguneroko indarkeria baretu zela azaltzen du, ez horrela Alarde egunetakoa. Azaldu dugunagatik emakumeak Alardean ateratzearen aldekoen kontrako indarkeria ordena berrezartzeko eta ordena hori sostengatzen eta eraikitzen zuen Alardea babesteko egin zen. Herri-komunitatetik kanporatu zituzten, gorputz *abjektua*, *bestea* sortu eta indarkeria bitartez beldurtu eta desmobilizatzen saiatu, ordena arriskuan jartzeari uzteko, hau da, Alardean emakume soldaduen existentzia ezabatzeke. Instituzio lokalen babesa izan zuen hasieratik ordenak, eta ondoren etorri ziren epaitegi eta indar polizialena. Behin pribatizatuta, antolaketa pribatuak nork desfilatu eta nork ez erabaki zezakeen, eta hori bermatzeko Ertzaintzaren indarkeria zuten. Ordena aldatzeko arriskua, beraz, oso txikia zen, eta horrek egunerokotasunean eman zen indarkeria apaltzea ekarri zuen.

Urte horretan, 2004an, aipatzekoa da Alardeaz gain beste hainbat mobilizazio eta ekimen sozial egin zirela. Aurreko urteetan, azaldu bezala, Alardearen gatazkak irentsi eta monopolizatu zituen mobilizazio eta manifestazioak. Adibide bat jartzearren: Hondarribian 90eko hamarkadan Herri Olinpiada izenez ezagutzen zen ekimen arrakastatsua egiten zen, baina desagertu egin zen, eta parte hartzaile eta antolatzaileek bat egiten dute arrazoi nagusietako bat Alardearen gatazka zela esatean:

“97 izan zen azkeneko olinpiadak, Alardearen mobidagatik joan zen pikutara. Bai, bai, zen sartu zen, egin zen errelebo bat olinpiadetan, talde motorra edo, ez dakit,

⁶⁸⁸ Mariari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/09/26 (pasarte bat).

deituko diogu. Eta egondu ziren gatazka horiek Alardearen inguruan eta hortik joan zen pikutara.”⁶⁸⁹

2004an Hondarribiko aireportuaren zabaltze proiektuak auzo bateko 200 etxebizitza baino gehiagoren desjabetze eta eraistea suposatuko zuen. Horren aurrean mobilizazio eta manifestazioak egin ziren. Irunen, berriz, gaztetxe bat lortzera bidean hirurogei gazte inguruk eraikin bat okupatu zuten eta Gaztetxearen Asanblada sortu. Nahiz eta berehala kanporatuak izan, gaztetxearen aldeko borroka piztu zutela esan zuten, eta handik denbora batera gaur arte bizirik dagoen gaztetxea okupatu zen. Azken adibidea jartzearen, 2004an Jaizkibel Bizirik Eguna Hondarribian antolatu zen, Jaizkibel mendiaren alde eta kanpo portua eraikitzearen kontrako aldarria eta borroka egiten zuen eguna. Mobilizazio horiek Alardearen gatazka guztia monopolizatu eta gaiztotzen zuen garaia bukatzen ari zenaren ebidentzia dira.⁶⁹⁰

Irungo Alarde eguna gertu zela, udalak Alarde tradizionalari desfilatzeko baimena eman zion, baina Alarde mistoari ez. Espektakulu Publikoen Legeak eskatutako beharrezko dokumentazioa ez entregatzeagatik ukatu zuela azaldu zuen. Alarde mistoaren antolatzaileek, ordea, Barne Sailari ere eskatua zioten baimena, eta horren babesean desfilatzea lortu zuten. Alkatearen jarrera kritikatu zuten Gipuzkoako Emakumeen Koordinadorak eta Alarde mistoaren antolatzaileek, eta azken horiek gogoratu zuten martxoaren 31an udalari Alarde publiko bat egiteko edota Alarde mistoak behar zituen baliabide guztiak uzteko eskaera bidali ziotela eta ezetza izan zela erantzuna. Azkenik, Santanoren erabakia politikoa zela salatu zuten: “tiene que hacer ver a los *betikos* que es más *betiko* que nadie y que les va a seguir dando cobertura.” Emakundek edozein Alardetan emakumeak desfilatu ahal izatea bermatzea eskatu zion alkateari, eta Ararteko berriak, Iñigo Lamarcak, emakumeak baztertuko ez zituen festa herrikoia berreskuratzerantz estutu zuen.⁶⁹¹

⁶⁸⁹ Xabi Bengoetxea Erriondori eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2018/12/26 (pasarte bat).

⁶⁹⁰ “El Congreso español aprueba la renuncia sobre la ampliación del aeropuerto”, *Gara*, 2004/06/24, 19; Garikoitz Mujika, “Gaztetxea izango den eraikina okupatu ostean, kanporatuak”, *Gara*, 2004/06/26, 19; “Gaztetxearen aldeko borroka piztua dagoela esan dute”, *Gara*, 2004/06/29, 21; “Jaizkibel Bizirik Egunaren bigarren edizioa egingo dute datorren igandean”, *Gara*, 2004/06/30, 21.

⁶⁹¹ “El Consistorio de Irun concede la autorización al Alarde discriminatorio”, *Gara*, 2004/06/25, 15; “El alarde mixto desfilará pese a no tener permiso de Santano”, *Gara*, 2004/06/29, 1; “El Alarde mixto desfilará mañana sin la autorización del Ayuntamiento de Irun”, *Gara*, 2004/06/29, 17; “Emakunde pide que la mujer pueda participar en todos los alardes”, *Gara*, 2004/06/26, 15; “Miles de iruneses participan hoy en los desfiles”, *El Diario Vasco*, 2004/06/30; “Lamarca insta al Ayuntamiento de Irun a impulsar un

Aurreko urteko Alarde eguneko gertakariak antzekoak izan ziren 2004an ere. Berriro ere goizean Alarde tradizionalak izan zuen ohiko ordutegian desfilatzeko aukera, eta Alarde mistoak ondoren egin zuen. Ibilbide osoa egitea lortu bazuten ere, irainak, bultzadak eta objektuen jaurtipenak jaso zituzten Kale Nagusitik pasatzen ziren bitartean, eta ertzainek Alarde mistoaren eta kontrakoan artean hesi bat egina zuten. Tapoi bat egiten ere saiatu ziren desfileari bidea mozteko, baina indar polizialek desegin zuten. Santanok Irun tolerantziaren eredu zela azpimarratu zuen, eta bi Alardeen formula eta egoera irtenbidetzat hartu zuen. Pasa den urtean bezala, udaletxearen balkoira Alarde tradizionalari harrera egitera soilik irten zen, eta erasoan inguruan ez zuen ezer aipatu. Alarde mistoaren antolatzaileek Santanori exijitu zioten erasoak kondenatzeko eta Alarde publiko eta parekidea antolatzeko.⁶⁹²

Urte askoz luzatuko ziren gertakariak izango ziren Alarde egun hartakoak eta 2003koak. Bi Alarde bereizita ospatuko ziren; Santanok tradizionalari harrera egingo zion, eta puntu batzuetan Alarde mistoaren kontra egiten saiaturiko ziren. Egunean zehar normaltasuna nagusituko zen, eta horrek asko gatazka konponduta zegoela aldarrikatzera eramango zituen.

Hondarribian, aurreko urteetan bezala, Arartekoak Hondarribiko alkateari Alarde parekide bat antolatzeko eta sententziak betetzeko betebeharra zuela oroitarazi zion. Jaizkibelek positibotzat hartu zituen Arartekoaren hitzak, baina gatazka hasi zenetik urteak pasa ziren, eta alkateak ez ziola kasurik egingo argi zutela azaldu zuen. Horren aurrean, irailaren 8an, Alarde egunean, Alarde publiko eta parekide baten aldeko manifestazio deialdia zabaldu zuen. Manifestazioak hasieran pankarta bat eramango zuela azaldu zuten eta atzean Jaizkibel konpainiak desfilatuko zuela, ohiko ibilbidearekin, baina Alarde tradizionala igaro ondoren. Entseguak egin zituzten kaleetatik eta honako hau adierazi: “la tensión se ha rebajado, después de varios años con mucha agresividad.” Adierazpen horiek aurretik planteatutakoa baieztatzen dute. Hau da, Alarde mistoaren aldeko kideek Alarde tradizionalan fisikoki sartzeko saiakera

Alarde justo”, *Gara*, 2004/06/30, 13.

⁶⁹² “Irún celebra la gran fiesta de San Marcial”, *El Diario Vasco*, 2004/07/01; “Alarde de multitudes”, *El Diario Vasco*, 2004/07/01, 16-17; “El ambiente festivo ganó la partida en el Alarde mixto”, *El Diario Vasco*, 2004/07/01, 18; “La Corporación irunesa cumplió con el voto al margen de los dos Alardes”, *El Diario Vasco*, 2004/07/01, 19; “Calor popular frente a las agresiones”, *Gara*, 2004/07/01, 1; Aritz Sorzabal, “La Ertzaintza no evita las agresiones al Alarde mixto”, *Gara*, 2004/07/01, 16; A. S., “Santano: «Irun es un ejemplo de tolerancia»”, *Gara*, 2004/07/01, 16-17; “El Alarde mixto agradece los apoyos y exige una condena de las agresiones”, *Gara*, 2004/07/04, 18.

ez egitean eta pribatizazioaren ondoren ertzainek gizonak bakarrik desfilatzea babestean ordena hein handi batean berrezarri zuten. Aurreko urteetako indarkeria maila altua jada ez zen beharrezkoa, ordena berrezarrita baitzegoen, eta zalantzan jartzen bazen, indar polizialek babestuko zuten.⁶⁹³

Alarde egunean, aurreikusi bezala, Jaizkibel konpainiak pankarta baten atzean egin zuen ibilbidea, eta lehenengo aldiz hurrek ere desfilatu zuten. Hondarribiko Alardean haurrak konpainiaren azken postuan ateratzen ziren, kubo bat sorbaldan eramanda eta bost urtetik aurrera. Aurreko urteetako tentsio eta indarkeria giroak Jaizkibelen haurrak desfilatzea bideraezin egin zuen, baina 2004. urtean, lehen aldiz lortu zuten. Ertzainez inguratuta desfilatu zuten, eta bakarrik, publiko gutxirekin, baina ez zen tentsio unerik egon. Positiboki baloratu zuten eta epe hurbileko hurrengo helburua indar polizialik gabe desfilatzea izango zela adierazi. Klean desfilatu ahal izateak gorputz *objektuek* komunitatea sortzea ahalbidetzen zuen, eta, beraz, herri baten eraikuntzaren bultzatzaile izatea. Hala ere, kopuruari eta zentraltasunari begiratzen badiogu, Alarde tradizionalaren herri proiektua zen hegemonikoa, eta Alarde mistoak eraiki zezakeen herria guztiz bazterrean zegoen oraindik ere.⁶⁹⁴

6.3. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen mamua

2005eko otsailaren 18an EAeko Berdintasun Legea indarrean sartu zen, eta horrek Alardeei nola eragingo zien ikusteke zegoen. “Apustua, une honetan, zera da, berdintasunezko eskubide hori lege-testuetan formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatua izatea bermatzea.”⁶⁹⁵ Esaldi hori jasotzen zuen legeak, baina

⁶⁹³ “El Ararteko pide a Hondarribia un Alarde abierto a las mujeres”, *El Diario Vasco*, 2004/09/02, 4; “El Ararteko pide un Alarde igualitario en Hondarribia”, *Gara*, 2004/09/02, 1; “El Ararteko pide al Ayuntamiento de Hondarribia promover un Alarde con participación de las mujeres”, *Gara*, 2004/09/02, 16; “Jaizkibel: «La carta de Lamarka es positiva, pero el alcalde no hará caso»”, *Gara*, 2004/09/03, 16; “Jaizkibel se manifestará para reivindicar la participación de la mujer en el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2004/09/04, 8; Imanol Inziarte, “Jaizkibel volverá a desfilar por las calles de Hondarribia”, *Gara*, 2004/09/04, 14; “Iñigo Lamarka acudirá a la marcha por un Alarde mixto”, *Gara*, 2004/09/07, 18.

⁶⁹⁴ “Hondarribia vive hoy su día grande con la celebración del desfile del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2004/09/08, 6; “Hondarribia celebró su tarde con un gran ambiente festivo”, *El Diario Vasco*, 2004/09/09, 1; “Hondarribia vivió el Alarde tradicional con gran ambiente festivo y sin tensiones”, *El Diario Vasco*, 12; “La compañía Jaizkibel recibió muchos aplausos y pocos silbidos”, *El Diario Vasco*, 2004/09/09, 13; “Otro paso en Hondarribia”, *Gara*, 2004/09/09, 1; Imanol Inziarte, “Nuevo paso hacia el fin del esperpento”, *Gara*, 2004/09/09, 18.

⁶⁹⁵ Jauralaritzaren Lehendakaritza, “4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa”, *EHA*, 2005/03/02.

epaitegien azken joera pribatizazioaren ondoren biltzeko eskubide pribatua berdintasun eskubidearen gainetik kokatzea izan zen. Lege berri horrek ez zuen hori aldatu, nahiz eta Alarde egunetan gauza batzuk moldatu, zeinak azaltzen joango garen. Xabier Kerexeta Errok honela oroitzen du legea atera eta lehenengo Alardearen artean igarotako denbora:

“Gero etorri zen super legea, super aitzindaria, super pioneroa toki guztietan. Hori 2005ean izan zen, ez? Eta orduan zegoen bozeramaile Miren Azkarate, eta karo herri honetan denak jada geunden betiko izan, ez izan, denak, aber zer gertatzen den honekin. Eta aurkeztu zuenean legea, pioneroa, kazetari batek, fondokoa, ez zen ikusten ere. Telebistan ikusten zen eta fondoan galdetu zion: «el artículo que apruebe no sé qué, ¿esto qué significa que los Alardes tradicionales de Irún y Hondarribia no van a poder desfilan?» Eta bueno Miren Azkarate, nik imajinatzen nuen, faborez, faborez, pentsatzen dut zezen gaineko zortzi segundo horiek baina askoz luzeagoak egin zitzaioala eta segundo interminable batzuk eta: «¿no me va a responder?» eta berriro, eta azkenean beste batek beste galdera bat egin zuen eta erantzun zion.»⁶⁹⁶

Berdintasun Legeak Alarde tradizionalak legez kanpo utziko zituen galdetu zuen kazetari batek, baina bozeramaileak ez zion erantzun, eta hilabete batzuetara ikusi zen lege berriak ez ziela gizonez osaturiko Alardeei eragingo. Gainera ere, Kerexetak azaltzen du lege horrek Alarde pribatuetan berdintasun printzipioa ezarri gero, EAEko beste hainbat espaziori eragingo ziela, elkarte gastronomikoei kasu, eta horrek erreakzio handia sortuko lukeela. 2005ean oraindik ere elkarte gastronomiko askotan emakumeen presentzia debekatua zegoen –ez bazen garbiketa lanak egiteko–, eta elkarte horiek pisu eta botere handia zuten politika eta alderdi politikoetan. Bestetik, lege berri horrek genero ordenaren blindatzea maila batean edo bestean ahultzeko edota beste ordena bat sortzeko balio zezakeen, sententziek eta indar polizialen babesa kenduz, nahiz eta horrek ez zukeen gatazkaren konponbidea zuzenean suposatuko.

Apirilaren 9an Hondarribia eta Irunen kontzentrazioak burutu zituzten, “Benetako Berdintasun Lege baten alde. Emakumeak alardean” pankarta atzean, Bilgune

⁶⁹⁶ Xabier Kerexeta Errori eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/10/08 (pasarte bat).

Feministak,⁶⁹⁷ BAEk, Juana Mugarrietakoa eta LABek deituta. Herri horietako alkateak kritikatu zituzten, legea indarrean sartu baino egun bat lehenago eman baitzieten 2005ean desfilatzeko baimena Alarde tradizionalari. Bestetik, Berdintasun Legeak ez zituela emakumeen eskubide guztiak babesten salatu zuten, eta benetako lege batek emakumeak Alardeetan desfilatzea bermatu behar zuela zioten. Legeak “izugarritzko kontraesanak” zituela eta “betearazteko neurririk ez duen arau partzialen multzoa” zela adierazi zuten.⁶⁹⁸

Zentzu horretan, BAEk Arartekoari txosten bat eskatu zion, Berdintasun Legeak Alardean izango zuen eragina galdetzen. Legearen 25.1 artikulua hau zioen: “Debekatu egiten da emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.”⁶⁹⁹ Horri helduz udalek baimendutako Alarde tradizionalak legearekin kontraesanean sartzen zirela berrestu zuen. Aldi berean, ordea, Irungo Udalak informe bat egin zuen, 2005ean udalak Alarde publiko eta parekide bat antolatzearen eskaerari ezetza emateko, eta oso bestelako ondorioetara iristen zen: hain zuzen, azken sententziek indarrean jarraitzen zutela, nahiz eta Berdintasun Lege berria egon, eta, beraz, Alardea pribatua izanda antolatzaileek emakumeak ez ateratzea erabaki zezaketela. Horrekin batera, Alarde mistoa antolatzeko eskatutako diru laguntza ere ukatu zien. Irun Herria plataformako zinegotziak alkatearen jarrera kritikatu zuen, eta udalari Alarde publiko eta parekidea antolatzea exijitu.⁷⁰⁰

⁶⁹⁷ Euskal Herriko Bilgune Feministako webgunean honela definitzen da: Euskal Herriko Bilgune Feminista (EHBF) 2002an sortutako nazio mailako erakunde feminista eta abertzalea da, esparru ugarietako emakume asko eta askotarikoen hausnarketatik sortutako egitasmoa. Tradizio feminista jakin baten oinordekoak gara, euskal feminismoaren eta euskal feministen oinordekoak. Hark ezartzen digun zapalkuntza hirukoitzaren (klase-zapalkuntzaren, nazio-kultura zapalkuntzaren eta sexu-generoaren zapalkuntzaren) aitortzatik abiatuz aztertzen dugu errealitatea eta ikuspegi horretatik egiten diogu aurre errealitate horri. Pixkanaka, askotariko zapalkuntza horien elkarreraginean eta interseksionalitatean jarduten dugu, zapalkuntza-sistema orotatik askatu eta Euskal Herri burujabe eta feminista baten aldeko borrokan.

https://www.bilgunefeminista.eus/eu/Nor_gara [2021/12/05ean begiratua].

⁶⁹⁸ Arantxa Iraola, “Berdintasunerako Legea betetzeko eskatu dute Irun eta Hondarribian”, *Berria*, 2005/04/10, 22; G. L., “Alardeen aferan Lakuari «ezintasuna» leporatu diote”, *Gara*, 2005/04/10, 16.

⁶⁹⁹ Jaurlaritzaren Lehendakaritza, “4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa”, *EHA*, 2005/03/02, 3239.

⁷⁰⁰ “Los informes jurídicos del Ararteko y del Ayuntamiento de Irún sobre los Alardes se contradicen”, *El Diario Vasco*, 2005/05/12, 14; Agurtzane Solabarria, “Eraginkortasunaren froga”, *Berria*, 2005/05/22, 2; Agurtzane Solabarria, “«Emakumeen alde inoiz ez dute ezer egin, kontrakoa ez bada»”, *Berria*, 2005/05/22, 3; A. S., “Alarde tradizionala ezin dela debekatu dio Udalak, «ez duelako diskriminatzen»”, *Berria*, 2005/05/22, 2; “El Ayuntamiento deniega una petición para organizar un Alarde municipal”, *El Diario Vasco*, 2005/05/25, 14; “El Ayuntamiento de Irún rechaza un alarde municipal”, *Gara*, 2005/05/25; “El Ararteko insiste en que los Ayuntamientos de Irún y Hondarribia tienen que autorizar el Alarde

Egoera halakoa izanda, Alarde mistoaren antolatzaileek, Espektakulu Publikoen Legea erabiliz, ekainaren 30ean desfilatzeko baimena eskatu zuten. Alkatearen erantzuna, ordutegi eta ibilbide horretan eta lege berberaren pean beste Alardeak desfilatuko zuela eta ordutegi berri bat proposatzeko eskatu zien. Egun batzuk igaro eta Santanok berak proposatu zituen ordutegiak. Alarde tradizionalak ohiko ordutegia mantendu zuten, eta mistoa goizean tradizionalaren ondoren irtengo zen, eta arratsaldean aurretik. Gogoratu behar dugu azken urteetan Alarde tradizionalak lortu zuela ohiko ordutegia eta mistoak onartu zuela 2005ean 10:00etan irtetea. Baina bi Alardeek bat ez egiteko, tradizionalak bere ordutegia pixka bat aurreratu behar zuten, eta ez zuten onartu. Horren aurrean, Alarde mistoaren antolatzaileek Barne Sailean eskatu zuten baimena, nahi zituzten ordutegiekin, eta Berdintasun Legean oinarrituta onartu egin zituen, mistoari lehentasuna emanaz. Alarde tradizionalako antolatzaileek, ordea, EAeko Justizia Auzitegi Nagusian errekurtsioa aurkeztu zuten Barne Sailaren erabakiaren aurka, baina egun batzuk beranduago sententziak Alarde mistoari lehentasuna ematea berretsi zuten.⁷⁰¹

Emakundek, Arartekoaren gomendioei jarraiki, Irungo Udala egin zuten Alardean berdintasuna bermatzearen arduradun, eta horrek emakumeek nahi zuten Alardean desfilatzea ahalbidetzea esan nahi zuten. 2005ko ekainean argitaratu zuten Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) *Bidasoako Alardeak* liburua, eta aipagarriena da Irungo Udalak hori aurkezteko espazio publikorik ez zuela utzi eta liburuaren babesle instituzional bakarra Bizkaiko Foru Aldundia izan zela. Testuinguru horretan gazte antolakunde ezberdinek ere iritzia eta posizioa adierazi zuten. Irungo EGIk, EAJren gazteriak, “Alardea legearen bidez hil nahi” zutela salatu zuten. Segi, Gazte Abertzaleak eta Iratzarrik, berriz, alegia, Ezker Abertzalearen, EAren eta Aralarren gazte antolakundeek, Alarde parekide baten alde egin eta mistoan parte hartzeko deia egin zuten.⁷⁰²

mixto”, *El Diario Vasco*, 2005/05/26; Amalur Artola, “Alardearen gatazka luzatzea leporatu diote Santanori”, *Gara*, 2005/05/26, 3; Bego Zubia, “Berdintasuna bermatzeko deia Irungo udalari”, *Gara*, 2005/06/03, 7.

⁷⁰¹ “El Alarde mixto deberá comunicar nuevos horarios para obtener la autorización”, *El Diario Vasco*, 2005/06/03, 14; “El Ayuntamiento de Irun dice confiar en la próxima aprobación del Alarde mixto”, *Gara*, 2005/06/05, 5; Agurtzane Solaberrieta, “Herrizaingo Sailak alarde mistoari eman dio lehentasuna”, *Berria*, 2005/06/11, 17; “Interior prioriza al Alarde mixto en la elección de horario para el desfile en base a la Ley de Igualdad”, *El Diario Vasco*, 2005/06/11, 9; Mainer Eizmendi, “Lakua antepone el Alarde igualitario al tradicional”, *Gara*, 2005/06/11, 7; “El TSJPV confirma la resolución de Interior que prioriza al Alarde mixto en la elección de horarios”, *El Diario Vasco*, 2005/06/23, 7; “Alarde tradizionalak ordutegia aldatu du”, *Gara*, 2005/06/24, 5.

⁷⁰² “Emakunde insta a garantizar la igualdad también en Irun”, *Gara*, 2005/06/04, 10; Idoia Eraso,

Irungo Alardetako egun gutxi falta zirela, Berdintasun Lege berriaren inguruan interpretazio desberdinak eta kontrajarriak ere egin ziren, eta horrek ordutegiaren arazoan eragina izan bazuen ere, gainontzeko esparruetan eragin gutxi izango zuela argi geratzen hasi zen. BAEk gatazka konpontzeko elkarrizketa mahaia egiteko proposamena luzatu zien Irungo Udalarari eta Alarde tradizionalaren antolatzaileei. Bi Alarde egitea epe ertainerako irtenbidea izan zitekeela uste zuten, baina argi zuten benetako konponbidea Alarde bakar, publiko eta parekidea zela, eta horretarako bidea egin nahi zuten, negoziazio baten bidez.⁷⁰³

Testuinguru horretan iritsi zen 2005eko Irungo Alardea, Berdintasun Lege berri batekin, baina aurreko urteetako egoera antzekoan. Hau da, bi Alarde egin ziren, udalak antolatutakorik ez, eta ordutegiaren aldetik aldaketa batzuekin. Udaltzatza Alarde tradizionalari soilik egin zion harrera udaletxeko balkoian, eta Alarde mistoa udaletxe plazara iristerako jada joanak ziren. Orduan, Irun Herria eta EB alderdi politikoetako zinegotziak bakarrik zeuden, Arartekoa, Emakundeko zuzendaria eta Bilgune Feministako kideekin batera. Orduantxe BAEko emakume batzuk balkoira igo, eta pankarta bat eskegi zuten, “Emakumeak alardean, 10 alarde” zioena. Udaltzaingoek bortizki kendu zuten berehala, eta Bilgune Feministako kideek momentu horretan Arartekoa eta Txaro Arteagak izandako jarrera kritikatu zuten, ezer ez egiteagatik. Txaro Arteagak, ordea, ekintza lekuz kanpo zegoela adierazi zuen, istiluak handitzeko baino ez zuela balio izan eta protagonismoa bilatzen zuten lau pertsonak egin zutela. Iritzi ezberdin eta elkarrenganako akusazio horiek feminismoa eta politika ulertzeko modu kontrajarrietatik zetozen, lehenago azaldutako testuinguruan, gainera.⁷⁰⁴

Beste urte batez, Kale Nagusitik Alarde mistoa desfilatzen ari zela kontrakoek irainak eta objektuak jaurti zizkieten, eta indar polizialek horren aurrean ez zutela ezer egin salatu zuten. Herrizaingo Sailak ez zituela erasoetatik babestu adierazi zuten, eta udalarekin oso haserre agertu ziren. Alarde tradizionalak berriro ere normaltasunez

“Boikot instituzionala «Bidasoako Alardeak» liburuari”, *Gara*, 2005/06/24, 5; Agurtzane Solaberrieta, “Irungo EGI: «Alardea legearen bidez hil nahi dute»”, *Berria*, 2005/06/25, 13.

⁷⁰³ Agurtzane Solaberrieta, “Gasteiztik Irunerako bidean, interpretazioak”, *Berria*, 2005/06/26, 14; Agurtzane Solaberrieta, “Elkarrizketa mahaia eratzea proposatu dute alarde mistoek”, *Berria*, 2005/06/29, 16; “BAE propone una mesa de negociación con el objetivo final de un único Alarde”, *El Diario Vasco*, 2005/06/29, 15.

⁷⁰⁴ “Alarde tradizionala aterako da gaur aurrena, ordutegi berriarekin”, *Berria*, 2005/06/30, 16; “Irún celebra de nuevo San Marcial con dos Alardes”, *El Diario Vasco*, 2005/06/30, 13; “Alarde mistoak irain sexistak eta erasoak jasan ditu Irunen”, *Berria*, 2005/07/01, 1; Agurtzane Solaberrieta, “Udalaren ukoa emakumei”, *Berria*, 2005/07/01, 2.

desfilatu zuen ibilbide osoan zehar, eta San Martzial ermitan Alarde tradizionalak egindako ekitaldian alkateak eta beste zinegotzi batzuek parte hartu zuten, aurreko urteetan egin ez zutena. Bestetik, Alarde mistoko kideak urte horretan ez ziren eguerdiko mezara joan. Santanok egun batzuk beranduago berak ez zuela inongo ekitaldi pribatuan parte hartu adierazi, eta Alarde mistokoek zuten ikuspegi partziala kritikatu zuen.⁷⁰⁵

Urte hartan, beraz, ezer gutxi aldatu zen, Irungo Alarde eguna aurreko urtekoarekin konparatuz, eta hori Berdintasun Lege bat indarrean sartu zelarik.⁷⁰⁶ Alarde tradizionala babesteko, eta, hortaz, genero ordenaren inguruan eraikitako harresia bere horretan geratu zen, zutik, instituzio lokal, justizia eta indar polizialen babes guztiarekin. Gauzak horrela, Alarde mistoari harresi hori harriz harri eraistea besterik ez zitzaion geratzen, urteen poderioz emakumeak onartzen zituen Alardea tradizionala baino handiagoa izateko esperantzarekin, eta orduan, indar korrelazioa ezberdina izanda, Alarde bakar, publiko eta parekidea lortuz.

Hondarribian Berdintasun Lege berriak Barne Sailak ezarritako ordutegian izan zuen eragina. Abuztu erdialdean jakinarazi zuen Jaizkibeli 8:30etan hasteko baimena ematen ziola eta Alarde tradizionalari 9:00etan. AFk berehala jakinarazi zuen helegitea jarriko ziola EAEko Justizia Auzitegi Nagusian eta ohiko ordutegia lortzen ahaleginduko zela. Bestetik, fundazioak eta alkateak kezka adierazi zuten, hain denbora gutxiko tartea izanda, bi desfileen artean istiluak gerta zitezkeela ohartaraziz, eta ordutegia aldatzeko argudio gisa erabili zuten. Borja Jauregiren iritziz, gainera, Barne Sailak soilik ordena publikoa mantentzeko ardura izan beharko luke, ez ordutegiak zehaztearena. Guzti hori argudiatuz eta ordena publikoa mantentzearen diskurtsoaren babesean, udalak ere helegitea jarri zuen ordutegia aldatzeko, eta 2000. urteko istilu gogorak gogoratu

⁷⁰⁵ Unai Zubeldia, "Ederra irakaspena haurrentzat", *Berria*, 2005/07/01, 3; "La fiesta de San Marcial", *El Diario Vasco*, 2005/07/01, 1; "Con las aceras a reventar", *El Diario Vasco*, 2005/07/01, 14-15; "El espíritu festivo reinó en el desfile del Alarde mixto", *El Diario Vasco*, 2005/07/01, 16; "El Ayuntamiento cumplió sus votos rodeado del Alarde tradicional", *El Diario Vasco*, 2005/07/01, 17; María José Atienza, "Resaca y sprint final", *El Diario Vasco*, 2005/07/01, 18-19; "Se repiten las agresiones a los participantes en el Alarde igualitario", *Gara*, 2005/07/01, 1; Bego Zubia, "Mujeres y hombres al compás", *Gara*, 2005/07/01, 2-3; Agurtzane Solaberrieta, "Herrizaingo Sailak ez zituela babestu salatu du alarde mistoak", *Berria*, 2005/07/07, 17; Maider Eizmendi, "Valoran positivamente el Alarde, aunque critican el papel de las instituciones", *Gara*, 2005/07/07, 4; "Santano critica la «mirada parcial» sobre el Alarde", *Gara*, 2005/07/08, 21.

⁷⁰⁶ Irungo Alardearen osteko egunkarietako berriek beste batekin konpartitu zituzten azalak, Espainiako Kongresuak homosexualek elkarrekin ezkondu eta haurrak adoptatzeko aukera legeztatzeko Kode Zibilaren aldaketa onartu zuen.

zituen. Istilu horietan ertzainek Jaizkibelen kontrako 58 pertsona atxilotu zituzten; indar polizialek Alarde tradizionalen kontra egin zuten urte bakarra izan zen. Hau da, urtero gertatzen ziren istiluak eta Jaizkibelen kontrako erasoak, baina alkateak berriro ere posizio hartu zuen deklarazio eta memoria ariketa horrekin. Hala ere, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak aterako zuen sententzia onartzeko eskatu zien herritarrei.⁷⁰⁷

Jaizkibel konpainiak eta Juana Mugarrietakoa kolektiboak ere desadostasuna adierazi zuten Barne Sailaren erabakiarekiko. Izan ere, ordu erdiko tartea zuten Alarde tradizionala hasi aurretik, eta horrek ibilbidea moldatzea zekarren, topo ez egiteko. Bestetik, Berdintasun Legea beteko balitz, Alarde bakar eta parekidea egongo zela aldarrikatu zuten. Euskal Herri osora deialdia zabaldu zuten irailaren 8an Hondarribira konpainia mistoa babestera joateko.⁷⁰⁸ Hala ere, azken urteetako giroa lasaitzen ari zela adierazi zuten eta horren adibide zela “(...) konpainia mistoko kantinera hautatu zutenean «herriko jende askok zoriondu zuela, eta orain arte ez zen hori gertatu». Belaunaldi berriek ere gaiaren inguruan hitz egiten dute.”⁷⁰⁹ Hondarribian aurreko urteetan egondako Alarde eguneko istiluek eta ordena berrezartzeko erabili zen indarkeriak ekidin zuen lehen urte horietan jende berria edo gaztea Jaizkibel konpainiara hurbiltzea. Izan ere, herri-komunitatetik kanporatzea suposatzen zuen konpainia mistoan desfilatzeak, baina desfilea ikusteak, emakume soldaduen aldeko iritzia emateak, Jaizkibelen desfilatzen zuen norbaiten laguna izateak edota Alarde tradizionalaren aldeko posizio garbia ez erakusteak ere zigor berbera ekarri zezakeen. Ordena berrezarrita eta indar polizialek ere babestuta, azken urteetako zuzeneko istiluak eta enfrontamenduak lasaituta, gorputz eta komunitate *abjektuaren* inguruan

⁷⁰⁷ “Mistoa 08:30ean, tradizionala 09:00etan”, *Berria*, 2005/08/17, 11; “Alarde Fundazioak helegitea jarri du ordutegiaren kontra”, *Berria*, 2005/08/19, 12; “Interior prioriza la salida de la compañía mixta en el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2005/08/19, 10; “El Alarde tradicional recurre la decisión sobre los horarios”, *Gara*, 2005/08/19, 5; “La mezcla de desfiles puede crear un polvorín, según el Consistorio de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2005/08/23, 9; “Jauregi: «Egoerak bere horretan dirau»”, *Berria*, 2005/08/24, 9; “El alcalde pide a la población de Hondarribia que acate la decisión sobre el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2005/08/24, 9; “El Ayuntamiento ha recurrido la orden de Interior que prioriza a Jaizkibel Konpainia”, *El Diario Vasco*, 2005/08/24, 12; “El alcalde de Hondarribia pide acatar la sentencia del TSJPV”, *Gara*, 2005/08/24, 5.

⁷⁰⁸ Jakes Goikoetxea, “Jaizkibel konpainia: «Emakumeek parte hartzea da irtenbide bakarra»”, *Berria*, 2005/08/25, 9; “La compañía Jaizkibel se siente marginada por los horarios del Alarde”, *El Diario Vasco*, 2005/08/25, 5; “Jaizkibel Konpainia considera que no se cumple la Ley de Igualdad”, *El Diario Vasco*, 2005/08/25, 12; Erik Gartzia, “Lakuako Barne Sailaren erabakiarekin «harrituta» Jaizkibel konpainiakoak”, *Gara*, 2005/08/25, 5.

⁷⁰⁹ E. G., “Herriko giroa «hobetze aldera»”, *Gara*, 2005/08/25, 5.

suntsitutako zubiak pixkanaka eraikitzen hasi ziren eta belaunaldi berriak bertara gerturatzen. Oihana Etxebarrieta Legranden⁷¹⁰ kasua adibidetzat dugu:

“Baina nik uste dut zerbait neukala hor barruan eta batxilergoa egitera Irunera joan nintzen beste lagun batekin batera eta hor, izan nuen nire lehenengo eztabaida, komilen artean, Alarde mistoan oraindik desfilatzen ez zuten baina desfilatuko zuten neska batzuekin. Eztabaida esaten dut komilen artean zeren esan zidan guztia iruditu zitzaidan hain logikoa, ez nuen izan ezer esateko berari eta eske berehala esan nuen: «arrazoi guztia daukazu». Nik uste dut etorri zitzaizkidala oroitzapenak, sufrimendu horienak, esan nuen «ez du inolako zentzurik». Aurretik sentitzen nuen beharra irudikatzea Alarde baztertzailearen aldekoa nintzela. Eta Irunera joan nintzenean ikusi nuen ez zuela inolako zentzurik, ez zegoela ez arrazoi, ez logikarik, ez emozionalik babesteko hori, are gutxiago emakume hauek sufritu zutena sufritu eta gero. Izan zen izugarria beraien kontrako biolentzia, izaten zela garai horretan. Esaten dizut hau da 2004 urtean noa ni institutura, Irunera, 2004-2005ean, pixka bat horrela ditut.”⁷¹¹

Etxebarrieta Alarde mistoaren aldeko adinkide batekin edukitako elkarrizketa batek bultzatu zuen aurreko urteetan hartutako jarrera berehala aldatzera. Elkarrizketa hori izan zen atzerago eduki ez zuen zubia eta Alarde mistoaren errealitatea gertutik ezagutzeko modua. Alarde mistoan desfilatuko zuen generazio berri bat azaltzen joan zen, gatazka lehertu zenean oso txikiak zirenak eta inguruak eraginda gizonez osaturiko Alardearen alde egin zutenak, baina momentu batetik aurrera inongo logikarik ez zuela sentitu zutenak. Horretarako, ordea, Alarde mistoaren alde lerratzeko, elkarren artean hitz egin eta beste errealitate eta argudio batzuk ezagutzea ezinbesteko izan zen. Izan ere, askok lehenagotik, bai gehiengoaren iritziak baldintzatuta, bai herri-komunitatearen zurruntasun eta komunitate *abjektuaren* isolamenduak eraginda ez zuten besterik ezagutu, Alarde tradizionalaren aldeko mundua soilik. Bi komunitateen arteko harremanak garatzeak, kasu horretan Irungo institutuan, garrantzi handia izan zuen. Borrokak eta Alarde mistoak etorkizuna izango zuenaren berme baitziren generazio berriak.

⁷¹⁰ Oihana Etxebarrieta Legrand 1987an jaio zen Hondarribian. Gurasoak emakumeak Alardeetan irtetearen aldekoak zituen, lagunak kontra, ordea. Hemezortzi urte ingururekin Irungo Alarde mistoan desfilatu zuen eta ondoren Jaizkibel konpainian. Irungo Bilgune Feministako kidea izan zen.

⁷¹¹ Oihana Etxebarrieta Legrandi eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/09/03 (pasarte bat).

Testuinguru horretan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Barne Sailaren erabakia berretsi zuen eta ordutegiak mantendu. Sor zitezkeen istiluen aurrean Ertzaintzak beharrezko baliabideak zituela argudiatu zuen. Eta alkateak erabakia onartuko zuela adierazi zuen, baina AFk istiluez berriro ohartarazi, eta Jaizkibel konpainia eta Barne Saila egin zituen gatazkaren erantzule.⁷¹² Fundazioaren abokatuak hau gehitu zuen: “Jaizkibelekoek egun batean gure alardean sartu nahi badute, jai dute, ez dute inoiz lortuko.”⁷¹³ Gatazka Alardeko genero konposizioa aldatzeko nahiak sortu bazuen ere, deklarazio horiek 2005ean jada ez zela soilik emakumeak Alardean ateratzearen inguruko talka frogatzen zuten. Izan ere, Jaizkibelekoek ez zutela inoiz Alardean ateratzea lortuko esatean, bertako gizona ere erreferentzia egiten zien, eta argi utzi zuen talka herria eraikitzeke proiektu eta komunitate ezberdinen artekoa zela.

Auzitegien aldetik nahi zuten erantzuna jaso ez zutenez, manifestazio baten deialdia zabaldu zuten, “Herriaren Alardearen alde” lemapean. Hondarribiko herritarren borondate eta nahia errespetatzea exijitu zuten eta ordutegiak aldatzea. Hondarribiko EAJ eta EAK mobilizazioa babestu zuten, eta haien afiliatuak parte hartzera gonbidatu zituzten. Irungo BAA eta Irungo Alarde tradizionalak ere deialdia propio egin zuten. Udal poliziaren arabera, irailaren 3an egin zen manifestazioan 10.000 pertsonak hartu zuten parte, eta aurrekoetan bezala, emakumeak zeuden lehen lerroetan. Borja Jauregi alkatea ere bertan egon zen. Bukaeran ordutegien inguruko sententzia bidegabea zela eta Barne Sailak traizio egin ziela salatu zuten. Egun horretan bertan, Jaizkibel konpainiak 50 ertzainez inguratuta desfilatu behar izan zuen. Aralarrek eta EBk Borja Jauregiren jarrera salatu eta bere dimisioa eskatu zuten. Aldi berean, Juan Jose Ibarretxe lehendakariari Hondarribiko EAJren jarrerarekin desadostasuna adierazteko eskatu zioten. Iñigo Lamarka Arartekoak, berriz, udalari Alarde publiko eta parekidea antolatzeke eskatu zion.⁷¹⁴ Juana Mugarrietakoa kolektiboak eta Jaizkibel Konpainiak eginiko prentsaurreko batean hau salatu zuten:

⁷¹² “Ezarrirako ordutegiak berretsi ditu EAEko Auzitegi Nagusiak”, *Berria*, 2005/08/26, 10; “El TSJPV pide colaboración para evitar incidentes en el Alarde de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2005/08/26, 1; A. Lerate, “El TSJPV confirma el horario del Alarde y pide el apoyo de ambas partes para evitar incidentes”, *El Diario Vasco*, 2005/08/26, 2-3; “Errekurtsoak baztertu ditu auzitegiak, eta alardeen ordutegia matenduko du”, *Gara*, 2005/08/26, 4.

⁷¹³ “Ordutegiak liskarrak eragin ditzakela dio Alarde Fundazioak”, *Berria*, 2005/08/27, 11.

⁷¹⁴ “IBAA y el Alarde tradicional se adhieren a la manifestación de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2005/09/02, 11; “Manifestación convocada por los defensores del alarde tradicional”, *El Diario Vasco*, 2005/09/03, 15; Juan Manuel Velasco, “Miles de personas reclaman en Hondarribia respeto a los alardes tradicionales”, *El Diario Vasco*, 2005/09/04, 7, “Los partidarios del Alarde tradicional acusan a Balza de

“Jaizkibeleko kideen ustetan, bai Alarde Fundazioa bai Hondarribiko alkatea «beldurrak, jarrera agresiboak eta baztertzailak berrindartzen» saiatu dira. «Giza talde batek jarrera horiek bultzatzea larria baldin bada, herriko alkateak publikoki antzekoak adieraztea larriagoa da», gaineratu zuen Ixabel Alkain Jaizkibeleko bozeramaileak.»⁷¹⁵

Emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek indarkeria berrindartzeko saiakera salatu zuten, eta horrek logika bati erantzuten zion. Nahiz eta Berdintasun Lege berriak zuzenean genero ordena zalantzan ez jarri, Alarde tradizionalari eragiten ez ziolako, Jaizkibel konpainia ordu erdi lehenago ateratzeak arriskuan jarri zitzakeen erreakzioak lortutako garaipen batzuk. Hau da, ordena mantentzearen aldekoek Jaizkibel eta emakume soldaduak, Alardetik ez ezik, zentrotik eta herritik ere bota zituzten, bazterretara kondenatuz. Eta horrek Alarde egunean kaleak hutsik zeudenean desfilatzea esan nahi zuen. Alarde tradizionala defendatzeko, Jaizkibel isolamenduan uzten saiatu ziren, gerturatzeak errealitatea beste modu batera ikustea zekarrelako. 2005. urtean Jaizkibel konpainiak Alarde tradizionalak baino ordu erdi lehenago desfilatzeak bazter horietatik zentrora gerturatzea suposatzen zuen, baita ere Alardea ikusteko tokia hartzera joaten ziren milaka pertsonen aurretik konpainia mistoa igarotzea. Izan ere, nahiz eta Alarde tradizionala eta ordena ahalik eta gehien blindatu, eta azken urteetan arrisku gutxi izan, emakume soldaduen existentzia soilak hori apurtzeko potentzial handia zuen, eta gero eta gertuago zeuden. Horrez gain, azken urteetan Jaizkibel konpainiaren existentzia ezkutatzea eta isolamendu hori normalizatzea izan zen Alarde tradizionalaren aldekoen estrategia, eta ordu erdi lehenago desfilatzeak hori ekiditen zuen.

2005eko irailaren 8an Hondarribiko Alardeko gatazkaren ikur bihurtuko zen elementua erabili zen lehen aldiz Kale Nagusian, Jaizkibel pasatzen zen bitartean. Kale Nagusia eta goizeko 8:30etako zentro espazial eta tenporal hori bazter eta isolamendu bilakatzeko

crispar la fiesta”, *Gara*, 2005/09/04, 7; Alain Maya, “Entseguak hasi ditu Jaizkibel konpainiak, ertzainez inguratuta”, *Berria*, 2005/09/06, 14; A. M., “Emakume soldaduen parte-hartzea gaitzetsi dute manifestazioan”, *Berria*, 2005/09/06, 14; Jakes Goikoetxea, “Alarde publikoa antola dezala eskatu dio Lamarkak Udalarari”, *Berria*, 2005/09/06, 13; “Críticas a la postura favorable al alarde tradicional del alcalde de Hondarribia”, *Gara*, 2005/09/06, 04; “Jaizkibel konpainiak «erasoen apologia» egitea leporatu dio alkateari”, *Berria*, 2005/09/07, 1; “Jaizkibel reivindica que el Alarde de Hondarribia recupere su carácter público”, *El Diario Vasco*, 2005/09/07, 11.

⁷¹⁵ Amalur Artola, “Jaizkibel konpainiak Borja Jauregiren eta Alarde Fundazioaren jarrera salatu du”, *Gara*, 2005/09/07, 4.

saiakeran, plastiko beltz batzuekin estali zituzten kale horretako espaloiak. Oihana Etxebarrieta Legrand bertan zegoen eta honela oroitzen du:

“Eta orduan, urte horretan nago kuadrilakoekin irailaren 8an Alardea ikusten Kale Nagusian. Guk ez genekien zer gertatuko zen eta ginen Kale Nagusian. Eta etorri ziren emakume nagusi batzuk, ezer galdetu gabe, plastiko batzuk ematera, eta nik, benetan, ez dakit nondik, ez nituen ezta hemezortzi urte edo hemezortzi urte bete berri, esan nien: «nire aurrean ez» eta nire kuadrilako guztiak begiratu zidaten komo «¿qué dices?». Eta nik esan nuen: «ez, nire aurrean ez» eta nirekin batera Maddi. Nik uste dut berak ez zuela ezer esaten baina nirekin batera atera ginen. Zen nire kuadrilakoek hartu zuten [plastiko beltza] kantinera izan nahi zutelako. Ez dut gogoratzen eztabaidarik izan genuen edo begirada bidez izan zen dena baina bai eskatu zidatela espaloi parean egotea, ez egotea beraiek zeuden tokian. Parera joatea, eta joan ginen parera, Maddi eta biok. Uste dut ginela Maddi eta biok bakarrik. Nos dieron de ostias, atzean zeudenak, plastikoaren beste aldean, bultzaka, gogoratzen naiz, kamara pila bat grabatzen guri. Ginen super gutxi Kale Nagusian atera ginenak [plastikoen aurrera]. Bai, bai, izan zen todo el despliegue eta ez genekien zer gertatuko zen eta gu gainera uste dut hor egoteko egin genuela Alborada ikustera joan, Diana ikustera joan eta gero hor egon. Eta ba inkontzientzia izan zen, ya dije: «ez naiz gehiago ixilduko» baina bua! zenbat negar egin nuen! Eske gainera gogoratzen dut, izan zen beldurra eta emakume nagusi bat zuri esaten: «zure izena apuntatu dugu, zure izena apuntatu dugu, badakigu nortzuk zareten, sacadles fotos». Izan zen... sentitzen duzunean jende guztia duzula zure kontra, galdu dut dena. Nire kuadrilakoak zeuden plastikoaren beste aldean eta gero pasatu zen Jaizkibel eta pff!, ez dakit. Da emozioa, super hunkituta, jendea super eskertuta hor ginelako, ez zegoen inor Kale Nagusian momentu horretan. Eta «aupa zuek, aupa zuek» guri esaten. Bueno, igo ziren, jaitsi ziren, beraiek ere pentsatzen dut hala moduz eta begiratu niola Maddiri eta esan nion: «guk hurrengo urtean desfilatzen dugu, hau ez dut gehiago aguantatuko, ez nator gehiago hona». Eta orduan hartu nuen erabakia hurrengo urtean desfilatuko nuela.”⁷¹⁶

⁷¹⁶ Oihana Etxebarrieta Legrandi eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartziak egin. Elkarrizketaren eguna: 2020/09/03 (pasarte bat).

Jaizkibel konpainiak Alarde tradizionalak baino ordu erdi lehenago desfilatu zuen Kale Nagusitik, eta bertan, jada, desfile tradizionala ikusteko tokia hartzera edota Alborada eta Diana ikustera ordu txikitan joandako jendea zegoen, emakumeak gehienak. Jaizkibel igaro baino minutu batzuk lehenago emakume batzuek plastiko beltzak banatu eta horien atzean jartzeko agindu zuten. Erreakzio hori guztiz antolatua izan zen, eta zentzu batean, baita inposizio bat ere kale horretan zeuden guztientzako, oso zaila baitzen horiei kontra egitea. Batez ere, plastiko beltzen aurrean jartzeak Alarde tradizionalaren kontra joatea bihurtu zutelako: “edo gurekin, edo gure kontra”, ez zegoen besterik. Eta Etxebarrietak kontatzen duenaren arabera oso kontrolatuta zuten guztia. Plastiko beltzek, berriro ere, *abjektuaren* komunitatearekiko zubiak hautsi zituzten eta isolamenduan utzi plastiko beltzen aurrean. Horrela, ordea, plastikoak jartzea gaizki iruditzen zitzaizkien eta horiei aurre egitea ausartu zirenak herri-komunitatetik kanporatu zituzten. Hau da, geroz eta gehiago ziren *abjektuaren* esparrura bota zituztenak, eta beraz, Jaizkibelen alde egiteko gertuago zeudenak. Etxebarrietaren testigantzak Mariak kontatzen duenaren antz handia du. Mariak Irunen 1996an emakumeak Alardean sartu zirenean ikusi zuen erreakzioak eta horrek sorrarazi zion haserreak eraman zuen Hondarribian borroka horretan sartzera. Etxebarrietarentzat ere inflexio puntu bat izan zen, eta nahiz eta Irunen urte horretan Alarde mistoan jada desfilatu, injustiziazko egoera horrek indarrak eman zizkion Hondarribian ere parte hartzeko.

1996ko Alardeetako gertaerek eta Hondarribiko 2005ekoek zentzu batean elementu batzuk konpartitzen dituzte, horien zentraltasun espaziala, hain zuzen. 1996ko Alardeetako gertaera eta istiluak Alardeetan bertan eman ziren, herri guztia zegoen toki berebanean. Ondorengo urteetan, ordea, gizonez osaturiko Alardeak salbu egon ziren eta talka fisikoak periferian gertatu ziren. 2005ean, oster, Berdintasun Legeak Jaizkibel konpainia, eta, beraz, emakume soldaduak zentrorra eraman zituen berriro ere, eta horren aurrean erreakzio bortitz bat eman zen, kasu honetan plastiko beltzetan oinarrituta. Horrek, indarkeria agerian utzi zuen berriro ere, jende askoren begi bistan, herriaren zentroan eta 1996an generazio batzuek sentitu eta bizitzakoa errepikatu zen. Haserreak eta injustizia baten aurrean egotearen konbentzimenduak Alarde mistoan desfilatzera eraman zituen.

Kale Nagusian plastiko beltzak ez ezik pankarta batzuk ere zintzilikatu zituzten etxeetatik, eta horiek “ez gara zuek ikustera etorri” eta “zuekin inoiz ez” zioten. Lehen pankartaren esaldia argi geratu zen plastiko beltzekin, baina bigarrena azaltzea interesgarria da. Jaizkibel konpainiakoentzako eta horiek babesten zituenentzako zegoen bideratua pankarta hori, eta horiekin inoiz ez zutela bat egingo, Alardean desfilatuko eta herria konpartituko esan nahi zuen. Hau da, jada mezua edo arazoa ez zen “emakume soldaduak gure Alardean ez”, baizik eta komunitate *abjektu* guzti hori zen inoiz ez zutena onartuko, eta ikusi dugun bezala, komunitate horrek esanahi asko zituen. Horrez gain, 2005ean beste praktika bat gailendu zen Jaizkibel pasatzen zen tokietatik. Kontra zeudenak bizkarra ematen hasi ziren. Lehenago ez zuten egiten, Jaizkibelek kalean inor ez zegoenean desfilatzen zuelako eta jendeak bertatik alde egiten zuelako, baina urte hartatik aurrera eta Alarde tradizionala baino ordu erdi lehenago desfilatuta, kaleak gainezka zeuden jada, eta Kale Nagusian plastiko beltzak nagusitu ziren bezala, txistu eta irainekin bat, ibilbidearen gainontzeko kaleetan bizkar asko ikusi ziren.⁷¹⁷

Jaizkibelek pankarta baten atzean desfilatu zuen, “Emakumeak Alardean. Alardea publikoa” zioena, eta 300 ertzainez inguratuta, hau da, Jaizkibeleko kide kopurua baino ertzain gehiago zeuden. Goizeko eta arratsaldeko desfileetan gertakari berdinak izan ziren, plastiko beltzak, irainak eta bizkarrak nagusi. Hala ere, Ixabel Alkain Etxeberria kapitainak positiboki baloratu zuen eta honako deklarazio hauek egin zituen:

“Lehen gai ziren begiak ixteko; orain hori ere ez, hesi bat jarri behar dute gu ez ikusteko. Ikusten gaituzten egunean, ordea, gurekin parte hartu nahiko dute. Beraientzat gero eta zailagoa da agoantatzea.”⁷¹⁸

Hasieratik, ordena berrezartzeko erreakzioak emakume soldaduak herritik kanporatu eta isolamenduan mantentzeko ahalegina egin zuen. Horren eraginez, jende askok Jaizkibel eta bertako kideak esaten zituzten gauzen arabera ezagutzen zituen, alegia, guztiak Alardea suntsitu nahi zuten *kanpotar* eta *etarrak* zirela, hain zuzen. Bakoitzak bere begiekin ikusteak hurbilpen bat suposatu lezake edota errealitatea beste modu batera ikustea, eta horregatik altxatu zituzten hesi handiak, *kanpotarrak* herri-komunitatera

⁷¹⁷ “Jaizkibelek alardeko ibilbide osoa egin du Hondarribian, lehen aldiz”, *Berria*, 2005/09/09, 1; Agurtzane Solaberrieta eta Jakes Goikoetxea, “Lotsaren harresia”, *Berria*, 2005/09/09, 2; Alberto Barandiaran, “«Igo dugu Kale Nagusia! Pasa gara!»”, *Berria*, 2005/09/09, 4.

⁷¹⁸ Jakes Goikoetxea, “Ixabel Alkain: «Bide luzea dute egiteko, baina hau geldiezina da»”, *Berria*, 2005/09/09, 3.

igarotzeko arriskuagatik, baina herri-komunitatearen parte zirenak bertatik ez eskapatzeko. Azaldu dugun bezala, herriaren barneko zaintza eta zelata ezinbestekoa izan zen, barne desadostasunak eta zalantzak neutralizatu eta homogeneousatzeko.

Beste urte batez, aipatzekoak dira *Deia* eta *El Diario Vasco*ko azaletako lerroburu eta esaldi nagusiak.⁷¹⁹ Tentsioa egon bai, baina inolako istilurik gabe izan zela azpimarratu zuten, eta *El Diario Vasco*ko Hondarribiko alkateari egin zion elkarrizketan ikus dezakegu Borja Jauregiren diskurtsoa errepikatu besterik ez zutela egin bi egunkari horiek: “El alcalde de Hondarribia se felicitó de que no sucedieran incidentes y reivindicó el derecho de las dos formas de sentir la fiesta.”⁷²⁰

El Mundo, *El País*, *Berria* eta *Garak* oso modu desberdinean eman zituzten berriak. Jaizkibelen kontrako boikot gisa eta errealitateari bizkarra ematea bezala definitu zituzten plastiko beltzak, eta irainak eta tentsioa nabarmendu zituzten. Beste urte batez, Alarde tradizional bat egon zen Hondarribian, eta Jaizkibel konpainia mistoa hortik kanpo geratu zen. Berdintasun Legeak Jaizkibelen ordutegia aldatu zuen, printzipioz lehentasuna ematen, besterik ez. Horregatik, azaroan BAE, Juana Mugarrietakoa eta Jaizkibel konpainiako ordezkariak legebiltzarrean egon ziren Alarde tradizionalek lege iruzurra gauzatzen zutela salatzeke, eta alderdi politiko guztien bultzada eskatu zuten konponbidera bidean. Horretarako behin-betiko komisio bat sortzeko eskatu zuen.⁷²¹

2005ean indarrean sartu zen EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legeak ez zuen Hondarribiko eta Irungo Alardeen gatazka konpondu, baina modu ezberdinean eragin zuen bi herrietan. Izan ere, batetik, lege berriak ez zuen ekidin espazio publikoan emakumeak baztertzen zituen Alardeak ezabatzea, baina bai Alarde eta konpainia

⁷¹⁹ “Silbidos al mixto; vítores al tradicional”, *Deia*, 2005/09/09,1; Iasone Salbide, “El Alarde mixto y el tradicional desfilan entre vítores por Hondarribia”, *Deia*, 2005/09/09, 2-3; “Hondarribia vivió su fiesta y desfiló la compañía Jaizkibel”, *El Diario Vasco*, 1; Juan Manuel Velasco, “Hondarribia superó el Alarde con tensión pero sin que llegasen a producirse incidentes”, *El Diario Vasco*, 2005/09/09, 2-3; J. M. V., “Solemnidad y fiesta”, *El Diario Vasco*, 2005/09/09, 3; J. M. V., “«Hemos dado un paso más hacia un Alarde unitario»”, *El Diario Vasco*, 2005/09/09, 5.

⁷²⁰ J. M. V., “«La gran mayoría del pueblo quiere seguir con la tradición»”, *El Diario Vasco*, 2005/09/09, 4.

⁷²¹ “De espaldas a la realidad”, *El Mundo*, 2005/09/09, 1; Idoia Arraiza, “Los defensores del Alarde tradicional boicotean el desfile de la compañía mixta Jaizkibel”, *El Mundo*, 2005/09/09, 14; Y. Montero, “Cientos de vecinos de Hondarribia ocultan tras un plástico negro el Alarde de las mujeres”, *El País*, 2005/09/09, 29; “Irain artean Jaizkibel konpainia”, *Gara*, 2005/09/09, 1; Gari Mujika, “«Murru beltz» eta irain artean desfilatu zuen Jaizkibel konpainiak”, *Gara*, 2005/09/09, 2-3; B. E., “Los defensores del Alarde mixto piden en Vitoria una comisión permanente”, *El Diario Vasco*, 2005/11/05, 5; “Las asociaciones partidarias de los alardes mixtos piden una ponencia”, *El Mundo*, 2005/11/22, 12; Mirian Biteri, “Egokitzat jo dute Gasteizko Ganberan alardeari buruzko lan-talde bat osatzea”, *Gara*, 2005/11/22, 8.

mistoei ordutegietan lehentasuna ematea, eta horrek egoera ezberdinak sortu zituen. Irunen gorputz *abjektua* herri-komunitatetik kanporatu ondoren, komunitate eta Alarde propioa sortzeak eta Irungo kaleetatik desfilatzeak herri egin zituen, Alarde tradizionalak eraikitzen zuen herriarekin talka egiten zuena baina existitzen zena. Ordena berrezartzearen aldekoak bi herriak bananduta mantentzen saiatu ziren, Alarde tradizionalaren komunitatea hegemonikoa baitzen, eta bi herriak nahasteak hegemonia hori galtzea ekar zezakeen, ordena zalantzan jartzearekin batera. Erreakzioaren logika hori Berdintasun Legeak ez zuen zalantzan jarri, baina bai Hondarribian urteetan aurrera eraman zena. Hondarribian herritik kanporatu ostean, *kanpotar* egin zituzten, herrian berrintegratzea edo beste bat sortzea galaraziz, batez ere Alarde egunetan emakume soldaduen desfilea ekidinez. Jaizkibel konpainia mistoaren existentzia ukatzea izan zen ordena berrezartzeko estrategia, eta horretarako, periferiara bidali zituzten. Inork ikusten ez bazituen, ez zirelako existitzen. Lege berriak, ordea, logika horren kontra egin zuen, eta horregatik sortu zuen Irun eta Hondarribian erreakzio ezberdina, ordena berrezartzearen aldeko antolakuntza eta estrategietan ezberdin eragin baitzuen.

6.4. Normaltasun faltsua eta horma berrien eraikuntza

Urte berria Donostiako Danborradaren inguruan gertatutako berri batek ireki zuen. Nahiz eta emakumeak 80ko hamarkadatik danborrada batzuetan parte hartu, Gaztelubide elkartekoa bakarrik gizonek osatzen zuten, eta horiek ziren protagonistak Konstituzio Plazan egiten zen hiriko banderaren igoeraren ekitaldian. Berdintasun Legea eskuetan, Odon Elorza PSE-EEko alkateak Gaztelubidekoei presioa egin zien, emakumeak onartu behar zituztela esanez, eta ez bazuten egiten ekitaldi horretan parte hartzeko aukera galduko zutela zioen. Elkartekoek bazkideen artean bozketa egin, eta hogeita hemeretzi alde, hogeita bost kontra eta abstentzio batekin emakumeei urketari gisa parte hartzen utzi zieten lehen aldiz. Horrek Bidasoaldean eragina izan zuen, eta deklarazioak egin ziren. Alarde mistoaren aldekoek Donostiako alkatearen jarrera txalotu zuten eta eredutzat jarri Hondarribian eta Irunen konponbidea lortzeko. Alarde tradizionalaren aldekoek, ordea, egoera eta errealtate desberdinak zirela argudiatu zuten, elkarte pribatuetan gehiengoaren logikak jarraitu behar zirela eta Gaztelubidek hori egin zuela. Bide berean, Gipuzkoako PSE-EEko idazkariak adierazi zuen ez zituela Hondarribiko eta Irungo alderdikideak berdina egin zezaten presionatuko, alkate

bakoitzak tokiko errealitatea inork baino hobeto ezagutzen zuelako eta beraien esku uzten zuelako erabakimen guztia.⁷²²

Gogoratu behar dugu, gainera, Donostian emakumeak Danborradan integratu zirenean paper propio eta jantzi desberdindu batekin egin zutela eta 2006an Gaztelubiden sartu zirenean ere urketari gisa egin zutela. Horrek emakumeen parte hartzea erraztu zuela defendatzen dut, sexu-genero sistema bitarra zalantzan jarri ez zuelako. Alardeetan, ordea, guztiek soldadu gisa parte hartzeak eta genero marka batzuk diluitzeak aldaketa handia suposatu zuen, ordena zalantzan jartzeko adina. Bestetik, 80ko hamarkada hasieran hasi zen Danborradaren baitan aldaketa, oraindik ere guztia aldatu zitekeenaren sentsazioa zegoen garaian.

Martxoan irten zen Gipuzkoako Audientziako epaile bati jarritako zigorraren berria, eta anekdotikoa izan badaiteke ere, ordena zein sakon blindatzen zen ikusteko balio digu. Honako hau dio *El Mundo* egunkariko berriak:

“Fue castigado por presionar a dos compañeros para que cambiaran su voto en una sentencia sobre el Alarde de Irún y favorecer la tesis ‘tradicional’. El Tribunal Supremo (TS) ha confirmado la suspensión de dos años que el Consejo de Poder Judicial (CGPJ) impuso al magistrado de la Audiencia de Gipuzkoa Luis Blánquez por una falta muy grave, al haber presionado a dos compañeros para que cambiaran su voto en una sentencia del Alarde de Irún.”⁷²³

Alarde tradizionala babestearren eta desfilea pribatua zela konbentzitzen saiatzeagatik zigortu zuten. Hau da, ordenaren defendatzaileak gatazkaren hasieratik, ikusi dugun bezala, prest zeuden legea haien alde erabiltzeko, eta hori kontra bazuten ere, edozein trikimailuz baliatzeko. Kasu honetan argitara atera zen eta epaileari ez zitzaion ongi

⁷²² Arantxa Lopetegui, “Donostia tendrá mujeres en la izada y en la arriada tras una «decisión difícil», *Deia*, 2006/01/11, 14; Idoia Arraiza, “Gaztelubide cede a la presión de Elorza y acepta a las mujeres en su tamborrada”, *El Mundo*, 2006/01/11, 14; Y. Montero, “«Feministas» a su pesar”, *El País*, 2006/01/11, 8; “Agentes sociales y políticos de Donostia aplauden la decisión de Gaztelubide”, *Gara*, 2006/01/11, 5; “La decisión de Gaztelubide es celebrada por el Alarde mixto y respetada por el tradicional”, *El Diario Vasco*, 2006/01/12, 9; “El PSE-EE no ordenará al alcalde de Irún que imite a Elorza y presione sobre el Alarde”, *El Mundo*, 2006/01/13, 17; Y. M., “Buen renuncia a dar instrucciones a los alcaldes socialistas sobre la Ley de Igualdad”, *El País*, 2006/01/13, 4; “Buen considera positiva la incorporación de las mujeres a la tamborrada”, *Gara*, 2006/01/13, 6.

⁷²³ “El Supremo confirma una sanción de dos años al juez Blánquez”, *El Mundo*, 2006/03/15, 13.

irten, baina pentsa dezakegu jakin ez dakizkigun mugimendu gehiago egon zela itzaletan.⁷²⁴

Hilabete berean, udalak Irungo Alarde tradizionalari desfilatzeko baimena eman zion, eta emakumeak Alardean ateratzearen aldekoek adierazi zuten Berdintasun Legea indarrean egonda lotsagarria zela udalak jarrera hori edukitzea, lege berriak ezer aldatzen ez zuela salatzearekin bat. Apirilean, berriz, Alarde mistoaren aldekoek elkarretaratze bat burutu zuten, Irunen emakumeak Alardean ateratzearen aldeko borroka hasi zenetik hamar urte pasa zirela aldarrikatzeko. Aralar alderdiak, berriz, Gipuzkoako Batzar Nagusietan Berdintasun Legea Alardeetan betetzeko proposamen bat aurkeztu zuen eta legea urratzen zela salatu. Horren ondorioz, ekainean Irungo alkateak, Santanok, azalpenak eman zituen Batzar Nagusietan, eta bertan bi Alardeen legalitatea babestu zuen, sententzietan oinarrituz. Aralarren proposamena EBk bakarrik babestu zuen, eta EAJ, EA, PSE-EE eta PPK kontra bozkatu zuten.⁷²⁵

Barne Sailak 2006ko Irungo Alardeek eskatutako ordutegiak aldatu zituen, tradizionala aurreratuz eta mistoa atzeratuz, helburua istiluak saihestea izanik. 48 orduko tartea izan zuten erabakiaren aurka errekurtsioa jartzeko, baina onartu egin zuten, nahiz eta desadostasunean egon. Irungo Udalak jaietako programa etxeetatik banatzen hasi zen, baina gelditu behar izan zuten, programan Alarde mistoaren aldeko publizitatea zegoelako eta aurretik erabaki omen zutelako urte horretan Alardearen inguruan ezer ez sartzea, nahiz eta aurreko urteetan Alarde tradizionalaren argazki ugari irten. Koordinazio akats bat izan zela argudiatu zuen alkateak, eta programa berritik Alarde mistoaren publizitatea ezabatu zuten. Alarde mistoak ordurako ordainduta zegoen publizitatea kendu zutela salatu zuen, eta gogoratu aurreko urteetan Alarde tradizionalaren argazkiak soilik ageri zirela programan.⁷²⁶

⁷²⁴ “El Supremo confirma la sanción de dos años de suspensión al juez Blázquez”, *El País*, 2006/03/15, 36; “El Tribunal Supremo confirma la suspensión de dos años a Blázquez”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2006/03/15, 9.

⁷²⁵ Jone Guindo, “El Alarde tradicional de Irun obtiene el permiso para celebrar San Marcial”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2006/03/30, 8; “Hamar urte emakumeak alardean eskatzen”, *Berria*, 2006/04/30; “Aralar pide en JJGG que se cumpla la ley”, *El Diario Vasco*, 2006/05/17, 6; “Solicitan a la diputación que respalde los Alardes mixtos”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2006/05/17, 14; “El alcalde reafirma la legalidad de los dos Alardes ante las JJ GG”, *El Diario Vasco*, 2006/06/09; Y. M., “Las Juntas rechazan medidas concretas para unos alardes igualitarios”, *El País*, 2006/06/09.

⁷²⁶ “Interior marca los horarios de los alardes”, *El Diario Vasco*, 2006/06/03; “Los Alardes no recurrirán la asignación de horarios que realizó Interior”, *El Diario Vasco*, 2006/06/07; “Irungo Alardarako zehaztutako ordutegiak onartu dituzte”, *Berria*, 2006/06/08; “Se interrumpe la distribución del programa de fiestas por incluir publicidad de un Alarde”, *El Diario Vasco*, 2006/06/14; “Irungo alkateak alarde

Euskal Herriko Alderdi Komunistak (EHAK) legebiltzarrean Irun eta Hondarribiko alkateen agertzea eskatu zuen, Alardeen gatazka konpontzeko zuten asmoa azaltzeko. Baina agenda arazoak argudiatuz, ez ziren bertaratu.⁷²⁷ Santanok *Berria* egunkariari eginiko deklarazioetan hau zioen:

“Giro ona dugu herrian. Giroa lasai dago. Azken urteetan bezala, 30ean bi alarde egotea onartu dute herritarrek. Hori normalena izan dadin saiatuko naiz, eta ordena publikoaren eta segurtasunaren ikuspegitik, alardeak arazo eta liskarrik gabe ospa daitezzen saiatuko naiz.”⁷²⁸

Alkatearen azalpen horiek arazoa konponduta zegoela aditzera ematen zuten, eta momentu horretatik aurrera ordena publikoa eta segurtasuna mantentzea besterik ez zela falta. Irunen bi Alarderen existentziaren egoera normalizatzea izan zen gatazka amaitutzat emateko eta ordena mantentzeko estrategia. Ordena horretan, ordea, Alarde tradizionalak eta horrek eraikitzen zuen herriak hegemoniko izaten jarraitu behar zuen. Horretarako bi Alardeak guztiz bereizita ospatu behar ziren; Alarde tradizionalen gehiengoa irten behar zen; alkatearen babesa izan behar zuen, eta Alarde mistoa bazterretan jarraitzea ezinbestekoa zen. Normaltasuna ezartzeko, ageriko indarkeria fisikoarekin amaitu behar zen.

Alarde mistoaren aldeko kideek, ordea, alkateak emakumeen bazterketa bultzatu eta legitimatzen zuela salatu zuten eta horren adibide zela udal programatik Alarde mistoaren aldeko publizitatea kendu izana. Bide horretan, Arartekoak alkateari eskatu zion udaletxeko balkoian berekin batera egoteko Alarde mistoari harrera egiten, baina ez zuen proposamen horren erantzunik jaso. Batasunak Berdintasun Legea betetzen ez zela salatu, eta ekainaren 30ean euskal herritarrei Irunera berdintasuna babestera joateko deia egin zien. Bilgune Feministak kanpaina bat abiatu zuen Euskal Herrian jai parekideen alde; batetik, eraso sexistak saihesteko helburuarekin, eta bestetik, parte

mistoaren publizitatea kendu du jai egitarautik”, *Berria*, 2006/06/17; “El Alarde mixto responde a la retirada del anuncio del programa oficial”, *El Diario Vasco*, 2006/06/17.

⁷²⁷ E. A., “Los alcaldes de Irún y Hondarribia eluden ir al Parlamento para tratar de los alardes”, *El País*, 2006/06/20.

⁷²⁸ Agurtzane Solaberrieta, “Santano: «Alardeak liskarrik gabe egin daitezzen nahi dut»”, *Berria*, 2006/06/22.

hartze parekidea bultzatzen. Eta zentzu horretan Alardeetan EAJ eta PSE-EEK izandako jarrera salatu zuen.⁷²⁹

Testuinguru horretan, *El Diario Vascoren* arabera, Alarde baten eta bestearen aldekoak batzen zituen kolektibo batek prentsaurreko bat egin zuen. Batez ere, gurasoak ziren eta gizatasunaren aldeko aldarria egiten zuten. Alderdi politikoekin, Alarde mistoko Juntarekin, alkatearekin eta Arartekoarekin bildu zirela azaldu zuten, elkarbizitza lortzera bidean, baina Alarde tradizionalako Juntarekin ezin izan zutela bildu esan zuten. Bestetik, egin zuten manifestua Irungo pertsona ezagunei firmatzea proposatu zieten, babes eta zabalpen handiagoa izateko, baina hogeitik batek bakarrik onartu zuen. Horrek, kezka eragin ziela adierazi zuten, hain oinarrizko dokumentu bat babestea ukatzeagatik. *Berriak* kaleratu zuen berrian, ordea, Alarde mistoan parte hartzen zutenen gurasoek soilik osatzen zutela azaltzen zen, Alarde tradizionalaren aldekoiek bertan parte hartzeko proposamena egin bazieten ere, ukatu egin zutelako. Alarde publiko, bakar eta parekidea lortzea helburua bazuten ere, momentu horretako errealitatea eta Alardea ulertzeko eta bizitzeko modu ezberdinak errespetatuz jaia bakean bizi nahi zuten.⁷³⁰

Arartekoak berriro ere Irungo Udalari Alarde parekidea antolatzeke edo babesteko gomendioa egin zion, eta Alarde tradizionala laguntzeari uztea eskatu. Udalbiltzak, LABek eta Batasunak ere tradizioaren izenean emakumea baztertzen jarraitzen zela eta Berdintasun Legea betetzen ez zela salatu zuten. Ezker Abertzaleak bide horretan legebiltzarrean Alarde parekidea bermatzeko neurriak hartzea proposatu zuen, baina PSE-EE, EA, PP eta EAJk atzera bota zuten. Horren ordean, berdintasun eskubidea bermatzeko elkarrizketa bideak zabaltzea gomendatzen zen testua onartu zuten.⁷³¹

⁷²⁹ M. J. A., “Lamarca ha pedido autorización para recibir el Alarde mixto desde el balcón del Ayuntamiento”, *El Diario Vasco*, 2006/06/22; “Santano dice que el Ararteko no necesita permiso para entrar en el Ayuntamiento”, *El Diario Vasco*, 2006/06/23; “Batasunak alarde misto eta publikoari izaera ofiziala aitortzeko eskatu du”, *Gara*, 2006/06/24, 7; “«PSE-EEko eta EAJko alkateek emakumeek parte hartzea ukatu dute»”, *Berria*, 2006/06/28; “Jai parekideen alde deia egin du Bilgune Feministak Irunen”, *Gara*, 2006/06/28, 7.

⁷³⁰ María José Atienza, “Un colectivo ciudadano aboga por el civismo durante las fiestas”, *El Diario Vasco*, 2006/06/29; M. J. A., “Manifiesto por el respeto”, *El Diario Vasco*, 2006/06/29; Agurtzane Solaberrieta, “Bi alardeen arteko bizikidetzeta sustatu nahi izan dute gurasoek”, *Berria*, 2006/06/30, 12.

⁷³¹ “Alarde parekidearen aldeko neurriak eskatu dizkio arartekoak Irungo udalari”, *Berria*, 2006/06/29; “El Ararteko pide que se promueva un alarde igualitario”, *Gara*, 2006/06/29, 4; Estitxu Ugarte, “Eusko Legebiltzarrak ez du onartu alarde parekidea bermatzeko neurriak hartzea”, *Berria*, 2006/06/30, 13; “El parlamento de Gasteiz sigue haciendo «recomendaciones» para los Alardes”, *Gara*, 2006/06/30, 4.

Egoera horretan iritsi zen beste Irungo Alarde egun bat, ordena publikoa bermatzeko bi desfile bereizirekin, ahaztu gabe ordena publikoa mantentzea genero ordena babestea zela. Alardearekin zerikusia zuten ekitaldiak bikoitzak izan ziren, eta bakoitzak nahi zuenean parte hartzera eta errespetuz jokatzera dei egin zuten, aipatu gabe emakumeek batean ezin zutela parte hartu. Santano alkateak Alarde tradizionalari soilik egin zion harrera, eta Alarde mistoak Kale Nagusian ertzainez inguratuta desfileatu behar izan zuen. Alarde mistoa lehen aldiz emakume batek ireki zuen, hatxeroen kaboa Arantxa Campos izan zelarik. Hori, Fermin Muguruzaren testigantzak azaldu bezala, aldaketa handia zen, baita Alarde mistoan parte hartzen zutenentzat ere. Izan ere, emakumeak Alardeko espazio, rol eta hierarkian postu guztiak okupatzen ari ziren, baita gizon soldaduen gainetik ere egoten eta horiei aginduak ematen. *Berria* egunkariak “pozik, saltoka eta «Gora Euskal Herria» esanez amaitu” zuela desfilea azaldu zuen.

Egunkari gehienetan istilurik egon ez zela azpimarratzen zen, eta egia da lehen aldiz hamaika urtetan ez zela inongo konfrontazio fisikorik egon. Beste berri batzuek ere jaiak bananduta ospatu behar izateari garrantzia ematen zioten, horrela konfliktua konpondu gabe zegoela azalduz. Beste batzuek normaltasunez hitz egin zuten, arazoa konponduta balego bezala. Istilurik ez zen egon eta normaltasuna nagusitu zen, baina ordena baten barruan, hau da, 1996an zalantza jarri zuten ordena horren barruan. Izan ere, Alarde mistoak eta emakume soldaduek borrokan jarraitu arren, zentzu batean ordenaren berrezarpena nagusitu zen, nahiz eta zirrikituak irekita egon oraindik ere ordena iraultzeko aukerekin. Onartu beharra dago, gainera, normaltasun hori Alarde mistoak irabazitako lorpen batzuen ondorioz eta horien lorpenak ez handitzeko asmoz ezarri nahi zela. Alarde mistoa eta bertan emakume soldaduek desfileatzea lortu baitzuten, hasieran irain eta indarkeria artean, baina 2006an jada erreakzioak ezin zituen mekanismo horiek erabili, eta Berdintasun Legearen testuinguruan, tolerantziaren eta askatasunaren izenean bi Alardeen alde egin zuen erreakzioak.⁷³²

⁷³² “Todo listo para el gran día”, *El Diario Vasco*, 2006/06/30, 14; “Dos Alardes volverán a recorrer Irun en la fiesta de San Marcial”, *El Diario Vasco*, 2006/06/30, 13; “Hamaikagarrenez, banatuta”, *Berria*, 2006/07/01, 1; A. Mendiola eta U. Zubeldia, “Arazorik ez, baina bi alarde”, *Berria*, 2006/07/01, 2-3; Arantxa Campos, “Berdintasuna aldarrikatuz”, *Berria*, 2007/07/01, 3; “El Alarde de Irun vivió este año sus dos desfiles sin incidentes”, *Deia*, 2006/07/01, 1; “El Alarde irunés se celebró sin ningún incidente tras diez años de polémicas”, *Deia*, 2006/07/01, 11; “Irun fue una gran fiesta”, *El Diario Vasco*, 2006/07/01, 1; “La tranquilidad y el ambiente festivo marcaron el recorrido del Alarde mixto”, *El Diario Vasco*, 2006/07/01, 18; “El alarde mixto conoció una de las ediciones más tranquilas”, *El Diario Vasco*, 2006/07/01, 22; Idoia Arraiza, “El alcalde de Irún evita recibir desde el balcón al alarde mixto y desoye al Ararteko”, *El Mundo*, 2006/07/01, 22; M. Marín, “Irún vive el Alarde de San Marcial en paz por primera

Hondarribian beste urte batez Arartekoak udalari Alarde ez baztertzaila bat egiteko eskatu zion, edo kontrara, Jaizkibel konpainia Alarde tradizionalera batzea bermatzeko. Horrez gain, ekitaldi publiko bat esku pribatuetan uztea egotzi zion alkateari. Arartekoa konfliktoaren lehen urtetik ibili zen Irun eta Hondarribian alkateei gomendioak ematen, baina inolakoan ere ez zioten kasurik egin. Hamaika urte pasa ondoren, gauza berdina egiten jarraitzen zuen, eta gainera, konbentzituta udalek espainiar konstituzioa eta Berdintasun Legea urratzen zutela. Arartekoaren presentzia eta babesia Alarde mistoetan garrantzitsua izan zitekeen, baina instituzio horren muga handiak agerian geratzen ziren urtero, alkateek inolako aldaketarik egin ez zutela ikustean, eta Arartekoak urtero betetzen ez ziren gomendioez gain ezer egin ezin zuenean. Emakunderekin ere antzekoa gertatzen zen. 2006an Berdintasun Legeak ekitaldi baztertzailak espazio publikoetan egitea debekatu zuen, eta, beraz, horrek alkateari exijitu zion Alardean emakumeak berdintasunean parte hartzea bermatzea. Jauregik inolako erantzunik ez zuen eman. Batasunak EAJ eta instituzioen jarrera kritikatu zuen Alardearen auzian, eta adierazi zuen irailaren 8an bertan egongo zirela Jaizkibeli babesia ematen eta Alarde bakar, publiko eta parekidea aldarrikatzen. Bilgune Feministak, berriz, Sabin Etxearen parean kontzentrazio bat deitu zuen.⁷³³

Bigarren urtez, Jaizkibel Kale Nagusitik pasa zenean plastiko beltzak altxatu zituzten espaloietan, eta ertzainez inguratuta eta irain artean egin behar izan zuten ibilbidea 180 kideek. Garoa Lekuona kapitainak aurreko entseguetako lasaitasuna ikusirik plastiko beltzak ez egotearen esperantzarekin hasi zutela eguna azaldu zuen, baina oker zeudela konturatu ziren berehala, eta lotsagarritzat eta negargarritzat jo zituen plastikoak. Hala ere, konpainia mistoa pixkanaka aurrera zihoala adierazi zuen, eta nahiz eta bide luzea izan aurretik, aurrerapauso txikiak lortzen ari zirela.⁷³⁴

vez en diez años”, *El País*, 2006/07/01, 37; A. Mujika eta M. Eizmendi, “Hamaikagarrenean, jaia jai”, *Gara*, 2006/07/01, 4-5; “Alarde en paz”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2006/07/01; Cristina Tapia, “Normalidad después de diez años”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2006/07/01, 49.

⁷³³ “El Ararteko solicita al Consistorio de Hondarribia un alarde no discriminatorio”, *Gara*, 2006/09/01, 6; “Emakunde pide a Jauregi que apoye el Alarde igualitario”, *Gara*, 2006/09/02, 5; Ainara Lertxundi, “Batasuna critica la actitud «pasiva» del PNV y las instituciones ante el Alarde”, *Gara*, 2006/09/07, 5; Mirian Biteri, “Ezker Abertzalea acompañará hoy a Jaizkibel en el Alarde de Hondarribia” *Gara*, 2006/09/08, 5.

⁷³⁴ “Lakua permite que no se cumpla la Ley de Igualdad en Hondarribia”, *Gara*, 2006/09/09, 1; Amaia Mujika, “«Ez gatoz zuek ikustera»”, *Gara*, 2006/09/09, 2-3; A. M., “«Itxaropena genuen ez zela irudi bera errepikatuko»”, *Gara*, 2006/09/09, 3; A. M., “Berdintasun Legea hitzetik hortzera ibili zuten agintariak”, *Gara*, 2006/09/09, 3.

Berdintasun Legeak ireki zuen egoera berrian, hau da, Jaizkibel konpainiak lehentasuna izanik ordutegietan, herriaren eta erritoaren zentrotik igarota emakume soldaduen existentzia ukatu eta baztertzearen estrategiak aurrera jarraitu zuen, plastiko beltzak eraikiz. Horrekin batera, komunitate *abjektuaren* isolamendua mantentzea zen helburua, isolamendu hori apurtuta komunitate horren gainean eraikitako irudi eta esanahi asko eroriko baitziren, eta horrekin, emakume soldaduen eta horien aldekoen estigmatizazio eta kriminalizazioa. Egoera horretan, ordena soziala eta statu quoa mantentzeko ahaleginetan, Alarde tradizionalaren komunitateak edozein aldaketa galera zuen, eta guztia zuen galtzeko. Komunitate *abjektuarentzat* eta Jaizkibel konpainiarentzat aldaketa txikiena ere aurrerapauso izan zitekeen. Guztia galdu zuten gatazkan, guztia zuten irabazteko.

6.5. Espainiako Auzitegi Gorena eta Berdintasunerako Legea desaktibatzea

Beste urte bat igaro zen aurrekoaren gertaera antzekoekin, eta 2007an berriro ere udal hauteskundeak zetozen. Nahiz eta jadanik alderdi politikoak Alardearen gatazkan posizioa hartu eta egoera politikoa ezarrita egon, emaitzei eta kanpainari begirada bat botako diogu. 2007. urtean ere Espainiako Auzitegi Gorenak EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2002ko sententzia berretsi zuen, eta Hondarribikoa Alarde pribatua izanik, biltzeko askatasuna berdintasunaren gainetik zegoela onartu zuen. Irungo Alardearen inguruko sententzia 2008an irten zen, eta edukian berdina izan zen.

Otsailaren 8an, egunkarietan irten zen Espainiako Auzitegi Gorenak kaleratutako epaia. *Egunkariak* honela azaldu zuen sententziaren edukia:

“Espainiako Auzitegi Gorenaren iritziz, alardea ospatzeko bi moduak, emakumeak gizonen pare onartzen dituen eta emakumeen parte-hartzea kantinera izatera mugatzen duena, «bidezkoak eta elkarrekiko ez baztertzailak dira». Are gehiago: bi desfileak elkarrengandik bereiztuta egin behar direla dio, «batak bestea ez desitxuratzeko», bultzatzen dituztenek edo parte hartzen dutenekin elkarrekin parte hartzea hitzartu bitartean.”⁷³⁵

⁷³⁵ Jakes Goikoetxea, “Gorenak dio ez dagoela sexu bereizkeriarik Hondarribiko alardean, «pribatua delako»”, *Berria*, 2007/02/08, 18.

2002an EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia berretsi zuen, bost urte igaro ondoren, eta erreakzioak berehala iritsi ziren. Emakundek berri txarra zela adierazi zuen, baina onartu eta bete egingo zuela. Ixabel Alkain Etxeberria Jaizkibel konpainiako kideak bazterketarik gabeko jai batzuen alde lanean jarraituko zutela azaldu zuen, eta urteetan zehar lege eta sententzia ezberdinak irten baziren ere, guztiak berdin jarraitzen zuela gehitu zuen. AF pozik azaldu zen, haiek antolatzen zuten Alardeak baztertzen ez zuela epaitu zelako, eta nahi zuten moduan desfilatzen jarraitu ahalko zutelako. Alkateak positiboki baloratu zuen, udalak inongo momentuan legalitatetik at jardun ez zuela esan nahi zuelako, eta udalaren argumentuak onartu eta sententziak azken urteetako gatazka konpondu zezakeela uste zuelako. Irungo alkateak epaiak lasaitasuna eman ziola adierazi zuen, eta aurrekari bat markatzen zuela, Irungo Alardeari buruz atera behar zen sententziari zegokionean. Irungo Alarde tradizionalako Juntak kontzentrazioa deitu zuen, mugarri izan zen sententziaren alde egiteko eta askatasuna gailendu zela aldarrikatzeko.⁷³⁶

Hondarribiko Alarde egunean gauza gutxi aldatuko zituen; zeren sententziak Alarde tradizionala egin zitekeela berresten baitzuen, emakume soldadurik gabe. Hori urte guztietan gauzatu zen, eta epaiak egoera babesten zuen, alegia, genero ordena are gehiago blindatu zuen, Alarde tradizionalaren alde eginez. Momentu horretatik aurrera, tradizionalistek are babes eta legitimazio handiagoa izango zuten, eta nahiz eta Jaizkibelek adierazi Alarde bakar, publiko eta parekide baten alde lanean jarraituko zutela, ikusteke zegoen ordura arte babesa adierazi zioten instituzio batzuen jarrera zein izango zen aurrerantzean, Ararteko eta Emakunderena, hain zuzen.

⁷³⁶ “El TS considera que el Alarde de Fuenterrabía no discrimina a la mujer”, *ABC*, 2007/02/08, 58; “El TS ratifica que el Alarde tradicional de Hondarribia no discrimina a las mujeres”, *Deia*, 2007/02/08, 23; Juanma Velasco, “El Supremo resuelve que la celebración privada del Alarde de Hondarribia no es discriminatoria”, *El Diario Vasco*, 2007/02/08, 7; Y. Montero, “El Supremo falla que el Alarde tradicional de Hondarribia no es discriminatorio”, *El País*, 2007/02/08, 39; Aitor Anuncibay, “El Tribunal Supremo falla que el Alarde de Hondarribia no discrimina a las mujeres”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2007/02/08, 9; “Emakunde cree que el fallo del Supremo sobre el Alarde «no es una buena noticia»”, *El Diario Vasco*, 2007/02/09, 5; “La directora de Emakunde lamenta el fallo del Supremo sobre el Alarde”, *El Mundo*, 2007/02/09, 20; “Emakunde asume el fallo judicial sobre el Alarde”, *El País*, 2007/02/09, 38; “Emakunde acata el fallo sobre el alarde de Hondarribia”, *Gara*, 2007/02/09, 22; “Emakunde critica la sentencia del supremo sobre el Alarde”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2007/02/09, 8; “Gorenaren sententziak alarde «librea» ahalbidetuko duela uste du Alarde Fundazioak”, *Berria*, 2007/02/10, 14; “El alcalde de Hondarribia, satisfecho por la sentencia del TS sobre el Alarde”, *Deia*, 2007/02/10, 19; Jon Goitia, “Jauregi cree que la sentencia del Alarde «pacificará la vida social» de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2007/02/10, 7; “El alcalde de Hondarribia afirma que la sentencia del TS «soluciona» las discrepancias de los últimos 11 años”, *El Mundo*, 2007/02/10, 22; Aitor Anuncibay, “«Nadie me podrá decir que he cometido alguna ilegalidad con el alarde»”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2007/02/10, 12; “La Junta tradicional reclama «el cese de injerencias» en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2007/02/11, 26.

Maiatzean udal hauteskundeak egin ziren. Urte horretan, EAJ eta EAK zerrenda bananduak aurkeztu zituzten, eta horrek eragina izan zuen, batez ere Irunen. Izan ere, Irunen, 2003an, EAJ eta EAK batera aurkeztuta zortzi zinegotzi lortu zituzten, PSE-EEK baino bat gutxiago. Eta 2007an, berriz, EAJk lau lortu zituen, eta EAK bat ere ez. Gainera, PPK lortu zuen bigarren postua berrehun boto gehiago eta lau zinegotzirekin. PSE-EEK, berriz, nahiz eta lau urte lehenago baino bostehun boto gutxiago lortu, hiru zinegotzi gehiago izan zituen, hamabi, hain zuzen ere. Eusko Abertzale Ekintzak (EAE) hiru zinegotzi eskuratu zituen, eta Ezker Batua-Berdeak eta Aralarrek (EB-B/A) osatutako zerrenda bateratuak bi.⁷³⁷

Hondarribian, berriz, lau urte lehenago izandako emaitza antzekoak izan zituzten alderdi guztiek. EAJ eta EA bananduta aurkezteak zinegotzi bat eta lau urte lehenago batuta baino mila boto gutxiago lortzea eragin zuen. Hau da, 2003an EAJ-EA zerrenda bateratuak 5.009 boto eta hamaika zinegotzi eskuratu zituen, eta oraingoan, EAJk 2.388 boto eta sei zinegotzi, eta EAK 1.612 boto eta lau zinegotzi. Hala ere, bi alderdien artean gehiengo osoa mantendu zuten. Gainontzeko alderdiek emaitza bertsuak lortu zituzten. EAEk hiru zinegotzi, PSE-EEK bi, PPK eta EB-B/Ak bana. Aipatzekoa da Borja Jauregik alkatetza utzi eta Aitor Kerejeta aurkeztu zela EAJ alderditik alkatetzarako eta hurrengo legegintzaldian bera izan zela alkate. Bai Hondarribian eta bai Irunen alderdi eta Alardearen gatazkaren arteko erlazioak berbera izaten jarraitu zuen, baita boto intentzioak eta alderdiek zuten babesak ere.⁷³⁸

Gatazka lehertu eta lehen udal hauteskundeetan, 1999an, Alardeak eragina izan zuen alderdien zerrendak osatzeko orduan eta boto intentzioan. Ondoren, gatazka egonkortzen, eta azken urte horietan, normaltzen joan zenez, hauteskundeek statu quo eta ordena erreproduzitu zuten, eta 1996ko gatazkak irekitako alderdi politikoen panoramak jarraitu zuen.

Irungo jaiak eta uda gerturatu ahala, Bilgune Feministak jai parekideen alde lanean zela azaldu zuen, eta horretan Alarde bakar eta parekidea beharrezkoa zela. BAEren presentzia geroz eta urriagoa izan zela antzeman genezake. Zeren jada Irunen Alarde

⁷³⁷ Gobierno de España, Ministerio del Interior, "Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 2003. Irún"; Gobierno de España, Ministerio del Interior, "Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 2007. Irún".

⁷³⁸ Gobierno de España, Ministerio del Interior, "Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 2003. Hondarribia"; Gobierno de España, Ministerio del Interior, "Consulta de Resultados Electorales. Municipales Mayo 2007. Hondarribia".

mistoaren Junta baitzegoen, eta emakumeak Alardean ateratzearen aldeko norabidea hori zen, Alarde mistoa geroz eta handiagoa izan eta momenturen batean Alarde tradizionalak zentzua galtzea. Euskal Herriko Bilgune Feministak, ordea, 2002an jai zenetik, jai parekideen aldeko lana aurrera eramane zuten, eta bertan Alarde publiko, bakar eta parekidearen aldeko aldarria egin zuten. Erakundeei neurriak hartzeko eta emakumei Alarde mistoa babestera gerturatzeko dei egin zieten. Hala ere, Irungo Bilgune Feminista urte batzuk aurrerago sortu zen, eta honela oroitzen du Oihana Etxebarrieta Legrandek hasieran Alardearen inguruan erabaki zutena:

“Irungo Bilgunea zehazki orain ezin dizut esan buruz, bilatu dezaket zeren badaukat hori, sorreran egon ginen gu, 2007-2008 inguru horretan, ez dakit. Gainera, begira justu Alardea izan zen, hartu genuen erabakia, denak ginen Alarde mistokoak, gainera hortik ezagutzen ginen, Hazian ibiltzetik. Baina hartu genuen erabakia hasieratik ez lantzea, zeren hori, BAEkoekin eta hitz eginda ikusten genuen elkarte feministak Alardearen gaia landu zutenak eskualdean desagertu zirela ez? Eta guk esaten genuen gure estrategia izan zen goazen lantzerantz beste gai batzuk, Irungo Bilgune Feministak hartu dezala nolabait ezagutza maila bat edo jendeak ezagutu dezala eta behin hori eginda hasiko gara Alardea lantzen eta orduan pasatu ziren urtetxo batzuk Alardea lantzen hasterako. Gero egiten genituen ekintzatxoak eta horrela baina ez Irungo Bilgune Feministaren izenean.”⁷³⁹

Euskal Herriko Bilgune Feministak, beraz, sortu zenetik, Alardeen gaia oso presente egin zuten eta aldarrikapen publikoak egin zituen. Jai parekideen aldeko lanketan Alardeek presentzia altua izan zuten, baina Etxebarrietak kontatzen digun bezala, Irungo nukleoa sortu zenean, beste gai batzuk lantzea erabaki zuten, Alardearen gaia aurrerago eta egonkortuta zeudenerako utziz. Izan ere, herrian eragin nahi bazuten, Alardearen gatazkan esplizituki esku hartzeak asko mugatu zitzakeen, berehala *abjektuaren* esparrura kanporatuz, eta estigmatizazio eta kriminalizazio bitartez zentzu handi batean desaktibatuz. Bestetik, Alardearen gatazkak eragiten zuten desgastea eta hartzen zuten dimentsioa handia zenez, beste problematika eta gai batzuk lantzea garrantzitsu ikusi zuten, azken urteetan Alardeak monopolizatu baitzuen zentzu handi batean gutzia. Azkenik, argi geratzen da berdintasunaren aldarri orokor bat plazaratzearen erraztasuna

⁷³⁹ Oihana Etxebarrieta Legrandi eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/09/03 (pasarte bat).

zein zail eta gogorra bihurtzen den, lurreratuz eta desberdintasun hori sortzen eta iraunarazten duena zuzenean zalantzan jarriz gero.

Udalbiltzak salatu zuen “Alardeek berdintasunetik oso urrun gaudela erakusten” zutela eta Alarde tradizionalaren existentziak emakumeen bazterketan sakontzen zuela. Horri kontra jarriz, ordea, Santano alkateak bakoitzak jaia nahi zuen bezala bizitzera eta gainontzekoa errespetatzera dei egin zuen. Horrela iritsi zen egun handia, eta beste behin ere bi Alardek desfileatu zuten Irungo kaleetatik.⁷⁴⁰ Jai giroan joan zen desfilea eta ageriko istilurik gabe. Mertxe Tranche pozik azaldu zen, baina errezeloekin oraindik ere:

“Zentzu batean normaltasuna iradokitzen du eta hori negatiboa ere bada, ez baita azaleratzen oraindik orain Irunen dagoen arazoa, segregazioa arazoa hain justu. Ez da normala bi alarde irtetea eta eztabaida bultzatzea ezinbestekoa da aurrera begira.”⁷⁴¹

Alde batetik, beraz, bi Alarderen existentziak gatazka suposatzen zuela uste zuten. Zeren horietako Alarde batean emakumeak ezin baitziren soldadu gisa irten. Bestetik, behin Alarde tradizionala salbatuta nagusituko zen diskurtsoa jaia bizitzeko modu desberdinak errespetatu behar zirela izan zen. Bi modu desberdin horiek existitzeak, eta gainera, gehiengo eta herriaren sinonimo zena gizonez osaturiko Alardea izateak ordena mantentzea ahalbidetzen zuen. Udalaren, sententzien eta indar polizialen babesarekin besteak beste. Horrekin batera intoleranteak eta inposatzen zutenak Alarde bakarraren aldekoak zirenaren ideia zabaltzen joan zen, normaltasunarekin, eta, beraz, ezarritakoarekin apurtzen baitzuten. Normaltasuna neutroa ez dela gogoraraztea ez dago soberan, eta nola intolerantzia eta inposiziotzat jaso zen hori, injustua eta emakumeen dominazioa erreproduzitzen zuen errealitatearen kontra egitea zela.

Hondarribian, berriz, jaiak gerturatu ahala, Jaizkibelen kezka nagusia plastiko beltzak ziren. Aralar eta EB alderdiek zentzu horretan instituzioei plastikoak jartzea galarazteko

⁷⁴⁰ Oihana Llorente, “Jai parekideen alde lanean da aurten ere Bilgune Feminista”, *Gara*, 2007/06/23, 20; M. A. I., “Irun dispuesto para revivir el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2007/06/29, 23; “Udalbiltza: «Alardeek berdintasunetik oso urrun gaudela erakusten dute»”, *Gara*, 2007/06/29, 17; “Todo bien en el ensayo general”, *El Diario Vasco*, 2007/06/30, 21; “Irun fue una gran fiesta en el Alarde”, *El Diario Vasco*, 2007/07/01; Iñigo Morondo, “Otro gran 30 de junio en Irun”, *El Diario Vasco*, 2007/07/01, 14-15; “El ambiente festivo y la ausencia de incidentes reinaron en el Alarde mixto”, *El Diario Vasco*, 2007/07/01, 15; Maider Eizmendi, “Herri bat, bi Alarde oraindik”, *Gara*, 2007/07/01, 1.

⁷⁴¹ Maider Eizmendi, “Jai giroan eta liskarrik gabe, baina oraindik orain herria bitan banatuta”, *Gara*, 2007/07/02, 2-3.

eskatu zieten, iraingarriak zirela argudiatuz. Udalbiltzak bi Alarde eginda berdintasuna ez zela bermatzen salatu zuen, eta Bilgune Feministak ere instituzioen jarrera kritikatu zuen. Jaizkibekek Eusko Jaurlaritza eta Hondarribiko Udalarari neurriak hartzeko eskatu zien, plastiko beltzak ekiditeko, baina ezezkoarekin erantzun, eta adierazi zieten Alarde tradizionalaren aldekoek adierazpen askatasuna zutela, baita Jaizkibekek desfilatu bitartean ere. Horren aurrean, Ezker Abertzaleko militanteak Donostiako egoitza jeltzalea plastiko beltzez inguratzen saiatu ziren, baina ertzainek berehala eragotzi zieten.⁷⁴² Testuinguru horretan iritsi zen 2007ko Hondarribiko Alarde eguna, eta Nereak honela oroitzen du egun hori:

“En el momento que decidí izan zen, nengoen kalean, joaten nintzen leku batetik bestera eta derrepente ari ziren ensaiatzen. Pasa zen Jaizkibel eta me dio tanto asko, kanpoan zegoen jendeak egin zuena, que dije: «yo también voy a salir, va a haber una más», eta atera nintzen bitan. Nik esango nuen atera nintzen urtean jarri zirela plastiko horiak eta Donald kareetak. Orduan plastiko beltzak eta buiak te hace impresión. Pero justo casualidad, urte horretan, me hizo gracia porque fue de chiste, osea, fue de chiste.”⁷⁴³

Urte horretan, Kale Nagusian plastiko beltzak jarri beharrean, zakar poltsa horiak eta Disneyko maskarak banatu zituzten, eta horiekin jantzi eta aurpegiak estali. *Gara* egunkariko azalean horren irudia eta esaldi hau ageri zen: “Plastiko beltz umiliagarrien ordezkariak mozorro irrigarrien bidez erantzun zioten alarde mistoaren aurkakoei”.⁷⁴⁴ Nereak dio barregarria izan zela, txiste bat, eta plastiko beltzekin alderatuz, ez zuela hainbesteko beldur edo inpresioa ematen. Kale Nagusian konpainia mistoa babesten, Emakundeko zuzendaria eta Arartekoa egon ziren, EAE, EB, Aralar eta Batasunako ordezkariekin batera. Emakunde eta Arartekoari dagokienez, Jaizkibel babestera joan ziren Alarde egunean, baina lehenagotik jada ez zituzten eskaera edo exigentziak luzatu;

⁷⁴² “Reclaman la eliminación de los plásticos negros en el alarde de Hondarribia”, *Gara*, 2007/09/04, 18; Xabier Galartza, “Las compañías efectuarán hoy su último ensayo para el Alarde de este sábado”, *El Diario Vasco*, 2007/09/05, 19; “Bi alarde eginda berdintasuna ez dela bermatzen salatu du Udalbiltzak”, *Gara*, 2007/09/06, 20; Juanma Velasco, “Hondarribia vive mañana el día grande de sus fiestas patronales”, *El Diario Vasco*, 2007/09/07, 7; Oihana Llorente, “Murru beltzak ez du etengo emakumeen eskubideen aldeko borroka luzea”, *Gara*, 2007/09/08, 4.

⁷⁴³ Nereari (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2019/11/15 (pasarte bat).

⁷⁴⁴ “Hondarribia vivió su gran día”, *El Diario Vasco*, 2007/09/09, 1; Juanma Velasco, “«Hemos dado pasos» pero el Alarde «sigue privatizado»”, *El Diario Vasco*, 2007/09/09, 19; Juanma Velasco, “El ambiente festivo no dejó lugar a incidentes en el día grande de Hondarribia”, *El Diario Vasco*, 2007/09/09, 16-17; Leire González, “«No puede ser que todo un pueblo sea quien esté equivocado»”, *El Diario Vasco*, 2007/09/09, 18; “Emakumeak aurrera irudi irrigarrien gainetik”, *Gara*, 2007/09/09, 1.

izan ere, legalitatearen barnean eta legitimazio osoz Alarde tradizionala egiten zela onartu zuten. Hemen aipatu eta mahaigaineratu behar dugu zein kontraesan suposatzen zuten EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak, bertan esplizitatzen zelarik emakumeak baztertzeko zituen kultur ekitaldi batek espazio publikoa erabiltzeko zuten debekua, eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak eta Espainiako Auzitegi Gorenak Alarde tradizionala baimendu eta indar polizialek hori babesteko bermea. Gainera, kontraesan horretan, Berdintasunerako Legea desaktibatu eta de facto bertan behera geratu zen urte luzeetan zehar, Emakundek eta Arartekoak hori onartuz, gainera.

2007ko Hondarribiko Alarde eguneko berrikuntza Guadalupeko eguerdiko mezan Jaizkibel konpainia presente egon zela izan zen.⁷⁴⁵ Maitek, ordea, mezara joan edo ez izan zuten eztabaidaren berri ematen digu:

“Eztabaidatu genuen Guadalupera joan ala ez. Eta ni kontrari nengoen, nik esaten nuen beste gauza guztiak lortu ondoren egingo genuen elizarena baina elizatik hasi ezetz. Galdu nuen batzordea eta galdu nuen batzarra eta urtero joaten gara Guadalupera.”⁷⁴⁶

Alarde eguneko ekitaldia zen Guadalupeko meza, eta bertan, Alardeko agintariak, kantineak eta udalbatzak hartzen zuten parte. Jaizkibelen eztabaidatua izan zen; izan ere, horietariko asko ezkertiar eta feministak izanda, erlijio katolikoarekin eta elizaren instituzioarekin bat egitea inkoherentea zitzaien. Hala ere, kontraesanak kontraesan bertan parte hartzen hasi ziren. Urtez urte egoera antzekoa eta errepikakorra zela zirudien Alardearen gatazkan, baina aurrerapausoak ematen jarraitu zuten, batez ere Jaizkibel konpainian desfilatzen zuten kide kopuruaren igoeran. Ordena, ordea, bermatuta zegoen, eta Alarde tradizionalaren aldaketa, eta, beraz, genero ordenarena ordena sozialak asimilatu ahal zuenean soilik gertatuko zela zirudien. Arantxa Urretabizkaiak hau azaldu zuen:

“Asfaltoa zartzeko bi modu daude. Bata animaliena, gizakiona: hartzen duzu eskutan lanabes bat, pikotxa edo, ahal bada, mailu pneumatikoa eta kolpeka, zarata eginez, puskatzen duzu hautsezina zirudien azala. Bigarren modua

⁷⁴⁵ O. Llorente eta K. Petralanda, “Los contrarios al Alarde mixto pasan de discriminar a hacer el «ridículo», *Gara*, 2007/09/09, 26-27.

⁷⁴⁶ Maiteri (pseudonimo) eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/08/03 (pasarte bat).

landareena da: bultzatzen dute azpitik, isilean, etengabe, eta halako batean, nahikoa tentsio bildu dutenean, eten egiten dute gainean duten geruza.

Guk, 1996 urrun hartan, lehen modua hobetsi genuen. Ez genuen mailu pneumatikorik ez pikotxik, baina iruditu zitzaigun kalera salto eginez azpitik isilean bultzaka baino arinago lortuko genuela helburua. Arinago. Edo pentsatu genuen ez genuela hamarkadatan bultzatzen jarraitzeko aski borondate.

Bigarren urtetik aurrera lur azpiko jardunera itzuli ginen, landareen modu egonarritsua aukeratu genuen. Hogei urteren buruan, lurra bertatik bertara aztertuz gero, ahal dela lupa baten laguntzat, antzematen da nondik zartatuko den asfaltoa, beraien burua asfaltoaren jabetzat dutenak horretaz jabetzen ez badira ere. Oraindik ere ez dakiguna da hausketa sakonak zenbat urte gehiago hartuko duen.⁷⁴⁷

Hamabost urte pasa ziren Hondarribiko emakume batzuk Alardean ateratzeko elkartzeko eta antolatzen hasi zirenetik. Hamabi, Irunen lehenik, eta Hondarribian ondoren, Alardeetan emakumeak soldaduz jantzita sartzen saiatu zirenetik. Hamabi urte, genero ordena nahi gabe zalantzan jarri eta horrek arriskuan utzi zuen ordena soziala berrezartzeko erreakzioa sortu eta garatu zenetik. Erreakzioak lehenik eta behin emakume soldaduak Alardetik kanporatu zituen, eta ondoren, herri-komunitatetik *abjektuaren* esparrura. Horrek emozioen artikulazioari esker disidentziaren kontrako indarkeria legitimatu zuen, baita herri-komunitatea eta ordena babesten joan ziren mekanismo eta aktore ezberdinen bitartez. Udal hauteskundeek eta horietan alderdi politikoek hartutako posizioak gizon soldaduz osaturiko Alardearen aldeko gehiengoaren ideia berretsi zuen. Udal instituzioek ahalbidetu zuten Alardeen pribatizazioen eraginez, auzitegiek ekitaldi pribatuetan antolatzaileen erabakimena berdintasun printzipioaren gainera zegoela ebatzi zuten, eta horrela, indar polizialek argumentu horrekin emakumeak Alarde tradizionaletatik bota zituzten. Ordena geroz eta gehiago blindatzen joan ziren, eta 2008an iritsi zen Espainiako Auzitegi Gorenak Irungo Alarde pribatuari buruz EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren berrespena. Hau da, pribatua izanik eskubidea zutela antolatzaileek emakume soldaduak ez onartzeko zioen sententzia.

⁷⁴⁷ Arantxa Urretabizkaia, *Bidean Ikasia*, Pamiela, Iruñea, 2016, 28.

1996an ordena zalantzan jarri zuen disidentzia isilarazten eta ezabatzen saiatu baziren ere, ikusi dugu ez zutela etsi, eta eztaba daezin bezala kontsideratu zuten eskubide baten alde borrokatzen jarraitu zuten. 2008an Alarde bakar, publiko eta parekidea oso urrun zegoela zirudien. Zeren gehiengoak babesten zuen, eta herriaren Alarde gisa eraiki zuten jaia guztiz blindatu zuten, emakumeak soldadu gisa bertan ez sartzeko. Ordenaren aldeko herritarrak urte askotan antolatu, eta haien kabuz lortu zuten haien Alardetik emakume soldaduak kanporatzea, betiere Ertzaintzaren laguntzarekin. Izan ere, ordena publikoa mantendu eta pertsonen segurtasunaren izenean istiluak sortzen zirenean emakume soldaduak kanporatu izan zituzten, salbuespenak salbuespen. Instituzioen, auzitegien eta indar polizialen babesa ere lortu zuten, eta testuinguru horretan, emakumeak Alardeetan ateratzearen aldekoek Alarde eta konpainia propio bidez festa ospatzen eta borrokatzen jarraitu zuten, denbora pasa ahala gauzak aldatzeko eta egoera hobetzeko esperantzarekin.

ONDORIOAK

Bai kuantitatiboki eta bai kualitatiboki ere garrantzi handia zuen festa nagusia izanik, 90eko eta 2000ko hamarkadetako Alardeak masa errito gisa analizatu ditut. Hierarkia oso garbi batekin antolatzen eta desfilatzen zen, baina, aldi berean, anaitasun eta berdintasun baten ilusioa zabaltzen zuen, guztien presentzia eta parte hartzea beharrezkoa zela azpimarratuz. 1996ko gatazka lehertu ondoren, emakumeen bazterketaren argudioari kontra egiteko, Alarde tradizionalaren aldekoek errepikatu izan zuten emakumeak espaloietan desfilea ikustea eta txalotzea Alardean parte hartzea ere bazela eta beharrezkoa, gainera. Izan ere, ikuslerik gabe Alardearen esentzietako bat aldatuko litzateke. Alardean parte hartzeko modu ezberdinak zeuden, beraz, desfilearen barruan eta kanpoan, eta hierarkia batek antolaturik. Generoak markatzen zuen Alardean desfileatzeko aukera, eta Alarde barneko hierarkia jatorriak, ideologiak, familiak eta klaseak. Desberdintasun horiek, hala ere, makillatu egiten ziren, naturalizatu eta komunitate baten izenean onartu.

Barne mailan eta historikoki, etengabeko gatazkak izan dira Alardean. Gatazka politikoak, sozialak eta kulturalak, baina kanpora begira batasun bat mantentzea lortu izan da, eta gatazkak barne mailan mantendu dira, batasuna izanik apurtu behar ez zen printzipio nagusia. Izan ere, herri bakoitzean Alarde bakarra existitzea zen Alardearen esentzietariko bat. Batasuna oinarri nagusienetarikoa izanik, aldaketa zaildu izan du. Izan ere, boterea edota statu quo mantendu nahi izan dutenek batasunaren izenean aldaketa desaktibatzea izan dute bide, aldaketaren aldekoak batasunaren apurketaren erantzule eginez. Horrek, unibertsaltasun eta neutraltasun bat eraiki izan du, guztien interesen defentsaren bandera astinduz eta errealitate politiko, sozial eta kultural eraiki bat naturalizatuz. Alardearen antolaketak, beraz, disidentzia ekidin izan du eta ordenaren jarraikortasuna ahalbidetu, herri guztiak interes berberak zituela sinestaraziz.

70eko hamarkadan eta frankismoa amaitu ostean, Euskal Herriko jaiak ezkererantz politizatu, eta lehen urteetan gatazka handiko espazio bilakatu ziren. Horren adibide dira, beste batzuen artean, bai Iruñeko San Ferminetan eta baita ere Hondarribiko Alardean indar polizialek tiroz hil zituzten bi militanteren kasuak: German Rodriguez eta Josu Zabala. 80ko hamarkadan Irun eta Hondarribiko jaietako alkateen agurretan Alardeak puru, neutral eta politikatik at mantendu izan zirela adierazi izan zuten eta arriskuen aurrean horrela mantentzearen deia egin. Lortu zuten, beraz, nahiz eta 76ko

Alardeak gatazka egunak izan, neutraltasun faltsu horren izenean Alardeek politizazio ikusezin bat mantentzea. Izan ere, Alardeak ordena sozial bat mantentzen zuen, eta gainera, euskal nazioaren eraikuntza proiektu konkretu bati oso lotuta, baina ez ageriko plano batean. Alardeak nazio eraikuntzaren errito bat ziren; historian zehar aldatu eta erlazio dialektiko batean egon badira ere proiektu nazional ezberdinak. Zentzu horretan, Alardeek ezberdintasun sozialak kulturalki diluitzeko balio izan dute:

“(...) los nacionalismos, como bien sabemos, han tendido a diluir culturalmente estas diferencias sociales para crear una ilusión de igualdad y lograr un efecto de cohesión y sentimiento de pertenencia a la nación.”⁷⁴⁸

90ko hamarkadan, ordea, feministatzat hartu dezakegun aldarri eta borroka batek Alardeko itxurazko neutraltasuna eta unibertsaltasunak ezkutatzen zituen diferentzia eta hierarkia horiek mahaigaineratu zituen. Bidasoaldeko emakume batzuek aurreko hamarkadetako ideia feministak barneratu zituzten, batzuek modu inkontzientean, eta Alardeetako emakumeen parte hartzea aldatzen saiatu ziren, logiko eta posible zela sinetsiz. 70eko hamarkada amaiera eta 80ko hasieran ere eskaera batzuen ebidentziak ditugu, baina ez zuten aurrera egin. 90eko hamarkadan izan zen, berriro ere, emakume batzuek Alardeko parte hartzea aldatu nahi eta amore eman ez zutenean. 90eko hamarkada mundu baten amaiera gisa kontzeptualizatu dut, Eric Hobsbawmen XX. mende motzaren terminoa erabiliz. Mundu mailako aldaketei –SESBren erorketaren ostean kapitalismoa aukera bakar gisa azaldu zen– maila lokalean birmoldaketa industrial eta aduanen ezeztatzeak jarraitu zioten, eta turismoaren gorakada arrantza munduko gatazkekin nahastu zen. Mugimendu feminista 80ko hamarkadan izandako barne gatazken eta feminismoaren instituzionalizazioaren ondorioz, beste faktore batzuen artean, 90eko hamarkadara indar gutxirekin eta desmobilizatuta iritsi zen. Euskal gatazka, berriz, momentu gordinetan zegoen; konfrontazio handiko garaiak ziren, borroka armatua eta gerra zikina tartean. Testuinguru horretan emakume batzuk antolatzen hasi ziren emakumeak Alardeetan ateratzeko. Nahiz eta eskaerei ezezkoekin erantzun, aurrera jarraitu zuten, eta hori BAE koordinadora feministari esker izan zela ondoriozta genezake, baita horren inguruan aurretik sortutako sare formal eta informalei esker. Ezin dugu ahaztu Irunen ere alderdi politiko batzuen bultzada izan zutela, HBko emakumeak lehenak izanik Irunen aldarri horren inguruan antolatzen, eta ondoren, EB

⁷⁴⁸ Nerea Aresti, “El langile respetable...”, 120.

eta EAren babesa ere jaso zuten. Izan zituzten erantzunak ikusita, aurrera jarraitzeko beste aukerarik ez zutela pentsatu zuten, Alardean soldaduz jantzita eta baimenik gabe. *Gertakari* gisa analizatu dut; izan ere, izugarrizko dimentsioak hartu zituen gatazkak, herri guztiak parte hartzen zuen errito sakralizatu batean sartu baitziren eta zapalkuntza eta ordenaren logikak apurtu baitzituzten. *Gertakari* izan zen, eta horrek sortu zuen zalapartak atzera buelta edo aldarriaren desagerraraztea galarazi zuen. Bertatik sortu zen gatazkak askorentzat ere mundu baten amaiera suposatu zuen.

Mundu baten amaierak sortu zitzaizkeen beldur eta segurtasun ezak asko Alardea aldaezin eta emakume soldadurik gabe eustera eraman zituela azaldu dut, genero ordena tradizionala segurtasun iturri gisa hartuz. Bestetik, ordea, Alardeetan sartu ziren emakume horientzat eta haien aldekoentzat, jasotako erreakzioak egikaritu zuen mundu baten amaiera. Handik aurrera, haientzat herriak ez baitziren berdinak izango. Ezkutuan zeuden indar eta logika batzuk agerian geratu ziren, eta ordena soziala eta Alardeen batasuna mantentzeko eskura zuten guztia aurrera eraman zuen erreakzioak. Herriaren batasuna mantentzeko, herritik kanporatu behar izan zituzten, emakume horiek ez baitzeuden prest haiek baztertzen zituen batasun eta neutraltasuna onartzeko. Batasun, neutraltasun eta naturalizazio hori genero bazterketa baten gainean eraikia zegoela agerian utzi zuten, baina hortik haratago gatazkak beste hainbat funtzionatzeko era eta botere-harreman ere ezustean ikusarazi zituen. Esan bezala, inork ez zuen espero gertatu zena, eta feminismoak lagundu zituen asko horren analisi bat egitera. Gatazka existitu izan ez balitz, oharkabean pasako lirateke neutraltasun eta naturalizazioak ezkututzen dituztenak.

Lehenik eta behin, agerian geratu zen Alardea konkretuki, eta festak orokorrean, egun batera mugatzen diren jai sinboliko eta eguneroko bizitzatik salbuespen izatetik oso urrun geratzen direla. Hau da, herrien identitate eta antolakuntzaren eraikuntzaren artefaktu garrantzitsuak dira, eta esparru sinbolikotik haratago herriak eta nazioak materializatzen dituzte, ordena sozial eta politiko batean oinarrituta. Aldaketa handien aurrean, katastrofe eta beldur sentazioa nagusitzen denean, segurtasun eta ziurtasuna eman dezakete, mundu ezagun eta aldaezin bat aurkezten dutelako, kontrolpean dagoena eta iraganari lotuta. Aldi berean, ordea, erritoak eta Alardea gatazka eta aldaketa dira bere horretan, eta sostengatzen duten guztia arriskuan jartzeko potentzialtasuna dute. Emakumeak 1996an soldaduz jantzita Alardeetan sartu zirenean, errito horiek

sostengatzen zuten guztia arriskuan jarri zuten, genero ordena tradizionala eta ordena soziala, tartean. Batzuek traizio gisa hartu zuten ekintza hori, ezagutzen zuten mundu eta ordenaren apurketa bezala, haien identitatearen eta normalizatutako esentziaren kontrako eraso gisa. Baina ez hori bakarrik, mugimenduan zegoen botere eta harremanen logikak ere apurtu ziren, askok galtzeko asko izanik. Ondorioz, erreakzioa antolatu, eta ordena hori berrezartzen saiatu zen, are zurrunagoa eginez araua eta ordena, eta herri-komunitatearen harresiak eta exigentziak handituz.

Emakumeak Alardeetatik kanporatu zituzten, genero ordena tradizionala babeste eta mantentze aldera. Esan bezala, ordena hori sexu-genero sistema bitarrean eta erregimen heterosexualean oinarrituta zegoen, eta, beraz, emakume eta gizonek parte hartzeko modu eta jantzi berberak izateak zentzu batean zalantzan jartzen zuen ordena hori, emakumeek betetzen zituzten lan erreproduktiboak noren esku geratuko ziren ikusteko zegoelarik ere. Horrez gain, emakume soldaduak herri-komunitatetik kanporatu zituzten, baita horien alde zeudenak ere. Eta kanporatze hori ideologia edota pentsatzeko modu baten arabera egin zen. Ordena mantentzen zuten emakumeak herri-komunitatean geratu ziren, tradizio eta herriaren babesle gisa, eta hala, emakume onaren eta txarraren irudia sortu zen. Herri-komunitatetik eman zen kanporatze hori, beraz, generoa eta ordena ulertzeko eta bizitzeko modu batekin erlazioan izan zen, eta horrek ere nazioaren eraikuntzarekin zerikusia zuen; izan ere, nazioa ulertzeko modu ezberdinak bertan emakume eta gizonek izan behar zuten paperaren arabera ere badira.

Ideologia eta nazionalismo ezberdinetako alderdi politikoek, euren ezberdintasun eta kontrakotasunean, bat egin zuten genero ordena tradizionala babesteko orduan. EAJ, PSE-EE, PP eta EA ordenaren babesle izan ziren, barne kontraesan eta talkak izan bazituzten ere. Euskal eta espainiar nazio proiektu ezberdinek, arrazoi desberdinak tartean eta koiunturak baldintzatuta, bat egin zuten horretan. 80ko hamarkadatik aurrera, Irungo Alardearen jatorria milizia foraletan jarriz, euskal nazionalismoaren baitan kokatu zuten, eta bertan, EAJ izan zen nagusi. 90eko hamarkadako gatazka lehertu ostean ere, EAJ izan zen gizon soldaduz eta emakume kantineraz osaturiko Alardeen babesle sutsuena, bai Irunen eta bai Hondarribian. Alarde tradizionalen aldeko jarrerak bat egiten zuen genero ordena tradizionala defendatzen zuen EAJren nazio eraikuntzarekin. PSE-EEren kasuan, ordea, bere espainiar nazionalismoaren eraikuntzan

generoak izan behar zuen ulerkeran ordez Irungo alkatetza galtzeko arriskuarekin erlazioan jarri behar dugu Alarde tradizionalen aldeko jarrera.

Ezker Abertzalea eta Ezker Batua emakume soldaduen alde jarri ziren, barne talka, kontraesan eta urteetan zehar posizio aldaketak izanik ere. Hala ere, urteetan zehar adierazi zuten haiek eraiki nahi zuten herri eta nazioan emakume soldaduak egon behar zirela derrigor, haiek baitziren eraiki nahi zuten bazterketarik gabeko nazioaren bermeetariko bat. Emakume soldaduz osaturiko Alarde eta konpainiak estigmatizatzekeo *etarras* eta *HBras* irainak erabili zituzten haien kontra, eta Ezker Abertzaleko estrategia manipulatzailerik baten parte egin. Prozesu hori ezin dugu ulertu euskal gatazkatik at, ezta urte horietan Ezker Abertzaleak borroka armatuaren aldeko jarrera eta horren kontrako kriminalizazio saiakeratik kanpo. Azaldu dugun bezala, gainera, alderdi politikoetako estrategia eta aliantza nazionalak eragin zuzena izan zuten Alardeen gatazkan.

Alarde bakoitzeko hizkuntzaren erabilera aipatu dut lanean zehar. Emakume soldaduen aldeko antolakuntza, asanblada eta Alardeetan bertan euskararen erabilera izan zen nagusi, eta horrek hizkuntza politika konkretu batekin egiten zuen bat. Irungo Alarde tradizionalan, ordea, aginduak gazteleraz egiten jarraitu zuten, eta horien aldeko antolakundeek ere gazteleraren erabilera handia zuten. Erlijioari dagokionean, esan dezakegu gatazkak eta ordenaren berrezarkuntzak are zurrunagoa egin zuela erlijioarekiko atxikimendu eta presentzia. Alarde eta konpainia mistoan ere erlijioarekiko zalantza eta kontraesan handiak izan bazituzten ere, tradizioa suntsitzearen egozpenari aurre egiteko modu gisa eta ahalik eta gauza gutxien aldatzeko argumentuari helduz, Alardeko errito katolikoak bere horretan bete zituzten. Izan ere, Alardeetan eman zitezkeen aldaketa eta gai batzuen inguruko eztabaidak asko izan zitezkeen, baina gatazkak, batetik, Alarde tradizionalaren aldekoak gotortu zituen, inolako debatarako aukerak itxiz, eta bestetik, Alarde mistoen aldekoek eztabaida berriak irekitzea sostengaezin zela ikusi zuten, emakumeen parte hartzea konpondu ezean.

Klaseari dagokionean zaila da zehazten 90eko eta 2000ko hamarkadako Alardeetako konposizioa eta hierarkia, nahiz eta ikusi historian zehar klase gatazka presente egon dela bertan. Prestigio desberdinekin egin genezake lotura, Irunen dauden auzoetako konpainiak langile auzoetakoak, baserrietakoak edota zentrokoak diren ikusita. Hondarribian, berriz, prestigioak ere zerikusitua handia du *kaletarren*, *portuarren* edo

baserritarren konpainia izatearekin. Hala ere, ondoriozta genezake Alardeak, ordena soziala bermatu zuen heinean eta nik ikertzen dudan kronologian, ordena sozial eta politiko burgesarekin bat egiten zuela edo behintzat ez ziola aurre egiten, eta Alardearen batasun, unibertsaltasun eta neutraltasunaren diskurtsoak klase harmonia batean ere oinarritzen zirela. Emakumeak soldaduz sartzean, ordea, nahi gabe ere, zalantzan jarri zuen ordena sozial hori, sostengatzen zuen ideologia eta harmonia hori ere zentzu batean agerian edota arriskuan utzi zuen, aldarri edota ekintza feministek guztia aldatzeko eta zalantzan jartzeko duten potentzialtasuna garbi geratuz.

Horrekin kontrajarriz eta tesian zehar instituzio, lege, sententzia eta indar polizialen jarduna ikusiz, nahiz eta hasiera batean gatazka lehertu ostean horiek emakumeak Alardeetan nahi duten moduan irteteko eskubidea onartu eta horren alde jardun, urteetan zehar eta erreakzioaren antolakuntzak jokaturako estrategia ezberdinen bidez guztiek Alarde tradizional pribatizatuak babesten amaitu zuten. Horrek emakumeak Alardeetan nahi zuten moduan desfilatzea ukatzera eraman zituen, eta ondorioz, ordena babestera. Hasteko, Emakunde eta Arartekoa bezalako instituzioek hasieratik jardun zuten emakume soldaduen alde, informeak, komunikatuak eta alkateei gomendioak emanez. Babes handia izan zen Alarde eta konpainia mistoentzat urteetan zehar, baina zituzten muga eta ahulguneak ere argi geratu ziren, zeren eta egindako gomendioak ez baitziren inongo momentuan egikaritu. Legebiltzarrean ere alderdi politiko guztiek firmatu zituzten deklarazioak egin ziren, Bidasoaldeko alkateei eskatuz emakume soldaduen parte hartzearen bermea, alkate horien alderdiek barne. Sententziei dagokienean, hasiera batean Alardeak publiko ziren heinean atera zirenei, diskriminaziorik ezin zela egon agintzen zuten, eta hori bultzada handia izan zen borrokan zeuden emakume horientzat. Lehen momentutik, ordea, ordenaren babesleek horiek ekiditeko zirrikituak topatu zituzten, eta gatazka hasi zenetik eta sententzia horiekin ere, urtero gizonen soldaduz soilik osaturiko Alardeak espazio publikotik desfilatu zuten.

Sententzia horiek ekiditeko, gainera, lehen momentutik prozesu bat hasi zuten: Alardeak pribatizatzea. Udalen finantzaketa eta antolaketa ukatuz, beste guztia berdina mantentzen saiatuz eta zuzenbidean esparru publikoa eta pribatuaren gaineko legedia desberdindua aprobetxatuz egin zuten. Horrek, Alardeak gutxi batzuen esku eta finantzaketa pribatuari irekita utzi zituen, ekar zitzakeen arriskuak onartuz eta konfliktoa despolitizatzen saiatuz. Izan ere, behin edozeren gaineko erabakimena elkarte

pribatu baten esku utziz, elkarrizketa, dialogoa eta aldaketa errotik moztu zuten, baita herri guztiarena izan behar zuen Alardearen ingurukoa ere. Feministek urteetan zehar salatutako esparru pribatuaren opakutasuna eta zapalkuntzen ikusezintasuna argi geratu zen, esparru publiko eta pribatuaren arteko muga artifiziale delako erakutsiz. Gainera, zuzenbidearen neurgailu ezberdin horrek de facto bertan behera utzi zuen EAEko 2005eko Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasunerako Legea, zeinak honako hau zioen: “Debekatu egiten da emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.”⁷⁴⁹ Horrez gain, Alardea publikoa zenean ere, Hondarribiko emakumeek hiru urte pasa zituzten udalari eta Alardeko Juntari eskaerak egiten ezer lortu gabe, publikoa dena ere neutraltasun batetik urrun dagoela ikusiz eta ordena sozialean oinarrituta dagoela ezin ahaztuz.

Azkenik, indar polizialen esentzietariko bat zein den argi geratzen da, gatazka honen analisia egin ostean. Izan ere, hasieratik eta urtero, arrazoi bat edo beste izanda ere, indar polizialek emakume soldaduak Alardeetan sartzea ekidin zuten, eta horrela, ordena soziala eta genero ordena tradizionala babestuz. Horretarako indarkeria, atxiloketak eta errepresioa erabili zuten. Salbuespen bakarra egon zen: 2000. urteko Hondarribiko Alardea. Ondoriozta genezake, beraz, statu quo eta ordena soziala aldatzeko behetik, hau da, botere-guneetatik at, sortzen den edozein borroka erreprimitzeko zeregina duela, bazterketa eta zapalkuntzen kontrako borrokek izanik ere.

Aldaketari dagokionean, ezin dugu gatazka aldaketaren aldekoen eta kontrakoen arteko konfliktu gisa sinplifikatu, nahiz eta horrela aurkeztu izan den askotan. Izan ere, Alarde tradizionalak tradizioa eta Alardea “beti” bezala mantentzearen izenean aldaketa asko aurrera eramane zituen, inongo ageriko talkarik sortu gabe. Aldaketak nork, nola eta zein logikari jarraituz analizatzea da prozesu horiek ulertzeko modua. Sarreran aipatu bezala eta Marshall Bermanek azaldu moduan, aldaketa eta mugimendu konstanteak gizartea irauli ordez indartzeko balio dezakeela berriz gogoratu:

“Nuestras vidas están controladas por una clase dominante con intereses creados no solamente en el cambio, sino también en la crisis y el caos. «Una incesante

⁷⁴⁹ Jauriaritzaren Lehendakaritza, “4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa”, *EHAA*, 2005/03/02, 3239.

conmoción, una inquietud y un movimiento constantes», en vez de subvertir esta sociedad, sirven en realidad para fortalecerla. Las catástrofes se transforman en oportunidades lucrativas de más desarrollo y renovación.»⁷⁵⁰

Azken esaldiari helduta, gatazka honetatik etekina atera zutenak ere egon ziren. Batetik, ordena indartu eta zurrundu zen hein handi batean, Bidasoaldeko gizartea are erreakzionarioagoa eginez. Ez naiz esaten ari Bidasoaldeko gizartea per se Euskal Herriko beste lurralde batzuekin konparatuz erreakzionarioagoa zenik, baizik eta gatazkak eta horren baitako prozesu eta posizioek urte batzuetan zehar behintzat alde horretarantz mugitu zutela. Guztia aldatzen ari zen momentu horretan, etorkizun eta ziurgabetasunaren aurrean Alardea egin zuten trintxera, neoliberalismoak bultzatutako gainontzeko guztiaren aldaketa eta prekarizazioa bere horretan onartuz eta inolako erresistentzia eskaini gabe.

Beste aldetik, ordea, komunitate *abjektua* beste borroka batzuk artikulatzeko espazio informal ere izan zela esatea ezinbestekoa da, gatazkak egin zituela asko feminista eta zapalkuntza askoz kontziente. Astindu zituen oinarriak eta buruak, mugitu zituen antolakuntzak eta kolektiboak eta emakume soldaduen aldeko elkarrizketatuetariko guztiak ados daude egin zutena berriro ere egingo zutela:

“[Gatazkak] eman dit indarra, eman dit identitatea. Hasieran kendu zidana eman dit. Eman dit harrotasuna, oso oso harro sentitzea egiten ari naizenaz, oso oso harro ondoan daukadan edozein pertsonaz. Da pasada bat zein gertu sentitzen ditudan ezagutzen ez ditudan pertsonak Jaizkibelen. Orduan eman dit feminismoa, niri Jaizkibelek eman dit feminismoa. Festak, Hondarribik, gatazkak oparitu dit bizitza ulertzeko, borrokatzeko, izateko modu bat. Eta gatazka honek begiak zabalduarazten ari dizkizu eta ohartu hemen ere zenbat daukagun oraindik borrokatzeko. Orduan sentitzen naiz hain harro esan ahal izateaz hori nire konpainia dela, hori nire herria dela, horiek nire lagunak direla, nire ezagunak direla. Bai eta eman dit badakidala, segurtasun hori, hemendik hogeita hamar urtera, lasai esango ahal dudala nik Jaizkibelen parte hartu nuela.»⁷⁵¹

⁷⁵⁰ Marshall Berman, *Todo lo sólido...*, 90.

⁷⁵¹ Oihana Etxebarrieta Legrandi eginiko elkarrizketa. Ilargi Bengoetxea Gartzia egina. Elkarrizketaren eguna: 2020/09/03 (pasarte bat).

BIBLIOGRAFIA

- Abarzúa Victoriano, Fabrizzio, “Historia oral en primera y tercera persona”, *Historia Actual Online*, 44. zkia., 2017, 149-156.
- Aguado, Ana eta Ramos, María Dolores, *La modernización de España (1917-1939). Cultura y vida cotidiana*, Síntesis, Madril, 2002.
- Ahmed, Sara, *La política cultural de las emociones*, UNAM, Mexiko DF, 2015 [2014].
- Aizpuru Joaristi, Alaitz eta Altonaga Begoña, Bakarne (koord.), *Diskurtoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntza*”, UEU, Bilbo, 2014.
- Allier Montano, Eugenia, “Balance de la historia del tiempo presente. Creación y consolidación de un campo historiográfico”, *Revista de Estudios Sociales*, 65. zkia., 2018, 100-112.
- Álvarez Junco, José, *Dioses útiles. Naciones y nacionalismos*, Galaxia Gutenberg, Bartzelona, 2016.
- Álvarez Junco, José eta de la Fuente Monge, Gregorio, *El relato nacional. Historia de la historia de España*, Taurus, Madril, 2017.
- Álvarez Junco, José eta Shubert, Adrian (ed.), *Nueva historia de la España contemporánea (1808-2018)*, Galaxia Gutemberg, Bartzelona, 2018 [2017].
- Amelang, James S. eta Nash, Mary (ed.), *Historia y Género: Las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea*, Diputació de València. Institució Alfons el Magànim, Valentzia, 1990.
- Amin, Samir, *Sobre el desarrollo desigual de las formaciones sociales*, Cuadernos Anagrama, Bartzelona, 1976 [1972].
- Anderson, Benedict, *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, Fondo de Cultura Económica, Mexico D.F., 2007 [1983].
- Anduaga Matud, Jaime, *Hondarribiko arrantzale-kidegoaren bidegurutzeta. Europar Batasunerako egokitze prozesuaren kasu bat. Nortasun kolektiboaren berrikuntza-prozesuaren aurre egoera*, Doktoretza Tesia, EHU/UPV, 2010.
- Aramburu, Antonio, *Orígenes del Alarde de San Marcial: Las milicias forales*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, 1987.

- Araolaza, Oier, *Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan*, UEU, Bilbo, 2020.
- Arbaiza, Mercedes, “Cuerpo, emoción y política en los orígenes de la clase obrera en España (1884-1890)”, *Ayer*, 98. zkia., 2015, 45-70.
- Arbaiza, Mercedes, “«Sentir el cuerpo»: subjetividad y política en la sociedad de masas en España (1890-1936)”, *Política y Sociedad*, 55. zkia., 2018, 71-92.
- Arbaiza, Mercedes, “Dones en Transició: el feminismo como acontecimiento emocional”, Ortega López, Teresa María, Aguado Higón, Ana eta Hernández Sandoica, Elena (ed.), *Mujeres, dones mulleres, emakumeak. Estudios sobre la historia de las mujeres y del género*, Cátedra, Madril, 2019, 267-286.
- Aresti, Nerea, *Médicos, donjuanes y mujeres modernas: los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX*, EHU/UPV, Bilbo, 2001.
- Aresti, Nerea, “De heroínas viriles a madres de la patria. Las mujeres y el nacionalismo vasco (1893-1937)”, *Historia y Política*, 31. zkia., 2014, 281-308.
- Aresti, Nerea, Peters, Karin eta Bruhne, Julia (ed.), *¿La España invertebrada? Masculinidad y nación a comienzos del siglo XX*, Comares Historia, Granada, 2016.
- Aresti, Nerea, “El *gentleman* y el bárbaro. Masculinidad y civilización en el nacionalismo vasco (1893-1937)”, *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 39. zkia., 2017, 83-103.
- Arrizabalaga Marín, Sagrario, *Alarde de San Marcial: origen y evolución*, Casino de Irún, Irun, 2006.
- Asensio Lozano, Maite eta Iraola Alkorta, Arantxa, *Alardeak ukatutako plazara*, Berria/Elkar/Jakin, Andoain, 2018.
- Badiou, Alain, *El ser y el acontecimiento*, Manantial, Buenos Aires, 1999.
- Balfour, Sebastian eta Quiroga, Alejandro, *España reinventada. Nación e identidad desde la Transición*, Península, Bartzelona, 2007.
- Barjola, Nerea, *Microfísica sexista del poder. El caso Alcàsser y la construcción del terror sexual*, Virus, Bartzelona, 2018.
- Barros Guimeráns, Carlos, “La historiografía y la historia inmediata: la experiencia latina de la historia a debate (1993-2006)”, *Historia Actual Online*, 9. zkia., 2006, 193-196.

- Barros, Carlos, “Los fines de la historia en el siglo XXI”, *Historia Actual Online*, 45. zkoa., 2018, 147-155.
- Baudrillard, Jean, *La sociedad de consumo. Sus mitos, sus estructuras*, Siglo XXI, Madrid, 2012 [1970].
- Bauman, Zygmunt, *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Siglo XXI, Madrid, 2009 [2001].
- Beorlegui Zarranza, David, *Transición y melancolía. La experiencia del desencanto en el País Vasco (1976-1986)*, Postmetropolis Editorial, Madrid, 2017.
- Berman, Marshall. *Todo lo sólido se desvanece en el aire. La experiencia de la modernidad*, Siglo XXI, Madrid, 1988 [1982].
- Blasco, Inmaculada, *Paradojas de la ortodoxia política de masas y militancia católica femenina en España (1919-1939)*, Prensas Universitarias de Zaragoza, Zaragoza, 2003.
- Borderías Mondejar, Cristina (ed.), *Género y políticas del trabajo en la España contemporánea: 1836-1936*, Icaria editorial, Barcelona, 2007.
- Borderías Mondejar, Cristina (ed.), *La historia de las mujeres: perspectivas actuales*, Icaria, Barcelona, 2009.
- Billig, Michael, *Nacionalismo banal*, Capitán Swing, Madrid, 2015.
- Bullen, Margaret, “Las mujeres y los Alardes de Hondarribia e Irún”, *Arenal* 4, 1. zkoa., 1997, 123-145.
- Bullen, Margaret, “Identidad y género en los Alardes de Hondarribia e Irún”, *Ankulegi*, 1. zkoa., 1997, 37-40.
- Bullen, Margaret, “Gender and Identity in the Alardes of two Basque Towns”, Douglass, William A. et al., *Basque Cultural Studies*, University of Nevada, 1999, 149-178.
- Bullen, Margaret, “La construcción de género en el discurso sobre los alardes de Irún y Hondarribia”, *Ankulegi*, 3. zkoa., 1999, 53-61.
- Bullen, Margaret, “Hombres, mujeres, ritos y mitos: los Alardes de Irún y Hondarribia”, Del Valle, Teresa (ed.), *Perspectivas feministas desde la antropología social*, Ariel Antropología, Barcelona, 2000.

- Bullen, Margaret L., "Transformaciones socio-culturales y la recreación de una fiesta", *Zainak*, 24. zkia., 2003, 937-953.
- Bullen, Margaret eta Egido, José Antonio, *Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Irún y Hondarribia*, UPV/EHU, Bilbo, 2003.
- Bullen, Margaret, eta Diez Mintegui, Carmen, "Fisiones/fusiones: mujeres, feminismos y orden social", Suárez, Liliana, Martín, Emma eta Hernández, Rosalba (koord.), *Feminismos en la antropología: nuevas propuestas críticas*, Ankulegi, Donostia, 2008, 81-98.
- Bullen, Margaret, "Antropología feminista, antropología aplicada. Encuentros y desencuentros", *Revista de Antropología Experimental*, 12. zkia., 2012, 91-102.
- Bullen, Margaret eta Kerexeta, Xabier, "Genero-indarkeriaren erakundetzea Bidasoako alardeetan", *Ankulegi*, 17. zkia., 2013, 11-28.
- Bullen, Margaret, "Rituales, género, resistencias y cambios (el caso de Irún y Hondarribia)", *Certámenes. Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: jóvenes y relaciones de género en el País Vasco*, Emakunde, Gasteiz, 2016.
- Butler, Judith, *Cuerpos que importan. Sobre los límites materiales y discursivos del «sexo»*, Paidós, Buenos Aires, 2002 [1993].
- Butler, Judith, *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*, Paidós Studio, Bartzelona, 2011 [1990].
- Capocetti, Fabrizio eta Melegari, Diego, "Marxismo en el presente. Mapa de los conceptos para pensar el cambio", *Tiempo Devorado. Revista de Historia Actual*, 3. zkia., 2017, 478-508.
- Casanellas, Pau, *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977*, Catarata, Madril, 2014.
- Chakrabarty, Dipesh, *Al margen de Europa. ¿Estamos ante el final del predominio cultural europeo?*, Tusquets Editores, Bartzelona, 2008 [2000].
- Chamouveau, Brice, *Tiran al maricón. Los fantasmas queer de la democracia (1970-1988)*, Akal, Madril, 2017.
- Cohen, Esther, *Con el diablo en el cuerpo. Filósofos y brujas en el Renacimiento*, UNAM, Mexiko, 2005.

- Davis, Angela, *Mujeres, raza y clase*, Akal, Madrid, 2004 [1981].
- De Aramburu, Javier, *Ondarrabiko Alardea*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1976.
- De Beauvoir, Simone, *El segundo sexo*, Cátedra, Madrid, 1999 [1949].
- De Marinis, Pablo, Gatti, Gabriel eta Irazuzta, Ignazio (ed.), *La comunidad como pretexto. En torno al (re)surgimiento de las solidaridades comunitarias*, Anthropos, Bartzelona, 2010.
- De Pablo, Santiago, Mees, Ludger eta Rodríguez Ranz, José A., *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco. II: 1936-1979*, Crítica, Madrid, 2001.
- De Pablo, Santiago, *La patria soñada. Historia del nacionalismo vasco desde su origen hasta la actualidad*, Biblioteca Nueva, Madrid, 2015.
- Del Río Gabarain, Eugenio, “Cambios ideológicos en los movimientos alternativos”, *Historia Actual Online*, 40. zkia., 2016, 153-159.
- Del Valle, Teresa, *Las mujeres en Euskal Herria. Ayer y hoy*, Orain, Bilbo, 1997.
- Del Valle, Teresa, “El género en la construcción de la identidad nacionalista”, *Ankulegi*, 1. zkia., 1997, 9-21.
- Delgado Ruiz, Manuel, “Tiempo e identidad. La representación festiva de la comunidad y sus ritmos”, *Zainak*, 26. zkia., 2004, 77-98.
- Delgado, Manuel eta Martín López, Sarai, “La violencia contra lo sagrado. Profanación y sacrilegio: una tipología”, *Vínculos de Historia*, 8. zkia., 2019, 171-188.
- Díaz Barrado, Mario P., “La imagen en el tiempo: el uso de fuentes visuales en historia”, *Historia Actual Online*, 29. zkia., 2012, 141-162.
- Díaz Freire, José Javier, “El cuerpo de Aitor: emoción y discurso en la creación de la comunidad nacional vasca”, *Historia Social*, 40. zkia., 2001, 79-96.
- Díaz Freire, José Javier, “Cuerpos en conflicto. La construcción de la identidad y la diferencia en el País Vasco a finales del siglo XIX”, Nash, Mary eta Marre, Diana (ed.), *El desafío de la diferencia: representaciones culturales e identidades de género, raza y clase*, UPV/EHU, Bilbo, 2003, 61-94.
- Díaz Freire, José Javier, “La experiencia de la modernidad como una experiencia barroca”,

- Historia Crítica*, 56. zkia., 2015, 137-160.
- Díaz Freire, José Javier, “Los tiempos de la modernidad. A propósito de Marshall Berman”, *Historiografías*, 11. zkia., 2016, 17-32.
- Díaz Freire, José Javier, “Miguel de Unamuno: La feminización de la masculinidad moderna”, *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 39. zkia., 2017, 39-58.
- Díaz Freire, José Javier, “Tiempo al tiempo. Modernidad, experiencia y tiempo”, *Iglesia Viva*, 277. zkia., 2019, 25-42.
- Díez Mintegi, Carmen eta Bullen, Margaret, “Fiestas, tradiciones e igualdad”, *Kobie. Antropología cultural*, 16. zkia., 2012.
- Elizondo Lopetegui, Arantxa, *Emakumeen eskubide politikoak: instituzioak eta alderdiak*, Deustuko Unibertsitatea, Deustu, 2000.
- Elizondo Lopetegui, Arantxa, “La participación política de las mujeres en Euskadi: datos y reflexiones”, *Feminismo/s*, 3. zkia., 2004, 75-88.
- Esteban, Mari Luz, “Antropología encarnada. Antropología desde una misma.”, *Papeles del CEIC*, 12 zkia., 2004, 1-19.
- Esteban, Mari Luz, *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*, Bellaterra, Bartzelona, 2013 [2004].
- Epelde Pagola, Edurne, Aranguren Etxarte, Miren eta Retolaza Gutierrez, Iratxe, *Gure Genealogia Feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*, Emagin, 2015.
- Farapi S.L., *Análisis de las fiestas del territorio histórico de Gipuzkoa desde una perspectiva de género*, Departamento de deportes y acción exterior, Donostia, 2009.
- Federici, Silvia, *Caliban y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria*, Traficantes de Sueños, Madril, 2010.
- Foucault, Michel, *Historia de la sexualidad I. La voluntad de saber*, Siglo XXI, Madril, 1980 [1976].
- Foucault, Michel, *Microfísica del poder*, La piqueta, Madril, 1992 [1977].
- Foucault, Michel, *Historia de la sexualidad II. El uso de los placeres*, Siglo XXI, Madril, 1993

- [1976].
- Foucault, Michel, *Vigilar y castigar*, Siglo XXI, Madril, 2000 [1975].
- Fromm, Erich, *El miedo a la libertad*, Paidós Contextos, Madril, 2012 [1947].
- Gatti, Gabriel, *El detenido-desaparecido. Narrativas posibles para una catástrofe de la identidad*, Trilce, Montevideo, 2008.
- Gil, Silvia L., *Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la dispersión. Una historia de trayectorias y rupturas en el Estado español*, Traficantes de Sueños, Madril, 2011.
- Gramsci, Antonio, *Cuadernos de la cárcel. Tomo 2*, Ed. Era, Mexiko, 1981.
- Guha, Ranahit, *Las voces de la historia y otros estudios subalternos*, Crítica, Bartzelona, 2002 [1982, 1983, 1996].
- Guha, Ranahit, *Las historia en el término de las historia universal*, Crítica, Bartzelona, 2003 [2002]
- Guilló Arakistain, Miren (koord.), *Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2016.
- Halberstam, Judith, *Masculinidad femenina*, Egales, Bartzelona, 2008 [1998].
- Haraway, Donna, *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza*, Ediciones Cátedra, Madril, 1995 [1991].
- Hobsbawm, Eric, *Entrevista sobre el siglo XXI*, Crítica, Bartzelona, 2000 [1999].
- Hobsbawm, Eric eta Ranger, Terence (ed.), *La invención de la tradición*, Editorial Crítica, Bartzelona, 2002 [1983].
- Hobsbawm, Eric, *Historia del siglo XX*, Crítica, Bartzelona, 2013 [1995].
- Huyssen, Andreas, *Después de la gran división. Modernismo, cultura de masas, posmodernismo*, Adriana Hidalgo, Buenos Aires, 2002 [1986].
- Huyssen, Andreas, *Modernismo después de la posmodernidad*, Gedisa, Bartzelona, 2011 [2010].
- Iglesias Saldaña, Margarita, “Trauma social y memoria colectiva”, *Historia Actual Online*, 6. zkia., 2005, 169-175.

- Iguiñiz, Felipe, *Un día de San Marcial en Irún*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1979.
- Iñigo Carrera, Nicolás, “Qué historia y qué militancia”, *Razón y Revolución*, 7. zkia, 2001, [reedición electrónica].
- Jameson, Fredric, *Teoría de la postmodernidad*, Trotta, Madril, 1996 [1991].
- Jameson, Fredric, *El posmodernismo o la lógica cultural del capitalismo avanzado*, Paidós, Bartzelona, 1995 [1984].
- Jameson, Fredric, *El postmodernismo revisado*, Abada, Madril, 2012.
- Kerexeta, Xabier, “Dime de qué alardeas...”, 2001 [publikazioa elektronikoa].
- Leonisio Calvo, Rafael, *Cambio y continuidad en el discurso político: el caso del Partido Socialista de Euskadi (1977-2011)*, CIS, Madril, 2016.
- Llona, Miren, “Polixene Trabudua, historia de vida de una dirigente del nacionalismo vasco en la Vizcaya de los años treinta”, *Historia Contemporánea*, 21 zkia., 2000, 459-484.
- Llona, Miren, “La construcción de la identidad de clase obrera en el País Vasco. Género y respetabilidad de clase, dos realidades inseparables”, *Vasconia: Cuadernos de historia-geografía*, 35. zkia., 2006, 287-300.
- Llona, Miren, “La prostitución y la identidad de la clase obrera en el transito del siglo XIX al XX. Un análisis de género a la obra literaria de Julián Zugazagoitia”, *Historia Contemporánea*, 33. zkia., 2006, 719-740.
- Llona, Miren, “Memoria e identidades. Balance y perspectivas de un nuevo enfoque historiográfico”, Borderías, Cristina, *Historia de las mujeres: perspectivas actuales*, Icaria, Barcelona, 2009, 355-390.
- Llona, Miren, (ed.) *Entreverse, teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, EHU/UPV, Bilbo, 2012.
- Llona, Miren, “From Militia Women to Emakume: Myths Regarding Femininity during the Civil War in the Basque Country”, Morcillo, Aurora, *Memory and Cultural History of the Spanish Civil War. Realms of Oblivion*, Brill Publishers, Leiden, Boston, 2013.
- Loidi Bizcarrondo, José Antonio, “Alarde de San Marcial. Participación de las mujeres”, Luis de Urantz Kultur Taldea. Boletín de Estudios del Bidasoa, 15. zkia., 1997, 17-34.

- Lowenthal, David, *El pasado es un país extraño*, Akal, Madril, 1998 [1985].
- Magallón Rosa, Raúl, “La historia multimedia. La transformación de la memoria evenemencial”, *Historia Actual Online*, 17. zkia., 2008, 169-174.
- Maquieira D’Angelo, V., “Cultura y derechos humanos de las mujeres”, Pérez Cantó, Pilar (koord.), *Las mujeres del Caribe en el umbral del 2000*, Comunidad de Madrid, Dirección General de la Mujer, Consejería de Sanidad y Servicios Sociales, Madril, 1998, 171-203.
- Medina Brener, Larisa, “Comunidades emocionales: hacia la apertura de la historia de las emociones”, *Historia y Grafía*, 45. zkia., 2015, 203-213.
- Millet, Kate, *Política sexual*, Cátedra, Madril, 1995 [1970].
- Mínguez, Raúl, *Evas, Marías y Magdalenas. Género y modernidad católica en la España liberal (1833-1874)*, AHC-CEPC, Madril, 2016.
- Mitchell, Juliet, *La liberación de la mujer: la larga lucha*, Anagrama, Bartzelona, 1975 [1966].
- Molina Aparicio, Fernando eta Pérez Pérez, José Antonio (ed.), *El peso de la identidad: mitos y ritos de la historia vasca*, Valentín de Foronda, Gasteiz, 2015.
- Molina Rabadán, David, “Historia actual y sociedad de la información: reflexión sobre por qué debería haber buenas relaciones”, *Historia Actual Online*, 2. zkia., 2003, 81-89.
- Montero, Manuel, “La reformulación identitaria del nacionalismo vasco. La ideología del PNV tras la dictadura franquista”, *Historia Actual Online*, 38. zkia., 2015, 7-21.
- Morant Deusa, Isabel (zuz.), *Historia de las mujeres en España y América Latina. Del siglo XIX a los umbrales del XX*, Cátedra, Madril, 2006.
- Moreno Márquez, Gorka eta Kerexeta Erro, Xabier (koord.), *Bidasoaldeko Alardeak: Herria versus Hiria*, UEU, Donostia, 2005.
- Múgica, Serapio, *Alarde de San Marcial: origen y detalles*, Imprenta y Encuadernación de J. Baroja e hijos, Donostia, 1901.
- Nash, Mary, “Desde la invisibilidad a la presencia de la mujer en la historia: corrientes historiográficas y marcos conceptuales de la nueva historia de la mujer”, *Nuevas perspectivas sobre la mujer: actas de las Primeras Jornadas de Investigación Interdisciplinaria*, 1. bol., 1983.

- Nash, Mary, “Dos décadas de historia de las mujeres en España: una reconsideración”, *Historia Social*, 9. zkoa., 1991, 137-161.
- Nash, Mary eta Marre, Diana (ed.), *El desafío de la diferencia: representaciones culturales e identidades de género, raza y clase*, UPV/EHU, Bilbo, 2003.
- Nash, Mary, *Treballadores: un segle de treball femení a Catalunya (1900-2000)*; Generalitat de Catalunya, Bartzelona, 2010.
- Nash, Mary (ed.), *Feminidades y masculinidades. Arquetipos y prácticas de género*, Alianza, Madril, 2014.
- Neila Hernández, José Luis, “La construcción del otro”, *Tiempo Devorado. Revista de Historia Actual*, 1. zkoa., 2016, 167-172.
- Olaizola, Haizea, “The Alarde: Cultural Memory in Conflict”, Master of Arts in Literary Studies – Literature and Culture: Specialization Comparative Literature at the University of Amsterdam, 2017.
- Ordaz Sánchez, Lidia Rosa, “La historia del presente y el conocimiento histórico”, *Historia Actual Online*, 29. zkoa., 2012, 133-140.
- Oviedo Silva, David, “Subalternidad e informacionalismo: proyecciones en teoría de la historia desde sociedades periféricas”, *Historia Actual Online*, 9. zkoa., 2006, 181-191.
- Pérez Álvarez, Gonzalo, “Por una historia de (hacia) el futuro”, *Historia Actual Online*, 45. zkoa., 2018, 157-169.
- Pérez Serrano, Julio, “La historia continúa”, *Historia Actual Online*, 1. zkoa., 2003, 7-9.
- Platero, Raquel (koord.), *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Melusina, Bartzelona, 2008.
- Portelli, Alessandro, ¿Historia oral? Historia y memoria: la muerte de Luigi Trastulli”, *Historia y Fuente Oral*, 1. zkoa., 1989, 5-32.
- Portelli, Alessandro, “What Makes Oral History Different”, Robert Perks eta y Alistair Thomson (ed.): *The Oral History Reader*, Londres, Routledge, 1998.
- Ramos Palomo, Dolores, “Historia de las mujeres y género. Una morada a la época contemporánea”, *Revista de historiografía*, 22. zkoa., 2015, 211-233.

- Rich, Adrienne, *Nacemos de mujer. La maternidad como experiencia e institución*, Cátedra, Madril, 1996 [1976].
- Rivera Blanco, Antonio, “El PSOE, la cuestión territorial y los nacionalistas”, Moreno Luzón, Javier (koord.) *Izquierdas y nacionalismos en la España contemporánea*, Fundación Pablo Iglesias, Madril, 2011, 119-140.
- Rivera Blanco, Antonio eta Beramendi, Justo G., “El análisis de los procesos de nacionalización y las identidades nacionales en España”, Luengo Teixidor, Félix Juan eta Molina Aparicio, Fernando (zuz.), *Factores de nacionalización en la sociedad española contemporánea*, Valentín de Foronda, Gasteiz, 2015.
- Roda Alcantud, Cristina, “Formas de vida y sociabilidad en un pueblo costero a través de la memoria y la imagen”, *Historia Actual Online*, 27. zkia., 2012, 177-188
- Rubio, Fini, *Marxismo y liberación de la mujer*, Dédalo, Madril, 1977.
- Rubio Pobes, Coro (zuz.), *El laberinto de la representación: partidos y culturas políticas en el País Vasco y Navarra (1875-2020)*, Tecnos, Madril, 2021.
- Sánchez González, Juan, “Sobre la memoria. El pasado presente en los medios de comunicación”, *Historia Actual Online*, 4. zkia., 2004, 153-163.
- Scott, James C., *Los dominados y el arte de la resistencia*, Mexiko, Era, 2004
- Scott, Joan W., “Sobre lenguaje, el género y la historia de la clase obrera”, *Historia Social*, 4. zkia., 1989, 81-98.
- Scott, Joan W., “El género: una categoría útil para el análisis histórico”, Amelang, James S. eta Nash, Mary (ed.), *Historia y género: las mujeres en la Europa moderna y contemporánea*, Diputació de València. Institució Alfons el Magànim, Valentzia, 1990 [1986], 23-58.
- Scott, Joan W., “Experiencia”, *Revista de estudios de género: La Ventana*, 2. bol., 13. zkia., 2001 [1992], 42-74.
- Scott, Joan W., “Género: ¿Todavía una categoría útil para el análisis?”, Universidad del Valle, Centro de Estudios de Género, Mujer y Sociedad, 2011 [publikazio elektronikoa].
- Silvestri, Leonor, *Primavera con Monique Wittig. El devenir lesbiano con el dildo en la mano de Spinoza transfeminista*, Queen Ludd, Buenos Aires, 2019.

- Soto Gamboa, Ángel, “Historia del presente: estado de la cuestión y conceptualización”, *Historia Actual Online*, 3. zkia., 2004, 101-116.
- Spivak, Gayatri Chakravorty, *¿Pueden hablar los subalternos?*, MACBA, Bartzelona, 2009 [1985].
- Spivak, Gayatri Chakravorty, *Otras Asias*, Akal, Madril, 2012 [2008].
- Suau, Jaume, “El presente en clave histórica”, *Tiempo Devorado. Revista de Historia Actual*, 1. zkia., 2016, 152-166.
- Thompson, E. P., *Costumbres en común*, Crítica, Bartzelona, 1995 [1991].
- Ugalde, Mercedes, *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Universidad del País Vasco, Bilbo, 1993.
- Urretabizkaia, Arantxa, *Bidean ikasia*, Pamiela, Iruñea, 2016.
- Wallerstein, Immanuel eta Balibar, Étienne, *Raza, nación y clase*, Iepala, Madril, 1991 [1988].
- Wilhelmi, Gonzalo, *Romper el consenso. La izquierda radical en la Transición española (1975-1982)*, Siglo XXI, Madril, 2016.
- Wittig, Monique, *Pentsamendu heterozuzena*, Susa, Zarautz, 2017 [1980].
- Zaragoza, Juan Manuel eta Moscoso, Javier, “Presentación: comunidades emocionales y cambio social”, *Revista de Estudios Sociales*, 62. zkia, 2017.
- Zenbaiten Artean, *Los Alardes: una perspectiva jurídica. Libertad e igualdad en las relaciones entre particulares*, Irungo Kasinoa, Irun, 2000.

ANTOLAKUNTZEN LISTA ETA SIGLAK

AF	Alarde Fundazioa
BAA	Betiko Aldekoaren Aldekoak
BAE	Bidasoaldeko Emakumeak
CCOO	Comisiones Obreras
CGPJ	Consejo General del Poder Judicial
EA	Eusko Alkartasuna
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EAE	Eusko Abertzale Ekintza
EB	Ezker Batua
EB-B/A	Ezker Batua-Berdeak eta Aralar
EAJ	Eusko Alderdi Jeltzalea
EE	Euskadiko Ezkerra
EGI	Euzko Gaztegi
EH	Euskal Herritarrok
EHAK	Euskal Herriko Alderdi Komunista
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea
ETA	Euskadi Ta Askatasuna
ETB	Euskal Telebista
GAL	Grupos Antiterroristas de Liberación
HB	Herri Batasuna
KAS	Koordinadora Abertzale Sozialista
LAB	Langile Abertzaleen Batzordeak
PAT	Partido del Alarde Tradicional
PNV	Partido Nacionalista Vasco
PSE	Partido Socialista de Euskadi
PSOE	Partido Socialista Obrero Español

PP	Partido Popular
TS	Tribunal Supremo
TSJPV	Tribunal Superior de Justicia del País Vasco
UA	Unidad Alavesa
UCI	Uranzu Candidatura Independiente
UEU	Udako Euskal Unibertsitatea

ERANSKINAK

ALEJANDRO (PSEUDONIMO)

50eko hamarkadan jaio zen Hondarribiko familia arrantzale batean. Alardean txikitatik desfilatzen du eta gaur egun ere Hondarribiko Alarde tradizionalako parte eta defendatzaile da.

ANDER (PSEUDONIMO)

1989an jaio zen Hondarribian eta txikitatik desfilatu izan du Alardean. Familia emakumeak Alardean ateratzearen kontra izan du eta berak ere urte askotan konpartitu izan du jarrera hori. Egun, gizonez osaturiko Alardean desfilatzen badu ere emakumeek Alardean ateratzeko eskubidea dutela pentsatzen du.

ENEKO ARZUAGA IRIDOI

1998an jaio zen Hondarribian eta urte horretan bertan atera zen bere ama Jaizkibel konpainian desfilatzen. Sei urte inguru zituela atera zen lehen aldiz kubero Jaizkibel konpainian eta ordutik urtero desfilatzen du.

ESTHER (PSEUDONIMO)

70eko hamarkada amaieran Irunen jaio zen, txikitan Hondarribira bizitzera joan zelarik familiarekin eta ondoren gaur egun Irunen bizi da eta Alarde mistoan desfilatzen du.

ESTITXU URBINA PASTOR

1990ean jaio zen Irunen eta 18 urtetatik Irungo Alarde mistoan desfilatzen du.

FERMIN MUGURUZA

1963an Irunen jaio zen eta musikagintzan, zinemagintzan eta kulturgintzan aritu izan da. Kortatu eta Negu Gorriak taldeen abeslari izan zen, eta 1996ko Irungo Alarde egunean emakumeen alde egin zuen. Geroztik, kanpoan ez badago, Irungo Alarde mistoan eta Hondarribiko Jaizkibel konpainian desfilatzen du. 1998tik 2008ra arte Bidasoaldean ez du kontzerturik eman, bere aburuz, gatazka honetan posizio hartzeagatik.

GARAZI HERNANDEZ

1992an Irunen jaio zen eta hamalau urterekin Irungo Alarde mistoan desfilatzen hasi zen.

GEMA SAGARZAZU

50eko hamarkadan Hondarribian jaio zen eta bertan bizi da. Ofizioz irakaslea. 1996an Hondarribiko Alardean soldaduz jantzita sartu zen, eta geroztik Juana Mugarrietako taldean eta Jaizkibel konpainian desfilatzen du.

HAIZEA GALARRAGA LOPETEGI

Hondarribian jaio zen 1986an. Ama 1997an hasi zen Jaizkibel konpainian desfilatzen eta alde horretatik bizi izan zuen txikia zenean eta nerabetan gatazka. 17 urte inguru zituela atera zen lehen aldiz bera Irungo Alarde mistoan eta jarraian Hondarribiko Jaizkibel konpainian.

IDOIA ZUBELDIA

60ko hamarkadan Irunen jaio zen eta bertan irakasle izan da. 1996ko Irungo Alardean soldaduz sartu zen, eta geroztik Irungo Alarde mistoan eta Hondarribiko Jaizkibel konpainian desfilatzen du.

IMANOL OLAIZOLA

1968an Hondarribian jaio zen, aita arrantzalea zuen eta berak ere lanbide horretan dihardu. Alardean desfilatzen zuen 1996an emakumeak sartu zirenean, eta lehen inpresioa traumatikoa, arraroa eta fuertea bezala deskribatzen badu ere, berehala emakumeak Alardean ateratzearen alde posizio hartu zuen. 1999tik espetxean bost urte pasa zituen ETAko kideak muga pasatzen laguntzeaz akusaturik. Espetxetik atera zenetik Jaizkibel konpainian desfilatzen du.

IXABEL ALKAIN ETXEBERRIA

1962an jaio zen hondarribiarra da. 1983an Hondarribiko Alardeko Danborrada konpainian kantinera atera zen. 1996ko Irungo eta Hondarribiko Alardeetan soldaduz sartu ziren emakumeetako bat izan zen, Bidasoaldeko Emakumeen koordinadorearen eta

Juana Mugarrietakoaren parte eta urte luzez Hondarribiko Jaizkibel konpainia mistoko kapitaina. Aita arrantzalea zuen eta konfliktoan familiaren babesa izan du. Herrian pertsona oso seinalatua izan da eta bizitza egitea ezinezko egin diote. Alardeko konfliktoaren eraginez hiru aldiz ospitalean bukatu zuen, Alarde tradizionalaren aldekoen eta ertzainen kolpeen ondorioz.

JON ALKAIN ETXEBERRIA

50. hamarkadan jaio zen, Hondarribian. Ixabel Alkain Etxeberriaen anai bezala aurkezten du bere burua eta hiru urte zituenetik desfilatzen du Alardean. 1996an emakumeak Alardeko Kosta konpainian sartzen saiatu zirenean bera jakinaren gainean zegoen Kostan desfilatzen eta barrutik laguntzen saiatu zen. Hurrengo urtetik aurrera Jaizkibel konpainia mistoan desfilatu izan du.

JON MIRANDA LABAIEN

1977an Irungo Anaka auzoan jaio zen. Alardezalea, baina gatazka sortu arte ez zuen Alardean desfilatzen. Ordutik Irungo Alarde mistoan eta Hondarribiko Jaizkibel konpainian desfilatzen du.

JOSE RAMÓN URIZ ZURUTUZA

1970eko hamarkadan Irunen jaio zen, baina 2006tik Hondarribian bizi da. Gaztetatik Irungo Alardean desfilatzen du eta azken urteetan baita Hondarribiko Alardean ere. Herri bakoitzean bi Alarde egotearen aldekoa da, bakoitzak nahi duen bezala jai bizitzeko eta Alarde tradizionala ez aldatzeko.

JOXE MARI (PSEUDONIMO)

Hondarribiko arrantzale jubilatua da eta 12 urte zituenetik Hondarribiko Alardean desfilatu izan du, txikitatik bizi izan duen tradizio eta festa gisa definituz Alardea.

JUANTXI UGARTE LOPETEGI

60ko hamarkadan jaio zen Irunen eta hamahiru urterekin hasi zen bere auzoko konpainian desfilatzen, Anakako konpainian. Konfliktoa sortu zenetik emakumeak Alardean ateratzearen aldekoa da eta 1997an unitate berezian eta 1998tik aurrera Alarde mistoan eta Oiasso konpainian desfilatu izan du.

KARMELE TOLOSA ERRO

Irundarra da, Meaka auzokoa eta betidanik alardezale eta feministatzat du bere burua. 90eko hamarkadatik Irundik kanpo bizi da. 1996an Irungo Alardean emakumeak sartu zirenean espaloitik txalotu zituen, 1997ko Irunen sortu zen unitate berezi mistoan desfilatu zuen soldadu gisa eta ondorengo Alarde mistoetan mando postuetan irten zen. Hondarribiko Jaizkibel konpainian, konfliktoaren lehen urteetan ere desfilatu zuen.

KOTTE SUSPERREGI AIZPURUA

1969an Hondarribian jaio zen eta irakaskuntza munduan dabil. Txikitari Alarde egunean erredoblea jotzea gustatzen zitzaion, eta 1996ko Hondarribiko Alardean soldaduz jantzita sartzen saiatu zen. Juana Mugarrietakoa taldean antolatu zen eta geroztik erredoblea jotzen du Hondarribiko Jaizkibel konpainian.

MAGGI BULLEN

Ingalaterran jaio zen 1964ean baina 1991an Bidasoaldera bizitzera etorri zen. Antropologoa da eta 1996ko gatazkak bertan harrapatu zuen eta hori ikertzeari ekin zion berehala. Ikerketa eta publikazio asko ditu Alardeen konfliktoaren inguruan, nire tesirako oso baliagarri egin zaizkidanak. 2010eko hamarkadatik Irungo Alarde mistoan desfilatzen du eta azken urteetan Hondarribiko Jaizkibel konpainian ere.

MARIA (PSEUDONIMO)

1959an Hondarribiko arrantzale familia eta auzoan jaio zen. Gaztetan Hondarribiko Alardean kantineara atera zen, eta 1996an Irungo Alardean sartu ziren emakumeen kontrako erreakzioa ikusita, Hondarribiko Alardean sartzeko beharrean ikusi zuen bere burua. Juana Mugarrietako taldearen parte izan zen eta Hondarribiko Jaizkibel konpainian desfilatu izan du. Herrian oso markatua, eta indarkeria horri ihes egiteko hiru urtez herritik kanpo bizi izan zen, urte horietan bueltatu ez zelarik.

MARIA JESUS BERROTARAN ETXEBERRIA

50eko hamarkadan Hondarribiko baserri batean jaio zen eta herriko lehen udal polizia izan zen. Emeki Emakume Elkartearen sorrerako bultzatzailea eta Alardean atera nahi zuen emakumea. Juana Mugarrietako parte eta Jaizkibel konpainian desfilatutakoa.

MAITE (PSEUDONIMO)

40ko hamarkadan Donostian jaiotako hondarribiarra da. Mugimendu feministan ibilitakoa, Alardean emakumeak ateratzearen bultzatzaile eta 1996an Hondarribiko Alardean soldaduz sartu zenetako bat. Egun hartatik aurrera herriko bizitza guztiz aldarazi zioten.

MAITE IRAOLA

1960an Hondarribiko alde zaharrea jaio zen eta herriko farmazia batean lan egiten du. Emakumeak Alardean ateratzearen gaia planteatu zenean alde azaldu zen hasieratik eta Jaizkibel konpainia mistoan desfilatzen du. Ahizpa 1996an Hondarribiko Alardean soldaduz sartu zen, eta hortik aurrera haien familian gatazkak izan dituzte. Farmaziari behin baino gehiagotan pintura eta beste objektuak bota izan dizkiote, boikota egitearekin batera.

MAITE VERGARA IRAETA

1971ean Irunen jaio zen, eta 35 urte zituela erabaki zuen Irungo Alarde mistoan eta Hondarribiko Jaizkibel konpainian desfilatzea, nahiz eta lehenagotik emakumeak Alardean ateratzearen alde egon. Gatazkaren lehen urteetan bere osaba Alardeko jenerala zen, eta emakumeak Alardean ateratzearen kontra egin ondoren, ez du harremanik familiaren zati batekin. 2019ko Irungo Alarde mistoan jenerala izan zen.

MARIPI SOLBES

1958an Irunen jaio zen. 21 urterekin Irungo Alardeko arratsaldeko desfilean soldaduz desfilatu zuen lagun batekin, eta 2003an alaba zaharrenarekin Irungo Alarde mistoan desfilatzen hasi zen. Hondarribiko Jaizkibel konpainian ere desfilatu izan du, eta bere pentsaera eta posizioak gatazkak ekarri izan dizkio familian.

MERTXE TRANCHE

Irunen jaio zen eta BAEko kide izan zen koordinadora sortu zenetik. Emakumeak Alardean desfilatzearen alde lan egin zuen hasieratik eta BAEko aurpegi ezagunenetakoa izan zen. Historialaria eta bibliotekaria da eta Alardearen inguruan ikertu eta idatzi izan du.

NEREA (PSEUDONIMO)

1990ean jaio zen Hondarribian. Gatazka lehertu zenean sei urte zituen eta bere gurasoek hasieratik emakumeen aldeko posizioa hartu zuten. Nereak pare bat urtez Jaizkibel konpainian desfilatu bazuen ere, 18 urte inguru zituenean, ez zaio egun hori gustatzen, batez ere oroitzapen txarrak gordetzen dituelako oraindik ere.

OIHANA ETXEBARRIETA LEGRAND

1987an jaio zen Hondarribian. Gurasoak emakumeak Alardeetan irtetearen aldekoak zituen, lagunak kontra ordea. Hemezortzi urte ingururekin Irungo Alarde mistoan desfilatu zuen eta ondoren Jaizkibel konpainian. Irungo Bilgune Feministako kidea izan zen.

PEIO TRANCHE

Irunen jaio zen 60. hamarkadan eta hamalau urtetatik desfilatu du Irungo Alardean. Mertxe Trancheren anaia da eta gatazka lehertu zenetik emakumeek Alardean soldaduz desfilatzearen alde dago. 1998an irten zen lehen aldiz Irungo Alarde mistoan.

ROSA (PSEUDONIMO)

50eko hamarkadan jaio zen Donostian, baina Hondarribian bizi da 80ko hamarkadatik. Emakumeak Alardean ateratzearen alde posizio hartu zuen gaia planteatu zenean, eta nahiz eta inoiz ez desfilatu, horren aldeko antolakuntzan ibili da Juana Mugarrietakoa eta Jaizkibel konpainian.

TOMAS ELGORRIAGA

1963an jaio zen Hondarribian eta hamalau urterekin hasi zen Alardean desfilatzen. Hondarribiko HBko zinegotzi izan zen 1991tik 1995era. 1998an atxilotu zuten ETari laguntza emateaz akusatuta, 1999an ihes egin zuen eta herria itzuli zenerako hemezortzi urte eman zituen kanpoan, ezkutaturik eta preso.

TXARO ARTEAGA ANSA

1944an jaio zen eta kazetaria izanik hogeita bost urtez Donostiako Herri Irratian lan egin zuen. Ondoren, 1988tik 1999ra arte Emakundeko zuzendaria izan zen,

feministatzat du bere burua eta Alardeen gatazkan paper esanguratsu eta protagonista izan du.

XABI BENGOETXEA ERRIONDO

1984ean jaio zen, Hondarribian. Alardea ez zaio inoiz gehiegi interesatu baina gurasoek emakumeek desfilatzearen alde hasieratik posizio hartzeak bere gain eragina izan zuen. Herri mugimenduan ibilia eta Jaizkibelen desfilatzen du.

XABIER KEREXETA ERRO

1964ean jaio zen Irungo Meaka auzoko baserri batean. Historialaria ofizioz, Alardearen inguruan ikerketak egin ditu eta Alardean gaztetatik desfilatu izan du. Emakumeak Alardean sartu zirenetik Irungo Alarde mistoan desfilatzen du.